

Colección  
**MENDAUR**  
bilduma

**IX**



Perpetua Saragueta:  
eskuidatziak eta hiztegia  
Andres Iñigo



Colección **MENDAUR** bilduma

**IX**



**Perpetua Saragueta:  
eskuidatziak eta hiztegia**

Andres Iñigo







Colección MENDAUR bilduma

IX

Perpetua Saragueta:  
eskuidatziak eta hiztegia

Andres Iñigo



Iñigo Ariztegi, Andres (1945-)

Perpetua Saragueta : eskuidatziak eta hiztegia / Andres Iñigo Ariztegi – Iruña : Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua ; Bilbo : Euskaltzaindia, 2011. – (Mendaur ; 9) orr. ; cm.

L.G. NA. 1544-2011

ISBN 978-84-235-3250-6

I. Nafarroa (Foru Komunitatea). Hezkuntza Departamentua. II. Euskaltzaindia III. Mendaur (Euskaltzaindia)

Liburuaren izenburua: Perpetua Saragueta: eskuidatziak eta hiztegia

Liburuaren egilea: Andres Iñigo Ariztegi

Ama eta amatxiri: Maite Urtasun Saragueta

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Argazkiak: Familiakoak

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.  
San Miguel industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-235-3250-6

Lege gordailua: NA 1544-2011

#### **Nafarroako Gobernua**

Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fundoa

Navas de Tolosa kalea, 21

31002 IRUÑA

Tf.: 848427121

Faxa: 848427123

fondo.publicaciones@navarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

\*\*\*\*

#### **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel.: 94 415 81 55

Faxa: 94 415 81 44

info@euskaltzaindia.net

www.euskaltzaindia.net

Perpetuaren alaba eta bilobei,  
ama eta amaxiren oroitzapen bizia.

Maite eta Jesus Alfontsoi esker onez.





Perpetua 1934an.

*Idatziko ditut oroitzen naizen gauza guziak  
deus utzi gabe...*

*Nai nuke nere alaben ume guziek iakin dezaten  
zerbait, beren amatxik igaro dituen zailtasunak eta  
ezagutu dezaten ez dela bizia berek izan dutena  
bezain ona...*

*Bai eta ere nai dut berek, nere billobek, ikasi  
dezaten nere euskera bera itz egiten, irakurtzen eta  
idazten.*





# AURKIBIDEA

<b>Ama eta amatxiri, Maite Urtasun Saragueta.</b> . . . . .	5
<b>Sarrera</b> . . . . .	7
<b>1. Eskuidatziak</b> . . . . .	13
1.1. Neure oroimenak . . . . .	15
Itzaurrea . . . . .	15
Eta nik asi bear dut . . . . .	15
Mezkiritzko erria . . . . .	16
Mezkiritzko lezeak . . . . .	18
Altzine oiturekin. . . . .	20
Orai erriko gizonenak. . . . .	20
Eta ni mundura etortzeko tenorea etorri ze . . . . .	22
Oitura . . . . .	23
Pilotari xarra xaxari on. . . . .	24
Bertze oitura bat. . . . .	24
Mezkiritzko etxe eta barrideak. . . . .	25
Nere amatxiren abestiak. . . . .	27
Berriz abesti geiago . . . . .	28
Oitura batzuk geiago eta gertaera bat. . . . .	29
Nere aitaxin ondar egunak . . . . .	30
Gertaera geiago . . . . .	32
Oitura bat . . . . .	32
D. Manuelen eskola eta eliza . . . . .	33
Orai gertaera negar eginazi ziguna. . . . .	36
Berriketak. . . . .	37
Oitura batzuk . . . . .	39

Bertze gauza batzuk Mezkiritzkoak . . . . .	42
Orai Mezkiritzko bertze oitura batzuk . . . . .	46
Sorogaingo uneintza . . . . .	52
Gure ezkontza . . . . .	58
Iruritako gauzak . . . . .	62
Sorginkeriak . . . . .	72
Gerra eta gorrotoko ilundurak . . . . .	73
Orai gauza geiago erran bear dut . . . . .	78
Orai berriz nere senarrain gauza batzuk . . . . .	81
Eta altzina berriz neure gertaera edo abesti edo ateratzen den guzia- rekin . . . . .	85
Seaskatxo baten kontua . . . . .	86
Oitura geiago . . . . .	88
Orai bertze oitura zenbait gelditu dena idazteko . . . . .	90
Altzina Mezkiritzko kontuekin . . . . .	97
Mezkiritzko bordak . . . . .	101
Uretako gauza batzuk . . . . .	102
Gertaera batzuk . . . . .	103
Meatza kontua . . . . .	104
Konzilioaz . . . . .	112
1.2. Indar aundiko emakumeak . . . . .	117
Itzaurea . . . . .	117
Au da lemexikoa: Maria Ana Sanz . . . . .	119
Bigarren emakumea: Petra . . . . .	123
Irugarren emakumea . . . . .	126
Laugarren emakumea . . . . .	127
Bortzgarren emakumea . . . . .	128
Seigarren emakumea . . . . .	129
Zazpigarren emakume indartsua . . . . .	129
Zortzigarren emakumea . . . . .	130
Bederatzigarren emakumea . . . . .	131
Amargarren emakumea . . . . .	133
Amekagarren emakumea . . . . .	134
Amabigarren emakumea . . . . .	135
Amairugarren emakumea . . . . .	137
Amalauagarren emakumea . . . . .	139
Amabortzgarren emakumea . . . . .	140

Amaseigarren emakumea . . . . .	140
Amazazpigarren emakumea . . . . .	142
Emezortzigarren emakumea . . . . .	144
Emeretzi eta ogeigarren emakumeak . . . . .	145
Ogeite batgarren emakumeak . . . . .	146
Ogeite bigarren emakumea . . . . .	147
Ogeite irugarren emakumea . . . . .	149
Ogeite laugarren emakumea . . . . .	152
Ogeita bortzgarren emakumea . . . . .	153
Ogeita seigarren emakumea . . . . .	154
Ogeite zazpigarren emakumea . . . . .	155
Ogeite zortzigarren emakumea . . . . .	156
Ogeite bederatzigarren emakumea . . . . .	158
Ogeite amargarren emakumea . . . . .	159
Ogeite amekagarren emakumea . . . . .	160
Ogeita amabigarren emakumea: Graxiana Adame . . . . .	162
Ogeita amairugarren emakumea: Bartolo eta Martina . . . . .	163
Ogeita amalauugarren emakumea . . . . .	164
Ogeite amabortzgarren emakumea . . . . .	165
Ogeite amaseigarren emakumea . . . . .	166
Ogeita amazazpigarren emakumea . . . . .	167
Ogeita emezortzigarren emakumea . . . . .	168
Ogeite emeretzigarren emakumea . . . . .	169
Berrogeigarren emakumea . . . . .	170
Berrogei eta batgarren emakumea: Juliana . . . . .	171
Berrogeita bigarren emakumea: Maria . . . . .	172
Berrogeita irugarren emakumea: Teresa . . . . .	174
Berrogeita laugarren emakumea: Franziska . . . . .	175
Berrogeite bortzgarren emakumea: Antoni . . . . .	176
Berrogeite seigarren emakumea . . . . .	178
Berrogeite zazpigarren emakumea . . . . .	179
1.3. Bertsoak . . . . .	181
Egiaren bila . . . . .	181
Urteko lendabixiko lau illebetei . . . . .	181
Sanjuanetan eta Sanmigeletan . . . . .	184
Mezkirizko inguruaz . . . . .	187

<b>2. Hiztegia</b> .....	193
<b>Eranskinak</b> .....	297
<i>Eskualduna</i> aldizkaritik:	
– Mezkiritz (1930) .....	298
– Mezkiritz (1930) .....	300
<i>Argia</i> aldizkaritik:	
– Arizkun (1930) .....	301
– Arizkun (1931) .....	302
– Mezkiritz (1931) .....	304
– Mezkiritz (1931) .....	305
– Arizkun (1931) .....	307
<b>Bibliografia</b> .....	309



Perpetua 1980an.

## AMA ETA AMATXIRI

Ama eta amatxi maitea:

Orain burutu den prozesu hau duela 35 urte, ohi zenuen jarrera eta eskuzabal-tasun osoz, Jose Mari Satrustegirekin hasitako elkarlanaren amaiera da. Zenbat ordu grabaketa eta elkarrizketetan, bai Iruñean bai Mezkiritzen!

Gainera, egonaldi haietan aitetxi Trinik, bere adigalkor itxuragatik eszenatik kanpo egoten zela ematen bazuen ere, parte hartze zuzena izan zuen, zegozkion pasartee-tan ohar zehatzak tartekatuz, hizpideko gaiak hurbil-hurbiletik bizitu izan baitzituen.

Gero, idazkerarako zaletasuna berreskuratu zenuen, zure inguruko guztien animo eta babesarekin, baita Jose Marirenarekin ere. Urruti ikusten zenituen zori-tzarrez moztuta gelditu ziren zure berriemaile garaiak euskal aldizkari eta argitalpe-netan. Baina gogotsu ekin zenion berriz zeregin horri, errauts beroek estalitako suak bizirik irauten zuen nonbait... Beharbada familia zabalarekin etengabe izan zenuen postazko harremanak mantendu zuen zugan beti izan zenuen idazteko grina.

Kontua da, *Neure Oroimenak* izenburupeko bilduma sortu zenuela, zure sortere-riko ohituren erretratu bizia ematearekin batera, bilobei ere zure belaunaldian bizi izan zenituen pozak eta nekeak kontatzeko asmoz. Zure antzinakoetatik jaso eta

hainbertze maite zenuen euskarari irakur zezaten desiratzen zenuen. Orrialde horietan zure oroimen guztiak isuri zenituen, modu errazean eta,aldi berean, kontu handiz, inolako saltsa eta liskarretan sartu nahi izan gabe, ongi baitzenekien herrietako kontuek bazterrak nahasteko arriskua ere sortzen ahal dutela.

*Neure Oroimenak* akitu ondoren, aspaldiko proiektu zahar bati ekin zenion: zuretzat bizi eredu-garria izan zuten emakumeen bizitzak idatziz kontatzeari. Zeure burua zerrenda horretatik kanpo utzi bazenuen ere, ongi dakigu merezimenduz emakume horien artean lehena izaten ahal zinela.

Deskribapen horietan gaur egun indarrean ez dauden baloreak gorai-patzen dituzu, zuretzat eta zure garaikoentzat, emakumeentzat bereziki, biziaren oinarri eta sostengua izan zirenak. Argi erakusten dute zure kristau heziketa sendoa, bizi osoan zehar inolako integritate eta zorrotasunik gabe mantendu zenuena, beti agerian utziz zure urrezko araua: etxeko eta gainerako guztiekiko maitasuna.

Orain Andres Iñigo Ariztegi, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariaren lanari esker, bai eta ordezkatzeko duen Erakundeari eta Nafarroako Gobernuaren babesari esker, zure idazkiak argitaratzeko garaia iritsi da. Bidezkoa zaigu Iñigo euskaltzainari eta lan honetan parte hartu duten guztiei eskerrak ematea.

Aitexi, Mirentxu eta Garbiñekin batera zauden toki horretan pozez beteak irudikatzen zaitugu. Gu ere, hemen, ezin kontentago eta harrotasunez beteak, zure idatzien liburua eskuetan dugula eta zure begi urdinen irudi garbi eta goxoa gure begien aitzinean.

Zure baimenarekin amatxi, lerro hauek finitzeko gure amankomuneko lagun batek bere gurasoei eskainitako hitzak ekarri nahi ditugu gogora, ezin aproposagoak iruditzen baitzaizkigu zuei ere eskaintzeko:

*“... baina Jainkoak presa zuen haiek hurbil eramateko. Haiek utzitako hutsuneak min egiten du, baina ez dago hustua. Bizitzan ikasi eta sentitu dugun hoberena beraiekin hasi zen. Maitasuna, samurtasuna, eta Jainkoaren barkamena sumatzea erraza egin zait; nire Lurra kuttuna egin zait eta Justizia hurbila; idealik handienak eguneroko bizian aurkitu ditut; konturatu naiz posible dela iraungintzen diren ondasunak baino ikusten ez direnak hobestea, eta pozez gainera. Jauna, nahikoa izanen al dugu hemengo bizi osoa egin diguzun nire gurasoen oparia behar adina eskertzeko?”<sup>1</sup>*

Esker mile.

Erroxe Miren, Lourdes, Gema eta, denen izenean, Maite.

1 M. J. Arana, *La clausura de las mujeres*, Teologia bilduma 25, Bilbo, 1992.

## SARRERA

Perpetua Saragueta Saragueta Erroibarko Mezkiritz herrian jaio zen 1905eko abuztuaren 3an eta Iruñean hil 1986ko martxoaren 26an.

*Arakiñenea* izeneko etxean sortu zen, baina erortzear omen zegoen eta handik gutxira haren ondoan egin berri zuten *Juanmigelenea* izenekora joan zen familia bizitzera. Etxe berri honen izendapena –Perpetuaren aitaxiren izenetik hartua– izan da bai Perpetuak bai bere alabek mantendu dutena, nahiz eta bertze batzuk ere erabili izan diren, hala nola, *Rikardoña* –aitaren izena– eta *Jenaroin etxea* –urte batzuz bizi izan zen koinatuarena–.

### Bizi ibilbidea

Hogeiren bat urte arte sorterrian bizi izan zen. Eskolan ibilitako epea laburra izan bazen ere –sei urtetan hasi eta hamarretan utzi behar izan baitzuen, maisurik gabe gelditu zirelako–, aitortzen zuen ongi aprobetxatutako urteak izan zirela, tokatu zitzairen behin-behineko maisuari esker. Behin-behinekoa, hain zuzen ere, Manuel Lusarreta herriko semeak, bertako apez kargua hartzean, haurrak eskolarik gabe zeudela ikusita, bere burua eskaini zuelako zeregin horretarako. Horretan aritu zen lau urtez, eta bai ongi aritu ere nonbait, eritu eta utzi behar izan zuen arte. Euskaldun peto-petoa omen zen eta maisu lanetan bikaina. Perpetuak zioenez, Lusarreta jauna izan zen ikasteko grina eta euskara balioetsi eta maitatzeko motibazioa sartu ziona. Gainera, apez eta maisu hura ahalegindu omen zen Juanmigeleneko nexka argia Iruñera bideratzen goi mailako ikasketak egin zitzaizkion, baina gurasoentzat pentsaezina zen egoera ekonomiko hartan hamahiru seme-alabetatik zaharrena kanpora igortzea, lan egitera ez baldin bazen.

Horregatik, erabat bertzelakoa izan zen Perpetuaren bizi ibilbidea. Hamar urtetik aitzina, amari etxeko lanetan ez ezik aitari ere nekazaritza eta abeltzaintza zereginetan laguntzen aritzea tokatu zitzaion maiz aski, eta, aldi berean, josten ere



ikasi zuen. Koskortu zenean, hiruzpalau urte egin zituen Iruñean neskame edo zerbitzari lanetan. Hogeita lau urte inguru zituenean, Baztango Arizkun herrira joan behar izan zuen Purificación bere amaren izeba alargundu berriari laguntzera. Izan ere, izeba hau Bozateko auzoan bizi zen, ostatu eta denda zen *Atsotenean*, eta alargun gelditzearekin bateratsu, besoa hautsi zitzaion. Etxeko martxarako hurbileko norbaiten premia larri hartan Perpetuaren laguntza eskatu zion honen amari. Han egon zen garaian ezagutu zuen Trinidad Urtasun Marturet, Iruritako Beltraneko semea, bertsolaria afizioz eta okina ofizioz. Baztanalde guztian saltzen zen Iruritako ogia eta, jakina, Perpetua Atsotenera iritsi zenez geroztik, banatze lanetan aritzen zen Trinirentzat edozein aitzaki aski izaten zen nonbait etxe hartan behar adina geldialdi egiteko.

Urte pare baten buruan ezkondu ziren, 1931ko uztailaren 22an. Ezkontza, ohi zen bezala, andreagaiaren sorterrian izan zen, baina Iruritarra ezkondu ziren. Han bizi izan ziren hamabi bat urtez. Triniren lantokia etxeko okindegia zen eta Perpetua bera ere aritu zen banatze lanetan laguntzen. Horretarako, gidabaimena atera behar izan zuen eta jasotzera joan zenean erran omen zioten Nafarroan karneta atera zuen bigarren emakumea zela. Iruritan jaio ziren bizirik iraun zuten sei alabetatik lau: Miren Laguntzane, Erroxe Miren, Garbiñe eta Lourdes. 1944an Iruñera joan ziren. Hiriburuan jaio ziren Maite eta Gema, bi alaba gazteenak, eta hemen hazi zuten familia eta bizi izan ziren bere azken urteak arte. Trinidad 1978an zendu zen eta Perpetua 1986an.

## Idazlea

Erran bezala, Mezkirizko eskolako apez-maisuak berebiziko eragina izan zuen Perpetuarengan, berarengandik jaso baitzituen bai eskolatze maila ona bai euskararekiko maitasuna. Sentimendu horrek eta euskararen alde ahalik eta gehien egiteko grinak bulkatu zuen, hain zuzen ere, euskaraz idaztera. Erran beharrik ez dago, Nafarroan garai horretan euskaraz idaztera ausartu ziren emakume bakarretakoa izan zela. Bi epe markatzen ahal dira bere idatzietan:

Lehenbizikoa, gerra aitzineko garaian egin zuen kazetari lana. Berak dioen bezala, Iruñeko *El Pensamiento Navarro* eta *La Voz de Navarra* egunkarietara igortzen zituen Mezkirizko berriak, bai eta Baionako *Eskualduna* eta Donostiako *Argia* aldizkarietara Mezkirizko eta Arizkungo kronikak. Liburu honen Eranskinak atalean txertatu ditugu –lekukotasun gisa, testuak batere egokitu gabe– azken bi aldizkari horietan argitara eman zituen batzuk eta, ikusten ahal den bezala, prosan eta bertsoetan ematen zituen berriak. Izengoitiez sinatzen zuen eta hauen artean *Aritza*

eta *Mendigibel* ageri badira ere, *Txorrondo* zen gehien erabili zuena, Mezkirizko bere sortetxea dagoen barridearen izena, alegia.

Bigarren epekoak dira, urteetan zehar eta, batik bat, bere bitzitzaren azkeneko hamarkadan idatziak utzi nahi izan zituen urte luzeetako oroitzapenak, erraterako, familiako kontuak, fede eta erlijioaren ingurukoak, sorterriko deskribapenak, gertaerak, pasadizoak, lan kontuak, zailtasunak, nekeak, mixeriak, bizipenak, bizipozak, ohiturak, esperientzia pertsonalak... Horietako zati batzuk eta egin zitzaizkion elkarrizketa eta grabazioetatik ateratako zenbait informazio plazaratu izan dira. Batzuk Etniker ikerketa lanetan Jose Mari Satrustegiren laguntzarekin, hala nola, “Mezkiritz (Erroibar)” *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian; “Mezkirizko etxe barnea” eta “Mezkirizko langintza” *Anuario de Eusko-Folklore*-n; “Nire oroimenak” eta “Trinidad Urtasun. Bertsolaria (1894-1978)” *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian. Horietaz gainera, J. M. Satrustegik argitaratu zituen “Perpetua Saragueta anderearen euskal ipuiak” *EGAN*-en. Aldizkari honetan berean eskaini zion “In Memoriam Perpetua Saragueta (1905-1986)” hilberria, eta urte batzuk geroago, 2001ean, biografia zabalagoa Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bildumaren 25. liburukian.

Baina Perpetuak idatzirik utzitako multzorik handiena argitaratu gabe egon da orain arte, bertze modu batera errateko, familiaren eskuetan gelditu zen ondarea ez da plazaratu bere osotasunean. Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmenaren barruan sortutako Mendaur bilduman argitaratzeko interesa agertu ondotik, utzi ziguten Perpetuaren alabek bere amaren ondare osoa. Hori da, hain zuzen, argitalpen honen helburua.

Perpetua Saraguetak bi koaderno handitan eta bertze zenbait koaderno txikitan bilduak utzi zituen eskuidatziak –eskuidatziak diogu, berak gehienetan *idatzi* eta batzuetan *idazki* hitzak erabiltzen dituelako, behin bakarrik ere ez *izkribu*-. Koaderno handietako batean azaltzen ditu bere oroimenak, liburu honen 1.1. atalean sartu ditugunak. Gorago aipatu ditugun argitalpenetan plazaratu ziren zenbait pasarte koaderno horretatik jasoak dira. Bigarren koaderno handian bildu zituen hurbiletik ezagutu eta pertsona miresgarritzat izan zituen berrogeita zazpi emakume indartsu eta merezimendu handikoen aipamen eta balorazioak, argitalpen honen 1.2. atalekoak. Gainerako koaderno txikietan modu informagoan jaso zuen informazioa ageri da. Ikusten denez, bertze zenbait zereginetarako ere erabiltzen zituen ohar-liburuxkak ziren eta denetik ageri da, bertzeak bertze, etxeko kontuak, brodatze lanetarako jasotzen zituen enkarguak, otoitz laburrak, hitz zerrenda solteak, tonpimoak, etxe izenak..., bai eta koaderno handietan ematen dituen informazio errepikatuek ere, aldaketa n̄imiño batzuekin. N̄abardura horiek dira, hain zuzen ere,

oin-oharretan jaso ditugunak. Liburuaren 1.3. atalean sartu ditugun bertsoak ere koaderno txikietan idatziak dira.

### Eskuidatziak transkribatzean aplikatutako irizpideak

Argitalpen honen xede nagusia Perpetua Saraguetaren eskuidatziak plazaratzea denez gero, egilearen testuak erabat errespetatu ditugu, hala nola, hitzen aldakiak eta berauen formak, hitzen gorputz fonikoak, hitz laburtuak, bustidurak, palatalizazioak, hipokoristikoak, kontsonante afrikatu eta frikarien erabilera, *h*-rik gabeko idazkera, etab. Hala ere, zenbait kasutan, irakurketa errazte aldera, egoki iruditu zaizkigun axaleko egokitzapen arrazoizkoak aplikatu ditugu. Laburbilduz, honako sailkapen honetan azaltzen ditugun irizpideen arabekoak:

- 1) Ortografiari dagokionez:
  - a) Deklinabide kasuetan, batik bat, erabiltzen duen apostrofoa (') kendu egin dugu: *Mezkiritz'ko* → *Mezkiritzko*, *Txorrondo'ko* → *Txorrondoko*, *amatxi'k* → *amatxik*, *elkarre'kin* → *elkarrekin*, *geiago'tan* → *geiagotan*, *Martin'ena* → *Martinena*, *gurasoenda'ko* → *gurasoendako*... Idazleak, bere garaiko ohituraren arabera, modu horretan ematen dituen hiru pertsonen deituretan irizpide bera aplikatu dugu: *Beortegi'tar Mikel* → *Beortegitar Mikel*, *Lusarreta* eta *Errea'tar Manuel* → *Lusarreta* eta *Erreatar Manuel*, *Urtasun'tar Simon* → *Urtasuntar Simon*.
  - b) Marra (-) ere kendu dugu, bai hitz arruntetan: *apez-piku* → *apezpiku*, *bi-biroak* → *bibiroak*, *etxeko-andre* → *etxekoandre*, *ikes-etxea* → *ikesetxea*..., bai toponimoetan: *Landa-zabal* → *Landazabal*, *Sakarte-buruan* → *Sakarteburuan*...
  - c) Gainerako zeinu grafikoak: komak, puntuak, puntu eta komak, puntu eta paragrafo berria etab., neurri batean bederen, egungo erabilerara egokitzen saiatu gara, jatorrizko testua gaurko irakurleari ahalik eta argien eskaintzearren. Halaber, galdera eta harridura markak ere egokitu dira: *¿Nor etorri ze?* → *Nor etorri ze?*, *¡Guk ere bai!* → *Guk ere bai!*
  - d) Letra moldeei dagokienez, irizpide hau aplikatu dugu:
    - Letra xehera aldatu ditugu egileak eskuidatzietan letra larriz eman dituen hitz arruntak: *Eliza* → *eliza*, *Euskara* → *euskara*, *Sakramentuak* → *sakramentuak*...
    - Letra larrira, berriz, letra xehez ageri diren izen bereziak: *baztan* → *Baztan*, *sakarte* → *Sakarte*...

- Letra etzanez transkribatu ditugu kantak, bertsoak, esapideak, otoitz labur-  
rrak edota otoitzen izenburuak (*aitagurea, aitaren egitea...*), baita bertze  
hizkuntzetan ematen dituen izenburu batzuk ere, erraterako, latinezko  
*angelus, gaztelaniazko cantinas escolares, corbata, paracaidas...* etab.
- e) Behin edo bertze, egilearen eskuidatzietan akats mekanikoak antzeman  
ditugunean, bertzerik gabe zuzendu ditugu, bai izen berezietan: *Etxbarne*  
→ *Etxebarne, Oreaga* → *Orreaga, Tarzasio* → *Tarsizio, Zaide* → *Zaire...*  
baita izen arruntetan ere: *aibertze* → *ainbertze, artaiña* → *artzaiña, berte*  
→ *bertze, etzera* → *etxera, entun* → *entzun, eraten dut* → *erraten dut,*  
*erratan du* → *erraten du, iruentan* → *iruetan, laiter* → *laister, makura-*  
*gokoa* → *makurragokoa, norbai* → *norbait, pozoz betea* → *pozez betea,*  
*senido* → *senide...*
- f) Bereizirik ematen dituen zenbait hitz, deklinabide kasuetan batik bat, lotu  
egin ditugu: *amar etaik* → *amarretaik, umen dako* → *umendako, tikien*  
*eraño* → *tikieneraño...* Modu berean jokatu dugu bertze zenbaitetan ere:  
*pollita gorik* → *pollitagorik, uda berria* → *udaberria, egin alak* → *egina-*  
*lak, etxeko andre* → *etxekoandre* eta abarretan.
- g) Aldiz, egileak lotuak idatzitako batzuk bereizi egin ditugu, erraterako: *al-*  
*debat* → *alde bat, bearda* → *bear da, bearzuten* → *bear zuten, naidut* →  
*nai dut, naiguzia* → *nai guzia, izenda* → *izen da...* Hitzen gorputz fonikoak,  
ordea, ez ditugu bereizi ezta aldatu ere: *beartzuelaik, etzagon, etze, etzekie,*  
*etzezala, etzigu, etzirala, etzire, etzue, etzutela, eztakigu, eztakit, iltze...*,  
ahozko euskararen ezaugarri garrantzitsua izateaz gain, ez delako beti erraz  
izaten zuzenketak egiteko irizpidea ongi aplikatzea.
- h) Egileak orokorrean euskal ortografian idatzi bazuen ere, badira erdal orto-  
grafian ageri diren hitz solte batzuk. Horrelakoetan, testuaren koherentzia  
kontuan hartuz, automatikoki aplikatu ditugu egokitzapenak, hala nola, *ch*  
→ *tx* (*lenchago* → *lentxago*), *c* → *z* (*gucia* → *guzia*), *mb* → *nb* (*dembora*  
→ *denbora*)...
- i) Aipatzekoa da <i>, <g>, <j> eta <y> grafemek testuetan duten maiztasuna  
eta tratamendua. <y> soinua erabat arrunta da eta gordetzen diren graba-  
zioetan egiaztatzen ahal da, baina egileak idaztean ez zuen ia-ia inoiz ho-  
rrela jaso. Kasu batzuetan <i> bihurtu zuen eta bertze batzuetan <j>. Horregatik,  
behin bakarrik ageri diren *iyen, mayatz* edota *yabea* formak, gainerako aldi  
guztietan idatzi zituen *ien, maiatz* eta *iabea* formetara ego-  
kitu ditugu. Antzeko maiztasunarekin ageri diren aldakiekin ere irizpide  
bera aplikatu dugu, *jabe* → *iabe, jakin* → *iakin, jan* → *ian, yautsi* →  
*iautsi, jo* → *io, jostatu* → *iostatu*. Bertze zenbait hitzetan beti grafema bera

erabili duenez gero, ez zaigu arazorik planteatu, erraterako: *iaiki, iarri, iautsi, iauzi, ioku, iokatu, iorri* (zenbaitean *igorri*), *iosi* edota *jantzi, jaun, jaunartze, Jaungoiko, jarraitu* eta *juan*. Era bertsuan erabiltzen dituen *jende* eta *gende* formak errespetatu ditugu, kontuan izanda azken honek Erroibarren duen lekukotasuna.

- j) Azkenik, egileak idatzi bezala utzi ditugu *eta, ta* (-*ta*, -*te*): *berrogei eta batgarren, gero eta gehiago, gero ta obeki, ogeita bortzgarren, ogeite laugarren...* Irizpide bera aplikatu dugu ondoko kasu hauetan ere: *ais-* eta *aix-*: *aiskidetu, aixkidetu*; *-ais-* eta *-ax-*: *gaistakerie, gaxtakerie*; *-ais-* eta *-as-*: *laister, laster*; *-il-* eta *-ill-*: *ixilik, ixillazi* eta abarretan.
- 2) Onomastikari dagokionez:
- a) Egileak idatzi bezala jaso dira:
- Ponte izen eta deiturak, hala nola, *Frantzisko* eta *Franzisko, Jabier* eta *Xabier, Jose* eta *Joxe, Konzezion, Kristino, Mercedes...* izenak, eta *Kanpion, Larraioz, Nabaz, Sagastibeltza, Sanz, Uarte...* deiturak.
  - Toponimoak: *Auritzberri* eta *Aurizberri, Erratzu* eta *Errazu, Esnoz, Ezeribar, Gerein, Iruña* eta *Iruñea, Lekarotz* eta *Lekaroz, Madrid, Oharritz, Txubut, Urepel...*
  - Hagionimoak: *Xabierko Frantzisko Deuna* eta *Franzisko Jabier Deuna, Iruñeko Antonio Deuna, Andoni Donea* eta *San Antonio, Juan Deuna* eta *San Juan, Mikel Deuna, Migel Deuna* eta *San Migel...*
- b) Izen bat modu bat baino gehiagotan agertu zaigunean, egileak erabilitako forma zuzenenera egokitu ditugu gainerakoak, egokitzapenek bertze inolako eraginik ez duten kasuetan, erraterako, *Ama Birjiña* eta *Ama Birjiña* → *Ama Birjiña, Arjentina* eta *Argentina* → *Argentina, Bayona* eta *Baiona* → *Baiona, Euskal erri* eta *Euskal erri* → *Euskal Erri, Jaun Goikoa* eta *Jaungoikoa* → *Jaungoikoa, Mary Carmen* eta *Mari Karmen* → *Mari Karmen, Obiedo* eta *Oviedo* → *Oviedo, Vizcaya* eta *Bizkaia* → *Bizkaia...* Aldiz, ageri diren aldakiak hizkuntzaren bertzelako ezaugarrien adierazle baldin badira, egileak idatzi bezala errespetatu ditugu, bai deklinabideko kasu absolutuan: *España, España* eta *España*; *Frantzia, Frantzie* eta *Frantie*, bai gainerako kasuetan ere: *Donostian* eta *Donostin, Donostira* eta *Donostire, Frantziako* eta *Frantziako, Frantziara* eta *Frantziera, Iruñako* eta *Iruñeko, Iruñan* eta *Iruñen, Iruritako* eta *Iruriteko, Mezkitzko* eta *Mezkitzko, Mezkitza* eta *Mezkitze...*

# 1. ESKUIDATZIAK

---

## «Berkiñteko erria»

«Berkiñteko erria, da tikia eta pollita. Berkiñte euskalduna da.

Erroibako erroietan, polbitanetaik bat, eta euskaldunena

Bere oiturak dituma eta bere Eliza maizduena

Emingo seme alabak arront lanagileak dire Japonesaik ditzen tute,  
beren lanak, eta berdeenak egiten <sup>luz</sup> ditelaiko. Aspaldiko esatera ean bat  
batla erraten duena: «Berkiñte eta Olondita ogi guti eta aur amite?»

Bai Jaume. Ni eskolara juatan nitsanean, baiñe berrogeita amaotetank,  
iruantan ogi etara, aur eskola:koak, orai amar etak, ama bieteia gozenor-  
¿? Jende amik ateru delako Trunara? Zeen daite berete, bano bai eta ere  
orai er delako, ameka, amabi, edo amairuko <sup>umeko</sup> semido edo familiar.

Eta amacapsi duna ere base neure demboran,

Zein dire aurrak, arront aise ikesten eutenak, beren ikasi beorak

Eta zero berke umealdian, etxe beran, berdin. arront abitak

Bai eta ere berke batzurretan, mutelago:koak. Egin alak egin, megarren  
eta deus ere ez erdiesten. Sudarik gabe erri/gerenotan zein dire puzer  
berak. Orduan etxe, orai diren, sari <sup>ogirik</sup> berak aurrek ikasirecaren

zeiggo. Laguntea baten gabe, oriberke ume sicuten etetan, zer egin beazute  
Sama egin, etxe berke bidetik. Inustan ez lanean arront tikiaik aieluik  
Nere antaren dako erraten aite bednaki urbotan, errege dudu egin aite lank  
egun guesan sarki arri eta luere berak erabilte, kitualu ateraten tokitik  
itei beazteun tokia. Ber biei guesia lanean, eta berke giesak, dembor antan  
berdin. Bano ala ere, ez du ume batek ere utai, bere aita eta ama zartokira,  
eta gues guesak Gaxotegia erabaki alde erbat egitea, eta gertatu da ez dela  
sendatu, eta idela, eta erraten dut egia, orai iraten da, maigabek aundia  
bere umen dako. Eteitdik kanpo ithea.

Nagusí eta etekoandre egateak bano lanago, iraten dire efen aita eta amak  
Nere idunikor erruan daiteken oretik aundiena erri baten dako eta orai erraten  
dut Berkiñtaren dako. Jannari eskerrak!

Perpetuaren eskuidatzen pasarte bat.

## 1.1. NEURE OROIMENAK

### Itzaurrea

Ala nola negua daien udaberrira agertzen da, eta nere biziko neguan egin bear dut al guzia urbilzeagatik nere biziko udaberrira, eta ala nola udaberrian betetzen dire lorez aldaskatu berri guziak, ala neure biziko oroimen guziak atera dezatela lore mota guzietatik neure idaztietan.

Egia da beti banuela, eta anitz denbora du, nere biotzean nai bizi bat aspaldien agertue zela idazteko neure oroimenak. Asi neure amatxin ipui edo kontuekin, eta altzina nere oraiko afera tikieneraño.

Maite dut biurgune batean gelditu eta lasai oroitzu eta sartuz neure oroimen guzietan eta gogoratuz: zer izan da nere bizia?... eta neure eldu diren guziari, sarrazi beren gogoan nere denborako euskaran, ni sortu nitzen errikoan.

Ori erraten dut zerengatik oraiko ikastoletan erakusten dute euskera guziak batean eta ongi dago, baño nik orai ez dut bertzerik, zerengatik aur aurretik orai artio izen da nerea eta ortan itz egiten dut, ori erakutsi dut eta ortan idatzi dut orai artio. Ordu da, idaztekotan asi nai len baño len, zerengatik nere bizia badaie altzina; iruetan ogei eta amabietara noaie eta tenore txarra du geroko uztea.

Badakit jende anitzek beren gazterian izan dituztela nik bezalako nai berak, baño batzuek egin dutena bertze batzuek ez dute erdietsi, ezta asi ere ez dute egin.

### Eta nik asi bear dut

Ezta nere biziak baduela edo eskeintzen duela bertze batenak baño geiago eta gauza obeak. Eta ez ain onik ere, baño nik egitekotan egin bear dut neurea.

Bizi guziak ederrak dire, ez da alako irakurgaleik [sic] eta edozeiñen bizia da aise ederrago. Nere bizia ezta deusten ere bertze alaba, andre, ama edo amatxina baño ohea edo makurragokoa, nere denboretan edo bide beretan erabili badire. Ez



dute nere idatziek bertze edozein andre batek egin dituenak, ez eta ere gauza polli-  
tagorik, ez eta oroipen ederragorik.

Bakarrik, neure gogoan artua aspaldik, egin nai onek oroitezten dire gauza  
onak eta nere bizia pizten da eta lorez betetzen da nere neguko denbora. Berriz ere  
denbora onak ekartzen du nere biotzera alaitasun aundi bat, gauza onetaz oroitzen  
naizelarik.

Eta begi obez ikusten da niri iduritzen zitzaiden denbora txarrak. Orrengatik  
idatziko ditut oroitzen naizen gauza guziak deus utzi gabe, ez orai duela urte gutiz  
ez nuena deuserengatik utziko nere gauza idaztera. Orai ez zaide inport.

Nai nuke nere alaben ume guziek iakin dezaten zerbait, beren amatxik igaro  
dituen zailtasunak eta ezagutu dezaten ez dela bizia berek izan dutena bezain ona.  
Bai eta ere nai dut berek, nere billobek, ikasi dezaten nere euskera bera itz egiten,  
irakurtzen eta idazten, iakin dezaten beren amen amak ze bizia izan dudana. Izan dai-  
tzela kristau txintxoak, non nai langile onak, umilak eta maita dezatela beren anaiak  
eta, guti edo anitz dutelaik, oroi daitzen bear duten guzietaz.

## Mezkiritzko erria

Mezkiritzko erria da tikia eta pollita. Merkiritz euskalduna da. Erroibarko  
errietan pollitenetaik bat eta euskaldunena. Bere oiturak dituen eta bere eliza maite  
duena.

Emengo seme alabak arront langileak dire. Japonesak deitzen tuzte, beren la-  
nak eta bertzenak egiten dituztelako. Aspaldiko esaera zar bat bada erraten duena:

*Mezkiritz eta Olonditz ogi guti eta aur anitz.*

Bai jaune. Ni eskolara juaten nitzanean, bagine berrogeita amaseietaik iruetan  
ogeietara aur eskolakoak. Orai amarretaik amabietara gorenaz. Jende anitz atera de-  
lako Iruñara? Izen daike baietz, baño bai eta ere orai ez delako ameka, amabi edo  
amairuko umezko senide edo familik. Eta amazapiduna ere baze neure denboran.

Izan dire aurrak arront aise ikesten zutenak beren ikasi bearrak. Eta gero bertze  
umealdian, etxe berean berdín, arront abilak. Bai eta ere bertze batzurretan motela-  
gokoak. Eginalak egin negarrez eta deus ere ez erdiesten. Dudarik gabe, erri geiene-  
tan izain dire gauza berak. Orduan etze orai diren sariketak aurrek ikasi zezaten  
geiago. Laguntza batere gabe ainbertze ume zituzten etxetan zer egin bear zute?

Lana eginazi, etze bertze bideik. Ikusten ze lanean arront tikiak zirelaik. Nere  
aitarendako erraten zute bederatzi urtetan, errege bidea egin zutelaik, egun guzian

saski arri eta lurrek beteak erabiltzen zituala ateratzen tokitik utzi beartzuen tokira. Bere bizi guziaz lanean eta bertze geienak denbora artan berdin. Baño, ala ere, ez du ume batek ere utzi bere aita eta ama zartokira, goren gorenaz gaixotegira erabaki alde zerbait egitera, eta gertatu da ez dela sendatu eta il dela. Erraten dut egia, ori izaten da naigabeik aundiena bere umendako, etxetik kanpo iltzea.

Nagusi eta etxekoandre gazteak baño lenago izeten dire eben aita eta amak. Nere idurikoz, erran daiteken ooreik aundiena erri batendako. Eta ori erraten dut Mezkitritzendako. Jaunari eskerrak!

*Arboletan den ederrena da oian beltzenian bagoa.*

Mendi ederrak eta bago xarmantak badire erri ontan. Asi Mariiturririk eta Uretako mendiraño juan daike mendiz mendi. Aritzak badire, baño pusken geiago baguak.

Zenbait mendien izenak ebek dire: Iriko oian<sup>1</sup>, Kisulabeko oian, Berregu. Ebek biek lurra kisu arrizkoa dute eta leen egiten zire kisulabeak, onengatik lemexikoari ematen zaio izen ori. Irazabaleta, Sakarte, Larreburu, Azkazarreta, Errebelugibel, Izozta eta Dondore. Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak, sagarrak, aranbeltzak, urrek, ezpelak, patxaranak, lisontsiak, basa sagarrak, gaztañak, gorostiak, orreak lar alde guzietatik eta iretztor aundiak eta ederrak.

Errira urbil, sagoi ederrak eta zabalak, bai eta ere landa aundiak, ebetan makal eta lizar asko. Baratze onak ere etxe inguruetan.

Erri au anitz aziendaduna da, eta ez bada etxe giblez gibel bide berri bat egiten, ez da –nai guziaz garbiturik ere– sekula garbi egoin. Arront nekazari erria da. Badire bei anitz, idiak, aratxe, zezena Uretan, zaldi, beor, mando, asto, ardiak, auntzak, txerriak, ollo, uso; eta eiztariendako: eperrak, basurdeak (ebek kalte aundiak egiten dute lur sagarretan); badire axeri, erbi, mendiko katuak eta basa auntzak.

Emengo lurrak onak dire, baño geiagoena lur sagarra eraiten da. Len ogi piko-rra ze geiagoena, baño bei baño beor geiago ze eta orai esne geiago saltzen da, orregatik orai belar geiago bear da eta ortara eman dute orai; obeki dakite berek zer den komeni. Azienda erri ontan deitzen da animale guziei eta euskeraz da itz ori.

Ura non nai badago. Etxe guzietan naikoa badago, ez bada zerbait austen, eta austen bada zalui konpontzen dute. Errian badire bi iturri ederrak beren bi aska aundiekin, bat erriain erdian eta bertzea Txorrondoko barridean. Uste dut bertze tiki bat badela, Biritxikarko barridean. Mendietan ere badire arront ur onak, Ligeztan

1 1. koaderno txikian “Irikoian” deitzen dio.

neguan epela eta udan otza edaten dutenei ongi ianazten duena. Egiko asketan, aska zarretan, Mariiturriko errekan (au ugalderaño), toki geiagotan bada ur geiago. Nik badut alorre bat Sakarten eta oian bazter guzitik iausten da ura nere alorretik goitixago sortzen dena. Mezkiritz ongi dago urez eta mendiz.

### **Mezkiritzko lezeak**

Berreguko mendian kontu aundiaikin erabili bear da. An daude leze geienak. Lezearan ere badire eta Sakarteburuan ere bai.

Bat oso aundia, deitzen da Lezemotz. Arara botatzen baduzue arri batzuk larririk, denborain buruan aitzen da arroitu aundiak arriek egiten zuztenak, iotzen zutenak saietsetan. Nere amatxik erraten zue leze ortara bota zutela karlistek bertze aldeko manazale baten andrea, bi ilabete buruan aurra izen bearra, Mezkiritzko Paxkualenean bizi zena. Eta Berreguko batera erori ze zazpi urteko mutiko bat<sup>2</sup>, Apesui delako etxeke semea, artzai zegona bertze lagun batekin. Onei atera ziote lezetik nere aitag eta Justo Mañuelain etxeokak. Etxera zeramatelaik, bere bonetaz galde egin zue eta beldur zue etxean asarratiko zutela, baño etxera gabe –neure us-tez– iltze.

Mezkiritzko, Lusarretako eta Esnozko egian bada leze estali bat eta deitzen dute Lezeestali eta bertan bizitzen omen zire lamiak, eta bazter aietara ateratzen omen zire iruzkire orraxtatzeraz urrezko orraxekin. Ori erraten zute, baño nik ez dut ikusi gauza ebek. Bakarrik, ni aurra nitzenean, ezur alde bat atera eta ereman zutela obitegira:

*Gizon guzientzat gure Jesus  
Zure pakea eman zazu.*

Mezkiritzko eliza aspaldikoa da. Kristobal Deuna da ugazaba. Bere besta uztailearen amarrean da. Nere amatxik erraten zue urte batez urriko lemexiko igandera igaro zutela eta urte artan uztailearen amarrean arri-erauntsiak garbitu zituela bazter guziak, bertze urtean itzuli zirela uztailearen amarrera, egundeño etzutela geiagoko aldiz bere egunetik mogitu.

Orai, ez dakit iru edo lau urte dituen, baño dagonilaren lemexiko igandean, astelenean eta asteartean izaten dira bestak. Baño ez, orgatik ekendu dute uztailearen amarreko eliz besta. Beñere baño ederragokoa. Aitortze, jaunartze, meza nagusia,

2 1. koaderno txikian dio mutiko horrek Alejandro zuela izena.

eta gero elizgiran, Kristobal Deunarekin lau mutilen soñain gañan, erri guzitik abes-tuz bere abestiak. Ez du erran bearrik eliza betea izaten dela.

Bertze besta aundi bat egiten da ilbeltzaren ogeian, Sebastian Deunari eskerrak emateko. Nere aurtzaro eta gazte denboran egiten ze aste bat osoa. Animako jardue-ra batzuk aurren eta aundientzat, geienez aita kaputxino bat izaten ze, eta itzaldi ederrak egiten zitue gure biotzak xamurrezteko eta gure Jaungoikoarengana urbilez-teko.

Nere amatxik erraten zue lenago errian izan zela izurri edo pestea deitzen zela eta jende anitz il zela eta iltzen ai zirela. Eta orduan apezak erran zue nola Sebastian Deuna zela orren aurkako ugazaba eta ekarri bear zala bere iduria. Eta etorri zela Iruñara apeza iduria erostera, norbaitei erostera, eta ereman zute errira, baño erriko dermioan sartu orduko eri zeuden guziak sendaturik gelditu zirala. Denbora puxketen buruan jua zira apeza eta alkatea Erromara, Aite Santuari eskatzera betiko eliz besta egitea Mezkirizko errian. Gañera, sanduaren ondakiña ere ekarri zute.

Nere amatxik erraten zue gauza oiek guziak gelditu zirala idatziak eta gordeik erriko etxean edo elizan. Erroibar guzitik etortzen zire meza nagusira eta kandela anitz bizten zire sanduaren ingurutik eta altzinean. Eliz besta aundia egiten ze beti egun ortan.

Mikel Deunak ere, bertze erri euskaldun anitzetan bezala, badu Mezkitzen bere eliza tikia. Errira urbil, etxe guzietaik ikusten da eta denek maite dute anitz. Maitasunaren zañak ongi azkartuak dire. Eliz tiki eta pollit ortan denbora ona balin bada, elizgiran jua an entzuten degu denek, eliza bete betea eta anitz etorri ondoan kanpoko aldetik gelditzen dire. Bein batez, erran zire Urtasuntar Simon jaunak (apeza eta neri neure lemexiko jaunartzea berak eman zire), aren iduriz eliza tiki ortara urbil, baze bertze bat Larzabalko (gero iakin dut Landazabal) Ama Birjiñari goratua. Eta au erori zelaik, onen arriekin egin zute Mikel Deunari, baño denbora anitzen buruan. Erran zire berak ori aspalditik zeukala gogoan, zeren toki aietan lar anitz eta gañan aldean Larregain zuela izena. Nik banekie, zerengatik nik gainean badut alorre bat eta Larregaineko alorra erraten degu. Nik erraten dut entzun bezala. Arek ori zeuke buruan sartua.

Eliza tiki ortan, denbora ona balin bada, ematen da meza nausia eta, txarra balin bada, ematen da erriko elizan, eta oraño gende geiago izaten da.

Konpondu berria da eta gañerako eginbearrak denak egiten dire Argentinan den senide batena eta Mezkirizko Biritxikarko barridean, Kolixenean dire beren illoba eta arreba, emen Iruñan ere bada arreba orren aizpa eta bere alaba bat.

Lenago, Salvatore bezperan izeten gine eliza bete gende, ango sagoi eta aloreak bedeinkatzera eta eskatzera etzezala arri-erauntsiak ondatu ango alorrak eta ez ere airegaistoek kalterik egin. Gero, ondorean, entzuten gindue meza. Bertze bi egunetan Txorrondon eta Biritxikarren, biek gañaldian bedeikatzen dire. Bai eta ere oroitzen naiz Mikel eguneko bezperan edo biramonian besta balin baze, besta tikiak egiten zire soñulariekin eta guzia.

### **Altzine oiturekin**

Maiatzeko bazko biramonean biltzen zire mutilak eta egun guzia besta izaten zute; nere idurikoz, bazkaldu eta afaldu egiten zute elkarrekin. Idazten zute soñulariei erranez etortzen al ziren bestetan soñua iotzera. Orduen autetzen zute mutil nagusia eta bere laguna. Nere aurtzaroan, oien bien etxetan egiten zute lo eta ianaldi alde bat soñulariek. Oraiko oiturak ez dakit ebek berak diren edo ez.

Egun ortan, geienean amazapi urteak bete dituenak juaten dire mutilak dauden etxera, aitortzen dute beren adine eta mutiletan sartuak gelditzen dire. Erriko mutil beretan soñularia geienetan izaten da eta egun ori igarotzen da alaitasuenean.

Neskatxek Santiago atsalden izaten zute. Geienean goxokari zenbait, txokolatea eta boladoak uraikin. Ori bera ematen zioten lenago atsaldean soñulariei eta mutil nagusiei, bi dantzaldi egin onduan.

Plazara erematen zuzte bi neskato berexi zirenak altzineko Santiago egunean. Orai uste dut ez dela olakorik egiten.

### **Orai erriko gizonenak**

Urteoro, nere idurikoz bi aldiz, juaten dire egiak ikustera bizpiru gizon. Bertze aldetik, dela Auritzberitik, Lusarretatik, Esnoztik edo Gereindik ateratzen dire bertze ainbertze. Ongi ikusi eta sasia autsia bada, egian konpontzen dute eta bertze bat artio.

Batzarreak egiten dira bear den guzioro, baño ez bada biltzen jendea, gelditzen da bertze aldi bateraño.

Auzelanak ere bear diren guzietan egiten dire eta etxe bakoitxetik juaten da gizon bat. Auzolaneko lanak izaten dira bideak, iturri eta askak garbitzeko. Orai bertze gauza bat ona egiten dute. Udan, laronbat guzietan biltzen dute zikinkeri

guziak, paperezko zakutan egoten dire atarietan eta artzen tuzte, eta nik uste dut lezetara botatzen tuztela.

Urtean lemexiko egunean, ostatura juaten ziren guziaz ematen ziozte ogi eta ardo naikoa. Erriko kontura.

Au bera egiten zute Pentekostes altzinako ortzilerian, Erroibarko erriak juaten ziran egunean elizgiran Ama Birjiña Orreagakoarengana. Auritzberrikoak ez dire egun ortan juaten, badute bertze egun bat berena.

Ni oraiño aurra nitzelaik, bi urtez jua gine bakarrik Mezkiritzkoak eta pusken jende geiago jua gine. Bide guzian abesten edo arrosarioa errezatzen.

Mutilak eta gizon anitz bere gurutze ederraikin soñan. Aundienak utsak izaten omen dira, barnean sartzen omen dute gosaria. Nik ez dakit arras egia den, ikusi dut otoitz egiten gizonak moxorroz beztia, ez dire zautzen nor diren. Niri aingeruz beztia erematen zirete aurrean. Otoitz anitz egiten zen elizgira ortan eta geienak aitortzen zire Orreagan, eta nekatuak erortzen zira, eta ezongi gelditzen zire giza-joak. Elizako gauzak egiten zutelaik ateratzen zira kanpora eta ongi gelditzen zire; orduan meza nagusia entzuten gindue denek. Ama Birjiña Orreagakoari maitexago. Alderdiotan guti iltzen da bere izenez deitu gabe eriotzeko orduan:

*Jeiki jeiki, euskaldunak  
Argia da zabaldu,  
Argia da zabaldu...*

Orduen ere, mutil euskaldunak juaten zire Españako gorroto edo gerratarra. Nere aitak egin beartzuelaik bere zerbitzua, artu zue bia [sic] eta buruz io zue Kubara juateko; baño orduan arront tikia ze eta utzi zute berantagoko, eta denborain buruan berriz negurtu zute Iruñan eta berriz asperturik ez zuela balio, eman zioten eskura paper bat erraten zuena *licencia absoluta* eta irrinez erran ziozte: tori, zure andreagaia eta gorde zazu ongi, iserki egiñez.

Aita etorri ze bere etxera eta lasai lasai erran zue: ama ez naie Kubara, arara joateko tikia naiz. Ordutik asi ze goratzen eta bere anaietan aundiena eta gañerako anitz baño luzeago zen. Anitzek erraten ziozte: ez duk erregiñaz gaizki irri egin.

Nere aitak bazitue sei arba eta bertz ania, beraikin sei, baño batek ere etzue zerbitzuik egin; batek gauza batengatik eta bertzeak bertze batengatik, etze bat ere egun bat ere egon, baño gaztenak egin beartzue eta nere aitetxik erran: zer, nere gaztena utzi? Ez nekez, eta erosi zue bertze mutil bat egin zezala nere osabak egin beartzuen, eta egin zue. Aita eta amak ume guziekin ordaindu zuten mutila eta ikusi ze denetan bazegola maitasun ederra elkarrentzat:

*Guk nai degu zure maitesuna  
Bizitzeko gure anaitasuna...*

Nere aitain aita eta nere amain aita anaiak zire biek, ezpelezko kuxetak egiten zute. Biek, nere iduriz, arront gizon onak zire eta iru edo lau urtez gizon eta andre-gaiak izeintzire; eta uste dut ain aide urbila zirelako egin zutela bi aitetxi anaiek burutik ekentzeko egingo zutela, baño ez batek eta ez bertziak ez zute gogotik eken-tzen al ain barnean zeuketena eta, denborain buruan, mile bederatziegun eta lauan azaroain amabian ezkondu zire. Ain erri tikia izateko bi eztei izan zire meza berean. Eta berdintsuak biek. Ianari anitz. Eliz besta ederra. Eliza betea, erri guzia bestan. Orduan etze nior etxetik ateratzen..., baizik gelditzen zire bizi bear zuten etxean. Eta nere aita eta ama izen bearrak gelditu zira aita eta ama amañekin. Gero nonbait in-darrean zire eta asi ere etxe berria egiten eta zain zañetik. Neure aitari entzuna dut lurretik azpian ziren pareta kosta zitzagola lurretik gañekoa baño geiago. Anitz bei-ti eginak zirala. Eta gutira gutira egin zute, baño aitak kanpoko ere egiten zue lana, eta neguan ezpelezko kuxetak egiten irabaztekotan. Egin zute pareta nagusiak eta eman ziote tellatua. Gauza oiek egin zirelaik, orduan niok ez zuelako minik artu paratu eta edatu zute ikurriña. Gorria? Españakoa? Orain galde egin nezake, baño nori? Ez dakit norei. Nik uste dut ez dela nior erriko semeik orduan bizi zenik. Eta niri etzizaide gogoratu lenago galditea...

**Eta ni mundura etortzeko tenorea etorri ze**

Dagonilaren iruan mila beratziegun eta bortzean, goizeko seietan sortu nitze, ogei egun lentxago amak eror aldi bat ederra artu zuelako. Nere amatxik erraten zue luze eta mear nitzala, eta nik erraten dut “mundu guziein bear”. Egun bat iruzkiz betea zela, eta ni sortu nitzen etxea ordu berean artu zuelaik. Ala, ba, ni sortu nitze Mezkiritzko barride batean, Txorrondo deitzen denean, Arakiñenean. Nere amatxin aita eta ama orduko aspaldik ilak zire arakiñak. Nere aita Auritzen zela belar ebaki-tzen alde batera, iakin zuelaik nere ama minekin zegola, etorri zen laister eta galdin zio nere amatxiri: nola dago nere andrea? Eta erran ziola amatxik: orai berean sortu da aurra. Zer da, nexkakoa edo mutikoa? Eta amatxik: nexkakoa. Eta nere aitak: ba zaku bat agotz.

Nere amatxiri ezitzego ongi juan ateraldi ori. Bera pozez betea zego, ama eta alaba ongi ginela. Eta aitak zertarako gogoaratu aurraren etorri bearrak? itz ori seu-rik, bakarretan, entzunteko neure denboran. Egia da neure denboran egin nuela al guzia ez zedazten niok agotztako iduki. Baño ezkonduko gauzak erraten dudelaik zenbatuko dizut gauza pollit bat. Emendik arara badut zer erran, itzaldi bat gaitza idazteko, eta denak gertatuak. Ez dut zetaz erran ala ez dena, bizi batean gertaera

anitz izaten da; orai mila berregun urte asi izan bazire zazpi Euskal Erri guzian erraten beren biziko aferak, orai iakinen gindue orai ez dakigun gauza anitz eta oitura eta gertaerekin aberatsago izanen ze gure erria. Eta orai mila bederatziegun eta lauetan ogei urte dela asi bazire, obe. Nik badakit nere biziak ez duela deus ere oiñarrik, baño bai erriko oiturak eta denak inguratuak dazi.

Sortu eta biramonean bateiatzen ze aurra. Niri ala egin zirate, eta zarrena nitzen bezala, bateioko aitetxi eta amatxiak izan zire nere aitein aite eta amaren ama.

Ultziak biltzen aiko zire, ortzilaria zen eta denbora ezin ederragokoa. Agotzak bide guztitik... eta udako ultzi urriña bide guzian. Elizan bateiatzeko tenoria etorri zelaik, iakin gabe niorek ze izen eman bear ziren apezak. Etorri zenean denbora, ala erran omen ziote: gaur dagonilaren laua, gaur badugu gizon izen anitz, baño andre batena bakarrik eta izen ori eman zaio. Perpetua da eta ori da ereman biar duena; denak ixilik ez baizute sekula entzun izen ori; eta erran ziote: errain diozie anitz aldiz *Perfecta*, baño ez du inport, Perpetua da eta ala deitu bear zaio. Gero garbi garbia utzi zirelaik, Juan Deunaren ebangelioa irakurri ondoan, ereman zirate Ama Birjiñari eskintzera eta eskatzera izan zaien nere Ama betiko. Nere idurikoz, entzun zue.

Etxera itzultzean zenbait galdera: aurrari ama nola da? Zer izen eman diozie? Apa (edo musu tiki bat) bataiatu berria nitzalako, aitetxik bi soseko bana eman ondoan aur guziari, berdin jende multxu zenbaiten artera botatuz xos zerbait etxerako bidean... Gende geiena ultzi ondarrak biltzen, zaku kostalak ogi pikorrez beteak... eta bizia segi altzina. Nere amatxik erraten zue, kosta zitzaidela lemexiko egunak eta gutira gutira azi nitze eta lagundu dut bertze anitzei azten.

Orai esaera zar zenbait gertaera zenbaitekin: *neskazarrak, aurra kolkoan*. Nere aitari entzun diot anitz aldiz. Eta ezagundu degu, ogeite emeretzti urtetan ezkondu eta bederatzi ume izan duena; ongi dago e?

## Oitura

Lendabiziko edo lemexiko aurrari aitetxi amatxiak erran dut neure bataioan nor izaten diran; baño bigarren aurrenak izaten dire amain aita eta aitain ama; irugarrenean aitain anaia zarrena eta amain aizpe zarrena. Gero ez du inport, berdin aixkidean nola barrideak, nik ezagutu dut andre bat aita eta ama baten iru umen bateioko amatxi izan zela, iru aurrak segidokoak; bere ustez, Erromako bortz elizen ikusketaik adina irabazten zela. Aurra bateiatzera erematen zue emaginak. Aitetxik erematen zue bere laguna eta amatxik ere bai berea. Ez bazue aurrak anaiaik, lengusu bate, sei edo zazpi urtekoa, juaten zire bere kandela ederraikin bataio guzian piztuik idukitzera.



## Pilotari xarra xaxari on

Pilotari onak beti izan dire Mezkitzen. Izan dire eta badire. Aur aurretik maite dute ioku ori mutikoeak eta orai neskakoeak ere bai.

Ni aurra nitze oraiño nere aitaren anaia gaztenak bere beso ezkerrikin irabazi ziote iru anaia Ezteribarkoei aiseko. Apostu aundiak egin zire, eta nere errian denak irabazten gelditu zire. Zenbait aupa!!! egin ziote...

Orai ere badire anitz pilotari, bearbada beñere baño geiago, eta igande anitzez erria betetzen da kanpotarrez eta zein eder den ainbertze elkarrekin bat artuak! Ori ere ze iostatze pollita den! Gañera, erri ontan badire abeslari onak eta aldarte obeak:

*Orain eldu naiz baño beldur naiz  
enak izan ditudela maiz...*

Mezkitzen erraten da ezkondu eta Baztanen esposatu. Eta orai idatziko dut Mezkitzko oiturak ezteietan. Ezkontzen dena balin bada lemexiko seme edo alaba, gelditzen bada bere sortu etxean edo juaten balin bada ezkontzeatik bertze alaba edo semeain etxera etxekoandre edo nagusi, orduen bi egunez izeten zire ianari gaitzak, juaten ziren guziendako “etxea leiotik botatzen zen”, errana den bezala. Eguerdian edo atsaldean andrendako goxogarri zerbait, afaria denentzat eta anitz denendako. Gero soñu eta dantzak, orduen etzen kanpora deustako juaten. Biramon goizean, andrain amak erematen ziote ezkonberriei, baru austeko, ianari zerbait; gero, amarrak aire ortan, izaten ze bien il guziendako meza sandua; gero, besta bezperan bezala eta jende berekin, eta urbilen bi egunetan lasaixago eta lanera ezkon altzinean bezala.

Bigarrena edo geiagokoa balin baze, ezkontzen balin bazire Orreagan edo Mezkitzen, bazkaria izaten ze sortu etxean aita eta amak, aurride, lengusu eta osaba izebak. Atsaldean Iruñara eta andik Zaragoza edo Donostira. Bai eta ere senarrak edo andreak balin badute España barnean anaia apez edo arreba serora, geienek egiten dute beren ezkontz gira aiek diren tokira.

Eta errien norbaitek ematen badu bere lemexiko meza, izan daiken bestaiek ederrena izeten da. Erri guzia aren mezara eta egun guzian besta denek edo geienek.

## Bertze oitura bat

Egur loteak markatu eta ematea bakoitxai berea, baño bederlatzi ilabete bizi bear du errian. Artutzen da paper bat denetaik eta an erraten da zenbat zugaitz diren, non diren. Bakotxak egiten tu bere lanak, xeatu eta ekartzen dute beren etxera. Bertze batzuek botatzen dute zuaitzak eta uzten dute idorrazten mendian, berantago egiten dute

bertze lanak eta ekarri etxera. Orai ematen dute bertze lote bat ikatzakoa, baño batere lanik egin gabe, ematen diote zortzi edo amar mila pezta baktotxai eta denak kontent.

### Mezkiritzko etxe eta barrideak

Ai naiz inelaki solas egiten Mezkiritzko erriaz, oitura, gertaera, mendi, urak, leze, aziendak, zuaitz eta gauza geienetaik, eta ez dut deus erran barride eta etxetaz. Uste dut noiznai tenore dela. Errian sartzean barride tiki bat bederatzi etxekin. Nere idurikoz etxe ederrak dire denak. Etxe ebek orai deitzen dire Paxkualena, Juan Ferminena, Juan Migelena, au da nere, Juan Martin edo Paxkualainña, Pedro Ferminena, Florenzioña, Zirkutuña, baño orai duela egun urte deitzen ze Juan Kruzzena eta onen ondua Arabeña eta bertzea Mañuelaña. Etxe ontakoak zire nere bi aitaxiak. Bien ama deitzen ze Mañuela.

Orai iauzi bat franko aundia Biritxikar deitzen den barridera. Lau etxe bakarrik ditu eta ez dire berdinak, baño pollitak dire. Lemexikoa ezker aldetik da Moñaiña. Nere amatxik erraten zue etxeokandre bat izan zela ain pollita erraten ziotela *moña* eta orrengatik eman ziotela izen ori etxeari eta ala deitzen da orai artio.

Gero orren onduan da Kolixena. Au da barrideko aundiena. Gero malda ederra bada eta esku berean dago denen gañetik Juan Martinena. Etxe pollite da. Oraiko alkatea etxe ortan bizi da. Eta gero malda iausti eta laugarrena da Txantxikoña. Onek ere bi aldetaik baditu landa edo baratzea. Txorrondoko Arabeñaz guti erran dut, baño anitz aldiz gogoratu zaide izengoitia ote zen edo berant artio bizitu ote zen beltz zenbait etxe ori dagon tokian? Nere denboran berritua da, bertze anitz bezala. Gero Mañuelaña. Au ere ongi berritua da. Erri berean bi karrike biltzen dire batean. Asten bagara Txorrondoko barridetik, ola da: puxke bi aldetaik landa baktotxain paretak dire, deitzen da Txorrondoko errea. Gero eskuñeko etxea berria da. Al-tzinekua edo lenagokua erre ze eta deitzen ze Gartxotena. Gero dena berritua da eta ez dakit izen bera ematen dakoten edo ez. Aren ondoan zegona erori ze eta bi ondoko etxetan badute biribilak edo tratoreak idukitzeko tokiak. Lemexikoak baratze pollit bat ona eta loretokia ere bai. Gero Antorena deitzen dute, baño ez da Antonena izein etxe au, aundia da eta obeki naiez atari aundia ekendu eta egin dute txiki bat gendea sartzeko, eta aundiagokoa aziendaindeko paratu daizkote. Arront ederra ze lengua, uste dut gañeko lana duela edo estali bakarrik egin dutela eta noiznai agertu dezaketela. Gero bertze etxe aundi bat da, deitzen da Adamenea. Etxe onek badu zenbaki bat 1226 edo 1262, ez nai segur. Nere idurikoz, zenbaki ori izanen da arriengatik eta etxea berritu zelaik arri oiek utziak edo ekarriak bertze toki batetik. Etxe orrek, nere ustez, ez du ainbertze denbora egin; gero badu baratze ona eta erletokia ere bazue len, orai ez dakit.

Orai eskuñeko aldetik bi etxe aundi, oien altzinean (ertean bidea) badire bi baratze onak. Gero baratze baten onduan etxe bat nere denboran deitzen zen Artzaiaundiña. Etxe aundia da, baño bat bakarra bizi da. Gero bertze etxe aundi bat dago, ori ikustera juaten da jende aski. Etxe orren atari eta leio batendako erran nezake Adamenekoaindeko erran dudena, sobera arri ederrak eta ongi paratuak dire. Nere iduriko, bearbada orai duela egun eta laueta ogei urte berritua da. Nere amaxik erraten zue etxe orrek zituela lurrik geiagoenak Mezkiritzko etxealdetan. Etxe onen ondolik pasatzen da bertze erreka bat.

Erraten dut Txorrodoko etxeak orain deitzen direla. Eta ez dut erran zetaz duten orai izen ebek. Ez dakit noizdik asi eta, bada oitura bat aurrek edo gaztek erran biarrean, egin zenetik etxe bat bere izenaz ematen zaiena. Baño nagusi bat iltzen bada ematen diote nagusi berriaña, eta erraten diote Joxeña edo Juanena edo Martinena. Ola, geienek deitzen dute etxea nagusian edo andreain izenaikin. Nereak berak, egin berrian deitzen ze Arakiñena, lenagokoa zen bezala, gero erdiek deitzen ziote Juan Migelena; iltze nere aitetxi, gero gutik ustenean deitzen ziote Rikardoña; iltze nere aita eta ogetesei urtez utzi nio neure aizpa bateri eta etzioten nere aizpaña ematen eta nerea gutiago, erraten ziote Jenaroin etxea. Eta nere ustez etxe batek beti ereman biar luke izen bera.

Txorrodoko Paxkualena, nere denbora guzian izen ori eman zaio. Etxe au aundienetaik bat da. Badu larrain bat ederra eta andik sartzen dute agoztegira belar, agotz eta bertze gauza anitz. Altzinean badu iturri ona, bere aska ederraikin, urte guzian badu ure eta gañerako inguruan badu baratze bat ederra bere sagarrondo onekin. Toki ederrean dago Juan Ferminena, nere ustez, nere denbora guzian ez du bertze izen bat izen. Onek ere badu bere larrain eta baratze ederrak bere landa ederraikin. Gero goraxago, ezkerreko aldean dago nere etxea. Lenago lau ganbaretan zortzi edo amarrek lo egiten gindue, baño orai egin dugu ogeite zortzi edo ogeita amarrek, baño iru edo lau guatze geiago paratu daizke beartasun batean. Konpondu berria da eta kanpotik iduri duen baño toki geiago du. Onek ere badu bere baratze tiki bat altzinean, saiets batean badu landa ederra, baño ez da guria eta gibelean baratze bat, baño ez gurea, ze nere amaxin aizpa batena. Nere etxeain gañeko aldean bada bertze etxe bat nerea baño berantago egine eta orai ai dire berritzen, badu baratze bat onduan. Lenago etxe onei deitzen ziote batzuek Juan Martinena, bertze batzuek Paxkualana (senar emaxiain izenak), orai deitzen diote Xeberoiña. Etxe ortatik beitiago dago Pedro Ferminena. Onek ere gibelaudean du bere larrain ederra. Etxe onen onduan eta bideain ezkerroko aldera zego nere sortu etxea, baño aspaldian eroria da. Ontarik beitiago bada bertze bat, lenago deitzen ze Juanexpainña eta saldu zue, eta erosi zuenak berritu zue eta aundiago gelditu ze. Orai deitzen da Florentziña. Sarri deituko dute Alfonsoiña. Nereaikin bezala egiten badute, Zirkutuñe edo Juan Krutzena. Etxe aundia da eta gibel aldian –nere ustez– badu

baratze bat, eta au baño gorago larrain ederra, arront toki ederrean. Etxe au ere arront berritua eta aundiagokoa utzi zute nik amar bat urte nituenean.

Arabeña dagon tokian, len ezagutu nitue nik bi etxe, eta biek bota eta egin zute bat bakarra. Orai utsa da edo ez da nior bizi. Udan izaten da senide bat. Nausien goñatua da. Mañuelañak ere badu bere larrain eta baratze ederra. Beti Mañuelaña deitu da nere denboran.

### Nere amatxiren abestiak

Bere besoetan egoten ginen gustuara eta abesten zue. Nere amatxi abeslari ona ze. Elizan abesten zue juaten zen aldi guzietan eta lauetan ogei eta seieteraño, uste dut jua zela burutik eta zortzietan il zen, baño nik banitue il zelaik ogeita iru, orgatik aren gauza asko badut erran bearra. Orai abestiak.

Nik ikasten nue anitz gauza arek abestuak eta egiñalak bai eta ere erranak, baño atzenduak ere baitut. Nik aitzen nezkie “Markesaren alaba”, “Nagusi Jauna”, Eugiko batzuk, Bankako “Bertxin antonekoak”, gero Urepelgo batzuk. Alaba bat bakarra izen eta ez zelakoz ezkondu bere gurasoek nai zutenaikin, ez zioten deus ere utzi eta zuten guzia utzi zioten beren mutilari. Soñua Jesus Guridi jaunarena zue.

Nere idurikoz, ze izan zeiken amatxik oberena, ederrena, luzena... abeslarie-na..., eta arengatik ikasi ditut gauza anitz, orai idazten ai neizen gauza ebetaik.

Nornaiek nai bazue, ezongi zegolako, an zego: *non gogo an zango* eta egiten zio al zuen guzia obeki geldi zaien. Gero ume txikiak arendako iruzkiain azpian ziren gauzarik oberena eta ederrena... Ez zue maite itz bat ere erratea nioren kaltetan. Ni oroitzen naiz abesti ebek niri lokarazteko abestutzen ziralaik:

*Zato nerekin zato aingeru maitea  
Erakutsiko dizut zerura bidea.  
Neretzat pozkario zutaz iabetzea  
Erakutsiko dizut zerura bidea.  
Aita biotz gabea, ama zu iduri  
Nola utzi al dezute aingeru eder ori?*

Ebek abesten zitue anitz aldiz, eta nik egiten neko galdera anitz: non utzi zute aur ori? Eta berak: mendi tontor batean. Nongoa zen? Ez daki niorek. Eta nork bilatu zute? Erri ontakoa ze bilatu zuena? Bai emengoak zire, baño aurra ez. Aurra erri ontako senar emazte batzuk bilatu zute, trapu zar batean inguratua, baño ilurrena. Egiñal guziak bide edo iru egunez, ongi jantzi, bataiatu, sendagilleai erakutsi, baño denbora geiegi egon zen mendian eta gaixoa zerura igo ze goiz eder batean.

## Berriz abesti geiago

*Iruzki denian, zein den eder itzala  
Maitea mintzo zera, plazer dezun bezala.  
Ai nere maitea, nik ere zuregatik  
Pasatzen ditut bai zenbait sabeleko min.  
Ezkontzeko zurekin, samur aita amaikin bear nuke egin  
Ez dakit zer egin, ez eta nola jin neure etxekeekin.  
Ai nere maitia, non dezu izpiritua  
Fedearen iabe, aita beraukazua  
Atxikazu fedia, maita birtutia  
Garbi kontzientzia, munduko bizia  
Labur da maitia, etzaitela kanbia.*

Bazire, bearbada, sei edo zortzi geago, baño atzentzen ai zezkide:

*Arboletan den ederrena da oian beltzian bagoa  
Itzak ederrak dituzu, baño bertzetan dezu gogoa  
(bertzeak atzenduak).*

*Nere maitia, barda nontzine, nik bortañua ioitzean  
Buruan ere min nuen eta, dudarik gabe, ofean.*

*Agur gizon gaztea konpañia arekin  
Plazer nuke egoitea ixtenpat zurekin  
Badakizu mintzatzen errespeturekin  
Jinkoak ar zaizala il ondoan berekin  
Tranlai, tranlai, tranlai  
Il ondoan berekin.*

*Xarmagarria zera, eder eta gazte  
Nere biotzak ez du zu baizikan maite  
Bertze zenbait bezala ote zara libre  
Zurekin ezkontzeko dudarik ez nuke.*

*Xarmagarria zera arrosa bezala  
Profetak ere dire mintzo ola ola  
Araberan baziñu gorputza orrela  
Iduruko ziñue zeruko izarra.*

*Aste Sandu Salvatore  
Besta berri Pentekostes*

*Eta ni gaixoa tristerik  
Txutik egon ez naiteke.*

*Aste Sandu Salvatore  
Ondar egun Pentekostes  
Nere lagunak plazetan  
Eta ni gaixoa penetan.*

*Bidegarai medikua  
Nere salbazailea  
Luze darazu bizia  
Triste da ola iltzea.*

*Ago mutikoa trankilki  
Utzek gogoa laxoki  
Sendatiko aiz segurki  
Baña gobernai obeki.*

Aski euskera txarra dute, baño aspaldikoak zirela erran zirete:

*Etxe ontan badire bi ollanda gazte  
Parerik ez dutela berek baitiote.*

Gero Luzaideko batzuk ere, andreak il zuela bere gizona bere aitarengatik. Ala iduri du beintzat:

*Aita ez dut nari, nari ere bai baña adreza bertzerik...*

Len erran duden bezala, nere amatxi abeslari ona ze. Baño Bankako bere anaia ohea. Aitu izen dut San Fermin bestetan lauetan ogei urteak bete ondoan sari bat ona eman ziotela abestuziatik.

### **Oitura batzuk geiago eta gertaera bat**

Mezkiritzko errian baze andre bat emagina, baño ure ateratzen zelaik erritik lan bera egitera bertze inguruko erri batekoaiakin, ohea baze erriko bertze batendako deitzen ziote nere amatxiri eta ongi egiten zitue eginbearrak.

Berdin prestatzen zen egunez nola gabaz, ezongi zegonai laguntzeko.

Lenago, urik etzelaik etxetan, arropa zikinek garbitzera juaten gine negu minean estalpe batean. Putzu aundi bat baze erriain erdian. Ogei andre edo neska inguruan

egon zaizke garbitzen eta ez ze ur zikinik biltzen. Kurritzen ze aniz, baño udaberrian, denbora ontzen zenean, juaten gine Useingo erre kara eta an bakar bakarra gelditzen gine eta ederki garbitzen gindue. Baño, bein batez, nere ama eta ni ai gine arropa alde bat garbitzen eta, bat batean, nere amak egin zue karraxi aundi bat. Txutitu ze, eta ilerrosi zitue bere soñeko guziak eta suge aundi bat erori zen lurrera; nik ikustean, arri aundi bat artu bi eskuekin eta bota nion buru gañera eta ilik gelditu ze. Nik ikusten nituen sugeak iltzen nitue denak. Aldi ortan nere ama aurra azten ai ze. Udan edo denbora arront ederra zegolaik, juaten gine ugaldere. Asto gañan artzen gindue arropa zikina, xagona eta bear ziran gauza guziak eta ederki garbitzen gindue, iruzkiak egiten zue lanik aundiena. Zer urrin goxua gelditzen zitzaion eta zer xuritasuna!

Bertze oitura bat ze txerriltzea etxe bakotxan<sup>3</sup>, eta urteoro bat edo bi aldiz etortzen zire aita, anaiak eta osabak ere anitz aldiz. Goizean goizik iltzen ze txerria. Gure etxean iltzen zue aita eta odola artzen zue amak, eta odolain loditasuna ekentzen zue amak. Il eta kixkorratzen zute, ekenduz bilo edo illea, gero garbitzen ze ongi ur auserkikin. Gero ateratzen zitzaio barnean zuen dena eta uzten zen dilindan ateratzeko ur guziak, idortzian gero puskatzeko. Tripota, lukerike eta bertze gañerakoak egiteko etze andre bat ere etortzen gure etxera; amatxi, ama eta gu iru aizpa bagine aski. Eta gure amak arront esku ona zue gauze oiek egiteko. Txerri puxkak erematen zute aurrek bi barridetara, aitein sortu etxera, bai eta ere amatxien bi aitetxien sortu etxetara eta osaba izeben etxetara. Gosari ederra egiten zen gizon alde batendako, senide alde ederra gindue eta denak deituak izaten zire.

### Nere aitatxin ondar egunak

Negu artan, juan zire Usetxiko errira nere bi aitatxiak, nere aita eta aitan bi anaiak geago. Oianean bazire ezpel onak, anitz eta ederrak. Ai zire eginala egin, moztu eta biltzen, denak ongi eta langile onak. Baño etzue denbora anitz iraun bear ongitasunak, laister utzi bear zigu. Ilbeltzean atsalde batez etorri ze nere aita, asto gañan gizon bat ongi inguratua, zer da? nor da? Ze nere amain aita; gizajoa! ekarri ziote arront gaizki, alborengo edo pulmonia zue; nere amatxik, bere andreak, sendagilleak baño lenago ezagutu zion. Segido etorriazi zute eta erran zue etzekiela oraño zer ote zen eta amatxik erran zio: alborengua? Eta sendagilleak erran zio ongi miratu ondoan: arrazoña duzu, eritasun aundia dauka berekin.

Etorri ze berriz biramonean eta erran zue gaizki zela eta erran zio: bai badakit gaizki dela, ezagutu zu bertze eritasuna, ez? zer du? zer? erran zio nere amatxik

3 Txerri hiltzeaz hau dio 1. koaderno txikian: “Urteoro etxe guzietan izeten ze txerri iltzea, zenbait etxetan bide edo iru, gizon edo mutil geiago ziren etxetan”.

kabardilloa (ez dakit euskeraz edo erderaz den) eta kabardilloa edo tabardilloa, nik ez dakit, baño ala zela eta segido ereman zutela apeza eta egin zuela biar zituen gauza guziak, eginak alborengo bedratzigarren egunean il zela. Jaungoikoak dezala berekin eta goietik otoitz egin dezala guregatik.

Guatzean zegolaik, juaten nitze ikustera eta galdera egiten nio: aitetxi, polliki zaude? Eta beti erraten zire: bai ene maitea, polliki nago. Ori guatzean zegon denboran, baño atsalde batean galde egin nion, baño itzik etzire erran; eta orduan artu nue alki bat eta ien nitze guatzera, eta nere matelak paratu nituelarik bere matelen onduan, ezagutu nue otz aundia zuela eta ixil ixilik zegola. Orduen, min aundi batekin neure barnean, juan nitze ama eta amatxingana eta erran niote: ereman zazie aitetxiri berotasun zerbait, otzak dago. Orduen ikusi zute alkia an zegola, ni guatze gañan egon nitzala... eta egin nuen guzia. Negar anitz egin zute, eta nik naigabe eman niote bat aundia.

Aitetxi il zelai, elur aldi aundi bat bazego denetik. Mila bederatziegun eta amarean ilbeltzaren ogeita iruan il zen. Nik lau urte eta bortz ilabete nitue. Urbilen epaillearen lemexiko astean artu zire bere bi esku beroen artean, artu zue nere otza, eta ereman zire erleak zeuden tokira amatxik, eta erlauntza guzietan io zue pixka bat deituz erlei, eta erranez: zuen eta nere nagusia il da. Egin zazie argizeri geiago. Eta erlauntza guzietan entzun ze marmar aldi bat eta juan gine geuren etxera.

Uda azkenean etorri ze argizari biltzeko eguna eta erran zute pusken ere argizeri geiago egin zutela. Gero egunoro baze argizari auserki aitetxin elizako obian eta urte anitzez bixtu ze bere obian bi argizari bedere. Euskal Errian argia begiratzen da egunero argi dezaten ilen bidea zerurano. Ori izen da sinesmen bat aspaldikoa. Nik sinetsi dut beti Kristo dela gure denen argia, biziendako eta ilendako.

Orai esaera tiki bat: *Ezta irrik egin bear ezta aur tikiaz eta ez txerri tikiaz*, geienenean aundienak izeten direlako.

Banka, Aldudes eta Urepel aski urbil daude Mezkiritzko errire. Urepela eta Aldudera juaten gine Erratxuko malda beiti Mandabideko etxera, eta andik Urepela. An baginduze aide alde bat, etxeko amatxin aldetik. Orrara noiznai juaten gine<sup>4</sup>. Ez ainbertxe Aldudera, baño baze erri ortan etxe bat erraten zuena Erroibarko etxea zela, eta berean egiten zirela batzarreak. Noizkoa? Ez dakit, baño ederra ze lau kantonekin eta aski aundia. Orai ez dakit txutik dagon. Bankara juaten gine Mendixuritik

4 1. koaderno txikian honako hau gehitzen du: "Nere gazte denboran agin bat atera bear bagindue juaten gine. Iruñara etorri bearrean, Donibanera, Arnegitik segido dago. Biribil aundi bat juaten ze egun geienetan eta itzultzen zen egun berean. Merkeago ze eta agin ateratzea ere bai. Guk alderdi ure maite gindue".



barna. Baño bei esneduna erematen ginduelaik, orduan juaten gine Aduanatik barna eta ori Urepelen ze. Erematen gindeko amatxin anaia gaztenain etxera, zerengatik etzuten ardi esnea baizik eta etze ona izebaindeko. Zenbait urtez kostatzen ze giago bertze aldi batzurretan baño; bein jua nitze ama, aita eta anaiaikin. Etxe ortan bizi zire osaba, izeba eta aien seme bat eta bi alaba. Bertze etxe batean bazitue bertze illoba batzuk ameka umekin. Ebetaz gañera, iru erri ebetan eta Baigorri bazitue lengusu eta illoba alde bat. Gu juaten gine aski, baño berak ere etortzen zire noiznai gure etxera eta arront maite gindue elkar. Izeba etze etortzen al, itsua zelakoz.

Bein batez, nere Mezkirizko etxeko altzinean degun baratze tiki batean egin ze tipula aundi bat, lau libera terdikoa, eta eskatu zigu ia emanen gindion eta gogotik eta ereman zue Parisera, eta an eman ziote sari bat ederra.

Baño denbora txarrak etorri zire eta gorroto edo gerra zar oiekin, gauza guziak nasi zire. Ezin ereman gindue bera, ezin jua gine nior eta gu baño makurrago gelditu zire berak: izeba il ze, osaba sartu zute giltzepean... eta gu jua gabe giago...

## Gertaera geiago

Guk Frantziako Ezpeletan ere baginduze aide batzuk, ez dakit bi aitatzien arreba zen edo beren lengusine, nere idurikoz, arreba; bizi ze erri ortan, eta aski maiz etortzen zire senar emazteak gurekin egun batzuk egotera. Maitegarriak zire, zerengatik berek maite zigute anitz guri. Nere lau urtetaik amabietara etortzen zire anitz nere eske.

Eskeintzen zirete gogora eldu zitzaioten gauzik oberenak, baño nik erraten niote denetara gauza bera: baño aita, ama eta amatxi an izen dire? Ezin erran zute baietz eta bertz edo sei ordun buruan, berriz asten zire eskeintzen eta galdera egiten, baño nik beti berdin: aita, ama eta amatxi an izein dire? Eta naigabe aundia artzen zute, nik ez nuela deus nai aiek gabe. Ondar aldian etorri zirelaik, nik banitue ia amabi urte eta eskeintza aundiagokoak inez asi zire, baño ni betikoa, denen gañetik aita, ama eta amatxi... Ez nitue geiago ikusi.

## Oitura bat

Oillo koloka<sup>5</sup> paratzen zutelaik arrotzekin, arrotze bakotxari ematen ziote kandelade bedeinkatuarekin; piztu ondoan botatzen zio argizeri txinta bat, eta bakoi-

5 “Ollo loka” dio I. koaderno txikian.

tzarekin egiten zuten *Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean*. Eta izen bear zuten amairu, amabortz, amazazpi edo emeretzi arrotze, sekula amalau, amasei edo emezortzi. Ontaik beretik ezagun da sorginei beldur aundia bazekotela.

Nere etxea otoitz anitz egiten zen etxea ze. Goizargiko ezkilak iotzen zirelaik, guk *angelus* iru *agurmariekin*. Meza soñua aitzen zuelaik mezara; eguerdi soñuak entzuten ginduzelaik, berriz goizean bezala, atsaldean denak bilduik Ama Birjiñari arrosarioa. Gero bedratzietan iotzen dire, gure erriko elizan iru danda, mantxo mantxo, gero bertze iru berdin eta gero bertze iru ondarrak. Ezkil iotze onei deitzen zaio *keda* eta erreztatzen dira iru *aitagure* garbitokiko animendako. Otoitz geienak ematen zitue nere amak eta gero nik. Eta neure senar eta umekin egin dut beti. Nere uestez, Euskal Erriko oituraik ederrena da au, gero orrekin batio bertzeak.

Neri bataiatu ziren apeza iltze mile bedratziegun eta amarrean, jorrailaren amekan. Goian bego. Aren gibeletik etorri ze Urtasuntar Simon jauna. Au Auritzberriko semea ze eta neri eman zire lemexiko aldiz gure Jauna.

Mila bederatziegun eta amabian eman zire. Urte artan artu zigu sei urteko aurrari Pio amargarrenain (orduko Aita Sandua) manua. Onei iduritzen zitzaio aurrak txiki txikitatik eman bear zirela Jaungoikoari, eta nola obeki Berai urbilduz eta manez bere Gorputz odola ianaritako? Ori egin ze urte artan eta nere errian jorrailleain ogeita batean. Nik sei urte nitue, baño bazire amabietarañoakoak ere.

Ez da egundeño Mezkitritzen ainbertze aur izan lemexiko jaunartze batean. Eta apezak ere nai zue bere poza denek izan gindezan eta bere etxean artu gindue meza ondoan, baru austeko ianaria. Eman zigute denei txokolatea ogiaikin, ogia dena ebakia busti egiteko, bat bakarra artu nue, eta egun guzien egon nitze ezin ian geiago. Oroitzen naiz iruzkiz betea zela egun guzia, lorez betea zegola eliza eta bai eta ere sagoiak eta baratzeak. Aize pizka batek erematen zue urrin goxo bat xoko guzietara. Zerua arront urdiña... Zer eguna!!!; sekula merexi ez nuena. Bi amatxiek etorri zire nere eske, biek nai zute bere etxean barua auste, baño nik ez nue deus artzeko gogoik<sup>6</sup> eta atsaldeko lauetaraño ez nue deus artu, eta orduen esne txortat. Etxeko amatxiki jua nitze.

#### D. Manuelen eskola eta eliza

Egun ortan ez nue iateko aldarteik, ez nue iaten al deus ere. Urte aren uda azkeanean etorri ze apez berria. Mezkitrizko erriko semea ze eta ezagutu zue irakasle baten

6 1. koaderno txikian dio: “Ez bainuen ian gogo deus ere”.

bearra zegola bere sortu errian eta sartu zen lemexiko egunean erran zue iortzeko aur guziak eskola zaarrera, etze berrik, eta berak erakutsi bear zigula denei al guzia eta erriak saritu zezala eskolako liburu eta paper guziak, eta eginala erakutsiko zuela juaten zen guziari. Erran zue lan anitz bazegola eta berak etzuela apez lanetan baka- rrik egon nai.

Biramonian asi ze eskola ematen eta an nitze ni gogo aundi batekin ikasi naiak erakusten zuen gauza guzietatik. Arront euskalduna ze, maite zue euskera biotz guzitik. Erraten zue euskera ain pollita eta gozua zela egina zelakoz Jaungoikoain solas egiteko.

Elizako itzaldi guziak euskeraz egiten zitue. Aitortzeko euskeraz nai zue, otoi- tzak euskeraz, denak euskeraz, baño eskolan liburuetan zegon bezala: erdaraz.

Ala, urte batez etorri ze errira ikerlaria eta ikusi zuelaik zenbat eta zein ongi ikasi ginduen eskoletan erakusten zigutena, gelditu ze bat ina, ikusi zuelaik zein al- tzinatuak gindeuden. Apez onek egiten zituen eskutitzak apezpikura edo jaurlari edo bertze toki goretara, neri eginazten zire lan ori eta goren gorenaz amar urte izein nue. Eta orai berean bizi bada lengo aur aietatik ezagututzen da nork erakutsi zion.

Nik ez dakit nola erri ontan etzagon in oroigarri aundi bat, seme kutuna... edo alako zerbait, goratzeko aren oroipena. Gizajoari guti iraun zion osasunak, lau bat urte egin zitue erakusten eta guzietan juaten nitze. Oroitzen naiz elur aldi aundi batean, elurra belaunetik goiti eta nere aitak alako denbora txarraikin etzigu utzi nai eskolara beldurrak oztiko ginela eta ertxi zigu gañeko ataria, baño nik ixil ixila ede- ki eta iges egin nitze eskolara eta ezagutu zue apezak; denbora arekin ez nuela jua- n bear, eta irrimurixke bat egin zue erraterakoan ez nuela ongi egin juatea. Baño ain maite nue eskola...

Eskola eta eliza. Goiz aski izaten baze egunoroko meza, goiz juaten nitze aita eta amaikin, ianarik oberena ze neretako. Bagindue liburu eder bat “Meza saiduaren baliotasuna”, nere izeba batek (serora), nere amain aizpak, iorria Mejikotik. Ure irakurtzen nue al guzia eta mezain ontasuna nai nue erdietsi egunoro, neretako eta nere guziendako, ilen eta biziendako eta, nere ustez, zenbat erdietsi duden ez da errax erratea, geiegi da neretako eta al nuen guzia egin dut egunoro erdiesteko geuren bearrak konpontzeko eta oraño altzina.

Lusarreta eta Erreatar Manuel jauna anitz aldiz jua ze gure etxera erratera niri emateko eskola aundia, eta ez irakasle bakarrik, geiaokoa, nik ikasteko banuela doi bat aundia, eta Jaunari eman bear zuela kontu aundia idukitzeagatik etxean altxatua talentu bat. Baño nere etxean etze egin zeiken gauza, niondik ere. Lan aski bazego iatekoa eta denen jantzi guziak erosi eta egitea. Denak iosten ginduze etxean, baño, ala ere, etze aski. Nondik eginbear guzia niri Iruñan idukitzeko? Eta nere aitak erra-

ten zio ez daikena ezin ina da. Apezak nai zue erri berai eskatzea bear zena eta berak ordaindiko zuela nik ez banue egiten, baño, ala ere, dena gelditu ze deustan, nere aitak ez zue utzi eskatzera. Eta altzina neure lanetan.

Apezak ertxi zuelaik eskola, etorri ze bertze irakasle bat Malagakoa, alarguna ze eta ekarri zue berekin amalau urteko alabat bat. Arek erakusten zue zekizkien eskulanak eta ni juaten nitze ikastera, baño eskolatik kanpo.

Eskolara beti bezain gogotik juaten nitze. Egun batez etorri ze nere ama bere gauzak egitera Iruñara eta emen aurkitu ze ango irakasleaikin eta geldiazi zio eta erran zio: zure bi alabak lemexikoak eskolan dire eta ikasten dute aisa erakusten zaioten guzia, karrera bana ona eman zazute eta segido egingo dizute. Egin zazu eginalak orren bearra dute biek, bi zarrenek, zure semeak ez dire ain abilak.

Nere amak ikustian ezin zuela egin gurekin merexi ginduena, naigabe ederra erematen zue ezin zuelakoz egin erraten ziotena. Gure etxean sobera estusko gindeude eta lan anitz bazego gisa guzietara, geienak zire guk egin bearreak eta gogo aundiaikin ikasteko al guzia, baño erakusleik gabe etzelakoz, gelditzen gine geure lanekin eta geuren guziekin. Aitak irabaztekotan guretako zire lan aiek guziak.

Berantago nik amazapi urte beteak nituelaik, apez bera bizi ze eta egun batez etorri ze nere etxera eta erran zigu eldu zela gauza on batekin neretako. Galdetu gindion ia zer zen eta erran zue: ni neure eritasun onekin juaten naiz maiz aski Donostire eta an ezagutzen ditut markes batzuk. Ebek bazute alaba bat zuen alaba zarrenain adinekoa eta arront bera iduria. Il da eta ez dute geagoko seme alabaik, orai nai dute zuen alaba berendako eta eldu naiz erratera nola nai duten. Zuen alabain izen abizenak ez dute agertu bear deustako; deituko da, erran zue nola, ni bakarrik oroitzen naiz izenaz, Mari Karmen. Erran zue segido bear nuela eskola on batera juan eta ikasiko nuela nai nuen guzia, markesa izen bear nuela eta eskola berean egon bearra nuela zenbait denboraz, gero bere aiskide oiek erakutsiko zirete neure osaba eta izeba berriak; neure aita eta amaz itz bat ere. Bakarrik berak nere aita eta amak. Nik ez nue bertze gurasoik nai, neurriak baizik, eta segido erran nio: diru guziengatik ez nituela nere gurasoak utziko. Etzitzego ongi juan apezai nere ateraldia. Uste zue erdietsiko zuela, baño ni fier nindego eta ez zire itzulazi... ilak izan bazire ere, ez nitue utziko.

Amak erraten zigu balin baze iturri bat goizeko seietaik zazpietara goizoro urrea botatzen zuena, zer orduko egoin gineke iturriari beide ia noiz asten zen urrea botatzen. Eta meza sandua mila milako aldiz geiago balio duela, ez dugu egin bear al guzia biltzeko denendako, iltzen ai direnendako, goseak, egarriak, buluxiak dau denendako, giltzepen, bidean nekatuak direnendako, bizi guziendako eta il guziendako, itxasoko gizonendako? Etze nior gelditzen gure otoitzetaik kanpo.

Gure makurkeriak zigortuak izaten zire, baño gure gurasoak, ama beintzat, iru edo lau egunez baru gorrian egoten ze, guk eginikeko bekatuen barkamendua eskatzen Jaungoikoai. Orai ez degu uste bekatuak direla ere, uste degu aingeruak direla. Eskatzen degu bear duten guziengatik, baño ez degu uste bekatuak egin dutela ere. Guk, nornaiei egiten bagindio makurkerie zenbait, juan bear gindue barkamendua eskatutzero len baño len. Gure etxean ezin gindue deus gauze txarrik egin.

### Orai gertaera negar eginazi ziguna

San Juan goizean, garagarrillain ogeite lauean, mile bederatziegun eta amabortzean, ez nue uste nere aita arrixku aundietan erabiltzen zela guri azteatik, ezta buruan pasatzen ere, baño aurrak gine eta etze guk iakiteko gauza. Nik goiz artan ez nue entzuten batre asotsik, iaiki eta juan nitze amaren gelara eta gaixoa negar minak artua zego. Galde egin nio ia zertzuen, baño ezin aterazi nio eta azkenean erran zire: zure aita io dute anitz eta Iruñara ereman dute giltzepera. Juan gine biek mezara aitarendako eskatzera. Amak meza ondoan deitu zue Iruñara, etze oraño urrutizki-ñaik, baño argieñak bazue poste zenbaitetan itz egiteko bidea eta itz egin zue berak azi zuen aur baten amarekin. Nafarro guzian ezagutua zen andre irakasle guzien zuzendaria Nafarroan, eta ez dakit zer intzuen, baño atsalde artan berean etorri ze nere aita etxera. Gizajoa, dena kolpatua, dena odolguriz bete; urte bat osoa kosta zitzaio pixke bat sendatzea. Baño sendagileak ikusi ziolaik, parte eman edo salatu zuen eta karabineroak bota zuzte gorputzetik eta eman ziozte bertze zigor alde zerbait, ongi merexie zute. Baño oietaik zer itxaropen izen dezakegu? Baño gaizki, gazkiago ze bere lagunak egin ziona. Erriko mutil batek juan beartzue nere aitaikin zaldi eder batekin Frantziara, baño mutil onek, berak juan bearrean, iorri zitue karabineroak arrepa zezaten nere aitari, eta aisa denendako, baño nere aitaindako makur- rren makurrena. Ameriketara juan ze eta an dago; obe du, bertzenaz denek begi iluneikin begiratuko zute, Mezkiritzko guziek. Orai ioka nezake edozein gauza ez dela gogoan pasten ere ori bezalako bertze bat.

Lemexiko urtean nere aita desinik gelditu ze, sendagilletaik sendagilletara; gañera, noiznai deitzen zute legeko gizonen eta juan bear izaten zue; gañera, motel motela zego, nik erran dezaket, arreatu zekoten gibeletik, urte batean gure azienda juan zen eta deus gabe gelditu ginela. Bei eta aratxe bagindue bedratzi buru, bi beor, eta multa eta bertze arat onatekin deus ere etzigute utzi. Eta egun batean etorri zire lau gizon baituzera etxe berria eta orduen nere amatxi atera ze, eta erran ziozte: noren etxea baitu bear duzie? Etxea eta lurra nereak dire eta nere alabain senarrak, ez eta alabak ere, ez du deus egitekoik ebekin. Paperetan erraten du arenak direla. Non dire paper oiek? Bai zure gizona iltzeikin paratu dute zure alabain senarrain izenean.

Amatxik: nork manatuik ez eta nere senarrain izenean ere? Nere aitak eta amak neretako utziak dire eta oraño nik ez dut berexi norendako gelditiko diren, oraño ni bizi naiz. Orduan juan zire gizonak, deus erdietsi gabe. Idazkariak eginikeko saltsak, azkenean nik garbituak dire, naigabe aundiak pasatu onduan.

Urbilen ilbeltzaren ogei eta bortzean sortu zitzaigu aizpa bat, baño buruko meninjitis deitzen den eritasunarekin sortu ze eta anitz oñazekin bizitu ze abendua-ren amazapiraño. Egun artan ien ze zerura. Zer ameka ilabete igaro zituen aurrak, eta guk ere bai!!! Sendagillek erraten zute amain naigaben ondorioa zela.

Zaldia in nagusiak iruzurtu zuen giltzepeian egon zen orduetan. Juan ze ikustera eta erran zio erran zezala zaldia berea zela eta ixil ixila denak berak ordaindiko zituela, sendatzeko ere berak egingo zituela kontu guziak. Oraño ezta agertu deuse-tara eta balietu ze, zeren nere aita ligualdi arekin aski buru motelaikin gelditu ze-lakoz. Bertzelaz, egia errain zue denen gañetik, eta orduen bai ordaindu bear izanen zuela guziak. Jaungoikoak barka dezala, aspaldik ila da.

## Berriketak

Nik amabi edo amairu urte nituenean, Mezkitritzen baze liburu aundi bat ba-tetik bertzera zebillena, baño ez dakit zein etxetakoa zen, baño bai Arturo Kanpion jaun zenak eгина zela, eta artan erraten zue Mezkitritzko eta Uretako artean izan zela eliza bat, bere gaixotegi batekin. Oraño ango bideari deitzen zaio Elizezarko ertea. Erraten zue benediktinoak zeudela aren kontura eta Mezkitritzen bizi ziren guziak aien langileak zirela; errian izena eldu dela ‘ezkila’tik, beti an zutena eli-zan zuten ezkilak iotzen zegola, deitzen andik igarotzen ziren guziari. Geienak Konpostelako Santiagora zezinak zirela; eta benediktinoek bazutela bertze eliza bat Zilbetin eta erri onen izena eldu zela ‘ixil beti’tik, zenengatik ala egoten zire benediktinoak ixilik beti. Bertze eliza bat bazutela Ibañetako gañian. Bearbada zisterkoak zire.

Beortegitar Mikel jauna, nere ezkontza (berantago) bedeikatu zuen apezka. Itzaldi batean entzun nio niok maite bear bazue Orreagako Ama Birjina guk Mezkitritzko errikoeak, egin duela pusken ere eginbide geiago, zerengatik an egontze anitz denboraz erriko umen ama eginez. Arek erran zuenez, Mezkitritz eta Uretako erteko elizan egon ze anitz urtez Jerusalendik ekarri onduan, bai eta erraten zue uste zela Lukas ebanjelistak eгина zela. Erran zitue zer urtetan eta dena ain garbi, iduri zue irakurri berri berria zuela. Mezkitritztik artu eta Ibañetara zematela orduko be-nediktinoek eta gibeletik zezila arabeak eta orduen beldurrak etzirala Ibañetara iri-txiko, Orreagako sagoi batean sartu zutela al zuten bezain ongi, baño ez zutela

denboraik izen ez idazteko ere non utzi zuten. Gero... il izain zirela gerran edo bertze gisa, baño niok ez dakiela geiago atera artio.

Nik irakurri artio erran duden liburu au, uste izan dut nere erriain izena eldu dela 'ezki iri'tik, banekie ezkiak bazirela. Neguan nere aitak eskalapuin aski egiten zue eta ateratzen zitue ezkietaik eta beti galde egiten nio ia zur ura ze zuaitzetaik atera zuen eta erraten zira ezkitik, eta nik egiten nuen neure baiteik Mezkiritz ez ote da 'ezki-iri'?, eta gogoratzen nue idazkari zenbaitek eman zekola *m* eta *z*.

Nik dakidena da Mezkiritzko lur geienak erosiak direla, Orreagako kanonigoei. Neretako irakurtzia izan da arront maitegarria, orrengatik igandetan eta besta egunetan ori ze nere iosta iokua. Nere aurridek etzuten ongi artzen, baño nik ez nue uzten al.

Aite sendatzen asi zelaik, guk beraiki juaten gine lanera, sobera iausti gine ez egiteko inalak, oraño guti aurregi gine eta eskola zeño ez gindue utzi. Alorrera edozein lan egiten gindue, eskola etzen egun guziak, artzen ginduze lanerako. Aitak artzen zitue lanak alde batera, geiengan Auritzko edo Aurizberriko mendietan eta eskola ertxi zelaik, osasuna galdu zuelaik apezak, eskola ertxi ze eta aitaiki asi gine mendiko lanetan eta ikasi gindue ongi. Aitak botatzen zitue bagoak eta gero ekenetzen gindeko abar eta egur me guziak, eta zerra aundi batekin zerratzen gindue dena, eta gero mallu burdin eta ziri burdinekin xeatzen ginduze denak. Gero ikatz egiteko balin baze, erematen gindue ikatz egiteko plazara, eta an inguruka paratzen gindue, egurra ongi txutik eta gero gañan eta aundi aski zelaik gañan, guzitik estaltzen ze egurra lurraikin eta dena ongi gelditzen zelaik, ematen zitzaio su eta berdin izaten zire bortz edo sei ikaztoki, eta bertze aldi bazuzte amar edo amabi ikaztegi, eta erre bezala ateratzen zute eta zakuek betez juaten gine eta berriz egur geiago egin eta berriz ikatz egiten. Ongi egonez geroz, iñalakin lanean, bear ederra ginduelakoz eta ez gindue lanain beldurrik, ongi ikasi gindue eta bertzelaz bearrai deitzen gindio eta ikusi biarko.

Bearrai deitzen ginduela ez da gezurra, nik sei urte nituala deitu nio. Goiz batez, aitak astoai ekendu ondoan egur zama, sartu ze etxera gosaltzera eta nik erran nio: ni jua nindeike astoakin mendira, jua eta banu nok kargatuko dire, orduen zuk gosaltzen duzun denboran, ekarriko nezake. Eta aitak erran zie: bearrak kargatuko dizu, zazi lasail edo trankil, ikusiko duzu zein ongi etortzen zaren. Ala jua nitze asto gañan, nik zautzen nue mendia eta neure aitak manatu bezala jua nitze lasaitasunez bete. Jua mendira eta astoa bera paratu ze egur metain ondoan, eta iausti nitze ederki. Ekendu nitio sokak eta egon nitze ixtenpat ia etortzen zen bearra, baño nior etze eldu. Orduen asi nitze bearrai deitzen, baño bearra etzela ageri ia asper-tuxia, etzelakoz nior ageri, asi nitze egurrak paratzen zamuketan eta ongi arront, fardelkerik gabe, arront ortan nindegoken bezala eta, gañera, egur anitz paratu nio.

Soka nola paratu? Len bezala nindego astean, baño negarrik egin gabe asi nitze alde batera eta bertzera, baño azkenian erdietsi nue, eta etxera. Ederki jua ze astoa, etzitzego egurrik erori; etxeko atarien zeude aita, ama eta amatxi ia noiz agertzen nitzen.

Neure aitari ikusi orduko erran nio: aita, ez da nior etorri astoain kargatzera. Eta aitak: nola egin duzu? Nik: nola bearke nue? Ori da bearra. Neure aurtasunean erran nio: ori ez da egiten, gaizki egina da. Ori ze nere lemexiko aldie eta aitain ondarra. Nere aitain aitak ere gauza bera egin ziola berai erraten zue.

Etxera urbil... ez da ain urbil, baño sobera dakit berandu banu an agertuko zela lau oñaldiz. Gauza oiek pixkat gogorrazteko aurra ongi dago, orduan ez bazire iduritu ere. Nere aita etze egundaño geiago astoarekin egur eske jua. Zertarako? Bazue alaba eta ekarriko zue.

Nere aitak deitu zio bearrari Sakarteko oianean eta nik Iriko oian eta Turziperako artean. Irrigarria da, baño egia da.

### Oitura batzuk

Erematen zelaik zezenera beia, nai zutelaik ume urrixa erematen ze goizetik eta nai bazute orotsa artsean edo ilunabarrean. Gizonak bazire berdin egiten zutena berek, nai bazute neskakoa goizetik eta artsetik mutikoa. Eta badakit ongi atratzen zela.

Guk beti izen dugu asto bat egurak etxera biltzeko, ongarriak alorretara eta negu minean aurrak eskolara eta eskolatik etxera eremateko; ola zangoak busti gabe idukitzen zuzte. Orai baño pusken ere elurraldi aundiagokoak egiten zitue.

Oroitzen naiz urte batez, epaillearen zortzian, Mezkiritzko elizatarian negurtu zuela apezak egun eta ogeite zortzi zentimetro.

Gero, asi geroz udaberria, baze xixetoki anitz, nik seurik banekizkie alde guzietara eta bakarrak biltzen nitue, maiatzeko xixak deitzen zire.

Garagarrillan amabortzetik ogeiera asten zire maurgiak, orai ilabete ondarrean asten dira. Goizeko lauetaik amarretara edo amekatarra biltzen ginduze al guzia eta saltzen ginduze segido Auritzberriko andre batei; berai erosten ziote Iruñan.

Eta egiten gindue sos alde bat pollita. Argitu orduko mendian egoten gine eta txoriei abestuzten, gu beti txori abeslarien gibeletik. Mendia gorago eta urrin goxoakoa. Loreak, belar ebakiak, maurgiak, intzak; denen artean izaten ze alako urrin goxoa... ez daike aski erran. Ni baliatu naiz denetaz al guzia, eta txori abeslarietaz ere, txoriek larretan mintzatu eta abestu egiten dute; alde batetik, txoriek



erraten dute “bauk dirurik?”; bertze aldetik: “guti, guti, guti”; eta anitz gisetara: “tortolo, tortolo”; tortolo ori erraten zutelaik, eurie azkar<sup>7</sup>.

Bazue denbora anitz, bearbada berrogei edo berrogeita amar urte, nere al-tzinekoek bi alorre bertzenak erabili ginduzela, bat Useingo errekein ondoan. Zenbait ur ontzi beteak atera ditut errekatik!, baño alor oien nagusia bizi ze Argentinan; eta guri deus erran gabe saldu zute etxea eta lurrak bere aide bati, eta gelditu gine Lezearako eta Useingo alorrik gabe. Ola lur gutikin gelditu gine eta labaki berri bat egiteko lana izen gindue. Gereingo lur puska bat ederra eman zigute eta iru anaia arrebek egin gindue. Lenik sasi guziak moztu ginduz eta idorrazi, denak bitartean xerradatu gindue, dena idorrazi ongi eta multsuka paratu, azpian lar eta ezpelak, urrak eta sasi guzietarik, gañan xerradatu ginduen guzia eta eman gindio su multsu guziei eta asi gine ailtzurtzen labaki guzia, sartuz ailtzurra al guzia, eta egin zelaik dena, suek itzeliak eta dena ongi barreatu guzitik. Nere aitak ogi pikorra bota zue, denetik, guk nasi gindue denetik eta berak egin zue otoitza:

*Jaungoikoak duela parte  
Aingeruek bertze ainbertze  
Eta gaistoek ez batre.*

Onen gibeletik iru aldiz *aiteguria*, bertzuat ilen animendako eta iru *agurmaria* Ama Birjiñari bedeika zezan gure lan guziak; otoitz bera egiten ze ogie labean sartzen zelaik; artsetan, sue autseikin estaltzen ginduenean... eta txerri il ondoan gatzean paratzen zutelaik.

Nere aitak lur lanean denbora guti egiten zue. Irabazi nai zuelakoz egunean bear zena. Sakarte eta Larregañen beiekin pasten gindue koldea, eta gero ongi ailtzurtu, berriz area pasatu, gero ailtzurreikin. Uda azken batez, nik amalau urte nitue-  
nean, quartu nitze non zen egur aldi ederra, eta anaiakin egin gindue aste bat osoan egur anitz. Anai ondoko aizpak astoaikin erematen zue etxera, guk zarrenak egin eta atera astoa egon zeiken tokira. Ainbertze egur egin gindue eta ain alaitasun ederrean gindeude, gure amai gogoratu zitzego zazi zer: aur ebek ezin egin dute ainbertze lan, norbaitek laguntzen tu, zetaz? Orduan igorri zue gure amatxi ikusi zezan nork lagun-  
tzen ote zigun. Amatxi jua ze gurekin, baño etze nior juaten eta etze nior agertu ere. Orduan erran zio amari: egun guzian ez da nior agertu eta berek iten dute dena. Bai langileak dire eta uz daizke bakarrik. Aita etorri zelaik, erran zio amak nola amatxi iorri zuela ikusi zezan zer ai ginen gu, lana bakarrik, eta lasai denak iakitean ez ginduela nion makurrik egiten.

7 1. koaderno txikian gehitzen du: “Txorien abestiak denak nasik, bai eta urigelak krok, krok, krok eginez”.

Guk lana izanez geroz, onak gine, baño ez bagindue, aski makurrak. Guretako lana arrot on ze, denak txinurriak bezalakoak gine.

Laronbat arts batean, oroitzen naiz, bago zar aundi batei su eman nio etxera urbil aski zelakoz eta egur anitz zuelakoz. Nik nai bezala astelen goizean eroria zen eta dena xeiatu eta ereman gindue etxera, baño lan ori amabortz egun seurik kosta zitzaigu. Gure aita langile aundia ze, baño ama eta amatxi ere bai. Amairu umen aita, egun guzien inelakin lanean eta artsean kontrabando eske bortz peztengatik; nai zue aseik bizi gindeizten ume guziak eta ez da ain errax. Udan, egun eder batean, juaten gine iru zaarrenak aitaikin eta amaikin bixer arrepatzera eta gu abie eske Asiberko mendira, bi saski betetzen ginduze; bazkaltzen gindue elkarrekin eta atsaldean bil-tzen gine elkarrekin eta denak batean juaten gine etxera.

Bidean quartzen ze nere ama arri urdin batzuetan eta erraten zue iduri zutela bi soseko gaiak. Denak gozo gozo juaten gine etxera eta bidean oraño amak izeten zue zer erran, ipui pollit bat, Jesusen bizitzako gertaera zenbait, denak ixil ixila ent-zunak. Galdera bat edo bertze gaztenetaik... Egun ederra izan gindue beti bezala eta eldu ze bertze eguna.

Ama Birjina Orreagako aña, euskaldunen amaina. Anitz aldiz Auritzberri igaro dut argitu gabe. Auritza urbiltzen gine argitu orduko, argizabalean Orreagako elizan. Eta an Amatxoi erraten geuren erran bearrak. Etorri gara berriz zurekin egotera, zeure egun eder ontan. Nai dugu aitortu eta ongi erranez guk egin tugun gauza ez egin bearrak eta egin bearra ez ditugunak ongi. Lagundu zazu zure umetxo guziari, gaur denek nai degu garbi garbia paratu zure ixpildu bat bezala, ikusi zaiten berean, zuk nai duzun bezain garbi. Eta, otoi, gorde gaitzazu gaitz guzietarik. Zure semeari eskatu zazu gure orain arteraño bako barkamendua, eta altzina ez utzi erortzera:

*Izar eder zoragarria  
Zeru goian zera Maria...*

Aitortzen gine denak entzun ginduze bire meza bedere, eta ateratzen gine baru austera. Geienean juaten gine aita, ama eta iru edo lau zaarrenak; bertze gañerakoak gelditzen zire amatxikin etxean.

Urteoro mezak aginduak uzten ginduze geuren ilendako, sarituik gelditzen zi-ren berek eskatzen zutena. Gero meza nagusira, ori entzun gabe etzen nior gelditzen. Ama Birjiñaren iturrian ura edan gabe, begiak garbitu gabe... etze nior sagoi artaik ateratzen. An baze gende anitz urteoro. Frantzie aldetik anitz euskaldunen ama dei-tzen da, Baztandik ere anitz, Donostitik ere ostatuak beteak. Gu Bankako, Urepelgo, Aldudeko, Baigorriko, Itxasoko... aidekin aurkitzen gine oñaldi. Aezkuakuak, Ar-tzekoak, Erroibarkoak, Ezteribarkoak, Iruñakoak, Aoizkoak... eta ez dakit zenbat erri geiaokoak. Denbora aietaz mintzo naiz. Orai biribiletan juaten dire eta biribilez

betea egoten da. Ni badu denbora ez naiz izen, zerengatik ezin utzi dut neure gizona, erixko dama anitz urtez eta nere tokia aren ondoan dago. Meza nagusia, geienean, ematen zue apezpikuak eta itzaldia beti apez euskaldun batek, ala ikesten gindue geiago maitatzen geuren Orreagako Ama. Geienak ateratzen zira bi begiek negarrez beteak. Anitz urte artan iltzirelako, juan den urtean ereman zuten laguna... bertze batzuk oroitzuz zer laguntza aundiak izan zituen Amarengandik ondar urtean... bertze senar emazte gazteak oraño umerik etzutelako eta orai badutelako bi ilabeteko tiki bat... Eta ainbertze gauza entzuten da egun ortan...

Ala etortzen gine etxera, biotzak beterik, an aitu degun gauzez eta eskerrak emanez denen gauza onengatik.

Nere aitak, aunditurik etortzen ze etxera, bere aixkidei erakutsi zioten bere andrea eta umeak, denek zorionak ematen zioten... Zer bear zue geiago?:

*Goizeko izarra ez da ain ederra  
Nola da Maria zure sortzea...*

## **Bertze gauza batzuk Mezkiritzkoak**

Gure Sakarteko alorrean eraikitzen ze aketa (kafea erdaraz), Frantzietik ekartzten zute aketa pikor tiki bat eta eraintzen zute eta anitz ona izaten omen zen eta, toki gutikin ere, urte guziko izaten zute. Nere amak erraten zue aise oroitzten zela debekatu zutelaik eraikitzea. Sagoietako baratsetara urbil eraiten ze txitxirioa eta aixkola, baño lemexien ona zena gero asi ze txarzen eta aspertu ze nekazaria.

Lenagoko urte batean lur sagarra eraiten baze alor batean, bertzean, alor berean ogi pikorra eta ongi aski ematen zue, baño orai obeki eldu zaiote belar onak bei esnedunendako. Mezkiritzko egitik barnera egiten ze ongi ogi pikorra, baño Auritzberri aldera ogi pikor bat ere ez.

Emezortziko agorrillan asi ze Mezkiritzen, gripp deitzen zaion eritasuna, baño urte artakoari deitu zeike izurrie, zein gaistoa! Lemexiko iltzena gizon adinetako bat ze. Bigarrena nere aizpa tiki bat<sup>8</sup>, egun berean bertze aur bat. Denbora ederra zego, baño orrengatik zinpi zanpa asi ze gendea iltzen. Mezkiritz erri tikia da, baño izan zire egunak iru iltzirenak, eta ez dakit zenbat egunez gertatu zen ori, bakarrik dakit il ezkilak ixildu zirela, akorduen zeuden eriek berek eskatu zutelako. Nik ez dakit nola bizi garen gaitz orrek ukitu zigun guziak. Nik beti uste izan dut zain zerbait autsi edo lertzen zela barnean eta arrazoñaikin mintzo naiz.

8 1. koaderno txikian dio Matilde zuela izena.

Neri gertatu zitzaide gise ontan: amairu urte bete berriak, sukar aundi batekin, guatzean nindego, ez nue batre ezaugerik, gau guzia ametsetan gau artan il ziren iru mutilekin. Nik ez nekie eri zirela ere, gogoan pasatzen ere, iletaik batekin borrokan (ametsetan) eta inder aldi batean gelditu nitze arront akordurik gabe. Ez dakit zer gertatu zen, baño biramonean nire koartoan? salan? Dena dela, an sartu zen le-mexikoak oi u aundi bat egin zuela eta ni ilitzerri [sic] nitzela, eta oroitzen naiz nola odol guziz estalia nindegola, baño ez dut egundaño gogoratu nork garbitu ziren. Berriz akorduik gabe gelditu nitze eta ez dakit noiz artio. Beti uste izen dut, nai eta ez, ongi kosta zela nere garbitzea eta aldatzea neuroi eta guatzeko arropa guzia. Badakit sendagilleak anitz j uan etorri egin zuela nere etxera, baño ez nitze oroitzen deustaz ez eta ere erriko andre bat, juaten zena pixka bat garbitzera eriei.

Nere aitak ere nere giseko odol juatea izen zue. Nere amai odol juate ori eman zio beiti, sendagilleak uste zue beti odol guzia j uan zizeiola, arront gaizki gelditu ze. Aizpa batek edo bertzeak ere sudurretik izan zue. Kosta zitzeigu sendatzea denei, baño geiagoena amai, aitai eta niri. Amatzik ere izen zue, baño aste bat guatzean aski izan zue, gero gutira asi ze obekitzen, baño guk udaberria eta altzinatua etxetik le-mexiko ateraldia egin ginduelaik.

Alako gripp ez dut egundaño geiago ezagutu. Etzue adin bat ere barkatu. Il zire aurrak, mutilak, andre aur izan bearrak, gizon eta andre adinetakoak. Gañera, gelditu zire aski desinak zenbait, bat erbala edo erbaltua, biotzera ukituak ere. Gero denborain buruen il zire gutira gutira. Baño urte berean ere iltzire bakar batzuk, gero iakiten gindue. Guri kosta zitzeigu anitz sendatzea, baño kostaik ere atera gine al-tzina, denak Jaunari eskerrak.

Nere bi osaba ibiltzen zire ilak obitokira erematen, eta berei etzekote ukitu eritasunak deustako. Uste dut etzela gelditu eritu gabe ezta amar ere erri guzian. Il guziak goian beude eta ez daiela egundaño alako eritasunik atera sekula.

Aitari mendian laguntzen gindue al guzia, zerratzen gindue egur lodienak eta matakan anitz egiten ginduze aitzkoraikin, gero ikazplazan ematen gindeizko eskura eta paratzen zitue txutik ikatz egiteko, gañetik ikatz lur batekin, endaiiaikin botatzen zue egurrein gañeraño ain barna sartzen zue endaia... Alako batian autsi zitue bi besoak, bi tokietaik. Ori egin zuenian izentze arroitu bat ain aundia..., nik uste nue endaia kiderra autsi zela, berak ere kiderrai begiratu zue, baño gelditu ze erranez: ez da kiderra, baño ni gurtu nitze azten ari zirela bi besoak eta denak utzi ta iautsi gindue etxera, eta sendagilleak uste zue ezur bat bakarra eta ezkerreko besoan arreatzen zio, baño minik aundiena eskuñekoan zue. Zer oñazeak ote zitue!, baño ain ixila zen!

Ori gertatu zen mila bederatziegun eta ogeian jorraillaren amabortzean. Nere aitak berrogeita bat urte ilebete berain bian beteak; egin gindue inalak sendaztiaga-

tik, baño etzue niok aztatu. Orduan anitz ongi solas egiten ze Ilarregiko andre baten-gatik, ona zaintze, baño nere aitarekin etzue aztatu. Iruñako gaxotegian ere egontze eta ieltsotu zute ezkerreko besoa gañeraño, baño ez gindue deus egin, bortz illabete, baño deus bezala, ez ze deus erdietsi. Bitartean guk, iru ume zaarrenak, ai gine al guzia geuren lanean, ai ziren erretzen zazpi ikatztegi eta, gañera, ai gine egur xeatzen eta biltzen iketztoietara eta altzinean ere egin beartzire. Nere anaiak bazekie nola egur geiago sartu bear duelaik eta gauza franko nik baño geiago afera ebetan, eta bearrrik ura egiten zuela ederki, ikatz eta ikatz onak atera zira. Bagoak botaiak zire eta ola bagindekie biek nola nai, nola xeatu eta ikatzak nola egin; ori bedere ongi atera zirela eta Jaungoikoak lagundu zigu eta egin gindue aitak arturik zuena eta alorretako lanak ere egin zire. Eta ola segitu gine lan guziekin, baño aitak negar ederrak egiten zitue eta aski aldiz erraten gindeko berak lan aniz intzuela guregatik eta andik altzine eginen ginduela guk eta ala polliki polliki pasatu ze urte ura, bertzean unei gelditu ze errian eta bertzean ere.

Aitak besoak autsi zituelaik nik nitue amalau urte, nere anaiak emeretzi ilabete gutiago eta irugarrenak ameka eta erdi; ze iru langile, baño iruak ongi elkarrekin artuak lanak egiten zire eta ongi, sobera ongi gure adinaindeko. Nik egiten nue al guzia sendatziatik aita, baño nere bizkarreko minak gero eta geiago senti zire eta eginal guziak egiten nitue eskulan mota guziak ikasteko eta, negua asi baño len, asi nitze Gereiñe juaten goizoro ikastera goizetik eskuz brodatzen eta atsaldetan lankaiakin, *maquina* erdaraz, brodatzen bi aldetara, eskuz eta lankaiakin. Ilabete terdietan ikasi nue anitz bi aldetara, denbora txarrean lan anitz egiten nue, baño denek uste zute ez nuela ikasi bear nuelakoz eta eginue lanak, baño ez dire lanak ez saritzeko, baño nere oñazeak obediezi zirete sendagilleai eta olezko guatzera sartu nitze, lan guziak utzi eta olezko guatzean. Erraten da aise aski, baño beti gora beide eta alako gogorkerian, ez da batre goxua; gañera, beti lanean arat onat erabili bazera, oraño makurrago da.

Nere eskulanetako irakaslea gelditu ze arritua zenbat gauza egin nuen ain denbora gutiz, puntu eta *encaje* (erdaraz) mota guzietarik ikasi nue, baño guatzean ez ikasia bezala, geldik egon bearra nitze, egon ere, baño iru ilabete egon nitze nonbaiten, baño laugarrenean asi nitze oñaze aundi bat, gero ta geago ezker alde guzia artuz bururaño. Aurpegia arront makurtua, ezin gernurik egin, ez eta bertze bearrrik batere anitz egunez, nik ez dakit zer zen, baño sendagilleak izen txarra eman zion eta gero eta makurrago paratu nitze.

Sendagilleak etzekie zer egin eta zer erran. Nere aita eta ama utzi zitue negarrez beteak, apeza ekarriazi zue sendagilleak berak, aitortu nitze eta eman zire gure Jauna galdinez ia makurtzen banitze nai nuen olidure artu, eta erran nion nai zuelaik ematen al zirela. Etzire eman artsaldean, iluntzean izan zelaik sendagillea iduritu zitzaio arront gaizki nitzela eta erran zue uste zuela ziurtatzera nere iltzea etorriko

zela biramonean. Ain gaizki utzi zirelaik sendagilleak, amak irakurri zire mirabe bat Barzelonan gertatua. Erraten zue iru urteko mutiko batena il onduan piztua izan zela, eta nik neure mingain motelaikin erran nue: oraño ni ez naiz il. Erran zire: ez duzu il bear ere oraño. Ez dakit zer otoitz egin zuen, baño erran zue: emengo elizan apezak emain du zu sendatzeko meza bat bier goizean eta zure aizpa juain de Gereiñie, an atera dezan Xabierko Frantzisko Deunari, eta sinismen aundi batekin eska dezagun denek eta ikusiko zu nola sendatuko zaren.

Olio utseikin eman zire bearbada ogeita amargarren labatiba (erdaraz, baño euskeraz idatzia), baño, bertzetan bezala, deus garbitasunik egin gabe atera ze; ola zego nere gorputza, ola bezala. Biramonean juañ ze nere aizpa, erran bezala, Gereingo mezara, eta meza ondoan ango apezak (niri lemexiko aldiz gure Jauna eman zirena) eman zion neretako Xabierko Frantzisko Deunaren irudia bere besoari ukitua, eta etxera etorri orduko eman zire eskura eta nik paratu nue segido ezkerreko aldian min aundienak nituen tokien, eta segido ezagutu nuen sendatua nitzela, oñazea ekendu ze segido eta atera bear guziak atera zire, nere gorputza arindu ze laister. Ia mogitzen nitze guatzean. Erran bezala, etorri ze segido sendagillea eta errantzuen: zer pasatzen da emen? Eta amak erran zio: zuk egin baduzu puska bat eta gañerakoa egin badu Xabierko Frantziskok, ez degu niok asarratzeko lanik, mire zazu ongi eta ia nola den. Bi orratzekin txistatu zue nere gorputza eta gelditu ze ain arriturik, ezin deus erran. Berriz ere miretu bear degu, eta egin zire bide edo iru aldiz, baño beti uzten zire sendatutako. Eta izen ditut bertze gauza batzuk, baño ordukoa sekula geiago.

Nere aitak eta amak eskeindu ziote sanduari juain ginela Xabierera eskerrak ematera. Urbilen maiatzaren lenean juañ gine, baño aski bide makurrak dire juañ eta etortzeko Mezkiritztik arara eta Xabiartik Mezkiritze. An galderak egin zigute zetaz juañ ginen eta erran gindekote dena zen bezala.

Bizkarreko oñaziak ere gutitu zire, baño ogei urte gorabera atera zire berriz. Sendagillea gelditu ze arriturik, aurpegi makurra xuxendua denak, batetik bertzera denak ongi. Orduan, idatzi ziotelaik Xabieretik galdinez zer igaro zen nerekin, sendagilleak deitu zire, neure amarekin berriz begiratu bear zuela nere gorputza, iakiteko ia bazen zerbait makurrik, baño idatzi zue, erran bezala, nola egon nitzen eta nola batetik bertzera gelditu nitzen sendaturik arras. Ni juañ nitze bitartean Donostira eta, an beartu nitzalaik, sartu nitze goiz batez eliza batera, aitortu nitze erdaraz eta ondarean erran zire ia nongo nitzen. Erran nion: ni Nafarrako erri batekoa, eta galdera egin zire zer errikoa? Erran nio: ni Mezkirizkoa. Galde egin zire ia ezagutzen nuen (neuroi), erran zire nere izen abizenak<sup>9</sup> eta erran nio: ni naiz. Orduan erran zire,

9 1. koaderno txikian dio: “Nere izena erran zire beñipein eta erran zira nola irakurri zuen nere eritasun eta sendatzea nere erriko sendagilleak eta egi egia zela... doi aundia erdietsi nuela eta xuxentusanean erabiltzeko, zerbaitengatik gelditu nitzala lurrean”.

beren asteoroko edo ilabeteko batian atera zela nere eritasun eta sendatze arrigarria, sendagilleak berak erraten zuela dena. Zorionak ematen zirela eta Jaungoikoak utzi zirela gauza aundi zerbaitetako eta ezin ukatu nuela Jaungoikoari eskatzen ziran guzia. Aita Aparain Huarte Iruña ondokoa ze. Orai badaie nere denbora, badaie altzina, baño gauza aundik nekez egin dut nik, baño tiki anitz bai, eta maiz maiza.

Geroxago, amazapi egun egin nitue Billabako errian. An banitue aide multxu bat, nere bi aitetxien arreba bat bizi ze orduko alarguna, eta ume multxu batekin. Bizi ze bi alabekin, zarrena ezkondua eta bi semeikin. Neretako denak ezin obeak, egun oietan lo egin nue etxe ontan, baño egunez egoten nitze bertze aide batzurekin. Erri bereko irakaslea uste dut izan zela berrogei eta amabi urtez, nere ama eta aitaren lengusua ze eta maite zute anitz elkar. Beraikin bizi zire bere andrea, lau alaba eta bi seme, ebetaik bat ze apeza eta soñularia arront ona. Onendako egin nue meza emateko *alba* deitzen dena, nik lankaiakin egin nue berak nai zuen bezalakoa, berean paratu gindue lore ederrak, eliz marresti guzietarik eta gelditu ze guziz ederra. Gizajua! bi urtez geiago bizitu ze eta ogeite amairutan il ze ustei gutienian, naigabe ederra izan gindu denek. Goian bego.

Eliza eskulanak nere lankaiarekin ateratzen zitzaizkide gogoan neuzken bezala. Bakarrak egin ditut neure denboran eliz jantzi guzietatik! Serora batzuendako egiten nue denbora pixka batez, aiek beti saritzen ziraten eskatua baño geago, eta berek egiten zuten bertzendako eskulanak.

Nik maite izan dut eta maite dut eskulan den guzia eta mota guzietarik, berdin maitetako nola seaska eta guatzetakoak. Gauza gisa guzietakoak.

Lan anitz egiten nue, baño sari guti artzen nue; aise uzten zute geroagoko eta aniz gauza gelditu dire ordaindu gabe. Eta nere eskuak utsak eta naigabetzen nitze, zerengatik nik neure aita eta amaindako nai nue egin al nuena, baño ez nue deus egiten.

Nere aita, bere besoak sendatu gabe, uneitzan zego eta bera mendi tontorrean, arekin zirenei manatzen nora juan eta zer egin. Niri igande atsaldetan laguntzea ongi eldu zitzaide eta egiten nue al nuena.

### **Orai Mezkiritzko bertze oitura batzuk**

Balin bada gizon nekazari bat erixko dagona, bere barrideak erraten diote alkatete jaunai, eta batzarrean erraten du gizon eriaian lanak egiten dire denen artean le-mexiko igandean, apezari erran ondoan. Nere aurtzaro eta gazte denboran, iltzen zelaik nornai, bi auzoak juaten zire bere umeak edo anai arrebak bizi ziren errietara

edo bordetara eta erematen zio te mandatu, baño orai uste dut urrutizkiñarekin balietzen direla. Baño lenago gaitza ze eta oroitzen naiz nola bein nere aita olako mandatu bat ematera jua zen egun batean, lenik Bankara, Bankatik Baigorriara, Baigorritik Arizkuna eta gero Bozatera, dena oñez; eta gero etxera.

Gero ilara elizara eta obitegira eremateko, ez badute bere semek edo anaiek erematen, erematen diote barridek. Gabaz ilarekin egoteko ere barrideak<sup>10</sup>.

San Juan bezperan erretzen da altzineko San Juan egunean bedeikatzen diren belarrak, San Juan goizeko intza ona omen da sendatzeko larruko eritasunak, sarna eta ori iduriak. Zenbait larru gorrian iraultzen dire Sagoietan edo belaietan ederki.

Urte batean, ni oroitzen naiz, eta neure aitari galde eginez aterazi nio geiago edo garbiago. Mutiko bat sortu omen zen beardura aundi batekin, eta sendatzeko egin zute: aritz bat txutik zegolaik, arralla bat aundia eta zurezko ziri aundi batzuekin ederki zabaldu arralla, aurra aisa pasatzeko gisan eta goiz artan jua zire iru Juan eta nere aita aritzain arrallazalea. Goizean goizik lauak jua zire aurrarekin, paratu zire aritzaren bi aldetik, eta Juan batek arralletik pasatuz ematen zio bertze Juan batei erranez bakotxak:

*To Juan  
Karrak Juan  
Iruiek batean  
Gora San Juan!*

Ori egin omen zute iru aldiz eta mutikoa sendatu ze. Gaur sei umen aita da.

San Juanen besta ekendu zutenetik onat, San Pedro bezperan egiten dute erriko mutilek berena; bertze gañerakoek egiten dute ogeite iru artsean eta suein gañetik iauzi ederrak egiten dute, iauzi bakotxan erranaz:

*Sarna kanpora  
Ogi eta ardo Españara  
Onak etxera  
Gaixtoak kanpora.*

Eta bertze anitz gauza, bakotxai ongi eldu zaiona.

Errege bezperan ere bada oitura bat: Mezkitzen (orain ez dakit) afal ondoan, maia ongi garbitu eta paratzen zire bi plater oberenexkoetaik mai gañan. Etxeko zaarrenak artzen zitue iokuko kartak, nasten zituen ongi eta gaztenak ebakitzen zitue. Gero berriz artzen eta nasten zitue zaarrenak, tikiak ebakiz ori egin beartzue

<sup>10</sup> 1. koaderno txikian esaldi hau gehitzen du: “Ez dire gauza ganosuak, baño ori ala da”.



iru aldiz eta irugarrean aurak ebakitzen zuelaik, bi plateretara botatzen zitue zarrenak lemexiko bi kartak erranez: Jaungoikoa, Ama Birjiña, amatxi, aite, ama eta bertzenak zaarrenetik gaztenera, bakoitxai bere multxoak eta errege ezpata atera artio eta ateratzen zitzaionai zen urteko erregea, eta inale batzuk ioz oiue egiten ze: biba Jaungoikoa edo amatxi edo aita..., ateratzen zena errege edo erregeña.

Mile bederatziegun eta ogeite bortzaren dagonilain ogeite amarrean sortu ze nere anaia gaztena, ume guzietan amairugarrena. Ama gaizki egontze eta anitz denbora kostatzen ze pixke bat obeki paratzea; nik Orreagako Ama Birjiñari itz emanion sendatzen baze, amabi ilabetetan segidokoak, lemexiko laronbatetan juango nitzela oñez aitortu eta meza entzun eta jaunartzera. Itzulia etorri al nitze, al nuen bezala. Azaroain urte artan berean asi nitze, baño abenduan elur aldi bat egin zue eta berriz asteko lana izen nue. Asi nitze berriz ilbeltzean, eta otsaillean otz aundiakin eta guzia, egin nitue urte guzikoak, eta gero ilbeltzean ere egin nue amairugarrena. Atsiñartu nue, uste izan nue bakarretan ez nuela egin al izein denboraingatik.

Nere anaia sortu zelaik, etze etxe batean ere salgai esne erretoik, eta aurra aztekotan bear ze bilatu nonbait. Ama esneduna izan ze beti, baño onekin ez zue deus ere ikusi bere bularretan eta nik aitari erran nion: bilatu eta erosi zazu auntz bat esneduna eta neuronek aziko dut. Aita atera ze bilatzera eta Linzoain deitzen den errian bilatu zue, baño etzuten saldu nai sos alde, nai zute bi ardi auntz batendako, orduan bertze anaia batei bere bataioko aitexik eman zio eta bi ardiak eman zeizkio auntz baten alde. Ez dakit batre ongi egina zen egintzena, baño etze denborak gauza oietara beidetzeko eta ni auntzain esneakin asi nitze, neure anaiai azten. Ongi irekinik ura eta esnea eman nio, ongi iduritzen zitzaiden negurrian, eta aski ongi asi zen azten eta gero eta aundiago eta geiao mutiko xarmanta egin ze.

Ia urtea bete onduan jua nitze Luzaidera iosten ikastera, niri erakusten zire iosten eta ebakitzen eta nik arei brodatzen lankaiakin. Ola guti utzik ikasi nue. Gizon arropa obeki eldu zitzaigu anaia geago gine aizpe baño, eta arabera artara ikasi nue, baño aizpeñak eta neureak ere egiten nitue. Gero udaberrian jua nitze etxera eta garagarrileain bian atera ze niri segitzen ziran anaia Argentina aldera. Orduen, bere ustez, ikustera ze bizimodu zen an. Gure amain anaia batek iorri zio sosa juateko, eta gazteik jua zen ez etortzeko geiago. An, emen bezala, langile aundiak badu non lan egin. Ezkondu ze ogeita amabian, eskatu zitue eliz paperak eta andik etorri zire erriko apezaingona nola elizaz ezkondua zen. Orai duela amairu ilabete il ze, ez degu bertze itxaropenik ikusteko, zerukoa bakarrik, bearrik degu ori, anitzek guti dute, guk berriz dena Jaungoikoain baitan. Nere anaia jua zenez geroz, zerbitzatzera juatea gogoratu zitzaide. Etze irabazten ez lan batean eta ez bertzean; ortako obe ze iana segurtu eta bertzendako ere egin al guzia. Aitai laguntzen zekote aurride gazteagokoek. Gañera, ikasi nai nue geiago andre lanetan, erdara gexago ere

nai nue ikasi eta noranai juateko abiltasun bat, ez nuena nere idurikoz. Nere aita negarrez gelditu ze. Ni etxean nindegon denboran ez zute ez eta ere manatu arat edo onat, niri aurride guziek obeditzen zirete itz bat erran gabe, iduri zute denak naietan izeten zirela nere manue artzeko, egundaño ez dire niok esku bat goratu ukitzeko batere, eta berek ere ez niri. Beti uste izen dut denek maite diretela anitz.

Azkenian, goiz batez prestatu eta etorri nitze, laketu gabe juain nitzela etxerako beldurraikin. Baño egina nitzen denetara eta laketu nitze segido. Eskutitzak maiz etortzen zire, baño nik ere aite eta amai maiz maiza egiten niote. Egiten nue al guzia denen onetan. Ikasi nue erdara geiago. Iru aizpa bagina eta bat beti bazego amarekin, zerengatik amatxi ere bizi ze eta bere adinaingatik lan anitz geiago izaten ze. Eta nere tenorea etxetik atratzekoa, bertze biak geiago egon zire kanpoan ni baño, eta uste nue nere tenorea zela eta egin bear nuela al guzia denen onentzat.

Ni jua nitzten etxean iru ume zeude sukar ustelaikin eta bi zarrenak arront gaizki. Aietaik bat ez da sendatu oraño, gaitza arront sartua ze aren barnean. Sos anitzeko etxea ze, baño txintxo; denai etzago ongi iduritzen, zenbait zerbitzariei, iduri izeten zaiotenak etxeoandreak direla, iduritzen zaiote ilabete bat lentxago sartu diralako etxean, eta ez da ala, lanera juanez gero, lana egin bear da, ez da bertzeik emen, eta etxe ortan bazire bide seurik goizeko ameketan uzten zute guatzea, eta etxeoandrea soñekoak paratzen bere gelan, zerbitzariak ere bai, iduri zue denentzat irri egitera joaten dirala, niri suak artzen zire anitz aldiz. Obe da lan anitz eta denak berdin, ezik lan guti edo deus ere egin eta lagunak bermatu. Niri orrek kalte egiten zire, baño egundaño ez nitze bein ere kontu zarrekin jua ez nausi eta ez etxeoandreaingana.

Beti bezala, goizoro entzuten nue meza sandua, baño lanak egiteko orduari ekendu gabe deus ere; bakotxai berea, baño irakurtzeko ere izeten nue denbora goizik uzten nuelakoz guatzea aise aski. Nik ikasi nai nue eta ortako irakurtzen nue al guzia, lege liburuak artzen nitue gogoan ongi eta banekie zer erran. Niri uste dut maite ziretela nagusi eta etxeoandreak, onekin beti euskeraz solas egiten nue. Umek ere bai maite zirate, ebei aise ze maiteaztea ipui edo kontu batzuk kontatu eta segido zuriak dire. Bakarrak erran daiet, sendatu ez dena ze denetan maitegarriena<sup>11</sup>. Neretako bai aise da maitetzea erbaldua, mainguak, besomotzak, motelak, okerrak, itsuak, burumakurrak. Oiek denak maitegarriak dire neretako, karrikan nere ondotik igarotzen badire nik beti berendako otoitz egiten dut, senda daitzen guzitik eta ereman dezaten beren gurutzea indar anitzekin; eta beti gogoan: nik zer in dut ain ongi egoteko eta oiek alako gurutzeaiakin? Izen dezatela bear duten indartasuna beren gauza guzietan. Gaixoak! Aise da denetaik izen eta irri egitea, baño ez izen deus ere

11 1. koaderno txikian honako hau gehitzen du: “Ni sartu nitzten egunean iru aur bazuzte sukar ustelaikin bete beteak. Aietai bat ez da sekula sendatu, eta ure izen da nere maiten maitena”.

eta pizu aundi bat beren soñain gañan. Oiek nola egin bear dute irri eta iosta..., ori ez da errax.

Ni nindagon etxean bazire lau aur, iru mutiko eta neska bat. Bazute bi gazte-  
nendako bi zerbitzari, baño ez bat eta ez bertzeak ez zute nai bietaik bat ere beren-  
dako. Batek urrin zikina botatzen zuela agotik<sup>12</sup>, eta etzuten egon nai bere ondoan.  
Nik ez nue zetaz egon berekin, baño guatzean zeudelaik ainbertze ipui eta kontuak  
erraten niote, gero beti nai zute nerekin, baño zer atera ote ze buru ontaik! Jinkoak  
daki. Berekin egurastera joaten ginenean bi anai zaarrenek artzen zirete besoetaik  
eta atsalde guzia kontu kontari, Jesusen biziko gertaera anitz ere maite zute. Etxean  
denak lasai gelditzen zire ni berekin ateratzen gindelaik, baño gero artsean lanak  
neretako. Atsaldean egin bearrak, artsean. Gabaz atera bear baze sendakaitzera,  
goizeko bi oronetan edo lauetan berdin, niri deitzen zirate beti eta juaten nitze al  
bezain fite, lo moker banitze ere, eta ekartzen niote al bezain laister, eta gañera pozez  
betetzen nitze niri deitzen ziretelakoz.

Urte batez egon gine Endaian, bide edo iru ilabetez uda igarotzen. Egun batez  
juan zire goizetik Donostira senar emazteak eta gelditu gine ume guziekin. Aur ebek  
nolanai erortzen zire eta negarrez egun guzian egoten zire, ezin ixilazi niondik ere,  
baño ondar gogoratua egingo nue eta egon bear nue ongi prestatuik, eta irriz gustu-  
ra zeuden eta erbalena erori ze eta nik segido txalotu nio al guzia erranez arront  
azkartu zela erortze arekin, arramiske arekin, indarrez bete zela. Orduan bera asi ze  
txalotzen bere buruari erranez: gora Txomin! gora Txomin! ni azkartu naiz eta irri  
zalapartaka. Baño arratsaldean etorri zirelaik Donostitik egin zute, asi zire bi mutiko  
zaarrenak egiten gauza berak eta gutitik ez zute negar egin biek (aite eta amak), baño  
artu nue inder bat eta erran nio aitari, zeñu ilun batekin zegolaik: bai nik erakutsi diot  
min duelaik irri egiten, edo naiago duzu lemexiko naigabeen beren buruak gal deza-  
ten? Umei erakutsi bear zaiote gizon egiten eta ez beti aurrak izaten. Eta oraño  
zeurorrek emain dirazu eskerrak. Gau artan berean eman zizkira.

Uda artan nere aitari Sorogaiñen gertatu zitzaion gertaera bat, idazteko dena.  
Sorogaingo uneia zen eta dagonilaren amazapia ze, nik beldur puxka bat izan dut  
aspalditik dagonilain amabortzetik ogeita zortzira. Bere seme batekin zego egun  
guzia eta egin zute lo bide gañeko etxola batean, arront ongi egina beren ustez. Baño  
asi ze ilunabarrean iñeztura eta ortots aundi ikaragarriak egiten, sartu zire etxolara  
ustez etzirela bustiko, afaldu eta sartu zire guatzera ustez ia ixiltzen asi zelai le-  
mexiko loan. Urak ereman ziote beitisko, atera zira uretik eta igan zire goitisko,  
baño galdu zute gauza anitz eta gelditu zire bustik eta buluzik. Ordue al bezala eto-

12 1. koaderno txikian honela dio: "Batek urrin zikin aundia botatzen zuela agotik eta etzuten egon nai  
aren ondoan eta bertzea mokerra zela".

rri zire etxera ur urean eta amak idorrazi eta arropa idorrak parazi eta artu burutik larru bana. Juan zire oñetako, guatze arropa, iateko zerbait utzi zioten, baño etze egun artan deus agertu; gero aste baten buruan aurkitu zute eskalapiñak, zapetak eta bertze arropa arront biarrak; oztuak gelditu zire eta kostaiak ere berotu zire. Egundorrek izen zue bere bederaziurrena, aste guzia zalapartaka eta burrunbe eta ur auserki. Olakotan aziendak bilatzen du non altxatu bere burua eta egun aietan biltzen zire, egiten ze al guzia, gaixoengatik izituak bezala gelditzen zire.

Urte batzuk izan zire Sorogaingo uneiak aita semeak, aite ze uneia, baño semeak laguntze zio, biek bazekite non ziren beiak, bai eta ere non ziren beorak. Nai zuen tokikoa izanik ere, galdetzeraz etortzen zirelaik beren nagusia, segido juaten al ze ikustera, baño nola ziren ere bazekite batek eta bertzeak.

Urbilen udaberrian izen nue bertze gertaera bat zerbitzuen nindegongatik. Aur jantziak egiten zio nere etxeandreaki Donostian. Donostitik iortzen zio. Urte artan berrogei jantzi osoak nexka batendako; iru gauza zire, jantzi oso bat, soñeko, berogarri ginbailla. An bazire margo eta mota guzietarik. Donostitik ekarri eta eremateko bazire bi andre. Bat adin puskatekoa eta bertzea gazteagokoa.

Nere etxeandreak igortzen zitue zaarrenaikin eta nik erematen neizko berak erraten zuenai eta erematen neizko Plazaolara. Atsalde batez, erran ziren bezala, ereman nio zaarrenai. Mercedes zue izena. Nik eman bezai laister asi ze gaztena oiua eta zalapartaka eta an ziran guziak gelditu gine ixil ixila, eta gu bezala Mercedes ere bai, baño gaztena gero eta geiago oiua eginez, erran zio anitz itzik itsusiena andre batendako... puta!!! Orduan botella edo bonbili uts batekin eman zio Mercedesek bertzeai buru erdian eta ebaki izen zio, atera ze anitz odol. Andik jua zire gende geienak, baño ni beldur nitze nik eremana galdiko zela eta orrengatik nindego ni. Etorri ze jaun bat eta galdetu zire nola eta zer izantzen. Nik erran nion dena zen bezala eta galdetu zire zer etxetan nindego, nik erran nio dena zen bezala eta erran zire juaten al nitzala nai nuelaiak, eta berek goratzen zutela nik eremana.

Berriz deitua izain nitzala eta ia nik erranen orduan bezala nola gertatu zen..., nik erranion baietz, erranen nuela noiznai eta non nai. Segido jua nitze etxera eta dena nola izan zen bazekite denek, nagusiak erran zire neregatik zoriondu zutela nik errain nuen erranuena eskatzen ziretelaik eta erran nion egia noiznai erran daikela eta errain nuela beartzen guzia. Erran zire: ala egin bear dire gauzak; eta berak, lege gizon bezala, lagundu bear ziola Mercedesi eta nik erran bear nuela ikusi eta aitutako gauz guziak. Baño neri egundorrek batzuen buruan jorraillearen ogeita zazpian il zitzaide neure amatxi maite maitea, ainbertze maite nuen amatxi, laueta ogei eta zortzi urtetan. Zein maitegarria zen! Zortzi egundorrek egin nitue neure etxean. Egundorrek Donostin egin zute epaia batre gu gabe eta nere nagusiak erran zue Iruñen egina Iruñan erabaki bear zuela. Eta berriz egin zute Iruñan eta nik aitortu nue gauza

guziak ziren bezala eta Mercedes atera zute giltzepetik edo espetxetik eta sartu zute gaztea, zerengatik itz ori ez daike niorei erran egia balin bada ere, ongi zigortatua izan bear zela itz ori erraten zuen guzia itsusgarria zelakoz.

Gero Mercedes gaixoak soñeko bat ona nai zire egin edo erosi eta ez neko deus ere artu; neretako etze zil deus ere artzea.

Egia errateagatik bear degu saria artu? Nekez olakorik nere etxean. Zer ondatsun izan dezakegu ondar egunean? Nik egia errateatik zerbait irabazi du. Ori da zuzentzea gauza bat.

### **Sorogaingo uneintza**

Nere aite Sorogañen unai zegolaik, berdin ze arendako izan zeien Baigorrikoa nola Mezkitzkoa, denak egunoro ikusi nai zitue eta inguruz inguru eta normai etortzen baze erraten zue edo alako mendigañan nola olako erreka xokoan. Gendeak maite zuela ezagutzen ze; erematen ziozte gazta bat edo bertze, zakuto bat banabar gorri, geienean. Baztandik... gaztañak edo bertze zerbait beti ongi eldu zena senide aldi guziaindako.

Obekiena zegon denboran deitu zute Erroibarko batzarre batera, eta erran ziozte Frantzioko aziendaduna etzela beraz batere kontent eta irakurri ziozte eskutitz bat erraten zuena ez bazute uneia ekentzen eta bertzuat ohea paratzen, berek etzutela beren aziendak Sorogainen sartuko geiago; an zutena eremain zutela beren etxetara eta nere aitak erraten zue: edo dena gezur aundi bat da edo denak gezurti aundi batzuk dire; eta nik erran nio: laister iakinen dugu. Egin nio euskeraz eskutitz bat, ez naiz ongi oroitzen izenaz, baño uste dut Etxebarne edo iduri bat, baño Frantzioko burua afera ebetan. Nik erran nio nola deitu zuten batzarrera eta irakurri ziotela eskutitz bat erranez ala eta ola eta arriturik zegola nor zen unaiatz kexo, nai lukela berarekin egon, zerengatik ez zue niorek geiago edo gutiegi egin eta oraiño lemexiko aldia zela alako eskutitz bat etortzea. Zein laister etorri zen jaun orren eskutitza, erranez alderdi artan etzela nior ere kexo unaiatz. Denek nai zutela segi zeien, zerengatik etzela sekula ain ongi egon Sorogaingo azienda. Segi altzina gure adiskide ona, ez degu guk idatzi ez ere gogoan pastu. Nere aitak bazekie noiz egiten zuten batzarrea eta bere eskutitzarekin juantze batzarrera. Niok etzue uste zetaz zeien eta denak arriturik (egin zuenak ez) zergatik ote zen egin zuten zikinkeria nere aita gizajoari, bi besoak autxiekkin, ume alde batekin, ekendu nai ziozte bere lanetik bertze norbaitei ongi eldu zitzagolako. Nere aitak eskutitzarekin utzi zitue alketuak zenbait eta bertze geienak kontent. Gezur oien aitak etzue irakurtzea nai eta bertze geienek bai.

Juan ze Frantziera egotera idatzi zion gizonaikin eta erran zio lege gizon bat alde ontaik paratzen bazue bere aldetik nere aitak, andik paratiko zela bera eta ongi

kostaia izein zuela egin zuten zikinkeria. Aspertu ze nere aita nardagarritzko zikinke-ri ebekin eta utzi zue Sorogaingo uneitza eta Artziberko Iriberrikoa artu zue eta kontent egon ze egin zuen denbora. An ere baginduze aideak eta lo egiten zue eta bertze guzia, eta an gelditzen zen.

Nik segitzen nue zerbitzuan etxe beran gorabera lan berak egiten eta eginala, bazirelakoz etzutenak egiten. Ni egon nitzen denboran etxe ederra eta aundia egin zute, berrira igaro gine, lan anitz izen gindue, bi seme zaarrenek lemexiko aldiz artu zute gure Jauna... etxeakoandreaki egin ziozte ebakidura bat aundia Belgikan, nonbaiten gelditu zen eta urte baten buruan edo olaxe izen zute bertze nexka pollit bat. Baño egun batez etorri ze nere ama ezongi zegola eta nere bearra aundia zeukela eta nik erran nio etxeakoandreaki nola nere ama etorri zen nere eske nere bearra aundia zuelakoz eta erran zira: banuen beldurra etzinela anitz denbora egoin gurekin, sobe-  
ra ongi zela guretako, negarra egin zue eta erran zire: sekula gutaz beartzen bazara zato neregana, nere etxea beti edekia izain de zuretako. Elkarrekin beti euskeraz itz egiten gindue eta, bere aita ilez geroz, etze bertze euskaldunik etxean. Anitz maite gindue elkar, aski erixko egoten ze denboraka. Iru urte terdi inguruan egin nitue.

Ettxera juan eta biramon atsaldean etorri zire, Orreagatik eldu zirala, bi anaia-  
arreba eskutitz batekin, eskatuz nere amari alaba bat etxean beraiki balin bazuen sende edo familiarendako bertze bat bilatu artio. Eskutitza egiten zion Orreagako kanonigo batek eta etze uzten al eginalak egin gabe. Baño niri egin zire min aundi bat aita eta ama uztea ain ongi egon nai nuelai berekin... Bakarretan erraten nue ez nituela utziko lengoak iakin izan banu bertze aiekin egon bear nuela. Baño ain uste-  
gabeko afera atera ze neretako. Egon nitze zortzi ilabetez eta irabazi nuenaikin erosi nitue ogeita amar zaku ieltso<sup>13</sup>, amar kare beltz eta mila *ladrillo* etxe barna konpontzeko. Biribil aundi batean iorri nitue eta, ereman saria emana, eman nion eremanzaliai nere zuzenbidea eta nere aitaña. Aitetxik ikusi omen zue utzi zutenean; negar egin omen zue eta aitari (bere semeari) eman zio zorionak eta erran zio alako alabaikin... lasai bizi aike... Gero juan nitzelaik etxera, berriz ere aski txar egon nitze eta sendagille batek erran zue aski gaizki nitzela. Lanak azpian artua nitzela eta ni ez nitzela geldik egoten al.

Sendatu nitzelaik, nere amak seme gaztenaikin juan nai zue Arizkungo errira, amain lengusina batengana, alargun gelditu berria. Amairu urtez iduki zue bere gi-  
zona erbaldua, itsua eta ergela eta denbora ortan ez gindue ikusi. Amatxi zenak bai, zerengatik bere aizpa baten alaba zen izeba ori. Beti etxean egoteko lana zue eta orrengatik saleroste pixka bat izaten zue bere etxean eta, gañera, gosari, bazkari eta afaltzera ematen zekote bere etxera juaten zen guziari, aketa edo kafea gañera, eda-

13 1. koaderno txikian "igelso" dio.

riak ere bai. Bazue seme bakar bat amalau urtekoa eta Oronoz Mugaireko eskolara iortzen zue bere amak, Marista delakoetara, ia ikasten zuen bear zituen gauza anitz. Ortarako ongi eldu zitzaio lagun bat ona berekin (amari). Eta aitari erran zio nola ez ginen juaten batre, osaba zenain mezetan egon zelaik. Amak idatzi zio nola zuen ume aldiaikin etxetik etzela aise ateratzia eta, al bazue, juain zela egun bakar batzuk beraikin egotera eta izebak erran zio: bai zato, baño zato zeure alaba zaarrenaikin eta seme tikienaikin eta amak nai zue len baño len egin juate ori eta segido asi ze niri eremanazi naiez eta niri kosta zitzaide anitz, zerengatik niri paratzen zaidelaik gauza pisu bat ez juanaia, Jinkoak daki bakarrik zer kostatzen zaiden etxetik ateratzia, sartzen zaide beldur aundi bat. Zerbait gaizki eldu zaidela iakin izen banu dena, ain segur enitzela etxetik aterako, baño orai etorri ziren makur guziak juantxeak dire eta altzina, ez du balio gibelera beidetzea.

Eta goiz eder batez juan gine iruak. Ama, anaia gaztena eta ni. Iruñetik arat arront okatuik juan nitze. Gizon azkar bat arront lizuiñe<sup>14</sup> iduri zue gorputz guzitik, ala iduri zue eta, gañera, juan nitze arront asarre aren auserkikerian eta aisa botatzen eskua noranai, nik itzuli nio erran eta eman batean bearrezaldeko ederra eta erran bakean uzteko edo oroitiko zela nitaz, baño buru utsa duenai zerekin bete? Ni asperu nitze eta atsiñertu nue izebain etxera igaro ginelaik. Biramonean juan ze andre pollit bat bere aurreikin izebaren etxera gauza eske eta segido erran nio izebai: izeba atzoko gizon ure onen senarra da?<sup>15</sup>. Irriz asi ze eta erran zire: zetaz iduritzen zaizu? Erran nion: aur au ure iduri idurie da, arengana da; andre arek erran zire: bai arrazoin duzu, aurra arena da, baño ez da nere senarra. Ni arritu nitze zein aise erraten zuten gauza aiek, baño ixildu nitze, beldur nue errain zirela ler gauze aitu ez nituenak oraño, eta etzego urrun erran zigu: bortz aurrekin gelditu nitze alargun eta egun guzia arropa garbitzen irazten dut bortz pezeta, nik bortz peztekin ez dut deustako eta iatera eman bear daiet, zer egin bear dut? Eta lan ortan ematen direte bertze bortz eta ori egin dezake aldi geiagoz; gelditu nitze arrituik jende aietaz, bearbada etze bertze bat Baztan guzian, baño niri gelditu zitzaide gauza ilun bat neure barnean eta laisterka asi eta ez gelditzeko nion... Ori erran nio amari eta berak egundaño etzula entzun alako gauzaik, nik ere ez nue entzun alakorik eta nik nai nuen bezala ez banize agertu arara. Eta kosta zitzaide juatea, neregatik bertze ainbertze denboraz egon naiz juateko; betiere amak galdetu zira ia beraz alketzen nitzen eta erran nio: zurekin nauzun tokira pozez betea.

Pixka bat altzinatu naiz. Gauza ebek guziek baño urte terdi altzinago idazten nue bi egunorokotan eta bi asteorokotan, idazten nue asteoro eta an ateratzen zire ezkondu

14 1. koaderno txikian honela dio: "Iruñetik arat biribil berean juantze gizon bat gaitsetsa, alke guti zuena".

15 1. koaderno txikian gehitzen du gizon hura: "Kostarzuko Joxe Mari" zela.

zirenak, sortu berriak, il zirenak an mota guzietarin berriak. Eta bertze gauz geago. Ni atrebitu txar bat nitze nonbait, bertzenaz ez dakit nola menturatzen nitzen ain eskola gutiekin... Eskatu zirete eta ez nue buruan pasatu gaizki egine izain zela; nik erraten niote gaizki uzten banue, berek konpontzeko edo ez paratzeko egunorokoan eta beti paratzen zute, nik iortzen nuen guzia ateratzen ze, etzute egundaño ekendu deus ere... eta altzina orai ere neure bizi guzia paratzea aski atrebitukerie da, bai baño altzina...

Nere izebaren etxean baze gizon bat alarguna eta an gosaldu, bazkaldu eta afaldu egiten zuena eta berdin ematen nio nik, baño ago bat ain zikina zue! Egunoro erraten nio: Mantxiko, zetaz erraten dituzu gauza zikin oiek? Zer egin dizu zuri Jaungoikoak alako gauzak erraten dituzulaik? Bakarrak erraten nizkio, baño arendako etze deus ere ixillazi zekoneik; baño beti berdin, azkenean asarre gorrian paratu nitze eta aurpegia deus gabe altzinean eta erran nio<sup>16</sup>: berriz alako zikinkerik erran baño len, io zazu nere aurpegi onei eta nauzun guzia, baño ezta zikinkerik bat ere nere zeruko Aitaren gañan geiago, e? Eta nierrai man zue erranez: nik io zeruko aingeru onen aurpegian ez, ez dut ioko eta ez dut errain ere geaoko zikinkerik. Eta etzue geiagoko gauze zikinik erran nere altzinean. Baño erraten zirete etzekotela ia geagokoik aitu sekula: orai Mantxiko ez da lenagokoa, Jaunari eskerrak.

Izebari egiten nio eskulan anitz barrideko etxe batean, eta beren lankaian nik egiten neko eskulan ederrak, mota guzietako lanak egin nituen eta izebak erakusten ziote denei zer lanak egiten diren nere illobak, ez zekien zer egin; ola gindeude eta gañera idatziak egunerokora iortzen nituelaik, zazi zer iduritzen zitzaion. An bere etxean erraten zute Bozateko jendeak legendarra zutela eta geienak iltzen zirala eritasun orrekin. Nik galde egin nio zer eritasun zen ori eta erran zire dena agotena zela, ur bat ateratzen zela dena gorputz guzitik, eta larru guzia aldatzen zela egunoro eta urteoro bat bedere iltzan zela barride ortan, eritasun orrekin. Nik ez dut nior ikusi, baño ni an nitzenean erran zute batendako eritasun arekin il zela. Amar legendar aien umeak zirela; amar legendar aietaik bat bakarra itzuli zela eskerrak ematera eta bertze bederatzien umeak zirela legendar aiek eta, orgatik, urteoro iltzen zela eritasun orrekin bat. Au da nik entzuna barride artan. Nik bakarrik dakit arront gende umile zela, eta alke guti zute zenbait aberatsek bizi ziren barride berean etziren agoteak, bakarrik jende umile ori, nik ez nue sinetsi sekula. Bazire gizon bat eta andre bat ezkongabeak, izan zuzte iru aur, eta laugarrenak sortu beartzuelaik lege gizonek ezkonazi zituzte, elizaz eta legez. Iru umetaik bat saldu zute zito batei, erriko erretore eta bertze bi gizonen altzinean. Berrogei bertz peztako eman ziote. Denek uste zute pusken obeki izain zela aurre zitoaikin bere aitaikin baño. An arront ezaguna ze eta arront ontako zeukate, gero aitu izan dut semea aunditu zelaik aitari asarre aundia eman ziola.

16 1. koaderno txikian zehazten du: "Bein ia nardaturik erran nion".



Bozatek goitiago juaten bagara, alorre eta belai pollitak badire. Bozaten badire zurginak, igelseroak, errotazaiak, txistulariak, danbolinen iozaleak. Len aur guti juaten ze eskolara eta nexka geiago mutiko baño; ori ni alderdi artan egon nitzen denboran. Gauza ebek denak zire orai duela berrogei urtetaik berrogeite amarretara. Orai uste dut obeki dazile gauza guziak.

Lamiarritako gauza zerbait erraten zute, Lamirritzen arri zabal aietan garbitzen zutela lamiek beren arropak. Toki pollitek dire oiek guziek, baño ez dute maite dei-  
tzea agoteak. Batek ikustian, erraten ziote erdaraz: *a gotas, a gotas...*

Baditu nere senarrak bertso berriak eginak agote eta zitoendako, baño nik ez dut maite niorei irri egitea sortu direlakoz toki batean edo bertzean. Zer erranai du? Nork autatu du bere sortzeko zakua, niok, Jinkoak iorri digu berak nai zuenetara, nai zuen tokian, nai zuen orduan, eta emen gaude berak nai duelakoz, nai duen artio.

Nik maite izen ditut, baño urrikaltzen nitze arront gibel zeuden guzietaz, beren aita eta amek guti iten zute berek ikasteatik eta beren umengatik batzurek egin dute al guzia, ume oiek izan daitxen berak baño geiago eta bertze batzurei ez dakote batre inport. Iduritzen zaiote berak ongi aski bizitu direla, umeak ere eginen dirala eta or konpon, baño balin bere oietaik guti edo batre izan daiela, langileak dire eta jende langilek merexi dute erekustea al guzia.

Nere ama anaiakin jua zire asteain buruan eta nik gelditzeko lana izan nue zerengatik bi besta izan ziren aste artan eta lan anitz zuela izebak geldiazi zire amain bai aikin. Eta ni gelditzea Jaungoikoak ala nai zue. Biramonean igandea ze eta goizko mezara jua gine eta atera zelaik mezik erori ze eta besoa edo ukeraia autsi zue, lau bortz ilabete egin zue bere ukeraia autsiaikin. Orduen gelditu ze lan aski neretako, erosi, prestatu eta eman iatera denei, saldu eta erosi juaten zirenei, dena izebain altzinean. Nere amari etzizago batre ongi jua ni gelditzea denbora geiago izebarekin, baño iakin zuelaik zer gertatu zen, erran zire egiteko al guzia senda zeien.

Denbora ontan egin nue eskulan anitz eta erakutsi zerbait ere, baño lankaia uzten zireten etxean neska mutilak arront abilak ziren, aise ikesten zute. Bazire aundietan deus ere etzekitenak. Nere izebak ola ateratu zue bere bizia, salerosten eta Baztango okindegi guzietatik erematen ziote ogia eta denei erosten ziote, baño Irurritako okindegiako ogia geiago eskatzen ziote eta orgatik erosten zue geago. Nik ez nue niorekin egiten solasik, ez nue nior zautzen. Berak erosi eta berak saltzen zue ordu artio, gañera tenore ortan ez nindego etxean, egoten nitze eskulanean gustuara. Amak Mezkiriztik iortzen zizkire ango gertaera guziak eta idatzi eta iortzen nitue Iruñara eta bai ere Arizkunguak. Batzuk berek ematen zirete au edo bertzea sortu zela, arat edo onat etorri edo jua zela, bertzea gaizki zela, alakoia ezkontzen zela, elizan itzaldi batzuek izanen zirala aste guzian eta alakoain eta bertzeain kontura.

Erraten duden bezala, batzuek saritu naiez bertze batzuk arront asarre, zerengatik paratu nuen neska bat sortu zela eta Begoña zuela izena. Ez nue Iruñara bakarrik iortzen, Baionako *Euskaldunara* euskeraz; Donostira *Argiara* ere euskeraz eta Iruñara bi egunokorokoei erdaraz. Nik maite nue gauza ebek egitea. Nik orduen ikesi nue anitz itz berri euskeraz eta aur aurretik ikasiak bezala itz egiten nue berekin.

Bein, gau batez, gizon guziak beren etxetara igorri onduan, deitu zute atean nere aitak iotzen zuen bezala. Izebak edeki zue ataria gisa artan io zuelakoz; io zue-na zen gaur nere senarra dena, ogeite amazapi urte zitue. Baño iakin banu orduen ala izan bearra zela, biramonean berean juain nitze etxera. Ez nue batre ederetsi [sic, ederretsi?] lemexien, etze deus ere nere gogokoa. Amar egunen buruan etorri ze ogiaikin eta erran zire itzaldi bat... izan nai zuela nik izein bear nituen ume guzien aita eta olako gauza anitz, irri egin eta utzi nue. Oraño ez zue deus erdietsi. Ola juan zen eta ez nitze batre oroitu, ilabete bat gutiz goraberan egontze etortzeko eta ni ez nitze oroitu beraz deus ere eta beti gauza berekin eta ni ain otz, baño azkenean erran zire: ez orain etzazula erran ez bai eta ez, ez. Egin zozu Laguntzaneko Ama Birjiñari bedratziurren bat eta gero errai direzu gauza bat edo bertze, oraikoz ez dut geiagorik nai. Ilabete baten buruan etorri ze eta galdin zire ia egin nue bederatziiurrena. Erran nio: ez dut liburuik ere bederatzieguna egiteko eta orduan atera zue liburu xar bat sakelatik eta eman zire, pixka bat arritu zire.

Gero etze etorri bi illabetez eta iduritzen zitzaide sobera irri egin nuela aren kostura, artu nue gauza itzal puskatekin eta deus erran gabe begira nindego ia langilea eta kristau ona zen. Gero ezagutu nue otoitz egilea zela, bere gurasoak maite zituala, itz zikinek kalte egiten ziotela; ez nue ezagutu bertsolari ona zela. Egun batez eremana zire bere aita eta amak ezagutzera. Orduan ezagutu nituen eta ikusi nue bere ama elbarritua zela, ereman zire Iruritako erretorea ezagutzera, eta berak erran zire lur bat batre lan egina, lar guziak berekin, ori zela baño lur ona zela, lana egin beartzela eta txintxo txintxo eta on anitz atera nukela beregandik. Ni aski lanez asia nitze neure aite eta amarekin aurridetan, kosta zen naia biurtzia lan ortara, baño burua aski nasi ondoan erran nio baietz eta, orduan, nai zue segido ezagutu nere aite eta amak. Ni juan nitze neure etxera eta berriz etorri nitze Iruñara ezagutzen ziren sendagillearengana eta odola eta gernua aztertu eta ongi ikusi nola nindegon deustera pasatu gabe. Egun batzuren buruan etorri ze Iruñara nai zuelakoz ezagutu nere aita eta amari. Atera nitze, sendagilleak erran zigu aski ongi nitzela ni eta neregatik ez ginduela makurrik izein eta atsaldean juan gine Mezkititze eta ama ze etxean eta asi zire ezagutzen elkar, nere orduko gizonaia asi ze Txirritain bertso batzuk abesten:

*Bagin dazin, bagin dazin biok gozo  
Ezkontzeko mandatu egin diot atzo  
Ama preparatu zait asarrez betea*

*Lemexiko oiua zenbat dek dotia  
Ainbertze kostatuko alaba maitea  
Lastima izango lukek iretzat matia.*

Geiagokoak bazire baño atzendu zaizkit. Nere amak gozoki gozoki irri alde bat egin zue eta erran zire: ze traste zarra dagon! Ez zue erran gaistoa zela, baizik irri inazteko balio zuela. Erran zio bestak urbil zirela eta etorri zeikela bestetara. Uztaillearen amarrean asten zirela, eta bestetara etorri zen. Erran nekolaik baietz, gutiteik etzen ergeldu. Baño bestetan egin zire akometazio txar bat. Atera ze karrikera, bakarrik juan zen erratoreain etxera eta erran zio nere gizongaia zela, laister ezkondu nai zuela, nerekin juain zela, eta oroitze zala len baño len nai zuela ezkondu. Nik nai nuela urte baten buruan, neure gauzak egiteko, baño gero ere izein nuela denbora ortarako.

Etorri zelaik erran zire: bier, jaketa emen naizen, juan bear degu apezain etxera ezagutu dezagun elkar, iakin dezala norekin zazin zu. Ederki prestatua! Juan gine eta segido erran zire ilabete onen ogeite bian ezkontzaizkete. Ni bat egina gelditu nitze: Zer... zer? Bai egun ederra da, etzate aurrak denbora juatera uzteko eta nik erran nion: dagonilain iruan nere urtebetekoa da, utzi dezakegu orduko, baño ez nue deus erdietsi. Erran zire: gizajoak andrea nai du eta andre bear due, zetako iduki bear diozu bearretan? Ez eta neure urte betetzeko ere ez nue erdietsi, dena gibelatzea zela eta nai eta ezkontzera segido etze nere gustoara.

## **Gure ezkontza**

Etzire niok nik nai nuena erdietsi eta nere eskulanak gibelera eta guatze arropa zerbait egin nue geurek izan gindezaken geuren guatzeaindeko. Soinekoak egin ziguzte ogeite bieko, eratzunak erosi ginduze eta bear gauza geienak, baño sobera laster geurendako.

Neure aitan aitari neuronek erran nio ezkontzen nitzela Irurritako mutil batekin eta erran zire: neska!!!

*Urrunera eltzeak urrezkoak tun  
Ellegatu eta lurrezkoak*

Gizajoa! ongi gogoan iduki dut neure denboran esaera zar au.

Gure ezkontzeko paperak irakurri zire emeretzian. Atsaldean mutilek artu zute erriko ostatuan beren amena; an ogia, ardua, aketa edo kafia bertze edari batzuekin. Andregaiain aitak saritzen du. Aspaldiko oitura da. Gero gabas, mutilek abesten ziote berek egin zuten abestiak andregaiain ooretan.

Nik astelean [sic] eta astean artu nitue eskutitz batzuk batre izenpetu gabe. Nere gizongaia lurpean paratutzen zute eta niri goratuz, baño beti uste izan dut nik botaikeko kalabaza aundi aien azitik atera zirela bi eskutitzak. Ezkondu gine mila bederatziegun eta ogeita amekan uztailearen ogei eta bian. Iruritatik etorri ziren amarretako gizongaia bere arreba batekin eta lengusu batekin, bi txistulari (anaiak Olaetxea) arront adiskideak. Gizongaiain gurasoak etzire ongi niorat ateratzeko. Etxetik elizara txistu soñuan jua gine eta soñu berean sartu gine elizan. Beterik zego eliza. Nik anitz aide izan dut beti, baño gañera etxe guzietaik baze gendea elizan. Batzuretaik denak. Guk nai gindue eliza betetzein eta erdietsi gindue. Arront itzaldi ederra egin zigu Mezkiritzko apezak, tenore ederra zen ortarako.

Pasatu zen udaberri artan bota zuzte Españatik kanpora Jesusen Lagundia eta erre zuzte bakartegi edo lekaretxeak, ez denak, baño bai geienak edo nai baño geiago.

Senar emazteak asi ziren berexten, egunorokoak ala ziote, gauzak aski gaizki zeude, baño eskualdun errietan etzen ageri deus ere. Erran zigu indar aundia bear ginduela gaitza ai irabazteko eta ori bakarri izain ginduela betiko Irune edo Irutasunetik. Ortako egin bear ginduela iñela gure etxean izan zaien beti gure Errege, gure Aita eta gure guzia; eta orduan egin zen edo asi zen senide berri bat indar aundie beartzuena eta artu ginduen sakramentuak emain zigula bear guzia. Geienek artu zute gure Jauna gurekin batio. Eliza besta ederra izan ze. Elizatik atera eta txistu soñuan karrika dantzari jua gine etxera, baño bidean gelditzen zigute, nere aitain sortu etxean, aitetxienan, amatxiñan, denetan gelditu eta goxogarriak ardo on zerbaitekin atera zute denentzat, baño nik egundaño ez nue artu eta orduan ere ez, gauza oiek ez ditut maite izan, etxean, neure etxean, artu nue beti bezala aketa esne txorta batekin, eta arrazi niote nai zuten guziei.

Artu besarkada bat, eta aita eta aitatxikin jua gine Orreagara besarkadat lore ederrekin zeruko Amarentzat, ematera eskerrak eta eskatzera bear ginduen gauza guziak.

Etorri ginelaik Orreagatik erran zire nere amak: zuek an zinetelaik etorri da Jenaro Larraioz bere biribil aundiarekin, ekarri du zaku irinie egun kilokoa, eta eman diot bortzegun peztakoa saritzeko eta ez zue itzultzeoik, orduan ez nue bertzerik eta zure senarrak utzi dituen iruetan ogei eta bortz peztak eman dizkiot. Bai? erran nio, ongi dago ongi, agotza irine eginda. Ni sortu nitzelaik nere aita erran zue neretako zaku bat agotz, orain irin biurtu da, ongi dago, ez zue ez geiago eta ez gutiago balio nere senarrak eman zuena. Bazkari aundia eta ona egin ze eta atsaldian erri guzia dantzatu zen larrain batean. Nik bazkaldu nue nere aitetxi eta nere amaren artean, geuren etxean kokatu gine denak, ni egon nitze dantzari guziei beide eta nere senarra dantzatu ze nere aizpa batekin, nik ez nue maite dantze neuretako, baño

maite nue ikustea eta ori egin nue, nere senarraikin nere aizpa bat. Erri guzia beren lana utzik etorri ze dantzara. Zer geiago nai izan nuke? Nik ikustean denak dantzan ai zirela, lasai lasai egon nitze.

Afaltzen ere iruetan ogei seurik bazire. Lengusu anitz izeteaikin, ala bildu ze afaltzera gende aski, baño biramonean ere gosari bazkari eta afari, bezperan bezala gende anitzekin. Dantza ere berdin. Biziki eder izen ze dena.

Ezkondu biramonean, goizeko amarretan izan gindue elizan meza sandua, ilak ziren aide guziak, aien guziendako izan ze meza eta elizan jende anitz bildu ze. Guk geuren etxean egin gindue lo, baño zangoa sartu gabe guatzean arrosario errezatu gindue belauriko biek. Eta oraño ala egiten degu, orai iarrite, belauriko ezta errax. Nik aitu izan dut meza sandua biramonean ematea il guziendako aspaldiko oitura eder bat dela Euskal Erri guzian, nik neure bortz alabak ezkontzean egin dut dene-tan, berak juanik urrunik ere. Ilendako izen da beren meza ezkondu biramonean. Gauza onak ez dire galdu bear eta gutiago geuren ilendako balin beda. Aita, ama eta aurridekin egon gine senar emazteak zortzi egunez, zein ongi! anai tikiak arront trasteak zire. Egun batez bat larria egin zue batek eta agotztegian sartu zue amak eta erran zio: barkamendua eskatu zazu Jesusei egin dezun makurkeriaingatik, baño barkamendua eskatu baño len erran zio amari: ama atera zadazu emendik, izanen naiz Juangoiko baño obeagokoa. Bertze aldi batez mandatu zerbait egitera atera ze bertze anaia bat eta erematen zue saskia estalia eta galde egin ziote: zer erematen duzu saski ortan? Eta lau edo bortz urteko aurrak: nai banu zuk ikustea ez nue estalik eremain. Bertze bein nere illoba bat bazeien gauza zenbaiten eske eta, bidean zelaik, gizon bat gauza guziak iakin naia eta galdera geiegi egiten zuena aurrak ezaguntzen, zertzen galdin ziolaik gizonak: nora zazi Mari? Eta aurrak erran zion: galdin egileak izorratzera. Aurrekin kontu, ez daike sobera galderak egin bear. Lasai lasai juan zire zortzi egunak, baño nere senarrain aita aspertua zego ez ginela juaten etxera eta bere semeari egin zio eskutitz bat, len baño len juateko etxera, lan anitz bazuela egiteko, piper opilak egin bearrak zirela Elizondoko bestetako eta bolado alde bat ere bear zela eta txokolatea ere bai, eta juan gine bearko gauze guzietako bear zue bere semea eta aratakoan egin gindue Iruñen geuren ezteieko iduria, egin gindue eta ongi alare.

Trinidaden aitak Paulino zue izena. Gizon garbia, txintxoia eta langilea. Nik, aren erreña izanik ere, maite nuen eta gogotik egin daizkot egin al ziren gauza bearrezkoak bere zarrerian eta eritasun guzietan, eta bai ere bere eriotzean. Zenbat arintzen zen Ama zerukoari eskatzen niolaik bere izenean... Mile eta zortziegun eta berrogeite emezortzian sortu ze Illarrazko erri tikian. Ezteribarkoa da Illarraz eta aurrak bi ilabete zituelaik, bere gurasoek ereman zute Iruritarra. Iruritarra ze bere ama eta aita Ezteribarkoa, au ikatzkine ze. Iruritan azie zen eta egin zuelaik

lemexiko jaunartzia, bere osaba batek, amaren anaia batek, ereman zue Falzesko errira. Martin Larraburu ze Trinidaden aita eta ama deitzen ze M<sup>a</sup> Antonia de Marturet eta Rekalde, Amaiur-en sortu eta azia. Bere aita erri ontako idazkaria ze eta irakaslea ere bai. Aitu izen dut ongi aziak zirela sei edo zazpi aurrideak eta Baionako monja batzurretan egon zire 5 aizpak beren gaztetasun denboran. Andre onei seurik gatz eta piper ona eman ziole eta Trinidadek ere artu zue amarengandik, baño aita ere bersolarie ze eta biengandik bazue anitz, baño berek baño geiago zue berak. Uste dut au irakurtzean irri pixka bat eginen duzula, bein baño geiago. Sortu ze Iruritan 1894eko jorraillaren ogeite lauean. Bataieko aitetxi ze Berruetako eskolako irakaslea eta deitzen ze Trinidad Irigoien eta Lintzoaingo semea ze eta Lintzoain Erroibarko erria da. Erraten zue bere aurtzaroan egun batzuk egotera juaten zela Berruetara eta anaia bat bezala idukitzen zutela bataioko aitetxin seme alabek.

Eta jua gine aitaren etxera, lan egitera eta baze lan anitz denendako... arreba juaten ze ogi saltzera Baztan guzitik eta etxeko lan guziak egiten nitue nik, arropa anitz garbitu eta eskuz etxe guzia ere, iatekoak prestatu... arropak konpondu eta nere senarrai lagundu ere bai.

Lemexiko gauean afari bat egunorokoa baño obexagokoa egin zute guregatik. Nere senarrain aitak erran zire: nongua zera zu? Nik erranio: ni Mezkiritzkoa. Eta erran zire nik Mezkiritzen badut lengusina bat Margarita Uarte deitzen da. Aren ama eta nerea ezkonaizpak zire, eta nik erran nio: eta aren senarra nere bi aitetxien lengusua. Eta afaldu ginduelaik erreztatu gindue arrosarioa eta aitak erran zue: etxe ontan etze arrosario bat eman nere alaba zarrena ateraz geroz Argentinara, bere senarraikin eta bi semeekin juantzen, baño orai baditu amar edo ameka ume, arront langilea ze, baño jua zire nere anaia batekin. An langileak bizia egiten dute emen baño obeki, baño emen ere langilea balin bada eginen du. Eta ala itzaldi bat izen gindue eta sukaldea bildu eta jua gine guatzera, nere senarra oron batean, baño gabaskoan, iaiki ze eta bere lanak egin zitue, nik ere naiko lana izan nue, baze andre baten bearra, baño etxean zena goiz guzia ogi saltzen igarotzen zue. Andre zerbait sartzen baze garbitzera, zikinago uzten zue.

Etzaket erran an sartzen ziren andreak garbiak zirela. Etxean etze ageri alakoik. Iruritan iduri zue jende aberatsaokoa zela Mezkiritzen baño. Eta bearretz bearra-gokoak, aisa beartsuagokoak. Nik ez dut ikusi eta ez ukitu aien sakelak eta ez naiz mintzo iduriez baizik, Mezkiritzko eta Baztango oiturak ez dire berdinek, gogoan pastu ere. Baztangoak angoak direlako bakarrrik goragotik beidetzen dute. Mezkiritzen berdinagokoak dire, denak euskaldunak erri batekoak eta bertzekoak, baño ez berdinak. Nik ez dakit zein den ohea, baño ez dire berdinak. Gu ezkondu ginelaik, Iruritako batek erran zire nere senarrai ez zekola ongi eldu lepo kiribizta edo erda-

raz *corbata*, langintza zuelakoz eta nik erran nion: nere errian ezkondu da eta an langintza duenak erematen du eta nekazari gaztek ere bai, baño adin puska bat duenak ez. Niri iduritzen zaide itzel geiago duela gizonak andrendako eta andre gizonendako. Nik ikusi bezala mintzo nai. Baztanen andre batei eman bear bazago atsaldan askaria, eman zazu ardoaikin ian dezaken gauza on zerbait, nik ez nekie oitura ori zela eta nik gaizki egin nue etziralakoz niok erakutsi. Nere errian, berriz, aketa eta esniaindako zer den obe. Gauza da iakin erri bakotzain oiturak, gaizki gelditu gabe niorekin. Ni bertze gauzengatik ere gaizki gelditzen nitze an. Nik ardua ez dut maite izan eta eskintzen zireten tokian ez nue artzen eta... gaizki erran biarrak izaten zuten, neuronek entzun dut eleketak nere etxeti iausti ziren batez nere gizonain lengusinak.

### **Iruritako gauzak**

Nere oiturak zire bertze batzuk eta orrengatik zer da? Ez da berdin ian eta edan berak gogoan duena ian bear duenak. Anitz aldiz jendeak ez du laketzen toki ederraokan, ezin aztatu bertzen naiak egiten. Mendiak ere ez dire berdinak, baño ederrak dire denak. Iruritakoak ditut senarra eta bortz alaba, lau zarrenak elizez eta dena, eta bortzgarrena ni gaizki nitzelako Iruñan sortua eta bateiatua. Zer nauzu erran dezadan? Nik maite dut anitz erria, baño ikusten dut euskera ez dutela berdiña, oiturak eta mendiak ere ez, baño biak Euskal Errikoak dira eta loretan ere anitz mota izaten da, eta ez da pollitago mota guzietaik izetea? Orgatik maitasun ona elkarren artean eta altzina.

Nere senarra bertsolari ona izan da, nik berant aski ikesi nue ala zela. Oraño bere eritasun aundiarekin eta guzie ez balin badego arront moteldua, galde egiten badiozu: zer ai zera Trini? Errain dizu: emen ezin bizi eta ezin fini. Bertze batzuetan: emen nago il altzineko gaitzaikin. Anitz aldiz egon da anka eskuñe arront azi eta beltz beltza egine, eta sendagilleak: au dena adinengatik da. Eta erran zio: ez jauna ez, bi anak adin berekoak dire.

Bere erbaltasun guziakin anitz aldiz bertsoan aitzen, baño mingana moteltzen zaio anitz. Anitz aldiz erraten du: zertara etortzen garen!, ezin ikusi, ezin ibili, ezin aitu, ezin itz egin, ezin mogitu! Gaur jorraillean ogeita laua, lauetan ogeita iru urte bete ditu. Zenbat aldiz bertze bertsolariekin aitzen ze zein geiagoka, eta bein batez entzun nitue iruetan ogeita lau. Azkenean bera gelditu ze bakarrik. Ori aldi geienetan<sup>17</sup>.

17 1. koaderno txikian gehixeago azaltzen du: “Nik ezagutu dut ezkonberrian nola bein batez bertze bertsolari batekin asi zire zein geiago eta au gelditu zen gañan iruetan ogei eta lau bertso eman zeizkio eta bertzia gelditu baize ezin zuela geiago. Bertso berriak beti ordu artan atraiak”.

Ezkondu ginelaik bere paperetan irakurri nitue bertso ain txakarrak neskakendako... erre egin nitue. Nik ez nue maite alako gauzaik, eta ez nue utzi ere olakoik egitera<sup>18</sup>.

Udako ondar astetan bi aldiz egon onduan nere ama bizi ginen etxian, etorri ginen Iruñara eta emendik juan gine Mezkitritza eta biramonean berriz Iruñara lege gizon batengana egitera etxe eta lurren paperak neretako. Nik ez nue nai alakoik, beren il ondoko egitia gauza bat ze, baño berak geldi zeiten gabe niri emateko, etzeie nerekin, naiago nue deus gabe gelditu nik ezik berak, egie erraten niote: nik oraño ez dut neure senarra zautzen, nola nauzie nik ontako ar dezadan gauza ebek? Etzaket. Baño nere amatxik paper batean egin zuena lege gizon batekin egin omen zue nere amaindeko nere adin nagusia, eta nik ogeita sei bete nituelaik, etzue bakeik bere bureinkin eta nik ez nekie deus ere alakoik. Baño, ala ere, galde egintzaralai lege gizonak nola egin beartzuen, nik erran nio: aita eta amaindeko obekiena den gisan eta egintzire eta orai ala daude.

Orai egin dugu lan anitz etxe ortan eta badugu lo egiteko tokia ogeita amarrendako, bai eta bizitzeko denak etxe berean. Nere aitak maite zue nere senarra, baño baztandarrak ez, erraten zue:

*Baztandar tuku tuku  
Kolkoan mile marakuku.*

Lemexiko urtean brodatu nue gauza anitz, ezin egin nuena len, ezkondu ondoan egin nitue. Ez nue neure lankaia ekarri oraño eta juaten nitze bertze etxe bateara, lankaia zutenera. Atsaldetan juaten nitze, eta batean erran zire etxeko alabak: Iruriteko neskatxei etzagote ongi juan zu emengo mutil batekin ezkontzea, eta nik erran nio: nere erriko mutilei bezala. An ere gaizki artzen dute neskatxa bat edo mutil bat kanpora juaten badire.

Ezkondu eta lemexiko azaroan il ze nere aitatxi. Aitu izan dut, ireutan [sic] ogei billoba inguruan... gelditu ginela. Gero, orrillan bortzean il ze nere senarrain anaia bat ogeita amasei urtetan, goian bego! Zenbait irri inezi zue bere denboran bere inguruan ziren guziei!

Nere aitak, berak nai zuelakoz, artu zue Iriberrira unaintza eta an berean gelditzen ze lo egiten eta, berak nai zuelakoz, egon zen nai zuen guzia. Neguan denak egon zire Iruritan, baño udaberrian aita juan ze berriz erri berera, baño noiznai juaten

18 1. koaderno txikian honako hau gehitzen du: “Eginazten ziote neska ume izatera zegonaindako eta ez nue utz beñere, erraten nio: nai zinduke zuk, zuk izen dezakezun alabei gertatu ori eta denek irri egin dezaten beraz? Ez dut uste. Eta zentzuan sarrazten nio”. Eta aitzinago dio: “Umore aundikoa eta otoitz egile aundia ze, eta bertze gise bertso egilea, baño beti piperdunak”.



ze etxera. Ni ez nindego batre ongi eta gañerakoak egon zire Iruritan gurekin. Iru nere anai gaztenak juaten zire eskolara eta maite zuzte beren lagunak. Bai eta berek ere bai, eta ikasten zute ongi. Etorri ze garagarrilla eta ilabete artan, ogeite zortzian<sup>19</sup>, nere lemexiko semea sortu ze ilik eta neuroi gutitako gelditu nitze, arront gaizki etorri zelakoz. Naigabe ederra artu gindue denek. Ni esne anitzekin gelditu nitze, eta orduan etze orai adine gauza esnea gibelatzeko, eta sendagileak manatu zire aur bat bilatzeko eta azteko, bertzelaz gaizki ibiliko nitzela, eta Iruñan zen aizpari bilazi gindio eta bertze aizpak ekarri zue eta ereman zue atsalde berean. Aurrain amak izen zitue bibiroak, mutiko eta neska eta bazuten bertze nexka bat, eta berak gelditu zire mutikoaikin eta eman zioite neska. Aur arront mea eta ezdeusa. Lemexiko gabea lotsatu nitze eta doi doia gelditu nitze beraikin, baño asi ze poliki poliki eta gero eta geiago, ederrago egin zen<sup>20</sup>. Arront ederra, pusken bere anaia baño geiago eta mutikoa amairu urtetan il ze, eta sendagileak erran zio bere amari: ikusi bear dut ikusi bere arreba, beldur naiz ilen dela laister, zerengatik gaitz bera izein du eta ezin sendatua izein da. Aztertu zioite gernu eta odola, arriturik sendagileak erran zio bere amari: zer gertatzen da emen, ez dute bi anai arrebek mota bereko odola? Arriturik nago, izen daiken bibiro eta odola batek mota batekoa eta bertzeak bertze batekoa, zein azi zindue zuk?: il dena. Eta bertzea nok azi zue?: bai Iruritan azia da berena izena bezala. Eta sendagileak erran zio: andre orrek sendatu du zure aurra eta ez bakarrik sendatu, indartu eta bertze gañerako gauza on guziak, orrengatik duzu alaba bat azkarra, zindoa. Zorionak, au ongi da...

Nere gizonak bazue Amaiurko errian bere amain aizpe bat, arront umore onekoa. Soñularia, ez dakit zenbat soñu mota bazekien iotzen, gañera gazterie guziei, neskei eta mutilei, idazten zion mota guzietako eskutitzak batendako eta bertzeaindeko, eta bertsotan. Amaiurren sortua, azia eta ila. Soñu mota guzietarik obekiena kitarra iotzen omen zuen, eta igande geinez iotzen zuen, neska mutilak dantza ziren eta denak kontent berarekin. Goian bego.

Gero, erran dut ogei eta amasei urtetan il zela, guk ezkondurik amar bat ilebete ginduela. Ure ze ezin geagokoa. Beso azpian paratzen omen esku eskuña, eta ain ongi iotzen omen zue, denak irriz gelditzen omen zire. Gero, bai omen zue asto bat, ez dakit zer erraten zion bearrira, ori egiten ziolaik gibealeko aldean izan beartzue eta, erraten ziolaik, ematen omen zio bi anak batean paratu eta ostiko aundi bat, eta gibelean zegonai botatzen zio lurrera. Asto berak, ogi saltzera juaten zelaik, ikasia

19 1. koaderno txikian urtea ere zehazten du: “Mile bedratzi egun eta ogeite amabian, garagarrillain ogeite zortzian sortu zen nere seme zaarrena, baño ilik”.

20 1. koaderno txikian honako hau gehitzen du: “Auteman nue etziretela denbora anitz utziko nerekin sobera ongi zego eta, berrogeita amar peza maten zirate azteagatik, garbitasunangatik eta arropaigatik eta negar anitz amar illatera etorri zelaik, ekendu zirate eta nere txintxurritik etze deus pastzen al”.

zue laugarren bizialdian erosten bazio atariari ipurdiz paratu eta iotzen zitue lau aldiz, balin baze iruan, iru aldiz, bian bizi baze, bide, eta lemexikoan balin baze, bat. Eta erosten zutenak geiagokoik gabe eta astozañak kurritzen zue zalui eta lanak eginak izeten zire segido. Erraten zuzte ainbertze gauza... ia gelditzen nitze ni ez iakinez zer gogoratu. Nere senarrain aitak ere bazitue gauza anitz erran daizkenak. Zenbait erran gogo ditut berantago. Berantagoakoak dire. Salboretan [sic] dire bestak. Salvatore egunean, ez urte berean, il zire arreba bat emeretzi urtetan, okindegiko lankaiak moztu zion beso bat eta kangrenak artu zue, biramonean il ze. Gero anaia ogeita amasei urtetan egun beraikin, atsaldeko iruetan. Dudarik gabe, tresna ederrak izan dire senide edo famili ontan.

Nik ezagutuak seurik ederrak izen dire, irri eginezteko, baño ortako onak direnak... maiz deituak izaten dire ero edo ergelak, niri berriz, biotze pozez betetzeko inguruan diren guziari, ezta eroa eta ez ergala, baizik Jaungoikoak paratua du eta eman dio bere inguruan diren guziaz lasaitzeko eta irrinezteko. Zeruko Aitak eman dezotela doi anitz altzina juateko, beren umore on ortan bear delakoz lasaitasun aundi bat lur bazter guzietan. Badugu negar aski toki guzietan, eta geurek ere bakarrak egin tugu eta anitz aldiz nai ez degula, baño ala nola irri inezteliak badiren, negar inezteliak ere badire, baño min anitz egiten duztenak geiagi inezteko. Jaungoikoak barka dezotela, badukate bearra ona.

Bertzen aur tikia azten ai nizelaik, etortzen zira aurra ikustera, Elizondotik eta Zigatik, beti garbi eta ase aurkitzen zute eta arront gogotik idazten ziate bere aita eta amari eta gelditzen zire arront lasail. Uste dut bazutela zetaz, arront ederra egin ze eta orai ere da. Neskaxa beltzaran bat ederra eta luzea.

Nere amak bazue denbora anitz ezongi zegola, baño umek ezin ezagutu degu min anitz izan dezakela ama batek, uste dugu ezin utzi digula, baño amak ere juaten dira. Etze segido jua, baño zein gaizki egon zen zazpi edo zortzi urtez! Baño ondarran goiz batean asi ze oñaze aundiekin, baño lenik asots bat aundia entzun gindue, eta gero eta geiagi. Lau sendagille deitu ginduze, Iruritakoa Donostian zego. Bertze bat etorri ze eta erran zue berotasun aundia paratzeko, baño beroaikin makurrago paratu ze. Bertze batek erran zigu izotza paratzeko, orduko asi ze goitika eta artseko bedratzietan etorri ze Iruritakoa Donostitik, eta ikusi orduko erran zue: mai gañera, ebakidura aundi bat egin beazago. Apendizitis eta peritonitis ori erran zue eta segido ekarri ziate Iruñara San Migel gaxotegira eta ez dakit zenbat orduko lana zuen, baño etzirete niok itxaropenik eman. Biramonian jua nitze, baño arront gaizki zego eta etze jua geiagi ez Iruritara eta ez Mezkititze. Iruñan bertze aizpatekin gelditu ze. Sendagillek erran zute Iruñan geldituko bear zuela.

Erran dut bi gauza txarrak zituela, baño bazue bertze irugarren bat makurrago paratu zuena, kiste aundi bat lertua eta apendizite ere lertua, zerbait zego arendako

ere, baño berrogeiereño bizitu zen. Zenbat aldiz sendagillea etxera eta beti beti berdin.

Ni azten ai nitzen aurrai euskeraz erraten zitue itz bakar batzuk eta ezaun ze abila zela, eta beldurak aurrak sobera maitatuko zirela ekendu zirete eta ain aundia ze nere naigabea, nere agotik ur utsak bakarrik zuen bidea, nere txintxurritik igarotzeko. Zenbait negar egin nitue naigabe naigabeain gañan! Ola izan ze neretako mila bederatziegun eta amairua. Nik izan bear nue bertze aur bat, baño ainbertze aldiz erraten zirete zenbait andre ez nuela ume bat ere bizik izango... ori erran zuela sendagilleak neretako, baño niri etzire erran sekula eta lemexiko aldian karrikan ikusi nuelaik erran nion: jauna barkazazu, baño galdera bat egin bear dizut. Anitzek erran direte zuk erran duzula nik ez dezakedela ume bat bizik izen eta nai dut iakin egia den, zazpi illabete ditut ia eta, zerbait egin bear bada, erran zadazu eta eginen dut bear den guzia. Orduan erran zire biramonean juateko bere etxera eta errain zirela nola nindegon eta zer bear zen. Biramonean izan nitze eta erran zire ila bezala zegola, arront makur, eta astero juaten nitze. Juaten nitzelaik egiten zue al guzia xuxentzen aurra eta bitartean asi zitzaide oñaze aundi batzuk eskuñako bularrean eta ezagutzen ze bazirela barnean koropilo aundi batzuk. Oiek aziz jua zire eta gero eta geiago min ematen zire ogeite amairu egunez gero eta geiago, oñaze geiago nue, arront beltzago ai ze paratzen bularra eta elkarrekin izan zute itzaldi bat ederra iru sendagillen artean eta erran zute dagonilain amekaraño bizik egon zeikela aurra eta amarrean ebakidurat aundia egin bear ziretela eta orduan sortuko zela aurra. Eta ala intzute Jaungoikoak bakarrik sendatuko al zire. Berak daki zer zikintasuna atera zen neregana.

Niok ez daki ze ilundurak igaro nituen nik nere alaba zarrena sortu baño len. Geienean alaitasunez betea, ori ematen zire nere barnean senti zen bizi berri batek, baño min gaistoek ekentzen zirete nere alaitasuna, erranez ala nola iltzen gure aur zaarrena, berdin ilak izein nituela denak eta, gañera, ori erran zuela sendagilleak. Ezin sinetsia ze neretako. Zetaz etzire erraten neuronei? Baño gogoratzen zitezidelaik etzela egia eta eldu zela denbora neure aurra nerekin neukela eta gero ta geiago zela egun batetik bertzera?...

Gero bertze gogoratze geiago aise aundiagokoak etorri zaizkide aurra izen bear nuen guzietan, aste astetik ondarreraño, eta ez nuela nion minik edo oñazeik, neure ezur traste ebek bakarra eman direte, baño bein ere gelditzen nitze lotsatua ez, orduan artzen nue inder geiago otoitz egiteko neraman aurra, aur bat ederra. Bertze aldi anitez iduritzen zitzaide aurraren egiten ai nitzela, Jaungoikoari laguntzen lurrera ekartzeko gizon edo andre berri bat. Eta iauzia egiten zuelaik ere, erraten nio: iauzi, iauzi, ikesi dantzatzen Jaungoikoain altzinean dantzatzeko. Nere alaitasun aundienetaik bat ze aurra mogitzen ziren denborak, eta berrero sentitzen nuelaik, lemexiko aldian, bakotxa bere lemexiko aldian, berriz berritzen zire nere alaitasun

guziak eta egoten nitze neure baitan, nola anitzek ez zuten nai geagoko umeik eta ori nola izaten altzen. Neretako biziak duen denboraik ederrena delakoz, zerengatik aingeruz inguratzen gara gutira gutira eta ez da gauza obeik. Oraño emen seurik ez da nior goseak il, denendako ateratzen du gure Jaunak. Baño eskatu beartzago... eta eskatuz geroz, ematen du.

Amekan eta goizeko bi oron terdietan sortu ze nere alaba zarrena. Oraño akorduik gabe nindego, emezortzi ordu zue ebakitasuna egin ziretela<sup>21</sup> eta aur bat arront gixena sortu ze. Sendagillea etorri baño len sortua ze, gero berak apaindu zire.

Bertze sendagille batek amasei egunez, bi aldiz egunean, sendatzen zire ebakia etzute iosi eta sendatzea mine ze, barna sartzen zute bear ziren gauzak sendagarriak, eta gutira gutira sendatu ze, bertze bularraikin azi ze ongi aur bat ona eta ederra. Sortu biramoneian bataiatu ze. Etzute euskeraz bataiatu nai, baño nere senarrak gogor egin ziote eta egin gindue nai ginduen. Miren Laguntzane du izena, azi ze ongi eta ona da.

Altzineko abenduain amalauean ezkondu ze nere aizpa bat. Arek ere izen zue alaba bat mile bedratziegun eta ogeite amairuan, nerea baño gazteagokoa da. Urte ontan eman zue lemexiko meza nere senarrain illoba batek. Turindik etorri ze ortarako aitetxi eta amaxiak bizi zeralakoz, bai eta ere Iruritan sortua zelakoz. Bere ama nere gizonain arreba ze, eta bera lau ilabete ni baño zaarrago ze. Bi metro eta zazpi zentimetro luzetasuna, gero izan ze irugarrena meza ematera eta aitetxiek bizi zirelaik oraño au Argentinan sortua ze. Beren amai, Iruritako euskaldun garbia, il baño lenago eman ziote urrezko bi medalla ama txintxo zelakoz. Ameka ume izan zitue. Ameketaik lau salesianoak izen zire, lauetaik bat bakarrik bizi da, eta ameketaik iru bakarrik bizi dira. Gaztena etorri ze guri ezagutzera eta bide edo iru urten buruan Bahia-Blanca deitzen den tokian il ze, luzetasuna zue egun eta lauetan ogei eta amasei zentimetro. Denak zire arront aundiak eta il dire berrogei, berrogei eta bide, berrogei eta sei, iruetan ogeite bortztan. Nere anaia bat urte ontan juaten ze Maristaetara. Iruritan meza laguntzen eta abesten egoten ze. Aski otoitz egilea ze, arrosario egunero. Lagun onak bazitue eta berekin egoten ze al zuen denbora guzietan.

Nik oraño idazten nue bi egunoroko eta eta bi asteorokoetara eta gero eta geiago. Eskulan anitz egiten gindue. Banue etxean aiskide bat, aideak ginela uste zue berak eta Irurita maite zue eta egoten ze gurekin eta biek aitzen gine iosten eta

21 1. koaderno txikian hau eransten du: “Bezperan erabaki zirate eskuñeko bularra, gangrena deitzen den gaitza nuen, zerbait lertu barnean eta ura edo artan egintzen. Oñaze anitz, ogeita amairu egunez entzun nitue Iruritako erlojua laurdenak eta guziak. Bularra beltz beltza paratu zen eta arron azia iru neurri edo litro edo geiago atera zen, dena zikinkeria beltza eta urrin arron gaiztoa. Buler ori galdu zen eta bortz alaba bertetik bakarrik aziek dira”.

brodatzen bertzendako ia zerbait egiten al ginduen, baño nik bigarren alaba neurekin nue sortzeko tenorea eldu zitzaio, gero ta lan gutiago egiten al nue. Azkenean, mile bederatziegun eta ogeita amabortzeko garagarrillaren zortzian sortu ze, urte artan Bazko bezperan, eguerdi berean, ezkil guziak eginalako soñuekin zeudelaik. Erraten nio: zure sortzea ezkilekin erran ziote denei.

Sobera aundia sortu ze eta fibraldi gogorra izan nue. Sendagillak erran zire ez baze sendagilleakin, aurra ilen zela, baño Jaunari eskerrak biak bizi gera. Erroxe Miren du izena eta Bizkaiako erri batean bizi da eta irakaslea da.

Maite du anitz bere lana, bearbada serora ere baita... Osasuna denbora pusketez ez du batre ona izen; baño orai nonbaiten da.

Ez da gizon bat ere lurraín gañean buruz artu al duenik ama baten poz aundiak aurra berekin duelaik, sortu ondoan berai beidetzen igaro dituen denborak, bularra artu eta asetzen delaik aurtxo tikia. Oietaik edozeñek negar inazi dirate eta uste dut edozein amari gertatu zagola berdin. Amain biotzarendako geiegiak dire ebek guziak. Orrengatik negarra, kanpora ateratzeko lana izeten du. Nere idurikoz, neure denboran juan diren ordurik oberenak oiek izan dire. Eta ume geiago duenak ordu geiago izan du alaitasunez beteak egoteko, ez da ala? Bertzelaz, ez gara ama guziak berdín, ori ez dut uste. Bertze batek eman du bere odola? Nik ere bai...; galdu ditu ordu anitz lorik egin gabe? Nik ere bai; bere esnearekin azi ditu? Nik ere bai...; eta zenbait “bai” erraten al du ama batek bere umetxo oiendako? Bai oiek guziak erranen tugu guk. Eta amak erran dezazken guziak erran dezazke aítak? Ez, ez erran eta ez egin, maitetasun aundieneko balin bada ere. Jaungoikoak autatu zitue amak eta maitazkigun arek autatuak bezala, bakotxak geurena eta denak artan. Eta Jaungoikoak gizon egin ondoan erran zigu izan zaikela amak beren umeak maite izain ez zituena, baño Berak maitatuko zigula beti...

Zenbat aldiz oroitezten digute dugun bizimodu onek Jaungoikoaren itzaz? Eskerrak Jaunari guzietaz, umeak eman digulakoz, gisa ontan, gure biotzak biguin-du dituelakoz, ienazten duelakoz gure maitasuna geuren inguruko guziei... eta Berak bakarrik daki zenbat gauzengatik.

Zenbat apa edo muxu (Mezkiritzko euskeran apa da) eman ote dugu geure ume bakotxari! Asi burutik eta zangoko beatz punteraño... ni ergeltzen nitze, biotzain gañan ematen, beti bi begiak bustiak gozatzen nitze... eta neure anaia tikienekin ere bai. Amain biotza paratu zire zeruko Aítak eta aniz aldiz ez naiez ere agertzen da.

Anitz aldiz iduri dugu ergelak geuren umekin, berrogeita amarretaik berrogeita bederatzi terdiek. Egun ebetan aski eroria nago, ez dakit akituko duden lan au, egin gogo nue, baño nere burua kexo da eta ez da ain errax ola egonez... deus egitea. Asi banitze lenago..., egia erraten dut negar alde bat egin dudela oroitzean eta idaz-tian nere juan diren denborak, oroitzen nitzen gauzak, min egin dire eta berrogeita

amar urte nituelaik asi banitze bertze gisa batean eginen nue, baño orduen emen dauden gauza aniz etzire egoin, eta ongi nasik neuronek egin duden saltsa guziak batean baleude bezala atera dire nere gertaera geienen oroipenak, gero eta ondarrera naielaik, gero eta motelago. Asi nintzenetik onat asi nitze ezongi, ezongi eta ezin pausue gibelera eman nago, eta zer nai dut, au ere nere gertaera da eta oraño oroitzen naiz nonbaiten. Ongi, nik uste edo gogo nuen bezala egin banu..., baño adin ontan zer nai dut nik. Ongi dago dena, Jaungoikoak nai duena da.

Urte berean Iruritako bordetan urketu ziren iru seurik. Eta arritu nitze zer sinismena zuten an. Urketzea aiendako ze eritasun bat, aizeak erematen zuena batetik bertzera eta urte artan kokatu ze bordetan. Neskaxa bat gaztea, ogeita zortzi urte. Mutil bat guti geiagoikin eta gizon bat berrogei eta amarretan, gutiz gorabera. Au eri zen, uste dut minbizia zuela eta iakin zuelaik zer zuen korda bat artu eta fini; ori izen ze aren “aizea”.

Ilabete bat zue aurrak eta bi lengusu agertu zire, bat meza berria ematera eta bertzea laguntzera eta len ikusiak berriz ikustera. Paulino zarrena etorri ze eritzera eta sendatuko ez dena eritasun artaik. Ireunen du urte multxu bat, baño...

Mikel, aitatxi eta amatxi bizi direlako ezagutzera eta lemexiko meza ematera. Edertasuna da, baño amatxi laister iltze, aurrak iru ilabete eta amazapi egun zituelaik. Lauetan ogeite bide zitue. Goian bego. Bere billobek lagundu ziote eriotzeko orduan. Bere mezetan an zire bi billobak eta illoba bat, ilain aizpa baten semea Errazun berrogei eta amabi urtez kuadjutore egon ze. Iruritako eliza aundia da, baño alare ongi bete a zego. Goian bego.

Egun aietarik batean eman zirate neri kartilla edo txartela biribila erabiltzeko neuronek. Etxez etxe edo bordaz borda erabiltzen nitze denbora artan arropa saltzen, bai eta ere bertze gauzatzuk, nere gizonain aitak ala nai zuelako, bakeaikin bizitzekotan. Nai ez nituen gauz anitz egin dut, baño sari gutikin eta bakea izen dut beti.

Urte ontako abenduan il ze nere gizonain arrebain senarra gaitz epelaikin. Arengatik artu zue illoba Paulinok. Oraño Iruritan zego eta egon zen Españaiko gorroto edo gerraraño. Orduen jua ze Argentinara bere aita eta amaigena...

Nik ere gorrotoaraño idatzi nue bi egunoro eta bi asteorokotan. Orduen uzteko lana izan nue. Gorrotoa asi zelaik Zaragozan zego nere anaia bat Españaiko zerbitzuan. Ogei eta amabortzkoa ze. Zerbait erran bearrak bazitue. Erraten zituen gauzeikin beldurrek egoten nitze aitzen bazute arek erraten zituenak ixilaziko zutela. Gerran artukeko eritasunak ereman zio emendik. Zenbat aide, lagun, aikide jua zire sekulako. Ez daela berriz egundaño alakorik gertatu. Maite dezatela denek geiago elkar.

Baztanen zenbait bei eta abere iltzen zute belaietan iaten ai zirelaik. Beldurrak gendiak ote ziren. Urte ikaragarriak aiek.

Goñatua iltzean, nere senarrak eta bere anaia zarrenak artu zute okindegia. Ogia egiten zue anaiak berak eta guk Baztan guzitik saldu. Lemexiko egunean saldu gindo lauetan ogeite zortzi kilo eta bi ilabete oietan saltzen gindue guk zortziegun egunean. Gero, bizitzekotan, saltzen gindio kiloa sos bana, eta biribilla gurea zelako egiten gindue mandatu anitz eta bitartean saleroste zerbeit eta baginazen nonbaiten. Urdazubin eta Zugarramurdin erran dezakete gende anitzek nola aitzen ginen lanean, arat onat baratu gabe. *Racionamiento* deitzen zen goseak idukitzeai, arek ondatu zigu denei, aiei eta guri. Baño bitartean zenbait arat onat egin ginduze. Denbora ortan sosak irabazten al gindue, baño gisa ortan etzue deus nai eta nik inen nue al nukena. Oitura banuen, baño nere senarrak ez, eta iduritzen zitzaio nere anaien odolaikin egin nai nuela sosdun izan eta ori ez<sup>22</sup>.

Eta nik zautzen nue lan ori eskindu ziguna manazale aundienetaik bat zela, eta eskutitz batzuk zire eta amar bat aldian Almandozerano ereman biar zire eta ogi buruan erditik ebaki mami puske bat ekendu eta aise kokatuko zire. Baño ezta bein ere ez gindue deus egin, bear aundia izanik ere. Ez bazire neri gizonak, ez bazire aipatu anaiei odola, ez dakit zer eginen nuen, baño gerran zeuden denetaz oroitu nitze batean eta etzire nere gogotik ekendu. Gero berriz Donostian, etxe eder baten, ikusi nue lan ori manatzen ziguna. Berriz eginalak egin zitue lan ori inezteagatik. Baño ez zue deus ere erdietsi. Guk irabazteko tenorea utzi gindue eta beti gutikin egon gera. Bakea eta osasuna izanez geroz, zer nai degu obeagorik?...

Gañera, nere senarrak gisa ortan irabazia etzue sos bat ere nai. Ni, berriz, ikustean manazaleik aundienak eskatzen zigula lan ori egitea eta ler diru eskeintzen zuela... bi aldiz bedere eginen nue, baño ongi zelakoz, baño gogoratu senarrak errana eta utzi denak batean. Lan anitz bai, egin gindue eginalak. Irugarren alabain eskegindezi eta zenbat naigabeak izen ginduze batean, lengusu bat iltzela, bertzean ais-kide bat etzela ageri. Bizi ginen etxean, iru umetaik ez zekitela deus ere. Iruritako bide batean il zirala, beren andreak alargundu zirela eta ume alde bana bazuztela... Olako anitz gauza. Gañera, denbora gutiz utzi zute bakean nere senarra, bere bertsolaritasuna agertzen zitzaio eta prest ziranak ligualdi bat edo bertze ematera ere bazire... Jaungoikoak barka dezotela denei.

22 1. koaderno txikian osatzen du pixka bat informazio hori: “Orduen etze ez lanik, ez iatekoik, ez deus. Baño bitartean lan anitz egin gindue zenbait arat eta onat Baztango erri guzietan barna, gañera Urdazubi eta Zugarramurdira Dantxarineaikin. Sos anitz irabazteko tenoreak utzi ginduze pastera. Nere senarrak gisa ortan irabazia etzue sos bat nai. Nik banue oitura geiago eta eginen nue, baño nere gizonai kontrabandoa iduritzen zizaio bekatua zela eta etze gauza alakorik egiteko; nik berriz ikusi nue mandatarik aundienak ler diru eskinzen, aski ginduze bi ogi buru aundietaik erditik ebaki mamia ekendu eta borts edo seien artean sartzea, baño nere gizonaikin etze egiten al deus ere eta sos bat ez gindue egin; ongi elduko ze, baño ez nue egin. Ori da egia”.

Ilbeltzeko ogeita bortzean ogei mila pezta erori zitzaigu loterien. Ogeita bederatzigarrenean erran zigute eta ongi etorri zire, zerengatik biribila konpontzen zego eta orduko iru mila pezta sos anitz ze eta etze ain erraxa berekin egitea. Erosi nitue bi guatze eta bertze gauza bearrezko zerbait. Bitartean, etorri ze tenorea irugarren alaba sortzeko eta epaillaren amazpian sortu ze. Asi ziralaiak juaten nere gizonain lengusinak eta izeba zenbait, denek berdin erraten zute. Oi, oi! irugarren alaba, noiz ekarri bear dezu mutiko bat? Nik erraten niote: niri etzaide batre, anaia aski izen dut, orai semeik ez izanagatik, berdin zaide. Eta zure senarrai? Arek ere berdin erraten du, beti maiteago izan dituela nexkak. Olako itzaldi batzuk izan eta andrea juaten zira beren etxetara eta, ganbaratik atera orduko, alaba zarrena etortzen ze nere ondora eta erraten zire: ama ez du inport nexkak izan daitzen denak, ola aunditzeaikin ez dire gerrara juain zure anaiak juan diren bezala.

Beti beldurrez anai bat edo bertzea gorrotoan ilen zela. Gero nere senarra bi aldiz seurik io zute bertsolari izeteagatik. Bietan Mezkiritzko ondoan, bearrik guri ezkondu zigun apezak erran ziote ez ginela gu aiek uste zuten bezala, ez ginela gu olakoak, ez ginela niorekin eta olako gauza anitz. Betiere, Mezkiritzko apezak eta Iruritakoak ere erran ziote: niri il eta gañetik pasatu bear duzie oiei deus egin bear bauzie. Gañera, emengo gizon gaistoena zuen erriko oberena baño ohea da. Nere gizona ona izan da beti, baño, alare, txokolate egiteko kuporik gabe utzi ziote. Eta mila zortziegunetik egiten ze etxe berean. Eta, alare, ez digute utzi deus egitera; gañera, gelditu gine lankaia gabe eta orai ez dugu deus egiten al. Bakarrik egiten al gindue kandelak eta argizaria eskuekin.

Naigabe aundiak ereman ditu nere gizonak eta ola damaitze ainbertze urtez eri, ain gizon azkarra zelaik... Beti egia agoan, alare bagindue norbait zerbaitetan erorazi nai zuena. Eta koropillo ederrak berexteko lan ederra eman digutena. Bearrik, zenbait gauzetan Fernando amezketarra iduria, erantzuten<sup>23</sup> zue zenbait motelek bezala. Ola ateratzen ze alako batzurekin etzekiela niok nondik nora zeien<sup>24</sup>.

23 1. koaderno txikian “errepostu” ematen zituela dio.

24 1. koaderno txikian honela azaltzen du ateraldi horietako bat: “Aldi batean ai gine senar emazteak Erratzun ogi saltzen eta geldiezi zigute eta galde egin ziote (erdaraz): zu zara Trinidad Urtasun? eta onek erran zion: Bai jauna, ala naiz. Zu zera ogi egilea? eta onek erran zion: nik badakit ogia egiten, baño egiten du nere anaia batek. Berriz galdera: zu nazionalista zara? Eta berriz onek: bai jauna, ala naiz. Orduan arriturik nola erran zuen, erran ziote: Zer konprenditzen dezu, zer erranai du nazionalista? Eta agotik agora erran zion: “Oño, amar al nazion”... Orduan batek bertzeari: Burgostik onara gizon ebetaik bile? zer indar aldia egin degun deustako. Asarrean erran ziote: bai jauna bai, maita zazu!”. Gisa horretako bertze pasadizo bat ere kontatzen du: “Baztanen erdaraz alubia delakoai erraten zaio banabarra, eta egin izen du bide paratzea dilinden erran zezan ixilik “bi banabarra”. Irri egineztiatik edozein gauza. Geienak egiten zitue erdaldunen artean. Nere gizonain aita berdin berdina ze”.



Berrogeieko gudariak juan bearrak deitu zuzte eta anaia batek juan bear zue, jorraitaren ogeite seian atera ze Iruñatik.

Gero dagonillaren amabortzean il zute Kaudielko oian tiki batean eta iausti ziote errira eta egon omen zen ortzi gabe gorroto geiago asi zelakoz. Eta guri etzigitu utzi ekartzera, erran zigute bi suen artian zegola eta ezin ekarri zela eta orduan an uzteko lana izen gindue. Erriko obitegian gelditu zela erran zigute bere launek. Baño Jaungoikoak bakarrik daki. Gizajoa! emezortzi urtetan an gelditu ze. Nere aitari buruko bilo guzia beltz beltza zue eta zortzi egunez xuri xuria gelditu zitzaio. Mezkitritzen egin zire mezak eta Iruritatik juan zire biribil aundi batean berrogeita amasei. Egin nue al guziak eskerrak ematitak, baño anitz aldiz gogoratzen zaide berak eman zuela bertze anitzek bezala zuten guzia: beren bizia, eta... gu aiek gabe.

Dagonillaren bereko ondarrera asi ze nere gizonain aita erraten gorroto edo gerra aundi ura akitiko zela. Epaillaren ondar egunetan ogeite zortzitik ogeite amekara eta jorraitaren lemexian ekarriko zuela egunorokoan “Lemexiko garaipen eguna” edo “Garaipenaren lemexiko eguna” eta gero laster ilen zela bera. Niok etzeko sinisten eta denei erraten ziote berdin eta gelditzen zitzaigu gogoan, baño sinetsi gabe, baño gero atera zelaik, arek erran bezala, anitzek galde egiten zute ia sorgine zen<sup>25</sup>.

Eta jorraitaren ogei eta zazpian il ze, ortan ere ongi xuxen erabili ze. Urte berean. Gero irakurri nue ogeite zortzian akitu zela makurrena eta gero garbitzen tokian egon zirala ondar egun oietan. Gertaera aundia da ixilik uzteko. Lauetan ogei eta bat urte zitue il zelaik. Umoro oneko gizona bakarrei irrinazik juantzen bertze aldera.

## Sorginkeriak

Lentxago erran gogo nue orain erran bear dudena. Iruritan ezagutu nue aur bat bi ilabetetaik altzina min anitz izeten zuena, astean bi gabez, asteartetik asteazkenara eta ortzileretik laronbatera. Kolpatua bezala paratzen ze arron moratue eta negar miñekin. Etzekie niok zer izeten al zen; baño, gañera, aldatzen zuelaik bere amak berriz botatzen ziote bere gañera dena bustia gelditzen ze. Orduan amari gogoratu zitzaio *aitaren* egitea ur bedekatuaekin, aldatu gero eta etzioten bustitzen, eta orduan ori egiten zion lenik *aitaren* ur bedekatuaekin eta gero aldatu eta ez zute bustitzen; baño *aitaren* ur bedekatuik gabe bustitzen zute gañaldi guzia, baño ur bedekatuakin ez. Orduan gabas ain gaizki paratzen zelaik, gogoratu zitzeo ur bedekatuaekin

25 1. koaderno txikian gehitzen du: “Abile bai eta bertsolaria zen”. Eta aitzinago dio: “Bere gaztetasuna egin zue Falces delako errian, an bazue osaba bat, bere amain anaia bat, abizenak zitue Urtasun Larraburu. Bere osabarekin ikasi zue txokolaterian, piper opil, bolado, turrin gisa guzietakoak”.

egitea gurutze bat aurraren gañean, baño aldiz aurraren minak geiakoak zire eta bertze aldiz pixka bat obekixago paratzen ze. Bi urte ireun zue aurrein gaizkitasunak. Orduan eliz jaun ospatsu batei amak erran zio dena eta apez jaun orrek erran zue bear zela ur bedeikatuarekin. Bedeikatu zue aurra bera otoitz anitz eginez, sanduen letania eta anitz otoitz, aurrari loak artu zio eta etzue geiagoko gau txarrik pasatu eta etze geiagokoi busti. Apez jaun arek erran zio deabruak arront gaitsetsiak zituala aurrak eta eginalak egiten zituela min anitz pasatzen aur gaixueri. Betiere, erran zue anitz aldiz izaten zirala aur oiek debruari min arrazi bear ziotenak anitz. Ez zue erran soriginek zirala, baño badut uste alako zerbait zela dena.

Nere gizonain aitak Falzesen egin zue bere gazterian denbora, euskera bazekie, baño erdaraz itz egiten zue geago, zerengatik erri ortan euskaldun guti izein ze; bere osaba bai euskalduna eta iruritarra ze bere amain anaia, eta arek erakutsi zio txokolate, bolado, turrón gisa guzietakoak, piper opilak, eta goxogarrri anitz, bai eta ere kandela eta argezeriak.

Gero bere aitak erakutsi zao nere senarrai eta ola juaten da ikasiz, baño guk ez dugu semeik eta ez du niok ikasi nere gizonaingaindik. Nik bai. Iruritako Beltranea ze nere gizonain sortu etxea. Or sortua. Bere anai guzien artean bera ze lemexikoa etxe ortan eta ze zazpigarrena, bertze altzinekoak bertze etxe zenbaitetan sortuak dire, nere idurikoz Peruenean, baño ez naiz arront segur.

Aitak erraten zire anitz aldiz: naiago nuke nere semeak bere amazazpi urtetan ezagutu bazizu. Eta bein erran nion: eta nik zer eginen nuen sei urtetan? Ia etzire geiakorik erraten. Erraten zue nere alabak arront langileak izain zirela. Iru bakarri ezagutu zitue eta, ala ere, ongi aztatu zue, denak langileak dire.

Beltranea aitak erosi zue eta berean egiten ze ogia. Okindegia zen eta ogia egiten zute mutil batekin, eta bertze gañerakoak aitak semearekin. Lan anitz egiten zue eta ainbertze egitean uste zute kanpokoek ler diru bazutela, baño etze ogia, ama iru urtez andria elbarritua, izan bedratzi ume... ez da arritzeko guti izatea, eta bi andre juaten zire garbitzera beren sakeletara.

## **Gerra eta gorrotoko ilundurak**

Mile bederatziegun ogeita emezortzian il ze edo il zute nere anaia Tomas dagonillen amabortzean, nik ametsetan ikusi nue amaseietik amazazpira, gabas ikusi nue mai baten gañan burua lotua ezkerreko bekain gañetik odola zeriola. Orduko bi gau banemaitze suarekin ametsetan eta sua gerrakoa zela. Ez zire amets onak neretako eta erran nion nere aizpa batei: ez dakit zer eldu zaigun, baño beldur naiz anaietaik baten gertatzen ote zaion zerbait. Bai eta erran zire: ni beldur naiz zure ametsekin,

baña emezortzi goizean artu nue eskutitz bat Tomasena eta orduan egin nue neure baitan, ba oraiko aldia ez da deus ere; eta egun artan juan gine Iruritatik Mezkitritza etxea pixka bat edertzera. Emeretzi goizean Mezkitritzko alkatea gure etxera, ba ez da gauze onik eta ori gogoan ginduelaik denek erran zigu alkateak: Tomas il de. Ori ez duenak igaro ez daki zer kaska artzen den buruan, biotzean, gorputz guzian, ez da erraten al. Segido etorri nai zute Iruñara ia juaten al zen zegon tokira ekartzeko bere errira, baño erra zute ezetz, ezin zela, zerengatik bi suen artian zegola. Segido asi zire bere lagunuen eskutitzak eta garbi garbia erraten zute dena. Ama Birjiña egunean aitortu eta komekatu zirala *Batallón* erdaraz guzia eta goiz guzian etzela deus izen, baño atsaldeko iruetan bala dun dun erraten zioite batek il zuela. Sartu zitzaiola ezkerreko bekain gañetik eta muñe guziak atera zirala, burua lotu ziotela il onduan, benda edo sangirio oial zuriekin eta mai baten gañan gelditu zela gorroto alde bat izan zutelakoz. Erraten dute anitzek ametsek ez dutela deus erran nai, baño nerek geiegi erraten dute! Altzinago erran dut aren iltzea baño erran gogo ditut bertze amets batzuk eta au bertzeak bezain egia atera ze, etzue balio uztea.

Orai bertze gauza geiago. Nere gizonain aitak, il zelaik, utzi zigu sos batzuk. Bertzei bi mila pezta utzi baziote, guri lau mila, baño utzi zue zor puxka bat, sendakaitzean bazuela eta iakin bezain laster ordaindu gindue. Etxe ontan, Beltranean, sortu ze, aitak erosi baño len aise, Jesusen Lagundiako zen anaia Franzisko Muru, sandue bezala bizi eta sandu bezala iltzena. Aitak Falzesen ikasi zuen guzietaik aise saltzen zire Baztanen eta, gañera, anitz. Orrengatik erran daike ongi ikasiak zirela denak.

Mila bederatziegun eta berrogeian, otsallairen bortzean sortu ze nere laugarren alaba aundiegi eta ederra. Otzak etorri ze mundura, sortu bezain laster inguratu eta nere onduan guatze berean sartu zire sendagilleak erranez otz aundia zuela eta berotuzi beartzela ongi. Etze bealakoan berotu, baño gutire gutire juan ze berotuz, baño nere ondoan egon ze lemexiko gabeen. Arront ongi azi ze, baño ni ez nitze ongi gelditu. Erdaraz *pleuresia* deitzen den eritasuna nue neurekin, egunoro sukar puxkatekin eta egunoro txista an txista emen, eta ori bedratzi ilabetez. Nik erraten nion sendagileai: obe da aurrai ekentzen badiot bulerra, baño berak zio nik sendatzekotan eman bear niola eta aurra azkarre zela eta uste zuela ongi aterako zela, eta ez baze ateratzen bataiatua zela, eta bertze iru aurrekin berak ama atera beartzuela lenik. Baño Jaunari eskerrak, aurrak etzue deus gibelazioik izan, arront ederra eta azkarra izan da beti. Orai lau umen ama da eta ez da gizena, baño azkarra bai.

Lenago erran dut zenbat min izen zituen nere amak, baño berrogeieko urtean iltzala, orai erranen dut gañerakoak. Urte berea, mile bederatziegun eta berrogeian, orrillako emeretzian, nere amai zuen beardura aundia, ebakitasunetik gelditua, lertu zitzaio, *estrangularse* erdaraz, eta egun ortan artu zue ondar Jauna artzea eta nere alaba zarrenai lemexiko aldiz.

Nere ama ordutik asi eta il artio botatzen zue barnean zue guzia. Odola biltzen bazue odola botatzen zue. Ahoa garbitzen zuelaik eta txinturritik sartu bazen ur txinta bat, ure bota artio lertiko ze, baño bota artio etze gelditzen. Eta agorrain amekan il ze. Ordu artio gogora daike zer minak izanen ote zitue? Ni juaten nitzen guzietan etze kexatzen deus ere. Ni arrituik nola izaten al zen, erran zire eskatzen zuela min geiago. Nik erran nio: ama, Jaungoikoain izenean, ez duzu aski maten dizuna? Eta erran zire: zuk ere eska zindezake bazindaki zein ederra den min anitz izatia animengatik. Nere ustez, erraten zue bekatuen zeuden animengatik. Eskatze zue bekatariengatik eta nik ixil ixila entzuten nio. Eta erraten zio Jaungoikoari: niri eman zadazu nai dezun min guziak eta utzedazu bakartasunik aundienean, baño zure semeain odolaingatik ez daiela anima bat ere galdu. Egun guzia pasatzen zue otoitz batean. Eta anitz gauza erran nuke, baño aspertu baño len... geldituko naiz erranez bere ondar itzak “Gurutzetik argira”. Bere il ondoko manatu zigu bere obitegira ez eremateko lore bat ere. Guk egin gindue il zelaik eta gero azaroan, baño azaroain lenean jua ginelatik, aurkitu gindue bere obia dena lorez xuri gorritz bete bete. Guk ustez bertze norbaitena izanen zela, galde egin gindue obitegiko apezari ia an zegon gure ama eta, ikusi ondoan liburu bat, erran zigu baietz, an zegona gure ama zela. Eta erran gindio: nor ote da aren obia lorez bete duena? Guk obeditziatik utzi degu deus gabe eta au ainbertze lorekin ez dakigu zer gogoratu. Eta apezak erran zue, dudarik gabe, bertze norbaitek ustez bere ila dela egin du. Baño gauza batengatik edo bertze batengatik, ama zure obia lorez beterik!

Nik lau alaba zarrenak izen nitue Iruritan eta bertze iru alaba Iruñan neure ama il ondoan eta Iruritakoak nere ama bizi zenean. Denbora aietan Iruritako mendietatik iausti zute lau bat gizon zauntzen etzirenak. Erraten zute bai: makiek il tuzte. Eta nork daki ori? Mezkitzen ere bertze gizon bat ilik bide bidean arrepatu zute; arei il ondoan zapeta berriak paratu ziotela erran zute, ez omen zute erretoik tikieena ere beretan, baño genden solasa, Iruritan bezala, makiek ila zen. Itz egiten den guzia egia baliz, baño niok ere ez daki zer, nola, non, baño denek erran biar dute beren gogoan paratzen dena. *Aldiz jauna zaldiz*, au da bertze esaera zar bat.

Nik ateratzen dut neuregatik. Berriz sendagillek iortzen dirate olezko guatzera eta orgatik diot esaera zarra, aldizka bai naile batetik bertzera. Errose Mirenek egin zue bere Jauna artzea eta biramonean gelditu nitze olezko guatzean. Bigarren aldian egon nitze amar bat ilabetez eta iaiki nitze laster, zerengatik anitz galdu nue, baño ordu artan ogeita emeretz kilo nitue bakarrik, anitz makur egon nitzen lau aurrekin, sobera onak zire, nik ez nue ianai deus ere eta amar ilabete guatzean eta neretako etze andre bat ere niri gogoia pizkat goratzeko, deus ere. Arripeko sugeari ez dakot nai nik pasatuak. Iaikitzen asi nitzelaik erortzen nitze, zutik ezin egon, gañera artsean guatzean sartu bezain laster, akorduik gabe gelditzen nitze eta ezin itzulazi niok; ola jua zire nere indarrak eta nere oiñarria jua ze, nik ez nue deus indarrak eta deustako ez nue balio.

Donostira juan nitze eta an ongi begiratu zirate eta ikus zirate aurra izan bearra nitzala eta odolean lau gauza eskas nituela eta eman bear ziratela borts txiste egunean, bat edo bertze zañetaik. Oarritzko serora aietaik batek ematen zire egunoro. Neretako guatzea ondagarria izen da beti, neri guatzeak gaizki artu nau beti, nik badakit ezur bat bautela bizkar ezurrean “sakro” deitzen denean. Egon bearra eskuin, ezker dago, goiti beiti arront makur dago, ez dakit zetaz, ainbertze egur autsi dudalakoz edo eror aldi zenbait aundia artu dudalakoz? Nik ez dakit zetaz, bakarrik oñaze aundiak izan ditudela eta guatzea gaizki juan zaidela. Gañera, emezortzi urtez ereman dut burdinez eta idi larru gogorrez inikeko kortse batekin, zauriak eta dena egiten zitzaizkide, gañera nere senarra lanik gabe... Ez dire sobera ganosoak ezta irakurtzeko nere bizia, baño sobera egia delakoz erraten ditut. Bortzgarren alaba izan artio, Mezkitritzen neure aita eta aizpa batekin utzi nitue lau zarrenak. Nere gizona sartu ze lanera, baño etzeko maten ezta subsidio, eta saria arront guti. Ori izen da denbora anitez. Españako alkegarriko zuzentasuna, gizonak andrea eri eta aurra izen bearra, aurrez iosia eta idurikezik [sic] etzuela bear bearrezkoa irabazten zuena, merexi zuena, irringarriko sari bat eta, gañera, artaik saritu bear geurek denek sendagilleak eta gañerako gauza anitz, seguru batreik gabe egoteaikin. Eta orai laueta n ogeita iru urtetan ere zartautukoa [sic, zaartutakoa?] gabe, zeren lana egiten zuten nagusiek etzioten ematen eta bertzelaz batre lanik gabe kanpora, gero etortzen dire ondorioak.

Aurra izan artio gelditu nitze Iruñan, zerengatik egunoro beartzen nitze sendagileaz eta sendagillean etxera urbil gelditu nitze, fonda edo ostatu batean zeintan etxekoandrea ze Mezkitritzko alaba, eta arara juaten ze anitz aldiz nere senarrain lengusua eta bilazten zire aketa gordine pikor tiki bat, billetzen nion eta neuretako zorretan sartu gabe ateratzen nue eta bai Mezkitritzen nituen lau aurrendako. Gero iortzen nio Iruritarra bertze batei eta, saski ederrak bete onduan, aketaz gañetik estaltzen nue tomate eta piper gordinez eta biribilan gañera botatzeko ematen nio karabineroei eta egun batez batei eta bertzean bertzeai, baño zorrik egin gabe atera nitze eta bearbada orrek berak lagundu zire obekiago paratzen neure osasuna.

Betiere guatzean egon nitzen denboran bagindue erori zitzaigun loterietik altzina ateratzeko, baño xuxenak izan bazire lana egin duen toki guzietan, orai nere gizonak etzue ola egon bear. Eta etorri ze agorrila eta amaseian sortu ze bortzgarren alaba. Etorri ze arront makur gisa guzietara, biotza, odol juate, aurra soñez... eta, gañera, ni deus indarrrik gabea... izan nue lanik aski, baño alare niork uste ez zuena, arront ongi gelditu nitze, baño indarra... kosta ze anitz. Eta orai gibelaxago juan bear dut gertaera bat idazteko.

Iruritan egon ginen lemexiko etxean izan gindue aixkidetasun aundi bat. Zitue bi bizitoki, gu bizi gine gañan eta bertze senide edo familie azpian. Gerra asi baño

seme bat juantze lanera Kataluñara, alabat Oviedora eta bertzea Madridera. Etxean gelditu zire bi gaztenak aita eta amarekin, Elizondon. Ez naiz ongi oroitzen, bide edo iru ziren, betiere ongi zire denak. Baño gerrak artu zekote iru tokietan eta uste dut Oviedokoa juan zela Leridara ea ezin zutela deus ere egin iakiteko nola ziren aita eta amak eta naigabe ederrekin zeude denak. Gerra akitu baño lentxago, Gurutze Gorritik barne iorri ziote iru anai arrebak ongi zirela eta emengoak lasaitu zire puska bat, baño aiek etzekite beren aizpa eta arreba zaarrena Elizondon zegona, iru edo lau aurren ama, iltzela eta beren ama gaizki zela bere naigabe guziengatik. Gerra akitu zela bazue urte bat pasa eta niok etzekie deus ere geiago. Nik maite nitue denak anitz eta biotz guzitik egiten nue otoitz denengatik. Gauzak ala, nik egin nue amets eder bat, eta bere amaikin zegon gaztena etorri ze zerbaitera nere etxera eta galde egin nio: ez dakizie deus ere zeure aurridetaik? Ez, ez dakigu deus ere eta beldur dugu denek makur aundi zenbait bautela. Nik ametsa erran baño len, egin nue al guzia gogoratzen anitz gauza izan zeizkiela ezin idatzi zutelaik, baño etzue deusek balio eta orduan erran nio: beida, egin dut amets bat juan den gabean eta iduritzen zaide gauza on zerbaite eldu zaiziela... eta orai kontu.

Amets egin dut trena ordu bat berantago etorri zela gau batez eta etzatela nior atera nioren eske eta ia guatzera juaten zinetela eta io zutela beitiko atean eta etorri zena zela Tomasa, pusken ere ile xuriaikin egon zelakoz giltzepean idurikeko zerbaitean eta eldu zela paper batzuek eske, ereman eta atera daitzen dauden tokitik ango anai arrebak. Eta erran nion: niri iduritzen zaide zerbaite ongi daiena badela, ez da errax erran tuden gauza guziak berdin berdina aterako dirala, baño zerbaite gauza on izein duziela. Juantze etxera aitai erratera, baño niok etzue nik bezain argi ikusi gauzak, betiere egun guzian egon omen ze. Egia balitz! Bai, ametsa egin duelakoz izein da egia! Ezta gogoan pasten ere, baño gau artan berean trena berantago eta ordu bat; guatzera zezilaik beitiko atarian iotzen, nor da? Tomasa, ilea xuriago, bere aurriden paperen eske... bear zuela segido itzuli bere anai aizpak atera zeiten len baño len zauden tokitik. Biramón goizean erran neko nai erran nio eta etorri ze erratera dena: nik erran bezala edo nola izen da? Nola? Zuk erran bezala eta dena berdin berdina, ez bazindu erran atzo, gaur enizu sinetsiko deusengatik, iduri du gezurra ain berdin ateratzia dena, sorgina bazindeke ere eta erran nio: nik ez dut sekula deus egiten amets iteko eta gutiago puntu guziak artzeko. Ori geuren gañetik dago, ori eta bertze anitz gauza iduriak gurekin egiten dituen, ez da deus makurtasunik ametsetan, batzuk ateratzen dire au bezala, bertze batzuk ez, baño nik uste nue zerbaite bedere aterako zela.

Mezkiritzko Sakarten erori ze burdinezko egazti bat, barnean zezinak paratu zute *paracaidas* delakoa eta iausti zire Sakarte baño lenagoko mendietan batere minik artu gabe eta burdinezko egaztia erori eta erre ze guzia, edo erre zeikena. Leer guzia txatarra bildu eta saldu egin zute Mezkiritzko jendeak. Bi urte ondoren anba-

teko maurgiak bildu nitue neurekin. Afera au izan ze berrogeita lauean. Alemanak omen zire eta uste omen zute Frantziakoan erori zirela, iakin zutelaik Españaakoan zeudela atsiñertu omen zuten. Oraño txerri bazka egosteko ontzi onak ba omen dire erri aietan.

Iruñara etorri gine ilbeltzain zazpian berrogeita lauean. Atsiñertu nue. Sendagilleak erran zigu: bizitokik gorenetaik bat eta *aszensor* deitzen denaikin artzeko ustez nik biotza makur nuela, baño etze biotza, ze beardura aundi bat banela biotzain onduan eta gelditzen zire biotza eta mogiezteko kostatzen ze aski eta ebakidurat aundia egin ekentzeko irenoia ez nue iakinen eta, ain segur, ilen nitzen lenago.

Etorri Iruñara eta segido asi nitze eskola bilatzen lau aur zarrenendako eta erabili nitue denak, baño deus ere. Denbora ortako bizi ze nerekin andre alargun bat seme alabaikin, berak erraten zue etxeko nagusiak igorri zuela eta berak erran zire: zazi Jesusen Biotzain seroretara, oiek ain segur karestiek izein dire. Eta etxean aurrekin arrosarioa erreztatu eta artu bortz aurrak eta juan gine serora oietara bide guzian otoitz egiten erdiesteatik eskola bidendako bedere.

Deitu nue eta atera ze bat eta erran zire: badakit zetara eldu zaten, iar zaite ixtenpat, laister etorriko da ontan dagona. Eta etorri ze ama Negrete zue izena eta artu zue paper bat eta lapize edo boligrafo deitzen dena eta galdin zue zaarrenain izena, gero bigarrenaiña, gero irugarrenaiña eta gero laugarrenaiña. Eta gero erran zira ia tikiak ze izen zuen eta erran nio, gero erran zire eta gero eldu diren guziena, baño zenbat izain da saria? Erran zire: deus ere, erakustea deus ere. Baño zenbait aldiz erosi bear izanen duzu paper zerbait eta ez dakit, bearbada, zerbait, denborak errain digu, baño bitartean iorri aurrak onara eta ikasiko dute ongi. Eta galde egin nio: zenbat iorriko ditut, zenbat? Orai lau, gero bat, eta izaten badezu geiago izaten dituzunak; gelditu nitze erdi ergeldue. Sekula ez nue gogoratu ere denak artiko zirela, baño goiz artan erdietsi nue gauzaik oberena neuren aurrendako; gero geiagokoak egin dituzte aski langileak eta abilak atera dire Jaunari eskerrak. Zenbat otoitz egin ditut onak atera daitzen eta orain, berriz, gero eta obeagokoak izan daiken, Jaungoikoak nai duena berengandik izen dezatela egun baktotzean berek, beren gi-zonek eta ume guziek. Erdietsikot? Jaungoikoak dezala.

### **Orai gauza geiago erran bear dut**

Nere senarra anitz aldiz eritzen zen erisipela deitzen den eritasunaikin. Sukar aundia izeten zue, berrogeietik noiznai pasatzen ze eta, sendatu eta amabortz egun gabe, berriz eritasun beraikin; eta ala egon ze denbora anitzetan, baño azkenean

xertatu gindue eta ongi kosta ze obekitzea, baño ortaik sendatu ze, baño batetik bertzera pasatzen ze aise.

Norbaitek erran dizu sekula Mezkiritzko gure Sakarteko alorrean aketa ona egiten zela, urte anitzez artzen zutela, baño gero etzutela utzi geiago erain zezaten? Frantzietik ekartzen zutela pikor gordine eta ederki artzen zuela? Eta Mezkiritzko Sagoietako eta landa edo landetan aixkola eta txitxirioa ere egiten zela ongi? Baño azkenean azten ze gero ta gutiago eta ez dut ikusi geago eraiten. Baño berriz itz egin bear dut neure senarraz. Alaba zaarrenak amairu ilabete zituelaik jua gine Iruritatik Mezkiritzko errira. Onen mendiz mendi bide geienean ereman nue besotan aurra, baña bertzea neurekin nue. Iatekoak ereman zitue nere gizonak eta aldatzeko arropak denendako ereman zitue nere anaia Tomasek, amalau urtekoa orduan. Gero, Iruritara itzultzian, nere senarra aurraikin iorri gindue biribilean eta gu, anai arrebak, jua gine oñez etxeraño eta gustuara. Baño denboraikin asi zitzaio ezongitasuna eta eritasun bat utzazi eta bertze bat artu, ala utzi zue eritasun bat eta artu zue *senositis* deitzen dena. Egin ziote ebakuntza aundia, zeregatik denak zeuzkie bete beteak eta arront gogortuak. Iru ordu iraun zue ebakuntzak eta aski makur gelditu ze, uste gindue nasia geldituko zela. Iduri zue min oi ere bulkatu zuela, baño asi ze bertze bateki. Anakak beltz beltzak egiten zire botradaka. Sendagilleak erraten zue tronboflebitis zela. Badu ogeite amar bat urte asi zela afera oiekin eta anitz aldiz erran dute sendagillek ondarra dela, oraño badaie altzine, oraño errain dut zer lanak egin dituen, ez da beti beide egon ez, baño ezin ireun gelditzen ze, ezin segi. Bein erran zio sendagille beltz batek: au da adinaingatik, anka beltz eta azitua leertzera eta onek erran zio: bi anakak egun berekoak dire.

Bertze bein, arront gaizki zen batez etorri ze aita kaputxino bat eta erran zio: Trinidad, eskeindu zazu Jaungoikoari oñaze oiek eta eriak erran zio<sup>26</sup>: eskeindu? eman ere eman nezake gogotik. Orduan erran zio aitak: zer, nai al dezu Jaungoikoari sufritzen ikusi? Eta eriak erran zio: ez jauna ez, baño erran direzu eskeintzeko... eta nik erran dizut eman ere egin nezakela, baño ez sufritzen ikusteko.

Kandelak egiten zituelaik, beti arrankure aundiak izaten zue, zerengatik ezin eginak zire ogeite amarraikin edo iruetan ogeiekin, nola egin eta saldua bear dugu bertze anitzek ez dutelaik ez eta amarra ere? Eta nik eman biar diot irueten ogeia? Etzaket ori egin, ez bertzea ere, eta utzi zue alde batera kandela egitea.

Iruritatik urte batez atera gine Erriberara gaztaña saltzera, ez gindu deus egin. Arropa eta gauza aski saltzen ginduz e etxe etxe eta bordaz borda Trinidaden arreba bizi zelaik. Baño nik anaiakin lan geiago egiten nue senarrainkin baño, arropekin

26 1. koaderno txikian "errepostu" dio.



etzue deus balio, etzue deus ezagutzen eta saldu biar duenak ezagutu bear du zer saltzen duen eta zer erosten duen. Bere gauzetan ezin ohea, baño bere aitak nai eta ez eginazten zigu berak nai zuena, ez uzteatik guri saltzera bere alabak saltzen zue-netik. Ori arendako gaizki ze eta ure ze lenik, bakarretan gogoratu zaide denen nai txarra guretako.

Denbora ontan gutiz gorabera, Sorogainen il zute gizon bat arront ezagutua alde artako toki guzietan; bai eta ere Franzie aldean. Sorogañen bizi ze bere etxe ederrean. Nere aitain ondotik artu zue Sorogaingo uneintza. Azienda ederra bazue berak. Ume geienak aziak, baño norbaitek gogo txarra zeuke arendako, zertaz? Ori Jaungoikoak daki. Erran zute Frantzietik etorri zirela iltzera eta bere etxean il zute, eta il ondoan bere seme alabak artu eta lotu eta egi bererano ereman zuzte berekin, lotsatuak zer egin bear zuten berekin. Baño egi berean utzi zuzte eta berak sartu zire Frantzian. Gise guzietako gauzak erran zire. Batzuk makizko oietaik zirela, bertze batzuek anitz aiskideak zirela ila eta iltzaleak eta elkar zor zutela eta berantzen zutela gauzak xuxentzia..., bertze batzuek bai eta kontu kontari egon zela ila... guk eztakigu eta bakarrik erraten dut gaizki zerbait egin bazue, ongi ordaindu ziotela.

Erraten zute zenbaitek arront gizon ona zela, errezalea zela, *fumador* erdaraz, eta garizuman etzuela deus erretzen, aren sosa jende bearrai emateko. Nik ez dakit egiak diren, baño uste dut gauza bat txarra erratekotan, onak ere erran bear direla. Erran dezaket jendea aski ikaratua gelditu zela, nola egiten al ziren gauza oiek.

Uda azken ontan nire lau alaba zaarrenak asi zire eskolara bigarren urtian eta gogotik juaten zire. Ni orai bizi naizen etxe berean bizi nitze, eta etxe beretik ikusten nitue eskolan sartzen. Ikasteko on aski zire eta nik etxean erakusten niote erreljioko gauza anitz, uste zutela beti ikasiak sortu zirala. Gogotik juaten zire eta gogotik ikasten zute. Maixko juaten nitze iakitera nola ziren, nola ikasten zuten, iostatzen zuten anitz... Urte artan Migel Deunaren egunean an gine denak. Bazkaltzean nere aitari trabatu zitzaigo txintxurrian aragi puxkat eta anitz kostea ze garbitzea, gizajoak ordu txarra izan zue! Etzizego atzendu ondarreraño. Berrogeita bortzean, abenduaren amarrean arront gau txarra izan ze. Otz aundia omen zego, berak errana da, eta sue bildu eta biztu zuela berotzeko. Gau artan nere aizpa bere semeaikin Iruñan ze. Ori ori paratu zitzeago seme zaarrena, iru edo lau urtekoa, eta, beldurak gaitz aundi zenbait bazuela, ekarri zio sendagileaingana eta segido ekendu zioe odola aztertutzeko, eta tirizia erraten ze oritza gise ontan eta sendagileak erran zio obe zela gelditzen baze Iruñan, segido eginen ziola ikusi orduko gernuak eta odolak zer maten zion.

Eta bi semeaikin gelditu ze eta adin onean etzue uste deus gaitzik izan beartzuela eta bera gelditu ze bere semearekin Iruñan. Biramon goizean bedratzietaik amarreta urrutiko izkiñaz deitu zigu anaia zaarenak aitak besoa errea zuela eta juan bearko ginduela biribil batekin aitan eske senda zezaten. Eta nere aizpa juan ze aitan eske eta

ni etxean egongo bearko nue, zerengatik aurra izen bearretan nitze eta obe ze etxean egotea. Nere aizpa arat eta nere aita anaiaikin onat aurkitu zire eta biok itzuli zire, segido ereman zute gaxotegira eta besoa moxtua gelditu bear izain zela eta nik erran nue moztu bearra balin baze mozteko, zerengatik naiago nuela besoi gabeko aita ezik aita gabeko besoa baño. Besoan etzue deus ere oñazeik eta ikusi ziote zain bat beltz beltza igaten zela burura eta bertze bat besapera. Odola eta gernua aztertutzeko eta ni bertze aizpekin juan ginen ikustera amairu atsaldean, bertzeak eta nere gizona egon zire bezperan.

Niri ikustean erran zire: Jinkoain izenean zaude etxean, zu ez zaude kanpoan erabiltzeko. Juan gine etxera eta biramonean aldagarri bat ereman biar ziola gaztenak, segido ian eta juan bear zuela ia prestatzen ai ze, eta an lanean ai zen lengusu bat etorri ze erranez Rikardo il zela, zer naigabea ereman nuen!!! Ez dakit baden itzik errateko oñazearen mina. Juan artio ez nekie aitortu zen edo ez, baño apez euskaldun batek erran zire baietz, egin zela, eta umore onean ikusi ziolaik, galdera egin ziola: zu euskalduna zara? Apezak: bai euskalduna naiz. Gerostik, euskeraz aitortu bear du eta ala egin zela. Sala bete gizonen artian eta alaitu zela euskeraz egin al zela. Gero erran ze Mikel Deunaren egunean izen zuen txintxurriko estutasuna eta bazaiela lasai, ia bakotxak berea egiten al ginduela denek eta konpon zeizela. Gizajoa ikusi nue ilik ere. Sendagilleak erran zire arek zuen eritasuna zela uremia, ala deitzen zela eta eritasun orrekin erretzea pozoña zela eta orgatik sartu zitzeiola kangrena besotik burura eta besotik biotzera artua zela.

Iruetan ogei eta sei urtetan il ze, ni desina gelditu nitze eta sendagillek anitz asarratu zirate, zerengatik galdu nue pisu anitz eta eldu zen aurrarendako arron makur zela. Nik ez dakit, baño ez nue iten al bertzeik. Mezak egin gindio Iruñako Antonio Deunaren elizan eta aurra izan baño len entzun nitue arentzat berrogeita borts meza eta aurrak eskolako ordua baño len. Jaunak berekin dezala.

### **Orai berriz nere senarrain gauza batzuk**

Bere langintzan bi tokietan aitu ze lan ortan. Batean amar-amabi ilabete eta batre subsidioik eman gabe, sari txar batekin utzi zute. Bertze tokian erakutsi ziote bere lana egiten, txokolata eta bertze gauza anitz eta amalau ilabetez ikasi zutenai-kin gelditu zire, baño gu gutiagoikin. Gauza oietarik egiteko ez zute zukreik eta erran ziote ia onartuko zuen bi ilabeteko agurtzea, ia bitartean zukrea ia etortzen zen. Eta gero beti lemexiko izanen zela bere langintzan eta izan zela, irabaziko zuela geiago, ala irakurri ziote eta ustez ala zela izenpetu zue eta ederrak igaro ditugu orrengatik, lanik gabe. Zerengatik, ikusi zuelaik lanean asi zirela agertu ze lana eskatzeko, baño irakurri zionak berak erran zio: aski zindue zeurorrek irakurtzea,

orduan iakinen zindue zer izenpetua egin zinduen. Abildu abildu, ez duzu deuseren eskubideik, ez degu lanik ainbertze umen aitandeko, oraño bakarrik izan bazine, baño ainbertzekin... orra ze irriak egiten zuzten onegiak diren guziekin. Gero, eritu noiznai? Nola ez. Gaistakerie guti izen bear du gizon batek alako batei burua auste-ko, beinguaz ez dezan niori geagokoik, alako zikinkeriaik ez dezan niorei egin. Zenbat olako egiten ote da? Eta nola arritu bear dugu igarotzen den gauza anitzekin? Andre naiz, baño niri etzire eginen.

Berriz neure senarrain lanekin. Bere langintza utzirik alde bat, asi ze lan batean egundaño egin etzueanean, argin launtako. Gu bizi garen etxeain ondoan egin ze orai dagona eta ortan egontze lan egiten. Erraten zue nardagarria zela, an zenbait langilen izena zeramaten zenbaitek ze denborak egoten ziren deus lanik egin gabe, denbora pasa eta bera beti gelditu gabe, baratzean aizen zen bezala. Lagunek erraten omen ziote egoteko mantsoago, baño oitura etze ala eta erraten etzukela alaikoik egin. Gañera, bazen bertze zenbait arront ago zikiñak eta etzeike ixilik egon erraten ziote Jaungoikoaren gañan etzazala niok egin zikinkeriaik, baño denek, edo zirenetaik geienek, begien gañ artu zute eta atsalde batian lanean ai zelaik, gainetik zur aundi bota ziote, baño batek bere abizenez deitu zue eta zurak artu zio bekaña eta lau puntu eman ziote; gañera, betaurrekoak autsi ziote. Batre seguroik gabe zego eta niok etziote man betaurrekoena ez puntuena, ez eta sendatzea ere, ola nior ez daike lanean aitu. Olako langilek ekarri tuzte naigabe ederrak.

Azkenean, iketz eta egur erematen etxetara bi ilabete egin zue, bano eritu ze eta ogei kilo galdu zitue eta ongi gaizki egon ze berriz. Orai duela ogeita zortzi edo ogeita amar urte, bi alabekin eta andre bat bere alaba batekin eta gurekin bizi zen nexka batekin juan gine Jaurrietako ardi borda batera, gabas lo egiten gindue an eta goizean goiz juaten gine maurgi eske. Nik ogei egunez eta egun bakoitzean ogei kilo bildu nitue neure alabekin, bertzek araberara eta arropa batzuk egin ginduze denentzat nere gizonak saltzen zitue gureak eta baktzak bagindue geuren erostuna. Nik brodatzen nue anitz, baño etze egunoroko lana berdin, lau aste ezin egin aski eta gero batre ez edo guti. Aste geienetan, lana nuelaik, mille berregun eta lauetan ogei pezta ateratzen nitue, baño...

Anitz aldiz ateratzen ze nere senarra Baztango biribil aundira ia lan zenbait ematen zioten zerbait atratzeko. Baño mozkortzera ateratzen zela erraten zute bere aidek. Nik badakit gezurra zela, baño gezur ebek eta langabeak desiten zute gizona, eta ezongi balin baze, gaizkiago paratzen ze. Iruritan bizi ginelaik, juaten ze orrilain iruan edo agorrileain amalauean alaba tiki batekin Lezoko Kristora. Beti erraten zue zortziola, zerengatik egin zion mesede zerbait. Ez dut geiagokoik aitu. Nere alaba bat serora da eta juan baño len, urte berean, juan gine Jabierra bera, bere ondoko aizpa eta neuroi. Ama bi alabekin juan gine eskerrak ematera sanduari, baño iruen-

dako aski gogorra izan ze bide ori. Denbora ederra ze, baño gu gine aski guti balio ginduenak. Baztanen norbait iltzen delaik, dolue paratzen zaio, oial beltz bat etxe arriai, erdaraz *escudo* deitzen dena. Denbora ebetan gosea ezin ekenduz gindeude toki geienetan, baño alare ogi eroatera juaten nitze ondoko erri tiki oietara eta biletzen nue eta gosea ekentzen niote gauza batekin edo bertzeakin. Orrekin kontent egoten gine, baño ez nuke itzuli nai igaroak diren anitz gauzetara. Baño eskatzen dut biotz guzitik ez dezagula berriz gauza oietara itzuli.

Nere aita il eta ilabete baten buruan sortu ze nere seigarren alaba eta azi ze aski ongi; lo anitz egiten zue eta esnea aise aski egiten ze, dudarik gabe. Altzineko bietan baño lenago sendatu nitze. Udaberrian egon ze nere gizonain arreba. Erran zue zein pollita zen aurre eta nai zue bere ondar naiak egin eta bere besotakoa zen alaba azi arendako eta egin gogo zuen, baño erran nio obe zela geroagoko uztea, baño jua ze eta nik ez nue geiagokoik ikusi. Nere gizona gure alaba zaarrenaikin jua ze Iruritarra bere sanduein eguna pastzera eta egun bereko artsean eman zio erasoaldi bat aundi eta etze akorduan paratzen eta ala egon ze zortzi edo amar egunez. Azkenean, ustez il ze eta arrosarioa errezatututelaik, beren ustez ilaindako, arront itzuli omen ze eta eskatu zue apezka, eta laister etorri omen ze eta akordu onean egin zitue otowitz alde bat eta apezkaikin aitortu ze eta eskatu omen zue gure Jauna apezari eta denak ongi artu onduan il omen zen. Txoria ere, abeslaria egun guzian, il omen zen.

Aski arriturik etorri zira. Berrogei eta zortzietan il omen zen. Ni neure aurrekin etxean nindago. Badakit agorilleain amarrean il ze. Goian bego.

Iruñan bizi izen garen denbora guzian paratu dugu Jesus Aurrain jaiotza eta aurkeztu egiten gindue eta beti irabazten zute, bein len lenekoa irabazi gindue.

Nik egiten nue eta beti bestelakoa. Beti Mezkiritzko mendietatik bat eta beti ateratzen zitzaide ain ongi. Nere aitak ikusten zuelaik erraten zue segido: Itolegi, bertze batean Berokisoro, Ligeztako xokoa... eta maite zue nik egiten lana, baño aunditu zirelaik nere alabak, berek edo beren senarrek egiten duzte. Orain nik begiratu bakarrik. Baño guk, nik neure alabekin paratzen nuelaik, etortzen zirelaik ikustera aurrak sartzen zire mai azpire, abesten zute aigeruek bezala Jesus Aurrari berek zekiten abesti pollit zenbait. Eta urteoro irabazten zute saria zenbait eta pozez beteak gelditzen zire.

Berrogeita bortzean egin zue lemexiko jaunartzea nere irugarren alabak. Eskolako elizan. Urte txarra zen, soñeko xuria aski txarra zego<sup>27</sup>, baño lore xuriak paratu nezkie ongi brodatuz eta gelditu ze xarmanki. Soñeko beraikin egin dute sei alabek eta bertze

27 1. koaderno txikian zehazten du: “Soñeko xuria autsik zegoen tokian lore xuri batzuk pollitak paratu nion brodatuz gañean. Eta etzue iduri lengoa zela”.

ogiek seurik. Aiskideak, baño gutixko zutenak, bana xuri xuria egina eta ongi eken-duik ximurkeriak, iduri zue berri berria eta denak alaitasun ederrarekin.

Nere aurrak juan dire eskola berera eta Jaunari eskerrak eman diot anitz aldiz. Zori gaitze izen dut serora ebek ezaguntzea. Eskola batean egoten zire sari gabekoak eta bertzean saridunak, baño ikastea berdin izaten ze, ni pozez betea naiz, or iduki diretelakoz eta or ikesi dute saritu gabe. Izen sos anitz eta ongi saritzea ederki dago, baño ez duenak zerbait egin bear zue eta serora ebek egin digute zabaldu ateak an sartzeko. Jaungoikoak saritu dizkiela berek merexi dutena. Badakit, saritzen dutenak ez dute maite erakusten dutela ezin saritu dutenei eta orrengatik arront asarre egoten zire serora oien kontra, baño beren ama sandiak manatu zue lenik ez duenaik erakutsi bear zela eta orai ez ainbertze, baño nere alabak juaten zirelaik, beren amaren borondateain kontra bi atetaik sartuz ere, nere alabeki iostatzen zire eta ori kopeta tikia zuenak etzuke iretsi, eta denbora artan etxetan beretan beren zerbitzariendako ate bat eta berendako bertze bat zutenek, nola eramanean barrenean afera ebek? Nere alabak juan dire eskola ortara eta ikasi dute ume onak izaten beren gurasoendako, arreba eta aizpa oberenak izatera elkarrendako eta bai eta ere jende guziendako, denak gure aurrideak direlakoz, andreik oberenak beren gizonendako, guraso maitegarriak beren umendako..., eta zer geiago nai dezu? Ori dena ikasi dute eskola ortan eta ni aurkitzen naiz pozez betea eta biotza mila eskerrez betea erakutsi dakoten denendako. Orai nere alabek badezakete saritu beren alabengatik eta arront gogotik saritzen dute bakotzak berea. Orai badazi zazpi, iru urten buruan bide geiag juaire dire eta an eskolatuak bezala izein dire.

Ni juaire naiz ikustera anitz aldiz, iakiteatik zer ai zirene nere aurrak, ia ikesten zuten aise edo gibeletik zaitzen, ezin egin manatze zutena, eta ala egiten dute al guzia garaitzeko beren ezongi eginak, altzina juateko beren gauza onetan. Erdietsteko berek duten maitasuna gauza onak egiteko eta ortan laguntzeko, or dute beren serora, ama edo aizpa. Jaungoikoak lagundu dizkiela denak. Nik erakustun guziak maite ditut eta nere biotzeain badu bakotzak aldare bat eta bizi naizeno otoitz bat izain da berendako, denendako eta bakotxaindeko. Esker mila, Jesusen Biotzeko Lagundiaren serora edo monjak.

Berrogei eta lauetik berrogei eta amaseiera bizitu nitze andre alargun batekin, bere seme alabaikin. Etxeko nagusiak iorri zue guregana, bizitzeko gurekin. Arront estu egoten gine aiek eta gu, noiznai bagindue norbait iatera eta lo egitera eta zenbat aldiz ezin lo egitera juaire. Senarra, sei alaba eta ni, bi kuarto lau guatze, non sartu bear nitue ganerakoak? Balin baze nere anaia bat, juaten ze nere senarraikin eta ni sukaldean katedera batean iarririk an. Berdin etortzen zire aurra izatera nola ebakidura bat egitera, ni arat nola onat, baño nekatzen nitze anitz, an gaxotegian ere egoten gine eriaikin edo aurra izenaikin. Bein etorri ze nere gizona bertze Iruritako gizon

batekin eta erran zire sendagillean egontzela eta aztertu biar zekotela gernue eta odola eta nere senarrak lo eginen zuela Iruritako gizonaikin. Nik uste nue gauza tiki bat izain zuela eta ala juantzire guatzera eta ni sukaldera, beti bezala. Bi ilabeten buruan erran zire gizonak: emen egontzen ure il de tisiko galdu bat, ona egin gindue!

### **Eta altzina berriz neure gertaera edo abesti edo ateratzen den guziarekin**

Nere seigarren alaba sortu ze. Neretako izan dire sei iruzki eder nere bizian argitzen zutena nere ilundura guziak. Ebengatik zerbait egin dut. Berekin beartasun guziak estaltzen zire. Gaixoak goizik iaikitzen zire, aurrak zirelaik, nerekin meza entzuntzeatik eta gure zeruko Aitari eskatzeatik egunean egunoro bear gindugun gauza guziak, asiz lemexiko sue egiteko expaletak. Bakarretan lurrean bilduak izaten zire. Eta zenbat aldiz eskatzen ginduen Jaungoikoari goiz bereko baru austea ez ginduelakoz etxean deus ere! Nik erraten nio ikusten banu bezala: Jauna, nere alabak dire, baño zureak nereak baño lenago izen dire, zuk txori tar oiek asetzen duzunak, nola utzi bear tuzu nere aurtxo ebek goseak? Zure baitan daukat paratua nere itxaropen guzia. Entzun zaiguzu! Eta beti entzuten zigu. Batean elizetik ateratzian, deitu eta erraten zire batek: au zurea da egin zirezun eskulan aiña, edo tori au zurea da. Da gauza egundaño ez dire eskolara jua barua autsi gabe eta egundaño ez dire gaixotegi batean egon eritasun zar batekin. Bai ebakidure zenbaitekin. Apendizitis deitzen denaikin iru alaba eta txintxurrikoa bortzei (seietaik) eta orai artio ongi dire denak.

Eta batere alkeik gabe erraten dut bearra aundiak izan ditudela gisa guzietara eta ez dakodela niorei eskatu, baño nik eskatu gabe eman zaidela anitz. Nik eztaikit nork erran zion gure erretore jaunari ni bearretan nitzela, zerengatik nik eskatu gabe, asteoro ekartzen zirate ogi geienendako eta ilabetean *racionamiento* deitzen dena o [sic] zena, eta dena eskas balin baze ere, nik Jaunari eskatzen nio ordain zezala denei eta orai ere eskatzen dut berdín neri egin direten guziendako. Nik ez dakit nor diren, baño berak bai, ongi daki nor diren eta biziak edo ilak diren ere. Bi alaba eta ni egun batean asi gine lanean geuren sendagille eta bear ziren gauza guziakin, eta segido joan nitze erretore jaunarengana erratera bertze familie bat balin bazue norei man, guk, eskerrak emanez batian denetaz, erraten ginduela eremateko beartasunaikin bizi zirenei. Eta erran zire segitzeko sei ilabetez geiago artuz ematen zutena eta la-saiago egoin ginela. Nik erran nio: esker mila guzietaz eta niondik ere ez dut nai niok ere ez dezala gosea ikusi gure obenez, ikesia ginduela bizitzea zurerian [sic, zurrerian? (< zuhurrerian)] eta uste nuela aterako ginela altzina. Nik bazue bortz urte bedere eskulan anitz egiten nuela denda bateko eta aski polliki pasatzen gina. Gero niri mandatuak egiteko lana eman zirate eta al guzia egiten kontent uztiatik... Alaba

bat sartu ze eta ezkondu artio eskola aundi eta onean irakasletako, gero bere senarrak eztako geiagokoik utzi. Bera aski da irabazteko, lan anitz du eta ongi irabazten du. Bertze alaba idazkola batean ezkonduraño, lan aundia egiten zue ixil ixila eta arront maite zute, zuzena eta garbi erematen zituelakoz bere lanak. Otsoai belarria ikusten diona ohea dela lanetan eta guzietan aitu izan dut eta egia dela iduri du. Nere gogoa da orai orri au irakurtzen duen guzia ar dezala indarra bere lanetan.

### Seaskatxo baten kontua

Eta orai altzinegi erran bear dudena errateko, gibeltzagoko gauza erran biau. Nik seigarren alaba sortu baño len, altzinekoa edo berdin bortzgarrena zego arront gaizki eta sendagillearengana ereman nue eta aurra arront gaizki zela eta erran zire ia seaskan idukitzen nuen aurra. Erran nio baietz, eta erran zire eldu zena ez nukela seaska artan sartu, eskuñeko birika arront artua zela eta uste zuela etzela aurra sendatuko eta seaska artan sartu eldu zena. Aurra bazitue ogeite sei ilabete eta ogeite bietaraño ez zue deus izan. Orduan sendagileak erran zue gibela arront azia zela eta ematen zireten gauza guziak eta egin beartziren denak egiten nio, baño aurra gero eta makurrago zeie. Zuenain gañera, artu zue alborengo, erdaraz *pulmonia doblea* eta gero *pleuresia*; oiek guziak zituela erran zue sendagille on batek. Sendagille berak zeuke bere kontura eta eginak ai ze egiten. Azkenean gauza anitz eman zire, alako orduan au, bertze orduain buruan bertze au, eta bi orduen buruan geiago olako gauza eta egin anitz gauza, eta bi egune buruan berriz arengana eta berriz beidetu anitz eta bertze geago egin. Ala, zortzi egun zituelaik, lemexiko aldiz ongi ikusi zuena beidetu eta berriz beidetu, eta erran ziren: zer pasatu da emen? Aur au sendatua da, zer egin diozu? Erran ziguzuna, ez ori etze aski, mirabe bat izen da emen. Gero asi ze gogoratu naiez zerbait eta, azkenean, erran zire: edo zure bularrak sendatu du edo zeruak sendatu du. Au sendatua da eta ori da emen gauzik oberena. Zer egin duzu? Nik erran duden bezala egin diot zuk erran guziak eta, gañera, Jesusen Biotzari eskatu diot bere (aurrain) animarendako on balin baze, senda zaiela. Eta sendatu ze. Sendagilleak erran zire juateko bertze zortzi egunen buruan eta gero berriz ere, baño gizona ain kontent zego... ain pozez betea, denei erraten nola egontzen eta ain ustegabeko gauza zela ure... denek nai zue aintza zezaten Jaungoikoa bere ontasan guziarekin.

Eta bitartean denbora urbiltzen ze eta bertze seaska bat bear nue eldu zenaindeko eta ixil ixilik nindego eta, gutik uste nuenean, etorri zitzaide galdetzera ia aurra noiz etorri bearra zen eta errana neko: otsaillain amarra gabe, eta ogei bat egun ailtzindu ze eta seaska bat zurezkoa pollite ekarri zirete, bere arropa berri berriekin ekarri zirete. Gañera, aurra beztitzeko lau bezti alde, denak berri berriak eta, gañera,

bi aldetaik manai izen zute, bakotxetik seaska gauza guziekin eta eskerrak emanez bakotxai erran niote eman zezatela bertze etzuen batei. Eta erran zirate etzekola niok egin nuena, artu eta saldu eginen zuela. Nik egin zikinkeri ori eta bear dutenak gabe. Len nuen seaskan lo egiten zue eri egon zenak eta, eman ziratenean, sortu berriak eta zer lo onak egiten zituen garbitu, beztitu, bularra eman eta uzten banue zortzi orduz lo, eta ez sortu berria zelaik bakarrik, eta gero zortzi-amar ilabetetan ere berdin ze. Arront lo egilea. Eta eri egontzena ortaik sendatu ze, baño txintxurrian egin ziozte ebakidura bat eta gero ongi:

*Talotxin, talotxin  
Gure aurrak bortz otxin  
Seigerrenak utsin  
Datorla amatxi  
Opil aundi batekin  
Arekin zopak in  
Denak ase gaitezin.*

Aur tiki guziei egiten zaiote bi eskuekin eta laister ikasten dute. Eta bi oñ tikiakin:

*Zangolongo, mangolongo  
Gure aurra nongo  
Ona bada etxeko  
Gaistoa kanpoko  
Turrututut amatxindako.*

Aur tikien iostagarria. Gauza ebetaik ebek biak Mezkitritzen eta Baztanen bietan egiten zaiote aur tikieri.

Esaera bat bada, ez dakit zarra edo berria den:

*Gizona gizon, seaskatik ere.*

eta bertze bat:

*Baztanen gizona edo beia  
Edo Lekarotzko kaputxinoa.*

Mezkitritzen ez da izen ezta Olentzeroik ez eta santa Ageda ere, an iñauteriak bakarrik. Etxez etxe erabiltzen zire mutilak eskatu eta biltzen afaria eta gero egiten zute etxe batean eta ederki afaltzen zute. Orai uste dut Erriko Txokon egiten dutela. Orai edozein besta errikoa izaten bada, uste dut Erriko Txokoan egiten dutela biltzera edo besta. Guk bibiroak bataiatu ginduzelaik, ala egin gindue. Elizan bataioa eta gorputzeko besta Erriko Txokoan. Eta toki berean biltzen dire denak pilota ioku



bat delaik errian, berdin errikoak bakarrik direlaik edo biltzen badire bizpiru errietakoak. Uste dut xoko onek bilazten dituela anitz. Txistulariak ere badire erri ontan eta uste dut gero eta obeki dakitela. Zorionak... Orai dela ogei bat urte gazteria juaten ze Ameriketara eta guti itzultzen zire, orai bertzeik da, geienak etortzen dire Zubirira edo Iruñara eta afaltzera eta lo egitera etxera eta etxeko lanak egin ondoan, bertze sari bat kanpoko lanaingatik eta denak ongi, aspaldik neuke nik ori gogoan eta gizajoez erdietsi dute Jaunari eskerrak. Berek ez badute biribilik, Zubiritik biribil aundi bat juaten da langilen eske. Ederki da ori eta ongi dago. Mezkirizko langilek iraunen dute, sobera langileak dire.

Denbora gutxiz bortz edo sei ezteiak izen dire Mezkiritzkoak. Altzina denei biotz guzitik.

### Oitura geiago

Lenago uste gindue aurrak Lezemotzko ondotik eta Berregutik ekartzen zituela aitek. Orain uste dut denek badakitela dena den bezala. Lenago emaginek erraten zigu aurrei. Gero nik egiten niote eskutitz bat osaba izebei eta bataioko aitetxi amatxi izen bear zutenei. Gero amatxi zena joaten ze erretore jaunarengana erratera baginduela aur bat geiago eta bateatu bear ginduela alako edo olako egunean. Aurra garbitu eta beztitu eta paratzen ze bere seaskan. Ez dut egundano burua lotzen ikusi niorei, ez zeien oztu paratzen zitzaienten gorra bat.

Aur ilak sortzean bateatzen zire beren etxetan erranez: ure botatzerakoan kapaz bazara bateio santua artzeko, nik bateiatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Eta istenpaten buruan edo 5 edo 6 orduen buruan segurki zirelaik ile zela, etxeain altzineko baratzean lurperatu egiten zute. Aur ondokoak, baratze berean, baño bertze toki batean lurperatzen zire.

Aurra ongi eta osasun ederra izanik ere, berdin biramonian bateatzen zire. Niri ala egin zirate, dagonilain iruan ortzegunan sortua eta biramonean 4an lemexiko ortzilerian bataiatua erriko elizan. Emaginek, aitetxi bere lagunarekin eta amatxi berearekin, apeza eta 7 urteko lengusu bat, ez delaik aurraren anaia bat, kandela idukitzeko aurra bateatzeko denboran. Aurra aitetxik idukitzen du.

Denbora anitzez erriko erretorak berak ematen zio izena eta denei ematen zigu bateio eguneko sanduaren izena. Orrengatik damat nik Perpetua. Eta noraraño zen aren manatzea erran bear dut nola gertzatzen zen. Jose Deunaren egunean ereman ziote mutiko bat bataiatzera. Aurrain aita ze Jose eta etzute niok ere nai aurra Jose izen zaien eta aitetxik Antonio zuen izena eta izen ori eman nai ziote eta erretoreak etzeko utzi eta, gañera, erran ziote: ez zuk nai duzuna eta ez nik nai dudena, orai

deituko da Victoriano. Euskalduna ze, baño erdara ere zerengatik erran ziote: “Victoria no”, ez zuk eta ez nik ez dugulakoz egin nai deguna.

Geienean bateiatzen da egunain erdian Mezkiritzko elizan eta eguerdian bazkaria ongi dago. Berera juaten zire bataioan egon direnak, bizi diren aitetxi amatxiek eta aite eta amaren anaia arrebak. Geienean ikusi dut aragi egosiein zopa, txitxirioa, aragi egosia tomatearekin, gero umerri denboran balin baze umerria, bertzelaz ollasakoak, baño aragi egosiarekin, tomateaikin batean, ollo saltsa ederra ateratzen zen umerria baño lenago. Gero sagarrak eta esne eta arrotzekin eginikeko mai azken zerbait. Eta gero aketa edo kafea.

Amai eta aurrei egiten zire oroipenak, geienan aurrarendako eskuz eginikeko jantzi zerbait. Amarendako ollo salda, ardizar, ollo onak, ardo on zenbait quina edo iduri zenbait, bizkotxak ere edo sos pixka zenbait etzaion faltatu deus ere, inderra ar dezan len baño len. Aurrarekin juaten zire elizara, emaginek laguntzen zitue eta erematen zute apezarendako opil aundi bat eta bonbil edo botella bat ardo ona.

Elizara ateratzen zen eguna bedeinkapena artzera. Ordu artio ezin atera zire etxetik kanpora. Ikusi izen dut buru gañan tella bat eta amak erran zire ama etzela garbia elizan sartu artio. Oraño ez dut ikasi zetaz ama bat aur bat mundura ekartzen duelaik zikine dela orrengatik, aur bat ekartzeagatik mundura. Orrengatik arritzen dire Ama Birjiñaren umiltasunak.

Bateioan egiten bada bazkaria erran duden bezala, ez da geiagoko ian bestaiek egiten. Batzurek eginen dute oroimenak eta gisa batera eta bertze batzuk bertze gisa batera. Nere anaia batei bi ardi eman zio bere bateioko aitetxik, orai geienek urrezko katea edo domiña edo medalla urrezkoa ere ematen diote geienean lemexiko jaunartzean. Uste dut etxe geienetan besta pixka bat egiten dela urte betetzeko egunean, uste dut oroimen tiki bat egiten dutela elkarrei.

Seaska berdin izen daike zurezkoa nola burdinezkoa, bakotxak bere naia egiten al du, bada guzietatik. Ain txikiak direlaik obe da seaskan dauden arat onat erabili gabe, loak azten ditu aurrak. Ortzak aterazteko erraten dute lau bortz ilebete dutelaik ogi koxkorra eman eskura, ereman dezan agora fier daien agoa. Solasean ikes dezan, oberena guk egiten badegu eta soñua kantuekin entzuten balin badute, gazteik abesten dute berek eta gero eta geiago eta obeki.

Erramu goizean bedeinkatzen dire, orai meza nagusian, lenago goiz mezan. Orai meza bakarra izaten da, errian den erretora dago iru erritako eta erri bakotzean meza bat. Bedeikatzen diren abarrak, eman ondoan ingurualdi bat elizari, goratzen dira eta gero egiten tuzte gurutze batzuk, eta sagoi, landa, alor, baratze, etxeko atarian denak busti ur bedikatuan eta orrillaren iruan erematen zire alor bakotzera edo sagoi, baratze edo etxeko atean, denetan, *aitegure*ekin batean bertze otoitzen bat, eta sartu alo-

rrean edo alorretan, baratzetan... eta bear diren toki guzietan utzi gurutzeain itzela, zaindu dezan an erain den edo erain bear dena. Geuren oiturekin batio, zaindu dezagun geuren sinismena eta itxaropena, ezagutu dezagun gure anaitasuna geuren artean Jaungoikoaren seme alabak baigera denak. Maita dezagula denei eta egin dezagula zeruko Aitak guregandik nai duena eta anitz urtez galdu gabe geuren oitura ederrak.

Abenduain ogeita lauai deitzen dakogu subilero eguna. Atsalde erdian suain erdian egur aundi bat paratzen da, albaz adar egi bat izan dezala, sua obea da adarra balin bada. Al guzia ireundazi bear da, al baliz urte guzian itzali gabe subileroko sua. Erranai do Jaungoikoaren maitetasuna guretako, eta maitetasun ori ongi estalia geuren biotzetan erretzen balu ere eta etxeko suaikin estaltzen da:

*Etxeko sua etxeko autsaikin estaltzen da,*

esaera xarra da eta zein pollita! Geuren etxean diren ezongiak etxeko autsaiki estali, niok iakin gabe.

Egun eta gau onek uzten tu biotzak maitetasunez beteak eta iraun dezala urte guzian. Nik baditut amabi billoba abeslariak, nere alaben umeak. Zarrenain iru, bi neska eta mutil bat; irugarreanain bertze iru, iruak alabak; laugarrenain lau, bi seme eta bi alaba; eta bi seme gaztenainak edo seigarren alabañak. Ebek dira orai bortz urtetaik amabortzetara. Lau tikiagokoak badire. Iru bortzgarrenaiñak eta nexka bat bortz illabetekoa seigarrenaña. Ebek abeslariak eldu dire, baño oraño tikiegi. Lemexiko amabiak abesten dute ongi. Beren osaba Pedro da erakustuna eta ona, ganera, berendako. Baditu berak iru seme alaba, baño orrengatik ez da aspertu. Nere alaba gaztenain senarra da.

Lau aldetara erakusten daie, eta aurten bi tokietan abestu dute eta bietan izan dute bigarren saria. Ganera, soñekoengatik eman zioite ere bigarrena. Juan zen urtean egin zute ere bigarrena denetan eta sari berak, baño bazire bi aldietan amar bat koro deitzen direnak eta ogeita amarretaik berrogeita amarretara, eta amabietaik amasei urte arte ortan, eta gureak amabi bakarrik; deitzen dire “Lengusuak” eta orai duela iru urte ere irabazi zute bigarrena. Bazire orduan bide iruna urte zutenak eta denak, ordutik onat jua den denbora gutiagokoak, oraño denak ber berak dire eta eldu den urtean izain da bat iru urtekoa eta errax da zarrena ez daien, orduko amasei urte izain ditu eta nexka da... Bearbada alketiko da puska bat, zerengatik gelditzen diren aundienak orduen izain dute amairuna urte, eta adin ontan... zaunzen da aski.

### **Orai bertze oitura zenbait gelditu dena idazteko**

Mezkiritzen ilbeltzain amazpian izaten da meza goixko (nere aurtzaro eta gaztetasunian), oraiko aferarik ez dakit. Erriko gizon geienak juaten zire meza ortara,

aziendaik etzute atratzen kanpora, baño izen dira berantago urteak atratzen zutenak. Gero kandelera egunean bedekitzen zire kandela alde bat eta argizeriak urte geieneko etxe bakotxian. Bedekiatu ondoan elizgira bat eliza inguruan emeten ze kandelera bistuekin eta gero meza abestua. Ori dena kandelera egunean. Biramonean, San Blas meza tenore berean. Erematen gindue ianari geienetaik eta olloendako artoa, biorrendako oloa eta beiendako garagarra. Denak bedekitzen zire eta denek iaten zute bedikatutik.

Eta etorri zen mile bedratziegun eta berrogeita amarra. Urte sandua eta gure etxean, emen Iruñen, aski lanekin nitze. Eguerri guzia eta abenduko Ama Birjina egunetik asita nere senarra sukar anitzekin guatzean zego. Buruko min aundiekin zego eta sendagileak ezin gogoratuz zego zer izen zuken oñaze aiakin. Gau batez, eguerriko egun oietaik batean etzan gabe nindego ni eta ikusi nio sudur ziloetaik purgezio edo zorne anitz ai zela atratzen eta ni inelaki garbitzen eta gero eta geiago botatzen, ala igaro ze gaua. Nik ez nue gogoratzen botatzen zuen ura zer izen zaiken eta etorri ze eguerdi inguruan sendagillea eta erran nio eta berak ikusi zio zer zorne mota zen botatzen zuena eta egin zue al guzia min guzia ekentzera eta iortzera, ikusi zezaten buru artan zer zen eta egin ziote *radiografia*, euskeraz erraten dena ez dakit eta erdaraz idazten dut.

Egin ondoan erran zute xoko tikienak ere zorne ortatik beterik zeuzkiela eta arriek bezain gogorak ere bazituela eta buru guzian garbitu bear zirela eta lan aundia zegola denetik eta sendagileak erran zue nik ezin utzi nuela, an beraikin egon bearko nuela egon. Eta ilabete osoa egoten baze gaxotegian, nik ere deus utzi gabe egon bear nuela, aski guti aski zela arront nasteko, eta an egon nitze, aur guziak etxean bi zarrenek zaindu zuzte. Iru ordu osoak kosta zitzegote garbitasun ori egitea eta bi egunen buruan atra zekote buruko xoko guzietaik, atera zitue trapu luze batzuk. Erran zue ogeite lau metro sartu ziotela eta bertze ainbertze sartu bear ziotela.

Ola jua zire egunak eta jua ginelaik etxera, alaba bigarrena zego oñaze aundiekin eta sendagilleak nai ziola ebakidura egin, nai zion aren idurian egin bear ze ebakidura eta len baño len, apendizitis aundia zue. Gau berean jua nitze alabaikin gaxotegi berera eta goizean goizik egin zitzaio ebakidura aundia, zerengatik bazitue bertze aragi batzuk bear etzirenak. Bortzgarren egunean zego sukar aundi batekin. Galdin sendagilleai eta erran zue gauza arront txarraikin gertatu, oraino amalau urte zitue eta anitz kosta ze berain sendatzea, eta garagarrillan irugarren alaba asi ze oñaze aundiekin eta itzuli naiak ian zituen artu guziak eta ala egon ze egun batzuk eta ikusi zio sendagille berak eta bertze ebakidura bat beartzuela. Eman zitue egun batzuk prestatzeko, sendagilleakin egon zire eta etortzean erran zirate ebakuntza aundi bat bertze aizpari bezala egin bear zitzaola. Nik negarrai man nio eta erran nue: zer urtea guretako, sei ilabete baño gutiegotan iru ebakuntza! Eta nere bortzgarren alabak

erran zire: zer nauzu ama, urte au urte sandua da eta Jesusek nai du urte ontan eta eskatzen digu gure ordaintza. Ni arrituik gelditu nitze aurraren (sei urtetan) atraldia-kin, ixil ixila gelditu nitze, ezin erran deus ere. Ola uzten dute aurrek ustei gutietan.

Urbilen urtean, orrillain ogeite zazpian izen nue nere alaba gaztena. Baño zer bortz ilabete igaro nituen! Lau ilabetetan izen nue eroraldi bat elurrean eta gutitaik ez nue orduan berean galdu aurra; odoles ustua eta gero piske bat itzulik denen iduriko, baño berriz itzulik minak, uzte zire deustako ez. Ala egon nitze eskas nuen denbora guzia eta etorri zelaik denbora sortzekoa, egun guzian odoluste bat izantze eta, azkenean, aur ondokoak aurra baño len atera zire eta aurra gibeletik, baño bizia sortu ze eta bataiatu zuten beala eta niok etzue uste ireunen zuela deus ere, baño elizan bateatu zute, baño ura emana zue eta gañerakoak egin ziote. Eta atsaldean konfirmatu zue gure erretore jaunak eta bi egunetan il ze emen, sekula bizitzeko zeruan. Ni berrogeite sei urtetara nindaie; nuen eta duden alaba gaztena baño bortz urte eta lau ilabete eta gexaigo ze gaztiagokoa. Denek ereman gindue geuren zigorkada ederra ura juatean. Baño Irene zeruan da. Zerbai eskatu nue etzeie il bataiatu artio, ongi juan ze eta andik lagundu dezagula denei. Luze egon nitze indarri artu gabe, baño gutira gutira asi nitze itzultzen eta txuti erori... ala urte beteak iruetan ogei eta ameka...

Aur ilaz denek artu zute biotz min aundia, baño geienena nik uste dut bigarren alabak artu zuela. Beti ori iduritu zitzaide eta andik gutiera erran ziren laister utzi bearke zigula, zeren Jaungoikoak deitzen ziola eta monja juanai zuela. Biotza autsia bezala neuke, baño erran nio: bai, arena zara nere baño lenago eta uste badezu ori dela zure bidea, artu eta segi zazu. Badakizu zure bearra banuela, baño berak daki zer nai duen eta zer dagon zure biotzean. Bera izan daiela zure aita, zure indarra, zure dena, *egin bedi zure naia zeruan bezala lurrean ere*. Gero erra zire abenduain zortziak sartu nai zuela. Egun ortan betetzen zitue amazapi urte terdi. Orai Bizkaiako Artean bizi da, baño Amorebietan irakasle dago, ori de bere biotzak maite duena. Ez daie nior gelditu ikasi gabe bear duen guzia. Lana maite du, aurrak maite ditu anitz... irauñ dezala bere maitetasun guziekin eta eman dezola bere zeruko Aitari Berak nai duena onengandik...

Mila bederatziegun eta berrogeite amairuan, urriain lemexiko goiz batez meza entzuten asi bear nuelaik, asi nitze mezain eskintzen batendako eta bertzeaindako eta batre oroitu gabe nortaz eskeitzen nuen erran nue: eta izeba Petrarendako. Laister quartu nitze eta, gogoratu ondoan, eginue neure baitan galdera batzuk: zer pasatzen zaio gaur nere izebari? Badu zerbait eta egun guzia igaro nue eskatzen, otoitz egiten beregatik. Nik banue egia zelako seguru bat aundia eta orrengatik Jesusen Biotzari erran nio zegon biarran izen zaiela bere aita beti, baño egun ortan geiago. Ola idatzi nue zer egunez gertatu zen gauza ori. Argentinan bizi ze eta ez nue sekula ikusi, baño

otoitz egiteko etzue deus ere inport. Eta amar bat egunen buruan eskutitza artu zue nere aizpak, urriain lemexiko egunean il ze.

Neure beartasun guziekin Zugarramurditik, Irurita eta Mezkiritztik astean bi aldiz bedere baze gure etxean. Mezkiritzkoa balin baze, banabar gorria, berek eka-  
rriko txinger puska batekin egiten niote. Geurok oraño bagine zortzi, nik ezin ian  
nue ianari ori, baño patata bat edo bertze artutzen nue eltzetik eta, egosia baze, ure  
neretako, baño beti eltze beraikin egiten nue, nere ustez eltze aundia ze, baño  
Mezkiritzekoendako arront tarra, ortarako orai erraten dute arrituak gelditzen zirela  
ain gutikin zer egin bear nuen eta ni arront kontent betetzeaz eltze ura.

Nik dakidena da beti erraten zirela neure aizpak neuronek emateko, obeki  
banatzen nuela. Nik egiten nue eta denei betetzen niote beren ontziak eta berriz ba-  
natu naiak gelditzen nitze artseko afaria. Nik ez dakit, uste dute egunoro mirabe bat  
egiten zela gure etxean eta nik, berriz, ez dut erran direten artio, ez naiz quartu eta  
egia balin bada, ni aski motela izen naiz, eskerrak ematen nitue, baño ez gisa ortan  
bear nuen bezala. Ori egun batean eta bertzean eta denetan gertatu da nere etxean ni  
quartu gabe. Bein batez, San Fermin egunetan ze. Norbait egon ze bazkaltzen eta  
bazkalduik, bilduik denak neuzkie eta iruetaik lauetara etorri zire lau lagun gure  
etxera eta goseak, angoendako arroza da eta egin nue al bezain ongi, ez nue nai  
nuena goxogo egiteko eta xardin zar bat eman nio eta oraño erreten direte zerekin  
egin nuen, ez zutela egundaño ain paella goxoik ian. Nola siñetsi gauza oiek? Eta  
iduri dute arront egiakin dabil zirela.

Betiere, olako gauzaz betea dago nere bizia. Bein batez, goizean mezara nin-  
deienan, atezai egoten zen andreiak asarre edo erdi asarre erran zire: mezara, meza-  
ra, egunero mezara, zetako ez duzu eskatzen neretako seme bat? Eta nik erran nio:  
eta zuk nai dezu seme bat? Ez dut nai izen bear? Zer? Ez duzu erraten amazpi urte  
baduzula ezkonduik? Ez nue uste nik nai zinduela eta ez dut, baño nai badezu, eska-  
tuko dut eta eskatu nue biotz guzitik, nik eskatzen duden bezala. Nai ez duenai  
ematen duela anitz aur, ia nai duenaik nola ez dion ematen. Eta guti aski zue, amar  
ilabete in buruan bazue bere mutiko ederra beretzat. Berrogeita iru edo lau urte zitue.

Nere aiskide batek bazue zazpi urte ezkonduik eta aurre ezin aurkituz zeude  
eta berdin erran zire eskatzeko nik ere berekin, ia erdiesten zuen. Nik egiten nue  
neure otoitza egunoro eta etze ageri, baño nik izen nue amets bat erran zina ez dakit  
nork, anitz min artu edo izain zuela izaten bazue. Orduan erran nio: nik ez dut es-  
katiko geago, amets au izan dut, eta nik uste dut obe dela uztea alde batera, baño  
nai zute aurre eta erran zire: zuk eska zazu. Ni juain naiz sendagilleangana ia zetaz  
ote zen eta juan ze, erran bezala. Eta ongi ikusi onduan erran zio sendagileak: ezin  
dezakezu aurrik izan, ez degu ekentzen barnean duzun kalitz aundi batek ez du  
uzten pasatzera deus ere eta ebakuntza egin bear da ume bat izateko eta egin ziote

min anitzekin eta, ongi sendatu ondoan, izen zute alaba bat arront pollita, eta ge-roago izen zute seme bat.

Bertze bein, mile bederatziegun eta berrogeita bortzean, bertze adiskide batek bere lemexiko aldiz gure Jauna artu zuelaik, erran zio adiskide orrek: eskatu duzu neretzat aur bat izan dezadan? Eta nere alaba (irugarrena) gelditu ze ezin zer erran eta beidetu zire niri, eta erran nio andreari: zer daki aurrak zer nai dezun. Nik ere ez nue ori eskatiko iakin gabe nai dezun edo ez. Orduen erran zire: bai eska zazu anitz, badu ia zazpi urteak beteak eta ez da ageri ainbertze nai degun semea. Orduan eska-tzen nue al guzia eta urte bat gabe izen zue seme bat eta ergelduak zeude aita eta ama. Baño ez dakit bazuen ogei urteik mutikoak, aita lenik eta denbora guti geiagoz ama, il zire biak, eta semea amar bat urte berantago. Au ezkondua ze ia eta uste dut andrea aur zenbaitekin.

Orai duela zortzi amar bat urte, Jesusen Biotzaren Lagundiko monja edo sero-retan baze bat nik anitz maite nuena eta berak ere bai niri. Bein batean, galde egin nio ia gurasoak nola ziren eta bere aizpak, eta erran zire: bi aizpa ezkonduak baditut eta batek etzake izan. Sendagilleak errana du bere senarrak baduela debeku zerbait eta ezin duela. Baño ezkondu ze bigarrena eta bortz urtetara doaie eta deus ageri, arront naigabetuak dire eta nik erran nio: eskatuko zie bai, baño ez aski. Eta erran nio: ba etorriko da. Orduan erran zire: eska zazu zuk ere bai. Bai, bai, eskatuko dut orai beretik asite. Eskatu nue al guzie, baño ez dakit zenbat eskazale ginen denak, bakarrik daki nexka eder bat izen zuela ia bedratzi ilabetetan. Orrengatik erraten dut guti aski zue. Olako gauza anitz gogora eldu zaizkide, baño ortaik uste dut aski dela.

Orai bertze gisako gauza berak. Nere senarrain arreba zarrenaiki ere, neure izeba Petraikin bezalatsu pasatu zitzaide. Azaroain ogeite lauean izen ze. Ba bere seme bat, orai ila, etorri ze bere andre eta seme alabaikin guri ezagutzera (Argentinan bizi zire denak). Nik erran nio: zer egunez il ze? Eta erran zire ogeite iruan eta nik erran nio niri ogeite lauean gertatu zitzaide eta galdetu zire: zer gertatu zitzeizu? Eta erran nio nik: goizeko lemexiko meza entzuten asi nitzelaik, gogoratu zitzaide zure amaindako entzun bear nuela eta ala egin nue. Baño otzikere batek artu zire eta egun guzia igaro nue zure amaindako eskatzen. Eta galde egin zire ia ze tenorez zen eta atera zue kontue tenore berean iltzala. Gauza ebek denak egiak dire.

Eta errain dizut bertze gauza bat, ez da berdina, baño nere idurikoz erran daike. Nik banue lengusine bat bertze anitzen artean. Au bizi ze Frantzian, bearbada amar bat urte artan. Toki beren bizi zire bere bi aizpa. Zaarrena neskazar eta bertzea ezkon-dua. Onek bazue seme bat. Ebek bere anai batekin gelditu zire gaztexko aitaik gabe, eta amak lan egiten zue bere lau umei iatera emateko eta azteko al zuen bezala. Alaba zarrena amalau edo amabortz urtetan juan ze Baionara zerbitzura, langilea ze eta toki guzietan maite zute. Gero bigerrenak egin zue gauza bera, baño au ezkondu ze bere

adinean eta aizpe zarrenain etxean bizi zire. Bitartean, alde ontan anaia ai ze bere lanetan eta langile ona ze. Baña ama il ze eta irugarren aizpa juan ze bere aizpak zeudengana eta langilea ze, baño bitartean etorri zire alemanak eta lotsatuek egon zire adin ortato neskak, eta nolana iltzen omen zuten, nolana, betiere nere lengusine ori aiskidetu edo beldurrak aleman batekin egoten ze eta galdu zutelaik alemenek nere lengusina iduki zute giltzapean eta gertatu ze aur bat ederra sortu ze, eta aitaikin ezkondu gogo zue, baño ainbertze arat onatekin biotza eritu zitzaio, eta nik ez nue iakin deus ere. Il ondoan erran zirete, baño denbora ortan Ama Birjiña Karmelekoain eguna 12an ze eta egun ortan goiz goizetik ilunaraño beti otoitz egiten, egun ortan ilzen ai ziren denendago edo egun artan il bear zutenendako. Eta ainbertze aldiz erran nue... azkenian gelditu nitze ia nekatua erran nio Ama zerukoai il balin baze edo iltzen balin baze geure familiako norbait, ar zezala bere kontura eta egin zezala ama batek in dezakena tenore oietan. Eta gertatu ze atsaldeko bi oronetan il zela biotzeko min batekin deus egin gabe, bakarretan egon gabe eri iltzen dire eta gaizki daudelaik irauten dute. Au ilte lemexikoan batre ezagutu gabe il beartzuela. Niri iduritzen zaide nere otoitz guziak arendako egin nituela. Eta iru lengusina eta lengusuak, lauak berdin il zire, burura edo biotzera, baño uste ez zutenean eta niorek lagundu gabe deus ere. Aldi bakotxan naigabe aundia ereman dut eta mezak entzun ditut bere animen alde, baño gutxixko zaide dena. Jaunak berekin izan dezela.

Bizkitartio nere alabak neskatx egiten ai zire eta arront trasteak zire. Etze Iruñen bat ez maingu, motel, okerrik ez zutena oiek bezala egiten erabili; dantzatu, abestu, mintzatu eta elizan egiten zuzten itzaldiak egiten zutenak bezal bezala antzeraten zuzte; nik ez nue nai alakoik egin zezaten, baño debekatu eta geiago egiten zute eta beren ondoko guziei irri inazten zuten. Goizoro entzuten zute meza eta etxeko iostetak ere ori ze, meza ematen eta itzaldi ederrak egiten denendako. Eskolan igande atsaldetan iostirudi ederrak egiten zuzte. Gaztenak bein berai erran bear ziotena alkeituik gelditu eta bertzean mintzoa artuz erran zue dena eta ez batena bakarrik, denena eta berea ere bai, denen mintzoa eginenez. Eta monjak gelditu zire arrituik ze gisakoa zen. Abestu egiten zute aitu guziak<sup>28</sup>, eta orduan etze teleik eta abesten zutena beti eskolan eta elizako abestiak eta, ala ere, ze templea zuten! Amabi urtetan edo ola asi zire San Antonion elizan, aita kaputxinoek<sup>29</sup> erakusten ziote abesti pollitek eta ebek zer nai zute? Gero andik ez dakit nola, baño *orfeón* delakoan sartu zire lau, eta gaztenak bertzek bezain ongi abesten zue eta du, baño berak artu zue gogoan ama bakarrik etzuela utzi bear eta gizona elizara juaten zeño, ni ere juaten nitze atsaldeko elizkizunetara eta nerekin juaten ze. Nik erraten nio: zazi bertzeekin, baño etzue nai eta orai guti du erran zirela ez uzteagatik bakarrik egoten zela nerekin.

28 1. koaderno txikian gehitzen du: “Neure umeak arront abeslariak izan dira eta aldarte onekuak”.

29 1. koaderno txikian zehazten du: “Aita Isidoro Donostikoain zenbat ikasi eta abesten zute!”.



Iruñako *orfeón* ortan juaten zire anitz tokietara eta ikesten zute gauza anitz. Urte batean jua zire Portugala eta ararako gira ongi etorri zizaiote ezkontzeko egun batzuk lenago, eta altzindu zire Madridera eta andik altzina jua zire bertze abeslari-ekin. Biek, senar emazteak, abeslariak zire eta ezkondu ondoan ere abesten zute; amar ilabetetan izan zute lemexiko aurra, alaba bat.

Gero irugarrena eta laugarrena ere beren gizongaiekin *orfeón*era juaten zire. Nik bertze lanik ez nuken bezala, usteik gutienez juaten nitze ikustera zer ai ziren edo an ziren. Egundean ez dakotet gezurrean arrepatu, beti erraten zuten bezala egoten zire. Ori zaarrenaikin berdin. Baño zarrena ezkondu gabe nere senarra arront gaizki egon ze. Orduko erran zire sendagailleak zuen eritasuna arront altzinatuz zeila eta nere baitan zegola bizi zaien edo ez. Ordutik onak bakarrik igaro ditu eta oraño bere gaizkitasun aundietan, zenbait aldiz oraño umore ona izaten du. Laugarren alaban senargaia Sidi Ifnira jua ze zerbitzua itera eta denbora egin zue-  
laik etorri ze eta, irabazi zutelaik zerbaite, ezkondu zire bi aizpak beren gizongaiekin eta meza berean, baño kanpora jua zirelaik, bakotxa bere aldera jua zire eta gero ondarrean uste dut bildu zirela batre iakin gabe elkarrez.

Eta gero, bakotxa bere kaiolan eta ama bakarrik. Zer indarrak bear ditu ama batek azita eta uzteko bakotxa alde batera. Baño dituzten senarrekin uz daizke, buruaikin egin tuzte beren aukerak eta orai badute bakotxa bere gizona eta onak denak. Aintza Jaunari. Orai bi ezkondu ebek badute irugarrenak iru alaba eta abilak iruek, baño badute bertze bat zeruan (alaba ere). Laugarrenak bi alaba eta bi seme. Amaxindako denak ederrak. Bosgarrenak egin du erdaraz Filosofia eta Letrak eta ezkondu da Teologia egin zuen batekin, baño ez da apez egin egundean, baño langile ona da bere lanan. Badituzte iru aur, nexka zarrenak amazapi ilabete bete zitue-  
laik sortu zire bi mutiko, orai badazi ogeite iru ilabetetara, ederrak dire bai alkega-  
bekoak. Denak ongi dire.

Eta orai seigerren alabain kontuak. Ori bizi da gurekin. Etxe ontan azi dire sei alabak eta ez uzteagatik guri bakarrik gelditu ze gurekin. Gizona ona da eta langilea. Badute bi seme eta alaba tiki bat bortz ilabetekoa. Denak idazkola lanak tuzte, bide delinenteñak eta bertzek ere ain onak edo obeak, baño denak langileak.

Badu urte batzuk igandero juaten direla denak egun guziko eta ieten dire mendietara osasunez betetzera beren gorputzak. Udan mendira otkara balin badago eta ugaldara bero balin badago. Ugaldara denei altzintzera juaten dire bide edo iru, osaba batekin iru illoba eta beti artzen dute putzu bera eta garbi garbie idukitzen dute. Igande zenbatez ez badire altzintzen, dena zikin zikine egoten da biramonean. Eta bildu eta erretzeko lana izaten dute nai balin badute garbi iduki. Gureak angoak bezalakoak dire, dena garbi iduki lezakete, baño kanpokoei berdin zaiote zikin dau-  
den bazterrak eta arrazonaikin angotarrek ez degu ikusi nai alakoik.

## Altzina Mezkirizko kontuekin

Gero eskuñetaik errekin gañeko aldean bada baratze bat eta berain kontra etxe bat, Artegia. Lenago bizi ze gendea, baño orai gañan belartegia eta azpian ardiak. Etxe onen gañaldean dago eliza. Eliza onei eman zioten puska bat nere aitain aurtzaroan. Bi urten buruko izain zitue egun urte sortuik. Ortako obeki erran daike puska ori eman ziotela orai dela laueta ogeita amar urte. Elizak ez du arripikatu anitz, balin badue batre. Baño aldareai bi aldetaik baditu bi iduri. Erraten dute ama-seigarreneko gizaldikoak direla. Gain gañan dago Jesus gurutzean eta ezker eskuñan daude Franzisko Jabier Deuna eta bertze aldekoa nik beti uste izen dut Loiolako Inazio zela, eta erraten dute Nonato edo sortu gabeko Ramon dela. Gero erdi erdian dago Kristobal Deuna eta bi aldetaik Sebastian Deuna eta San Anton, baño au eken-tzen dute eta Ama Birjiña paratzen dute. Gero Isidro nekazaria eta Paduako Antonio Deunak. Badire bertze aldare geiago bere sanduekin, baño ez du balio geiago erratea. Aldare ondolik luzera paretaraño alki berriak dire, denetik eta aski berexiak egoten dire gizonetaik andreak. Udan juaten garen guziengatik nasiago. Abesten dute denek, baño badire neskaxak bakarrik egiten dutenak ere. Denbora puska batez euskeraz egiten ze dena, baño badire nere adineko batzuk ez dutela aski maite euskara eta erdaraz obeki zaiote. Ni berriz euskerera aise juaten naiz; ortan ezagutzen da etxetako oiturak. Orai gazteriak maite du. Elizain ondo ondoan dago Apeztegia. Niri iduritzen zaide etxe pollita dela, baño lemexiko Jaun artutik onat ez dakit izen naizen goitien beti beitzen sukalde eta ondokoetaik, ez dakit egon naizen geago etxe ortan.

Etxe onen altzinean dago eskola. Ori mile bederatziegun eta ogeite bian egin zute, eta berera juaten zire egin ondoko aurrak. Lenago toki txarragokoa gindue, itexuriain azpian egoten gine denak. Neure aurtasunean bakarrak bildu ditut, ura anitz sartzen ze eskola zarrean eta guk ez gindue berrik izen. Eta egin zute ikustian bearra aundia zegola, eta Elizatarian iostatzen zire aurrak denbora txarra zelaik eta ona zelaik larrain zen batetan. Ola gero eta obeki zire aurrak. Jaunari eskerrak.

Elizain bertze aldetik bada etxe aundi bat, ortan sortu ze nere amain ama, ez dakit ongi zertaz. Aitu izan dut bere aita eta amaña zela eta saldu zutela; ori entzun dut kanpotik, baño nere amatxi sortu ondoan. Etxe ontakoak zirela bi apezak. Nik dakit bi apez oiek nere amatxin aitan anaiak zirela. Eta dakit denak amatxingandik. Baño ez da ortan gelditzen, nere aitan ama ere etxe ortako alaba ze. Orduan amatxi baten aite eta amak saldu zute, eta bertze amatxin aite eta amak erosi zute eta erran daike zein tikia den lurra bere gauza guziekin.

Nere aitain ama ze zarrena, baño zerbait egin zue bere gurasoek nai ez zutena. Bearbada ezkondu berek nai etzuten naikin. Bota zute etxetik, baño bere ama berai-kin juan ze.

Baditu etxe orrek kontu anitz, baño iduki bear dut gogoan nere bi amatxiek etxe ortako alabak zirela. Bertze etxe bat orrengana urbil badago eta ortan bizitu zire nere aitain aita eta ama ezkonduetik, il artio. Or sortu ze nere aita eta ameka aurridera geiago. Lenago etxe ori deitzen ze Etxetxipia. Gero deitzen ze Modestoña. Nere aitak erraten zue bere amatxi or bizi zela bere alabaikin eta orgatik eman ziola bere etxea alabari, dudarik gabe, alaba ezkondu orduko. Bera alarguna ze eta orrengatik juan ze bere alabaikin. Bada bertze etxe bat orrei lotua eta ze Bartolok eresia, baño bertze senide edo familia bizi ze or. Gizonak Franzisko zue izena eta Franziskoin etxea erraten zute, normaiek...

Eta orren ondura bada bertze etxe aundi bat, izena du Kondearena. Orai etxe guziak ongi apainduak dire barnetik eta kanpotik. Lengoak Amerikara juaten zire, baño orai, nere idurikoz, pusken obeki daude nekazariak. Badituzte lanabes mota guzietaik eta beren nekazaritzko lanak egiten duten batean, Zubiriko Magnesitas deitzen den lanera juiten dire eta ola ederki irazten dute beren sari ona. Erran dut nekazariak obeki daudela, baño erri ontan geinak nekazariak dire. Lur gutiango batzuek, bertze batzuk geiago, baño orrengatik lur anitz dutenak ez dire Zubirira juaten, lan sobera izaten dute arara juateko. Etxe ontan baduteazienda ederra ere.

Bertze tiki bat bada onduran. Lenago etxe ortan egiten zute txokolatea eta saltzen zute gauza onak iatekoak, orai arditokie eta belartokitako dago. Denetaik bear da...

Gero lau kantoneko etxe argi bat bada, deitzen da Estankoa, baño ez da deus saltzen. Or lenago prestatzen zute ianariak eta badakit batena baño geiago orrara gogotik juaten zirela gosaltzera, bazkaltzera edo afaltzera, baño ori gabe igaro badezakete, obe. Bakotxak bere etxean lan aski izeten du. Onak ere baratze eta landa onduran du. Orrengana urbil, baratze bat ondoan bada bertze etxe tiki bat, Beñardoña. Orrara uda igarotzera Donostiko familie bat etortzen da eta jendeak maite ditu anitz. Bai berek ere ango jendeak. Bertze etxe aundi bat dago orren ondo onduran. Etxeberria deitzen dute eta berean dago urrutizkiña. Eben gibel aldiari dago etxe eder bat deitzen dena Erriko Xoko, len Erriko Ostatue, baño gutiek maite zute ango lanak. Erriko Xokoko erran dut naski erran bearrak. Onen ondoan bertze etxe aundi bat Monyolosena, anitz lenago deitzen ze Monjelos. Erran bezala, etxe aundia eta aziendaduna da eta lan aundiako etxea da. Etxe ontara ien eta ateratzen bazara larrañetik, gibelean badu etxe bat, Buruzuriña ze. Juan den urtean konpontzen ai zire, nik ez dakit saldu egin duten edo berendako ai ziren konpontzen, etxe tikia da. Andik goitixago, eskuin, bada bertze etxe bat tikia ere eta izena du Migelitoña. Migelito ile da eta Argentina aldean sortua ze. Gizon bat ona eta eiztaria ze. Orren ondoan, eskuñago, etxe tiki polli bat egin dute. Mezkitzko seme batena da, udako egin dute. Zaragozan bizi dire. Gero, bidera atra eta gorago ien

eta etxe ederra eta aundia bada, Juanikot erraten ziote bere nagusiari eta orrengatik deitzen ze Juanikotena. Mezkiritzko arrazatik, baño saldu zute orai duela lau edo borts urte, Iruñeko senide aundi batek erosi zue eta ederki egina, ongi eldu zaiote denei, borts sei ilabetetan.

Mezkiritzko Mañuelaña eta Bartoloñain artean bada landa bat Mañuelañara urbil. Gero dago Pilotaioku deitzen dena, orai iduritzen zaide Lekuona duela izena. Ez du anitz urte egin zela. Arront arri ona du eta arripiketue anitz. Lenago ere iostazten zire ioku ontan. Errege bidean bada benta bat, deitzen dute Kixkilen Benta, Mezkiritzkoa da. Bertze senide bat bizi de aspaldian etxe ortan eta gizona nere lengusua da. Lenago Bartoloin etxea deitzen ze Martin Antoniona. Etxe ortan sortu ze nere ama. Bartolok erosi baño urte alde bat lenago. Nere ama, bere aurridetan seigarrena, eta bizi ziren etxia tikiegi zen eta orgatik urte multxu bat bizitu zire etxe ortan. Ori ere amatxingandik dakit.

Etxe onek arront etxamin aundi bat zue. Sukalde guzia artzen zue. Sukaldea erdian zego eta inguru guzia zurezko alkiz betea zego. Au bezalakoak bazire borts edo sei etxetan. Niri iduritzen zaide pusken ke geiago izaten zela etxamin ebetan. Nik ori daukat gogoan.

Bartolo, Uretako semea ze, Juana Migelen anaia. Etxe onen altzinean, bidea erdian utziz, zego lenago arropa zikinak garbitzeko putzua. Putzu aldera beide zego iturria bere askekin, orai Bentarrañeko larrañan dagona. Ur auserki zego denendako, etaazienda guziek erematen zute ur edatera, bakotzak bereak; eta uste dut garbitzeko putzuan ere kokatzen al zirala ogei bat inguruan, baño ez da errax ainbertzek batean gogora zezaten: juan biaut arropa garbitzera. Nik uste dut beti bazela tokia juaten zelaik nornai. Baño orai obeki dago dena. Ur auserki bakotzak bere etxian nai duen tenorean, ur beroa bear balin badu otzaingetik ere, orai pusken obeki. Eta belaunek? Oiek oiek irabazi dute... bi meza nausi baño pusken geiagoko denborak egoten gine an lana egiten. Zalla ze lan ori. Orai bertzeik da. Obekixago egiten dire orai lan mota guziek. Orai uste dut ez dela etxe bat ere arropa xuritzeko lankaiak gabe. Eta biribilik gabe ere ez, eta anitzetan geiago. Badire zenbait ez direla Zubirin gelditzen lanean. Iruña inguruan dute beren lana, ez bada Iruñan berean, eta oiek bakotzak bear du bere biribila, eta badute beren lanaikin egina, gisa ortan etortzen dire egunoro, eta beren gurasoekin pasatzen dute gaua.

Ez duzu sekula entzun ze lanabes edo erramientekin egiten diran ezpelezko kuxetak? Nik errain dizut: eskuzerra, lantzeko aizkora, marraza, zellua eta marruketa. Eta Mezkiritzko nekazariañak: koldea eta area, ebek biok, bat aldian, erabiltzen dute beiekin, baño gizonen laiak, altzurak, pikua arriak ateratzeko, tallue, igiteia, burdin sardea, bertze zurezko sardeak eta arraxpak. Eta mendikoak: zerra luzea, aizkorak, burdin ziriak eta mallu burdinak.

Berriz itzuli bear da beiti. Monjolesen artean bada bertze etxe bat eta deitzen ze Juan Antonioña. Aspaldik il ze, ez dakit norena den. Beitixago da etxe bat, Lllallarena deitzen da eta erosi zue orai duela amar urte nere lengusu batek.

Txerri azteko, biribil zenbait idukitzeko eta lur lan erramienten idukitzeko, etxe batean xoko anitz zaten da eta zein ongi eldu zaion! Onen ondoan bada bertze etxe bat tikia, baño aski polita, arrizko eskalera batetik iaten da eta kanpotik iduri ez duena da barnetik, pusken obea iduri du barnetik, kanpotik baño. Onen altzineko aldean etxe eder aundi bat da, Marterena du izena. Etxe ontan esne anitz eta ona izaten dute, bei alde bat ederra dute. Gende ona da eta etxe ontako seme bat pilotari ona da. Altzinago da Zizilieña. Etxe ona da eta arri ona du, aundia da. Onen leio batetik erori ze ogeita zazpi ilabeteko mutiko bat eta areain ortz bat sartu zitzaigo sabeletik eta atsalde beren il ze. Aurra etze oraikoen, ze lenago etxe ortan zeudenena. Etxe ontan ere baditu zenbaki zenbait. Gero beitiago dago Bentarraña. Au etxe aundienetaik bat da, badute lur anitz eta azienda ederra, esne anitz saltzen dute. Nere idurikoz arront gende ona da, baño altzinekoak ere onegiak zire. Etxe onen onduan badire ardi bordak, bizitzeko tokiak ere bai, arront aundia da. Ebena da larrain aundi bat eta berean dago iturri aundi bat, bere aska ederrarekin, eta iturri gañean erraten du erdaraz: “Dn. Cristobal Errea a sus paisanos”. Au ze don Manuelen (apeza eta irakaslea batean) amain anaia, ze iturri au ekarri duena menditik errira eta ur au ona eta anitz ekartzen du. Gero altzineko etxea da Patxikorena. Ori saldu zue bere nagusiak eta Amerikatik iorri zue erriko mutil batek bere aita eta amari dirua erosteko. Eta lur anitzekin etxea erosi zuten semearendako, baño bakarrik bizi da etxe ortan. Beitiago da bertze etxe bat Buruzuriña deitzen da orai, bano lenago deitzen ze Xotoiña. Orai igandetan eta udan edekik dago, baño Iruñan bizi dira eta... eraitera lur sagarrak eraiten dituzte. Beitixago dago Bartoloña, len salerosten zute, baño orai utzi dute alde bat, orai juaten garenean erematen al dugu gauza guzietatik, bertzelaz aski gaizki egoin gara akitu dela gauza bat, akitu dela bertzea, eta bertze errira badela bide puska bat eta etzegola ongi eldu niorei araraño juatea... Nik ez nue erosten deus ere kanpotik eldu zenai, beti erosten nue errian, orai ez dakit nola erabiliko garen bortz edo sei illebeta egotera juaten bagara. Etxe ontan sortu ze nere ama, Bartoloin etxeain gibeletik lotua zego Juanistoanena, ez dakit billobena den edo Bartolok erosi zuen.

Orra, erran ditut Mezkiritzko etxe guzien izenak. Uste dut denak erran dituztela eta gelditzen bada zerbait erran gabe, nere adinean aise dela uztea zerbait, uste dut aise buruz artuko duziela nere buruain meetasuna. Orgatik orai asiko naiz, Uretakoekin, zeren elizez eta obitegiz Mezkiritzkoak egiten dire, eta bier asiko naiz bertze orrialde batean erratera aietaz erraten al duden guzie. Nik ez dakit anitz, baño egin bear da al guzia. Bi lerro gelditzen dira eta bear dut erran ez dakidela zenbat bizi diren Mezkiritzen eta ez ere Uretan, baño nai nuke iakin bietakoa, baño ezin juan naiz iakitera.

## Mezkirizko bordak

Orai asiko naiz mendietako borda edo bordaldekin. Gutxi dire, baño direnak errain ditut. Nere etxera urbilena da Paxkualeneko borda. Ardi borda da eta uste dut anitz iretze eta belar sartzen dutela nere idurikoz, aundiskoa ematen du edo iduri du dela. Iduri du berokian dagola, lur onak ditu inguruan.

Goitiago eta ezkerago dago Ademeneko borda, badu etxola ere, oteuten sukaldetako edo berek lo egiteko, ongi eldu zagotelai. Niri iduritzen zaide lur anitz badutela inguru artan. Toki ederrean dago, baño zenbait aldiz otza ere eginen du. Mendira urbil dago, eta borda atarian egurra bildu eta puskatzen dute eta uzten dute idortzera eta gero Land Rover edo alako zerbaietetan iausten dute etxera. Nere etxetik bakarretan ieten dire toki ortara aurrek iostatzera eta aize onak artzera. Bai eta ere abes-tera, eta ikastera obeki ere bai... guzietako ona. Nere billoba zarrenak ameka urtetan margolaria izan nai zue eta bere lemexiko margotzea borda ori egin zue eta Mendixuri agertzen da ondo edo zolan. Izen zue sari bat. Altzinago, Auritzberriko egira urbil, xoko eder batean dago Antoneko bordaldea erraten edo deitzen zaio. Alor aundiak badire, baño bordarik ez dut ikusi. Bearbada, ez naiz aski urbildu, eta orrengatik da.

Gero bertze bi borda badire arront urbil elkarrengana, baño Antonekotik aski urrun. Txakurrein iturritik aratago, oraño bada puska bat. Borda oietaik batei deitzen zaio Zizilieneko borda, eta bertzea Bentarrañeko borda. Ebek toki ederrean daude. Nere idurikoz, biek baute etxola ondoan. Batek seurik badu non egin sue eta non egin lo. Arront urbil Irazabaletako mendira. Bago bakoitza egiten da mendi ontan... anitz loditzen dire, Ligeztako asketara ere urbil da eta du ain ur ona! Toki oieta, Ligeztara geiago, juaten dire mutilak igande batean kostilladak iatera. Nere denboretan ez dut aitu, baño orai egiten omen dute eta uste dut jende anitzek egiten dutela. Ondar bordaldea Sakarteko eta Larregaingo arte ortan dago, Apesuiena da. Nere idurikoz, aritz toki oberena ure da. Lur sagarrak ere ure dute toki bat ona egiteko, baño basurdek ere badakite lur sagarrendako toki ona dela, arara juaten dire seurik lur azpitik ateratzera bere letagin eta muturrekin. Beren goseak edo ez dakit zerek, baño ondatzen dakote bazter guziak. Lurren nagusiak sua biztua uzten dute gabasko, eta berdin da oiendako. Gabasko gelditzen badire eiztariek ere, ez du balio deus ere, orduan ez dire agertzen. Arat onat aundiak arrepatziagatik iten duzte ango eiztariek, baño bide edo iru artuik ere, Jinkoak bakarrik daki zenbat diren eta non dabilten. Ederki xorazten dituzte gizonak. Nere idurikoz, gaizkienak ateratzen direnak dire Apesuien etxeak, niri erran diretenek ori diote, zer eginalak egiten tuzten, baño deus ez duela balio. Ez da arri-erauntsia bakarrik nekazariain etsaiak, bakoitxak badire beren izerdia galdu nautenak.

## Uretako gauza batzuk

Orai Uretako zerbait, zerengatik izenik ere beren eliza, elizez eta obitegiz Mezkiritzkoak egiten da. Ureta erria da? Nekez. Barridea ere ez. Zer ba? Nere idurikoz, *Señorío* erdaraz erraten dutena, baño lenago. Oraikoak, nere idurikoz, berak dire nagusi eta langile, dena bat, orai dire berak bizi diren etxea da arras aundia eta ederra. Gero badire bi zar, lenago nere aurtzaroan ezagunduak ditut bakotxan senide edo familie bat. Eta errotako lana egiten zuena etxe oietaik batean bizi zena, baño etxe aundian bizi zirenendako. Eliza badute, baño erraten dute Nafarroko zarrenetaik bat dela. Nik ori aitu dut, norbait ikustera eta erran zirate bazela gauza zenbait ona, baño eliza ez zela ain zarra. Dena dela, ango gauzetan zarrenetaik bat. Ni oroitze naiz dagonilain ogeite bederatzian izeten zutela Uretan beren besta aundia. San Juanen lepo moztea da eta eliza artako ugazaba egiteiak, egiten zute bere besta aundie. Beti, neure denboran, arront jende ona izan da etxe ortan. Nere ustez, etxe ortan zaundu duden zarrena deitzen ze Juana Migel eta ure etze ona bakarrik, ze onegia. Ogi pikorra gindueno iortzen zirete egoaztera, eta pikorrik gabe gelditzen ginelaik, eskatzera eta eguaztera juaten nitzelaik, juaten nitze etxe aundira eta aldioro ematen zirete, geienean Juana Migelek, katuli aundi bat esne zopa guri guriak eginak eta esnea epeldua ianazten zire aski, nonbaiten ibiltzen nitze iateko beti soberaxe.

Orduen maite nue gisa ortara, baño orai ez nezake aise aski, denborak denbora ekartzen du. Eskatzen nuelaik, erraten nio aitak edo amak erran zirela ordainduko zuela ala edo ola. Erraten zire: bai nere maitea bai, emanen dizut bear guzia, badakit ordainduko duziela denbora guti gabe. Eta ola ezagutu ditut nik etxe ortakoak. Juana Migel ori beti ezpañetan irri goxo eta pollit bat, sanduen gisara, oraiko nagusi gazteain amatxi ze. Gero aren alaba eta ama ebena, bertze ainbertze. Zenbait aldiz ikusi dut Iruñan eta solastatu nau eta gustoara egoten nitze beraikin euskera garbian itz egiten, biak euskera garbi garbian... etze ain erraz ain euskaldun garbiarekin aurkitzea. Goian beude biak. Gizonak ere onak izain zire, baño nik ez nitue ainbertze ezagutzen, baño alare gogoan daukat Santiagoin aitetxin il eguna. Aite bizi du oraño Jaunari eskerrak. Bearrik onen bertze seme batengatik Mezkiritzen badire txistulariak eta euskeran trebexago daude aurrak. Badire ume alde bat, monja edo serorak badire lau edo bortz, edo bortz edo sei. Denak onak eta maitagarriak. Txistularietaik seurik etxe berekoak dire beren osabak erakutsiak<sup>30</sup>. Euskaldun eta euskalzaleak izan dire denak eta, nere idurikoz, etxe ortan adine ez da itz egiten etxe batean ere. Anitz urtez egin dezatela eta erri guzikoe egin dezatela bertze ainbertze. Orai denei esker mile, zuen ontasun onengatik bete dut orrialde au. Barkatu, nornaiek nik baño

30 1. koaderno txikian dio: "Eskerrak Agorretatar Elias jaunari".

gauza geiago ikesiak pusken obeki idatziko zitue, baño nik egin dut eta ez dut nere idaztiak ainbertze lore merezi duten bezala denek, baño barkatu, etorriko dire bertze batzuk obekiago eginen dutenak.

### Gertaera batzuk

Atsalde batean menditik erraten iudu errantea ikusi zutela bazkaltzen ai zirela eta gizon bat larru bat gañetik pasatu zela berak zeuden tokitik eta ogia eskatu zuela eta eman ziotela ogia eta gazta, bertzeak ere mogitute eman ziozte aragi edo txerriki zerbait eta emana ziozte ardoa eta etzue edan. Erran ziozte: ni ez naiz geldik egoten al, eta etzaket edan deus ere, bidean naielaik ian dezaket. Ni zigortua naiz eta beti ala izein naiz eta geiagokoi erran gabe jua ze altzina, naigabetua ze.

Nere amatxik anitz gauza erraten zigu eta atzo oroitu nitze Juan de Atarrabia erraten zue, baño nik erran biar tut arei entzunak eta Atarrabiko Juan.

Omen ze apeza eta sorgina. Bein batez, gañeko jantzia elurrez xurritua ekarri omen zue eta erran zio nola eldu zen gisa ortan eta semeak erran zio: Ibañetako gañan elurra ai du. Eta amak erran zio: emen alako denbora ederra eta an elurra? Bai ama, eltzean duzun ollar orrek kukurruko eginen duen bezala, eta bitartean egin zue kukurruko aundi bat, ama gelditu omen ze pixka bat ikaratua. Bertze bein iakin zue Atarrabiko Juanek orduko Aita Sandua arront galtzeko bidean eta *non gogo an zango*, juaten ze nai zuen guzietan. Gogoratu zitzaio berdin egin bearko zuela eta ordu berean egin zue eta deitu zue Aita Sanduain atarian. Eta atera zen gizon bat eta etxeko ataria edeki eta orduan erran zio: erran zozu Aita Sanduari negurtu dezala bere altzineko maia, zenbat duen luzetasuna eta zabaltasuna, eta Aita Sanduak egin zue Atarrabiko Juanek nai zuena eta bi andre, eskuñeko eta ezkerreko aldian zituenak, jua zire aren bistatik bi deabru zirelako.

Geiagoko gauzak erraten zitue, baño geiagoena bere anime etzuen galdu egin nai, baño egiten zitue sorginkeria anitz, baño nere amatxik erraten etzuela sekula sorginkeria beltzik egin, denak xuriak egin zituela. Eta nai zue il meza matean, baño gure Jauna goratzean. Eta erran zio eliz mutilai: zuk mallu burdin batekin eman zadazu buruko koroian. Emateko ezin egin egon ze egun batzuk, baño azkenean ainbertze erran zio, goiz batez egin zuela eta uso xuri bat atera omen zen beregandik eta eliza gain gañetik atera omen zen. Billabakoa zela erraten zue nere amatxik eta Aite Sandua etzela infernura jua, zerengatik Juan Atarrabikoak etxekolako utzi. Onen kontuak akitu dire, ia bertze zenbaitez oroitzen naizen.

Nekazarien lanabesak edo erramientak nere gaztetasunean zire ebek: koldea, area (ebek biak beiek erreztatzen zuzte), laiak gizonendako, ailtzurak denenzat,



burdin eta makil sardeak, arrazpak, igiteia belarra ebakitzeko. Mendiko egurrak egiteko zerra burdinezko aski luzea, aizkorak, burdin ziriek, mallu burdinek eta mallu ezepelezkoak, gogorra aizkorai iotzeko bear duenean.

## Meatza kontua

Mantxo mantxo ia zenbat gauzetaz oroitzen naizen. Berrogeita seian, ez daukat egun gogoan, goiz batean meza entzun ondoan, eta bazkaria egiteko ekarri ondoan bear nituen gauzak, deitu zute atarira eta edekitzean ikusi nue nere anaia Lazaro zela, iduri zue umore onean eldu zela. Segido erran zire prestatzeko beraikin jua bear ginduela jaun batengana. Nik ez nekie zer nai zuen eta erran zezala zer nai zuen eta nor zen jaun ura.

Erran zire arri multxu ura ekartzen zuela eta norbaitengana jua bear ginduela erakustera. Segido ikusi nue bazela ingeniero bat eta jua gine geuren arriekin be- raingena. Eduardo Markina zena ze eta, arriak ikusi zituelaik, arron ongi artu zigu, eta erran zigu bear zirela aztertu eta tupikia bazuela eta ikusten bagindu bazuela aski, lana egiteko, eginen ginduela, baño ez bazue aski dena bere gisa utzi bear zela. Orduan istenpat solasean egon beraikin eta igorri zigu aztertuzera. Amar bat egunen buruan bagindaki zer eta zenbat zuen eta erran zigue gutien gutiena eman ez ere, merexi zuela eta niorei erran gabe ixil ixila idukitzeko berak lagunduko zigula. Ola lasail gindaude afera ortaz, baño Markina jauna, ustei gutiengan, il ze eta gelditu gine asi len baño makurrago. Ez nue deus ere gogoan zer egiten al nuen. Berriz etorri ze nere anaia eta sekula baño inder geiangoikin zego, eta nik ez nue sosik aski kontu oietan asteko. Baño jua nitze Donostira bertze ingeniero batengana eta erakutsi neko lengo aztertua Iruñan egina, baño erran zire nai zituela ikusi arriak eta eman nio ereman nituenak, baño nai zitue bertze batzuk nasiak. Neuronek anaiakin artu nitue arriak eta ereman neko eta berriz aztertu zitue eta irutik amekara egunen- dako eman zue eta erran zire zer paperak bear nituen salatutzeko eta baten izenean paratzeko eta sei mila pezta seurik bear nituela. Neretako etzego ori, baño komeni baze merexi zue.

Nik iakin nuelaik zer beartzen, jua nitze neure etxera (Mezkiritzera) zer bear zen eta noren izenean paratu bear zen, eta bi anaiek ez zute nai beren izenetan para- tzea eta sos bat ere etzute utzi deustako eta erran zirete ez kontatzeko berekin deus- teko eta ni gelditu nitze bat egina, eta erran nio nik aren izenian paratuko nuela eta or konpon, eta erran zire bere izenian ez zuela deus ere nai. Ola etorri nitze etxera, jua nitzen baño otzago, ez nekie nora io, ia paperak ere eginak nitue, baño ain gaiz- ki jua zire gauza guziak... Utzirik alde batera nindego eta, usteik gutiengan, atsalde batez deitu zire urrutizkiñaz nere anaiak erranez ez banue deitzen Donostira salatu

bear nuela meatz berri bat, biramon goizean amekak inguru ortan bertze batek eginen zuela eta ez paratzeko aren izenean.

Nik deitu nue Donostira eta biramon goizean juan nitze neure gizonaikin eta paratu nue bere izenean, eta ni meatzen paperak egiteko eta sosa uzteko tokian sartu nitzelaik, an zeude Esnoz erroko gizon bat eta Mezkiritzko mutil bat eta erran zirete berant nindeuela eta erran nio: guk eginak ditugu gauzak, gaur sosaikin etorri gara eta ortan gelditu gine eta gauzak ongi egin onduan. Gero nere anaia asarre egon ze neure gizonain izenean paratu nuelakoz, baño sosik utzi gabe ez zute nai nere izenean baizik egon zaien. Eman bazire sosa bertze batek, orduan erran zuke zerbait, baño sosa gurea ze eta orrengatik nai zute neure izenan paratzea, baño neretako ez nue nai alako pisuik, gero denbora guzian nire gañera egon bada ere.

Erran zirete Donostian etorriko zela baimena eta etorri bezain laster, nai ginduzen ziloak egiteko ia zenbat tokietan bilatzen al ginduen ateratzea arri beretaik eta biletu gindue sei tokietan seurik, baño ederra egin gindue! Uste zute nere errokoek eltze urrez beteak ai ginela biletzen eta ieten zire mendira eta galdetu egiten zigute: zer ateratzen de urreik? Eta erraten niote: zuek paratu baduzie guk biletzeko, erran zazie beingoaz non paratu duzien guk eginalak egiteko! Bertze bein, ia ain ergeltako gindaude, guk ez gindueta arriak baizik bilatzen eta bi urtez bedere lanak egin ginduz. Bazire tokiak lendik lan anitz eginak. Bazire tokiak iruetan ogei metro bi tokietan edekiak, eta bertze toki batean zazpiegun metro, bearbada egun eta berrogeite amar urte lan anitz eginak dirala, baño meatza dela ezagutzen da.

Donostitik eskatu zute bear nuela gizon bat meatzan eskubidea izen zezan eta beti gero eta geago sos utzi bear, beti sos uzten, au bear zela eta bertzea bear dela, etze sosik aski eskatzen zutenaidago, eta erraten zirete: atera, atera arri ontaik azkar. Eta nik errain dut meatza dela bai, ez nue erran bearrik, banekie arri artaikat ateratzen zelaik meatza zela. Ola zazi denbora eta bein bertze ingeniero bat etorri ze eta erran zire: ioka nezake edozein gauza zuk aise bile zindezakela lur azpiko urak, bai eta ere meatza nondik daien, zuk baduzu buruan indar aundi bat, eta erakutsi zire zer egin bear nuen bilatzeko. Eman zire txotx batzuk eta buruan ongi artzeko meatzeko arriak eta gogoan idukitzeko ongi eta bera zegon tokitik eta ixil ixila erran bezala egiteko. Eta metro edo negurri bat egin orduko, bi txotxak indarra aundia artuz itzuli zire neuregana eta io zirete, eta erran nio: emen berean edo pixka bat beitixago bada arri mota ontaik. Gizona arriturik zego, bano geago arritu ze ikusi ginduetaik arri mutur ederra agerian eta, aldioro egiten nuelaik, berdin ezagutzen zen berean zegon edo eskuñara, ezkerrera, goiti edo beiti. Bein bi jaunei erran niote: emen ez dakit zer, baño bada tupiki bano obea, bearbada ezta eskumuturra baño geago; bada zerbait eta ingeniero arek erran zire: kuartzoaikin etortzen bada tupikia izen daike baduela au, bertze au, eta bertzea. Bortz gauza erran zizkire eta bat ze

iridio deitzen zirenak. Neri lan ori egiteko lenik erakusten zire iduria buruan artzeko eta lana egiteko, baño iridioan eman zire. Ez gindue sobera egiko artu deus ere. Denborain buruan etorri zitzaide langile bat etzena lurralde ebetakoa eta erran zire: zure lagundiak artu du arri bat alako tokitik (erran zire nondik), arri bat berrogei mila duro seurik balio duena, erran zozu erakusteko eta ikusiko duzu nolakoa den. Nik sinetsi, ez sinetsi, ez nitze eskatzera juan, langilea arront aniz zekiena zen, lan mota oietan ongi eta anitz zekiena ze, baño ez nue deus egin, baño bakarretan kexatu ze ez nekolakotz eskatu.

Ni edo niri eman ziren tokian bazela zerbait gauza ona. Ura ere bai, aise da bilatzea buruan balin bada inderrik aski. Ala ere, burua ere kexatzen da. Zain edo adar onak bazire tupikiñak bein agertu gindue adar oietaik eta bazue ogeite amasei ct. zabal, baño bi saetsetan bazue bertze ainbertze. Zilerra baño pixka bat iluntxago, baño dizdira ederraikin. Ingenieroak erraten zue kobre gris zela.

Gero aztertu gindue iakiteagatik bazuen barun [sic] eta zilar zerbait, baño ez zue deus ere ortaik. Tupikia bai eman zue azkar, ogei eta amasei zabaltasuna zuen, tokian eman zue iruetan ogei eta zortzi, egun aindeko, baño ingurukoak mearragoak zire eta denak nasiak, zazi zer emain zuen. Betiere bildu ze arria, ateraia eta ereman zute Bilbaoera eta ez nue iakin zer egin zuten arekin, bakarrik dakit Aurizberriko karabineroek erran ziotela nere anaiari kontu iduketzeko berriz egiteaz alakorik. Meatza ekendiko zigutela ez bagindue paper batzurik erematen nai ginduen tokira.

Orduan juan nitze Donostira eta erran zirate aiek etzekitela deus ere alako afe-raz eta erematen al ginduela eta arriandeko ez zuela paper biarrik eta, ez banue erema nai ola, juateko Haziendara. Ori egin nue, juan nitze Haziendara eta berdin erran zirete, eta orduan juan nitze berean zeuden karabinero batengana, eta arek erran zire baietz bear nuela papera eta eginezteko zuzen nai nuena.

Eta ikusi nuelaik gogo txarra zutela neretako, juan nitze neuroi Madridera. Lemexiko aldiz ni agertu nitzela arat, eta laister erran zirete: zure meatza ona da, sobera traba paratzen dizute. An aurkitu nitze Iruña ondoko Huarteko seme batekin. Ure ze ango nausia, eta Donostira iorri ziote segido paper oiek iortzeko niri erakutsi bearrean, zer egin estaltzen ai ziren egin bearrazi zutena. Gañera, Huarteko seme ori nere aitan aiskide ze. Oraik ilak dira. Erran bezala, etorri zire paperak, baño Madriden iakin zute nola Frantzietik ekartzen zuten denboraz altzinetik eta orduan ere tupiki aria eta paperik gabe aiek, eta niri emengo lurra emanikeko arriandako, alako minduriak, ongi zeuden gauza oiek.

Erran nioten nola ez nekielakoz buelta bat egin nuela eta niok etzirela adiezi, bakarrik karabinero batek erran zire ongi zigortue izen nitzela berriz asten banitze

erematen. Orduen eta orrengatik jua nitzela ni arara eta iduri zuela gezurre nik gauzak eginai ongi eta ez erakusten niok eta bizkitartio tupiki aria Zugarramurdi biribilak lertzen batre paperik gabe, eta emen bereko atera arria ezin ereman España berean. Erran zire ia nik nondik iakinen erran nuena. Eta erran nio: neuronek ikusi dut eta berek biribilen gañera botatzen. Bertzenaz, zazte zuetai normai ikustera zer ai diren an eta gero egin eginbearra. Dudeik gabe egin zute eta ikusi zute bear zena. Aste baten buruan denak bota zuzten Zugarramurdikoak eta bertze erri tiki guzie-tako guziak.

Erran zire: bai paperak erematen dituzte bai, bai arrazoña dezu bearbada, zerbaitengatik berek laguntzen duzte biribil aundiak kargatzen. Ori iturri onetik bane-kie, eta egia zela ere. Eta deus egin gabe, ikusi zezatela berek nola ai zinen lanean. Eta gero ilabete bat gabe, egiko [sic] karabinero guziak sañatu edo iorri zuzte bertze toki batzutera. Donostitik iorri zuzte paperak eta, ikusteko zer zen, ereman zuzte lau tonelada, eta erran zirate amazapi mile pezta saritu zuztela eta lasai zeudela, zeren-gatik orai bazekite meatz ona zela... Gero berek deitu zute lagunarte bati, ikaskuntza bat ona egin zezaten ogei egunez seurik, egunoro bortz lanean, ikasteagatik ongi merexi zen lan egitea edo ez. Alde guzietara negurtzen arriak, aztertzen. Eta azke-nean egin ziote mapa bat aundia eta liburu batekin erraten zuenean arront ona zela eta arron luzea zela, lagundi zenbait egiten bazute, milloi bat paratuko zitula berek ere. Baño andik denbora guti gabe, asarratu zire elkarren artean, nik ez dakit zetaz. Naigabe aundia ereman nue, eta berriz gelditu nitze bakarrik bi urtein buruan. Nere idurikoz, sos eskas zute berek egiteko eta lagundik etzute nai.

Gero asi nitze bertze batekin, baño oraño sos gutiagoikin, eta bildu zitu arri alde bat toki batean, bertze multxo bat bertze toki batean eta neretako oberenak zi-renak bertze batean, eta bi biribil aundi ereman zitue Palentziara, baño ez nik nuen arritik eta erran zire: andreak sukaldera, eta nik ez nekiela deus ere. Eta erran nio: Jaungoikoain izenean, etzazula arri ortaik ereman, zor aundia sartiko ginela. Baño egin zue nai zuena, eta ereman zue arria, bide terdi egunaindako zuena. Gero erran... orai ori nok sarituko du? Erematen bertze biribil eta nik erraten dudenetik eta Palen-tziara. Bertze, berak ereman nai zuenetik, ez neretik, biribilak bete eta altzina. Baño eman zio iru terdi bakarrik eta berriz sarik gabe eta amalau mila pezeta zor eta ni naigabe ederraikin..., artu nitue berrogei kilo nik erraten nuen arritik eta bakar baka-rra jua nitze Palentziara.

Erran niote nola egin nai zen arriain erematea eta nola nai nuen erematen nuen arri artaik bete biribilak eta sukaldera iorri zirela. Eta erran ziren: nik ezagutu nue edo etzekiela batre edo erosia zela. Gañera, zuk ekarri duzun arriak badu amabia seurik egunaindako eta berak ekarriak geiagonak du iru terdi. Eta erran zire nik io-riko dizut sos zerbait ekarriaindako, baño arront guti eta bota zazu gizon ori zeuren

begien altzinetik. Ni gau artan gelditu nitzen an, eta biramon goizean juan nitze mezara, katedraleko elizara, eta ikusi nue obiarrietaik aspaldikoa zela, eta ikustiatik ango gauzak egon nitze egun bat geago, eta ikusi nitue eliza guziak eta ikusgarri geienak. Iruñara itzuli eta, egun batzuk goitibeiti, orri zirete bederatzi mile peza ereman zen arriingatik.

Altzina meatzaikin eta, bitartean, niri erakutsi zirenak gauzak biletzen deitu zire bere etxera, eta biribilaikin etorriko zela eske eta bere andreak nai ziretela ezagundu, eta etxean erran zirete juateko. Juan nitze eta erran zirete: alako erri tikian badegu etxe bat eta lapurrek ereman diguzte almadraka guziak, guatzetako arropa guziekin. Orai nai degu, zuk bile dezazun lapurrak. Ni enitze egundaño alako estutasunean egon, baño atera zute mapa bat erri artako zela. Nik etxez etxe biletu bear nue lapurrak, nik ez nue nai deus egin, ez nuelakoik sinismenik neure baitan, egiten banue eta gende oberena ateratzen baze lapurra zela? Nik anitz aldiz erra niote neure baiezak, bano dena estaltzen zute. Mai [sic] berak quartu gabe Jesusen Biotzai otoitza egin nio, ez nuela gaitzik egin nai niorei. Azkenean, asi nitze lapur biletzen eta segido bilatu nitue lapurrak, baño etxe artako lapurrak giltzepean zire, ni enitze egon sekula erri ortan, eta orgatik berexiago nindago denetaik. Orduan erran zire: oiek artuak dire, orai bile zazu gure almadrakak nork ebatsi dituen. Eta asi nitze mantso mantsoa, gutire gutire, baño berriz asi zitzeide bertze etxe batean eta segido ezagutu zue nau-siak eta erran zire: orgoek ebatsi ziguzte bide orai duela bi urte, baño itzuli zuzte. Oraiko lana da, juan den astean edo juan den astetik onat ereman digute berriz, aiek eta bertze bide, eta orai ez ditut galdu nai. Egon nitze ixtenpat geldik berriz asteko eta gutire gutire asi nitze pisket lanean eta, azkenean, asi ze irugarren etxe batean eta erran zirete: bai etxe ortakoak dire. Bertze andre batek eta zuk, iakin gabe deus ere, lan bera egin duzie, eta guk aspaldien gogoan gindue oiek zirela, zuek iakin gabe lan bera egin duziela berdina egin duzie, nik erran niote iduri zuela sorgin lana eta erran zire: ez, ez, ori ez da sorgin lana, zuen buruan dago artu eta ematen duena eta egon trankil ez da gauza txarra, baizik arront ona eta gutik egin dezakela ain garbi.

Ez dezaket utzi deus erran gabe, gizon onek egintziren akometazioaz, bere bai ustezko arrokeria orrekin bota zitue lurrera nere lan guziak, nere itxaropen guziak, nere sos uzte guziak. Egin bazitue gauzak ongi, lau biribilen arri onaikin aterako gindue bertze lau, eta gutira gutira aterako gindue geuren buruak putzutik eta etzue niok irrik egingo guregatik, baño bera izan ze irrik geiangoena egin zuena. Ori eta ori idurikeko anitz izan dut, denak gaizki erakutsiko gizonengatik. Ikusi dute beren etxetan zein guti erakutsiak ziren beren arrebak eta gisa ortan uste zute nitzela ni, eta nik pusken ere berak baño geiago banekie, ez nere abiltasunaz, baño bai nere ikas-teko nai aundiak egin zute nere iakindura. Oraño neure berrogei eta amar urtetan egin nai nue eta gogotik geografia deitzen dena eta gero geologia edo meatzetako edo ingenieroa. Baño ongi eginak. Ez nue zerekin alde batetik eta, bertze batetik,

neure umeek ama nai zute eta oraño ama badute Jaunari eskerrak. Baño ederki zigortu zire meatz onek. Berexik neuken arri ona, ez dakit malda beiti bota zuten edo ereman zuten norapait, nik dakidena da ez nuela ikusi geiagokoik. Gero etorri zire bertze batzuk, ebek izen zire oberenak eta sartu baño len ageri ze zain edo adar aundi bat, zabaltasuna ogeite amasei *centimetro*koa baño arron aberatsa. Asi zire ongi eta bai ere zazin obeki, baño elkarren artian izen zute zerbait eta agur, berriz berdin gelditu gine.

Eskutan iduki ginduelaik dena, garbi aski erran nio: au da arront ona. Au ereman bear da, baño bere arrokerian erran zire: andreak sukaldera. Eta ori iduki dut anitz denboraz belarrietan. Eta gogorazi dire gauza anitz: zetas azi bear dira mutikoak gisa batera, eta nexkak bertze batera? Ori gauza itsusia da, ez dira biek berdin? Lenago mutikoak eskolara eta nexkak lanera. Arront gauza iluna zen ori. Eta orai oroitu naiz, nere amatxik maiz aski erraten zue Jaungoikoak utzi zekolai munduari bere eskubi-deak, gizonak artu zituela eta gizonak denak makurtu zituela, berdin lege gizonak nola eliz gizonak, berek zerbait gaizki egiten bazute, denak andreain gañera. Bekatua ere, beti andreaña gizona erortzen ze, andreaingatik. Manatzeko beti gizona eta andre gaixoa beti obeditzen, ola Jaungoikoak bakarrik daki zenbat urte juañ diren gisa ortan eta orai asi de aitzen andreak iletzartzen [sic, iratzartzen?]. Guartu dire Jaungoikoaren amar mandamendutan ez dagola batean ere au andreañtatzat eta bertze au gizonaintzat, denak denentzat, eta ez du erraten ere au ikasi bear dute mutikoek eta bertze au neskatxek. Denak jendeak gara eta jende bezala asi eta erakutsi bear da, zerengatik jendea bezala bizi bear dugu il artio. Len etxe bereko nexka mutikoa eskolatzen zire gisa ontan. Biek alorrera edo mendira eta etxera itzul zirelaik, nexka etxeko lanetan eta mutikoa afaltzera eta iostatzera bertze anaiakin. Eta gutira gutira azten dire beren auditasunaikin batio. Ala nola makurtzen diren gizonain legeak.

Berriz gauza berekin.

Bilbaoen ere izen nitze meatzaingatik, bide edo iru aldiz, ni nindeile egi guziarekin eta uste nue gauzak garbi garbia segido erdietsiko nuela, baña Bilbaon tupikiei ez zue iduri bazuela, baño burdinei anitz, eta etzirete batre kasoik egin, beren lanetan zire.

Baño an zen mutil batek entzun zitue nik erranak eta Mezkitritzen egon ze idurikezik [sic] laguntzera, andik juañ ze Frantziera. Lenik juañ ze nere etxera, eta an erran ziote nik iorri nuela, eta an ain ongi solas egin zue, arront zozotuak zitue denak, eta nere goñatua juañ ze meatzera eta bertzea juañ ze Frantziera. Gero nere etxekoak asarre, ze jende gisekoa zen mutil ura, nola egin nuen adiskentza arekin. Erran zirete beltzaran tiki bat zela, sobera solas egiten zuela, betiere artu bazekote eta erran bazue nik erakutsi nekola... Orra zer naigabeak izan dituden. Bitartean, sos uzteko bearra asko ere bai. Ni Iruñan nindego geianean, baño Donostira edo Bilbaoera ateratzen nitze bertzelaik.

Iruñan, ilunabar batez, etorri zitzaide berriz ingenieroa eta erran zire nere senar-rrain aixkide baten goxotegi batean lapurrak egon zirela eta idazteko lankaia ereman zutela bertze gauza zenbaitekin, etzela errax bilatzen al, zerengatik nagusiak eta pastelak egiten zituenak zutela giltzak, baño lan egile ori arront txintxo zela. Ixtenpat egon nitze gogoratzen zer egin al zuten. Eta erra nio: lan egile orrek ez ote du bere etxian norbait arront ontako zeukana eta beardure bateain artu lankaia eta jua dena. Niok ez zue sinesten al, ortako asi gine ikusten ia Iruñan zen edo ateratu zuten etxetik, eta ezagutu nue, aski zalui quartu nitze etzela tenore artan Iruñan, jua zela Alsasuara eta gau artan berean ekarri zutela Irurzuna, baño ez gine arront tran- kil. Zetaz? Ori gindue gogoan, zetaz egin zue ori niorek. Baño berriz lan berean asi gine, iakiteatik ia berdin gindeuken edo mogitu ote zen, eta Irurzunen etzego, atera zute bertze alde batetik eta ekartzen zute Iruñara, *Descalzos* deitzen den karrika batera eta lankaiek konpontzen zuten etxe batera. Oiek guziak igaro onduan iakin gindue nok egin zuen dena, langabiaren anaia batek. Lanik etzuela eta sos pisket bear zuela, baño alketua egintzuena egin zuela, eraman zue konpontzera lankaia, baño etze goratzera, bi urtein buruan xar zenbait erostera jua ze lan egilea, eta ezagutu zue erabiltzen zuen lankaia, eta goratu zue orduan egunorokoan erran zitue gauza geienak, nik eginak ez. Orduan asi ze ingeniero ura ikusten ziren guzietan: niok ez dezala iakin zer doia daukazu buru ortan. Giltzepean sar lezakete olako lana egin dezaketen guziak, lana eginezteko baño berendako bakarrik, eta zuk egon bear ko zinduke zeurenetaik berezia. Erraten zire: zure buruan indar aundia dago eta anitz lan egin dezakezu. Neri beldur bat sartzen zitzaide, beldurrak salatuko ziretela. Iduri du gezurra andre batek egin dezakela gauza oiek oraño gizonak... baño nik etxean denek batean baño geago nue, etze gauzaik garaitzen zirenik. Baño ni ez naiz iabetu, zeren ez dire nereak ekentzen, ai de niri eman zirenak, orai ez dezaket egin zeren buruko mina asten da segido. Baño neuroi, arritzen naiz neuronek egin izen duden gauzetaik. Ikusi potreta edo retrato bat Ameriketaik iorria, nik ez nue nior ezagutzen, eta erran au ila da eta au ere bizi bada laster ilen da eta gertatu aste artian berean!

Eta makurtuak daude anitz, ala ere. Gaizki asi eskolatzen eta gaizki segi. Badakizu zer ateratzen den geienean mutiko oietaik. Gizon motel bat. Niorat juateko balio ez duena. Denbora batez uste zute gizonak izatea aski zela, eta ez da ori bea- rrezkoa, garbiki ikusi da, nextak ain buruargiak edo geiago direla. Ez dela lanik, andreak egiten dituenak, gizonak egin ez dezakela eta andreak ere egin dezakela gizonak egiten dituenak.

Orduan, zer zaio gizonai bere andreari laguntzea etxeko lanetan? Etxea ez da berea?, edo bere umeak ez dire ain bereak nola bere andreañak? Orgatik lan mota guzietan, biek bat, bakarrik aita ez da ama eta ama ez da aita, ortan bakarrik ez dire berdinak. Eta ama egiten ai delaik, inder anitz egitea ez da sobera gauza ona.

Lenago –aitu izen dut–, etxe batean ume batek egin bear bazue *carrera* bat, ure beti ze mutikoa, geienean bigarrena. Anitz aldiz apezka. Nexkendako etzela liburuik, etxean ez zekotela uzten irakurtzera. Ori nik ez dut ezagutu ezkondu artio. Orduan fite quartu nitze nere senarrak ez zuela nai deusengatik ere nik irakur nezan, baño nerekin guti balietu zaio. Irakurri dut nai duden guzia, eta berai ere ikesiazi diot zekien baño gexago. Ori baztandarra delaik. Ezkondu baño lenago, erraten dire gauzak, zer maite duen eta zer ez, eta orduan bakotxak artzen du edo uzten du, orduen badago denbora oraño eta ez gero.

Meatz kontuetan nindego, eta gizon sukaldera iortzale orrekin asi naiz, eta gauza oiekin jua zaide denbora, puxket nasi ditut gauzak, baño banuaie berriz lenagokora.

Ortako ez nue deus egiten, ikusi eta segido iduritzen zitzaide eta sobera egiak ateratzen zire. Gero, zenbait urtez egon nitze meatza geuren kontura, saritzen nue eskatzen ziretena eta altzine, baño lana egitea eskatzen zute eta emengo bide edo iru mutil iortzen nitue aste batez ezagutu artio etzirela arara agertzen deustako, eta asi zire Donostikoak. Ez bazute lan geiago eginik ikusten, ekendiko zute dena eta geurek utzi gindue, zerengatik senar emazteak ez gindue sos bat balio. Ni lanean ai nitze, baño izaten nitue barneko odol juate aundi batzuk, beti goitike eta ekendu zirate neuronei renoia [sic] arri aundi batekin eta iduri zue meatzekoa. Ekendu zirate laia oiek, beardura aundi bat sendatu zirate batean eta nere umei erran ziate nik odol juate aundiak eta anitz aldiz izan nituela, orgatik ez nitze lanetik gelditzen, ezin iraun egoten banitze ere. Nik meatz orrengatik izen ditut naigabe aundiak eta, ala ere, ez nue utziko, baño sosik ez den tokian obe da denak uztea beren gisa. Nik ori egin nue eta orai altzina. Orai utzik dauzkat denak. Baño anitz aldiz gogoratu zaide eiztarien txakurrak egiten duena egin dudela nik, erakutsi non dagon meatz bat. Badela tupiki ona, baño kuartzo zurian eldu dela, baña arri ori ain gogorra dela eta orrengatik izitu direla orain artekoak. Eta denek iduki dezatela gogoan diru anitz bear dute mogitzeko.

Errora urbil dela zain edo adar zenbait, eta erran zuten badela anitz eta ona, arront ona, baño arront arri gogorrak. Bearbada orduko ez dire eltze urretaz nior oroituko eta jendeak ez du irrik eginen. Zazi zer gertatuko den. Gu geurenaz oroi gaitzen eta egin dezagun an nekatu gabeko toki eder bat izeteko bear duguna. Nere anaia asi zena eta niri mogiezi zirena aspaldik jua ze eta ioka nezake aspaldik bota zuela bere gogotik. Ni lan ebekin asi nitzelaik, ez nitze neurengatik asi; oroitzen nitze Mezkitzko gazteriaz. Denak Amerikara juaten zire, eta erdiak etortzen zirelaik, beren aita, ama, anai, arrebak, geienek ilak aiek etorri orduko, eta naigabe ederrak igarotzen zute. Niri iduritzen zitzeide lan auserki ongi saritua izanez gero, etzela bat ere juain emendik eta oroituz bakarrik lasaitzen nitze, baño ori orai konpondua da.



Orai Zubiriko lanek bete dute beartasun aundi ori, ez du ainbertze makurrik utzi, ori konpondua da. Jaungoikoari eskerrak. Ez da guti lana langilendako izatea: *lana duenak, iana segur*. Ez naiz oroitzen norei aitua duen, baño naigabe aundia izaten da, lana egin nai eta ezin in, ez delakoz, eta ez daiela niorekin gertatu lana egin nai eta ez gauza, ori oraño makurragokoa da. Bizi gareño, izan dezakegu ainbertze gauza txarrak...

Utzi denak alde batera eta alaitu gaizten udaberri ontan gauden guziak... Ain ederra da dena!... Iruzki ederra goiz goizetik eta ateratzen bagara inguraldi bat ematera, lorez betiak toki guziak, txoriak abesten iazika [sic, jauzika?] lar baten gañetik ezpel baten gañera... zein ederra den eta zein goxua, bere urrin goxos betea da, eta beti oroitezten digu geuren Ama zerukoaz, eta lore guziak eta bertze gauza on guziak denak eman gindezake beretako geuren biotzaikin batean. Bere eskutan egon nai degu geuren bizi guzian eta geuren guziarekin. Denak zure ume txintxoak izan nai dugu, lagun zaguzu ala izaten!

## Konzilioaz

Eta Konzilioaz edo bere gauzetaz? Nik aspaldik espero nue zerbait eta nai nue biotz guzitik len baño len elizak egin zezan zerbait kanpoko aldera. Nik nai nue zuzen zaien gauza anitz makurtzen ai zirenak, eta ori nai gindue bi beatz kopeta ginduen guziek.

Baze sinesmena eta itxaropena, baña non zego maitasuna? Ori aspaldik etzen ageri. Maite ginduze geuren etxetan geuren inguruko guziak, baño etxetik kanpora anitz aldiz... or konpon!

Etzitzeigu ongi iduritzen gañan zeudenen arrokeriak, eta izitasun edo azpian zeudenen beldurtasunak. Nik uste dut niok etziotela erran otoitz aundiena zela lan egitea, ortan zeudela *aitagurea* bere zazpi eskatasun guziekin: *egin daiela zure naia zeruan bezala lurreean ere*.

Orai Eliza Ama Sanduak garbiago erraten digu, edo guk garbiago aditzen dugu erraten digulaik: gizon guziak zure anaiak dire, maitatu bear dituzu gisa ortan. Ez da aski sos batzuk ematea zerbaitendako eskatzen badute.

Bear dugu elizatarian egun onak eman ezpañetan irri pixke batekin. Ola, uste ez degula, izan daike biotz zenbaitetara gozotasun bat ereman degula. Geuren etxeok aise maite ditugu, baño bertze etxeok ere gure aurrideak dire eta denak gaude gure zeruko Aitak paratu gaituen tokian betetzen. Eta gutienak badakigu egun onak ematen, bai eta ere otoitz bat egiten geuren anaien bearretaz. Gauza tiki

anitzek egin dezake aundi bat eta tikiak bearrean aundiak egiten baditugu, obe denendako.

Konzilioa aspaldiko bearra ze. Badu iruetan ogei urte seurik, nere amak erraten zue: oraiko kristautasuna anitz iduria zela Jesukristoin denborako iudoei. Orgatik, naietan gaude noiz agertzen diren iruzki bide berri eta eder oiek. Ager daiela len baño len sinesmen garbi garbia gure lan guziei ematera bizi berri bat. Itxaropen zabala eta aundia gure biotzak bete daitzen alaitasunez oberenetik.

Maitetasuna ere gure inguruan ezagutzen degu pusken aundiago, orai Konzilio altzinean baño geiago. Orai lan geiago egiten da, badire apez lan egille anitz eta beren gañan damatenak bertzen lanak eta naigabeak. Giltzepean ere egon dire lagundutziatik beren lanetan gizon edo mutil berak direnak apez oien elizakoak, eta egun eta gau ilunak pasatu dituzte. Badago lana non egin eta badire egintzaleak ere, baño bada bearra beretaz. Nik ikusi ditut gauza txarrak, arront txarrak eta, geiague-na, batre ikasi ez dutenak eta berdin zaiote gauza bat nola bertzea, oietaz balietzen dire alke gutikin sortu diren jendeak. Artzen dituzte lan egiteko eta goizeko seietaik artseko amarretaraño lan gogor batean sei pezeta egunean. Afera onek badu ia berrogei urte eta gizon orrek bazitue andrea eta bi alaba eta ezin bizi eta bide txarra autetu zute eta gaztei il zire denak, eta aitzen ze gauza aski senide guzieindako, baño gizonain nagusieindako ez, itz bat ere. Eta, nere idurikoz, oben guzia arena ze, sari-tu izen bazue merexi zuen bezala, etzue niorek bide ori artiko, ori uste dut, zerengatik badakit gizon batek erran ziola senarrai nola zebillen bere andrea, eta erran omen zio: zerbait egin biar degu bizitzekotan. Orai ori etze pasatiko, apez edo elizgizon zenbaitek eginen zue al guzia gauza oiek konpontzeko, gañera erri aundia ze eta bildiko ze bear zutena.

Gauza itsusi aski ikusi dut eta ez bat ere neure errian, Jaunari eskerrak. Animetan ilundura bat gelditzen da. Egia da, lan aundia eldu zaiote oraiko elizgizonei, eta buruargiak izeten al dire. Orrengatik, ez dire denak ikusten diren gauzak izen bear, baizik izen bear du bertze bizibide bat denentzat, eta arritzen bagine lemexien zenbait gauze berri batzuetaz, gure idurikoz arront bearra zirela, orai lasai gelditzen naiz ikusten baitut bearren bearrena txutik gelditzen dela. Orrengatik, ez dut ainbertze min artu, nola bertze jende anitzek nere adinean eta gazteagokoek izen tuzten oñazeak edo zinkuriak [sic] anitz gauzengatik. Jesusen Biotzain iduria ekendu dutela zenbait elizetaik, baño nik badakit zertaz. Zenbat elizen sartzen zirenetatik, juaten ziren xuxen xuxena iduriein altziner aotoitz egitera, baño Jesus aldarean oso osoa bere biotz eta gorputz guziakin dagon tokira zein guti juaten den! Orrengatik, ekendu dute iduria ia erdiesten den gazin denak Berarengana eta solas egitera Berarekin sinismen aundi batekin. Ortako ez degu zetaz negar egin.

Eta ez naiz gaizbidatzen apez batek utzi duelakoz bere bidea eta artu duelakoz bertze bat. Bere arrazoñak izein ditu. Bearbada, bere aita eta amak sarraziak zire... Berdin diot monja edo serorengatik. Ez dire aurrak eta berek badakite zetaz egin duten ori. Ongi? Gaizki? Berek dakite.

Bearbada, sartu zire lan bat egiteko, nai aundi bat egiteko gogoarekin, baño sartu den lagundian edo bakartegian ikusi du ez dezakela egin alakoik deus ere, zereingatik ortarako lotuak daude... eta edozein gauza izanagatik ere, guk ez degu zetaz lotsatu, uste dut berek badakitela zer egin, badute adinik aski aukeratzeko beren eginbearrak. Nere egunoroko otoitz bat da eskatzea indarra bear duten guziendako, baño bertzelaz, begiratzuz ongi gauza guziak, ni kontent naiz, zeren iduritu bazue zerbait autsik gelditzen zela, edo sinismen gutiago dela... iduritzen zaide azkenian itzuliko direla ugalde edo erre kara, kristaua gero eta geaiago izein dela eta sendoa-gokoak edo egiazkoak. Bitartean, obe da guti eta onak, ezik anitz eta gaistoak baño.

Baditu gauza obeak ere egunoro ongi eldu direnak. Geuren denbora guzian egon gara elizako otoitzak latinez egiten, iakin gabe zer erraten ginduen. Baño orai bertzerik da. Euskaldun errian euskeraz, erdaldun errian erdaraz eta denei baktxari berean. Ori da eder, denek badakigu zer erraten dugun geuren otoitz guzietan, gure euskeran edo erdaran egiten ditugulakoz, eta batean edo bertzean badakigu zer erraten dugun. Euskeran naiago balin badugu ere. Itzaldiak, Ebangelioa, Jesusen arat onat guziak, otoitzak, abestiak, denak euskeraz, ori da pollit, baño da gauza ezin jua izaten garela egunoro atsaldeko zazpietan elizara. Eta ordu ortan bakarrik izaten degu eliza batean. Nere ustez, oraño bada jende anitz naiago duena latinez, ez balin badakite deus ere.

Iruritako erretore jaun batek erra zue itzaldi batean bazirela zenbait Ama Birjiñain letanian erran bearrean *stella matutina*, erraten zutela “Ezpeletako Martina” eta *turris davidica* erran bearrean, erraten zutela “tu esa birika”, eta obe zela, deus ez erratea oietaik, euskeraz zekien otoitzak egiteko eta uzteko bertzeak. Gizajoa! arei ere ongi iduriko zitzaio Konzilioko gauzak. Nere idurikoz denak.



Perpetua 1953an.



## 1.2. INDAR AUNDIKO EMAKUMEAK

### Itzaurrea

Euskal Errian bai ote da inder gabeko emakumeik? Neure idatzi ebei izen ori ematen diotet. Baño galdera ori ez dut gorputzeko indartasunain gañera egiten, ez; nere galdera da animaren indartasunaz. Orai artio ez zitzaide gogoratu alako galde-  
raik, baño egun ebetan ainbertze emakume igaro dire nere buruan, denak indartasun  
aundikoak ala batre ikastasun gabekoak, eta bertze batzuk irakasle aundiak eta  
irakaslen zaindaria ere bai... Zetaik euskaldun erri ontan etorri da alako indartasun  
arrigarria emakume geienetan, berdin emakume elbarrituetan nola osasun azkarra  
duenean?

Indartasuna Espiritu Sanduaren doia bat da, eta beraingandik eldu zaigu, baño  
ez da bataio sandua bakarrik aski doiak emateko. Nik uste dut guk ere zerbait egin  
bear dugula erdiesteko. Sinismen, itxaropen eta goi maitasun aundiak bear ditugu  
doiak emateko, al bezain aundiak, bai eta ere garbitasun aundia geuren animan eta  
gorputzan, umiltasuna, otoitz egitea... itz batean ontasun guziak, baño geagoena goi  
maitesuna. Bada esaera bat erraten duena: *zein gozoak diren bide guziak maiteta-  
sunera erematen badigute*. Eta maitetasun au gure Aita zerukoai balin bada obe, Aita  
anitz maite duenak aurrideak ere maitatuko ditu, bi maitasunak elkarrekin eldu dire  
eta doi sanduak, nere ustez, gibeletik. Orrengatik, uste dut Euskal Errian gure al-  
tzinekoek erain zutela ongi eta auserki Euskal Erri guzitik eta ongi artu zuela emaku-  
me guzietan eta egunetik egunera geiago eldu dela. Sinesmen azkarra, itxaropen  
negurri gabea eta goi maitasun erogarria. Orrengatik da ainbertze indar Euskal  
Erriko xoko guzietan. Ez asarratu nior, nik ez dut ezagutzen Nafarroko eta Euskal  
Erritik kanpo, ez dut ezagutzen ez emakumeik eta ez gizonik; ortarako ez naiz kan-  
pora atera. Ezagutuekin gelditzen naiz. Eta beretan bada aski. Niri kosta zaide  
aukeratzeko nik ezagutu ditudenetan<sup>31</sup>.

31 3. koaderno txikian honako hau gehitzen du: “Badakit badirela bertze anitz onak emen paratu al  
nituenak, baño ez nuke egin al denak paratzekotan, ongi ezagutuak bakarrik eta oietan ekendu  
ditut neure ama, amatxiak, izebak eta aide guziak. Uste dut eztela komeni alakoik egitea. Barkatu  
denek”.

Gertaera ebetan idazteko, batzuek eman dirate beren baimena beren bataioko izena eta abizenak paratzeko, eskerrak ematen diotet. Baño geienei ez daiei eskatu denbora eskas dudelakoz afera oietako. Eta ebei izen bat eman badiaiet ez da berena. Bat bada Bizkaiakoa, nik ez dut ezagutu, baño ezagutzen dut berrogei urte ontan emakume orren seme baten alaba; nere alaba guzieren irakaslea izen da eta arras maite dut. Berak erran bezala idatzi dut. Eta bera Bizkaiako emakumea, sortzez Nafarrokoa zela eta Sagastibeltza zuela abizena erran dire. Geienak Nafarrokoak dire, euskera mintzo den errietatik eta denek maite zute euskera biotz guzitik. Erroibarko lau errietakoak, Baztangoak geiago, Aralar aldetik, Olague aldetik, Iruñakoak... Amerikara jua eta etorri ez direnak... Andik zerura jua direnak... Zenbat ikasgarri utzi digutena... Nik seurik ikesi dut ebengandik eta beren bizitik anitz.

Indartasun aundi orrek anitz erakusten digu eta berdin aurkitzen de zazpi urteko aurretan. Oroitu gaitetzen nola Jesukristoren legea ongi jarraitzen zutenei iltzen zutela lemexiko iru edo lau gizaldietan. Seurik beretan aurkitzen zire Tarsizio, Justo eta Pastor, ebek biak españolak eta Españan ilak. Ez bazire doi ortaz beteak, egun etzute indarrik izaten al bere bizia Jesukristorengatik emateko.

Zenbat gauz etortzen den burura zenbait aldiz... Zetaz Euskal Erriko emakumek dute alako indar ori? Bearrezkoa delakoz? Izen daiteke. Erri au ume anitzeko gizaldia izen da edo izen dire ondar bi gizaldiak eta umeak beren amaikin aitarekin baño geiago egoten zire. Ori izaten al ze gauze bat emakumeak inderrez beteak izeteko. Ama geienek bigarren semea apez inazi nai zute eta lemexiko alaba monja edo serora. Zetaz? Eliza Ama Sanduaren bortzgarren mandamendua obeditzeko? Ez da errax iakitea. Baño ori izaten zela etxe guzietan gogoan edo aizean zegon idia [sic, ideia?], ori bai ala da<sup>32</sup>. Bertze gauza bat egoten zen denen gogoan: ama baten bidez lurra sendatu ze bere bekatutik. Eta zetaz Euskal Erriaz etzute eskatu bear bereko ama guziek egin zaien erri bat sanduz betea? Eta gaixoez uste zute apez eta monja edo serora guziak zerura juaten zirela, ezkonduak baño aisego, eta orrengatik pozez betetzen zire juaten zirelaik eta ama gaixoez otoitz eta baru anitz egiten zute, bere lan anitzekin. Ebek zeruan direla beren onbide, indartasun eta gauza on guziekin. Berek sobera iakin dute emakume guzieren altzinetik jua zela gure Ama zerukoa bere edertasun, garbitasun eta izen daizken gauza on guziekin, Jaungoikoak eman zeizkon guziekin izan zeien Jaungoikoaren ama. Orrengatik iakin gindezan denek erran zio aingeruak: *Bedeikatua zu zera andre guzieren artean*, eta bere lengusina Isabelek: *eta bedeikatua da zure sabeleko frutua Jesus*. Orrengatik da emakume guzieren artean bedeikatua.

32 3. koaderno txikian honako hau gehitu zuen: “Nik ezagutzen duden Nafarrako euskal errian etxealde guzietan izen nai zute zarrena, semea, etxeo nagusitako eta bigarrena, nexka balin baze, bertze etxealde bateko etxeo andre eta bigarren semea apezta. Ez dakit Jaungoikoain deiaz oroitzen ote ziren”.

Orai denek badakigu gure zeruko Ama Birjinak eremain digule eskutik bere semearen altzainera bear ditugun gauza guziak eskatzera, guretzat eta bear duten guzientzat. Alaxe.

Nik uste dut erran duden gauze guzien gañera, nik ezagutu duden Euskal Errian etxe guzietan Ama Birjiña arront maitatua izan dela eta ez bazire etxean otoitz egiten eta arrosaria ematen, orduan elizan egiten zirela, orrillan geiago, bai eta ere abenduan. Bi ilabete ebetan geiago elizan, baño ezin elizara juan etxean gelditzen zirenak, etxean ematen ze arrosarioa eta gibeletik amar bat *aitegurea* bedere. Ori egia da eta aurrak asperturik lo gelditzen zire gaixoak.

Orai ez dut uste ainbertze otoitz egiten dela, baño uste dut aurridek maiteago dutela elkar. Nere inguruan bai seurik... eta uste dut Ama Birjiña ere etxetan maite dela. Ala izen daiela.

Orai asi gogo dut emakumen indartasuna agertzen. Denak ezagunak eta denek utzi dute nere biotzean beren ontasunain gozotasun bat, denendako nai nuke beretik zerbait. Lemexiko ebendako zil dut beren izenak paratzea.

#### **Au da lemexikoa:** Maria Ana Sanz

Dña. Maria Ana Sanz Huarte deitzen ziote erdaraz, nik euskeraz errango ditut onen gauza batzuk, dena ez da errax.

Onen aita Irañetako Dukeneako etxeko semea ze eta karlisten gerra edo gorroto batean Barzelonara iorri zute. An egon ze denbora puxka bat, eta ezagutu zue izen bear zuen bere andregai. Ongi ezagutu zuelaik, Mariano Merzedesekin ezkondu zire. Mercedes katalana ze. Mariano margolari edo pintorea zen. Madrazok erraten omen zio: Mariano zu margolari ona izein zera. Baño bere burutik atera zuken gauza anitz ieki [sic, ireki?] iten zitue bertzenak, eta ala egin zue bere denbora guzian eta izen zue lanik aski, beti lanean ezin aski egin. Barzelonatik etorri zirelaik, denbora gutiz egon zire Irañetan. Etorri zire Iruñara eta emen izen zuzte bortz alaba eta bi seme. Bere izenak ebek zire: Mertxe, Eudoxia, Maria Ana, Juanita eta Mari Karmen; mutikoak Franzisko eta Joxe Mari.

Erran duden bezala, margolari ona ze eta ikusi dut margazki<sup>33</sup> bat arront ederra Ama Birjina bere seme ederrarekin besotan, nere idurikos xarmanta da, aurraski buluxia da eta ain ongi ikusten da bere gorputza erran daikela: zenbat beidetu ote aurrari? Maria Anaren alaba baten etxean dago. Ganbara berean dago Mariano eta

33 2. kuadernoan ere "margazki" dator.



Merzedesen irudi bat. Mariano berak egina ixpildu batekin. Andreak ezagutzen da indartasun guzietarik bazuela. Erran zirete Kataluñan, bein batez, artu zuela matakana aundi bat eta beraikin eskutan bota zuela bere etxetik gizon kiskil bat, zerengatik sartu zen bere etxera eta uste izein zue beraz irri itera juan zela eta artu zuela matakana eskura gizonak laister egin zue kanpora. Dudarik gabe, burua lepoaren gañan zeuken eta bere etxean berak manatzen zue eta etzue kanpoko gizonik bear. Orrek erran nai du zentzu aundiko emakumea zela.

Senar emazten eben zazpi umeak Iruñen sortu eta aziak zire eta denak irakasleak egin zire. Semeak gazteago il zire eta alaba geienak iruetan ogei eta amarretara urbil edo geago. Aditu izen dut denak abilek zirela eta aise ikesten zutela erakusten zioten gauza guziak. Arront maite zutela elkar eta ikesi bear zelaik lan, egin bear zelaik, lan eta iostatu bear zutelaik iostatu, ala bizi zirela beren aurtzarroan eta gatzetasunean. Nik ezagutuak seurik beti elkarrekin egoten zire, beti elkarrei lagunduz, baño nik berantegi ezagutu nitue eta lenagoko gauzak niri erran bezala erraten dut. Orai utzi berantagoko bertzeak eta Maria Ana bizia idatzi bear dut. Au arront nexka abile eta langilea omen zen. Gazte aski asi zela bere gizongaiain arat onat buelta batzuk ematen eta ezagutzen zer gisakoa ote zen. Teodoro Nabaz Huizi zue izen eta abizenak eta bere aita eta ama zire Goizuetakoak, jende onak denak. Juan eta Leoni deitzen zire. Nik ezagutu nue Teodoro eta erran dezaket arront gizon xaloe zen eta langilea Iruñeko Erriko Etxean lanean egonda lan saillan, manatzen eta egiten egon da berrogei eta amar urtez lan gisa berean, gorago egon al ze, baño beti zego toki berean eta lan beretan. Maria Anak bere irakasleak pozez beteak idukitzen zitue, zerengatik aise ikesten zue erakusten ziotena. Berez ze ederra eta itzel aundiko emakumea. Gañera, gisa eta tenore guzietan izen ze arront maitegarria eta maitezalea ere bai. Ezagutuz bezala, prestatuz juan zire gure gizon eta andregai.

Ogei eta bat urte zitue Maria Anak ezkondu zelaik eta orduko irakasle ona egina ze. Senar emazte ebek izen zuzte iru seme eta zazpi alaba. Deitzen zire semeak Teodoro, Mariano eta Joxe Mari eta alabak zire Mari Mertxe, Mari Karmen, Maria Ana, Maria Juana, Maria Amelia, Maria Isabel eta Maria Esther. Beti erraten zue eben amak Maria izenak toki eta gauza guziak edertzen zituela eta orrengatik alaba guziari paratu zioten izen ori. Maria Esther nere amak azi zue, Mezkirizko errian degun etxean azia da. Nik bortz urte nitue azten asi zelaik, eta orrengatik ezagutu ditut denak, ilak eta bizi direnak ere bai, eta maite ditut anai arrebak bezala. Maria Estherrek iru ilabete zituelaik, etorri ze bere alabatxoa ikustera nola zegon. Garagarrilleain ondar egunean, ilundu ondoan deitu zute atera eta nere aite atera ze eta erran zue: aurrein ama. Orduen etze biribilik eta zaldiek errestatzen zute zalgurdi edo kotxe deitzen zena. Oraño ez nue sei urteik eta oroitzen naiz nolakoa zen aurrein ama: beltzaran bat, ederra, bi begi arront beltzak, aundiak eta argitasun eder batekin. Gogoan dauzkit atzo ikusiak bezala... Nere amak artu zue seaskatxotik aur

tikia eta ereman zio bere amari eta bere amak erran zio: nere bizia! ze iru ilabete goxoak dituzun! Nere amak aur onei eman zio bularra ogeite lau ilabetez eta gelditu zen gure etxean ogei eta amarretaraño euskera ikasteagatik. Eta urteoro etortzen zire uda igarotzera sei aurrekin Maria Anain aizpe Maria Karmen. Alarguna ze eta arront maite zute bere illobek eta guk ere bai. Bearbada lau edo bortz urtez juan zire, baño nik gero eta geiago aurrider nitue eta etxean tokik denendako. Azten ai zelaik Maria Esther, ama deitzen zute aurrekin eta nerekin, zerengatik aurrak niri zire maitena eta nerekin ikasten zue euskera. Amar urtetaik amabietara urbil erran zio aurrak nere aitari: aita ez naiz oroitzen eukeraz ‘aita’ eta ‘txakurra’ baizik.

Denboraz irakasle eta gero zaindari ona izan ze, baño naigabe aundiak ere eman zio biziak. Erakusteak eta ikasteak bakarretan eman ziozte min ederra bere biotzean. Amar umen ama eta, aztekotan bere aurrak, etxetik atera biar. Bat il zitzaio azterakoan Arbizuko errian. Bera Madriden *oposición* deitzen dena egiten, aurrak gaizkitu eta il, eta berak deus etzekiela; baño il zen minuto berean erran omen zio bere lagunari: nere semea il da. Eta lagunak: nondik?, zure semea ez da il, ez dizu niok erran. Bai erran dire berak. Bere aurrider etziote erran *oposicionak* akitu artio eta akitu zituelaik etorri ze bere etxera eta tren delakotik iausti zelaik, bere senarra an bere bila etorria, erran zio: Teodoro, gure seme Mariano il da? Nok erran dizu? Eta andreak: baño ila da eta alako egun eta orduan ez? Baño nok erran dizu? Ila da bai, baño nok erran dizu? Niri aurrak berak. Eta bere lagunak eta bere etxean gelditu zire arriturik ola aztatzea.

Denbora ontan gelditu ze Nafarroko emakume irakasle guzien zaindaritako. Emakume sandu onek lau iraspen seurik egin zitue, *cantinas escolares* deitzen dena erdaraz. Eskola edo ikastola denboran aur beartsuari iatera ematea. *Colonias* deitzen dena, au da, aurrak udan zortzi urtetarik amabiak artio ilabete bat goraberan dazin, itsasoa bear duena Fuenterrabia deitzen den tokira, eta mendira bear duena Zudairera, osasunez bete daitzen bear duten tokian. Gauza ebek berai gogoratu zitzaio, baño lagundu zute anitzek eta gero sos kutxak artu zute beren kontura. Eta zein ongi eldu zaiote aur anitzei eta bai beren gurasoeri ere! Zenbat sendagillek erran ote dute: aur onek sendatzekotan bear du itsaso bazterrera erematea eta, gurasoek ez balin badute, ezin ereman; orai bada non ereman eta nok saritu.

Nere bortz alaba seurik, bakotxa bere denboran, izen dire beretan eta neuroi juaten nitze ikustera nere aurrak zer ai ziren eta beti ikusi dut maitetasun aundia ematen zutela denei eta ori ikusi ondoan etortzen nitze etxera pozez betea. Neguko eskola edo ikasetxetan iatera ematea ere iakin izen dut bertzen umetaik eta, aurrek erraiten zutenek, arront ongi eta auserki ematen ziotela erran izen direte.

Uste dut bizi zen denboran gauza ebek irasi zituenak eginen zituela bere juan etorriak ikusteagatik aurren begitarreak. Kolonietan egoten zire aurren zaintzen as-

paldiko M<sup>a</sup> Anain irakasleak, bere biotzetan ongi sartua zegon emakume sandu ure. Berak erraten zue arront jende onak lagundu zuela denetan isasi [sic, irasi?] zituelaik gauza on ebek eta etzuela nior saritu eta gauza onak denak in naiak egoten zirela eta denen artean egiten zirela. Baña emakume onek zue izakera bat ain ona, bi aldiz erran gabe egina aurkituko zue, nik ongi ezagutua nue eta badakit zein maitegarria zen. Gañera isasi [sic] zue amatxoen arroperoan erakusten ziote iosten eta eskulan pollite guzietatik egiten, berdin galtzorratz nola gantxillo delakoaña, bai eta ere beren umetxoen soinekoak iosten. Erakustunak zire eta trebetasun aundia artzen zute lan gisa guzietan eta, geienean, Eguberritako egiten zuzte seaskatxo pollitak aur sortu berriandako bere arropa guzietarik eta txatar bear zuten guzietarik, aurrak ongi apaintzeko. Seaskatxo ebek bere arrokekin ematen ziote emakume beartsuenei eta aurr aizen bear zuenai. Ola finitzen zute urtea eta berriz asten zire urbilen urtean abenduko egin zeitzen berriz.

Arras atzendu gabe erran bear dut seaska ematen zuten guzieri ematen ziotela *libreta* delako bat, Ulezia sendagilleaña zen. An erraten zue nola azi eta nola zaindu aurr eta lan ebetan ere ongi laguntzen zute bere aizpek. Geienean etze errax etxean arrepatzea, beti bertzei laguntzen egoten ze. Beti baze norei lagundu eta bere etxeko lanak bere aizpek eginen zute, baño bertzei eginen zitue berak. Bere aizpek laguntzen zute bere umen azten ikastolan eta juaten zen toki guzietan. Zenbait itzaldi eginak Nafarroko emakume gisa guzietakoeik!!!, baño umiltasun aundi batekin, iduritu izeten zue bera zaiela entzutera eta ez erakustera eta itz egitera. Beti zego bere buruan jende beartsua eta ala isasi [sic] edo fundatu zue emen Iruñan, Konzezion Arenal deitzen zitzaionain arroperoa. Au ze giltzapean zirenendako eta ontan laguntzen ziote berak irakasle egin zituenak. Egiten ziote al guzia eta giltzapean zirenak garbi eta txukun egoten zire. Emakume onek etzue ixtenpaik tikiena artzen pixket itxoegiteko. Aurtxoen epaiketean ere bera ze zuzenbidez irakusten ziotena ama batek bezala.

Erran duden bezala altzinago, artsean ilundu onduan etorri gure etxera eta goizean argitu gabe atera ze pozez betea, ikustean ain ongi azten ai zela. Nik ez dakit ze solas egin zuten berak nere aita eta amaikin, baño amabortz egun gabe etorri ze bere aizpa bat Mari Karmen deitzen zela, eta berarekin etorri zirela bortz anaia arreba, eta uda gure etxean igaro zutela, anitz iostatzen zutela eta guk iru anaia arrebak ere; nik guti, baño zerbait laguntzen niola amari, mandatu egiten, ur ekartzen amatxikin, lan baño geago iostatu. Nik ez dakit zenbat denbora egoten ziren, baño niri llagur iduritzen zitzaide. Oroitzen nai igande zenbaitean etorri zirela beren aite eta ama eta arront poztuak egin zirela ikustean beren umeak ain eder eta ain iostari. Baño arront denbora guti egoten zire, etzute denboraik deusteko. Anitz aldiz gogoratu zaide bearbada ikustean zein ongi juaten zizegoten mendia eta ugaldea bere umei *Coloniak* erdaraz isasi [sic] edo fundatu egin ote zituen? Au nere anitz aldiz gogoratua izen da, baño

deus ere geiago. Lau edo bortz udez juan zire gure etxera izeba Karmen bere illobeki. Berek ikasten zute euskera ederki, baño guk lemexiko itzak erdaraz berekin. Iruñekoek beren izebai erraten ziote *tia* Karmen eta guk ere bai geurenei, izeba eta osaba adinekoak bazire eta gaztexkoak balin bazire *tio* eta *tia*; guk orduen ez gindue gogoratzen euskera zen edo erdara zen. Baño berek erraten zuten bezala, arront ongi errana zego, zerengatik guretako zire ain onak eta maitagarriak eta guk maite gindu-ze eta maitetasun orrekin bizitu izen gara beti gure aurrideak izen balitze bezala...<sup>34</sup>.

Badakit Maria Ana emakume –sandu ura nere ustez– lanean ai zelaik il zela. Ez da arritzeko, lanean egin zue denbora guzia eta asteazkenean lanean eta bertze asteazkenean ortzia<sup>35</sup>. Bere ilerian zito anitz (ijito anitz) izen omen zen eta bere umei atsekabea ematera juan omen zire denak. Denek bazute zer ongi erran bertaz eta ori egin zute, erran aiendako ere ama on bat izan zela. Iruetan ogei eta zortzi urtetan il ze. Goian bego.

Orai emen Iruñen, Txantreako barridean, ikastetxe batei eman diote aren izena; bada zetaz. Nik bezala ezagutu bazute, bearbada Iruñai erdia karrika batei ere emain ziote. Bera bezalako irakasle, zuzendari eta emakume anitz izen daiela Euskal Errian. Berai denetan geiago lagundu ziona ze bere aizpe Maria Karmen; zerbait egin zue denekin. Bera ere irakasle arront ona izen ze. Bere illobek erran dezakete zer ontasun eta doi aundiak zituen berekin. Jaungoikoak bete zuen doi guzietaik eta uste dut ain lagun ona zena lur ontan, ez dela zeruan gutiago izanen.

### **Bigarren emakumea: Petra**

Euskal Erriko erri tiki batean bizi ze neskatxa bat arront xuri gorria, begi urdin pollit batzuekin, orai dela egun bat urte eta zarrena ze bere aurridetan, eta aunditzeaikin gogoratu zitzaio zerbitzura juan bear zuela, bere aite eta amai lagundu bear zituela al guzia bere aurrideak aunditu artio. Dударik gabe bere aita eta amari ongi juan zitzaio, eta Bankako errira juan ze. An bizi ze bere amain anaia bat. Etxe aundi bateko lanak gisa guzietakoak bazekiezkie ongi. Orduan denak ongi egin bear zire eta denak eskuz; lixu aundiak, xagonadak eta ogia ere etxean egiten ze, eta entzun izen dut esku ona zuela gauza guziak egiteko, eta gisa ortakoa izeteaikin arront mai-

34 2. koaderno txikian familia horren izen guztiak eman izana honela justifikatzen du: “Orai berei eskatu diotet ematen al duden beren izen eta abizenekin eta ala erran direte egiteko eta nik gogotik egin dut”. Eta aitzinago dio bertze zenbait emakumeren datuak ere emanen zituzkeela gustura baina ezin zuela egin: “Bere izen eta abizen guziekin, al banu idatzi, nik ezagutu dituden geienak idazten al nuke, baño ori ezin da eta bertze izen batekin bakotxa egiten ditut”.

35 2. kuadernoan dio “Ez ongitu zela asteazken batian eta urbilen asteazkenean ortzie zela”.

te zute. Laister etxeko semea, etxeko nagusi bearra, quartu ze zein baliosa zen eta asi ze bere gibeletik toki guzietara eta Petrak erran zio ez zuela gogoik oraño deustarako eta utz zezala, bertzelaz juain zela bere etxera. Bitartean etxe berean baze morroi bat (guk erraten dugu mutila) gizon lan guziek egiten zuena. Amezketako semea ze eta maite zute elkar. Ez daiteke erran diruaingatik maite zirela ez, ez batek eta ez bertzeak etzute deus ere, baño osasune eta edertasune biekin zego. Ixil ixilik iduki zute beren maitetasuna, baño ezkondu egin zeizke bertzeak uzteko alde batera. Segido prestatu zute beren paperak eta, gañera, Argentinara juatekoak. Petrain aita eta ama jua zire Bankara, zerengatik Joxe Mari ezin jua ze Españako aldera, iges in baizue beretik soldado edo gudari ez izeteagatik. Ortaz, Bankako errian ezkondu zire eta onat batre etorri gabe jua zire Argentinara. Etzire egundaño geago agertu onata.

Argentinan, Patagoniako alderdian, jaurlariak eskindu ziote lur alde bat eta ola asi zire lur lanean eta urte multxu bat egin zute gertatu artio, beren bi alaba erreik il artio. Orduko bazuzte iru seme eta lau alaba, ebetaik bide erre zire beren etxea erre zenian. Lanean ai ziren tokitik quartu zire etxea erretzen ai zela eta bere ama ezin idukiz an ziren gizonek, jua zire etxera eta uste bezala aurrak erreak aurkitu zuzte eta atera zituzte eta bakoitza bere kutxa tikian sartu eta zaldi batean bakoitza alde batera paratu eta lur sandua ematera atera ze beren aita Joxe Marikin bi aur ilak. Latza izen ze bide ura egitia, baño bere sinismen aundiarekin egina izen ze. Iakinik izain ze non zegon aita salesianoa eta arengana jua ze, eta meza eman zio eta entzun zue aurra ortzi baño len eta, kutzak edeki zuztelaik, aurkitu zire aurrak ilik, baño ez erreak, eta denak arriturik gelditu zire mirabe ura ikustean. Sinismenak ori dezake.

Etxe errea zegon tokira urbildu zelaik, jua ze estalpe batera eta an konpondu zire al bezala. Lau edo bortz aurrak eskoletan edo ikastoletan zeude eta berak bertze langile batzurekin egin zuzte denborako lur lanak eta beren lur puska batean egin zute bertze etxe aundi bat. Ostal etxetako Txubut deitzen den errian. Nai eta ez, egun eta gau ilunak igaro zuzte denek, badakit ameka ilabete gutiz gorabera Petra gaixoak artu zue eskutitz bat bere sortu etxetik erraten ziotena bere aita Juan Migel il zela iruetan ogei eta sei urtetan abolingo edo pulmonia deitzen den eritasunaikin. Petrak iorri zue bere bi nexken eriotza, bitartea Petrain aizpak egin zio erranez seme eder bat iru ilabete terdiko il zela. Eskutiz guziak negar eginazaleak zire, baño bertze bat aundiagoko eldu zen gibeletik. Petraren aizpa bat Juliana deitzen zena, ogeite amasei urtetan eta monja edo serora zena il zela sandu bat bezala eta orrekin iduri zue eriotzak gelditu zirela, bano naigabe franko izen zitue Petra zenak. Fierra ze min gisa guzietako, baño balietzen zitzaio gaixoai. Bere alaba zarrenari giltxurrin bat ekendu ziote ebakuntza batean eta urte bat osoa egin zue sendaetxean. Bitartean bere senarra jua ze etxetik bertze neska batekin. Zituen iru aur eta iruetatik il ziren bide eta alaba zarrenaikin gelditu ze. Bigarren alaba,

Petra bere ama bezala, ezkondu eta iru aur zituela il ze usteik gutiengan, burura zerbait eman ziolakoz.

Beren ostal etxean irabazten zute azkar eta semeak sobera abilek zire, oraiño amalau amasei urte zuztela egin zute lankai zerbait beren etxetik ikusten zutena, *teatro* erdaraz deitzen den tokian egiten ziren gauza guziak. Orai aietatik gaztenak iruetan ogei eta amasei urte ditu. Aspaldiko kontua ze, baño beren amak beldurrek zigortuko zuztela, euskeraz idatzi zio bere amari erranez, bere ustez, gauza arrigarria orduko. Iru seme zitue: Manuel, Kristino eta Migel. Orai bizi dire Mikaela eta Kristino. Mutikoak Salesianoetan edo eben ikasteetxean ikesi zute anitz. Kristinok oraño badaki euskera, aita eta ama arront euskaldunak zire, baño ain urrun, Patagonian, iduri du ez daikela izen, baño egia eta bere amaren indardatuna ez da gezurra eta Ama Birjina maite zuela biotz guzitik, ori ere egia da.

Petra zenaren umetan, orai duela ogeite emezortzi urte, ila izen ze bizkarretik nabala aundi bat sartu zio aixkide aundienak, bekaikeri aundi zerbaitengatik. Mutikoak zitue emezortzi urte eta bere aita eta amak paratu ziote denda bat, zeren-gatik bizi gisa ori maite zue biotz guzitik. Beltran zue izena. Naigabe aundia artu zute aita eta amak, baño aitaña izen ze gogorra. Eri edo gaixotu ze ainbertze, burua nasi zitzaiola denetik eta beldurrak bizi zire berarekin zirenak, etze sendagilleik agertu ure senda altzuenik, eginal guzia deustako. Erosi zute bertze etxe bat Buenos Aires deitzen den ondoan Palmitas deitzen zen tokian, ia erdiesten zuten sendatzea, baño etzute deus ere erdietsi. Azkenean, ilik arrepatu zuten, niok etzue iakin zetaz, garbi beti iakin nai dena. Gizajua! Goian bego bere guziekin.

Bere andrea bizitu ze oraño urte multxu bat, il ze bere semea Migel... Beltran baño lenago il ze Petrain ama. Bizitu zen denboran eskutitz guzietan iortzen zeko bere amari sos pixke zerbait, berregun pezta. Ondar urtetaik batean bere amaren denboran iorri zio urte batean, bi aldietan, bortzegun pezta aldien. Amak negar egiten zue artzen zue aldi guzietan. Bizi zen denbora guzien ezagutzen ze anima aundi bat doiaz betea zuela. Denendako nai zue gozotasunik aundiena eta beraz oroitu gabe igarotzen zitzaio denbora. Mila bederatziegun eta berrogeita amalaeuan, urriaren lemexiko egunean il ze eta goiz berean, neure aurrekin meza astera zaiela, eta ai nitzelaik eskatzen egun guzietan bezala, eskatu nue izeba Petraindako eta neuroi izitu nitze, zetaz eskatzen nue arendako? Arritua gelditu nitze eta eskatu nue zeruko Aitari zerbait bear bazue bere eskutan paratzen nituela aren gauza eta beardura guziak, eta erran nio egun artan il bear bazue, eskeintze nezkiola bere semearen odol sandua eta odol sanduarekin garbi zezan bere anima zuzen xuxena igo zeien zerura, sekulako argitasunean bizi daien.

Eta osaba bat bizi ze eta arek artu zue ilabete berean eta amabian eskutitz bat erranez urriain lenean il zela bere arreba Petra, eta ikusi gindue nola egin ginduzen

otoitzak ongi eginak zirela. Baño berantago iakin gindue zortzian il zela. Buenos Aires berean il ze minbiziarekin Petraren bertze anaia bat. Izeba bizitu ze Txubut delakoan, Puerto Madrin deitzen denean. Bere anaia Marko berriz bizitu ze *Estación* Olaskoagan eta il ze sendatoki batean Buenos Aires berean, uste etzekitela ez batek eta ez bertzeak zein gaizki zeuden. Osabak utzi zitue amar ume, eta andrea. Zertarako erran naigabe aundia artu ginduela eta meza anitz entzun ginduela denek? Goian beude denak.

### **Irugarren emakumea** (onek ez du bere izena)

Oraiko emakume au sortzez ibar batekoa eta ezkontzez bertze batekoa. Etxealde aundi batetik atera, bertze aundi batean sartu ze. Uste dut etxealde aundia eta bai ere sosdunak. Emakume ederra aurpegiz eta gorputzez eta arront xaloa. Ezkondu ze gizon eskola aundie zuen batekin. Apezgaien ikese txean egon ze aski denboraz eta berez arront abile zen<sup>36</sup>. Bere umeak geienak ortan aitarengana atera dire. Ama izen daike berdin zela, baño ori ez dakit zuzen eta dakidena bakarrik paratu gogo dut. Erraten zute lemexiko umeak aberats gisan azi zuztela. Baño ori ez da gauza arrigarria, geienek egin degu gauza bera, lemexikoendako egiten dire soñekoak, baño berekin azten dire al guziak. Gero ameka ume azi orduko, ia anitz aldiz etzagote ematen guk nai ginduke guzia. Eta alako denborak igaro ditugu! Ori ez da arritzeko, denbora geienetan gertatzen dena da. Ebei bi nexka il zitzaioite eritasunes eta seme bat Españako gerra edo gorrotoan. Bertze zortziak uste dut bizi direla, bat monja edo serora, bortz seurik ezkonduak, eta bide lanean oraño ezkondu gabe.

Etxeko seme zarrena da orai etxeko nagusia, ezkondu ze erri bereko neska batekin, au ere etxealdeko ze. Asi zire ume ekartzen eta iruzkie bezain pollitek, baño urtea gabe il zire lau seurik; seme bat gelditu ze bizik. Aite eta amarendako negarrezko denborak. Aita eta ama il zire aski fite eta nik uste nue beti sobera lan egitea-atik nekatzen zirela, sobera eta laister juaten zirela zeruko Aitarengana. Goian beude.

Erran dut seme batekin gelditu zirela gazteak eta ori ezkondu ze eta, etxealde utzik, kanpoan bizi dire alaba tiki batekin. Ortarako alako etxealden gosea!<sup>37</sup>. Olako gauza anitz gertatzen da denbora ebetan. Ez da arritzeko lan anitz egin ondoan eta naigabeak ozkatuak aunditasuna eta indartasuna ongi negurtua izeten da. Denetan ikusten da zerua irabazteko gisa guzietan andre eta gizonak izeten dute ateratzen zaiotela beren bidera gauza onak beren Aita zerukoa bidera dazin zuzen zuzena. Denetaik ateratzen da zer ikesi.

36 2. koaderno txikian gehitzen du: “Orrengatik batzarre eta ontzenetan aren bearra izeten ze”.

37 2. koaderno txikian dio: “Ortaratu da etxealde aundien gosea”.

## Laugarren emakumea

Aurra nitzelaik ezagutu nitue Angela eta Mateo bere ameka umekin, bederatziz seme eta bi alaba. Bizi ziren etxean, nik ezagutu nitue lemexikoak etxe artan bizi zirenak nere denboran. Bi gaztenak nexkak zire. Tikienak bi illabete bakarrik zitue. Aita Sorogaingo uneia ze. Bere bizi guziko ondar igandean gelditu bear izen zue meza sandua entzun gabe naigabe aundi batekin. Goizean goizik Sorogainera juateko bearra izen zue eta gizon batek galde egin omen zio: Mateo nora guaie ain goizik? Lanera. Eta non duk meza? Eta erran omen zio: gaur sakelan. Eta asteazkenean itzuli omen ze, zerengatik biramonian zen Bestaberri eta nai zue aitortu eta meza osoa entzun. Ola gauzak, arront umore aundian eta onean omen zego. Afarie prestatzen ai zelaik erran omen zio senarrak: zer aur ederrak ditugun! Gero eta ederragoak eldu dire<sup>38</sup>. Afaldu eta andrea baño lenago juan omen ze gizona guatzera eta ereman omen zitue tikiena seaskara eta altzinekoa guatzera. Andreak bildu sukaldea eta aurrain txamarrak garbitu eta juan omen zen beren ganbarara, eta ixil ixila urbildu zelaik guatzera, arriturik ain ixil zegola senarra, bota omen zio eskua eta ezagutu zue argik gabe zerbait gaitz aundi bazuela eta argia-kandela biztu omen zue eta iñarrosi omen zio, baño etzelaik deustarako mogitu, juan omen zen apeztegitira eta deitu zue apezza olietzera zeila eta apezai iduritu zitzaio ilik zegola, baño, ala ere, olietu zue eta egin zute otoitz alde bat Mateoren animaren alde. Erri guziek negar egin zue alako gizon ederra ain aise il zela. Gaixo andre eta umeak!!!

Orduko bi seme zarrenak Argentinan zire beren amaren anaia batzurrekin. Erriko beorzaia etxean zen, seme zarrena ze eta bertze bi zarrenek egiten ziate garbitasun guziak, berdin lixuak nola xagonadak. Angela denbora guti gabe arront gaizkitu ze, *besugo* delakoain ezur bat sartu zitzaio eskutik eta arront gaizki paratu zitzaio. Sendagileak gutiteik etzeo besoa moztu. Gangrena delakoak arront artua. Besoa ebaki omen ziate azpitik gañerano. Elizakoak emanik egon ze. Bi ilabetez seurik il edo biziko artean egon ze. Eta asi zelaik sendatzen, arront gutira gutira asi ze sendatzen. Eta mantxo, baño ongi sendatu ze.

Berriz prestatu zitue iru seme geiago Argentinara iortzeko. Bazire bertz anaia an eta ama laguntzen zute andik eta gutire gutire asi ze burua pizke bat goratzen. Baño, bitartean, bertze bi anaia arront eritu zire, luzetu zue anitz eben sendatzea, iru lau urte bai. Azkenean, an zituen semek iorri ziate denei bear zuten sosa arara juateko. Egun on batean juan zire denak.

Au ere andre inder aundikoa izen ze. Sinismen azkarra, itxaropen aundia eta goi maitasun bat ain azkarra beti, bere buruaz atzendua egoten zena. Umiltasun bat

38 2. koaderno txikian dio: "Mantxike! Gero eta ederragoak eldu dire!"



ain garbia, ez dire ain erraz aurkitzen ainbertze gauza on batean, bere umore ona galdu gabe. Badu denbora puska bat erran zirete Angela il zela eta bere alaba zarrena ere bai. Denak ezagutu nitue eta erakutsi zirete nola bizi daiken ongi Jaunaren legeain barnean. Orai goian beude denak.

### **Bortzgarren emakumea**

Niri emen neure idaztietan paratu dituden guziek ixil ixilik erakutsi dirate anitz, denek zeruko bidia eta bertze batzurenako izen daitzen berdin. Orrengatik idazten ditut beren bizi langileak, beren indar gaitza, beren umiltasun garbia, erranez Jaungoikoarengandik etorriak zutzela gauza guziak. Nik ala uste dut.

Berriz bertze irakasle batzuenatik itz egin bear dut. Emakume ederra aurpegiz eta gorputzez eta aurpegia balin bada animaren ixpildua, anima ere ederrekoa du. Ez dut itzik aski goratzeko merexi duen bezala. Erri batean, baño bat nesken ikasetxean eta bertzea mutikoenean zeude. Gizon eta andregaiak egin zire eta gutire gutire ezagutuz juan zire eta ezagutu zutelaik elkar, bear bezala ezkondu zire. Nik ezkondu ondoan ezagutu nitue eta nik ezagutu orduko bazute iru edo lau ume. Aingeruen Amaren izena zue emakumeak. Nik ezagutu nue merexi zuela nere maitasuna eta beti maite izen dut.

Nere anaiak juaten zire gizonaren ikastegira eta aren bi seme zarrenekin ongi artzen zute. Semetaik zarrena apez egina da, eta nere idurikoz arront apez ona. Bi alabak ezkonduak dire, zarrena kimiko egina da eta senarra ere karrera aundikoa da, geografo eta geologo deitzen dena. Bi seme seurik dire ezurretako sendagilleak eta uste dut irugarren bertze bat ere sendagillea dela, eta bertze bat uste dut diru etxe zenbaitetan dagola. Bertze alaba, nere ustez, Zaragoza alderdian bizi da.

Ume guziak nik ezagutu nituen errian sortuak eta aziak dire, denak izan dire arront abilek ikasteko erakusten zitzaizoten guzia. Etorri edo paratu zelaik Republika, Madriddik bi jaun etorri zire emakume ari galdetzera ia nola zegon eskolaz, ia bazekien aski edo balio zuen inspektora egiteko. Nere etxean bazkaldu zute eta erran zute, galdera batzuk egin ondoan, oraño ez Naparroan eta ez Espanñian etzutela alako emakumeik ain buruargik aurkitu. Oraño bere adin aundiarekin uste dut bakotxak utz lezakela ixilik. Buruargia, biotz aundia, eta anima indartasun aundikoa. Gauza aundi guziak beran bilduak dire, orixe da emakume sandu au. Oraño bizi da, baño nik adine ezagutzen duenak orixe erranen du. Bere senide edo famili guzia ere aita eta ama bezala dire eta anitz aldiz gogoratzen zaide: zetaz ez gara denak berdinek izein? Zein eder litzeken zein baño zein obeak izatea, zein ongi litzeken... Orai Iruñan bizi dire.

## Seigarren emakumea

Badire zenbait senide edo famili beren bizi guzian iduri dutenak zigortatuak, eta geienek ilundura aundi bat agertzen dute beren aurpegian. Baño minak edo oña-zeak utzi bezain laister prest dire berengana urbil direnei ematera beren etxean duten gauzetaik, ustez bere anaian beartasuna botatzen laguntzen dutela. Ezin gogoratu degu ikusi ondorean beren biotzaren aunditasuna nola izan dezaketen alako naigabe aundiak. Nik uste dut alakoek zerua urbil dutela eta lurreko minekin erdiesten dutela beren zeruko toki ederra. Jesukristok berak egin du al guzia gu zerura eremateko eta orai bakotzak, gisa batera edo bertzera, egin bear dugu al dezakeguna. Ezagutzen dut emakume bat ederra eta langilea, ia lautan ogei urtetan urbil, baño naigabez desina. Aurra zelaik oraño, erori zitzaio anaia bat lezera zazpi urtetan, gero il zaizkio aizpa bat, gero bertze aizpa bat, aita eta ama, bertze aizpa bat, osaba eta izeba, gero seme bat ederra, gero anaia bat ogei eta zazpi urtetan. Au karabinero batek Ortzilere Sandu egunean iru tiro delakoak io zute bizkerretik.

Naigabe au etze egundaño atera bere etxetik eta uste dut ezta erritik ere eta, orain egin bearrak iru urte, bertze seme bat, etxea betetzen zuena, erori ze gibelera eta ilik gelditu ze, gizajoa iru aur tikien aite. Ordutik onat ama gaixoa gero eta eroriago dago, ez da erraz itzul daien bere min aundietarik, lan anitz egin du bere denboran, baño gañera egon da naigabez iosia. Batengatik eta bertzeaingatik burua nasixe du eta gaixoai Jaungoikoak lagun dezala. Inder aundikoa izen da, baña osasune juanez geroz, aniz gauza juaten dire. Nik maite izen dut beti, ez dut orai utzi bear maitatu gabe, bearbada ori bear du obeki paratzeko. Jaungoikoak dezala.

## Zazpigarren emakume indartsua

Au Iruñekoa ze eta bi urte edo iru ditu il zela, lauetan ogei eta bortz urtetan. M<sup>a</sup> Karmen zue bataioko izena.

Onei Españako gorroto edo gerran il zekote gizona, baña ez gorrotoan, baizik gaitzes zenbaitek ezin ereman bere etxean zuen bakea, bere andre eta iru aurrekin beti lasai bake sanduan, baño ezin ereman zuenak aren bizitza il zue eta utzi zue andre gaixoa bakarrik. Bakarrik ez, iru aurrekin, bere bizia egin zezan al bezain gaizki, baño naigabe aundien ermean ere Jaungoikoak lagundu zue eta azi zitue iru aurrak Jaungoiko legearen barnean. Erran dut naigabe aundien ermean, eta ala da. Bi ilabeten buruan, usteik gutiengan bere aizpa bat il ze eta bertze aizpa baten gizona bei batek il zio. Gaixo Karmen, ogei eta iru urtetan alargundua eta ainber-tze naigabekin. Aitu izan dut gelditu zela ezin negarrik egin, arront idortua ainber-

tze egin zuelakoz. Beti ixil ixilik, umil umila, lan anitzekin umendako bear zuelakoz egin al zuena, arront langilea eta denei lagundu naiez. Egunoro meza entzuten zuena, eta arrosarioa arratsaldetan Ama Birjiñari. Ola, eskerrak bere animaren aunditasunaikin garaitu zitue anitz gauza aundiak eta gogorak. Barkatzea bere gizonain iltzaleai eta beregatik eskatzea, ez da aundia? Zerura juatea ere egin zue ixil ixila bere bizia bezala. Goian bego! Zein ongi erakusten diguten beren ixiltasunean!

### Zortzigarren emakumea

Udaberria bazaien altzina bere edertasun guziarekin, eta orrilla edo maiatzak utzi zitue bazter guziek lorez beteak, sagoiak nola bide bazterrak. Ur soñuak nasten zire ugalde, erreka nola iturriekin, txori gisa guzietakoak abesti pollitak, eta lore guzien usain goxoak, denen artean iduri zue bildu zirela gizonai beren lanetan laguntzeko..., baño garagarrillan sartuak gine eta bero aundiarekin, arritzen gine ze bero gaitzak ai zen egiten! Etzue eurik egiten eta beldur gine urik izein ote ze. Eta etorri ze San Juan eguna eta, uste bezala, egun guzian aize egua<sup>39</sup> egon ze eta berriz, uste bezala, ude bero andiko izen gindue, besta beroak eta idorrek, denbora arekin belarrak eginak eta etxetan sartuak. Uztaillan ondar egunetako ultziak altzine ziren eta dagonilaren amarreko eginak. Nik ezagutu nuen udarik beroena.

Urte artako dagonilain ogeite amarrean Euskal Erriko erri tiki batean il ze berrogeita bi urtetan zazpi umen ama. Eta ama bat arront ona, zazpi umetan zarrrenak zitue amalau urte eta, il bezain laister, artu zitue bere sei aurrideak eta ereman zitue Ama Birjiñaren altzina eta lenik erran ziote: orai au da gure ama eta gero erran zio zeruko Amari: gure Ama maitea! orai bai zu zerala gure ama, lurrean ginduen jua da zerura, eta gu gelditu gara amarik gabe; otoi, izan zaite gure ama, amarik gabe ez gara deus ere, zazpi aur; ori gara, baño zurekin bagara zerbait eta zure baitan dakegu gure itxaropen guzia, zure egalpean azi gaizke eta izanen gara zure ume maiteak; izen zaite gure ama beti, geure bizian eta eriotzeko orduan.

Erri pollit artako erretoreak erran zigu dena. Nola iltzen eta nola aurrek bildurik egin zioten otoi za amalau urtekoai gogoratu zitzaiona. Apezak erratean negar egin zue. Ala bizitu zire txintxo txintxo beren biziko ordu guzietan. Denetaik bi nexka bakarrik bizi dire. Orduko neskak, orai bat iruetan ogei eta amabortz urtekoa eta bertzea gazteaokoa, baño ez dakit zenbat aurrendako den amatxi. Zarrena ze Irune<sup>40</sup>;

39 3. koaderno txikian “ego aizea”.

40 3. koaderno txikian dio “Lutxi” zela.

au ze arront abile eta langile aundie. Bere aitarendako ze esku eskuña, beti egin naiez manatzen zion guzia. Eta bere anaia eta aizpendako ama bezalakoa, bear zelaik erakusten emakumen lan gisa guziak eta otoitzak ere bai beren denboran. Bake sanduan bizi zire aurrak aitarekin, bai eta beren osaba batekin eta morroi edo muti-larekin. Etxealde aundia ze (eta da). Etxe aundia da eta alor edo lur anitz du, etxe ondoko landak berak sosak balio ditu, gero bei eta beorrak arront onak ditu. Baño ainbertze gauzek lan anitz dute.

Uste dut lemexiko denboretan lixue egiteko erematen zutela erri bereko emakume zenbait eta Irunek laguntzen ziola ikasteko denboran eta, gañera, lixue aundiek izenen zute. Ogia ere etxean egiten ze asteorokoa eta uste dut ori egiten zuela berak, nik adin ortan egiten nue seurik, ama ezongi zelaik. Noiznai karriken ure eske edo mandatu eske iru zarrenak ikusten zire negar egiten. Inezi ere egiten zute. Dolu egingarri ze ain aurrak amarik gabe ikustea.

Irunek etzue bere burue deusteko barkatzen, lan aundienak beretzat artzen zitue. Denbora artan etze etxetan urik orai bezala, eta zenbat ferreta ur erematen ote zitue egunean etxera! Ala bizitu zire zortzi urtez. Juan bear baze merkatuetara juaten ze bere aitarekin, berdin Auritze edo Uartera. Aste batean Uartera jua zire aita alabak, baño Irune etzego ongi eta aski gaizki paratu ze, ia etxera igaro artio arron gaizki paratu ze. Egin zute al guzia sendatzeagatik, baño dena deustan gelditu ze eta, elizakoak artu ondoan, ogeite bi urtetan sandu bat bezala il ze. Bere aitaren negar-rak! Gizajo Juantxo! damugarri ze ala ikustea.

Anaia bat jua ze Argentina aldera eta egundaño ezta iakin zertaz ez den agertu, ez bera eta ez eskutitz bat ere. Bertze anaia Espaiñako gerran il ze, baño bere gurputza ekarri zuten errira, eta bere aita eta amarekin ortzia da. Anai arrebak ere badire toki berean. Aita zortzi ilabete goraberran Irunen gibeletik guan ze. Alabain eriotzak il zue gizajoa! Etxe ortako denak kristau izen dire eta emakume indartsuak Jaungoikoaren indartasunarekin. Denak goian beude!

### **Bederatzigarren emakumea**

Erri berean, eta amar urte ni sortu baño len sortu ze otsailleain lemexiko egunetan bertze nexka bat, lemexikoa ze eta bere ama erri bereko etxealde aundiko alaba ze, eta sos eta lurralde ederra ereman zitue bere ezkontze etxera. Bere senarra ezagutu nue. Gizon ederra eta langilea ze. Baño zein guti balio duen lurreko ondasunak! Nexka tiki sortu berri arek poz guti artu zue bere amatxoin besoetan. Ogeite lau egun zitue gaixoak ama zerura ien zenean eta gelditu ze aitarekin bakarrik eta aitatxi eta osaba zenbaitekin. Eta Euskal Erriko legea ze amak ereman zituen gauza

guziak aurrarendako gelditzen zirela. Bazekite emakume guziek etxe artan etzela bere umeik sartiko nagusi edo etxeoandre. Eta ongi maite izen bear zue gizona an sartzeko, baño gizonak aurkitu zue andregaiia eta ezin obea, aurre maite zuena, bai eta ere senarra eta senarrain aita, denak maite zitue eta, gañera, langile eta ongi so-lastazen zekiena. Eta ongi ezagutu zutelarik, elkar ezkondu zire eta Maritxuk aurkitu zue ama bat ezin obea. Ain ona ze, urteoro egiten zelaik bertze andrearen il urtebetetzea berak manatzen zue apezka meza eman zezan aren animaren alde eta ori bera bizi zeño. Katalinak<sup>41</sup> ongi artu zitue gauza guziek eta arront etxeoandre bere bear zuen tokian egoten zena ze, zentzu aundikoa emakumea.

Donostian zerbitzuan egona ze eta lan gisa guzietarik bazekie eta manatzen nola nai zituen gauzak ere ongi ikasia ze. Gisa ortan aurrak ongi ikesia ze tiki tikitik, aurrari erakutsi zio otoitz egiten bere amarendako eta elkar maitatzen, senide batean bear den bezala. Zentzu aundiko ze eta ala egiten zitue bere lanak zentzueikin. Izen zitue lau seme eta ongi erakutsiak, baño lauetaik bat bakarrik bizi da eta ure frailea da eta Roma delakoa bizi de. Maritxuk laguntzen zio anitz bere amaren tokian zegonari eta arront maite zute elkar. Bere anaik anitz maite zute arreba eta arrebak ere anaia. Maitetuz elkar beti bake sanduan bizi zire denak. Baño Maritxuri eldu zitzaio tenorea denak utzi eta serora juateko, baño etzuke etxe eta lur guziak ereman berak egon bear zuen tokira eta denak utzi zitue bere aitarendako eta aren ondoko bere anaia zarrenaindeko, baño zarrena eta bigarrena il zire<sup>42</sup> denbora gutien barnean, berriz in zitue bere anaia gaztenaindeko eta ala gelditu zire anaian izenean.

Onei andrea il zizeio lenik eta denbora gutin buruan il ze bera, baño izen zue denbora denak bere alaba zarrenai uzteko. Beldurrek egoten ze bere aita monjak saldu eta eremako zituela gauza guziak, baño alabaren buruan etze gogoan ere egon. Zaragozara urbil egon ze monja edo serora deitzen direnak eta bere aita juaten ze ikustera bere alaba eta ikusi zuelaik bizi zirela beartasun aundian, aita negar egiten zue etzuelakoz uste gisa ortan bizi bear zuela bere alabak, beren anaiendako uzteagatik zituen gauza guziak. Nik ikusi izen dut bere aita negarrez bere alabaingatik. Bi emakumeak indartsuak zire emen eta biek bazute goi maitasun aundia. Bakotxak beren gisara erakusi digute nola maite daiken geuren ondoan dagon guziari. Bizi den anaia oraño etortzen da sortu errire eta euskera ez du atzendu<sup>43</sup>. Bertze denak il zire, orai illobak dire bizi direnak eta uden juaten dire ni bezala, aiek gazteak, ni adin aundixkoan, baño maite ditut denak, senide ori beti maitetu ditugu. Orai goian beude denak!

41 3. koaderno txikian “Joxepa” deitzen zela dio.

42 3. koaderno txikian dio “Ameriketari” hil zirela.

43 3. koaderno txikian gehitzen du “Irujarren anaia ori bizi da oraño. Frailea da eta geienean urrunkara bizi da, baño arron euskalduna da”.

## Amargarren emakumea

Nik ezagutu ditut emakume ederrak<sup>44</sup> zuri gorriak, begi urdinekin, beltzaranak, begi beltzekin, langileak, indartasun aundikoak, aundiak, tikiak ere bai, denetaik ezagutu ditut beren lan gisa guzietan trebeak, zenbait erbalak ere ezagutu ditut, baño eritasunain erbaltasunean ikusi ditut indartasun aundi batekin, barnetik eldu dena eta ze umore onekoak izeten dire olakoak! Nondik eldu zaiote umore ori bere barnean duten bake aunditik baizik? Nafarroko erri tiki ebetan ola dire denak, zenbat ikasgarri ateratzen da beretaik! Badire zenbait nere gogoa arront betetzen dutena. Erri ebetaik batean ni aur aurrean baze bat amazazpi umen ama. Langilea bai gaixoa, mandatu guziek berak egiten zitue eta bere senarra juaten ze bere andreak erosten zituen gauzak ordaintzera. Nik egundaño ez nue ikusi sos bat bere eskutan, baño, ala ere, ez nue sekula ikusi asarre niorendako. Ixil ixile bere lanetan (uste dut lana franko bazuela ainbertze umekin) eta beti irri murrizke ezpañetan. Egunoro juaten ze meza sandua entzutera, egundaño ez zue itze erdi bat nioren kontra errain.

Ni baño zarragokoak bazitue bederatzi edo amar ume, baño bakarrak jua zire lurretik zerura, orai bat bakarra bizi da denetan. Bat, nexkakoa, amazazpi urtetan. Arek altzinetik erran zue epaillearen ogei eta bortzean ilen zela Ama Birjiñain eguna zelakoz, eta ala izen ze. Bazema denbora anitz eri, nik uste izen dut ezurretako mine zuela. Amerikan zaldi batetik erori eta ilik gelditu zen zarrena. Oraño jua berria zelaik, bertze bat il ze Amerika eta Mejiko artean, tiroz ila izan ze. Zenbat naigabe aite eta amarendako. Eta ama bizi zeño jua zire zenbait ama, emezortziko gripe zelakoakin il ze. Amalau egun altzinego il ze nere aizpe tiki bat zortzi ilabete inguruan eta erosi zitue zapata zuriak aurrai paratzeko eta eman zire erranez: nik maite dut oitura au. Aurak zerura dazi berean eta laguntzen digute emen gelditzen garenei. Emakume onek beti zue gogoan. *Egin bedi zure naia zeruan bezala lurrean ere*. Eta aise irakurtzen bere begietan nola nai zuen Jaungoikoaren naia egin zaien bere baiten. Zenbat aldiz juaten zen erriko elizara itz oiek berak erratera! Ni aurra izanik ere, zenbat aldiz ikusi dut elizan arratsaldeko iruetan! Ez dut uste egun bat ere gelditzen zela bere jua etorria egin gabe aldareko Sakramentuari, arront otoitz egilea ze eta ongi egiten zuena. Niorendako etzue itz bat gaizki. Denak zire onak arendako. Nik maite nue anitz, bearbada nere amak erraten zuelakoz: ez dakit baden nior ori bezain onik eta neure baitan agurtzen nue. Erraten nio neure amari: andre ori sandua da; eta erraten zire amak arrazoin nuela.

Urriain amekan il ze eta egun ortan elizak oroitezten digu Ama Birjiñaren amatasuna. Berak aur tikiak iltzen zirelaik eskatzen ziote bere laguntza. Nik uste dut emakume onei ere eskatu doikela. Ain xaloa denekin, alako umiltasuna eta indarta-

44 “fierrak” dio 3. koaderno txikian.

sun a bere naigabetan... Egundano ez da nere gogoan atzendu andre onen ontasuna gisa guzietan. Gañera, arritzen zire aren umiltasunak. Bera erostera bear zuen gauza guziak eta egundano sos bat ere bere eskuetan. Emakume gutik eginen gindue, gogoan pasatu ere. Eta bearbada berak ala nai zue... Nik ala uste izen dut. Gogotik eman nezazke beren izen eta abizenak, baño ez dezaket alakoik egin, iakin gabe ongi edo gaizki artuko duen bere alaba bakarrik. Nik au idazterakoan, il de ondar semea eta alaba ezagutzen da alako amain alaba dela. Gaixuak, berak ere zenbait naigabe iretsiak ditu bere denboran!

Ezkondu eta laister ezagutu zue bere senarra etzela sobera azkarra, aski ezongi egoten zela, denbora pusketen buruan izen zute beren ume bakarra eta aurrak bi ilabete zituela jua ze senarra bere sortu erriko bestetara eta gelditu zire etxean andrea, bere aita adin aundiaikin eta bi ilabeteko nextarekin. Baño besta egun berean (senarrain sortu erriko besta egunean) andrearen errian erre ze gabas etxea, barnean zen gauza eta azienda guzieikin. Etxetik iauzi egin zue leio batetik aitag bere zartasun guziarekin. Erriko jendea jua ze gauza ateratzera, baño aurrak bakarrik atera zute, eta bertze erri batetik jua ziren mutil gazte batzuk, eta aitari paratu ziotelamadraka bat aren gañera zeien, baño, ala ere, goraxko ze leioa eta aitag min artu zue aski eta lau ilabetekin buruan il ze. Eta senarra etorri zenean, ikusi zuelaik zenbat erre zen, bere buruai eman zio eta bi illabete gabe il ze. Eta lau ilabetetan aita gelditu ze aur tikiaren bakarrik, gañera bertze naigabe anitz bere aide urbilentaik...

Negar ederrik egin zue denbora aietan, baña emakume indartsuak dena garaitzen du eta uste dut garaituz altzine daiela bere gauze guziekin. Goian beude bere il guziak eta berai iraun dezola bere indartasunak.

### **Amekagarren emakumea**

Orai amalau urteko nexka baten bizi eta eriotzea. Au ze nexka bat ederra, xuri gorria eta begiak beltzaranak, nere iduriko, gaztegi egin edo gaztegi aunditua, nai dezun bezala. Urte berean, baño ni baño ilabete bat lenago sortu ze. Eskola edo ikastola berera juaten gine biak, baño ez ze ni baño altzinago zeiena. Orduko aspaldik utzi gindue eskola, zerengatik etze irakasleik guretako. Ni aurrak nitze aren ondoan, gorputz aundia eta ederra zue nere ondoan arek, luzeago eta zabalagokoa ze. Bera bizi zen barridean bizi ze bertze senide edo familie bat, aita eta ama, lau anaia eta bi arreba. Seme zarrenetaik bat gaizki zego eta ilebete bat zerama arront gaizki, ezin ongitasun pixka bat agerrazi, eta ain gaizki paratu ze, eman ziotela elizakoak gizajoari, eta denbora gutietan deus erdietsi gabe il ze urriain ogeite zazpian. Ilerrian nere ondoan egon ze amalau urteko nexka eta arritu nitze zenbat negar egin zue, ez nue gogoratzen ze naigabe aundia zuen bere biotzean. Neure baiten egon nitze go-

goan artua zein maite zuen onek, baño gisa batera ez nue zetaz, zerengatik barride berekoak eta iostatu eta ikasi eta arat onat elkarrekin..., gañera, nexkaren gorputzan iduri zue amalaukoa baño geiago, iduri zue amazapikoa. Gero erran zute arront maite zutela elkar. Izen daiken gauza da, ez da arritzekoa, eta gizon eta andregaiia zirela. Nik ez nue gogoratu ere alakoik. Ez orduan eta ez orai ez dut sinetsi. Nik uste izen dut aurrideak bezala maite zirela. Betiere, ogeite amarrean ortzi eta egin ziote ilerie<sup>45</sup> mutikoari bizi zen erriko elizen eta arront betea zego, gazteri guzia, an zego Amaia<sup>46</sup> eta, negarrez betea, niok ez gindue deus egiten al beregatik.

Azaroin lemexiko eguna (sandu guzien eguna da), goizeko lemexiko mezara etorri ze Amaia ilun egonik ere, baño ilen obitokitik<sup>47</sup> edo aren ondolik pausu batetik iausti bear zue eta pretrolio argia itzeli zitzaio. Lotsatasun aundi bat artu zue eta desinik ere aitortu ze meza baño len, eta entzutean artu zue gure Jauna eta, etzelakoz gauza geiagotako, mando gañan artu eta ereman zute bere etxera, aita eta ama eta aurriden artera. Etzue deus ere eman onera, egunoro gero eta gaizkiago egon ze abenduaren amalaueraño. Orai uste du atera lezaketela gaitzaren izena, baño orduan niok etzue iakin zer zuen. Eta abenduain amalauerañ il ze, ezin bizi zelakoz eta negar asko egin gindue denek, batzuek maitagarria zelakoz, anitzek berena zelakoz eta ala fundiketu baize alako bizi ederra, erri guziak maite baizue famili guzia eta dolutu baize denengatik. Bertze mutikoain onduan ortzi zuzte, biak elkarren onduan. An aurkitu dire eta beren biztia etorriko da egun berean eta gu egoin gara berengana urbil onak izaten bagara, aiek bezala.

Goian beude bere senide il diren guziekin eta uste du beretan izanen dirala gutas eskatuko dutenak. Guk badegu denen bearra, nere ustez.

Agur denak.

### Amabigarren emakumea

Orai guazi Erroibarko bertze erri batera. Menditardean dago tiki eta pollit eta bereko etxe aundi batean denboraz bizi zire aita, ama, bi alaba eta iru seme. Lan aundiko etxea ze, aita aski osasun eskaxakoa zen eta andreak lagun egiten zio al guzia bere lan geienetan. Bitartean aurrak ai zire azten, eta seme zarrena artzaiña egin ze beren ardiketa zaintzeko, gero bigarrena ardiekin eta zarrena azienda aundi-diagokoarekin. Iru anaiak ez zire aski zuten lanaindako eta bi aizpendako baze lan

45 “ileri” dio 3. koaderno txikian. Eta Mezkirizko elizan izan zela gehitzen du.

46 “Bixitación” deitzen dio 3. koaderno txikian, ez “Amaia”.

47 “zimitorio” dio 3. koaderno txikian.



anitz etxeko lanetan, orduan denak eskuz egin bear zirelako eta ura kanpotik ekarri bear zelako dena. Aitain eritasuna minbizi bat aundia zen eta fite etorri ze eriotzea, eta eginalak egiten zute denen altzina ateratzeko, baño etze aski andre alargun bat bortz aurrekin eta denbora puska baten buruan ezkondu ze gizon alargun batekin, bertze bortz ume zituanaikin. Urte artan lan anitz egin ze beso anitz zirelako, baño guti ireun zue arek. Aurra bearrean zego andrea eta libretzean il ze. Orduan, denbora gutin buruan, juan ze gizona bere bortz aurrekin, eta etxeko bortz aurrak gelditu zire bakarrik aita eta amarik gabe eta mutil bat artzekotan egon zire lanai segitzekotan, baño osaba izebek erran zute: nola utzi bear dugu amazazpi urteko nexka mutil batekin etxean? Obe da ezkontzen bada eta gizonak erraten badu: mutil bat bear dugu. Orduan berak konpondiko dire eta ala egin zute. Orduko gizon langilea eta ongi ikasia ango lan mota guzietan, ezkondu ze Maritxurekin eta au da “amabigarren emakumea”.

Nexka gaztea ze ezkondu zelaik, baño indartasun aundia erakutsi digu bere denboran gisa batera eta bertzera, bere senarrak ere egin zue al guzia senide edo famili ontan, bere goñatuei erakutsi ziote lanak ongi eginez eta orai denak baliosak dire toki guzietan eta ori eder da denentzat. Berek, senar emazteak, urteoro ume bat ekarriz bizitu zire zenbait urtez<sup>48</sup> eta amazazpigarrena izen zute alaba zarrenak ezkondu eta bere lemexiko eta ondar semea izen zuelaik. Izen eta denbora gutin barnean biotzeko zerbait eman zio eta il ze. Amak azi zitue alabaña eta berea. Ez dakit bide edo iru ume il dire amazazpietaik. Senarra il ze aspaldikoan. Seme zarrena eta bertze zenbait juan zire Ameriketara eta etorri eta erosi zue etxeko lankai edo makinak bai azienda indeko, labrariendako eta etxeko ere bai; baño, ala ere, ez da errax andregai aurkitzea eta etxe aundi oiek ez dute etxeoandreik. Emakume gaztek ez dute niok nai juan alako etxe aundi eta lan sobera delako eta beren bizi guzia inelakin lanean igarotzen dute eta ez dute aste bat artzen norapait juateko beren senarraikin atsedean pixkat artzeko. Maritxu<sup>49</sup> ain nekatua egon da, ezur guziak erixko paratuak eta ebakuntza aundia egine du eta maingu da, ume alde orrek utzi zue ezdeustako eta ez da gauza deustako Iruñan. Emen lanera etorriak badire zenbait ume, eta badakit beren nagusiak arront maite dituztela, zenbait ezkonduak direla eta bertze zenbait ez, zerengatik sortu etxera ez da oraño etxeoandreik ereman, eta uste dut beren amarendako ongi etorriko zela, baño... ez da alakorik, oraño.

Martixu bezain langileik eta umilik ez da errax aurkitzea. Egun batez ze zeru ederrean aurkituko den. Ala uste du idazleak.

48 3. koaderno txikian honako hau gehitzen du: “Bere osaba batek erran zio: gaixoa! anitz eldu dire; eta illobak erran zio: Lusarrea bete bear balin bada, bakarrik etorri bear dute. Eta etorri dire eta arront langileak eta umilek”.

49 3. koaderno txikian “Katalin” deitzen dio, ez “Maritxu”.

## Amairugarren emakumea

Orai emagin batez itz egin bear dut, neure sortu errikoaz<sup>50</sup>. Zein euskalduna zen! Deitzen zute bear zuen guziak eta inguruko errietaryk ere bai. Etzekie erdaraik, nik itz bakar bat aitu izen nio neure denboran bertze bati erdi asarez erraten, *mal generacio!* eta irri egin zio. Dudarik gabe, erdara zekienai erran zio eta zerbaitengatik nere etxean denek maite gindue. Nere idurikoaz, ebanjelio sanduko andre azkarrara bezalakoa ze eta uste dut beregana urbil dagola. Zenbat ellari egin ote zue denbora pixketan! Gizon ilupe edo ezdeus baten alarguna ze. Bera lanetik etxera etortzen zenean, bakarretan arreatzen zue almadraka azpian lo. Nik uste dut gizon burugabe bat zela. Ori da andre langileain zigorkada, eta andre gaixoak jua bearke zue lanera eta gogotik deitzen zutelarik, beren umei iatera ematekotan! Ume oiek ni sortu orduko aundituak eta zenbait Ameriketara jua zire. Itz batean, puskaz ere ni baño zarragokoak zire.

Jaketa emaginez mintzo naizen, sor eta sor ondoko oitura batzuk erran bear ditut, eta nola beztitzen zuten aurra. Eta bai ere andre libretu berriari, asten zeneko libretzeko minekin, paratzen zute ura berotzen, bezko aundi bat eta eltzelarriko bat. Iltze zute olloik ederrena eta sartzen zuten bezkoko ur bero beroan eta ekenetzen zioe lume guziak eta, garbi eta idortua zelaik, garbitzen zute olloa barnetik, olloa eta lepoa eta egal bat botatzen zute ura irekiten zegoen eltzera. Eta oiña ongi garbitzen zelaik, botatzen zioe purru denbora balin baze, bat ongi garbitua, perraxil puske bat, baratzuri pikor bat, gatza eta kanela deitzen den makil puske bat botatzen zute eltzera eta, ongi irakin ondoan, gibelatzen zute eltzea. Salda ona ateratzen da eta arront garbia. Su inguruan paratzen zuzte larriek edo maindiriak ongi idorrek eta epelak denbora berean, edo beroak otz denean. Au bera egiten ze aurrarenekin; ola aurra sortu orduko garbitzen zute ongi eta paratzen zio bere soñekoak, gisa ontan beztitzen gindue aurra: lenik txatar txiki bat gisa ontan xilo bat egin, xilotik ateratzen zen xilkoa, gero ganetik paratzen zen txatar beretik estalik xilkoa, gero gañetik sangirio oial batekin, bide edo iru inguro alde ematen zioe beraikin aurrari, gero paratzen zitzaio atorra arizko bat me meia beso maunkekin eta gañetik iaka edo kamiseta lodixeokoa, gero txatar aundixkoa, bana bat alde batera eta bertze bat bertze aldera eta ileuriko [sic] bat negurri berekoa eta aurrain lepoain erditsutan artzen zitzetzeio eta ezkerreko besoa paratzen zitzeio aurraren gorputzaren kontra, lotu xerrenda batekin; berdin eskuñeko besoa eta, oiek ongi lotuak zeudelaik, artu anka ezkerreko, inguratu banaka bi anak eta lenik txatarraik eta gero ileurikoekin [sic] lotu zerrendarekin eta gero zerrendak daraman kordarekin lotu ondarra.

50 3. koaderno txikian gehitzen du: “Martinoxepa (Martina Josefa erdaraz) zuen izena”.

Gisa ortan beztitzen zire aurrak iru ilabetetaraño. Iruetaik lauetara besapetik lotzen zire, eta erraten ze: besoak atera diogu ain aurra zelaik. Eztul puxka bat egiten bazitzeio, orduan ollo urineikin igortzi edo gantzutu iten zitzeio aurrari bizkarra eta bulerra. Erraten zute segido sendatzen zirela. Amari etzute anitzek libretu zen guaztea aldatu nai amar egunez. Ez dut ikasi zetaz nai zuten alako zikinkeria iduki beren azpian. Nere amari segido aldatzen ziote, zerengatik erraten zue: ni garbitasunak garbitzen dire. Zenbaitek erraten zute nere ama eroa zela, zerengatik etzue zikinkeria maite nion ere. Nere amak aurrei garbitzen ziote burua eta egundaño etze gure buruetan kostra zikinik eta bertzek erraten zute bateioko doi bat zela.

Aurra al baze bateiatzen ze biramonean, eta bataioko denboran, eskolako aurrek otoitz egiten zute. Ama Birjiñari arrosarioa. Bakarretan eman dut! Bateioko aitaxi eta amatxi izan bear zutenei gaztiatu zuenai, bakoitxak bortz peztako bana eman bear ziote, aurraren amari bakotxak ogeite bortz pezta, aite eta amatxi lagunek amabi ta erdi bakotxak amari. Apezai ere aitetxik erdizka amatxikin.

Bazkal ondoan etxea izaten ze kontu egitea, emaginak erraten zue zenbat eta zer eman bear zuen bakotxak. Oiturak ziren bezala. Nik egin dut Iruritan eta Mezkitritzen izen nai bateioko amatxi eta gutiz gorabera oitura berak zire, bearbada Mezkitritzen gexago eman bear ze. Mezkitritzen bataiatzera erematen du aurra emaginak, eta Iruritan amatxik (bateokoak). Gauza ebek orai duela berrogei urtekoak zire eta anitz lenagokoak ere. Orai dela berrogei urte ile ze erraten ai nitzen emagine izen ze bertze bat, baño nik emagin bezala ez nue funsik ezagutu; nere izeba ze eta izeba bezala maite nue. Andre batek aurra izeten zuelaik, berrogei egunez etzeike etxetik atera, nik ikusi izen dut tella bat buruan paratuz atarira iausteko. Badakit arront aurra nitzela, baño oroitzen naiz.

Nere ama ogei egunen inguruan ateratzen ze elizera, amatxik aurra erematen zue eta berak kandela elizako eta ogi eta ardoa apezarendako. Egin bazue amatxik laguntzen zio emaginek. Aski aur bagine eta baze lana denendako. Bateian ere erematen ze kandela ederra eta bateiatzen zen aurrak ez bazue anaia bat, bataio sanduaren denboran kandela biztue idukitzeko, idukitzen zue lengusu batek, neretako ala iduki zue ni baño zazpi urte zituen batek. Nere aitaren arreba baten seme zarrena ze. Denbora anitz juan da ordutik onat.

Erran duden emaginek<sup>51</sup> ez zue aur sortu berriak bakarrik beztitzen, ilak ere berak beztitzen zitue eta denei maitetasun aundi batekin. Ola ze ure. Saritzen zitzaiola? Baño badire anitz gauza ezin direla aski saritu, eta arek egiten zituenak ala zire nere iduriko, ezin sarituak. Baño denendako zer indartasuna zuen berekin!

Jaungoikoak ordaindu dezola berak dakien bezala. Goian bego.

51 Berriz ere dio "Martinoxepa" zela.

## Amalagarren emakumea

Orai bertze emagin batena. Au ere bere sortu erriko emagina zen. Nik ikusten nuen guzietan, irri goxoa ezpañetan, begiak gozotasun aundi batekin; iduri zue zerutik iaustsia zela. Ume alde eder bat bazue... amar bat? Ez dakit, atzendua nue baño, nere iduriko, geiago. Denak bixi bixiak eta langile aundiak. Maurgi denboran, amak berekin erematen zitue ume geienak, eta biltzen zitue anitz. Eta guk biltzen ginduzenak denak erosten zitue eta iortzen zitue Iruñara<sup>52</sup>. Menditik etorri eta soñekoz aldatu eta oñetakoz ere bai, eta erematen neizko bere etxera. Pizetu eta ematen zire merexi zuzten saria eta itzultzen nitze etxera. Arront arin eta gozoki, nekatua banitze ere etortzen nitze etxera, zerengatik nik uste baño geiago pisetzen zute eta geiago sarietzen zitue. Biramonian geiago biltzeko nai aundiarekin etortzen nitze. Nere amak eta amatxik maite zute anitz, nik uste baño gauza geago ote zitue berekin? Izen daike baie. Badakit arront emagin ona zela, bai eta ere garbitasun aundikoa.

Anitz aldiz aurpegia dena kolpatua egoten ze eta beti ixilzen zue zetaz zituen kolpe aundi aiek. Batzuetan zurubi edo eskaleratik erori zela, arropero zenbaitei io zekola dena ixilduz al guzia, baño bere barride edo auzoan erraten zute: a gaixoa! senarrak io dio, atzo artsean edana zego eta Jaungoikoak daki zer gaba eman dion, oi u eta zalapartak eta gañera zanpatu du. Baño berak nola etzuen erraten deus ere, gogoratzen zitzaiole denei gezurra zela, baño seme zarrenak aunditu zire eta aitari io zioten, iokada aundi bat eman ziole amari ez ukitzeko erranez eta aundiagokoa emanen ziotela, eta erraten zute etzela geiago kolpatua izan. Aitak ardoa utzi zue eta andreak gau txarrak ere, ia etze geiago erori eta bakea etorri ze etxera. Gizona eritu ze eta etze sendatu geiago. Ez dakit, baño uste dut bide edo iru urten buruko il zela eta bake aundiarekin bizitu zirela gero. Erran zute gizonak eritasun aundi bat zuela. Beti egartsu aundi bat izaten zuela eta ezin garaitu zuela egartsu ura, baño bere andreak egundaño etzue deus ere erraten bere senarrarendako.

Olaxe zire Erroibarreko emakumeak eta bakar batzuk bakarrik aipatu baditut ez da bertzeak ez diralakoz onak, ez. Denak onak dire, baño aide anitz baditut beretan eta ez dut nere senideik aipatu nai, al badezaket bertzeekin bete nik nai dutenak artio. Baditut Baztan aldean zerbait erran bearrak. Batetik eta bertetik denak ezagutzen ditudenak dire indartasun aundikoak, nik autatuak, nere ustes on aundiak egin diretenak beren bizi sanduarekin eta nai nukena da irakurtzen duten guziek beren biotzetan aurki dezatela nik berekin nindegolaik aurkitzen nuen gozotasuna, orren-gatik bakarrik ekartzen ditut neure idatzi ebek. Orai itz egin nai dut Iruritako emaginaz, eta izanen da andre au Salbadren [sic] izeba.

<sup>52</sup> “Iruñera” dio 3. koaderno txikian.

### Amabortzgarren emakumea

Nik ez dakit zer duten Euskal Erriko emaginek. Iru ekarri ditut neure idatzi ebetara, zein baño zein obeak. Iruiek alargunak, beti ongi egitera prest direnak, berdin gabas nola egunez. Beti irri inezi naiez beren ondoan diren ezongiei beren osasunean. Langileak. Niri erriko sendagilleak iorri zire berak eta ikusi nue obearik etzela izaten al. Bere kontuak edo bizimoduak erraten zire, baño bertzen gauzetan etzue itz bat erranai, etzue zetaz eta ixilik gelditzen ze. Berak bazue denbora alarguna zela, eta ezagutzen ze arront maite zuela bere senarra, baño gelditu ze bi semeikin eta irugarrena berekin zuela, lau ilabetein buruan izen zue nexka bat. Gañera, berak bazue anaia bat, elbarritue ez, baño nere ustez makurrego, ez andre eta ez gizon; berak garbitu eta iatera eman, buluxi, beztitu, dena bere kontura. Gaixoa, zenbait lan egin zitue iru aurrek azteko eta beren bidea emateko! Seme zarrena ze arron abille eta irabazi zue ikasteko saritu gabe beka deitzen dena, eta argisko ikasi zitue erakutsi guzia eta egin bere *carrera* erdaraz erraten dena, baño iatera eta beztitzea amak egin bear zue bera lanean asi artio eta egin zio al guzia eta semea lanean asi ze burdinezko egalarietan eta arront ongi bizi ze. Ezkondu ze eta ez naiz oroitzen zer ume zituen, baño denbora anitz gabe erori ze burdin egazki ure eta berean zezin lau edo bortz jaun denak su garretan erori zire eta denak ilik gelditu zire. Gaixo ama!, baño berak erraten zuen: gaixo andrea eta umeak! Egazkiñain ixtripuak denak desin zitue. Zenbat negar egin den lurrean istripu oiengatik! Ama onek etzue denbora anitz izen lurreko bizian. Laster autsi zue atake deitzen den batek burure eta anka moztu ziote, baño bertze bat eman zio eta arek bota zue lurpera. Toki guti aski izen dut alako bizi lanez betea idazteko, Maria beti bezala guti aski zindue. Nik, berriz, dena nai dut zuretako Jaungoikoak eman dezazula merexi duzuna bataindeko [sic] egun; berak eskindu zuen bezala. Goian bego!

### Amaseigarren emakumea

Iruritan ezagutu nue neska bat berrogei urte ingurukoa. Aixkidetu gine eta nere aixkedetaik oberenetaik bat ze. Eritasun zarra aski zitue eta, alare, umore onekoa ze, Jaingoikoaren lege sandua ongi betetzen zituena. Nik laister maitatu nue, maitegarria zeralakoz. Beti eskuak beteak beartasuna zenean... Onek garbitasun aundiarekin kontatzen zire bere bizia, baño bizi guzian jua ze egiaren eske, kontu zikinik gabe. Monja edo serora izen naiez igaro zue bere bizi guzia. Lenik, bere ama eriarekin eginalak eginez jua ze denbora puxka bat. Il zelaik, juateko asmoan prestatu ze, baño bere sortu etxeke aizpa zarrena (ezkondua) il ze usteik gutienean biotzeko min batekin. Il baño lenago eskatu zio erranez bera bazaiela eta aren bi aurrak zaindu zizkiela, bere eskuetan uzten zituela eta uzteko serora juatea, lenago zirela aur aiek

eta itze emanazi zio eta aurrekin egin zue al guzia. Gaztena, nexka pollit bat, zazpi urtetan bertze biotzeko min batekin egatu ze zerura.

Gelditu ze mutiko batekin eta bere goñatu alargunaikin bere sortu etxean, goñatuak nai zue ezkondu beraikin eta anitz aldiz eskatu zio eta berak erraten zio ezetz, etzeiela bide ure autatua bere biotzean, etzelakoz beretako egina. Bere illoba arekin egin zue al guzia, eskola etxetan ongi ikasi zue bere bizibidea irabazi eta ongi bizitzeko. Baño ederrenean zegolaik, eta iduri zuelaik bazuela bizia saltzeko eta guzia, bere ama eta arreba bezala, ustei gutienez, juan ze negar anitz utzik bere ogeite lau urtetan. Bere seme batek etzue desinego utziko. Aski erixko gelditu ze, berriz obekitu zelaik, asi ze berriz kontu berarekin serora juan naiez, baño bertze aizpa bat ezkondua eta zortzi umen ama arront gaizkitu ze eta ilabete pare batian berain zaintzen egon ze, baño aizpa eriak ezagutu zuelaik il bear zuela, erran zio: ni iltzera nuaie eta nere umeak amaik gabe gelditiko dire, nior ez da zuk bezain ongi zainduko dituenik, egin zazu al guzia berekin kristau onak izen daiten eta gizon eta andre sanduak beren etxetan.

Eta gelditu ze zortzi illoba eta bi goñaturekin, zerbait egiten zue denekin. Lemexiko goñatue, ni an nitzen batez, agorrain amalauan il ze. Bere andre, alaba eta semea bezala il ze, bere edertasun guziarekin. Erri guzi gelditu ze bat ina. Bere bertze goñatuak bazue denbora gaizki zela eta bi ilabete gibeletik juan ze, bere aur guziak bere goñatai utzik. Gaixoak! maite zitue bere illoba guziak eta egin al zue zuzen zezin gurutze sandak erematen zioten bidetik. Mutiko zarrena ezkondu ze erri bereko nexka on batekin eta bazute ume zenbait. Bigarren semea ere ezkondu ze eta izebak artu zue bere sortu etxera nagusi eta uste dut izeba il baño len bazutela lau seme alaba, bi illoba neskak monja edo serora dire.

Bertze illoba neska ezkondu ze eta bazue aur zeinbait. Amalau urtetan il ze mutiko bat, gero uste dut badirela bertze bide mutilzarrak, orai gaztena etxe aberats batean dago txofer delakotako. Zuzentasunean azi zire denak eta uste dut, ez badire bere izebaz atzendu, ongi dazile bere asikeko bidean xuxen xuxena. Baño izeba<sup>53</sup> ere juan ze Jaungoikoarengana. Neretako arront ona ze, aurrendako bakarretan egiten zire soñeko tikiak, nere aurrek bear zuten gisakoak. Eta egiten zitue nik iakin gabe nere umendako zituela. Bera iltzen ai zelaik, juan nitze bere etxe eta gelara eta nik ez nue batre ezagutu iltzen ai zelaik, Jesusen Biotzai eskatzen zio bertze edozein egunez bezala, eta etxetik atera eta ordu erdi bat baño len erran zirete il zela. Ni arrituik gelditu nitze, ez dut uste izen nitzela geiago etxe artan. Ze mine artu nuen erran ziretelaik! Baño noiznai zerura juateko tenorea zue. Minik aski izen zitue bere bizian eta uste dut atsinertu zuela zeruan sartu zelaik. Goian bego eta andik lagun gaitzela erdiesteko gure biotzak nai eta bear duena...

53 3. koaderno txikian dio Martina zela emakume horren izena.

## Amazazpigarren emakumea

Erri berean banue bertze adiskide bat neskazarra, orai lauetan ogei eta amarretara urbil dena. Ebek biek bakarrik, ongi itz egin zirete neure senarraz. Bere etxekoek ere etzirete ain ongi solastu neure senarraz ezkondu onduan. Eta bertzek zetaz ez? Orrengatik niote biei maitetasun aundi bat eta denborain buruan ezagutu dut biok egiarekin mintzatu zirela. Ola ezagutzen da jendea. Nik jua bear nuke bera dagon tokira ikustera, baño nere etxetik urrun da eta nere senarra ezin utzi dut, burua nasixea du eta lagunaiki egoteko obeki dago bakarrik uzteko baño. Emakume au ere arront azkarra izen da bere bizi guzian, baño ez osasunez, zerengatik lan aundia eman diote bere ezurrek eta bizi guzian, eta azkenean anka bateko ezurra autsi zue orai duela lau bat urte eta, al guzia eginik ere, ez da sendatu, ez da lotu ezurra ezurraikin eta adin aundia du lotzeko ere eta an dago Beartasunen Aizpekin (*Hermanitas de los Pobres*).

Ez dakit egun batez jua al izanen naizen... gizona utziz norbaitekin. Lan anitz eta aundiak egin ditu bere bizitasun aundi ontan. Bere aizpa ezkondu batekin bizitu da bere denboran senar emazteak il artio, eta gero bere illoba apez batekin anka autsi artio baño, ez sendatzean, antxe dago, zerengatik lan anitz eginik ere, etzago deus gelditu bere zarrerieindako, nere gizona bezala. Lenik bere aiteindako, gero anaian-dako eta gero illobendako, biek berdín, niok ez ditu saritu beren zarreriendako eta ala gelditu dire deus sarik gabe, ezin iokatu niorat. Nik ez banu lan egin, gauza guziak ongi egin ondoan, nai eta alabek emateko lana izein zute, baño ederrago da bakotzak berea izetea bere ondar denborako.

Ori da oberena, baño zenbat igesi dire ordaindu gabe ez eritasunendako eta ez zarreriendako, gaizki egina, orrengatik gelditu dire anitz elbarritu deus ere gabe. Eta adiskide au bizi da oraño eta uste du ongi zaindua dela Jaunari eskerrak.

Anparo neskatxa garbia eta ederra, gañera, indartasun aundikoa bere ontasunain. Iru edo lau aizpe seurik bazire, ama aspaldixkoan alargundua zen eta bazire bi alaba bibiroak zirenak, ebek aski zire beren ama ongi zaindua eta apaindua idukitzeko. Nik ezagutu nituelaik, amak bazitue urte alde bat. Batekin bizi ze eta bertzea zerbitzuan egoten ze amari emateko beartzuena, ola bizi zire iruak. Zerbitzuen zego Anparo eta bazute batek eta bertzeak nork nai zuen ezkondu batekin edo bertzearekin, baño ez bat eta ez bertze ere prestatzen ortarako. Baño egun batez, etorri ze amarengana eta erran zio irakasle bat alargun gelditu zela ameka umekin eta, niorekin ezkontzekotan, arekin eginen zela. Lan anitz egin zeikela senide edo famili artan. Amak irri pixket egin zue, etzue sinetsi deus ere nola egin, egin zeikelai sossdunaikin eta ume gabekoarekin... oik utzi eta ameka ume zituen alargunai-kin... Ez, ez ze sinesgarria... eta ala erran zio bere amak, baño berak gogoan artu

zue zer egin eta asi ze bere gauzak egiten eta prestatzen eta egin zue egin bearra. Ikusi zitue aur guziak arront arropa zikin eta autsiekin zeudela eta egin zue garbi alde aundi bat egin zue eta dena eskuz. Gero konpondu zitue arropa gisa guzietatik, etxea ongi garbitu zue eta, denak ongi zeudelaik, ezkondu ze Anparo Joxe Antoniorekin.

Ikesetxea ere garbiturik, ongi zeudelaik gizona arront garbi eta konpondua zegola gogotikago erakusten zue aur guziei eta andrea asi ze bere senarraren umei erakusten bakean nola bizi deiken, gustuara bakean. Gaizki egon zire aur gaixoak aitarekin bakarrik zikinak gainduak zeude eta ain guti denboretan ikusten zute zer garbi zeuden eta beren aite lasaitzen ai zela... iduri zue bizi berri bat sartu zela etxe artara. Baño pozez beterik zeudelaik eta Anparok uste zuelaik bere ume bat izen bear zuela, egun batean, gutik ustenean, ilik gelditu ze Jose Antonio. Andre tristearen negarrak!... baño erraten zue: zein maite ditu Jaungoikoak aur ebek ama bat eman diotela aita ekentzeko eta etzizitzeio gogoratu ere ameka aurrak uztea beren gisa, ez. Egin zioten al zuen guzia eta ikastola zuten tokira ikesi zezaten al guzia, bitartean etorri ze bere semea, aur bat xarmenta, semea eta ederki azi ze bertzeak azten ai ziren denboran. Gaixoa Anparo! gelditu ze etxea aurrez betea eta aitarik gabe, baño etze deustako ere lotsatu, an zire Ama Birjiñe eta Jaungoikoa lagunduko zutenak beren bizi guzien.

Sobera ongi ikusten da zein maite zituen Jaungoikoak aur alde ura, aita ereman baño lenago eman ziotelaik ama bat ain ona. Aita irakasle zelakoz, ume bazuzte doi batzuk eta denak bilatu zioten ama berri onek eta bakoitxai bear zuenain tokian. Bide edo iru mutiko irakasleak zire beren aita bezala. Neskak ere iruek egin zire irakasleak eta gero monjak egin zire. Bertze mutiko argin ona egin zen eta amak negar egiten zue, zerengatik berak autetu zue eta amak nai zue bertzeak bezala izein zaien, baño berak erraten zuen argin bat onak geiago irabazten zuela bi irakaslek baño. Eta egin zue nai zuena. Eta bere semea egin ze gizon arropa iostune eta ikasi zue arront ongi eta ori obe da. Argiña egin zelakoz, amak negar egiten zue beldurrek, min artuko zuela beldur zue. Arront maite zute elkar eta denek amari, etzelakoz ugezama<sup>54</sup> izen berendako, baizik egizko ama bat ona, denendako berdin.

Ezkondu zire zenbait eta arront ongi prestatuak atera zire etxetik eta ongi ikasia lan mota guzietan, bere etxeak ongi idukitzeko. Orain ez dakit bizi diren edo ez denak, bai aurrideak eta bizi den ama. Bada denbora ez dudela nior ikusi, baño makur bat izen bazute iduritzen zait aituko nuela. Nere idurikoz, Anparo andre indar aundikoa izen da eta gisa berekoak izein direla alaba guziak. Jaungoikoak gorde dizkiela bere izena, gora dezaten mundu guzitik. Ala izen daiela.

54 3. koaderno txikian "ugazama" dio.



## Emezortzigarren emakumea

Indartasuna ez da aise erdiesten. Sinismen, itxaropen eta goi maitesun aundia bear degu geuren baitan. Egia da doi guziak eldu zaigula Jaungoikoarengandik, baño ez badegu sinesmenik, nola eman bear digu bertze doiak? Nere idurikoz, be-arrezkoak dire onbide oiek eta ongi eginen dugu goizoro egiten baditugu otoitz batzuk bedere, erdietsi dezagun gero eta onbide geiago, gure biotzean azi deien gero eta ontasun geiago, geuren onetan eta gure ondoan bizi diren onetan ere.

Eta orai itz egin bear dut emakume batzuen indartasunaz ikusi dudelakoz nola denen gañetik erdiesten zuten beren bizian garaitzen zuten beren metasuna<sup>55</sup> zenbait gauza aundietan, baña bizi llagurreagokoan. Eta bertze batzuk, oraño bizi direnak eta xuxentasunik aundienean beren denboran. Ezagutu dut Joxepa gaixoa aur aurretik langile porrokatue zena, bizi ze bere aita eta amarekin ebek il artio; eta aski<sup>56</sup> nexkazarra ze ezkondu zelaik, eta esaera zarrak erraten duen bezala: *neskazarrak aurre kolkoan*. Ala izen zitue denbora gutietan iru aur eta gaztena sortu ze maingue eta, gañera, bitartean senarra maingutu zitzeio, gaixoa! Bere alorretako labrantza egiten zue al zuen bezala. Nik ezagutu nue gizon ure laisterkari ona, unei zego errien eta beiak jua zitzeizko berak nai etzuen tokira eta andik ateratzera jua ze lasterraldi aundian. Aurra nitze, baño ez nuen gogoan pasatu ez nuela sekula geiago ikusiko, ez nuela sekula laisterka ikusiko..., baño ala izen ze. Gero beti ikusi nue bi makuloren gañean.

Eta andre beti lanean, bertzendako lixue eta xagonada aundiak egiten goizetik artseraño lanean, iatekoak eremateko bere gizon eta umei, beti sendagille batetik bertzera, nondik eta erdiesten al zuen sendatu zerbait bedere bat edo bertzea, baño dena alferrik, sekula etzue deus ere erdietsi. Nere anaia batek beztitu zue gizon ura il ondoan eta erraten zue etzuela beñere ikusi ainbertze ebakiondoin erretoak gorputz batean, denak aunditsuak izenak zirela. Zerbait pasatu zute senar emazteak bizi arraskatu artan. Nik maite nue anitz andrea, ain xuxena ze! Baño errian ere badakit igande batean erriko gizonek laguntzen ziotela labrantzako lanetan, denbora ortarako zegolaik.

Seme maingua ere etze sendatu deus ere, baño zapatari egin ze eta Mauleon Franzieko aldean bizitu da eta lan anitz izeten zen alderdi artan eta uste dut langilea zela. Iru umetaik etze bat ere ezkondu eta bizi dire zarrena eta gaztena, bigarrena il ze, nere ustez sobera langilea. Gorroto denboran giltzepean iduki zute alaba zarrena eta denbora ortan il ze ama eta abantxu zelaik galdera egin zio bere goñata batek:

55 3. koaderno txikian “meatasuna” dio.

56 3. koaderno txikian “franko” dio.

baduzu beldurra? Ez axolaik<sup>57</sup> ere. Arrazoña berekin zue. Nortaz izen bear zue beldurra? Eteie bere Aita maitegarriena ikusi bear zuena eta bere kontuak artu bear zituena? Etzue bere denbora guzie lanean arront nekatua pasatu, beti gogoan *egin daiela zure naia zeruen bezala lurrean ere*, eta erraten ixil ixila eta nik uste dut pozez betea zegola Jaungoikoaren besoetara zelaiekoz.

Goian bego bere senide il diren guziekin!

### **Emeretzi eta ogeigarren emakumeak**

Orai ama baten eta bere alabain bizia.

Ama Juanatxo ze, andre tiki xuri gorri pollita eta beti umore on bat zego berekin. Gauza anitz egin naia. Bere etxera juaten zena etze egundaño goseak aterako, agotik eta begietaik sartiko zue al bazue, beti irriz, irri eta aurrak bazire naiago, an zego bera agora emateko eta aseik iortzen zitue etxera. Galdera pollit batzuk egiten ziole aurrei gustoara egon zeizten. Berak bazekie aurrek beren etxetan talo eta esnea iaten zuen eta orduan ematen ziole katuli bat esnez eta ogi zopaz betia. Prestatua egoten zen goiz goizean, esnea egosi berria zelaik, ogi zopak botatzen zitue bezko batera eta an egoten zire aurrei eman artio eta eman zozu sei urtetaik amalauetara. Bai eta opil bero bat erditik egina, artean sar zaiezu gasna guria, ikusiko duzu zein gogotik iaten duten. Arek bazekie zer adinetan zer iaten zuten gogotikago eta, bate-re galdin gabe, paratzen ziole altzinean eta pozez betea egoten ze zein gustoara iaten zuten.

Etzire oraiko denborak, orduan denetaik iaten zute, baño orai ezin ianazi egoten dire, ez dute gizendu nai ez mutikoez eta ez nexkek, eta ez bada bere gogokua ez da iateik. Baño Juanatxo etze denbora ebetakoa, aietakoa ze eta bertzei asetzea maite zue.

Juanatxok bi alaba bakarrik zitue eta biek ama bezalakoak zire, onegiak, beti artu baño geago ematen zutenak beren bizi guziko denboran. Bat Mikela<sup>58</sup>, amaren ondoko egina, eta bertzea Fermina, ori bertze erri batean ezkondua da. Lemexikoak bazue ume alde bat, ez dakit zenbat ebetaik ezagutu ote zituzten aitatxi amatxiek. Badakit aitatxik ogeite emezortzi urte baduela ilik eta amatxik ez dakit. Baño uste dut sandu bat bezala juan zela lurretik zerura eta an ere al badu, bear duenik balin bada, eginen duela al guzia. Zein gustoara ote dagon an! Goian bego!

57 3. koaderno txikian dio "Ez eta dardarrrik ere".

58 3. koaderno txikian "Mikaela" deitzen du.

Erran duden bezala, Mikela bere sortu etxean (etxealde aundia) gelditu ze etxeoandre eta uste dut ameka ume segurik bazituela. Aren ondotik seme zarrena (nere ustez) gelditu ze nagusi, bazire bi alaba edo iru zarragokoak. Beti uste izen dut arront emanzaleak zirela, azi zuztela ume anitz azi zuztela eta, ala ere, artu baño obeki utzi zuela etxea bere gauza guziekin. Aldarte oneko etxeoandrea ze. Zenbat aldiz ikusi nuen Iruñen eta arront euskera garbian itz egiten ginduen biek. Nik baño geiago bazitue amairu urte eta beti maite izen nue. Il zelaik, bazue seme bat apez, lau edo bortz alaba monja edo serora, lau seme alaba ezkondua (ez badire bortz), denak osasun onekoak eta ontasuna ere amaña iduria. Badu urte batzuk il zela eta oraño bere senarra bizi da eta aski azkar oraño. Aur aurretik euskeraz itz egiten nue beraikin, etze erdarara juaten nerekin, euskeraz asten bagine euskeraz, euskeraz ze gure ondar itze.

### Ogeite batgarren emakumeak

Andre au ere ongi ederra ze, xuri gorria, begi ederrak eta urdiñak, eta gisa guzitik gorputz eta anima ederra, neure iduri guzietan. Bere gazterien irakasle ona egin ze eta maite zue erakustea etzekienai. Irakasle azkarra ze. Erakusten ongi ikasia, maitetasun aundiarekin, eta nexka guziak maitesko zuten. Berdin erakusten zue Eliza Ama Sanduaren lege guziak nola ioste eta eskulan guzietatik, eta bai eta ikastoletan erakusten zen gauza guzietaik. Eta ala jua zire urte multxu bat. Baño bere bidea etze ori. Denborain buruan asi ze solas egiten mutil eder eta euskaldun jator batekin, baño niorek etzue uste solas aiek aldatu bear zutela Mari Antonin bizia. Mutila etxealde aundiko nagusigaia ze. Nok uste izein zue irakaslea utzi etxealdako lanetara jua bear zuela? Etzute uste, baño ez batei eta ez bertzeai ezizegote deus ere, gutire gutire ezagutu zute elkar eta gero eta geiago maite zute bata bertzea, eta irakasle on ure ezkondu ze etxealde aundi batera, bereko seme eta nagusigaia zenai-kin. Ezin sinetsi zute anitzek nola ezkondu ote zen irakasle on ure labrari batekin. Etzute ikusten ain ongi zegolaik, maitetasun aundia zegola bien erlean. Arront bikote edo matrimonio ederra egiten zute biek. Ederrak, langileak, onak eta bizitu zire maitasun aundian. Izen zuzte amar seme eta lau alaba eta denak ederrak, langileak eta onak, aite eta ama bezala.

Egunoro ikusi dut anitz aldiz afalondoan. Denak biltzen zire sukalde aundi artan, arrosarioa<sup>59</sup> ematen zue amak eta denek erantzunten zute, denek, zer edertasuna! Afaldu baño len, iaizten zute bei guziak edo iaizti bearrak. Bateik beiekin, bertze batzuk txerriekin, bertze batzu ardi eta bildotsekin, denak lanean izpiritu

59 3. koaderno txikian “errosarioa” dio.

beraikin. Ezta errax ongi buruz artzea anaia guzien biltasuna eta maitetasuna. Ezagutu bear zire denak eta geldituko zire erranez: zein onak diren denak. Nik ala uste izen dut beti. Alabetaik bat tikian ile da, bertze bat monja edo serora da aspal-dien. Semetan il dire iru, zazpi bizi dire. Batzuk ezkonduak eta bertze zenbait mutilzarrak. Lan guzietan ikusi ditut berdin neskak nola mutikoak, berdin etxean direnak nola Mejikon zirenak eta iru ilabetekako etortzen zirenak aite eta amikin egotera. Ni arritzen nitze zein ongi konpontzen ziren elkarreki... Ama il ze aspaldik eta senarra bizitu ze geiago, baño il ze alabain senarra eta bera, denbora gutien barnean il zire biek.

Ezkonduen andreak ezagutzen ditut eta denak arront onak dire, merexi duten bezalakoak. Iru seurik beren sortu errien ondokoak. Oietaik andre bat il ze bere se-narrain gibeletik. Zein onak ziren denak! Ama geiegia zuen guzia emanen zio bea-rretan zenai, obe ze ez erratea beartasunaz deus ere, berak denak konpondu nai zi-tuelakoz eta ez bazitzego erraten eta iakiten bazue kanpotik, gaizkiago artzen zue. Ortarako obe ze egi garbiarekin solas egin bear ze eta ala egiten nio beti eta eskindu zire anitz gauza, baño egiten nue al guzia ez artzeagatik eta bere umena zena niri eman zezan, ori ez nue nai. Ala ere, iateko balin bazire artzen nio: gazta zenbait, banabarra, iler pikorra, sagar, gerezi, arto, irine, arrotzeak. Gauze oietaik artzen ni-tue juan etorri batean gauza bat edo bide. Esnea ere ematen zirete.

Dagonilaren emezortzian il ze, baño ez dakit zein urtez. Baño nik anitz aldiz egiten dut otoitza bere animaren alde, baño ez dut uste nere bearretan dela deus-tako. Neretako bezain ona izen bada denendako... Zer zeru ederra ote duen! Nik ala uste dut. Goian bego bere senar eta ume il diren guziekin, bai ere aite, ama eta aurride guziekin! Neretako iruzki eder bat nere bizian eta argitu du bere dizdire ederraikin izen duden ilundura anitz. Zenbat aldiz eskatu dut zeruko Aitari eman dezo bataindeko [sic] eguna, ongi merexi duelakoz. Eta bere ume guziari ere bai, onak direlakoz.

### **Ogeite bigarren emakumea**

Iruñan bizi naizen denboretan ezagutu nue aspaldik andre bat, ezin inder-tsuagokoik izetea. Nere ustez, lauetan ogei eta amar urtetara urbil edo pasatuak izein ditu. Nere gizonak ezagutu zue Baztanen eta beti, bere idurikoz, langile aundia izen da. Ulzamarra da, eta izen ditu ume alde ederra, nik ez dakit zenbat. Orai egin bear ditu amalau urte il zitzaio alaba bat ezkondua eta bi aurren ama. Minbizia zue eta orrek ereman zio lurretik zerura. Nere idurikoz, ilabete baten buruan seme bat garbi-tzen ai zelaik biramonean eizira juateko, eskopeta delakoa ustu zitzaio eta ilik gel-ditu ze bat batean. Bertze seme bat, erri bateko erretore jauna, urdaillan min aundi

batekin il ze denbora gutin buruan eta au baño lentxago il ze bere gizona. Oiek denak galdu zituelarik, nik uste nue autsia aurkitiko nuela, baño utzi zire arriturik. Erran zire Jaungoikoaren naia ori balin baze, zer egin beartzuen, denen gañetik zela Jaunaren naia eta berak ori nai zuela. Emakume indartsua zangoetaik bururaño; ori da, nere ustez. Andre au, ez balin bazue indar aundi ori, naigabez betea ilen ze. Baño denak garaituak ditu bere indartasun aundi orrekin, eta anitz *egin daiela zure naia zeruan bezala lurrean ere*. Ola erdietsi du Jaungoikoaren naiaikin bizitzea, eta denendako on ona izetea. Otoitz anitz egiten du, bano negarrik begietan sekula. Noiznai eritzen da eta aski eroria egoten da, baño duen indarraikin denetaik ateratzen da altzina. Jaunak lagundu dezala. Minbiziaikin il zitzaion alaba, biotz aundi eta ederra zue denendoko. Bazitue seme bat eta alaba bat, eta biek eskutik artu aur aurretik eramaten zuzten senar emazteak arturik aurrak, berekin juaten zire etxez etxe erakusteagatik nola beartzuenak ere gau ortan, subillero gau ortan, etzuela afaldu gabe gelditu bear eta berek amabietaik amabortzetara erematen zuzte.

Badakit anitzetaik nola bedekitzen zute gurasoak eta umeak. Zer edertasuna! Badakigu Iruñako Andoni Donearen elizan zenbait lan egin zuela eta zenbait sos utzi zuela, Jaungoikoak bakarrik daki. Orrengatik arek bakarrik ordaindu du merexi zuen bezala. Ur txortak ez bada ordaindu gabe gelditzen, nola geldituko dire amabi edo amabortz afari urteorokoak? Gañera, bertze gauza anitz ematen zuena urtearen buruan... Eta gorasko dagola emen utzi zituenak, Jaunaren eskuetan utzik emengo denak. Badakit bere gizon alargunak laguntzen duela anitz ama iatera emanez eta zainduz al duen guziaz berai eta bere gauza guziaz. Jaungoikoak lagun dizkiela denak lurreko denboran eta zeruan gero.

Iruritako errian andre arront bizkorrak izen dire nik ezagutu nuen denboran, baño nere senar zenak erraten zirenez, etzire lenago gutiego. Batez erraten zire, Felipa izena zuena, arront langilea, txukune gauze guzietan, bere agoan beti egi garbia zegona, itz batean, ezin ohea zela. Baño aurregi ze andre onen denboran nere gizona, zerengatik Felipa onen alaba batez geiago erran zire.

Manuela zuen izena. Bazitue amar ume eta lan anitz egiteko sortu omen ze mundura, eta sakristau baten irabaziekin aztekotan amar ume, zerbait egin bearko zuen. Ezkaldoko dermioak al baluke erran, iakinen gindue zenbat belar bildu ote zuen bere denboran toki ontan, zeren bere gizonak bertze lan gisetan aitu bearko zue. Andre indartsua, garbi eta xuxena bere bizitza guzian. Nik ezagutu izan ditut onen seme bat eta lau alaba seurik. Denak txinurriek bezalakoak, sobera langileak, arront umore onekoak, nekatuak balin bazire ere, eta prest beren lagun projimoari edozein laguntza egitera. Orai bi alaba bakarrik bizi dire, nere ustez. Bat monja edo serora, erdaraz *Hija de la Caridad*, eta bertzea bere illobek ezin idukiz sartu duten tokien dago. Ontaz geiago erran bearrak baditut. Biek lauetan urtetaik laueta ogei eta amarrak artean dire.

## Ogeite irugarren emakumea

Orai nere senarrain arreba zarrenain bizia eta eriotza. Juana zue izena eta tikia zelaik arront pollita ze. Bere amak egiten zizkio arront soñeko pollitak aurtxoari eta ongi beztie erematen zio ibilaldi bat ematera, baño bere aitari etzigo ongi etortzen gauza oiek eta asarratzen ze. Nere idurikoz, aitaren arreba batek burua berotzen zio bere andreain kontra eta ala eginak, gaizki egina, gaizki izeten zire beti eta nik denak ezagutu ondoan, iduritu zaide beti ama gaixoak sufritzen zuela aski. Aitak berak erran zire urte batez, lau urte zuenean, amak egin zion aurrari soñeko urdin pollit bat eta ponpox ponpoxa omen zego. Bestetako lemexiko egunean bere amarekin iautsi zen atarire ateratziatik ixtenpat, baño bere aitak ikusi zuelaik ekendu soñekoa eta labera bota zue eta erre omen ze segido, eta buluxik gelditu omen ze aurra. Negar anitz egin omen aurrak, bai eta ere amak. Soñekoa erretzean erran omen zio aitek arront asarre, etzela arropa ure langilendako egine, ez eta ere langilen aurrendako. Neri ez dire alako zikinkerik egin bere semeak, baño obe du, nik ez nue ixilik utziko. Nik erran bear delaik gauza zerbait erraten dut, pozoña barnean iduki gabe.

Aitak erraten zue ere bere ume guzietan Juana zela oberena eta langilena eta otoitzik geago egiten zuena. Etxean egon zen denboran artsoro ematen omen zue arrosarioa, eta aitarendako ze bera oberena. Gaixoa, gero etxeko okindegian lan anitz egin ondoan, juaten ze ogi saltzera mandoarekin etxez etxe eta, ala zebilelaik, ezagutu zue bere gizongaia eta, Toledokoa izenik ere, maitetasun aundia artu zio. Gañera, *Guardia Civil* erdaraz deitzen zenetaik ze eta ori Baztango arrigarria ze. Euskalduna izenik ere, ez balin Baztangoa deitzen zute belarrimotza eta urrungoa izetea ia makettoa, eta ori Baztango alaba batendako gauza ilunegia ze lemexiko, gero gutire gutire ezagutuko zute elkar eta, gizon ona izenez geroz, gogoratuko izein zue etzirela aita eta ama ezkondu bearrak. Aitek erraten zue denak arriturik gelditu zirela. Niri iduritzen zaide aspertuxe zela bere etxeko lan geienak bere gainean zitu-  
tuelakoz.

Nik uste dut laister prestatu zirela ezkontzeko eta izen zuztela bi seme eta bertze bat ereman zuela berekin Argentinara. Bi Iruritan sortuak zire Paulino eta Martin. Denbora ontan etorri ze Angentinatik aitein anaia bat, izena Martin zue, Juanaren bateioko aitetxi zen eta berek erran ziote bazuela berak iatetxe bat aundia eta biendako bazela lanik aski. Orduen gizonak utzi zue bere lana eta juan zire osabai-  
baikin Argentinara eta, arara juan bezain laister, iakin zue osabak ango iatetxea ondatu zela eta deus gabe gelditu zela. Baño osabak ezaguntzen zue ango bizigisak, baño Juanak eta Felixek ez. Ze naigabe aundia igaro zuten ez daiteke gogoratu ere eta nik uste dut lur lanean asi zire, baño bitartean lana bilatzen burua goratzeko eta aitu izen dut Salesianoetan eman ziotela andrea arropa garbitzen edo arropa xuritzen eta gizona zuten azienda konpontzen edo zaintzen. Bere seme guziak juan zire

Salesianore ikastetxera. Lau beretan sartu zire eta aietatik bat il ze amabortz urtetan peritonitis deitzen den eritasuneikin. Nik aitu izen dut beti beretan egon zirela eta Juanak lan gisa guzietatik egiten zuela, gizonak etzekiela gisa artako lanik. Ume ederrak eta arront abilek zire.

Aita zenai arront gaizki jua zitzai Juanaren ezkontza. Baño osabain iatetxea ez baze ondatu bertzerik izango ze, baño gauzak makur atera zire orduen, denak gaizki atera zie. Gisa ortan zer egin? Nai eta egin al guzia ateratzeko altzina, uste dut ongi kosta zitzaiotela, baño ainbertze egin zue osaba Martinek senar emazteak eremanazteagatik... eta gero dena gaizki ateratu ziote gauza guziak. Biarrik andre sinesmen aundikoa zela, eta arara iritxi zirelaik eta aurkitu zirelai etzela berendako lanik eta ez ere itxaropenik izen zelakoik ere, nai eta ez, Jaunaren baitan paratu izein zute beren izen guziak eta lana gero izen zute beti eta beren seme alabak ongi ikasiak eta irakasleak geienak. Niri erran zire Juanai idazten zen batek arron gaizki egon zirela eta salesiano diren fraile delakotan sartu zirela eta andreak arropa garbitzen zeuela eta senarrak etxeko garbitasunetan.

Audituz bezala, mutikoak sartzen zituela beren ikastetxean eta gero an ongi ikasi zutenak juaten zirela Turin deitzen den toki batera eta an egin zire iru apez salesiano. Oietatik bide egon zire Iruritan lemexiko mezak ematera aitatxi eta amatxi bizi ziren denboran. Bertze gañerakoak egin zire irakasleak, ain abilak izen zirela eta gañera arront ikasi naiak, lurbira guzian organistarik oberena Paulino zarrena izen zela. Au eta Migel zire Turinen egon zirenetatik. Turindik etorri zire Iruritarara, lenik zarrena, erri ortan sortua ze eta aitetxi eta amatxi bizi zire. Bi ilabete egin zitue eta gero itzuli ze berriz Turine, zerengatik an ze Migel eta bat biek. Doktoratu zire eta bertze urtean etorri zire Iruritarara. Migelek eman zue lemexiko meza eta ezagutu zue aitatxi amatxi eta osaba eta izebak. Amain ama, Mari Antoni, il ze berak itzuli baño len eta ileri egin eta ortzi ondoan Migel itzuli ze. Zarrena gelditu ze sortu etxean eta arront eritu zen eta egon ze Espainako gerra edo gorrotoa asi artio. Iruritatik jua ze aita eta amarengana sendatu gabe eta eritasun berarekin il ze berrogei eta lau urtetan, gaitz epelaikin eta Argentinako Kordoban. Migelei bere zuzendariak igorri zue Wiedma deitzen den tokira eta berrogei urte egin zitue ango apezpikuarekin. Apezpikua egon ze emen, Iruñen, gure etxean eta arront goratzen zue bere ontasuna eta langiletasuna. Eta gero, il delaik, erraten zute bere lagunek sobera lan egin zuelakoz il zela. Ez dakit zer lanetan, baño biotzeko minarekin il zela.

Migel il baño len etorri ze gaztena. Jose Luis deitzen ze. Etorri ze bere andre eta bi umekin orai duela amalau urte. Gizon ederra, 1,96 zue luzetasuna eta gripe iru eguneko batek eraman zue berekin. A ze mutiko ona zen! Berrogei eta bi urtetan il ze. Goian bego.

Geienak il dire borregeietaik berrogei eta amarrak baño len. Migel iruetan ogeietan. Badire iru oraño biziak, bat salesianoa Juan Bautista eta Emilio eta Teresa ezkonduak. Denak soñulariak, abeslariak eta abeslarien zaindaria, *compositor* erdaraz erraten dena, Buenos Aires berean, bai eta ere Bahia Blanca deitzen den tokian. Juana bizi zen denboran il zire bere senarra eta bortz ume. Zer eskutitz ederrak egiten zizkigun Juanak eta zein pozez betea bizi zen.

Gaur berean, Juanain eskutitz alde bat irakurri dut mile bederatziegun eta ogeite zortzitik asi eta ondar eritasunekoak. Nik idatzi nio lemexikoa mile bederatziegun eta ogeite amekan, ezkondu eta fite eta erraten nio nik egiten niola lemexikoa, zereगतिक ezagutzen nuen bere anaia neure senarra eta beldur nitzela etzuela itz bat idatziko nik ez banu egiten lenik. Eta berak bere eskutitzan erraten du bazuela ogeita sei urte etzuela itz bat ere idatzi bere arrebai, eta ogeite sei urte zue juan zirela Argentinara. Gaixoa! Non galtzen zute denbora ez idazteko zerbait bedere arrebari? Eta, gero ere, nik egiten nuelakoz egiten zio pixka tiki bati, nik egiten nio al guzia eta eskutitz guziak gordeak dauzki eta denak Euskal Erria goratuz eginak dire. Bada bat bere aitari galdinez, ia Iruritako Alkasena (etxe baten izena) ia etxeakoandre bearaña den edo salgai den, gogotik erosiko lukela eta mutikoek ikasi al zutela okintzen eta bertze langintza aitaren etxean egiten zirenak aspaldien. Erraten zio bere aitari orduen berak egin zuela arropak garbitzea, arek eginen zuela egin al zuen gauza guziak.

Oroitzen ze bere erriaz, lurreko xokoik pollitena bezala, biotza urtzen zaio bere aita amarekin solas egiten ai zela. Ala ze Juana langile aundia, maitetasunez betea bere inguruan egon diren guziari. Indar aundiko emakumea eta ama sobera ona. Bere laniakin azi zue ume alde ederra, iru ume eman zitue Argentinako eliza azkar zaien *misionero* erdaraz geiagokin. Jose Luis gaztena ere egon ze denbora askiz salesianoekin eta denek uste zutelaik an gelditiko zela... berak ezagutu zue etzela bere bidea ure eta irakasle on bat egin ze eta gañera soñulari, abeslari eta ez dakit zenbat gauze geiago. Nai eta ez, ama xoratzeko adine baze, baño ain osoa ze...! Zer eskutitz ederrak egiten zituen Juanak berak eta Joxe Luis bere semeak! Ez dut bat ere galdu. Denak gordeak ditut. Oro daitzen nere sei alabek zer izeba maitagarria izen duten, zein txintxoia zen eta zer indartasuna zuen bere animan. Bat bakarrik irakurriz ezagutzen da zenbat doia zeuken berekin, zein maite zuen bere kristautasuna eta Ama Birjiñaren amatasuna.

Ez naiz ongi oroitzen, il altzinean edo ondoan, omenaldi agurgarri aundi bat egin ziote bere semeak zeuden ikastetxean “ama onaña” eta Bahia Blanca deitzen den errian egin ziote bertze bat erriko zaindari guziek, adieraziz andre euskaldun ura adibide aundia ematen zuela bere langiletasun eta nola erakutsi zioten bere ume guziari gizona eta andre osoak izaten. Lenik egin zue bakotzak itzaldi ederra gora-



tuz al guzia Iruritako alaba zen emakume ari. Ondorean ikastetxeko zaindari jaunak, eta Bahia Blanca deitzen den tokiko jaurlariak (gobernadoreak) eta eman ziote anitzen altzinean bakotxak urrezko *medalla* (erdaraz) bat ederra. An ziren andre euskaldun guziak negar anitz egin omen zute. Txaloka beren Euskal Erriko andre agurgarri ari. Bazute zetaz negar egin beren sortu erriko erritik ain urrun. Juana il ze lauetan ogei urte bete gabe. Goian bego eta bere senar eta ume al diren guziekin.

### Ogeite laugarren emakumea

Orai Bizkaiako emakume baten animaren aunditasunaz itz egin bear dut. Ez dut nik ezagutu bera, baño aren seme baten alaba batek errana da eta nik entzun bezala argitaratu gogo dut. Egia da indartasun aundi au ez dela denetan agertzen, badakigu zerutik iausia dela, baño guk ere bear degu egin al guzia gure sinismena eta itxaropena aundituz daien goi maitetasunaikin batio. Uste dut emakume onena zañetaik asi eta axaxkaleno indartasunez betea zela. Abizena Nafarrakoa zue: Sagastibeltza.

Andre onen senarrak iten omen zitue itz batzuk bere lagun batekin beren lurren aferaz. Baño bein batez arront asarratu omen zire eta ainbertzetarano, il zuela au bertzeak. Emakume onen senarra ze ila. Ilzalea alarguna zen eta, ori gogoratu zitzeolaik, emakume onek artu zitue gizon iltzelearen borts alabak eta eraman zitue bere etxera eta berak azi zitue eta egin zitue emakume onak. Eben aita giltzpean sartu zute eta andre onek erematen zeko ianari guzietarik. Baño ainbertze gauza on egin zitue, alketua bizi zela gizon tristia eta alketasun orrek il zio. Aurrak beti iduki zitue eta bere gelan idukitzen zue gaztena. Emakume onen umeak bezala zeude ilzalearen umeak, borts alaba, denak ongi aziak eta ikasiak. Eta maitatuz bereak bezala. Olaxe erakutsi digu nola maitatu bear den gaizki egillea. Ongi egillea errax da maitetzea, baña gaizki egilleak batzeko eta maitatzeko gisa ortan indartasun aundia bear du bere biotzean eta onek bazue beretako eta bertzendako eta azkar. Egia da aurrek etzutela obenik deus ere; baño, ala ere, emakume onek egin zuena indartasun aundiaña da. Nai eta ez, nere idurikoz, goian dago eta lagundu zaiguzu Euskal Erriko emakume bear degun guziari.

Nik ezagutzen duden bere billoba monja edo serora da, neretako iruzki eder bat izen da. Berai eskerrak nere sei alabak emakume onak atera dire, ongi ikasiak lurreko bizian eta zerua erdiesteko ere ongi dakite zer bide artu bear duten. Nik otoiitz anitz egin dut erdiesteagatik alako erakustunak neure sei alabendako eta orai eskerak ematen diot Jaungoikoari arront alaba onak direlako neretako eta bertzendako. Eta ori eder da.

## Ogeita bortzgarren emakumea

Andre beltxaran bat, begi beltz ederrekin, langilea erran artio, gaurkoz aski da. Ezagutu dut erri tiki batean ezkondua, baño gizonak baño indartasun geiago izen du beti. Uste dut bortz seme eta bi alaba zituela, denak ongi ikesiak labrarien lan gisa guzietan. Argentinan egon izen dire lau seme seurik, eta iru seurik an ilak dire, Frantziako Euskal Errian bizi da seme bat. Eta erri berean il da bertze bat, baño aite eta ama il ondoan. Egia beti bere agoan, lana deusengatik ezin utzi, denetan garbitasun aundi bat. Alaba gaztena ezkondu zue etxera eta amarendako ain segur oberena.

Ni oroitzen naiz beren baratze batean eta uden erleumeak botatzen zutelaik, bi arri artzen zitue bi eskuetara eta bat bertzeaikin ioz erraten zue: bil, bil, bil. Eta apal apal erranez biltzen zire ezpele mutur batera edo gerezi batera edo, bertzelaz, arri mutur batera eta segido sartzen zire erlauntzara eta ederki gelditzen zire berean<sup>60</sup>. Belarrak eta ultziak ere, geienean, geiena egiten zuen ama bera ze. Arendako uste dut goxoago zela lan oiek egitea ezik ongi afaltzea, nik beti ori nue neure gogoan. Etxe zar bat, tikia gañera, bota zute eta egin zute aundia, berria eta ederra eta gero eta ederrago dago urteoro. Orai erri tiki ebetan ere badute ur ona eta auserkia etxetan. Ola ez da nere denboran bezala, egun guzian ur eske. Ultziek ere nere denboran larrañan, edatzen ze azaoiak eta sartzen zire bi beor aren gaña pikorra berexi zaien eta agotza xeiatu zeien, eta esi bat errestatzen zu bi beiek edo bi idiek eta esi aren gaña lau edo bortz aur ultzitu zeien ongi, lauk inguruan agotza polliki ekenduz sartzen zuten agoztegien. Gero ongi ekentzen zutelaik, aizeratzen zute gelditzen zena eta polliki polliki berexten ze. Ogi pikorra aski garbi gelditzen ze eta ola aizeraturuz berriz eta geiago gelditzen ze, baño egunak ain luzeak izenik ere egun osoa galtzen ze lan ortan eta arront nekatuak gelditze zire ultzi batekin eta, anitz egunetako balin baze, burutu dezakegu zein zikin eta zein nekatuak gelditzen ziren denak.

Emakume onek belarra pikatzen ere bazekie bere denboran, bai eta laiatzen ere. Nik uste dut, zerengatik bertze aizpa bera baño adin geagokoa bizi ze beraikin. Nik ia ezongi egoten zen bat zela daukat gogoan, eskulanea aitzen zena eta maindire konpontzen ikusia dauket, eta bertze aizpa ezkondua gizon luze batekin. Nere iduririkoz, andrea langileakoa ze, ez dut erraten alferra zela, ez gogoan pasatzen ere, baizik nik geiago ikusten nuela lanean andreari. Senide edo familia ederra azi zute eta seme alabak ama iduria zirela beren langiletasunean. Baño emakume onek ez bakarrik gorputzeko indarrian, bai eta ere animako indarrean ixil ixilik bere lanean,

<sup>60</sup> Koaderno txikietako bertze pasarte batean hau dio: “Mezkiritzen ezagutu ditut erleak Apeztegian, Zirkutuñeko baratzian, Paxkualeneko baratzian, Juan Fermineneko baratzean, gure etxearen altzineko baratzean, bertze denbora aldi batzurretan gibeiko baratzean, Adameneko eta Antoneko baratzetan. Estankoan ere ikusi izen ditut eta uste dut Biritxikarko etxe geienen baratzetan”.

baño sekula kexatu gabe ez lan batez eta ez bertzeaz. Eliza eta otoitzak arras maite zitue eta ala erakutsi zioten bere umei eta aien gibeletik eldu direnei. Nik il zelaik bazue denbora anitz ez nuela ikusi eta ez nitze erri artan il zenean, baño il guzien-dako egin dut otoitza eta uste dut egin bear den gauza dela. Goian bego bere senar eta il diren ume guziekin.

### Ogeita seigarren emakumea

Nik zenbait errietako etxetan ezagutu ditut iru etxekoandre eta zenbaitetan lau ere. Ontan etxe bateko bidena errai dut Jaungoikoaren laguntzarekin. Oraiko eben ama Erroibarko bertze erri batekoa ze, oraño erri ontaz ez dut itz bat erran. Mendiz ingurutua da eta neuroi ez dakit izen naizen iru aldiz bano geiago. Labrari etxe azkarrekoa ze eta erran dezaket langile gaitza zela. Ultziak egiten ai zelaik, bere senarrai iortzen zue eguerdiko loa egitera bera nekatua balin baze ere. Etze lanik egiten etzuenik. Uste dut izen zuztela bortz seme eta alaba bat, ebetaik bat il ze soldado zegolaik, eritasun bat artu eta guti denbora ireun zue. Ama ondoan egon izen baze, etze ain aise ilen, baño urrun ze eta an gelditu ze. Tikia zelaik zarrena ere iltze, bertze iruetaik bide fraileak dire eta bertze semea etxeko nagusi txintxo da. Eta alaba ere ezkondua da eta bi ezkondu eben umeak ere badire ezkonduak. Nere iduriz, ezkonduak beren etxetan eta frailek diren tokian ongi bizi direla denak eta beren eginbearrak ongi eginak izeten direla. Oraiko nagusia Españaiko gerran edo gorrotoan egon ze denbora puska bat, zerengatik ogeite amaseieko soldado egin bearra zen eta urte aski galdu zue. Ezkondu ze erri bereko neska eder eta langile onaikin. Sei seme eta bi alaba dituzte. Seme zarrena Ameriketean da ezkondua eta baditu seme eta alaba bat, aurtan izen dire aita eta ama beren semea ikuste eta andrea eta aurrak ezagutzen. Pozez beteak etorri zire ikustean zein ongi bizi diren denak. Emen direnak ere ongi bizi dire. Sei semetaik iru ezkonduak dire, bat frailea izeteagatik ikasten ai de Alsasuako beretan. Orai etxean daude bi seme eta bi alaba. Badute alor anitz eta lan anitz ere bai, denak lankaiakin egiten dituzte eta egunoro juaten dire Zubiriko errira lanera Magnesitas deitzen den olara. An zortzi ordu eta gañerako al dutena beren etxe eta alorretan.

Erri ontan arront gende langileak dire eta izen dire beti. Orai ure bada etxetan eta auserki, baño lenago ur eske juaten zire iturrire eta nekagarria zen eta, ure izenez geroz, lankaiak garbitasuna egiteko paratzen dire, eta ola dena erraxago da. Etxe ontako nagusia eskutitzak eta bertze paper anitz erematen tuzte bi errietakoak, bako-txai berea emanaz, erdaraz *cartero* deitzen da. Eta goizoro egiten dute lan ori eta atsaldetan iortzen dute biltzen diren guziak Iruñara, bi alabak dire lan ebek geienak egiten dituztenak. Gañera, zarrenak maite ditu anitz eskulan mota guziak eta nik

erakutsi oietaik anitz. Brodatzen lankaiakin eta soñeko euskaldun txamarreta oietaik, eskuz egiten diren oietaik, ongi egiten ikesia da eta ongi gazte delaik oraño. Eben amain ama eta amatxin aizpa bat zire bi emakume onak gisa guzietan, umore onekoak, langile aundiak berak, andre ederrak eta garbitasun aundikoak. Ez da errax ainbertze gauza on aurkitu daikela emakume batean eta bietan aurkitzen dire gauza berak. Neguan lixue garbitzera juaten zirelaik garbitoki edo putzura, denak beren esku izoztuakin lanean eta ain umore onekin biek zalapartak denei irrinezten eta nior ez uzten bere otzain kontra solas egitera. Ni ain aurra nitze... ez bazire serio serioak, erraten zute gauza anitz eta denak irrinezteko denei eta atzenaztiatik geuren eskue-taz eta beren otzaz. Abenduein ondar egunak zire eta izozten ai zue al guzia eta ezin txutik egon denak eta ezin garbitu arropak. Azkenian, egin nue neure lana eta juan nitze neure arropa garbiekin eta edatu nitue baratzean eta denak pasatu zire eta orai uste bere ontasun aundiarekin Aitaren besoetan. Bertze tokietara juan biar dut ia zer emakumekin asi, ez da errax denetan autetzea noren gauzak erratea, nik neure ustez ain onak iduritzen zaizkid batzuk nola bertzeak.

### Ogeite zazpigarren emakumea

Anue aldeko neskatxa bat, arront soñulari eta abeslaria, etorri ze Iruñara beste anitz bezala iosten ikastera, arront maite zuen lana beretzat. Xuri gorri neskatxa, begi urdin oso pollita. Laster asi zire berari inguratzen mutil zenbait, baño etze bere gogokoa, oraño etze ageri nior. Bitartean ai ze ikesten ederki berak maite zuen lan gisa ure, eta iosten zute anitz ure zegon etxean eta anitz guartzen zelakoz ikesten zue anitz eta mutil geagoek inguratzen zute, eta batean asi ze gogoan artzen aietaik bat, soñularia ze eta gañera *militar* erdaraz. Ongi ezagutu zutelaik elkar (bere ustez) ezkondu zire, eta uste dut arras maite zutela elkar. Andre Euskal Errikoa zen bezala, sobera langilea ze eta egunez eta gabaz lan geiegi egiten zue eta, bitartean, aur bat paratu ze lurrera etortzeko bidean eta, ezongixko egonik ere, etze soñeko bat gelditzen iosteko eta ala juan zire lemexiko denbora ilun aiek, ilunak bai, ezongitasunain ilundurak. Ala igaro ze urtea eta aurra sortzeko eguna etorri ze eta bere meetasuna gelditu ze arront meatua. Neska tiki bat sortu ze eta pozez beteik gelditu zire biek. Arront maite zute elkar eta aurrarekin ergelduak zeude biek, baño lanak gero eta geiagokoak zitue Joxepak eta, ez bazue egiten, beldur zute gero eta geiago bilduko zela eta ori etze ongi eldu aren gaztetasundako. Bitartean, aurra ai ze ongi azten eta gero eta geiago ai ze beren maitetasuna aunditzen eta aurrak urte bat egin bear zue eta ama etze batre konpontzen eta, ganera, izan bear zue bertze zazpi ile batein buruko bertze aur bat. Soberako lanak egiten zitue eta egun txarrak anitz aldiz izeten zitue eta etze obeki paratzen eta lanak itotzen zekola eta eldu zen aurrak eta izen zuenak. Bertze aldetik, bazue lan anitz eta gero eta meago juan ze, makurrago eta

aurra izetean desin ze ondarra eta etzue geiago bururik goratu eta denbora gutin buruan andre gaixoa il ze.

Gizon gizajoa bizitu ze bi aurrekin eta uste dut andre zenain aizpe zenbaitek lagundu zuela aurrak azten, bano guti denboretan, zerengatik gizona iltzean zazpi urte zitue zarrenak. Aitu izen dut anitz aldiz zazpi urtetako gelditu zela aita eta ama gabe eta bere anaiak bortz zituela. Zer iluntasuna gelditu ote zuten aur gaixo ebek. Gero, aita iltzelakoz amaren ondotik, uste zute obe zela iortzea aitaren aurridetara eta iorri zuzte Madridera, an bizi zirelakoz aurride oiek eta gertatu ze lemexiko trenan iorri zuztela gibelera aur gaixoak eta orduan beren amaren aizpa batek artu zitue. Ezkondua ze eta etzute umeik eta ebek egin zute umen ordea, eta osabak izebarekin egin zute aita eta amak eginen ez zutena. Oraino orduen zazpi urte zituen nexka pollit ura oroitzen ordu ilunetaz eta bai zein onak izen ziren berekin aita eta ama berria aiekin. Berak erraten du berendako osaba zela oberena. Amaren aizpa ain ona zelaik... osabak ere zerbait egin zue alako oroipen ona dauketelaik beraz.

Emen Arrotxapean aziak dire eta lan aundiak ere egin zuzte beti anitz zutelakoz. Aita eta amaña egin zute il ondoraño, zuten dena utzi zute bi aurrari.

Bere aita eta ama egiazkoek etzute geiago eginen ebek egin zuten baño. Aur aiek aitetxi amatxiak dire aspaldian eta ezagutzen da bi anai arrebak arront maite direla elkar eta ez direla sosarengatik asarratiko, ikusi zute sosarengatik ez duela balio negarrik egitea, eta badirela lurrean anitz gauza sosa baño geiago balio dute-nak, eta denetan bada bat nere iduriz oberena eta da elkarren arteko maitetasuna eta au daukate ongi zañak botaiak senide edo famili guzietik. Goian beude alako indartasan aundian azi zuztelakoz bi illobak beren seme alaba bezala.

### **Ogeite zortzigarren emakumea**

Ibar berean, baño aski urrun erri batetik bertzera, bazire bi senide edo familie, bakotxa beren etxe aundi eta ederrean besta aundietan biltzen zire elkarrekin eta bazuten aixkidantza aundia, baño egun batez arront azkartu ze aixkidetasun ure eta gogoratu zitzeiote baten alaba zaarrena ezkon zaien bertzen nagusi gazte izen bear zuenaikin eta, ori itz egin ondoan, asi zire elkarrekin arat onat erabiltzen, beren gauzak zenbatutzen eta elkar ezagutzen. Uste dut urte bat eta erdi geiagotan prestatu zirela. Zenbaitek denbora ori bear izaten dute iosten ikasten eta bai eta ere ianariak egiten ikasteko, baño uste dut onek bazekizkiela emakume on batek ogeita amar urtetan dakien guzia eta nik, zuen ama ezagutzen nuelakoz ongi, uste dut bere alaba guziak ongi ikasiak zeudela emakume lan guzietan. Betiere, uste dut prest zirelaik ezkondu zirela. Nere ustez, gizonain aita eta amak bere semearekin bizi zire, zeren-

gatik nik aita ezagutu nue eta ama ere bai. Eta beren denboran asi zire umeak etortzen eta ongi ederrak, ala ere, zuri gorriak eta begi beltzaranak geienak, baño urrak bezalakoak, ere bai bilo kixkurra denek. Ez naiz oroitzen zenbat ziren, nere idurikoz sei zazpi inguruan, baño bearbada zortzi... badakit mutikoak Lekarozko ikastegira juaten zirela, eta nexkak *Mercedarias* Bizkaiako erri batean duten ikasetxe batera eta arront ongi ikasiak zirela denak. Ez nue egundaño aitu egin zutela makurkeri bat ere, ez mutikoek eta ez ere neskek.

Denbora bazeie gutire gutire, guartu gabe, ezkontzeko tenorea etortzen ai zela eta asi zirela zarrenak mogitzen. Badakit zarrena edo zarretaik bat ezkondu zela Iruñan bizi den sendagille batekin. Bertze bat ezkondu ze bere sortu erriko errira urbil zen erri bateko mutiko batekin, etorri zena Mejikotik ezkontzera nexka orrekin. Ezkondu zire eta ongi bazkaldu ondoan jua zire jua etorri bat egitera, baño tikia zerengatik segido jua bear zute Mejikora. Itzuli zirelaik, egun beretaik batean egin zute beren besta bat eta biramon goizean jua zire senar emazteak Lekarotzko Kaputxino deitzen delako elizan aitortu, meza entzun eta gure Jauna artu zute berek eta, gañera, andreain aizpa eta anaia batek. Ebek Madridera itzuli bear zute burdin egaztian utzi ondoan ezkonberriak, baño etzire ortara iritxi. Guadalajaraño erdietsi baño len biribil ixtripu aundi bat izen zute eta bortz lagunak il zire, denak. Lau etxe berekoak eta biribila erematen zuena beren erriein ondoko bertze erri batekoa. Goian beude denak.

Gibeletik zaien biribil batek iragarri zue toki guzietara eta ederki kosta onduan ereman zuzte bortz kutxetan bortz ilak, bortzetaik lau etxe berekoak, iru anai arreba eta aizpa baten senarra. Arront negargarria izen omen zen erriko jende guziarendako. Mezetan eliza betea omen zego, ni ez nitze an, ezongi nitzelako. Eta lemexiko aldien jua nitzelai Iruñatik Baztana izen nitze il eben etxean eta egon nitze beren aita eta amarekin, neuronek neuke biotza arront estutua eta ezin itz bat atera errateko neure biotzeko mina, berek zuten gaitzain aunditasunaingatik beren amak erran zire: zer egin bear dugu? Gure zeruko Aitak iorri badigu alako pizu aundiko gurutzea, zer egin bear du bertzek? Eskatu eman dezagun bear dugun inder guzia ordu ilun ebetan. Nola gelditu nitze? Eskatzen eman zezan bear zuten dena ordu aietan. Baña arriturik emakume aren indartasunaz. Gizona etzego ain indertsu eta gero eta geiago meiatzen ai zela. Nola ireun zuten lau puske egin onduan biotzak... Arritzekoa dela iduri du, baño Jaungoikoa beraikin zego eta berak bakarrik egiten zue mirabe ori. Nere ustez, aitak guti ireun zue eta jua ze Aitaren besoetara. Emen gelditu zena ze beren ama eta gizonain ama, bere sinismen aundiarekin gozotasunezko itxaropenez betea eta goi maitasunez errea. Bere indartasunak eman dezagula berea bezalako pixka bat bete daien ere nere biotza doi guzietarik.

## Ogeite bederatzigarren emakumea

Ama Euskal Erriko erri pollit bateko alaba ze, baño emendik juan ze Argentinara. Arront emakume ederra zela badakit, zerengatik ongi ezagutua nuelakoz. Betiere, Argentinan ezkondu ze eta sos eta lur anitz zituen batekin, gizon ona zela aitu izen dut, baño nik ezagutu gizona ez nue egin. Bi alaba izen zitue eta xar-mantak zirela, bai ori egia da, baño beren aita il zelaik etorri zire Euskal Erriko erri tiki artara. Nere idurikoz, amar bat urte nik baño geago zitue gaztenak, niri maite zirete anitz eta nere bilo kixkurretueikin iostatzen zire. Nik ere maite nitue anitz. Nik lau urte nituelaik arront egosi nitze txerri bazkak egosten zutzen bezkoan. Baño ainbertzetaraño egosi nitzen, sendagilleak etzuela uste aterako nitzela deusengatik egosi aldietik. Berotasun aundiak artzen zirete eta bilo guzie erori zitzaide eta ni alketua ikusiko ziretela bilo piru bat gabe, neure anaia batei eskatu nio neure txapela eta, aiek neregana etorri bano len, sartu nue neure burua txapelan eta iien zirelaik ikusi zirete eta gelditu zire arrituak zenbat artu ziren minek, baño zein maite nuen ongi iduritzea bertzei, egunoro juaten zire nere ikustera eta dena pintz berriekin egoten nitze eta ni aski ixilik negarrik egin gabe. Ala pasatu ze ude ure, eta bertzeke nere egosik aundienak sendatu zire eta urbilen udeko aski ongi gelditu nitze Jaunari eskerrak. Bitartean, ni banindaie sendatzen ongi aski, baño sekula ez dire juan nere gorputzetik egosikeko erretoak. Belaun gañetik gerriraño, altzinetik, gibeletik eta bi saietsetaik, sabel barnean ere sendagillek erraten zute ertze bat bildua zegola eta bortz urtez jaurbide aundi batekin iduki zirete eta uste dut sendatua naizela.

Urteoro ude igarotzera etortzen zire bi aizpak beren ama eta lengusina batekin, Argentinatik etorria berekin. Aizpa bat ze luze eta mear eta bertzea ederra eta azkarrara. Luzea zena, eritu zen eritasun luze batekin eta, bitartean, Iruñeko semea zen sendagilea juan ze Erroibarko erri batzuetara, juan ze sendagilletasuna egitera. Eta ezagutzen ze arront adixkideak zirela, baño luze eta mear zenai etzeko niok sendatzen al, gero eta gaizkiago zaiela erraten zute, eta zenbat sendagillek ikusi ote zute? Anitzek eta egin al guzia ere, zerbait egin ziote, baño beti gero eta geiago. Aitu izen nue pleuresia zuela eta ori erran ondoan ere luzetu zute bere bizia, baño azkenean il ze eta uste izen dut beti zeruan zegola. Negar anitz egin zute bere amak, aizpak eta lengusina arek ere. Denbora puska baten ondoan Iruñako seme zen sendagille ura ezkondu ze ilein aizparekin, baño sendagille arek utzi zue Erroibarko erriak eta Iruñako sendagillea zen.

Gu etortzen ginelaik sendagille zenbaitengana, beti erematen zigu beraingana. Eta, nere idurikoz, abile eta sandua ze gizon ura. Izen zuzte ume alde bat ederra. Zarrena lege gizona egin ze eta kargu aundia izen du eta oraño ala du bere denbora guzian. Bigarren sendagillea da, baño urdaillaina, bertze bat diplomatiko deitzen dena eta ez dakit zer dire bertze bide seurik, gero bada alaba bat bertze sendagille

batekin ezkondua. Baditu zenbait ume eta bertzek ere eta denen artean badire alde bat. Baditu zenbait urte il zela eta ondar aldien atera zelaik bere eriek ikustera, izen ze niri ikustera eta erran zire bera ere eri zegola eta nik egon bearko nuela oraiño guatzean eta sendagilleai errateko nik ez nukela artu deus ere *Farmapen* baizik. Egun ortan ze, bere guatzean sartu zena eta bere sendagillea erran zio: ni gaizki naiz eta elizakoak artu nai ditut. Baño sendagilleak erran zio oraño bazuela asti ortarako, baño ereman ziote berak nai zuena eta aitortu ondoan ereman ziotelaik gure Jauna, guatzetik iausti eta belauniketu eta barkamendua eskatuz gure Jaunari, artu zue bere biotzean eta andik laister il ze. Meza gregorianak deitzen diren ogeite amar segidokoak eta ordu eta aldare berean entzun nitue beretaik ogeite sei, ez bainindegoraño arront ongi. Kosta zitzeide sendatzea eta bai ere naigabe aundi ure ekentzea. Bere andrea ere, nere idurikoz, arront andre ona ze. Ebek beren umeak azten ai zirelaik eta ikastolan zeitzen denboran, Iruñan erraten zute Iruñako umeik oberenak berak zirela. Orrek anitz erraten du beren aita eta amarendako.

Emakume indartsua ze eta erakutsi du ere indartsua izeten, nik maite izen dut beti aur aurretik eta neure denbora guzien, eta berak utzi zuen etxea saldu zelaik naigabe aundia izen nue, bera bizi zelaik etze saldu, baño iltzeaikin ez zute amain maitetasuna umek eta saldu egin ze. Ala ere, atsinertzen dut nere adixkide onak direla erosi dutenak ere, euskalzale onak, ori euskaldun berriak direlaik. Jaungoikoak lagun dizkiela denak eta euskera gero eta geiago zabal daiela Euskal Erriko xoko guzietan. Erakusle onak atera daitzela eta gure Jaungoikoa goratua izen daiela Euskal Erriko etxe eta borda guzietan orai eta sekula denbora guzien denboretan. Alaxe.

### Ogeite amargarren emakumea

Berrogei eta amar bat urte ditu, nik ezagutu nuela Iruñen emakume au. Etze anitz bear lemexiko beidetzetik ezagutzeko zen ondasun arrigarria zeuken bere biotzean eta gero, gero eta geiago, errateko neure baitan: nik uste nuen bezalakoa da. Ezkondua ze eta segido erran zirete bere senarra itsua zela, irugarren aurrak sortu bear zuelaik, usteik gutiengan itsutu zela. Jaungoikoak bakarrik daki zenbat arat onat ibili ote ziren sendagilletik sendagilletara ia bertzek ikusten etzutena ikusten zuen batek, baño etzute deus erdietsi. Bitartean, izen zuzte ume alde bat. Denak ezagutu nitue, baño orai ez dakit zenbat ziren, il zenbait ere baze, bat seurik aunditua ogei urtetaik gorakoa, nexka bat xarmanta. Bitartean, emakume aundi au min anitzekin bere biotzean. Nik ezagutu ondoan il zitzeio ama eta bai ere zenbait anaia eta aizpa bat. Bi seme seurik sendagilleak dire, bat ezurretakoa eta bertzea burukoa; anitz aldiz entzun dut, arront abillak direla. Alaba bat (uste dut zarrena) monja edo serora da. Bertze seme alabak zerbait ogibide egina.



Itsuaik ain maite zitue bere umeak, iduri zuela ezin ikusi zutelakoz anitz maite-ago zituela, begietan etzuen ikusteko biotzean zuela. Amak gogotik emain zitue ez bakarrik bat, bi begiak bere senarrak ikusi eta ezagutu zezan etzituenak ikusi, baño olako gauzaik etze gertatu. Lenik il ze gizona eta andrea gelditu ze oraño denbora puxka bat bere umek ikesi zezaten beren amain biotza zein aundia eta ederra zen. Zer indartasuna zeuken gordea bere baitan eta dena zeruko Aitarengandik eldu zitzaiola. Berekin zituen doi guziak eta ala maitatuz denei bizi zela lasaiki.

Goain bego bere juañ diren guziekin!

### Ogeite amekagarren emakumea

Oraiko aldian ogeita ameka eskutik daukagu. Ia ateratzen den gertaera pollit zenbait? Orain artio beti idatzi ditut egi baten gibeletik bertze bat, denak gertatu diren bezala eta ola ez da aise irri egineztea niorei, baño nere gisa ontan egitea da kondaira edo erdaraz historia deitzen dena egitea, eta nere idurikoz pollite da dena den bezala erratea eta ala da nik ikusten duden bezala eta nere biotzean dauden bezala. Ori da dena. Erroibarko erri tiki, pollit batean, azi ze nexka eder bat, Iruñako karrike deitzen dena *Kuria* sortua. Aurak Lutxi zuen izena eta arront senide onain artean ai ze azten, baño asi zire naigabeak berotasun aundi batekin batean. Etorriazi ziote sendagilleai eta ongi ikusi ondoan erran ziote: oraño ez da deus ageri, baño badakigu zerbait gauza gaistoa baduela. Begiratu anitz aurrari eta quartzen bazate zerbait gauze berrietan, laister adierazi zadazie, ni bitartean egunoro etorriko naiz. Azten ai zen emakumea quartu ze aunditsu bat asi zitzaiola ateratzen lepo saiets batetik (uste dut eskuneko aldetik zela).

Ikusi zuelaik sendagilleak manatu zue *cataplasma* deitzen dena erdaraz egin eta paratzeko lepoa inguratuz ongi eta aldatzeko bear zuen guzietan eta, ongi beratzen zelaik, uste zuela lertuko zela, baño ainbertze egin ondoan zortzi egunez, deus ere erdietsi gabe, orduan sendagilleak berak ebakuntze bat eginen zuela eta uste zuela ongi geldituko zela. Mandatu orrekin juañ zire bere aita eta amari erratera nola zegoen beren alaba Lutxi, eta berak zeudela sendagillearekin egin zezaten solas aurrarekin zer egin bear zuten eta egin zute sendagilleak nai zuena, eta biramonean azten ai zen etxe berean. Baño ebakuntze onek aur gaixoari bere denbora guziko utzi ziote arront ezaungarri geroako. Sendagillek erran zute zain bat ebaki ziotela, eta etzue bertzeik iduri. Arront makurturik gelditu zitzaio ezpañak, agoa eta aurpegi guzia, ain aur ederretik zer gelditu zen... min egiten zue ikustia bakarrik. Anitz aldiz ezagutzen ze alketzen zela gaixo aurra; gero, aundituz bezala, gero eta aundia eta gero eta geiago ezaungarriago zego. Bitartian, izen zute bertze bi aur geiago eta Iruñako lanak utzi eta etorri zire beren sortu erriko etxe ederrera. Lau aurride zire

aita batenak eta ondar iruak aita eta ama batenak. Lemexikoa ez ze Lutxi, ze lemexikoa ondar iruetan. Lemexikoari ama il zizaion eta, aunditu zelaik, serora edo monja juan ze eta il ze orai duela lau edo bortz ilabete, nere ustez, arront maitetua ze zegoen tokian, iru anai arribetan eritzen edo iltzen baze norbait, an zego lagundu naiak bere aurridei.

Lutxi geeinean bere etxean egoten ze eta etxealde aundiko alaba zelakoz eta bere amain lemexikoa, berak izen bear zue etxeoandrea. Nik ezagutu nitue bera, bere ama eta bere amatxi. Lutxin senarra ezagutua nue nik aspaldik, orduan nitue amairu urte eta oraño ezkondu baño len berak. Erraten zio anaiak arrebari: nexka orrek biotzeko mine ematen dire, baneki ez duela oraño gizongaik, erran nezote zerbait eta aizpak erran zio: galdin zazu berai, nok daki deus ere afera ortaz? Berak bakarrik. Eta dudarik gabe galde egin zio eta asi zuzte beren itzaldiak eta ez dut uste berandu zutela urte bat ezkondu gabe. Ezkondu zire 1918ko ilbeltzaren amairuan. Eta urte bat gabe senarrari ebakuntze aundi bat egin ziote urdaillean. Eta niok etzue ezagutu gizon eder arek bazuela deus ere ezkon altzinean, gerokoa zue bere min guziak, baño min gisa guziak zeude beretako, ikusten zue bere andrea etzela deus ere bere etxean, an zeudela bere amatxi, ama, aita, bere andreain anaia bat eta aizpa bat. Berak (senarrak) utzi zitue eskatzen zuten sosa, ezkonsaria, bere andrearen anai eta aizparendako, eta sosa utzi ondoan ikustea bere andrea ondarra zela an..., arront gaizki zitzeio eta eskatu zio berak mutil bat ereman bear zuela eta berak sarituko zuela berak zuen dirutik, baño etzeko utzi mutilik erematera, berak pusken lan geiago egin bear zue eta urdaila arront eritu zitzaio eta arront gaizki egon ze gizajoa, eta ortaik asi zelaik sendatzen beardure aundi bat atera zitzaio. Eta berriz ebakuntza aundi bat egin ziote eta anitz kosta zitzeio sendatze. Eta bertze beardura aundia-gokoa atera zitzaio, eta gero eta geiago min artzen gelditu ze.

Bitartean, ezkondu zire andreain anaia eta aizpa, amatxi il ze eta andreain aita ere gero eta makurrago zego. Bazuzte lau seme, il ze lemexiko nexka eta ondar mutikoa, eta gelditzen zire lau mutikoak. Denbora gutin buruan egin ziote irugarren ebakuntza eta il ze andrearen aita, baño andreain ama bizi zen eta etzeko utzi mutil bat artzera. Mile bederatziko orrillaren amaseian il ze andrearen ama eta biotzean minarekin, baño lasaitasun aundi batekin gelditu zire senar emazteak. Eta urte berean eta agorrain zazpian sortu ze beren ondar aurrera, nexka bat, eta orduan bai pozez beteak zirela. Baño zer ireun zue? Deus ere. Urte bereko abenduain ogeite bederatzian ain gaizki paratu ze Lutxin senarra, elizakoak eman ziotela, eta ilbeltzaren ogeita batean il ze goizeko iruetan. Seme zarrenak etzue oraño amar urteik. Eta Lutxi gaixoa gelditu ze lau seme eta alaba tiki batekin. Itz batean, lan aundiekin eta bakarrik lan guziak: umenak, beienak, txerrienak, beorrenak eta lan guziak egin ondoan eta artsa etorri eta bortz aurrekin eta beren lan guziekin, etze bere bizia ain pozgarria izen! Beti lanez betia eta bakarrik lan guziendako.

Ola egon ze denbora frankoz. Urte artan ez, baño bertzean bi seme zarrenek maurgiek biltzen zuzte uden eta saltzen zitue bere amain anaiak Iruñen eta belarrak ebakitzeko etortzen zire Baztan eta Errekatik, sos anitz bear izeten ze, bei anitz ize-teaikin bear ze belar anitz eta berek bazuste sagoi ederrak eta onak. Nik gogoan dauket bei eta beor batzuk saldu zutela, ezin eginez ziren lan guziak eta Espaiñako gorroto aundi ure eta bukatu zelaik, bazire bi anaia lan anitz egiten zutenak eta bi gaztenak egon zire Kaputxinoetan. Beren eskoletan ikasi zute gauza anitz eta gazte-na gelditu ze berekin eta aren altzinekua itzuli ze etxera eta denbora gutin buruan jua ze Kaliforniara eta an egon ze denbora puxka bat eta bildu zue sos puxka bat eta etxe bat edo bide erosi zitue.

Bitartean, ama naigabez betea bere bizi guzian aski eritu ze, eta kataratak bi begietan ekendu ziote, baño geroxago *diabetes* deitzen den eritasuna eta anitz zuela erraten zute. Alaba bakarra Belgikara jua ze lanera bere anaia zarrena ezkondu zelaik etxera, bigarrena ere laister ezkondu ze eta senide edo familie desin ze, iru kanpora eta bi zarrenak erri berean gelditu zire, irugarrena etorri zelaik Kaliforniatik ezkondu ze altzinekoain andreain aizpe batekin. Oiek lanean, baño ongi dire.

Belgikara jua zen arreba an ezkondu ze, baño emengo elizatik arara iorri zire bear ziren paperak eta andik itzuli zuzte zer egunez ezkondu ziren. Baditu semea eta alaba xarmentak. Bertze iruek ere ume abilek eta ederrak.

Lutxi gero eta eriago zego eta bere eritasun aundiarekin lan anitz ematen zue gaixoak. Laugarren semea egin ze kaputxinoa eta emen sei edo zazpi urte igaro ondoan jua ze Filipinas deitzen den tokira misiotara. Aspaldik ez dut ikusi, uste dut ongi dela. Azkenean, Lutxi il ze. Bere denbora guzian ikusi dugu lana lanai gañan egiten. Indar aundia bear izen zue bere denbora guzian eta, nere idurikos, arront xuxena zela eta indartasunak atera zue altzina eta Jaungoikoak emanikeko doia zue. Goian bego!

### **Ogeita amabigarren emakumea:** Graxiana Adame

Ni oraño aurra nitzelaik, Erroibarko erri polit batean baze andre tiki pollit bat, arront umore ona zue. Erraten balin baziote tikia zela, segido erraten zue obe zela guti eta ona aunitz eta gaistoa baño. Bertze batzurretan erraten zue *esencia* erdaraz ona bonbilli tikian eta olako edo ori iduriko gauza, baño beti gelditzen ze gañan. Baño beti irriz gelditzen zire denak. Beti lanean ikusten nue, berdin beiekin bere senarrai laguntzen nola arropa garbitzen edo baratzean denborako lanetan edo iturrian ur artzen. Elizera ere lemexikoa mezetan eta arratsaldean arrosarioan. Nik maite izen dut beti maitegarria zelakoz. Baño bertze gauza batek ere maitezten zire.

Bere semetaz gañera, artu zue nexka bat inklusetik eta azi ze etxe artan, beren alaba bezala azi ze eta semendako arreba ze. Berdin ze artzaia nola labrarie, berak uste zuen amak berak bezala lan guzietatik batek eta bertzeak ere. Ama bezain tikia, azi ze aundia eta sobera aundia, beltzaran aundi bat ze, ederra eta arront azkarra. Anaiak Amerikan, Kalifornia aldean, zire eta bera aita eta amaikin beti lanean iruek. Baño amak ekarri zue mutiko bat sei urtekoa, ama il berrie ze eta gizajoai ekarri zioten Iruñara aurren etxera. Bere aurrerak orain sobera aurrak zire eta utzi zute Iruñen. Tudela ondokoa ze, baño aunditzen zirelaik aurrerak guziek bildu gogo zute elkarrekin. Beti ere, arront etxe onera eta jende onera ekarri zute. Eta ama tiki arek uste dut betetzen zuela ama on baten tokia.

Goiz batez, elizetik etxera negarrez, erran zue bezperan arreatu zuela mutikoa bere soñekoan poton bat paratzen eta erran ziola: nere maitia ez duzu zuk ez konpondu eta ez potonik paratu. Berak, ama zen bezala, eginen zituela lan aiek eta aurrak bear zituen guziek. Baño gizajoak alketzen etaik ze eta kosta zitzaiot anitz trankil egotia. Soñeko berria eta onak egin ziozte eta berdin oñetakoak, gutire gutire asi ze laketzen eta lasaitzen eta denak kontent. Nik orrengatik maite nue andre ure, ikusi nuelakoz maite zuela aur ura gutiz gorabera nere adinekora, eta negar egiten nue ikesi nuelaik aita eta ama ilak zituela. Maitetasun aundi bat ematen zioten, iatera berak nai zuena etxean zenetik, beztitzeko eta oñetako bear zituen guziak, eskolara juaten ze egunoro... Eskolatik kanpo berdin ikasten zue ardiak zaintzen nola baratzeako gauzak biltzen edo baratzea konpontzen edo mandatuak egiten. Berantago bertze lan batzuk, bordara bazkaria erematen edo aitari laguntzen. Betiere, mutiko gizajo bat ze eta uste dut eskolan bezain prestua zela etxean, denak onak direlaik erraxago da denak ongi egotea.

Amerikatik etorri ondoan, anaietaik bat juan ze Argentinara eta an ere baze etxe ortako seme bat ezkondua errian juan baño len, erri bereko alaba batekin. Gizon arropa iostune ze eta andrea andre arropa iostune. Erri berean sortua ereman zute seme bat, arront sendagille ona zela gaztiatu zute zeuden tokitik erriko an zen bertze batek. Nai eta ez, alako gende onen umeak ongi ikusiak izen bear dute. Artu nexka ure erri bereko seme batekin ezkondu ze eta ume alde bat izen zute eta, azi ondoan, ezkonduak dire denak. Ama aspaldik ila da, eta aite bi urtetara doae. Bere ume onen ondoan il ze aita, baño ama ebakuntze aundi batean il ze, aspaldik.

### **Ogeita amairugarren emakumea:** Bartolo eta Martina

Onendako ere bazitue bere gertaerak. Au ere neure ezagunetan onetaik bat ze. Au ere erri bereko seme batekin ezkondu ze eta erraten zute eskolako denboran maite zutela elkar. Nere aita eta ama baño zarragokoak zire, nere ustez. Langile onak

zire biek. Bearbada aita abiltzagokoa. Balin baze alor zenbait saltzeko, etze ure gibela juain, eginen zue al guzia erosteagatik. Andrea umore onekoa, ixile eta umile, bere senarrak erranak, ongi erranak eta egiñak ere, arras ongi eginak. Ezagutzen zue aur batek arront ongi artzen zutela eta ongi maite zutela elkar. Izen zuzte ume alde bat ederra. Uste dut sei aur seurik bazutela zeruan. Bat lau edo bertz urtetan meza nagusiko denboran erre zitzeiote, aita gelditu ze zaintzen, baño alabearra ote zen... aita iausti ze beiei beidetzero eta aurra erre ze. Atsalde berean il ze. Andrea naigabe arengatik sortu ze arront, etzue deus ere aitzen. Gaixoa! Ongi naigabetua gelditu ze. Bazue zetaz eta min artzen gindue oroitzeaz bakarrik.

Gero, ure iltzean, izen zuten lemexiko aurrari paratu ziote izen bera, baño sei ilabetetan il ze. Angel izena zuena ere il ze eta urbilenai izen bera eman eta ia urteain burun il, eta gero oroitzen naiz bertze bidez, nexka eta mutikoa, biek ilek. Ama gaixoak zenbait negar eginik jua ze lurretik. Ala ere, umore pixka bat izeten zue solas egiteko jendearekin... obe da ola, ez da ain errax ala izetea. Gañera, bazekie zeruan aurkitzen zirela eta an egoin zela berekin egun batez. Uste dut denbora puska aundia egon zela eri eta il baño len ezkondu zela bere alaba zarrena erriko seme batekin. Orai ez dakit onei il zitzaion alaba zarrena lemexiko aldian gure Jauna artu ondoan.

Bere alaba bat ere ogeite bederatzi urtetan gutiz gorabera usteik gutienezan il ze, eta bere alaba zarrenain senarra ere il zela alborengo edo pulmonia deitzen danaikin. Badakit mile bederatziegun eta berrogei eta bian il zela, baño bertzeak ez dakit noiz. Bere senarra eta seme zarrenak ere il zire, baño ebek badakit ondorean jua direla eta alaba zarrena itsutzen ai dela, baño ama il ze eta altzineko gauzetaz oroitu nai dut bakarrik. Emakume txintxo zela eta indartsua, ainbertze naigabe ondoan alako sandutasuna agertu digulaik, denei segi dizkigun bere pausuak ondarreraño. Ori nai dut irakurtzen duten guziari, denek beren bizian erakusten digute zerbait gauza pollit egin dezagun guk ere. Eta orai denbora ebetan ain biarretan gaude denak aundiazteko gure sinesmena eta bera arekin gure itxaropena eta ebekin goi maitetasuna. Denekin Jaunaren doiak ongi indarrez beteak aurki dezaguten, denek, lurrekoek eta zerukoek. Gaur orrilain ogeita amekan, Ama Birjiñaren egun ontan lagun gaitzala eta, Ama ona den bezala, artu gaitzela eskutik eta ez gaitzela utzi zeruain erdian sartu artio Euskal Erriko emakume guziei. Ala izen daiela.

Eta goian bego emakume au eta bere il diren guziak, altzinekoak eta giblekoak.

### **Ogeita amalaugarren emakumea**

Ezagutu dut Iruñan emakume bat indartasun aundiarekin eta itsu baten alarguna, nere ustez, zortzi umen ama. Bere semetan, nere idurikoz, badire edo bazire bi

apez eta sendagille bat, alaba geienak ezkonduak dire eta emakume onak. Amak sinesmena eta itxaropena ongi berekin zitue eta ongi balietu da berekin, bertzelaz, nola burutuko zue ainbertze umekin? Ez da ain errax. Aita ongi izenez ere, lana franko izeten da eta, errate batean, bakarrik zego. Aitak etzue ikusten eta ez ikusteai-kin egiten al zute makurkerie anitz, baño amak indartasun aundia balin badu, bidetze batekin eginen du umeak xuxen abildatzen eta emakume arek uste dut bazuela bear-tzue gauza on guzietarik. Eta alako gauzeekin atera zire umeak berez onak eta amak erranak artzen zute arront ongi eta ume zarrenek laguntzen izein zute gaztenak onagoak izeten eta edertasunik aundiena da bi apez ain onak atera zeizten beretan.

Uste dut beren sortu errian labrariek zirela eta uste dut igaro zutela egun ilun anitz, baño Jaungoikoain laguntzarekin ateratzen zela denetaik. Nik ala uste dut ama naizelako eta ilundura anitz ikusi dudelako. Ori egia da. Emakume au nik ezagutu baño len alarguna ze eta bere ume guziak beren amain agora beide egoten zire, ezin in zute deus ere beraikin egon gabe eta ola “denak bat zire”. Zein eder den ori ikus-tea! Senide edo familie guzietan ikusi bear ginduke gauza bera, baño ez da errax. Anitz umek beti nai dute beren naia egin daien eta ez aitaña eta ez amaña, zerengatik zartuak izeteaikin ez da oituraik gure naian eta ixiltzera. Ez da ori nere umetan aurki-tzen, baño badakit anitz senide edo familietan badire gauza oietaik auserki. Olako denboretan bizi gara eta oietarik arreatzen da egunoro. Bada zetaz eman eskerrak aurkitzen garelaik alako senide sanduekin, eta oite [sic] eta egon direlako beti be-ren tokian edo ez dire iaats aita eta amaren alkitik. Ongi dago. Emakume au badu denbora puska bat il zela eta uste dut seme bat ere il zela. Dagon tokitik lagun deza-gula emen bear degun denei. Goian bego!

### Ogeite amabortzgarren emakumea

Emakume onen etxe batean bizi gine Iruritan Iruñera etorri ginelaik. Berean sortu zire nere bi alaba eta irugarrena gaizki nitzelako ni, Iruñan sortu ze, baño Iruritan egon gine aurrain lemexiko ilabetetan. Geroxago etorri gine Iruñara eta emen bizi gara oraño. Ogeite amalau urte Iruñen, baño ude pasatzen dugu Mezkiri-tzen, baño iru ilebete giago egon gara ondar urtetan. Emakume au, nere idurikoz bordarie, baño indarra ongi sartua bere biotzean zeuke aspaldik, nik ezagutu baño len. Doi anitz zitue berekin, baño bazue, zerengatik bere ontasuna ikusten ze. Maitetasunez betea zego bere inguruko guziei. Zenbat eriei juan ikustera eta uzten ote zio (denbora aietan) bortz duruko bat ageri etzen xoko zenbaitetan. Ala ze eta, ganera, arrotze batzuk edo bertze ianari zenbait. Beti umore ederrean egoten ze. Nik maite nue anitz, baño ez berai bakarrik, maite nitue bere senide guzie eta berak maite zuen guzie, zerengatik solas egiten zuelaik beti denen alde mintzo ze eta aise

ze maitetzea denak. Bordan bizik ere, aise ze arendako elizera iaustia, an bazue bere tokia eta gutitan egoten ze utsa. Otoitz egitea maite zue anitz. Norbaitek solas egiten bazute, bertze batek egineko makurkeriengatik, segido ateratzen ze makurrein alde. Zer uste duzu guk eginen ginduela obeki? Zer dakigu zer edo nola zegon tenore artan? Segido ateratzen zire makurrak eginikeko gauza onak. Olako bertze batekin ez da errax niok erran dezan gauza bat nioren kontra eta, alaxe, pusken ere obeki solas egiten ze an etzirenetaz. Olako anitz balire erri guzietan, bertze gisetan izen zeike gure bizia.

Emakume onek bazitue ume alde bat. Berak, senar emazteak, eta beren umek euskeraz mintzetzen zire beti. Bat baze irakaslea, baño ezkondu ondoan uste dut ez duela erakutsi kanpokoei geiago. Alaba bat ezkondua bazue Erratzun, bertze bat Urdazurin [sic], bertze bat Gartzainen, Iruriteko karriken bertze bat, seme bat beren bordan, baño gu bizi ginen etxea ere bordakoaña ze, ain segur borda pusken ere obeki egina eta ederragokoa izein ze. Seme au izein ze lemexikoa eta orrengatik izeten zire etxe eta bordako nagusiek. Bertze seme bat uste dut Almandozko errian bizi zela, ez dakit orai non den, baño uste dut zituen nexka pollit aiek gargoro aspaldik ezkonduak direla. Denei zorionak. Andre ona, ama ona eta amatxi ezin ohea ze emakume au eta badu denbora zerura, anitzen ustez, juan zela. Olako anitz balire lurrean obekixago egoin gine denak, nere uste guzian. Andik lagundu dezagula denei, emen zelaik egiten zue al guzia denei, orai ere uste dut maite duela bere senide guzia, bai eta ere bere Euskal Erria. Orrengatik, uste dut eginen duela al guzia emengo denengatik. Egin zazu otoi, emen badegu zure biarra, eta bertze emakume indartsuak ere ongi etorri litzeke tenore ontan; zuetaik anitz bear dire eta zerutik iautsalainder deus gabe diren oiei. Goian beude bera eta bere il guziak!

### Ogeite amaseigarren emakumea

Bizi nitzen etxe berean, ure lemexiko bizialdian eta bigarrenan gu egon gine iru edo lau urtez. Emakume ona eta ederra, amairu ume izen ondoan. Sukalki ona, garbia, maitetasunez betea, indartasun aundikoa, baño aski zuenak irri pixke bat egitea erdiesteko nai zuena. Bear bagindue zerbait ez ginduelakoz etxean, aski gindue iaustea beitire eta balin bazue gurea ze. Eta berdin guk, berak bear eta guk izen eta kontent baginduela emateko. Denbora guzian ez gindue itz bat makurrik izen. Guk besta bat bagindue, berak gure etxean bazkaltzen eta, berek zutelarik, gu an berekin. Etze aurrideik erri guzian guk bezain ongi artzen zutenik. Beren umeak etortzen zirelaik beren etxera, etzire juaten gurekin egon gabe. Ola igaro ginduz denbora on aiek, Españaiko gorrotoa asi baño len. Lemexiko iru aurrak etxe ortan izen nitue.

Lemexikoa ila sortu ze, mutiko bat ze, baño etze ezta bateiora ere iritxi, naigabe aundia izen nue! Baño Jaunaren naia izen ze eta *ala izen daiela*, ori ze nere ototza. Bigarrena nexka pollit bat, emakume onek lagundu zire nere senarra sendagilleain eske juan zelaik. Erran zio andre on onei ien zeila nere etxera, bera bazeila sendagilleain eske, eta andrea izen zelai erran zire ez inderrik egiteko, baño segido sortu ze sendagillea agertu gabe, baño aurre arront asarre ze eta sendagilleak aitu zue eta ien ze segido eta egin zio eginberrak aurrei eta niri, eta erran zio ez uzteko bakarrik niri eta an egon ze biramoneko zortzi eta erdiek artio. Sortu ze aurra bi oron terdietan. Biramon goizean emagine etorri ze eta emakume au iausti bere etxera eta lo egin zue, ogeita bortz urte suurik ni bano zarrago izen ze, ori suurik.

Neretako ama bat bezain ona ze eta nik ala maite nue. Berak, senar eta emazteak, bizi zire seme eta alaba gaztenekin. Eta juan ginelaik, ebek erriko ikastoletara juaten zire oraño eta ongi eldu ze, zerbait makur izenez an, ain urbil izetea gu. Emakume au ia mantsotua zego, ezagutzen ze ia bazuela adin puxka bat eta sobera lodi zegola. Orrengatik, umore on puxke bat ongi eldu zitzaio eta nere senarra ortarako autatua bezala ze. Zerbait irrinezten zio! Baño gorroto zikin arek zerbait makurtu zitue bazter guziak. Andre onei bi alaba eta seme bat artu zeizkio alderdi artaik eta gorrotoa akitu artio egon ze iakin gabe deus ere, baño ez, oroitzen naiz bein batez artu zute Gurutze Gorritik erraten zuena: zure umeak ongi. Denbora guzian etzute deus ere geiagokoi izen eta andre gaixo au arront gaizki paratu ze eta gaizki zegolaik il zitzeio alaba zarrena, Elizondon bizi zena, ezkondua eta iru umen ama. Niok uste ez zuelaik, amari etziote niorek deus ere erran, zertarako? Eta ama arritua bizi ze erranez: zer, ain gaizki da nere alaba, ez dela deustarako agertzen neregana? Ola juan zire denborak eta azkenean denak etorri zire, baño gorrotoa akitu eta lau ilabeten buruan etorri zire, baño denbora guti egon zire amaikin. Segido il ze sandua bezala, negar anitz in zute, baña ama etze itzuli, an gelditu ze aingeruen artean. Goian bego bere il guziekin!

### Ogeita amazpigarren emakumea

Emakume au Garzaron deitzen den erri euskaldunenakoa ze. Indartsua, ezin geiagokoa, langilea, gizon anitz baño geiago, umore on eta ederrekoa, berdin dantzatuko zena, ala bear baze, eta musean iokatiko zuena, ala nai bazute bere ingurukoek. Ala lanean, gisa guzietako lanetan, berdin gizon lanetan nola emakumene-tan. Zenbait aldiz, altzurra soñean nola soñekoak egiten bere umendako, berdin beiak iaizten nola txerrikien garbitzen, berdin ur eske nola lixue garbitzen, berdin soñekoak konpontzen nola mendian egur austen. Ola ze Maria erri guzian maite zutena, zerengatik beti prest zen denei laguntzera bertaz bear bazute nor naiek. Gisa



ortan, ainbertze egiten zuen denboran, izen zitue amabi ume. Amabietaik il zitizire bide, bata bertzean gibeletik nexka eta mutila, biek bi urte bete baño len.

Bertze amarrak uste dut bizi direla. Abeslari ona eta elizara juaten zenean abesti guziak bere kontura egoten zire, berak asten zitue denak eta Ama Birjinain (letania) deitzen direnak, berak paratu ziote soñu bat eta Ama Birjiñain besta guzietan abesten zituzte erri guziak. Ala bizi ze Maria, baño bere aziendaakin, saldu nai bazue, berak jua bear zue merkatura, zerengatik bertzelaz gaizki salduak izeten omen zire, bere senarrak etzue saltzeko deus ere balio, ez omen zue eskatzeko aziendak merexi zuena eta andreak bai, beti ongi egiten omen zitue salerosteak eta beti berak egiten zue lan ori. Bere umek ongi ezagutzen zute bere baliotasuna eta maite zute ama bezala, umore onekoa zelakoz, langile aundia zelakoz, maitegarria zelakoz, eta... ainbertze gauzengatik.

Bere indartasuna aundia ze, iturri bat bezela, nondik etortzen zitzaion ordu bakotxean ordu artan bear zuena eta ala pasatu edo igaro zitzaizko denborak, eta ain segur osasuna ere bai, ez baizue bere gorputzari deus ere barkatzen eta etze gartzten ere ondatzen ai zela, eta gero eta geiago, zerengatik berak ez zuen ikusten bere gaitza eta ortan zego bere makurre. Gero eta gaizkiago asi ze eta ala egontze denbora puske bat eta, azkenean, berrogeite zortzi urte zituelai il ze.

Amar umek, ainbertze bear zutenak bere ama maite artaik, gelditu zire gaixoak negarrez beteak, deus ere gabe, zerengatik amarekin jua zire beren gauza guziak, ama gabe lurra utsa delakoz, ama gabe ilun gelditzen baitire xoko guziak. Jaungoikoak lagun dizkiela amarik gabeko ume guziak. Berak argi dezala beren bizia eta bete dezala utzi duten utsa beren bizian.

Goain bego Maria gaixoa! Berak lagun dezala denei dagon tokitik!

### **Ogeita emezortzigarren emakumea**

Txori bat bezala, iauzike batetik bertzera, nabil billette ni bear dudena idazteko eta ez da erraz biletzea nik nai dudena bezain onak eta indartsuak, baño ongi eza-gutuak badamaitzet altzine.

Bertze erri tiki batera noaie eta ongi ezagutzen nuen emakume batengana. Aur aurretik azi zire bortz aurride amai gabe, aspaldixko il ze eta beren aita eta izeba batekin bizi zire. Madriden bazute izeba bat sorduna eta eskatu zue iru nextetaik bat. Eta bere aitak utzi zio batei, eta Madriden azi zen eta aunditu zen, bai eta ere uste dut eskola onetan ikesi zuela arek zekien guzie. Aite bizi zenean urteoro etortzen ze bere sortu errira bere aita eta aurrideak ikustera, gero eta pollitagokoa ze eta

ezagutzen ze gero eta finego zela. Niorei etzitzego gogora etorriko adinera etortzenezan utziko zuela Madrid eta ezkontdiko zela eta betiko etorriko zela bere sortu errira, eta ori gertatu ze denborain buruan.

Bere lengusu zen mutiko eder bat bazue denbora Kalifornie. Alderdi artan bizi ze eta solas anitz egiten ze, sos anitz egin zuela eta laister etorri bear zuela bere aite eta amarengana. Baño, alare, niorek etzekie deus ere eta, denborain buruan etorri ze eta etxe eder bat erosi zue erri berean eta denbora bazaie eta Madridetik etorri ze nexka eder ure eta nik uste dut lenago egon zela mutila Madridenten. Betiere errian pusken denbora geiago egin zue, bertzetan baño geago, eta erraten ze garbiki gizon eta andre-gaiak zirela eta laister ezkondu bear zutela. Eta ola izen ze. Madridenten egon ze denbora alde ederra eta etorri ze ia ez itzultzeko baizik bere senarraikin. Ni oroitzen naiz ezkontzeko mezan egon nitzela eta zein eder beztituak zeuden. Orduan beltzez beztitzen zire emakumeak bai seurik, eta uste dut gizonak ere, baño oial oberenetik eginak, eta oñetako eta esku zorro eta gañerakoa, denak oberenetaik zire denak. Gero besta aundia izen zela errian eta jua zirela ez dakit nora, nik uste dut Madridera jua zirela. Denbora puska baten buruan aur bat, eder bat, izen zutela, baño urte bat inguruan zuelaik il zela aurra eta gero izen zutela bertze seme bat izen berak paratu ziotela; au azi ze ongi eta urbilena ere bai. Orai bere sortu etxean nagusi dago, eta baditu bortz edo sei ume, baño bi arreba ere badituzte berrogei eta zortzi eta berrogeita bortz seurik.

Ama arront errezu anitz eginzalea ze, langilea eta andre garbia alderdi guzieta-ra. Aren beidetze bat baliosagokoa ze bertze asarre guziak baño, zerengatik artan ikusten ze bere baitan zegon indartasuna, maitetasun aundi bat, umiltasun gaitza, goi maitetasun bizkorra, eta Jaungoikoak eman zeizko doi aundi guziak. Urriaren ogeite bederatzi batean il ze, baño ni nindegon tokitik urrun zego erri ori eta nindegon tokitik otoitz egiten nue egun ortan beti.

Goian bego eta oroi daiela gutaz!

### **Ogeite emeretzigarren emakumea**

Nere gaztetasunean ezagutu nuen neska bat ederra eta zoragarria. Etortzen ze lankaiiaikin brodatzen ikestera, Erroibarko erri batekoa zen, baño ez nerekoa. Nere anai gaztenain bataioko amatxi ze. Baño lendik bagindue aixkidentza aundia, zerengatik nere aitain arreba batekin ezkondu ze nexka onen aitain anaia bat, eta nere aitan anaia batekin bere aitaren arreba bat, eta onen aitai nere aitak maite zue anaia bezala.

Ala gauzak, ikesi zuelaik brodatzen, erran zire alargun batekin ezkontzekotan zegola gisa batez, baño sobera adin zuela beretako gizon arek. Ni baño zarragokoa ze eta nik ez nue oraño gogoan gauza ebek. Erran nion begiratzeko ongi zer egin eta

berak egin bear zuela eginbearra, gero urrikaldu gabe egiten zuenaz. Eta nik uste nue alarguna alde batera utziko zuela eta bertze gizongai batekin asiko zela, baño etze ala izen. Ezkondu ze alargunarekin eta Donostin bizitu ze bere denbora guzian. Iakin nue laister arrot diruduna zela gizon ura, bazituela lemexiko andreangandik seme bat eta alaba bat.

Lemexiko andrea arrot gaizki beztitzen zena zela eta gizonak maite zuela ongi bezti zeien bere andrea; lemexikoaiki igarotzen zituela naigabe aundiak aferarrogatik. Niri gogoratu zitzeide gerostik onekin etzuela alakoik izein. Arrot gorputz ederra zue eta arras maite zue ongi ibiltzea eta gauze onekin beztitzea. Eta beti iduritu zaide senarrain naia osoki ongi egiten zuela. Etxe batean bizi ze... ezin ederragokoa, etze utsik batre, denetaik baze. Iaten ze gauza oberenetaik eta auserki. Bazire bi neskato eta ongi erakutsiak eta ain maitatuak... etzirela nion obeki egoten al, baño badire senide beretan ezin ikusi al dutenak beren aurriden ongitasuna eta anitz aldiz atera izen naiz bere alde eta orai ere egin nezake, zerengatik etxe artaik etzeike goseak atra, beti zerbait manaiez, soñekoak ere aise maten zitue... Baño aite eta amak ilek zitue eta aurridiak etziote maite, senarra bortz edo sei urte ontan ile da, iru alaba zitue eta arrot ongi ikasiak zire. Aita il baño len ezkonduak zire iruak eta bazuzte ume tikiak ere eta neskatoak lanak egiteko. Baño amak egunoroko meza entzuten zue, otoitz egillea ze, umore onekoa ze, beidetze argi bat zue begi urdin eder aietan, nere idurikoz, beidetze batekin egiten zue nai zuena bere senarrarekin eta berekin zegon guziekin. An zue, nere idurikoz, bear zuen indartasun guzia eta bertze doi anitz Jaunarengandik iaustiak.

Ni Donostira juaten nitzeneian, gogotik agertzen nitze bere etxera neure gauzak eginik izeten banue bear nuen denbora, eta kontent ikusten nue paratzen zela eta orrogatik agertzen nitze, bertzenaz gibelatiko nitze. Nere ustez, bizi de bera, baño ez dakit, zerengatik badu urte multxu bat ez naizela Donostira agertu neure senar onengatik. Ainbertze denboraz eri, ezin utzia bakarrik eta noiznai asarre, ez da errax ez, uztea eta ez berarekin egotea. Eritasun txarra da, batzurretan erotue eta bertze zenbait aldiz ergeldue, ez aitzen ez ikusten, maingutue arrot eta, ala ere, zenbat aldiz ez du nai niri ikustea. Nik ere bear dut indartasun ederra.

### **Berrogeigarren emakumea**

Jesusen Biotzeko Lagundiaren monja edo serora da orai autatu dudena emakumetan, erakusteko nola indartasuna ongi sartua dagola Euskal Erriko andre eta nexka guzietan aur aurretik asite. Au ere ezagutzen dut ongi. Bere senide edo familien anaia bere andrearekin eta umekin eta bera bakarrik zire. Serora izanagatik, bere ama eriaian urte anitzez zaindu du bere maitetasun guziarekin. Ondarrean ia burua

arrant nasia eta ezin egin geiago eta, alare, eginalak eginez iduki zue Jaungoikoak ereman artio beregana. Eta orduan negar eta otoitz, eta otoitz eta negar, auserki eginez egon ze al guzia urdailla pixke bat sendatu artio, baño bere buruan gogoan sartua zego bertze gauza bat. Eta erdietsi artio etzue bere eskutik edo bere burutik eta asi ze prestatzen gauza aski juan bear zuen tokira juateko, asi ze ikasten zer mintzaira bear zuen zeien tokian. Gero sendagilleko lanak ere bear zitue ikesi al zuen guzia, gero zegon lagundian bear zue juateko baia eta, oiek denak prestatu onduan, juan ze Zaire deitzen den tokira. Arara juateko bear zue indar aundia eta uste dut, ainbertze eskatuz, erdiesten duela. Baditu bi urte juan zela eta orai etorri da bi ilabete emen egotera, ia pixke bat bedere loditzen den. Lan anitz izen bear du an eta anitz eriekin eta sendagille bat gabea al guzia egiten denei senda daitzen, baño erraten du lazkarria dela, anitz aur iltzen direla, eta denetan oberena litzekela sendagile bat bedere balitz an, eta aren manuek edo manatzen duena eginez aise obe izein zela ola, baño ez dela nior juaten eta ez dutela itxaropenik ere nior agertuko delakoik.

Gero jaurlariak dauden gisaz ere, non juain de? Nere ustez, gizonik ez, izetekotan Euskal Erriko sendagille zenbait, baño emakumeak, ikusten dugun bezala, berak dire arront indartsuak. Uste dut monja au bezalako indartasunaikin izein daike aterako direla bertze batzuk, baño orai dagon gisan dena ez da errax juan daitzen anitz, denborak errain du, baño beldur naiz ezetz. Monja onek nai du itzuli, baño berak nai duen bezain laister ezta juan al izein, ez baitu oraño baimenik juateko makurrago paratu direlakoaz gauzak. Monja au ere Bizkaikoa da, baño badu denbora ezagutzen dudela eta berak ez daki nik idazten dudela bere bizitzaz deus ere. Baño denak erranez ongi eder litzeke. Nik erran dezaket sinismen aundikoa, itxaropen ederrekkoa eta goi maitasun azkarra duela berekin, umile eta gauza onak ixilik egiten dituela dela. Gustoara egon daike berarekin, baño baditu gauza anitz egin bearrak eta ez du astik denbora pasatzeko nolana. Orai egoten den denbora izein du obeki ikasiak eremateko gauza geiago, ez daien il ainbertze jende. Lagun dezala gure Jaungoikoak zerutik bere lanak gero ta obeki eginak izen daitzen, eta erien osasuna denak, gure Ama zerukoak lagundu dezala ongi bere ume gaixoak, lagun dezala emendik beren biziak arrixkoan paratuz juaten diren guziak. Indartasuna eta bertze doi guziak berekin izan dezatela. Agur.

### **Berrogei eta batgarren emakumea: Juliana**

Mile eta bederatziegun eta amarrean uste dut ateratu zela Madridtik Mezkiritzko erriko alaba bat. Mejkora juan ze bere aupidea egin zuen egun berean berain gaiñezko monja bateki, juan zire erdaraz deitzen den Mérida de Yukatán tokira. Oraño etzue niorek irasi an serora etxeik batere eta berak zire lemexikoak. Erdaraz

*Siervas de Maria* deitzen dire eta gabas erien zaintzera beren etxetan juaten dire. Orduen zegon gisan Mejiko, nik ez dakit nola menturatu ziren juatera. Gorputza sendatzeko denboran anima azkartu nai zute; baño, erran duden bezala, denbora txarrak zeude eta il zirelaik bere aita eta ama, erran zute giltzepean eduki zuztela eta eritasun gaitza artu zuela berean Mezkiritzkoak eta etzela sendatu eritasun artaik eta sandua bezala il zela. Bere aite il ze eta amak, negar anitz eginik ere berak, osasune aski gaizki egon ze. Ogeite amasei urte zitue il zelaik, Jaungoikoak bakarrik daki zer pasatu ote zuen. Bere amak Madriden agurtu zuen eta egun berean alaba Mejikora eta ama Mezkiritze. Nola gelditu ote zire biek? Nai eta ez, desinek zuten indarra ongi bearretan. Bai, uste dut ongi indartsuak zirela, baño tenore artan dena bear zutela. Badakit egon zela monja jua baño len Erroibarko etxe batean, baño bertze erri batean, bere sortu errira urbil eta etxe artako ume guziak, seme zarrenaz landa, jua zirela dena fraile eta monja eta an izen zue bere deia bide berera. Eta denak utzi eta jua ze eta xuxen segitu zue bere deiari eta uste dut, il bazute ere, gogotik emain zuela bere bizia Jaungoikoarengana animak eremateagatik.

Eta, nere ustez, gauza ederra da, baño aita eta amak ez dute ain aise uzten, zereingatik beldur dire ez dutela geiagokoi ikusteko bere umeak eta kostatzen zaiote uztea. Ori ikusi dut neure denboran. Apez egitera uzten zute aise, baño fraile edo monja ez, zereingatik juaten zire urrun eta, etze errax ez, ikustea geigo, ez bat eta ez bertzea, orreingatik etze aise juatea, baño Ameriketara sos egitera bai uzten zuzte. Geienean negar anitz egiten zuzte, baña traba gutiago paratzen ziozte, uste zute laisterrago ikusiko zirela, baño zenbat gelditu dire an! Anitz. Serora eta fraile baño geiago, eta sinismen geiago galdu ere geiago. Ez da erraz aztatzea.

Orai bada errietan lanbide geiago eta ez dute zetaz ateratu etxetik kanpora lan geigo egiteatik. Zubiriko Magnesitas deitzen den meatz oi ederki de ondoko erri guziendako eta ola bizi dire bakotza bere sortu etxean ezkondu artio eta geienek egiten dute beren etxe tiki bat, lanera urbilago eta ongi bizi dire, zereingatik lur lanak egiten dituzte lankai gisa guziekin eta zortzi ordu Zubirin eta al dituzten guziak beren lurretan. Ori ongi dago, baño neskatxendako baliz ere, ongi etorriko ze anitzendako, baño ez da deus ageri oraño neskatxendako eta ongi etorria izen zeike. Orai utzi beariko dut gauza ebek errateko eskatu bear dugula anitz indar, indar aundi bat sar daiela gure animetan eta azkartasun onek egin dezan emakume guzietaz tenore ebetan bear duguna.

### **Berroegeita bigarren emakumea: Maria**

Erri tiki bateko etxe tikiagokoan bizi zen familie bat aski aundie. Aite eta ama zire elkar anitz maite zirenak eta ez naiz oroitzen zenbat ume zuzte, ni iru

edo lau umez oroitzen naiz. Kalifornie alde artara juanak zire nik zaumendu pixka bat izen orduko, gero berantagoko bi semetaz oroitzen naiz juan zirela. Beti aitu nue nik arront ume onak atera zirela. Alaba bat ezkondu ze erri bereko etxealde batera, baño guti ireun zue, berrogeite bi urtetan il ze ume alde utzik, arront aurrak oraño; eta bertze alaba Urepel alde artara ezkondu ze. Senide edo familie au aski beartsue zen, gizon baten egun guziko lana uste dut ogeite amar sosetik bi pezetara saritzen zutela. Ori etze deus ere eta, denak lanean aituz ere, etze aski egunoroko ogiaindeko. Nola ainbertzendako? Aitu izen dut bestetako erosten ziotela amak ezpartinak denei eta mutikoek lepotik dilinden. Eta galde egiten zutenei zetaz zeramaten gisa ortan, erraten zutela «ikus dezazien baitugula», baña gizona! «parazkik zangoa sartuz bear bezala», eta orduan «iostatu gabe egon bearko dut, austen ditugu segido...», eta ala eremanez jarraitu zire berak irezten asi artio.

Andre gaixoa naigabetua egoten ze, baño ezpañetan eta biotzean beti otoitz berarekin: *egin bedi zure naia zeruan bezala lurrean ere*, eta ori erranazten zio zuen indartasun ikaragarriak. Ni oroitzen naiz zuen umiltasun aundia. Eskolaik batre gabe, ez zue ez irakurtzen eta ez idazten, nere amak egiten zizkio eskutiz guziak beren semei, zerengatik ebek bazekite irakurtzen eta idazten eta maiz iortzen zutela beren aita amari al zuketen sosa. Eta ordutik eta il artio iortzen ziozte eta arront polliki igaro zute beren zarrerie.

Badakit amak negar anitz egiten zuela oroitzuz zein gaizki aziak izen ziren eta ain onak ziren berekin, baño nere amak erraten ziote: izen bazindute altxatuko zindute zeurendako? Badakigu ezetz, erraten ziote eta orduan nere amak erraten ziote: zuen semek ere badakite eta orrengatik iortzen dute, zuek izen dezazien bear duzien gauza guziek. Badakit arront ongi artzen zutela nere amak erranak, berrogei eta amar urtez gazteago izenik nere ama ere. Anitz denboraz bizitu zire arront urbil eta maite zute elkar eta nik maite nitue nere aitak, amak eta amatxik maite zuztenak. Mile bederatziegun eta emezortziko urriko amazpian il ze gripe gaisto arekin eta andreak ireun zue gexago, baño eritasun berak nasik eta, ganera, zein maite zuen bere senarra! Beti bere gogotik ezin ekendu... xaltxa orrek desin zue andre gaixoa, urte artan berean abenduain zazpian utzi zitue lurreko min guziak zeruko argira betiko igateko orai denak. Goian beude!

Zenbait juan dire eben ondotik orai artio eta uste anitz sinesmen eta itxaropenez beteak gure Jaun eta Jaungoikoan zeudela beregana deitu zituelaik, eta bazute gisa ortan zerura juateko txartelik oberena, zerengatik uste dut sinesmenekin eta itxaropenaikin zutela goi maitasuna eta Jaungoikoa maite duenak, maite ditu gizon guziak aren umeak direlakoz eta gauza oiekien guziekin laisterka zerura. Ala izen daila.

### **Berrogeita irugarren emakumea: Teresa**

Emakume au Euskal Erriko erri eder batekoa da eta etxe ederreko andrea da. Gisa guzietako emakumeak baditut. Berrogeita iru ebetan badire irakasleak, anitz ikesi dutenak, eta bertze batzuk batere ikesi gabekoak. Baño biotz guzitik, uste dut denek ongi ikesie zutela zerurako bidea. Orduan eginbearrik aundiena egin dute eta orduan ez dute zetaz beldurrik izen.

Lemexiko lerrotik ondarreño emakume indertsuetaz idatzi dut eta bilatu ditut xoko guzietan Euskal Erriko emakume indartsuak eta, altzine begiratzuz, biletu bear ditut bakar batzuk geiago. Au anitz aldietan arreatuko dugu ostatu batean umore onean, baño bitartean seriosotasun aundi batekin. Len ala ze, uste dut berdin dela orai.

Baditu zazpi ume seurik, bortz mutiko eta bi nexka, nere ustes, geienak ezkonduak dire. Azterakoan lan ederrak izen ditu, beretako bakarrik geiegiak, eta bere umengatik osasuna ere aski moteldua izen zue denbora puske batez. Gañera, nere ustez, izen ditu naigabeak. Azterakoan, ume bakotxak bere goraberak izeten ditu eta ez dut uste berak bakarrik izen bear zuela bertze gisa batera. Gañera, ondar iru semeak batean sortuak zitue. Uste oberenak izanik ere, izen dituela bere arat onatak eta gauza oiek, nere ustez, ama gero eta indartsuagokoa egiten da, eta au eliza eta otoitza maite duena balin bada, gero eta geiago, zerengatik zenbat aldiz erraten ote du ama bakoitzak Jaungoiko gure Jaunari: Aita gurea zeruetan zaudena, zure eskutan paratzen dut zure seme au, zurea da nerea baño lenago, zuk senda dezakezu, egizu ba zurea da. Eta bertze beartasun bat balin bada erranen du bere otoitzan bertze bear duen gauza, baño iduki dezagun gogoan ama dela geiagoea eskatzen duena eta anitz aldiz bere burua antzik bere senar eta umendako, eta gure umek ekarri badituzte bertze ume batzuk, aietaz ere bai beti eskatzen, baño ortan ere erakutsi digu Ama Birjiñak Kanako ezkontzan. Berak eskatu ondoan semeari, erran ziote: berak manatzen diziena egin zazie. Orai ere erraten digu berak bere ebanjelioan erraten duena egin zazie, eta badugu zer egin eta zer ikesi beran eta indarrez beteko gara. Gaurko emakume onek uste dut ongi ikesie duela bereko erranak, badire anitz, berez onak izenik ere, ez dakitela irakurtzen eta ez idazten ikesteko gauza geiago, baño dakienain gañera irakurtzen badegu, gero eta geago ikasiko dugu egin zagan, gero eta geiago bear dugulakoz.

Sendagille on bati etortzen bazaio eri bat anitz aldietan, artiko du liburu bat eta begiratiko du ongi zer eman bear dion senda daien len baño len beregana etorri den eri ure, zerengatik aztatu nai du ongi eta aise senda daien. Bearrezkoa da ori, bertzenaz ez da errax sendatzea niorei. Eta eriek ere egin bear du sendagilleak manatzen diona, ez da aski erratea eginen duela bakarrik, egin bear da nai duen gauza txarra balin bada ere, bertzenaz ez da sendatzeik. Eta obe da egin bere denboran, utzi gabe

geroko; segido egin bear bada, egin ori de oberena, eta ez da urrikituko segido egi-teaz, baño bertzelaz negarra eta egunorokoa izen dezake.

### **Berrogeita laugarren emakumea:** Franziska

Oraiko emakume au ezagutu nue Zugarramurdin. Amatxi erraten nio. Anitz maite zire eta etzue batre sorgin antzaik, deus ere. Nai zuen tenorea izaten al ze, baño neretako eta nerekin juaten zirenendako beti maia paratue ze. Ni denbora aietan astean bi edo iru aldiz juaten nitze ogi saltzera neure senarraikin eta zenbait aldiz bi aur zarrenekin, irugarrena neurekin nue. Badu berrogei urte eta sortu ze epaillaren amazapian eta beteak ditu berrogei urteak, orrengatik badu berrogeite lau ezagutu nuela. Eta neretako arront ona ze, baño Zugarramurdin neretako denak onak zire, onegiak. Bear banitue amar guatze gau baktotxan, amarrak izein nitue. Gutu aldiz beartu nai batez bakarrik, bano denek beren etxetara nai zirete ereman, orrengatik erraten dut amar izein nituela. Nik mandatu anitz egiten niote eta ez nekote batre sarik ekentzen neure lanaz, bakarrik kostatzen zena erosten zelaik zerbait. Baño zenbat iler pikor ematen zirete: gazta, arrotze eta ongi eldu ziren gauzak. Baño ain gaizki paratu zire gero gauzak, denak uzteko lana izen gindue, zerengatik etzen ogik saltzeko. Etze egiten etzelakoz irinik egiteko. Ola zego dena.

Emakume onek juaten ziren guziendako edekik zego bere etxeko atea eta dendako bazue zer eman. Bera etortzen zenean, geienean sendailleaingana etortzen zen eta berarekin juan nitze ez uzteagatik bakarrik; bera arront euskalduna ze, baño bi ume zarrenak Argentinan sortuak dire. Arront xaloa ze eta umore onekoa denekin, nai izeten zue baratzea erakustea eta beren beiak, aratzeak, txerriek... arront ongi idukitzen zuzteazienda guzie. Badu amar bat urte il ze, lauetan ogei eta amar urtetan eta burua arront ongi zeuke. Ongi zelaik, egunoro juaten ze mezara eta otoitz egillea ze. Maite zitue denak eta denek maite zute andre onei, sobera zintzoa ze eta indartsua ere, doi anitz bazitue berekin, sobera langilea ze makurkerierik bere buruan idukitzeko eta orrengatik uste dut zeruan dela.

Bere senarra il zelaik, naigabe aundia artu zue eta zenbat meza erran ote zire berak manatuik bere senarraindeko! Sinismen aundia zue eta ez dut uste zela, bertze zenbait bezala, anitz aldiz Jauna, Jauna! eta ez egin Jaun orren naia. Ez gogoan pasatu ere, bertze gisekoa ze, eginen zue al guzia Jaungoikoaren naia egitera eta etze ain Jauna, Jauna! errantzale ez, sobera txintxoia ze, nai izeten zue bere etxian egon nindeien, amar bat egon nindaian, baño nik alakorik ez nuke eta ez dezaket alakorik egin, nik beti izen dut neure etxean lanik aski bertze toki batera denbora pasatzera joateko. Ez etze neretako gina eta obekiena nere etxean egoten naiz eta ori bazekie



berak nik ez nukela egin alako gauzaik, eta uste dut etzela sekula nere kontra egon, bera ere etzelakoz gelditiko etxetik kanpo.

Bi alaba eta seme bat zitue, izen zitue geiago, baño il zitzaio ez dakit zenbat. Bibiro seurik bai eta uste dut geiago ere, baño ez naiz segur eta obe da egiakin baka-  
rrik iostatu. Bere alaba zarrenak bazue alaba bat eta bi seme, iruak ezkonduak eta  
semeak iru alaba eta seme bat edo bide, baño ez dakit segur, semeain bi alaba seurik  
ezkonduak dire. Badute umeak ere, baño ez amatxi bezain pollitak, ain xuriak ere ez.

### **Berrogeite bortzgarren emakumea:** Antoni

Lauetan ogei eta zortzi urtetan il ze emakume au, nik ogeite iru nituelaik. Nere  
iduriz, xarmanta ze oraño nik ezagutu nuelaik eta sasoi onean zego, sobera langilea ze  
eta bere alabak etzue nai ainbertze lan egin zezan, baño etzeike lanik egin gabe egon.  
Bere adineko edo denborako gizonak erraten zute Erroibarko andreik ederrena izen  
zela, bere denboran arront luzea ze, ori badakit nik. Xuri gorri eder bat eta bi begi,  
ixilik zegolaik solas egiten zutenak, urdiñak zire. Gauze guziek bere tokien egon bear  
zute arekin. Gezurra gaitsestue zue aspaldik eta egi garbia, min egiten bazio ere, ze  
bere muaarria. Beti egia. Entzun izen dut bere senarrai sortu etxean ezkontzera bera-  
rekin etziotela utzi nai, obe zuela diru geiago zuenarekin egiten baze, baño bere gizon-  
gaiak erran ziola bere aitari: ez balu sos bat ere, ni Antonikin ezkondu biar dut, emaku-  
me bat nai dut eta orixe da nik autatua, eta goñata bearrak egin omen zio aski traba  
paratu baño, denak alde batera utzik, ezkondu zire eta beren bizi guzian arront maite  
omen zute elkar; egundaño itz bat elkarren ertian makurrekoik egundeño izen.

Bederatzi ume izen zitue eta lemexiko biek gabe gelditu zire lau urte zituelaik  
zarrenak, eta ain naigabetuak zeude senar emazteak, etorri zirela Iruñara eta berean  
inklusa deitzen den aur etxera eta eskatu zute aur bat eta ba omen ze mutiko sortu  
berri bat eta, beren idurikoz, arront beren zarrena idurie, eta biek batean erran zute  
ure nai zutela eta segido eman ziozte berendako. Eta Antonik azi zue bere bulerraikin  
seme bat xarmanta, abizena etziote utzi berena ematera, eta aurren etxean eman  
ziotena ereman zue beti. Beti uste omen zue lemexiko semea zela eta aunditu on-  
duan iakin zuelaik, Argentinara jua ome ze, baño ezin laketuz itzuli omen zen, gero  
nere aitaren arreba batekin ezkondu ze. Baño etze azi andregaiain etxean, ez zute  
deus ere ikustekoik batak bertzeaiakin. Ni aur aurretik oroitzen naiz goizean lanera  
zeielatik eta artsean itzultzen zenean, beti juaten zela bere azi zuen amaingana eta  
emakume onendako egizko seme bat zela.

Aitu izen dut nai izen zuela etxetik jua zezin egizko ume guziak eta bera gel-  
ditu zeien, baño erran ziozte nola bururutzen ote zuen egin etzeikena. Bere lemexiko

semain aitetxi bataiokoa izen ze aitaña egin zuena, bigarren alabaña emakume au, eta irugerrena arreba bat eta il artio maitatua izen ze. Beren umeak lena eta bigarrena, au azi ondoan bertze bi nexka, gero seme bat eta gero alaba bat, gero bata bertzeain gibeletik bi seme eta, ondarra, bertze alaba bat. Au lau bortz urtetan il ze Trintete egun batez. Ume onak eta ederrak izen dire, orai denak ilek dire. Goian beude!

Baño oraño badut zer erran, beren gertaera zenbait. Zerengatik ebetan ikusiko dugu emakume onen indartasuna zain ederrekin eta goi maitetasun aundi bat. Beretik eldu zitzeio alako maitetasun aundia bere inguruan bizi zen guziari. Len erran dut nola bere senarrai (gaia zelaik) egin zutela al guzia gogotik ekendu naiez, bere gogotik emakume onekin ezkon zeien, eta berak sobera bere buruan sartua zuelakoz egin zire eta beren umiltasun eta maitasun aundian bizi zire alaitasunez bateak beren umekin.

Baño, bitartean, gizonain sortu etxean etze alakoik. Naigabe aundian inguratuak zire denak. Bazuzte bortz alaba eta iru seme, iduri zue etzela makurrik batere etxe artan, bazego eta aundia. Gaitz epela arron sartua zego etxe artan eta eskatu ziote bere laguntza Antoni emakumeari eta onek bere zortzi umekin eta denak eri zirenak baño gazteagokoak, batre gogoratu gabe kutsetu zeizkiela juan ze eta gabas eta egunez an egoten ze zaintzen gaixoak eta egin ez sendagilleak manatzen zuena. Bakotxak urte pare bat egiten omen zute guatzean eta eginak eginik ere alabetan sartu zen gaitza. Lemexikoa il orduko bazire bertze bide gaizki zirenak eta bere izebai erraten ziote: izeba zaude gurekin, guk eskatiko dugu zuretako, egin zazu guregatik al dezazuna. Eta beren garbitasun guzia egiten zue berak; eta beren ama arront desine ze, baño sukaldeko lanak egiten zitue, bortz alabetaik bat etze batre kutsetu bere aizpetaik eta uste zute ure aterako zutela altzine, baño artu zue bertze eritasun bat; sukar ustel deitzen da. Eritasun ori artu zue niok iakin gabe zetaz eta nola eritu zen. Bortz aizpetaik au il ze irugarrena. Emakume onek erraten zue berak eta bere aitek sartu zutela ilkutan eta ilein agotik atera zela odol anitz eta biek ondatu zirela, bertze lauetaik batek ere etzutela deus bota, lauak arront me meak zeudela eta iltzerakoan erraten zutela: izeba, ez dituzu ikusten Ama Birjiñe eta aingeruak? Nere bile etorri dire.

Ori eta bertze gauza geiago erratean negar egiten zue oroitzuz bere illobetaz, baño arrituik egoten ze nola izen zeiken an gertatu zena, iru anaiak bere arrebek utziek goxoki iaten zutela eta batre kutsetu gabe mutikoa eta neskatxak eginak eginik etzeiten kutsetu eta bortzak ilak ogei urtetaik ogeite bortzetaraño ortan. Ondarra ortzi zutelaik juan omen ze bere etxera eta ongi garbitu zelaik atsedean pixka bat artu naiez nekatua zelakoz, ganbarara juan nai zuelaik agertu omen ze ilen anaia bat eta negarrez bete erran omen zio: izeba, Jaungoikoaren izenean zato gure etxera nere ama ilen da zu gabe. Eta atsedean guziak utzik alde batera, berriz itzuli ze bere senarrain sortu etxera eta egitera al zuen guzia lenago nai etzuten tokian. Bere indar-

tasuna etze tarra, dudarik gabe, bertzenaz nola ireun ainbertze lan eta naigaben ar-tean? Bisten dago Jaungoikoak lagundu zuela bere lan eta ilundura guzietan. Gañera, ume bat ere etze kutsetu, ez sukar ustelez eta ez gaitz epeletik ere, saltsa guzien er-tean zabil-lelaik beren ama, ori ere gogoan idukitzekoa da dena. Gero mai-te zutela beren izeba? Bai, baño berak maiti-ago izein zitue illoba aiek ainbertze egin zuelaik berengatik.

Olako emakumekin ez da indartiko gure erria? Nik uste du baietz, berek bazu-te seurik auserki eta ez naiz amabiekin gelditu. Au berrogeite bortzgarrena da eta uste dut berrogeite amarretara urbildiko naizela, ain onak nai ditut... Ez da ain errax artu duden lana ongi egitea. Badire ain onak..., baño indar gutikin. Aurrean sobera egin zaiotenak dire geienak eta ez ditut oiek aukeratu orai artio.

### **Berrogeite seigarren emakumea**

Berriz Zugarramurdire jua bear dut ia zer ateratzen duden emakume ontaz, egizko indartsu ontaz. Sortzez ez da zugarramurdiarra, baño arara jua ze ezkontzez. Nik ezagutzen nue orai bera etxe-koandrea dena, bi gizon bakarrik bizi zelaik etxe or-tan. Bi anaia, bat mutilzarra eta bertzea apez-a, erri-ko kuadjutorea deitzen dena. Nere idurikos sose ongi zire, baño emakumeik gabe gaizki, aski estuak, iakin gabe nola prestatu gauzak ala ianariak, nola garbitasuna, nola konpondu eta nola iosi. Azkenean aurkitu ze mutilzarra Julia Gortariki eta ezagutu zute elkar eta aiskidetu zire eta ezkon-du zire. A ze andre xarmanta artu zuen! Etxe guziari eman zio buelta osoa, baño etzue Juliak ere deus galdu, apez-a etxean uste dut bere iru umei ongi eldu zaiotela ongi ika-siak ateratzeko. Neretako izen daiken oberenetaik bat izen da (ezagutuz geroz).

Orai alarguna da eta bere goñatua apez-a ere il ze. Bizi da seme batekin, bi ala-bak ezkonduak eta badute ume bana, oraño gazteak dire eta Frantzi-eko Euskal Erri-an bizi dire. Amarengana egiten dute anitz jua etorri eta amari ongi eldu zaio, baño alabei ere bai. Uste dut semea izein dela etxe-ko nagusie, baño ez du iduri ba-duela presa aundirik ezkontzeko. Egiten delaik, izen daiela bere ama den bezain ona. Zein gogotik eman duen duenetik beartsuari, eta ez du iduri ekendu duela, ikusten da xoko guzia beteak daudela. Ageri da Jaungoikoak itzultzen diola berak emanak, ona izen da beti gisa guzietara eta uste dut ez dela gibelera jua, altzinago eta obe-ago izein dela, orai bai uste dut ala. Jaungoikoari eman bear ditugu eskerrak lurralde ontan alako emakumeak ematen digulako-z, Euskal Erri ontan aziak eta ikasiak. Jaunari eskerrak eman bear degu alako indarra eta ainbertze doi zabaldu dituelako-z Euskal Erri-ko emakumetan. Batzuk gisa batera, bertze batzuk bertze batera, baño denendako gisa guzietara ematen digu eta guk eskertu edo eskerrak eman biar degu, al guzia egin Jaungoikoaren erregetasuna zabaldu daien lur guzian. Ala izen daien.

Nik uste dut Euskal Erriko Errege eta Jauna izein dela denbora guzien denbotetan. Anitz aldiz gogoratu zaite Espaiñako gerra edo izen ginduen gorrotu aundi arek zenbat ama semeak gabe eta zenbat alargun senarrak gabe egin ote zitue. Neri andre alargun batek erran zire Erriberako Mendabiakoa zela eta ogeite zazpi andre alargun gelditu zirela, batre berak gerrara jua gabe zinpi zanpa errian berean il zuztela. Bere senarrak ogeite zazpi urte zituela. Negar egingarri ze erraten zuena gaixoak. Ori gure errietan etze izen, baño elkar ezin ikusi zuten errietan bai, nik ez dakit inguroko errietakoak ziren ilzaleak edo erri bereko biotz gabeko zenbait ote zen, betiere negarrak utzi zuzten xoko guzietan. Eta zer indartasuna bear zuten emakume gaixoeak, buru ematea gelditu zen lan aldeakin, naigabe guzien gañera geienek galdu izein zute beren osasuna, bakea eta gauza on geienak. Berriz ezkonzen zirenak, laneko besoak bear zutelako... Ori gertatzen ze, baño etze ain errax ongi aurkitzea bertze batekin, bano denak ilundurak zire orduan eta bertze bat geigo iretsi bear izein zute. Gaixoak!

### Berrogate zazpigarren emakumea

Aoitzera urbil den erri pollit batean, Artieda deitzen denean, ni aurr nitzelaik baze andre bat ederra, zentzu aundikoa. Arek burua ongi paratua zue. Baño etzue batre gozotasunik izen bere aurtzaroen, ez eta bere gaztetasunean, aita eta amarik gabe gelditu ze oraño aurr zelaik eta etzue aurride bat ere. Beretako deus etzen baten eskuetan, beraz iabetua bezala egon ze. Etzego berak nai zuelako, baizik ala utzi ziotelako altzinekoek, bakartasun aundian gelditu zelaik. Uste dut gizon edo mutil zen onek ezkondu nai izen zuela berarekin, baño nexka onek etzuela sekula beretako ongi artu alakorik eta, ongi ikesi ondoan emakume lan gisa guzietakoak, ezkondu ze bere gogoko mutil on batekin, langile aundia eta salerosle oberenetaik bat.

Emen senar emazte xarmantak zire. Andrea, erran duden bezala, buruargiko eta zentzu aundiko andrea; eta senarra berriz dena biotza eta bere lanetan geienen abile-na ongi ateratzeko, ongi beren lan guzietan. Etxe aundi batean bizi zire eta, aldi batez, berak kanpoan zirelaik, suek artu omen zio etxeko gibelaldia eta etorri zirelaik etxera eta ikusi ia etzela deustako itxaropenik, artu omen zue andreak Jose Deunaren irudi bat, sua zegon toki berean eta andre onek erran omen zio: Jose Sandua, itzel zazu su au eta, ez badezu itzeltzen, zu zera lemexiko erreko zarena! Ze sinismen aundia zuen ontaik ageri da. Eta sinismena ongi saritua izen ze, etzelako erre irudia eta itzeli ze sue, arront aundia izenik ere. Ageri da ere bere indar aundia suaren artean sartzeko eta errateko sanduari erran ziona. Nere idurikoz, oraño etxe berean dago irudia batre erre gabe. Gero erri bereko elizan paratu zute irudi bat aundiagokoa, Jose Deunarena, eta erri guziak maite du eta eskatzen dute bere laguntza.

PERPETUA SARAGUETA: ESKUIDATZIAK ETA HIZTEGIA



1931-07-22. Perpetua Saragueta eta Trinidad Urtasun ezkontza egunean.



1975. Perpetua eta Trini senar-emazteak Baztango begiratokian.

### 1.3. BERTSOAK

#### Egiaren bila

Argitu da gure bizia  
ikesi dugu borrokan  
gaur gaude beti gogoan  
egi garbia non ote dan?

Badakigu egia dela  
gaur abestu bear degu  
Jaungoikoa jaio da eta  
zorionez bete digu.

Ez dakigu deus geiegiaz  
sosak ez digu erraten  
egi garbiak nai ditugu  
gezurrak digu nardatzen.

Gezur anitz entzuten dela  
gizon gezurtien agotik  
uste dugu urrun gaudela  
egi garbiaren ordutik.

Zuetaik ikesi nai degu  
egi garbia erraten  
gure biotza xamurra da  
erain anitz, erain laster.

#### Urteko lendabixiko lau illebetei

Ai zein ilun zegon  
gaur goizean  
elurra zinpi zanpa  
ai zenean.

Iruzkia ez da agertu  
goiz guzian  
xuritzen bazter guziak  
ai zenean.

Negu gogorra dago  
eta otz aundiak  
inguretzen digute  
iluntzean.

Iper aizea agertu da  
arratsaldean  
eta izotza eginen du  
gaur artsean.

Bier argitzen bada  
aize onekin  
zer fitsutse eginen duen  
Jinkoak daki.

Aizeak fiririken  
elurre ereman du  
eta zoko guzietan  
bildurik utzi du.

Zer otsail gaistoa  
ote degun gañan  
oñ azpian izotzak  
erraten digunean.

Elur aundia daukagu  
inguru guzian  
izotz biurtua  
beiti eta gañean.

Otsail guzi guzia  
gisa ontan duaie  
ez dakit noiz iruzkiak  
erranen duen baietz.

Azkenean agertu da  
iruzki epel bat  
axeri eztei batera  
egitera zopak.

Biramonian ateraldia  
aize egoak egin du  
eta euriak bazter guziak  
segido ditu urtu.

Erreka bazterretan  
gesalak badire  
eta ugeldeak gorasko  
eta azkar ien dire.

Urtu dire elurrek  
bazter guzietan  
eta ur anitz badago  
ugelde eta errekan.

Zer ilabete espantu aundia  
aurtengo otsail sorgina  
makurkeri eta otza franko  
gizon guziari egina.

Epailla ere ez da obea  
erran zarrak dionez  
gauza txarren beti iabea  
orai artio gaude eginez.

*Martxo ez ariko eta ez artxo*  
ola deitzen zaio epaillari  
zerengatik ez du bizik utzi  
ez ariko eta ez artxoari.

Ez da jorrailla obea  
gure txerri gaixoekin  
ilazi ditu beren tokian  
bere elur eta otz aundiekin.

*Aprile biribile*  
*urdetokien txerri ile.*

Berriz erran zarrak  
gaxtekeriak erranez  
pasatzen du bere bizia  
makurkeriak eginez.

Maiatzeko dio esaerak  
urteko ardatza dela



ona izatekotan  
asten al da beala.

Aski txarra izen da aprile  
eta maiatzaz gara beldur  
kazkarabarrez aseko duela  
eta gauze onez arront xur.

Lorez beteak ikusi naiak  
zugazti mota guziak  
bai eta ere baratze eta alor  
eta inguruko sagoiak.

Udaberria berant eldu da  
loreak ez dire agertzen  
txoriak ere gibela daude  
oraño ez dute abesten.

Gure naia aundia dela  
udaberria datorren  
lorenz betiak bazter guziak  
eta txoriak abesten.

Orduan aurtxoak kantari  
errie inguratuz iostari  
lore pollitak erematen tuzte  
beren zeruko Amari.

Guazen, guazen lorekin guziak  
gure amatxorengana  
eskeintzera biotzez  
loreik ederrenak.

### **Sanjuanetan eta Sanmigeletan**

San Juan egunetik  
Santiago igandera  
gauza auserki ikusirik  
gelditzen gara.

San Juanen gaberdian  
aize iperra bada

uda otza izateko  
itxaropena da.

Eta egua ateratzen bada  
denbora beroa dago  
egarri aundiekin  
San Migel eguneraño.

Badakigu zer egin  
gabas lanak egin  
eta egunez estalian  
alaxe osasuna izein da gurekin  
ori ikesi dugu  
San Juanen gabatik.

San Juan egunean  
maurgiek mendian  
bai eta uztailean  
ilebete guzian.

Ni aurra nintzanean  
maurgi anitz biltzen ze  
garagarrilein ilebetean  
baita uztaillaren ere.

Goizeko argia atera gabe  
gu Iriko oianean gine  
txorien abestiek entzunez ongi  
eta gogoan saskia betetzen.

Amarretako saskiak beteak  
etxera urbiltzen gine  
eta laister ekentzen ze  
gure nekatze eta mine.

Sagoietako denbora baze  
belar edatzera juaten gine  
eta sasoia ona balin baze  
lana egiten gindue fin fine.

Geienean denbora ona  
uztailean egiten zue  
eta erriko festak San Kristobalenak  
ongi ederrak izeten zire.

Belar geinenak bilduak zire  
gure erri pollit ontan  
uztaillean ondarreako  
sartuak zire etxetan.

Etxera etorri gabe  
Auritzberrira juaten gine  
an saldu onduan maurgiak  
etxera sosa eskuan itzultzen gine.

\* \* \*

San Migeletan gertatutzen da  
San Juanetan bezalatsu  
gabas ateratzen gara  
zer aize dagon eta nolatsu.

Urrie urbilena ilebetetan  
aski ona izeten da  
lursagarrak ateratzeko  
eta anitzendako ori bear da.

Urriko ilebete guzian  
eta etxe geienetan  
Amaren arrosarioa  
gogotik egiten da beretan.

Ilebete ontan eta ogeite zortzian  
bada erran xar bat erraten duena  
San Simon eta San Juda  
ude juan eta negua eldu da.

Negua eldu bada ere  
ez da elur eta izotzik  
ilebete ona da urria  
eta ez dugu beraz beldurrik.

San Migel ilberriko elurre  
negu guziko eta maiatzerañoko elurre  
au erran zuenak bazion beldurre  
negu txarra izanen zela eta makurre.

San Migeletan ilberri  
erosak idi berri

San Migeletan ilzar  
sal zak idi zar.

Ama Birjiña urriko  
liao iru orriko  
erran xar au dago  
eta nik ez dut utziko.

Urrak biltzen dire urrian  
guk biltzen gindue kutxa betea  
eta kostalak deitzen diren bi zakuak  
oiek zire neguan gure arratsaldeko ianariak.

### **Mezkirizko inguruaz**

Guazen guziak eskuak arturik  
ibilalde bat ematera  
inguratuaz dermio guziak  
Mezkirizko erria ezagutzera.

Gereindik eldu bagera  
Artzubitik Ladrantzubira  
iautsiko gara Uerkara  
an ugeldea ikustera.

Andik gibela erri aldera  
asten bagera etortzen  
ikusiko dugu sagoi zabalak  
erri ondoan edatzen<sup>61</sup>.

Onera gabe ermita aldera  
asten bagara ieten  
Uretaarritik gañera  
denbora gutiz juain gera  
eta segido gara San Migelen.

Emendik goiti Argaietara  
eskuñeko aldean ikusten da  
eta gu beti gora eta altzina  
Larregañera juain gera.

---

61 Erri ondoan “zabaltzen” dio bertze koaderno batean.

Bixkerrez bixker guazen emendik  
Apesuieneko bordaldera  
bazter ederrak baditu eta  
etorri gara ikustera.

Andik altzina Ipete aldera  
iautsi gabe berera  
Berokixoro<sup>62</sup> ikustiagatik  
etorri gara onara.

Zanketako maldatik  
Olbide ganeraño  
anitz aldiz badago  
langarra eta laño.

Ipete gain gainean  
zutabe bat dago  
teleikuskiniña da  
erri guziaindako.

Juan gera Olbide aldera  
pixket gorago bada ere  
gero Sakartera iaustiko gara  
mendiederra ikustera.

Olbidetik Sakartera  
denbora guti dago  
baño lar anitz badago  
mendi ganeraño.

Alor ederrak badire Sakarten  
baño sasi aundiak egin dire  
gaindu dire basurde aundiak  
eta ebek ekentzia zail izein de.

Bago ederrak Sakarten dire  
aritz xarmantak ere  
urr anitz bada mendi berean  
eta elorri aundiak ere.

Nere alor zarretik baño gorago  
sortzen da arront ur ona

---

62 “Larreberoki” dio bertze koaderno batean.

Lapitxko iturri tikia da baño  
urte guzian bada ura.

Lapitx baño altzinago  
eta ezker aldera  
dago Bonbaxilota  
emen bada ura  
baño ez urte guzian  
urik ez da udan.

Sakarteburura  
guazen orai laister  
Lusarretako egire  
ellegatu gaitzen.

An da Lezeestali  
eta karretera zarra  
an il zute mutil bat  
txintxoia eta ederra.

Ortzilere Sanduan  
egin ze makurra  
bere gurasoendako  
betiko makurra.

Erri guziarendako  
ilundura ederra  
sekula ez da atzenduko.

Liukuntxe ez da urrun  
toki ebetara  
eta ure ere bada  
bide geianean  
baña ez beti eta ez denen  
urte aundi guzian.

Segura eta Larreburu  
urbil aski elkarrei  
arripiketuzko iturri  
beren erditsuan  
ura urte guzian  
eta ona izeten da  
toki zoragarriak  
ori egia da.

Emendik Ligeztara  
aise juaten gara  
exkorte bat pasatu  
segido asketara  
eta zer ura den beretan!  
ori ikusi gabe ezin utzia da  
ur epela neguan  
eta udan otza da.

Berriz itzuli bear da  
ezkerreko aldera  
Irazabaltako mendian  
bagoak ikustera  
izugarrizko oiana  
bago aundien mendia  
ai zein kontent diren  
Mezkiritzko errian.

Orai bi borde aldetara  
guazen mantxo eta arin  
bat Zizilieneko da  
eta Bentarraña bertzea  
oraiko tokoa deitzen da Meaurdin  
segido Arrataka  
eta gero El Mindegi.

Berregu xelaietara  
itzuli bear degu  
ur askatik goiti  
juan bearko degu.

Estankotik atera  
Llabaikon barna  
Iturrizarrera  
guazen laister ama  
emedik guazen gero  
eskuñeko aldera  
aurkitiko gara  
segido Lezearan  
eta ezkerreko aldera  
aldapa aunditik

Bentarrañeko alor aundin  
ongi nekaturik.

Lezearan bada leze bat  
aspaldik ezaguna  
nexka eder eta gaxte bat  
erori ze berera  
Ardaizko erriko iturrian  
agertu omen ze beatza  
bere eraztunaiki jantzia  
ongi ezagutua denentzat.





## 2. HIZTEGIA

---



1979-05-25. Euskaltzaindiaren ageriko ekitaldia Nafarroako Museoan.  
Lehendabiziko lerroan Perpetua eta Maite ama-alabak.

Perpetua Saraguetaren eskuidatzietan ageri den hiztegi hautatua jaso eta osagarri gisa gehitu nahi izan dugu atal honetan<sup>1</sup>. Gure ustez, ageri den hiztegia lekukotza interesgarria da lehendik ezagutzen den Erroibarko lexikoa osatzeko eta euskal hiztegiaren corpora aberasteko. Ikusten ahal den bezala, Mezkirizko idazle honen hizkera eta hiztegia funtsean Erroibarkoak dira. Hala ere, nabaritzen zaio bere bizi ibilbidearen eragina. Alde batetik, Baztanen pasatutako denboraldia eta Iruritako seme zen Trinidad Urtasun bere senar bertsolariarekin bizi izandako berrogeita zazpi urteen eragina eta, bertze aldetik, gerra aitzinetik zenbait egunkari eta aldizkarietan idazten zuenean barneratu zitzaion garai hartako hiztegia, batik bat, neologismoen erabilera.

Halaber, mezkiriztar honen idatzietan ageri diren hainbertze toponimo eta oikonimo ere tartekatu ditugu hiztegi honetan. Lekukotza horiek guztiak material interesgarriak direlakoan gaude orain arte ezagutzen diren datu-baseak osatzeko eta, ondorioz, onomastika lanetarako. Izan ere, aipatzen dituen hainbat toponimo xehe eta oikonimo, edota horien zenbait aldaki, ez daude jasoak orain arte argitara eman diren toponimiako eta oikonimiako lanetan, ez *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduman, ez eta Mezkirizko lan monografikoetan ere.

Hiztegiaren sarrera bakoitzean ematen den informazioa honako hau da. Sarrera bera beltzez, eta ondotik:

- Katetoria gramatikala.
- Hitzaren erranahia euskara batuan duen edo dituen ordainekin, ahal izan den guztietan. Argitasun gehiagoren beharra ikusi dugunean definizio laburra edo bestelako azalpenen bat ere eman dugu.
- Ondotik, komatxoen artean, hitzaren aipua bere testuinguruan hitzez hitz jaso. Interesgarri iruditu zaigunean, aipu bat baino gehiago jaso ditugu. Aipurik gabe ageri diren hitzak –horien artean batzuk erdarazko ordainekin–, egilearen koaderno txikietako zerrendetan dauden bezala jasoak dira.
- Toponimoetan, nongoak diren aipatzeaz gain, aldakiak eta deklinabide kasuak ere jaso dira. Halaber, aldaki horiek ez badatoz bat euskal forma arau-

<sup>1</sup> Esker mila Paskual Rekalderi, atal honetan egindako ohar argigarriengatik.

tuarekin edo Nafarroan ofizial direnekin, azken hauen informazioa ere gehitu dugu parentesi artean.

- Oikonimoak ere, bere aldakiekin jasotzeaz gain, zein herritakoak diren markatu dugu. Gainera, ahal izan dugun kasuetan, egileak berak lehendik argitara emandako lanen batean ageri diren aldaki ezberdinak ere gehitu ditugu kakoen artean.
- Azkenik, liburu honetan eranskin osagarri gisa gehitu ditugun dokumentuetan –*Argia* eta *Eskualduna* aldizkarietako artikuluetan eta Jose Mari Satrustegik egin zizkion hiru grabaziotan– ageri den hiztegia ere jaso eta txertatu dugu hiztegi honetan.

### Laburdura zeinuak:

ad.	aditza
adlag.	adizlaguna
atziz.	atzizkia
banatz.	banatzailea
esam.	esamoldea
gald.	galdetzailea
ik.	ikus
interj.	interjekzioa
iz.	izena
izlag.	izenlaguna
izond.	izenondoa
izord.	izenordaina
junt.	juntagailua
konp.	konparazioa
lok.	lokailua
mend.	menderagailua
Mo.	Mezkirizko oikonimoa
Mt.	Mezkirizko toponimoa
of.	toponimoaren forma arautua eta ofiziala Nafarroan
onomat.	onomatopeia
ord.	ordinala
part.	partikula
postpos.	postposizioa
sin.	sinonimoa
zenbtz.	zenbatzailea

## A

**Abantxal** Mt. (of. **Abantzabal**).

**abantxu izan** *da* ad. ‘abantzu izan, azkenetan izan’: «Denbora ortan il ze ama eta abantxu zelaik galdera egin zio bere goñata batek: baduzu beldurra?».

**abar** iz. 1- ‘zuhaitzen adarra’: «Aitak botatzen zitue bagoak eta gero ekentzen gindeko abar eta egur me guziak». 2- ‘adar txikia’: «Bedeikatzen diren abarrak [...] denak busti ur bedikatuan eta orrillaren iruan erematen zire alor bakotzera edo sagoi, baratze edo etxeko atean...».

**abendu** iz. ‘abendua’: «Abenduain ogeita lauai deitzen dakogu Subilero eguna»; esam. «*Abenduko eguna, argitu orduko iluna*».

**aberats** izond. ‘aberatsa, diruduna’: «Iruritan iduri zue jende aberatsaokoa zela Mezkitzen baño».

**abeslari** iz. ‘abeslaria, kantaria’: «Nere amatxi abeslari ona ze».

**abesti** iz. ‘kantua’: «[Nere alabek] abesten zute aigeruek bezala Jesus Aurrari berek zekiten abesti pollit zenbait».

**abestu** *du* ad. ‘abestu, kantatu’, ik. **abesti**.

**abestuazi** *du* ad. ‘abestuarazi’: «Argitu orduko mendian egoten gine eta txoriei abestuazten, gu beti txori abeslarien gibeletik».

**abie** iz. ‘ahabia’ (landarea): «Udan, egun eder batean, juaten gine iru zaarrenak aitaikin eta amaikin bixer arreatzera eta gu abie eske».

**abietu** *da* ad. ‘abiatu’: «Abietiko ote naiz?».

**abil** izond. ‘abila, trebea’: «Iru alaba eta abilak iruek»; «Aditu izen dut denak abilek zirela eta aise ikesten zutela erakusten zioten gauza guziak».

**abildu, abilitatu** *da* ad. ‘abildu, trebatu’.

**abildu**: «Agertu ze lana eskatzeko [eta erantzun zioten] abildu abildu, ez duzu

deuseren eskubideik, ez degu lanik ainbertze umen aitandeko, oraño bakarririk izan bazine baño ainbertzekin...».

**abilitatu**: «Amak indartasun aundia balin badu, bidetze batekin eginen du umeak xuxen abilitatzen».

**abilitatu** ik. **abildu**.

**abiltasun** iz. ‘abiltasuna, abilezia, trebetasuna’: «Ikasi nai nue geiago andre lanetan, erdara gexago ere nai nue ikasi eta noranai juateko abiltasun bat, ez nuena nere iduriko»; «Nik pusken ere berak baño geiago banekie, ez nere abiltasunaz, baño bai nere ikasteko nai aundiak egin zute nere iakindura».

**abizen** iz. ‘abizena, deitura’: «Batek bere abizenez deitu zue».

**abolingo** ik. **alborengo**.

**abuztu** iz. ‘abuztua’, sin. **agorril, dagonil**.

**Adamenea** Mo.

**Adameneko borda, Adameneko borda**  
Mt. (of. **Ademeko borda**).

**Adameneko etxeondoa** Mt.

**adiezi** *du* ad. ‘adierazi’: «Erran nioten [...] niok etzirela adiezi».

**adin** iz. ‘adina, edadea’: «[Gripeak] etzue adin bat ere barkatu; il zire aurrak, mutlak, andre aur izan bearrak, gizon eta andre adinetakoak».

**adine** part. ‘adina, hainbat’: «Ni esne anitzekin gelditu nitze, eta orduan etze orai adine gauza esnea gibelatzeko, eta sendagileak manatu zire aur bat bilatzeko eta azteko»; «Euskaldun eta euskalzaileak izan dire denak eta, nere iduriko, etxe ortan [Uretan] adine ez da itz egiten etxe batean ere».

**adineko** izlag. ‘adinekoa, edadekoa’: «Denbora puska batez euskeraz egiten ze dena, baño badire nere adineko ba-

tzuk ez dutela aski maite euskara eta erdaraz obeki zaiote».

**adiskentza** ik. **aixkidantz**a.

**adiskide**, **aiskide**, **aixkide** iz. ‘adiskidea’.  
**adiskide**: «Erri berean banue bertze adiskide bat neskazarra». **aiskide**: «Nere aiskide batek bazue zazpi urte ezkonduik». **aixkide**: «Bizkarretik nabala aundi bat sartu zio aixkide aundienak, bekaikeri aundi zerbaitengatik». Hiru aldaerak era bertsuan erabiltzen ditu.

**aditu** *da/du* ad. ‘aditu, entzun’: «Aditu izen dut denak abilek zirela». Ik. **aitu 2**.

**Aezkua**. Nafarroako ibarra. (of. **Aezkoa**).

**afera** iz. 1- ‘kontua’: «Asi neure amatxin ipui edo kontuekin, eta altzina nere oraiko afera tikieneraño». 2- ‘gertaera’: «Bizi batean gertaera anitz izaten da; orai mila berregun urte asi izan bazire zazpi Euskal Erri guzian erraten beren biziko aferak, orai iakinen gindue orai ez dakigun gauza anitz». 3- ‘zeregina’: «Ai gine egur xeaten eta biltzen iketz tokietara eta altzinean ere egin beartzire. Nere anaiak bazekie [...] gauza franko nik baño geiago afera ebetan». 4- ‘arazoa’: «Sendagilleak erraten zue tronboflebitis zela; badu ogeite amar bat urte asi zela afera oiekin eta anitz aldiz erran dute sendagillek ondarra dela».

**Agartz**a Mt.

**ageri izan** *da* ad. ‘ageri izan, agertu’: «Senar emazteak asi ziren berexten, egunorokoak ala ziote, gauzak aski gaizki zeude, baño eskualdun errietan etzen ageri deus ere»; «Baze sinesmena eta itxaropena, baño non zego maitasuna? Ori aspaldik etzen ageri».

**agerian** postpos. ‘agerian, bistara’: «Gizona arriturik zego, bano geago arritu ze ikusi ginduelaik arri mutur ederra agerian».

**agerrazi** *du* ad. ‘agerrarazi’: «Ilebate bat zerama arront gaizki, ezin ongitasun pixka bat agerrazi».

**agertu** *da/du* ad. ‘agertu, bistaratu, azaldu’: «Uste dut gañeko lana duela edo estali bakarrik egin dutela eta noiznai agertu dezaketela»; «Etzire egundaño geago agertu onata».

**agin** iz. ‘hagina’: «Nere gazte denboran agin bat atera bear bagindue juaten gine, Iruñara etorri bearrean, Donibanera, Arnegitik segido dago».

**ago** iz. ‘ahoa’: «Batek urrin zikina botatzen [zuen] agotik, eta etzuten egon nai bere ondoan»; «Bere agoan beti egi garbia». **agotik agora** esam. ‘ahotik ahora, ahotik hortzera’: «Berriz galdera: zu nazionalista zara? Eta berriz onek: bai jauna, ala naiz. Orduan arriturik nola erran zuen, erran ziote: Zer konprenditzen dezu, zer erranai du nazionalista? Eta agotik agora erran zion: “Oño, amar al nazion”...».

**agor** iz. ‘iraila’: «Agorrain zazpian sortu ze beren ondar aura»; «Lemexiko goñatue, ni an nitzen batez, agorrain amalauan il ze».

**agorril** iz. ‘abuztua’: «Eta etorri ze agorrila eta amaseian sortu ze bortzgarren alaba». Sin. **abuztu**, **dagonil**.

**agote** iz. ‘agota’: «Nik galde egin nio zer eritasun zen ori [legenarra] eta erran zire dena agotena zela»; «Toki pollitek dire oiek guziek, baño ez dute maite deitzea agoteak»; «Baditu nere senarrak bertso berriak eginak agote eta zitoendako, baño nik ez dut maite niorei irri egitea sortu direlakoz toki batean edo bertzean».

**agotz** iz. ‘ahotza’: «Zaku bat agotz»; «Agotzak bide guzitik... eta udako ultzi urriña bide guzian».

**agoztegi**, **agotztegi** iz. ‘ahoztegia’. **agoztegi**: «Badu larrain bat ederra eta andik sartzen dute agoztegira: belar, agotz eta bertze gauza anitz». **agotztegi**: «Egun batez [...] agotztegian sartu zue amak eta erran zio: barkamendua eskatu zazu

Jesusei egin dezun makurkeriaingatik». Gutxitan bada ere, bi aldaerak ageri dira.

**agotztegi** ik. **agoztegi**.

**agurmaria** iz. ‘*agurmaria* otoitza’: «Nere etxea otoitz anitz egiten zen etxea ze. Goizargiko ezkilak iotzen zirelaik, guk *angelus* iru *agurmariekin*»; «Onen gibelatik iru aldiz *aiteguria*, bertzuat ilen animendako eta iru *agurmaria* Ama Birjiñari bedeika zezan gure lan guziak».

**aide** iz. ‘ahaidea’: «An [Urepelen] baginduz eide alde bat, etxeko amatxin aldetik. Orrara noiznai juaten gine»; «Ezkondu biramonean, goizeko amarretan izan gindue elizan meza sandua, ilak ziren aide guziak, aien guziendako izan ze meza eta elizan jende anitz bildu ze».

**aikide** iz. ‘ahaidekidea’: «Gerran artukeko eritasunak ereman zio emendik. Zenbat aide, lagun, aikide jua zire sekulako».

**aitzindu** *da* ad. ‘aitzindu, aurreratu’: «Ogei bat egun aitzindu ze». Ik. **altzinatu**.

**aitzur**, **altzur** iz. ‘aitzurra’. **aitzur**: «Asi gine ailtzurtzen labaki guzia, sartuz ailtzurra al guzia». **altzur**: «Laiak, ailtzurak, pikua arriak ateratzeko...».

**aitzurto** *du* ad. ‘aitzurto’: «Beiekin pasten gindue koldea, eta gero ongi ailtzurto, berriz area pasatu, gero ailtzurreikin». Ik. **aitzur**.

**ain segur** adlag. ‘hain segur, segur aski’: «Alaba gaztena ezkondu zue etxera eta amarendako ain segur oberena»; «Iakin izen banu dena, ain segur enitzela etxetik aterako».

**ainbertze** zenbtz. ‘hainbertze, hainbeste’: «Laguntza batere gabe ainbertze ume zituzten etxetan, zer egin bear zute?».

**aire ortan** adlag. ‘iri horretan, gutxi gorabehera’: «Gero amarrak aire ortan, izaten ze il guziendako meza sandua».

**airegaisto** iz. ‘airegaiztoa, tximista’: «Salbatore bezperan izeten gine [...] eska-

tzera etzezala arri-erauntsiak ondatu ango alorrek, eta ez ere airegaistoez kalterik egin».

**aisa** ik. **aise**.

**aise**, **aisa** adlag. ‘aise, erraz’. **aise**: «Izan dire aurrak arront aise ikesten zutenak beren ikasi bearrak». **aisa**: «Zure bi alabak lemexikoak eskolan dire eta ikasten dute aisa erakusten zaiten guzia». **aise aski**: «Baño irakurtzeko ere izeten nue denbora goizik uzten nuelakoz guatzea aise aski». **aisexko**: «Ni aurra nitze oraino nere aitaren anaia gaztenak bere beso ezkerarikin irabazi ziote iru anaia Ezteribarkoei aisexko».

**aiskide** ik. **adiskide**.

**aiskidetu**, **aixkidetu** *da* ad. ‘adiskidetu’. **aiskidetu**: «Ezagutu zute elkar eta aiskidetu zire eta ezkondu zire». **aixkidetu**: «Iruritan ezagutu nue neska bat berrogei urte ingurukoa. Aixkidetu gine eta nere aixkedetaik oberenetaik bat ze».

**aita**, **aite** iz. ‘aita’. Biak erabiltzen ditu, baina gehiagotan lehenbiziko forma.

**aitagure**, **aitegure** iz. ‘*Gure Aita* otoitza’. **aitagure**: «Nik uste dut niok etziotela erran otoitz aundiena zela lan egitea, ortan zeudela *aitagurea* bere zazpi eskatasun guziekin: *egin daiela zure naia zeruan bezala lurtean ere*». **aitegure**: «Etxean ematen ze arrosarioa eta gibelatik amar bat *aitegurea* bedere».

**aitaren egin** *du* ad. ‘aitaren egin, zeinatu’: «Orduan amari gogoratu zitzaio *aitaren* egitea ur bedeikatuarekin».

**aitatxi**, **aitetxi** iz. ‘aitona’. **aitatxi**: «Etxe ontakoak zire nere bi aitatxiak. Bien ama deitzen ze Mañuela». **aitetxi**: «Txerri puxkak erematen zute aurrek bi barridetara, aitein sortu etxera, bai eta ere amatxien bi aitetxien sortu etxetara eta osaba izeben etxetara». Bi aldakiak erabiltzen



baditu ere, gehiagotan ageri da bigarre-  
na. Ik. **bataioko aitetxi**.

**aite** ik. **aita**.

**aitegure** ik. **aitagure**.

**aitetxi** ik. **aitatxi**.

**aitortu** *da/du* ad. 'aitortu, konfesatu': «Egun ortan [maiatzeko Bazko bezperan], geie-  
nean amazapi urteak bete dituenak  
juaten dire mutilak dauden etxera, aitor-  
tzen dute beren adine eta mutiletan sar-  
tuak gelditzen dire»; «Biramonian zen  
Bestaberri eta nai zue aitortu eta meza  
osoa entzun».

**aitortze** iz. 'aitortza, konfesioa': «Uztailearen  
amarreko eliz besta. Beñere baño ede-  
rragokoa. Aitortze, jaunartze, meza na-  
gusia».

**aitu 1** *da* ad. 'aitu, ari izan': «[Nire senarra]  
bere erbaltasun guziakin anitz aldiz ber-  
tsoan aitzen [da], baño mingana moteltzen  
zaio anitz [...] zenbat aldiz bertze ber-  
tsolariekin aitzen ze zein geiagoka»; «Eta  
denak lanean aituz ere, etze aski eguno-  
roko ogiaindeko, nola ainbertzendako?»;  
«Ultziak biltzen aiko zire, ortzilaria zen  
eta denbora ezin ederragokoa».

**aitu 2** *du* ad. 'aditu, entzun': «Aitu izen dut  
San Fermin bestetan lauetan ogei urteak  
bete ondoan sari bat ona eman ziotela  
abestutziatik»; «Ala etortzen gine etxera,  
biotzak beterik, an aitu degun gauzez».  
Ik. **aditu**.

**aitzkora** ik. **aizkora**.

**aixkidantza**, **aixkidentza**, **adiskentza** iz.  
'adiskidantza'. **aixkidantza**: «Besta  
aundietan biltzen zire elkarrekin eta ba-  
zuten aixkidantza aundia». **aixkidentza**:  
«Nere anai gaztenain bataioko amatxi  
ze. Baño lendik bagindue aixkidentza  
aundia». **adiskentza**: «Gero nere etxe-  
koak asarre, ze jende gisekoa zen mutil  
ura, nola egin nuen adiskentza arekin».  
Ik. **aixkidetasun**.

**aixkide** ik. **adiskide**.

**aixkidentza** ik. **aixkidantza**.

**aixkidetasun** iz. 'adiskidetasuna': «Iruritan  
egon ginen lemexiko etxean izan gindue  
aixkidetasun aundi bat». Ik. **aixkidantza**.

**aixkidetu** ik. **aiskidetu**.

**aixkola** iz. 'aixkola' (<almorta, muela>):  
«Sagoietako baratzetara urbil eraiten ze  
txitxirioa eta aixkola».

**aize ego** iz. 'haize hegoa, hego haizea':  
«Egun guzian aize egua egon ze eta ber-  
rri, uste bezala, ude bero andiko izen  
gindue»; «Biramonian ateraldia aize  
egoak egin du, eta euriak bazter guziak  
segido ditu urtu». Sin. **ego aize**.

**aizeratu** *du* ad. 'haizatu, haizeratu': «Aize-  
ratzen zute gelditzen zena eta polliki  
polliki berexten ze. Ogi pikorra aski  
garbi gelditzen ze eta ola aizeratuz berriz  
eta geiago gelditzen ze».

**aizkora**, **aitzkora** iz. 'aizkora'. **aizkora**:  
«Zerra luzea, aizkorak, burdin ziriak eta  
mallu burdinak». **aitzkora**: «Matakan  
anitz egiten gindue aitzkoraikin».

**aizpa**, **aizpe** iz. 'ahizpa'. **aizpa**: «Petraren  
aizpa bat Juliana deitzen zena». **aizpe**:  
«Nere gizonak bazue Amaiurko errian  
bere amain aizpe bat, arront umore one-  
koa». Ik. **ezkonaizpa**.

**aizpe** ik. **aizpa**.

**aketa** iz. 'kafea, akeita': «Bazkari eta afal-  
tzera ematen zekote bere etxera juaten  
zen guziari, aketa edo kafea gañera, eda-  
riak ere bai».

**akitu** *da/du* ad. 'akitu, amaitu, bukatu':  
«Onen kontuak akitu dire, ia bertze zen-  
baitez oroitzen naizen»; «Ez dakit aki-  
tuko duden lan au»; «dagonillaren bere-  
ko ondarrera asi ze nire gizonain aita  
erraten gorroto edo gerra aundi ura aki-  
tiko zela».

**akometazio** iz. 'erasoa, tranpa': «Ez de-  
zaket utzi deus erran gabe, gizon onek

egintziren akometazioaz, bere bai us-tezko arrokeria orrekin bota zitue lurrera nere lan guziak, nere itxaropen guziak, nere sos uzte guziak».

**akordu** iz. ‘konortea’: «Oraño akorduik gabe nindego, emezortzi ordu zue ebakitasuna egin ziretela eta aur bat arront gixena sortu ze»; «Eskatu zue apezta, eta laister etorri omen ze eta akordu onean egin zitue otoitz alde bat eta [...] denak ongi artu onduan il omen zen».

**ala** adlag. ‘hala’: «Eta ala polliki polliki pasatu ze urte ura». **ala edo ola** adlag. ‘hala edo hola, nola edo hala’: «Erraten nio aitak edo amak erran zirela ordainduko zuela ala edo ola». **ala ere** lok. ‘hala ere’: «Iru bakarri ezagutu zitue eta, ala ere, ongi aztatu zue, denak langileak dire». **Sin alare. ala nola** mend. ‘hala nola, -en neurrian, -en arabera’: «Ala nola negua daien udaberrira agertzen da [...] eta ala nola udaberrian betetzen dire lorez ... ala neure biziko oroi-men guziak atera dezatela lore mota guzietatik neure idaztietan»; «Ala nola irri inezteliak badiren, negar inezteliak ere badire».

**Alaba.** Euskadiko herrialdea. (Euskal izena **Araba**).

**alabear** iz. ‘halabeharra, patua’: «Lau edo bortz urtetan meza nagusiko denboran erre zitzeiote, aita gelditu ze zaintzen, baño alabearra ote zen..., aita iautsi ze beiei beidetzer a eta aurra erre ze».

**alare** lok. ‘halere’: «Irritako eliza aundia da, baño alare ongi betea zego». Gehiagotan erabiltzen du *ala ere* sinonimoa. Ik. **ala**.

**alargundu** *da* ad. ‘alargundu’: «Beren andrean alargundu zirela eta ume alde bana bazuztela...»; «Gaixo Karmen, ogei eta iru urtetan alargundua eta ainbertze nairgabekin».

**alborengo, abolingo** iz. ‘alborengoa, biriketako’. **alborengo**: «Il zela alborengo edo pulmonia deitzen danaikin». **abolingo**: «Abolingo edo pulmonia deitzen den eritasunaikin». Bigarren aldaera behin bakarrik ageri da.

**aldarte** iz. 1- ‘aldarte, jarrera, prestasuna’: «Aldarte oneko etxeoandrea ze»; «Neure umeak arront abeslariak izan dira eta aldarte onekuak». 2- ‘gogoia’: «Egun ortan ez nue iateko aldarteik, ez nue iaten al deus ere».

**aldaskatu** *da* ad. (Izeta 1996: 38) ‘aldaxkatu, kimuak eman’: «Udaberrian betetzen dire lorez aldaskatu berri guziak».

**alde** iz. ‘aldea, ingurua’: «Sorogainen il zute gizon bat arront ezagutua alde artako toki guzietan». **alde bat, aldi bat** iz. ‘alde bat, multzo bat, sail bat, nahikoa’. Ondoko adibideetan ikusten ahal den bezala, maiz erabiltzen ditu bi aldakiak, gehiagotan beharbada lehenbizikoa. **alde bat**: «Arropa alde bat garbitzen; gizon alde batendako; senide alde ederra; aide alde bat; illoba alde bat; sos alde bat pollita; ume alde batekin; irri alde bat egin; bolado alde bat egin; negar alde bat egin; gorroto alde bat izan; otoiz alde bat egin; kandela alde bat bedeinkatu; bazitue urte alde bat; bei alde bat ederra; arri alde bat; eskindu ziote lur alde bat; eskutitz alde bat irakurri dut; denen artean badire alde bat; ezur alde bat atera; eman ziote bertze zigor alde zerbait». **aldi bat**: «Zuen ume aldiaikin; egur aldi ederra; elur aldi aundi batean; senide aldi gizaiandako; eror aldi zenbait; marmar aldi bat; inder aldi batean». Ik. **multsu**.

**alde bat utzi, alde batera utzi** *du* ad. ‘alde bat utzi, alde batera utzi, bertan behera utzi, bazterrera utzi’. **alde bat utzi**: «Bere langintza utzirik alde bat, asi ze

lan batean egundano egin etzuean, argin launtako»; «Len salerosten zute, baño orai utzi dute alde bat». **alde batera utzi**: «Eta utzi zue alde batera kandelagitea»; «Amets au izan dut, eta nik uste dut obe dela uztea alde batera».

**alde batera** adlag. 'alde batera, honenbestean (<a destajo>)': «Aitak artzen zitue lanak alde batera, geienean Auritzko edo Aurizberriko mendietan»; «[Ni sortu nintzen egunean] nere aita Auritzen zela belar ebakitzen alde batera».

**alde batera utzi** ik. **alde bat utzi**.

**aldi** iz. 'aldia': «Anitz aldiz badago langarra eta laño». **aldi batez** adlag. 'aldi batez, behin batez': «Bertze aldi batez mandatu zerbait egitera atera ze».

**aldi bat** ik. **alde bat**.

**aldioro** adlag. 'aldioro': «Aldioro ematen zirete, geienean Juana Migelek, katuli aundi bat esne zopa guri guriak eginak».

**aldiz** adlag. 'batzuetan': «Orduan gabas ain gaizki paratzen zelaik, gogoratu zitzeo ur bedeikatuarekin egitea gurutze bat aurraren gañean, baño aldiz aurrin minak geiakoak zire eta bertze aldiz pixka bat obekixago paratzen ze».

**Aldude, Aldudes**. Nafarroa Behereko herria. Deklinatua: *Aldudeko, Aldudera*. (Euskal izena **Aldude**, of. **Les Aldudes**).

**Alfonsoiña** Mo. [*Alfontxoña*, (Saragüeta 1979: 10)]. Ik. **Juanexpaiña**.

**Alkasena**. Iruritako oikonimoa.

**alke** iz. 'ahalkea, lotsa': «Eta batere alkeik gabe erraten dut bearra aundiak izan ditudela»; «Oietaz balietzen dire alke gutikin sortu diren jendeak».

**alkegarri** izond. 'ahalkegarria, lotsagarria': «Españako alkegarriko zuzentasuna».

**alketasun** iz. 'ahalketasuna, lotsa': «Baño ainbertze gauza on egin zitue alketua bizi zela gizon tristia eta alketasun orrek il zio».

**alketu** *da* ad. 'ahalketu, lotsatu': «Nere aitak eskutitzarekin utzi zitue alketuak zenbait eta bertze geienak kontent»; «Anitz aldiz ezagutzen ze alketzen zela».

**alki** iz. 'aulkia': «Orduan artu nue alki bat eta ien nitze guatzera»; «Inguru guzia zurezko alkiz betea zego».

**almadraka** iz. 'almadraka, lastaira, koltxoia': «Lapurrek ereman diguzte almadraka guziak, guztetako arropa guziekin»; «Gizon ilupe edo ez deus baten alarguna ze. Bera lanetik etxera etortzen zenean, bakarretan arreatzen zue almadraka azpian lo».

**Almandoz**. Baztango herria. Deklinatua: *Almandozko, Almandozera*.

**alor, alorre** iz. 'alorra, ereiteko lurra'. **alor**: «Lenagoko urte batean lur sagarra eraiten baze alor batean, bertzean, alor berean ogi pikorra eta ongi aski ematen zue». **alorre**: «Nik gainean badut alorre bat eta Larregaineko alorra erraten degu».

**Alorraundi** Mt. (of. **Alorrandi**).

**alorre** ik. **alor**.

**Alsasua**. Nafarroako herria. Deklinatua: *Alsasuara, Alsasuako*. (Euskal izena **Altsasu**).

**altxatu** *du* ad. 1- 'altxatu, ezkutatu, gorde': «Juan ze gure etxera erratera niri emateko eskola aundia [...] nik ikasteko banuela doi bat aundia, eta Jaunari eman bear zuela kontu aundia idukitzeagatik etxean altxatua talentu bat»; «Olakotan [eguraldi txarra egiten duenean] aziendak bilatzen du non altxatu bere burua». 2- 'goratu': «Euskeraz idazten Donostiko Argiako eta Baionako Euskaldunako [...] nik nai nue nere erria altxatu puxket».

**altzin, altzina, altzinean, altzineko**. 1- 'aitzina, aurrera, aitzina': «Nere bizia badaie altzina». 2- 'aitzineko aldea, aurre-

ko aldea': «Altzinean badu iturri ona, bere aska ederraikin». 3- 'aitzineko aldia, aurreko aldia': «San Juan bezperan erretzen da altzineko San Juan egunean bedeikatzen diren belarrak». 4- 'lehenagokoa': «Altzinekoa edo lenagokoa erre ze eta deitzen ze Gartxotena. Gero dena berritua da eta ez dakit izen bera ematen dakoten edo ez»; «Maitetasuna ere gure inguruan ezagutzen degu pusken aundiago, orai Konzilio altzinean baño geiago».

**altzina** ik. **altzin**.

**altzinatu** *da* ad. 'aitzinatu, aurreratu': «Pixka bat altzinatu naiz»; «[Ikuskatzaileak] ikusi zuelaik zenbat eta zein ongi ikasi ginduen eskoletan erakusten zigutena, gelditu ze bat ina, ikusi zuelaik zein altzinatuak gindeuden». Ik. **ailtzu**.

**altzinean** ik. **altzin**.

**altzineko** ik. **altzin**.

**altzur** ik. **ailtzur**.

**ama** iz. 'ama'.

**Ama Birjina, Ama Birjiña, Ama Birjiñe** iz. 'Ama Birjina'. **Ama Birjina**: «Ikusi dut margazki bat arront ederra Ama Birjina bere seme ederrarekin besotan». **Ama Birjiña**: «Irritako erretore jaun batek erra zue itzaldi batean bazirela zenbait, Ama Birjiñain letanian erran bearrean *stella matutina* erraten zutela "Ezpeletako Martina"». **Ama Birjiñe**: «An zire Ama Birjiñe eta Jaungoikoa lagunduko zutenak beren bizi guzien». Ik. **Zeruko Ama**.

**Ama Birjiñaren iturria**. Orreagako toponimoa: «Ama Birjiñaren iturrian ura edan gabe, begiak garbitu gabe... etze nior sagoi artaik ateratzen». (of. **Andre Mariaren iturria**).

**Ama Birjiña** ik. **Ama Birjina**.

**Ama Birjiñe** ik. **Ama Birjina**.

**amabortz** zenbtz. 'hamabortz, hamabost': «Garagarrillan amabortzetik ogeiera asten zire maurgiak».

**amabortzgarren** ord. 'hamaborzgarren, hamabosgarren': «Emakume au da ogeite amabortzgarrena».

**amaina** iz. 'amona, zaintzailea, guarda' (Mujika 1981: 122): «Ama Birjina Orreagako aña, euskaldunen amaina».

**Amaiur**. Baztango herria. Deklinatua: *Amaiurren, Amaiurko*.

**amatxi** iz. 'amatxi, amona': «Nere amatxi abeslari ona ze». Ik. **bataioko amatxi**.

**ameka** zenbtz. 'hamaika': «Or sortu ze nere aita eta ameka aurride geiago»; «Uste dut ameka ume seurik bazituela».

**amen** iz. 'ahamena, mokadua': «Gure ezkontzeko paperak irakurri zire emeretziari. Atsaldean mutilek artu zute erriko ostatuan beren amena; an ogia, ardua, aketa edo kafia bertze edari batzuekin».

**Amerika, Ameriketa, Ameriketak**. Deklinatua: *Amerikan, Ameriketan* (biak bina aldiz), *Ameriketen* (behin), *Ameriketara* (bost aldiz), *Amerikara* (hiru aldiz), *Amerikatik* (bi aldiz), *Ameriketaik* (behin).

**amerikano**. Herritar izena: amerikarra.

**Amezket**a. Gipuzkoako herria.

**Amorebieta**. Bizkaiko Zornotza herriko auzo bat.

**anaia** iz. 'anaia': «Nere aitak bazitue sei arreba eta bortz anaia»; «Ni aurra nitze oraiño nere aitaren anaia gaztenak bere beso ezkerrikin irabazi zioten iru anaia Ezteribarkoei aisekko»; «Gereingo lur puska bat ederra eman zigute eta iru anaia arrebekin egin gindue»; «Nere aitain arreba batekin ezkondu ze nexka onen aitain anaia bat, eta nere aitain anaia batekin bere aitaren arreba bat». Batzuetan, determinatzaileen aitzinean batik bat,

- anai* forma erabiltzen badu ere, gehiengotan *anaia* forma osoa ageri da.
- anbateko** izlag. ‘hainbatekoa, arrunt handia’: «Bi urte ondoren anbateko maurgiak bildu nitue neurekin».
- andregai** iz. ‘andregai, emaztegaia’: «Erraten ze garbiki gizon eta andregaiak zirela eta laister ezkondu bear zutela».
- angotar** izond. ‘hangoa dena, toki hartakoa dena’: «Gureak angoak bezalakoak dire, dena garbi iduki lezakete, baño kanpokoei berdín zaiote zikin dauden bazterrak eta arrazonaikin angotarrek ez degu ikusi nai alakoik».
- anima** ik. **arima**.
- animale** iz. ‘animalia, aberea’: «Azienda erri ontan deitzen da animale guziei».
- anitz** 1- adlag. ‘anitz, asko’: «Denek maite dute anitz»; «Zure aita io dute anitz eta Iruñara ereman dute giltzopera». 2- zenbtz. ‘anitz, asko’: «Nik ikasten nue anitz gauza arek abestuak»; «Eta arengatik ikasi ditut gauza anitz»; «Orai ere badire anitz pilotari, bearbada beñere baño geiago, eta igande anitez erria betetzen da kanpotarrez». Noizean behin *aniz* aldaera ere ageri da eta behin soilik *aunitz*. **anitz aldiz** adlag. ‘anitzetan, askotan’: «Nere aitari entzundiot anitz aldiz».
- anka** iz. ‘zangoa’: «Anka moztu ziote».
- Antoneko bordaldea** Mt. Deklinatua: *Antonekotik*. (of. **Antoreneko bordaldea**).
- Antoneko etxeondoa** Mt.
- Antonena, Antorena** Mo.
- antz** iz. ‘antza, itxura’: «Anitz maite zire eta etzue batre sorgin antzaik».
- antzeratu** *du* ad. ‘antzeratu, imitatu’: «[Nire alabek] mintzatu eta elizan egiten zutzen itzaldiak egiten zutenak bezal bezala antzeraten zuzte».
- antzi** *du* ad. ‘ahantzi, atzendu’: «Iduki dezagun gogoan ama dela geiagoena eskatzen duena eta anitz aldiz bere burua antzik bere senar eta umendako». Sin. **atzendu, aztu**.
- Anue**. Nafarroako ibarra.
- aña** iz. ‘ama, haurtzaina’: «Ama Birjina Orreagako aña, euskaldunen amaina».
- Aoitz, Aoiz**. Nafarroako herria. (Euskal izena **Agoitz**).
- apa eman** *du* ad. ‘pa eman, musu eman’: «Zenbat apa edo muxu (Mezkiritzko euskeran apa da) eman ote dugu geure ume bakotxari!».
- apa** iz. ‘pa, musua’: «Apa (edo musu tiki bat) bataiatu berria nitzalakoz».
- apaindu** *da/du* ad. ‘apaindu, konpondu’: «Sendagillea etorri baño len sortua ze, gero berak apaindu zire»; «Orai etxe guztiak ongi apainduak dire barnetik eta kanpotik».
- Apesui, Apesuiena** Mo.
- Apesuieneko borda** Mt. (of. **Apezuiko borda**).
- Apesuieneko bordaldea** Mt.
- Apesuieneko landa** Mt.
- apez** iz. ‘apaiza, elizgizona’: «Arront itzaldi ederra egin zigu Mezkiritzko apezak»; «Apez edo elizgizon zenbaitek eginen zue al guzia gauza oiek konpontzeko». Beti *apez* forma erabiltzen du. Ik. **elizgizona**.
- apezgai** iz. ‘apaizgaia, seminarista’: «Apezgaien ikasetxean egon ze aski denboraz eta berez arront abile zen».
- apezpiku** iz. ‘apezpikua, gotzaina’: «Meza nagusia, geiengean, ematen zue apezpikuak eta itzaldia beti apez euskaldun batek, ala ikesten gindue geiago maitatzen geuren Orreagako Ama»; «Apezpikua egon ze emen Iruñen gure etxean».
- apeztegi** iz. ‘apaiztegia, apaizaren etxea’: «Juan omen zen apeztegiara eta deitu zue apezpe olietzeraz zeila eta apezpe iduritu zitzaio ilik zegola, baño, ala ere, olietu zue».

**Apeztegia** Mo.

**april** iz. 'apirila', esam. «Aprile biribile, urdetokien txerri ile». Sin. **jorraill**.

**Arabeña** Mo.

**Arakiñena, Arakiñenea** Mo. Ik. **Juan Migelenea**.

**Aralar**. Nafarroako mendia eta santutegia.

**aran** iz. 'arana'.

**aranbeltz** iz. 'aranbeltza': «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak, sagarrak, aranbeltzak...».

**arat onat** adlag. 'harat honat, hara eta hona': «Aitzen ginen lanean, arat onat baratu gabe»; «Ainbertze arat onatekin biotza eritu zitzaio».

**aratxe, aratze** iz. 'aratxea'. **aratxe**: «Bei eta aratxe bagindue bedratzi buru». **aratze**: «Beiak, aratzeak, txerriek... arront ongi idukitzen zuzteazienda guzie».

**aratze** ik. **aratxe**.

**Arazpe** Mt.

**Arbizu**. Nafarroako herria.

**arbol** iz. 'arbola, zuhaitza', esam. «Arboletan den ederrena da oian beltzian bagoa».

**Arburua** Mt. (of. **Arburu**).

**Ardai**. Erroibarko herria. Deklinatua: *Ardai*zko. (Euskal izena **Ardaitz**).

**ardi** iz. 'ardia': «Eskolatik kanpo berdin ikasten zue ardiak zaintzen nola baratze zeko gauzak biltzen». **ardi esnea**: «Etzuten ardi esnea». **ardi borda**: «Juan gine Jaurrietako ardi borda batera, gabas lo egiten gindue an eta goizean goiz jua-ten gine maurgi eske».

**ardiketa** iz. 'ardiketa, ardi taldea', ik. **artzaiñ**.

**arditoki** iz. 'arditegia': «Lenago etxe ortan egiten zute txokolatea eta saltzen zute gauza onak iatekoak, orai arditokie eta belartokitako dago». Ik. **toki**.

**are** iz. 'area' (laborantza tresna): «Beiekin pasten gindue koldea, eta gero ongi ailtzurtu, berriz area pasatu, gero ailtzurreikin»; «Leio batetik erori ze ogeita zazpi ilabeteko mutiko bat eta areain ortz bat sartu zitzaigo sabeletik eta atsalde beren il ze».

**Argaeta, Argaieta** Mt. (of. **Argaraieta**).

**Argentina**. Hego Amerikako estatua.

**argin** iz. 'hargina': «Bertze mutiko argin ona egin zen».

**argizari, argizeri** iz. 'argizaria': «Uda azkenean etorri ze argizari biltzeko eguna eta erran zute pusken ere argizeri geiago egin zutela». Era bertsuan erabiltzen ditu bi aldaerak.

**argizeri** ik. **argizari**.

**ari** iz. 'haria': «Gero paratzen zitzaio atorra arizko bat».

**ariko** iz. 'ahariko, arkume, axuri edo biltzots arra': «*Martxo ez ariko eta ez artxo*, ola deitzen zaio epailari, zerengatik ez du bizik utzi ez ariko eta ez artxoari».

**arima, anima** iz. 'arima'. **arima**: «Eta zuri irakurle eskatzen dizut otoitz bat aren arimain faboretan». **anima**: «Goi maitasun aundiak bear ditugu doiak emateko, al bezain aundiak, bai eta ere garbitasun aundia geuren animan eta gorputzan»; «Emakume ederra aurpegiz eta gorputzez eta aurpegia balin bada animaren ixpildua, anima ere ederrekoa du». Ia beti *anima* forma erabiltzen du.

**arin** adlag. 'laster': «Arront arin eta gozoki, nekatua banitze ere etortzen nitze etxera».

**arindu da** ad. 'arindu, ibitu': «Segido eza-gutu nuen sendatua nitzela, oñazea eken-du ze segido eta atera bear guziak atera zire, nere gorputza arindu ze laster».

**aritz** iz. 'haritza': «Bago ederrak Sakarten dire, aritz xarmentak ere».

- Aritzota, Arixota, Ariztota** Mt. (of. **Aristueta**).
- Arizkun, Aritzkun**. Baztango herria. Deklinatua: *Arizkungo, Arizkuna*. (of. **Arizkun**).
- Arnegi**. Nafarroa Behereko herria.
- Arraioz**. Baztango herria. Deklinatua: *Arraioza*.
- arralla** iz. ‘arraila, arraildura’: «Aritz bat txutik zegolaik, arralla bat aundia eta zurezko ziri aundi batzurekin ederki zabaldu arralla, aurra aisa pasatzeko gisan eta goiz artan jua zire iru Juan eta nere aita aritzain arrallazalea».
- arrallazale** iz. ‘arrailatzailea, arraildura egilea’, ik. **arralla**.
- arramiske** iz. ‘arramaska’.
- arrankure** iz. ‘arrangura’: «Kandelak egiten zituelarik, beti arrankure aundiak izaten zue».
- arras** adlag. ‘arrunt, oso, guztiz, osoki»: «Nik ez dakit arras egia den»; «Bizi diren etxea da arras aundia eta ederra»; «Nere alaba guzien irakaslea izen da eta arras maite dut». Ik. **arrant**.
- Arrataka** Mt.
- arratsalde, artsalde, atsalde** iz. ‘arratsalde’. **arratsalde**: «Iper aizea agertu da arratsaldean eta izotza eginen du gaur artean». **artsalde**: «Etzire eman artsaldean, iluntzean izan zelaik sendagillea iduritu zitzaio arront gaizki nitzela». **atsalde**: «Bazkari aundia eta ona egin ze eta atsaldian erri guzia dantzatu zen larrain batean». *Atsalde* bada ere ia beti erabiltzen duen forma, *arratsalde* ere ageri da hiruzpalau aldiz.
- arraxpa** iz. ‘arraspa’: «[Nekazarien erremintzak...] burdin sardea, bertze zurezko sardeak eta arraxpak».
- arrazi** *du* ad. ‘harrarazi’: «Artu nue beti bezala aketa esne txorta batekin, eta arrazi niote nai zuten guziei».
- arrazoin izan** *du* ad. ‘arrazoi izan’: «Erraten zire amak arrazoin nuela».
- arrazoñ** iz. ‘arrazoia’: «Arrazoñaikin mintzo naiz».
- arrepatu** *du* ad. ‘harrapatu’: «Mezkiritzen ere bertze gizon bat ilik bide bidean arrepatu zute»; «Arat onat aundiak arrepaziagatik iten duzte ango eiztariek».
- Arreste** Mt.
- Arresteko bide** Mt.
- Arresteusein** Mt.
- arri-erauntsi** iz. ‘harri-erauntsia’: «Nere amatxik erraten zue [...] urte artan uztailearen amarrean arri-erauntsiak garbitu zituela bazter guziak»; «Lenago Salvatore bezperan izeten gine eliza bete gende, ango sagoi eta alorreak bedeinkatzera, eta eskatzera etzezala arri-erauntsiak ondatu ango alorrak».
- arriolio** iz. ‘arriolioa, petrolio»: «Lemexiko etxean ikusi nuen argia izen zen arriolioa edo erdaraz *petroleo* deitzen zena».
- arripikatu, arripiketu** iz. ‘harri pikatua, harlandua, silarria’. **arripikatu**: «Elizak ez du arripikatu anitz, balin badue batre». **arripiketu**: «[Pilotaioku deitzen denak] arront arri ona du eta arripiketue anitz».
- arripiketu** ik. **arripikatu**.
- Arripiketuzko iturri** Mt.
- Arriurdin**. Mezkiritz eta Aurizberri herrien mugako toponimoa.
- Arriureta** Mt.
- arrixko** ik. **arrixku**.
- arrixku, arrixko** iz. ‘arrixku». **arrixku**: «Ez nue uste nere aita arrixku aundietan erabiltzen zela guri azteatik». **arrixko**: «Beren biziak arrixkoan paratuz juaten diren guziak».
- arroitu** iz. ‘asotsa’: «Ori egin zuenian izentze arroitu bat ain aundia..., nik uste nue endaia kiderra autsi zela». Sin. **asots**.
- arron** ik. **arrant**.

**arront**, **arron** adlag. ‘arrunt, arras, guztiz, osoki’. **arront**: «Emengo seme alabak arront langileak dire»; «Berak ere etortzen zire noiznai gure etxera eta arront maite gindue elkar»; «Erratan zuenean arront ona zela eta arron luzea zela». **arron**: «Arron gaizki paratu ze». Gehienetan *arront* aldaera erabiltzen du. Ik. **arras**.

**arropero** iz. ‘arropategia, arropa gela, arropa armairua’: «Arroperoan erakusten ziate iosten eta eskulan pollite guzietatik egiten»; «Batzuetan zurubi edo eskaletatik erori zela, arropero zenbaitei io zekola».

**arrosario**, **errosario** iz. ‘errosario’. **arrosario**: «Eta afaldu ginduelaik erreztatu gindue arrosarioa». **errosario**: «Sukalde aundi artan, errosarioa ematen zue amak eta denek erantzunten zute». Behin soilik ageri da *errosario* aldaera, gainerrako guztietan *arrosario*. **arrosarioa eman**: «Etxean ematen ze arrosarioa eta gibeletik amar bat *aitegurea* bedere».

**Arrotxapea**. Iruñeko barridea.

**arrotze** iz. ‘arrautza’: «Oillo koloka paratzen zutelarik arrotzekin, arrotze bako txari ematen ziate kandela bedeinkatuarekin».

**arte** iz. ‘tartea, bitartea’: «Eta amabietarik amasei urte arte ortan»; «Ondar bordaldea Sakarteko eta Larregaingo arte ortan dago, Apesuiena da». Ik. **erte**.

**Artea**. Bizkaiko herria. (Euskal izena **Arteaga**, of. **Artea**).

**Artedia** Mo. «Lenago bizi zen gendea, baño orai gañan belartegia eta azpian ardiak. Etxe onen gañaldean dago eliza».

**Artieda**. Urraulbeitiko herria.

**artio** postpos. ‘arte’, denbora muga adierazteko: «Eta ortan [nere euskeran] idatzi dut orai artio»; «Bertze bat artio»; «Berriz akorduik gabe gelditu nitze eta ez dakit noiz artio».

**Artorri** Mt. (of. **Artoerri**).

**arts** iz. ‘arratsa, gaua’: «Laronbat arts batean»; «Artzen dituzte lan egiteko eta goizeko seietaik artseko amarretaraño lan gogor batean sei pezeta egunean»; «Etxean denak lasai gelditzen zire ni berekin ateratzen gindelaik, baño gero artsean lanak neretako. Atsaldean egin bearrak, artsean».

**artsalde** ik. **arratsalde**.

**artso** adlag. ‘arratsero, gauero’: «Etxean egon zen denboran artso ematen omen zue arrosarioa».

**artxo** iz. ‘arkumea, axuri edo bildots emea’, ik. **ariko**.

**artzaiñ**, **artzai** iz. ‘artzaina’. **artzaiñ**: «Bitartean aurrak ai zire azten, eta seme zarrena artzaiña egin ze beren ardiketa zaintzeko». **artzai**: «Eta Berreguko [leze] batera erori ze zazpi urteko mutiko bat, Apesui delako etxeko semea, artzai zegona bertze lagun batekin».

**Artzaiandieña** Mo. [*Artzai andienea* (Saragüeta 1979: 11)].

**artzaiñ** ik. **artzai**.

**Artziber**. Nafarroako ibarra: «Aspeltu ze nere aita nardagarrizko zikinkerri ebekin eta utzi zue Sorogaingo uneitza eta Artziberko Iriberrikoa artu zue eta kontent egon ze egin zuen denbora». (Euskal izena **Artzibar**).

**Artzubi** Mt.

**asarratu** *da/du* ad. ‘haserretu’: «Sendagillek anitz asarratu zirate, zerengatik galdu nue pisu anitz»; «Andik denbora guti gabe, asarratu zire elkarren artean».

**asarre** iz. ‘haserre’: «Aren beidetze bat baliosagokoa ze bertze asarre guziak baño». **asarre bizian**, **asarre gorrian** adlag. ‘arrunt haserre’: «Asarre bizian paratu omentze»; «Azkenean asarre gorrian paratu nitze». **asarre egon** *da* ad. ‘haserre egon’: «Arront asarre egoten



zire serora oien kontra». **asarre eman** *du* ad. ‘haserre egin, errieta egin’: «Aitu izan dut semea aunditu zelaik aitari asarre aundia eman ziola».

**Asiber.** Aurizberriko toponimoa: «Udan egun eder batean, juaten gine iru zaarrena aitaikin eta amaikin bixer arrepatzera eta gu abie eske Asiberko mendira». (of. **Asibar**).

**aska** iz. ‘aska, edaska’: «Errian badire bi iturri ederrak beren bi aska aundiekin, baterriain erdian eta bertzea Txorrendoko barridean»; «Auzolaneko lanak izaten dira bideak, iturri eta askak garbitzeko».

**askari** iz. ‘askaria, merienda’: «Eman bear bazago atsaldean askaria, eman zazu ardoaikin ian dezaken gauza on zerbait».

**Askazarreta, Azkazarreta** Mt. (of. **Askazarreta**).

**aski** adlag. ‘nahikoa’: «Gu juaten gine aski, baño berak ere etortzen zire noiznai gure etxera»; «Aski ongi asi zen azten»; «Garbi aski erran nio»; «Badugu negar aski toki guzietan». **askiz**: «Jose Luis gaztena ere egon ze denbora askiz Salesianoekin».

**asots** iz. ‘asotsa, zarata’: «Nik goiz artan ez nue entzuten batre asotsik»; «Baño lenik asots bat aundia entzun gindue, eta gero eta geiago». Sin. **arroit**.

**aspaldik** adlag. ‘aspaldi’. Deklinatu gabe *aspaldik* forma erabiltzen du. Deklinatua: *aspaldian, aspaldien, aspaldiko, aspaldikoa, aspaldikoak, aspaldixkoa, aspalditik...* «Nire amatxin aita eta ama orduko aspaldik ilak zire»; «Aspaldik ez dut ikusi, uste dut ongi dela»; «Mezikirizko eliza aspaldikoa da»; «Guk aspaldien gogoan gindue oiek zirela; ama aspaldixkoan alargundua ze».

**aspertu** *da* ad. ‘gogaitu, nekatu’: «Ni asper-tu nitze eta atsiñertu nue izebain etxera igaro ginelaik»; «Niri iduritzen zaide

aspertuxe zela bere etxeko lan geienak bere ganean zituelako».

**asteoro** adlag. ‘astero’: «Bi egunorokotan eta bi asteorokotan idazten nue asteoro»; «Nik eskatu gabe, asteoro ekartzen zirate». Kasuren batean *astero* ere ageri da.

**asteoroko** iz. ‘asterokoa, astekaria’: «Orduan erran zire, beren asteoroko edo ilabeteko batian atera zela nere eritasun eta sendatze arrigarria»; «Nik ere gorrotorano idatzi nue bi egunoro eta bi asteorokotan. Orduen uzteko lana izan nue».

**asti** iz. ‘astia, denbora, beta’: «Sendagilleak erran zio orano bazuela asti ortarako»; «Baditu gauza anitz egin bearrak eta ez du astik denbora pasatzeko nolana».

**asto** iz. ‘astoa’: «Neure aitari ikusi orduko erran nio: aita, ez da nior etorri astoain kargatzera»; «Guk beti izen dugu asto bat egurrak etxera biltzeko, ongariak alorretara eta negu minean aurrak eskolara eta eskolatik etxera eremateko; ola zangoak busti gabe idukitzen zuzte».

**astozañ** iz. ‘astazaina’: «Astozañak kurritzen zue zalui eta lanak eginak izeten zire segido».

**atari** iz. 1- ‘atea’: «Obeki naiez atari aundia ekendu eta egin dute txiki bat gendea sartzeko». Ik. **ate**. 2- ‘eraikuntza baten kanpoko alde estalia’: «Borda atarian egurra bildu eta puskatzen dute eta uzten dute idortzera». Ik. **Elizataria. atarian io** *du* ad. ‘atea jo’: «Guatzera zezilaik beitiko atarian iotzen, nor da? Tomasa». **atarira deitu** *du* ad. ‘atea jo’: «Deitu zute atarira eta edekitzean ikusi nue nere anaia Lazaro zela».

**Atarrabia.** Nafarroako herria. Deklinatua: *Atarrabiko*: «Nere amatxik anitz gauza erraten zigu eta atzo oroitut nitze Juan de Atarrabia erraten zue, baño nik erran biartut arei entzunak eta Atarrabiko Juan»; «Billabakoa zela erraten zue nere ama-

txik eta Aite Sandua etzela infernura juan, zerengatik Juan Atarrabikoak etxekolakoz utzi». (of. Villava <> Atarrabia). Ik. **Billaba**.

**ate** iz. 'atea': «Guziendako edekik zego bere etxeko atea eta denendako bazue zer eman»; «Bein, gau batez [...] deitu zute atean nere aitak iotzen zuen bezala». Ik. **atari**.

**ateraldi** iz. 1- 'ateraldia, irteera': «Etxetik lemexiko ateraldia egin ginduelaik». 2- 'uste gabeko erantzuna, burutazioa': «Etzitzego ongi juan apezai nere ateraldia»; «Nere amatxiri ezitzego ongi juan ateraldi ori». **atraldi** 'burutazioa': «Ni arrituik gelditu nitze aurraren atraldia-kin, ixil ixila gelditu nitze, ezin erran deus ere». Behin bakarrik ageri da *atraldi* aldaera.

**ateratu** *du* ad. 'atera': «Nere izebak ola ateratu zue bere bizia, salerosten eta Baztango okindegi guzietaik erematen ziote ogia eta denei erosten ziote»; «Asi gine ikusten ia Iruñan zen edo ateratu zuten etxetik»; «Gero dena gaizki ateratu ziote»; «Orai bada errietan lanbide geiago eta ez dute zetaz ateratu etxetik kanpora lan geigo egiteatik». Bospasei aldiz *ateratu* ageri bada ere, normalean *atera* forma erabiltzen du.

**aterazi** *du* ad. 'aterarazi': «Galde egin nio ia zertzuen, baño ezin aterazi nio eta azkenean erran zire»; «Neure aitari galde eginez aterazi nio geiago edo garbiga».

**atezai** iz. 'atezaina': «Atezai egoten zen andreiak erran zire asarre edo erdi asarre».

**atik** lok. 'haatik': «Atik, egia balin bada...».

**atra** *da/du* ad. 'atera': «Zorne anitz ai zela atratzen eta ni inelaki garbitzen»; «Ilbeltzain amazpian [...] erriko gizon geienak juaten zire meza ortara, azien-

daik etzute atratzen kanpora, baño izen dira berantago urteak atratzen zutenak».

**atraldi** ik. **ateraldi**.

**atrebitu** izond. 'ausarta': «Ni atrebitu txar bat nitze nonbait».

**atrebitukeria** iz. 'ausartasuna, ausarkeria, atrebentzia': «Neure bizi guzia paratzea aski atrebitukerie da, bai baño altzina...».

Ik. **auserkikeria**.

**atsalde** ik. **arratsalde**.

**atsinertu** ik. **atsiñartu**.

**atsiñartu**, **atsiñertu**, **atsinertu** *du* ad. 'atsegin hartu'. **atsiñartu**: «Atsiñartu nue, uste izan nue bakarretan ez nuela egin al izein denboraingatik». **atsiñertu**: «Ni aspertu nitze eta atsiñertu nue izebain etxera igaro ginelaik». **atsinertu**: «Ala ere, atsinertzen dut nere adixkide onak direla erosi dutenak ere».

**atsiñertu** ik. **atsiñartu**.

**atzenazi** *du* ad. 'atzenarazi': «Erraten zute gauza anitz eta denak irrinezteko denei eta atzenaztiatik geuren eskuetaz eta beren otzaz. Abenduein ondar egunak zire eta izozten ai zue al guzia eta ezin txutik egon denak eta ezin garbitu arropak».

**atzendu** *da/du* ad. 'atzendu, ahaztu': «Bizi den anai oraño etortzen da sortu errire eta euskera ez du atzendu»; «Erri guziarendako ilundura ederra, sekula ez da atzenduko». Sin. **antzi**, **aztu**.

**au** izord. eta izond. 'hau': «Au da nik entzuna barride artan»; «Lan au egin gogo nue». **ebek** izord. eta izond. 'hauek': «Senar emazte ebek izen zuzte iru seme eta zazpi alaba»; «Oraiko oiturak ez dakit ebek berak diren edo ez». **eben** 'hauen': «Nagusi eta etxekoandre gazteak baño lenago izeten dire eben aita eta amak». **ebetak** 'hauetarik': «Erri ebetaik batean ni aur aurrean baze bat amazpi umen ama». **ebetako** 'hauetako': «Baño Juanatxo etze denbora ebetakoa,

aietakoa ze». **ebetara** ‘hauetara’: «Iru ekarri ditut neure idatziz ebetara, zein baño zein obeak». **ebetaz** ‘hauetaz’, **ebetan** ‘hauetan’: «Ebetaz gañera, iru erri ebetan eta Baigorri bazitue lengusu eta illoba alde bat».

**aundi** 1- iz. ‘heldua’: «Animako jarduera batzuk aurren eta aundientzat, geienean aita kaputxino bat izaten ze, eta itzaldi ederrak egiten zitue gure biotzak xamurrezteko»; «Bazire aundietan deus ere etzekitenak». 2- izond. ‘handia’: «Erriari badire bi iturri ederrak beren bi aska aundiekin, bat erriain erdian eta bertzea Txorrondoko barridean»; «Naigabe aundia ereman nue».

**aundiazi** *du* ad. ‘handiarazi’: «Eta orai denbora ebetan ain biarretan gaude denak aundiazteko gure sinesmena».

**aunditu** *da* ad. ‘handitu, hazi, koskortu’: «Aitu izan dut semea aunditu zelaik aitari asarre aundia eman ziola»; «Ama ez du inport nexkak izan daitzen denak, ola aunditzeaikin ez dire gerrara juain zure anaiak juan diren bezala»; «Ume oiek ni sortu orduko aundituak eta zenbait Ameriketara juanak zire».

**auntxume** iz. ‘auntxumea’: «Kusi zue auntxume bat».

**auntz** iz. ‘ahuntza’: «Ama esneduna izan ze beti, baño onekin [nire anaiarekin] ez zue deus ere ikusi bere bularretan eta nik aitari erran nion: bilatu eta erosi zazu auntz bat esneduna eta neuronek aziko dut [...], mutiko xarmanta egin ze».

**aupide** iz. ‘hautabidea’: «Mejikora juan ze bere aupidea egin zuen egun berean berain gaiñezko monja bateki».

**aur** iz. ‘aurra’, esam. «*Mezkiritz eta Olonditz ogi guti eta aur anitz*»; «Sortu eta biramonean bateiatzen ze aurra».

**ume** ere erranahi berarekin erabiltzen du: «Andre alargun bat bortz aurrekin

eta denbora puska baten buruan ezkondu ze gizon alargun batekin, bertze bortz ume zituaikaikin». **aur aurretik** ‘haur-haurretik’: «Euskera [...] aur aurretik orai artio izen da nerea eta ortan itz egiten dut»; «Pilotari onak beti izan dire Mezkiritzen. Izan dire eta badire. Aur aurretik maite dute ioku ori mutikoez eta orai neskakoez ere bai»; «Nik orduen ikesi nue anitz itz berri euskeraz eta aur aurretik ikasiak bezala itz egiten nue berekin»; «Aur aurretik azi zire bortz aurride amai gabe, aspaldixko il ze eta beren aita eta izeba batekin bizi zire».

**Auritz**. Herria. Deklinatua: *Auritzen, Auritzko, Auritza eta Auritze*.

**Aurizberri, Auritzberri**. Erroibarko herria. Deklinatua: *Auritzberriko (ia beti), Aurizberriko (bi aldiz), Auritzberritik*. (Euskal izena eta of. **Aurizberri**).

**aurkitu** *da/du* ad. ‘aurkitu’: «Beti garbi eta asean aurkitzen zute»; «Ori dena ikasi dute eskola ortan eta ni aurkitzen naiz pozez bete».

**aurpegi** iz. ‘aurpegia’.

**aurride** iz. ‘haurridea, anai-arrebak’: «Ezkonzen balin bazire Orreagan edo Mezkiritzen, bazkaria izaten ze sortu etxean aita eta amak, aurride, lengusa eta osaba izebak»; «Neretako irakurtzia izan da arront maitegarria, orrengatik igandetan eta besta egunetan ori ze nere iosta iokua. Nere aurridek etzuten ongi artzen, baño nik ez nue uzten al»; «Or sortu ze nere aita eta ameka aurride geiago»; «Nere ama, bere aurridetan seigarrena».

**aurtasun** iz. ‘haurtasuna’: «Neure aurtasunean erran nio: ori ez da egiten, gaizki egina da»; «[Eskola] lenago toki txarragokoa gindue, itexuriain azpian egoten gine denak. Neure aurtasunean [...] ura anitz sartzen ze eskola zarrean eta guk ez gindue berrik izen».

**aurtzaro** iz. 'haurtzaroa': «Baño etzue batre gozotasunik izen bere aurtzaroan, ez eta bere gaztetasunean, aita eta amarik gabe gelditu ze oraño aurra zelaik».

**auserki** adlag. 'ausarki, ugari': «Iaten ze gauza oberenetaik eta auserki»; «Gero garbitzen ze ongi ur auserkikin».

**auserkikeria** iz. 'ausarkeria handia': «Gañera, jua nitze arront asarre aren auserkikerian». Ik. **atrebitukeria**.

**autatu, autetu** *da/du* ad. 'hautatu, aukeratu'. **autatu**: «Orrengatik umore on puxke bat ongi eldu zitzaio eta nere senarra ortarako autatua bezala ze». **autetu**: «Orduen autetzen zute mutil nagusia eta bere laguna».

**auteman** *du* ad. 'hauteman, sumatu, konturatu': «Auteman nue etziretela denbora anitz utziko nerekin sobera ongi zego eta».

**autetu** ik. **autatu**.

**auts** iz. 'errautsa', esam. «*Etxeko sua etxeko autsaikin estaltzen da*»; «Urte guzian brasa oiek biltzen zire erdi erdire eta tapatzen zire autseki». Ik. **subilero**.

**autsi** *du* ad. 'hautsi, apurtu, puskatu': «Alako batian autsi zitue bi besoak»; «Gañera, betaurrekoak autsi zioete».

**auzelan** ik. **auzolan**.

**auzo** iz. 1- 'auzotegia, barridea': «Auzoan erraten zute: a gaixoa! senarrak io dio, atzo artsean edana zego eta Jaungoikoak daki zer gaba eman dion». 2- 'auzokoa, auzokidea': «Nere aurtzaro eta gazte denboran, iltzen zelaik nornai, bi auzoak juaten zire bere umeak edo anai arrebak bizi ziren errietara edo bordetara eta erematen zioete mandatua». Sin. **barride**.

**auzolan, auzelan** iz. 'auzolana': «Auzelanak ere bear diren guzietan egiten dire eta etxe bakoitxetik juaten da gizon bat. Auzolaneko lanak izaten dira bideak, iturri eta askak garbitzeko».

**axaxkal** iz. 'azazkala': «Uste dut emakume onena zañetaik asi eta axaxkaleno indartasunez betea zela».

**axeri** iz. 'azeria': «Badire axeri, erbi, mendiko katuak eta basa auntzak».

**axeri eztei** iz. 'azeri-ezteia, eguzkia eta eurria aldi berean': «Azkenean agertu da iruzki epel bat axeri eztei batera egitera zopak». Ik. **eztei**.

**Axexilo** Mt. (of. **Axarixilo**).

**Axketa, Azketa** Mt. (of. **Asketa**).

**axola** iz. 'axola': «Baduzu beldurra? Ez axolaik ere».

**azaoui** iz. 'azaoa, sorta': «Ultziek ere nere denboran larrañan, edatzen ze azaoiak eta sartzen zire bi beor arren gaña pikorra berexi zaien eta agotza xeiatu zeien».

**azaro** iz. 'azaroa': «Ezkendu eta lemexiko azaroan il ze nere aitatxi».

**azi 1** ad. 1- *da* 'handitu, puztu': «Anitz aldiz egon da anka eskuñe arront azi eta beltz beltza egine»; «Orduan sendagileak erran zue gibela arront azia zela»; «Alako batian autsi zitue bi besoak, bi tokietaik [...] ni guartu nitze azten ari zirela bi besoak»; «Sendagilleak erraten zue tronboflebitis zela [...] anka beltz eta azitua». 2- *da/du* '(haurrak, umeak) hazi': «Aldi ortan nere ama aurra azten ai ze»; «Ez nue uste nere aita arrixku aundietan erabiltzen zela guri azteatik».

**azi 2** iz. 'hazia': «Baño beti uste izan dut nik botaikeko kalabaza aundi aien azitik atera zirela».

**azienda** iz. 'ganadua': «Azienda erri ontan deitzen da animale guziei eta euskeraz da itz ori»; «Nere aitain ondotik artu zue Sorogaingo uneintza. Azienda ederra bazue berak».

**aziendadun** izond. 'abelduna, ganadu jabea': «Erran zioete Frantzieko aziendaduna etzela beraz batere kontent»; «Erran

bezala, etxe aundia eta aziendaduna da eta lan aundiako etxea da».

**azitu** ik. **azi** 1.

**azkar** 1- izond. 'bizkorra, sendoa': «Naigabe aundiak ereman ditu nere gizonak eta ola damaitze ainbertze urtez eri, ain gizon azkarra...»; «Sinesmen azkarra, itxaropen negurri gabea»; «Labrari etxe azkarrekoa ze eta erran dezaket langile gaitza zela». 2- izond. 'buruargia': «Irakasle azkarra ze». 3- adlag. 'anitz, asko': «Atera, atera arri ontak azkar»; «Beren ostal etxean irabazten zute azkar eta semeak sobera abilek zire».

**azkartasun** iz. 'sendotasuna, bizkortasuna': «Indar aundi bat sar daiela gure animetan eta azkartasun onek egin dezan...».

**azkartu** *da/du* ad. 'azkartu, bizkortu, sendotu, indartu': «Besta aundietan biltzen zire elkarrekin eta bazuten aixkidantza aundia, baño egun batez arront azkartu ze aixkidetasun ure eta gogoratu zitzeiote baten alaba zaarrena ezkon zaien bertzen nagusi gazte izen bear zuenai-

kin»; «Maitasunaren zañak ongi azkartuak dire».

**azpi** iz. 'heia, ukuilua': «Lenago bizi ze gendea, baño orai gañan belartegia eta azpian ardiak». **azpian** adlag. 'behean': «Beso azpian paratzen omen esku eskuña»; «Gero ume txikiak arendako iruzkiain azpian ziren gauzarik oberena eta ederrena».

**Azpilikueta**. Baztango herrria. Deklinatua: *Azpilikueta*n. (Euskal izena eta of. **Azpilikueta**).

**aztatu** *du* ad. 'haztatu, asmatu': «Egin gindue inalak sendaztiagatik, baño etzue niok aztatu. Orduan anitz ongi solas egin ze Ilarregiko andre batengatik, ona zaintze baño nere aitarekin etzue aztatu»; «Erraten zue nere alabak arront langileak izain zirela. Iru bakarri ezagutu zitue eta, ala ere, ongi aztatu zue, denak langileak dire».

**aztu** *da* ad. 'ahaztu, atzendu': «Arriturik nago erri ontan [Mezkiritzen] eskuara nola ari den aztutzen». Sin. **antzi**, **atzendu**.

## B

**bago** iz. 'pagoa': «Mendi ederrak eta bago xarmantak badire erri ontan».

**Bagomultxu** Mt. (of. **Bagomutxo**).

**Bahia Blanca**. Argentinako hiria.

**bai** iz. 'baiespena, baimena': «Zegon lagundian bear zue juateko baia eta, oiek denak prestatu onduan, juan ze Zaire deitzen den tokira»; «Artan ikusteak altzindu zue nire baia».

**baiez** iz. 'baieza, zalantza': «Nik anitz aldiz erra niote neure baiezak, bano dena estaltzen zute».

**Baigorri**. Nafarroa Behereko herria.

**Baiona**. Lapurdiko hiriburua.

**baitan** postpos. ezkerrean daraman pertsonaren osagarria: «Zure baitan daukat paratua nere itxaropen guzia»; «Zer indartasuna zeuken gordea bere baitan».

**baitu** *du* ad. 'bahitu': «Egun batean etorri zire lau gizon baituzera etxe berria eta orduen nere amatxi atera ze, eta erran ziote: noren etxea baitu bear duzie? Etxea eta lurra nereak dire».

**baizik** junt. 1- 'besterik (ez)': «Bei esneduna erematen [ginduen] zerengatik etzuten ardi esnea baizik, eta etze ona izebaindeko»; «Nik ez nue bertze gura-soik nai, neuriak baizik». 2- 'baizik

(eta)’: «Ez zue erran gaistoa zela, baizik irri inazteko balio zuela»; «Etzego berak nai zuelakoz, baizik ala utzi ziotelakoz altzinekoek».

**bakar** izond. ‘bakarra’: «Eman zigute denei txokolatea ogiaikin, ogia dena ebakia busti egiteko, bat bakarra artu nue»; «Orai meza bakarra izaten da»; «Bazue seme bakar bat amalau urtekoa». **bakar bakarra** adlag. ‘bakar-bakarrik’: «Denbora ontzen zenean, juaten gine Useingo erre kara eta an bakar bakarra gelditzen gine eta ederki garbitzen gin due»; «Artu nitue berrogei kilo nik erraten nuen arritik eta bakar bakarra juan nitze Palentziara». **bakarrak** izord. ‘zenbait, sail ederra’: «Eliza eskulanak nere lankaiarekin ateratzen zitzaizkide gogoan neuzken bezala. Bakarrak egin ditut neure denboran! eliz jantzi guzietatik»; «Badugu negar aski toki guzietan, eta geurrek ere bakarrak egin tugu». **bakarretan** adlag. ‘batzuetan, zenbaitean’: «Atsiñartu nue, uste izan nue bakarretan ez nuela egin al izein denboraingatik»; «Gizon ilupe edo ez deus baten alarguna ze. Bera lanetik etxera etortzen zenean bakarretan arrepatzen zue alma-draka azpian lo».

**bakarri** ik. **bakarrik**.

**bakarrik, bakarri** adlag. ‘bakarrik’. **bakarrik**: «Orai duela amairu ilabete il ze, ez degu bertze itxaropenik ikusteko, zerukoa bakarrik, bearrik degu ori»; «Tikienak bi illabete bakarrik zitue». Bizpahiru aldiz ageri da **bakarri** aldaera: «Iru bakarri ezagutu zitue».

**bakartasun** iz. ‘bakartasuna, bakardadea’: «Etzego berak nai zuelakoz, baizik ala utzi ziotelakoz altzinekoek, bakartasun aundian gelditu zelaik».

**bakartegi** iz. ‘bakartegia, komentua, kongregazioa’: «Bota zuzte Españatik kan-

pora Jesusen Lagundia eta erre zuzte bakartegi edo lekaretxeak»; «Bearbada, sartu zire lan bat egiteko, nai aundi bat egiteko gogoarekin, baño sartu den lagundian edo bakartegian ikusi du ez dezakela egin alakoik deus ere».

**bake** iz. ‘bakea’: «Nondik eldu zaiote umore ori bere barnean duten bake aunditik baizik?». **bakean utzi**: «Nik itzuli nio [...] eta erran bakean uzteko edo oroitiko zela nitaz». Beti *bake* erabiltzen du, behin soilik *pake* eta, ematen duenez, elizako otzoitzetatik hartua: «Gizon guzientzat gure Jesus zure pakea eman zazu».

**bakoitz, bakoitz, bakotz, bakotz** izond. eta izord. ‘bakoitza’. **bakoitz**: «Nik ogei egunez eta egun bakoitzean ogei kilo [maurgi] bildu nitue neure alabekin». **bakoitz**: «Auzelanak ere bear diren guzietan egiten dire eta etxe bakoitxetik juaten da gizon bat». **bakotz**: «Bertze oitura bat: Egur loteak markatu eta ematea bakotxai berea». **bakotz**: «Orai meza bakarra izaten da, errian den erretora dago iru erritako eta erri bakotzean meza bat». Maizen erabiltzen duen aldaera *bakotz* da.

**bakoitz** ik. **bakoitz**.

**bakotz** ik. **bakoitz**.

**bakotz** ik. **bakoitz**.

**baliatu** da ad. ‘baliatu’: «Oietaz balietzen dire alke gutikin sortu diren jendeak»; «Amak sinesmena eta itxaropena ongi berekin zitue eta ongi baliatu da berekin».

**balin** ‘baldin’ baldintzazko menderagailua: «Ezkontzen dena balin bada lemexiko seme edo alaba, gelditzen bada bere sortu etxean edo juaten balin bada ezkontzeatik bertze alaba edo semeain etxera etxeoandre edo nagusi, orduen bi egunez izeten zire ianari gaitzak». Beti *balin* forma erabiltzen du.

**balios** izond. 'baliotsua': «Laister etxeko semea, etxeko nagusi bearra, quartu ze zein baliosa zen eta asi ze bere gibeletik»; «Denak baliosak dire toki guzietan eta ori eder da denentzat».

**baliotasun** iz. 'baliotasuna, balioa, baliagarritasuna': «Bere umek ongi ezagutzen zute bere baliotasuna eta maite zute ama bezala, umore onekoa zelakoz, langile aundia zelakoz, maitegarria zelakoz eta...».

**banabar** iz. 'banabarra, babarruna': «Zakuto bat banabar gorri». Ik. **iler**.

**Banka**. Nafarroa Behereko herria. Deklinatua: *Bankako, Bankara, Bankatik*.

**bano** ik. **baña** eta **baño**.

**baña, baño, bano** junt. 'baina'. **baña**: «Mendiz mendi bide geienean ereman nue besotan aurra, baña bertzea neurekin nue». **baño**: «Egur loteak markatu eta ematea bakotxai berea, baño bederatzi ilabete bizi bear du errian». **bano**: «Otoitz anitz egiten du, bano negarrik begietan sekula».

**baño 1, bano** konp. 'baino'. **baño**: «Orai ere badire anitz pilotari, bearbada beñere baño geiago». **bano**: «Ez dakit izen naizen iru aldiz bano geiago».

**baño 2** junt. ik. **baña**.

**baratu** *da* ad. 'gelditu': «Urdazubin eta Zugarramurdiran erran dezakete gende anitzek nola aitzen ginen lanean, arat onat baratu gabe».

**baratze** iz. 'baratzea': «Onak ere badu bere baratze tiki bat altzinean, saiets batean badu landa ederra, baño ez da guria; eta giblean baratze bat».

**baratzuri pikor** iz. 'baratxuri alea': «Perrexil puske bat, baratzuri pikor bat, gatza eta kanela deitzen den makil puske bat botatzen zute eltzera».

**barkamendu** iz. 'barkamena, barkazioa': «Guk, nornaiei egiten bagindio makur-

kerie zenbait, juan bear gindue barkamendua eskatutzera len baño len».

**barkazio** iz. 'barkazioa': «Eskazi zeko barkazioa ama orrei».

**barna** 1- iz. 'barrua, barnea': «Erosi nitue ogeita amar zaku ieltso, amar kare beltz eta mila *ladrillo* etxe barna konponitzeko». Ik. **barne**. 2- postpos. 'barna, zehar': «Bankara juaten gine Mendixuritik barna».

**barne** 1- iz. 'barnea, barrua': «Aietaik bat ez da sendatu oraño, gaitza arront sartua ze aren barnean». Ik. **barna**. 2- postpos. 'barne, barru': «Denbora gutien barnean il zire biek».

**barride** iz. 1- 'barridea, auzoa, auzotegia': «Ala, ba, ni sortu nitze Mezkiritzko barride batean, Txorrondo deitzen denean, Arakiñenean»; «Errian badire bi iturri ederrak beren bi aska aundiekin, bat erriain erdian eta bertzea Txorrondoko barridean. Uste du bertze tiki bat badela. Biritxikarko barridean». 2- 'barridea, auzokoa, auzokidea': «Gero ila elizara eta obitegira eremateko, ez badute bere semek edo anaiek erematen, erematen diote barridek. Gabaz ilarekin egoteko ere barrideak». Sin. **auzo**.

**Bartoloña, Bartoloin etxea** Mo. «Lenago Bartoloin etxea deitzen ze Martin Antoniona». Ik. **Martin Antoniona**.

**Bartoloñeko etxeondoa** Mt.

**baru** iz. 'baraua': «Ama gaixoek otoitz eta baru anitz egiten zute». **baru gorrian** adlag. 'barau gorrian, baraurik': «Ama beintzat, iru edo lau egunez baru gorrian egoten ze». **barua autsi du** ad. 'baraua hautsi, barautsi': «Egundaño ez dire eskolara juan barua autsi gabe».

**barun** iz. 'beruna': «Gero aztertu gindue iakiteagatik bazuen barun eta zilar zerbaite».

**Barzelona**. Kataluniako probintzia eta hiriburua. (Euskal izena **Bartzelona**).

**basa auntz** iz. 'basahuntza': «Badire axeri, erbi, mendiko katuak eta basa auntzak».

**basa sagar** iz. 'basasagarra, sagarina': «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak, sagarrak, aranbeltzak, urrek, ezelak, patxaranak, lisontsiak, basa sagarrak...».

**basurde** iz. 'basurdea': «Baño basurdek ere badakite lur sagarrendako toki ona dela, arara juaten dire seurik lur azpitik ateratzera bere letagin eta muturrekin».

**bat** zenbtz. 'bat'. **bat egina gelditu** *du* ad. 'harritua gelditu': «Ni bat egina gelditu nitze». **bat ina gelditu** *du* ad. 'harritua gelditu': «Gelditu ze bat ina, ikusi zuelaik zein altzinatua gindeuden». **batzurek** izord. 'batzuek': «Eta beren umengatik batzurek egin dute al guzia»; «Egun oietan lo egin nue etxe ontan, baño egunez egoten nitze bertze aide batzurekin». **batzuretari** izord. 'batzuretari': «Zenbait urtez kostatzen ze giago bertze aldi batzuretari baño».

**bataiatu, bateiatu, bateatu** *da/du* ad. 'bataiatu'. **bataiatu**: «Mezkiritzen bataiatzera erematen du aurra emaginak, eta Iruritan amatxik»; «Guk bibiroak bataiatu ginduzelaik, ala egin gindue. Elizan bataioa eta gorputzeko besta Erriko Txokoan». **bateiatu**: «Sortu eta biramonean bateiatzen ze aurra»; «Aurra bateiatzera erematen zue emaginak». **bateatu**: «Aur ilak sortzean bateatzen zire beren etxetan».

**bataioko aitetxi** iz. 'bataioko aitaia, aita pontekoa': «[Nire] bateioko aitetxi eta amatxiak izan zire nere aitein aite eta amaren ama». Ik. **aitatxi** eta **besotako**.

**bataioko amatxi** iz. 'ama pontekoa': «Nere anai gaztenain bataioko amatxi ze». Ik. **besotako**.

**bateiatu** ik. **bataiatu**.

**batere, batre** adlag. 'ezer ere (ez)'. **batere**: «Laguntza batere gabe ainbertze ume

zituzten etxetan, zer egin bear zute?»; «Badire irakasleak, anitz ikesi dutenak, eta bertze batzuk batere ikesi gabekoak».

**batre**: «Ez dakit batre ongi egina zen egintzena»; «Ni ez nindego batre ongi»; «Nik ezagutu nue edo etzekiela batre, edo eresia zela». Anitzez maizago erabiltzen du *batre* aldaera.

**batio** adlag. 'batera': «Geienek artu zute gure Jauna gurekin batio».

**batre** ik. **batere**.

**batzarre** iz. 'batzarra': «Baze erri ortan [Alduden] etxe bat erraten zuena Erroibarko etxea zela, eta berean egiten zirela batzarreak».

**Baztan**. Nafarroako ibarra. Deklinatua: *Baztanen, Baztango, Baztana, Baztandik*.

**beala, bealakoan** adlag. 'berehala, berehalakoan'. **beala**: «Bizia sortu ze eta bataiatu zuten beala eta niok etzue uste ireunen zuela deus ere». **bealakoan**: «Etze bealakoan berotu».

**bealakoan** ik. **beala**.

**bear, biar** iz. 'bearra, premia'. **bear**: «[D. Manuel Lusarreta Errea] Mezkiritzko erriko semea ze eta ezagutu zuen irakasle baten bearra zegola bere sortu errian».

**biar**: «Eman badegu zure biarra». **bearretan egon** *da* ad. 1- 'bearrean egon, premia izan': «Nik eztakit nork erran zion gure erretore jaunari ni bearretan nitzela»; «Baño ez dut uste nere bearretan dela deustako». 2- '-t(z)eko zorian egon, puntu-puntu egon': «Zerengatik aurra izen bearretan nitze eta obe ze etxean egotea». **bearretan eduki** *du* ad. 'bearrean eduki, premia izan': «Gizajoak andrea nai du eta andre bear due, zetako iduki bear diozu bearretan?». Ik. **beartasun**.

**beardura** iz. 'behardura, zaintiratua': «Sendagilleak erran zigu [...] asensor



deitzen dena artzeko ustez nik biotza makur nuela; baño etze biotza, ze beardura aundi bat banuela biotzain onduan»; «Urdailla arront eritu zitzaio eta arront gaizki egon ze gizajoa eta ortaik asi zelaik sendatzen beardure aundi bat atera zitzaio. [...] Eta bertze beardura aundiagokoa atera zitzaio, eta gero eta geiago min artzen gelditu ze».

**bearrazi** *du* ad. 'beharrarazi, behartu': «Paper oiek iortzeko niri erakutsi bearran, zer egin estaltzen ai ziren egin bearrazi zutena».

**bearrezaldeko** iz. 'ezustekoa, kontrako erantzuna': «Nik itzuli nio erran eta eman batean bearrezaldeko ederra eta erran bakean uzteko edo oroitiko zela nitaz, baño buru utsa duenai zerekin bete?»

**bearri** ik. **belarri**.

**bearrik, biarrik** adlag. 'eskerrak'. **bearrik**: «Eta bearrik ura egiten zuela ederki»; «Ez degu bertze itxaropenik ikusteko, zerukoa bakarrik, bearrik degu ori». **biarrik**: «Biarrik andre sinesmen aundikoa zela».

**beartasun** iz. 'behartasuna, pobrezia, ga-bezia': «Aita juaten ze ikustera bere alaba eta ikusi zuelaik bizi zirela beartasun aundian, aitak negar egiten zue»; «Guzia emanen zio bearretan zenai, obe ze ez erratea beartasunaz deus ere, berak denak konpondu nai zituelakoz». Ik. **biar**.

**beatz** iz. 1- 'behatza': «Asi burutik eta zangoko beatz punteraño». 2- 'hatza': «Ori nai gindue bi beatz kopeta ginduen guziek»; «Lezearan bada leze bat nexka eder eta gaxte bat erori ze berera, Ardaizko erriko iturrian agertu omen ze beatza bere eraztunaiki jantzia».

**bedeikatu, bedikatu** *da/du* ad. 'bedeinkatu'. **bedeikatu**: «San Juan bezperan

erretzen da altzineko San Juan egunean bedeikatzen diren belarrak»; «Bedeikatu zue aurra bera otoitz anitz eginez». **bedikatu**: «Egiten zion lenik *aitaren* ur bedikatuarekin eta gero aldatu eta ez zute bustitzen». Bi aldaerak ageri baldin badira ere, maizago erabiltzen du lehenbizikoa.

**bedera** ik. **bedere**.

**bederatzi, bedratzi** zenbtz. 'bederatzi'.

**bederatzi**: «Ni oroitze naiz dagonilain ogeite bederatzian izeten zutela Uretan beren besta aundia». **bedratzi**: «Gero bedratzietan iotzen dire, gure erriko elizan iru danda». Bi formak erabiltzen ditu, baino anitzez gehiagotan *bederatzi*.

**bederatziegun** 1- iz. 'bederatziruena':

«Ilabete baten buruan etorri ze eta galdin zire ia egin nue bederatziruena. Erran nio: ez dut liburuik ere bederatzieguna egiteko eta orduan atera zue liburu xar bat sakelatik eta eman zire». Ik. **bederatziruena**. 2- zenbtz. 'bederatziehun': «Ezkondu gine mila bederatziegun eta ogeita amekan uztaillearen ogei eta bian»; «Neri bataiatu ziren apeza iltze mile bederatziegun eta amarrean». *Bederatziegun* eta *bederatziegun* formak erabiltzen ditu, baino anitzez gehiagotan lehenbizikoa.

**bederatziruena, bedratziuruena** iz. 'bederatziruena'.

**bederatziruena**: «Egun orrek izen zue bere bederatziruena». **bederatziruena**: «Egin zozu Laguntzeneko Ama Birjiñari bederatziruena bat eta [...] Ilabete baten buruan etorri ze eta galdin zire ia egin nue bederatziruena»; Ik. **bederatziegun**.

**bedere, bedera** adlag. 'bederen, seurik, gutxienez'. **bedere**: «Orai etorri da bi ilabete emen egotera, ia pixke bat bedere loditzen den». **bedera**: «Ola nere errin izena bedera nonbait iakinen zute».

**bedikatu** ik. **bedeikatu**.

**bedratzi** ik. **bederatzi**.

**bedratziurren** ik. **bederatziurren**.

**begien gañ artu** *du* ad. ‘begien gain hartu, begitan hartu, gorrotatu’: «Denek, edo zirenetaik geienek, begien gañ artu zute eta atsalde batian lanean ai zelaik, gainetik zur aundi bota ziote».

**begitarte** iz. ‘begitartea, aurpegia, itxura’: «Uste dut [...] eginen zituela bere juan etorriak ikusteagatik aurren begitartek».

**bei** iz. ‘behia’: «Erri au anitz aziendaduna da [...] badire bei anitz, idiak, aratxe, zezena Uretan, zaldi, beor, mando...»; esam. «*Baztanen gizona edo beia, edo Lekarotzko kaputxinoa*». **bei esnedun** ‘behi esneduna’: «Bankara juaten gine Mendixuritik barna. Baño bei esneduna erematen ginduelaik, orduan juaten gine Aduanatik barna eta ori Urepelen ze».

**beidetu** *du* ad. ‘begiratu’: «Baño orai [...] altzina, ez du balio gibelera beidetzea»; «Lemexiko aldiz ongi ikusi zuena beidetu eta berriz beidetu, eta erran ziren: zer pasatu da emen?»; «Etze anitz bear lemexiko beidetzetik ezagutzeko zen ondasun arrigarria zeuken bere biotzean». **beide** ‘begira’: «Bere ume guziak beren amain agora beide egoten zire»; «Ni egon nitze dantzari guziei beide». Behin bakarrik ageri da *beida* aldaera: «Beida, egin dut amets bat juan den gabea».

**bein** adlag. ‘behin’: «Oroitzen naiz nola bein nere aita olako mandatu bat ematera juan zen egun batean, lenik Bankara, Bankatik Baigorriara, Baigorritik Arizkuna eta gero Bozatera, dena oñez». **bein ere** ‘behin ere (ez)’: «Niri orrek kalte egiten zire, baño egundaño ez nitze bein ere kontu zarrekin juan ez nausi eta ez etxeoandreaingana». **bein batez** ‘behin batez’: «Bein batez,

nere Mezkirizko etxeko altzinean degun baratze tiki batean egin ze tipula aundi bat, lau libera terdikoa». **bein batean** ‘behin batean’: «Bein batean, galde egin nio ia gurasoak nola ziren». Ik. **bertze bein**.

**beingoaz** adlag. ‘behingoz’: «Zuek paratu baduzie guk biletzeko, erran zazie beingoaz non paratu duzien guk eginalak egiteko!».

**beintzat** lok. ‘behintzat, segurik, bedere, gutxienez’: «Ala iduri du beintzat»; «Gure gurasoak, ama beintzat, iru edo lau egunez baru gorrian egoten ze».

**beiti** 1- iz. ‘beheitia, beheko solairua’: «Amets egin dut [...] io zutela beitiko atean»; «Bear bagindue zerbait ez ginduelakoz etxean, aski gindue iaustea beitiere eta balin bazue gurea ze». 2- adlag. ‘beheiti’: «Nere amai odol juate ori eman zio beiti». **beitiago** ‘beheitiago’: «Ontarik beitiago bada bertze bat». **beitisko** ‘aski beheiti’: «Urak ereman ziote beitisko». **beitixago** ‘beheitixea-go’: «Beitixago da etxe bat, Lllallarena deitzen da».

**beikaikeri** iz. ‘bekaizkeria’: «Nabala aundi bat sartu zio aixkide aundienak, beikaikeri aundi zerbaitengatik».

**bekañ** iz. ‘bekaina’: «Zurak artu zio bekaña eta lau puntu eman ziote».

**bekoki** iz. ‘bekokia, kopeta’, sin. **kopeta**.

**bekosko** iz. ‘bekozkoa’.

**belai** iz. ‘belaia’: «San Juan goizeko intza ona omen da sendatzeko larruko eritasunak, sarna eta ori iduriak. Zenbait larru gorrian iraultzen dire sagoietan edo belaietan ederki»; «Bozateetik goitiago juaten bagara, alorre eta belai pollitak badire».

**belar ebaki** *du* ad. ‘belar ebaki’: «Nere aita Auritzen zela belar ebakitzen alde batera»; «Igteia belarra ebakitzeko»; «Bela-

- rrak ebakitzeko etortzen zire Baztan eta Errekatik».
- belarrak egin** *du* ad. ‘belarrak ebaki eta bildu’: «Denbora arekin belarrak eginak eta etxetan sartuak».
- belarri, bearri** iz. ‘belarria’. **belarri**: «Otsoai belarria ikusten diona ohea dela lanetan eta guzietan aitua izan dut eta egia dela iduri du». **bearri**: «Ez dakit zer erraten zion bearrira».
- belarrimotz** izond. ‘belarrimotza’: «Euskalduna izenik ere, ez balin Baztangoa, deitzen zute belarrimotza eta urrungoa izatea ia “makettoa”».
- belartoki** iz. ‘belartegia’, ik. **toki**.
- belaun** iz. ‘belauna’.
- belauniketu** *da* ad. ‘belaunikatu’: «Ereman ziotelaik gure Jauna, guaztetik iautsi eta belauniketu eta barkamendua eskatuz gure Jaunari, artu zue bere biotzean».
- belauriko** adlag. ‘belauniko’: «Guk geuren etxean egin gindue lo, baño zangoa sartu gabe guaztean arrosario errezatu gindue belauriko biek. Eta oraño ala egiten degu, orai iarrite, belauriko ezta errax».
- beldur** iz. ‘beldurra’: «Galdera egin zio bere goñata batek: baduzu beldurra?». **beldur izan** *da/du* ad. «Ez dakit zer eldu zaigun, baño beldur naiz anaia taik baten gertatzen ote zaion zerbait»; «Ez dakigu deus ere eta beldur dugu denek makur aundi zenbait bautela». **beldurrak bizi** *da* ad. «Beldurrak bizi zire berarekin zirenak». **beldurrak egon** *da* ad. «Erraten zituen gauzekin beldurrek egoten nitze aitzen bazute arek erraten zituenak ixilaziko zutela».
- beldurtasun** iz. ‘beldurtasuna’: «Etzitzeigu ongi iduritzen gañan zeudenen arroke-riak, eta izitasun edo azpian zeudenen beldurtasunak». Ik. **izitasun**.
- Belgika**. Europako estatua.
- Beltranea**. Iruritako oikonimoa. Trinidad Urutasunen sortetxea.
- beltxaran** ik. **beltzaran**.
- beltzaran, beltzaran** izond. ‘beltzarana’. **beltzaran**: «Erran zirete [mutil ura] beltzaran tiki bat zela»; «Oroitzen naiz nolakoa zen aurrein ama; beltzaran bat, ederra, bi begi arront beltzak». **beltxaran**: «Neskatxa beltzaran bat ederra eta luzea»; «Andre beltzaran bat begi beltz ederrekin». Bi aldaerak era bertsuan erabiltzen ditu.
- Bentarrañeko larraña** Mt.
- Bentarraña** Mo. [*Bentarraña* (Saragüeta 1979: 10)].
- Bentarrañeko borda** Mt. (of. **Bentarrako borda**).
- Bentarrañeko bordaldea** Mt.
- Beñardoña** Mo. [*Berñardaña* (Saragüeta 1979: 10)].
- beñere** adlag. ‘behin ere, egundaino’: «Orai ere badire anitz pilotari, bearbada beñere baño geiago».
- beñipein** adlag. ‘behinik behin’: «Nere ize-na erran zire beñipein».
- beor, bior** iz. ‘behorra’. **beor**: «Aite ze uneia, baño semeak laguntze zio, biek bazekite non ziren beiak, bai eta ere non ziren beorak». **bior**: «Erematen gindue ianari geienetaik eta olloendako artoa, biorrendako oloa».
- beorzai** iz. ‘behortzaina’: «Erriko beorzaia etxean zen».
- berant** adlag. 1- ‘berant, berandu’: «Amets egin dut trena ordu bat berantago etorri zela». 2- ‘geroago’: «Erriko gizon geienak juaten zire meza ortara, azien-daik etzute atratzen kanpora, baño izen dira berantago urteak atratzen zutenak»; «Aita lenik eta denbora guti geiagoz ama, il zire biak, eta semea amar bat urte berantago».

**beratu** *da* ad. ‘beratu, bigundu, samurtu’: «Sendagilleak manatu zue cataplasma deitzen dena erdaraz egin eta paratzeko lepoa inguratuz [...] eta ongi beratzen zelaik, uste zuela lertuko zela».

**berexi** *da/du* ad. 1- ‘bereizi, banandu’: «Senar emazteak asi ziren berexten»; «[Mezkirizko elizan] aski berexiak egoten dire gizonetaik andreak». 2- ‘askatu, libratu’: «Koropillo ederrak berexteko lan ederra eman digutena». 3- ‘hautatu, erabaki’: «Nere aitak eta amak neretako utziak dire eta oraño nik ez dut berexi norendako gelditiko diren».

**beroki** iz. ‘berokia, toki beroa, egutera’: «[Borda ori] iduri du berokian dagola, lur onak ditu inguruan».

**Berokisoro, Berokixoro** Mt. (of. **Berokisoro**). Ik. **Larreberoki**.

**berozi** *du* ad. ‘beroarazi’: «Otz aundia zuela eta berozi beartzela ongi».

**Berregu** Mt.

**berregun** zenbtz. ‘berrehun’: «Aste geienetan, lana nuelaik, mille berregun eta lauetan ogei pezta ateratzen nitue, baño...».

**Berreguzelaieta** Mt.

**berrik** izond. ‘berririk’: «Aur guziak eskola zarrera, etze berrik»; «Ura anitz sartzen ze eskola zarrean eta guk ez gindue berrik izen».

**Berrueta**. Baztango herria. Deklinatua: *Berruetara, Berruetako*. (of. **Berroeta**).

**bersolari** iz. ‘bertsolaria’: «Badakizu, bersolaria da nire gizon au»; «Nik idazten, bertzea bersolarie, etzigutelaik biei artu...»<sup>2</sup>.

2 Aipatzekoa da, kasu absolutiboan batzuetan *bersolaria* eta bertze batzuetan *bersolarie* erabiltzen duela. Joera hori egiaztatzen ahal da bertze hitz frankotan ere, hala nola, *dolua / dolue, elurra / elurre, iruzkia / iruzkie, makurkeria / makurkerie, ogia / ogie, sua / sue, txukuna / txukune, ura / ure...*

**bertsolaritasun** iz. ‘bertsoak egiteko joera’: «[Nire senarrari] bere bertsolaritasuna agertzen zitzaio».

**Bertxain** Mt.

**bertze** det. eta izlag. ‘bertze, beste’: «Bertze oitura bat ze txerriltzea etxe bako-txan»; «Bertze etxe batean bazitue bertze illoba batzuk ameka umekin».

**bertze ainbertze** zenbtz. ‘betze hainbetze, beste hainbeste’: «Erran zue ogeite lau metro sartu ziotela eta bertze ainbertze sartu bear ziotela».

**bertze alde** 1- iz. ‘bertze aldea, pareko aldea’:

«Elizain bertze aldetik bada etxe aundi bat, ortan sortu ze nere amain ama, ez dakit ongi zertaz».

2- ‘hemendik kanpo, mugaz harago, bertze mundua’: «Nere amatxik erraten zue leze ortara bota zutela karlistek bertze aldeko manazale baten andrea»; «Umoro oneko gizona bakarrei irrinazik juantzen bertze alde-».

3- junt. ‘bertzalde, bestalde’: «Egun txarrak anitz aldiz izeten zitue eta etze obeki paratzen eta [...], bertze aldetik, bazue lan anitz eta gero eta meago jua ze».

**bertze batzuek** izord. ‘bertze batzuek, beste batzuek’: «Baño batzuek egin dutena bertze batzuek ez dute erdietsi, ezta asi ere ez dute egin»; «Eta bertze batzuek izen daitzen berdin»; «Bertze batzuek botatzen dute zuaitzak eta uzten dute idorrazten mendian»; «Zenbait urtez kostatzen ze giago bertze aldi batzuetan baño».

**bertze bein** adlag. ‘bertze behin batean, beste behin batean’: «Bertze bein nere illoba bat bazeien gauza zenbaiten eske»; «Bertze bein, aront gaizki zen batez etorri ze aita kaputxino bat eta erran zio: Trinidad, eskeindu zazu Jaungoikoari oñaze oiek eta eriak erran zio: eskeindu? eman ere eman nezake gogotik».

**bertze gisa** ‘bertze gisa, bes-

te gisa, beste modura': «Il izain zirela gerran edo bertze gisa»; «Berrogeita amar urte nituelaik asi banitze bertze gisa batean eginen nue»; «Ume bako txak bere goraberak izeten ditu eta ez dut uste berak bakarrik izen bear zuela bertze gisa batera». **bertzeik** izord. 'bertzerik, besterik': «Nik ez dakit, baño ez nue iten al bertzeik»; «Orai dela ogei bat urte gazteria juaten ze Ameriketara eta guti itzultzen zire, orai bertzeik da». **bertzuat** izord. 'bertze bat, beste bat': «Onen gibeletik iru aldiz *aiteguria*, bertzuat ilen animendako eta iru *agurmaria* Ama Birjiñari bedeika zezan gure lan guziak»; «Erran ziote Frantziako aziendaduna etzela beraz batere kontent eta irakurri ziote eskutitz bat erraten zuena ez bazute uneia eken-tzen eta bertzuat ohea paratzen, berek etzutela beren aziendak Sorogainen sartuko geiago».

**bertzelaz** lok. 'bertzelaz, bestelaz': «Aski buru motelaikin gelditu zelakoz. Bertzelaz, egia errain zue denen gañetik»; «Eta ume geiago duenak ordu geiago izan du alaitasunez beteak egoteko, ez da ala? Bertzelaz, ez gara ama guziak berdin»; «Nere egunoroko otoitz bat da eskatzea indarra bear duten guziendako, baño bertzelaz, begiratzuz ongi gauza guziak, ni kontent naiz». Ik. **bertzenaz**.

**bertzenaz** lok. 'bertzenaz, bestenaz': «Ameriketara jua ze eta an dago; obe du, bertzenaz denek begi iluneikin begiratu zute»; «Ni atrebitu txar bat nitze nonbait, bertzenaz ez daki nola menturazten nitzen ain eskola gutiekin...»; «Bearrezkoa da ori, bertzenaz ez da errax sendatzea niorei». Ik. **bertzelaz**.

**bertzuñ** iz. 'bertzuna, errautsa jasotzeko pala': «Supeztzerrean egoten zire endaia

autsa ekentzeko, bertzuña suain ateratzeko».

**beso** iz. 'besoa'.

**besoazpie** iz. 'besazpia, besapea'.

**besomotz** izond. 'besomotza': «Neretako bai aise da maitetzea erbaldua, main-guak, besomotzak, motelak...».

**besotako** izond. '(haur) besoetakoa, ponte-koa': «Eta nai zue bere ondar naiak egin eta bere besotakoa zen alaba azi arendako eta egin gogo zuen». Ik. **bataioko amatxi**.

**besta** 'besta, jaia, festa': «Eliz besta ederra. Eliza betea, erri guzia bestan»; «Bai eta ere oroitzen naiz Mikel eguneko bezperan, edo biramonian besta balin baze, besta tikiak egiten zire soñulariekin eta guzia»; «Erran zio bestak urbil zirela eta etorri zeikela bestetara».

**Bestaberri** iz. 'Corpus Christi eguna': «Eta asteazkenean itzuli omen ze, zerengatik biramonian zen Bestaberri eta nai zue aitortu eta meza osoa entzun».

**beti** adlag. 'beti': «Umei erakutsi bear zaiote gizon egiten eta ez beti aurrak izaten»; «Egia beti bere agoan».

**betiere** adlag. 'nolanahi ere': «Ez naiz ongi oroitzen, bide edo iru ziren, betiere ongi zire denak»; «Betiere, Mezkiritzko apezak eta Iruritakoak ere erran ziote: niri il eta gañetik pasatu bear duzie oiei deus egin bear bauzie».

**betiko** adlag. 'betiko': «Niorei etitzego gogora etorriko adinera etortzenean utziko zuela Madrid eta ez kondiko zela eta betiko etorriko zela bere sortu errira»; «Abenduain zazpian utzi zitue lurreko min guziak zeruko argira betiko igateko».

**betikoz** adlag. 'betiko': «Eta biotzez beti betikoz goratuko dute Euskal Erria».

**bezko** iz. 'pazia, pertza': «Esnea egosi berria zelaik, ogi zopak botatzen zitue bezko batera eta an egoten zire aurrei eman ar-

tio»; «Nik lau urte nituelaik arront egosi nitze txerri bazkak egosten zuzten bezkoan». **bezko metalea** [sic, metalezko bezkoa (?)] ‘zerri bazka egiteko pazia’.

**beztu, beztitu** *da/du* ad. ‘beztitu, jantzi’.

**beztu**: «Ikusi dut otoitz egiten gizonak moxorroz beztuak»; «Bere amak egiten zizkio arront soñeko pollitak aurtxoari eta ongi beztie erematan zio ibilaldi bat ematera». **beztitu**: «Ni oroitzen naiz ezkontzeko mezan egon nitzela eta zein eder beztituak zeuden, orduan beltzez beztitzen zire emakumeak».

**beztitu** ik. **beztu**.

**biar** ik. **bier**.

**biarrik** ik. **bearrik**.

**bibiro** iz. ‘bibiroa, bikia’: «Aurra in amak izen zitue bibiroak, mutiko eta neska»; «Bazire bi alaba bibiroak zirenak».

**bide** 1- zenbtz. ‘bi’. Erregulari *bi* forma erabiltzen du, erraterako: bi seme, bi aur, bi ilabete, bertze bi egun...; eta zenbaite-tan *bide*: «Zituen iru aur eta iruetaik il ziren bide eta alaba zarrenaikin gelditu ze»; «Bertze zortziak uste dut bizi direla, bat monja edo serora, bortz seurik ezkonduak, eta bide lanean oraño ezkondu gabe». *Bida* ez da inoiz ageri. 2- iz. ‘bidea’: «Juan gine serora oietara bide guzian otoitz egiten erdiesteatik eskola bidendako bedere». **bide bidean** ‘bidean berean’: «Mezkiritzen ere bertze gizon bat ilik bide bidean arrepatu zute».

**bier** adlag. ‘bihar’: «Emengo elizan apezak emain du zu sendatzeko meza bat bier goizean»; «Bier asiko naiz bertze orrialde batean erratera aietaz erraten al duden guzie». ‘Bihar’ beti *bier* aldaerarekin adierazten du; ‘behar’, ordea, *biar* formarekin.

**biga** iz. ‘bigantxa’: «Beiak, geienek, biga izan artio ez dire mendira ateratzen, bere etxetan idukitzen dituzte».

**biguindu** *du* ad. ‘bigundu’: «Gure biotzak biguindu dituelako».

**bilatu, biletu, billetu** *du* ad. ‘bilatu’ **bilatu**: «Erri ontakoa ze bilatu zuena?». **biletu**: «Altzine begiratuz, biletu bear ditut bakar batzuk geiago». **billetu**: «Nabil billette ni bear dudena idazteko eta ez da erraz biletzea». Bi lehenbiziko aldaerak era bertsuan ageri dira, hirugarrena behin edo bertze bakarrik.

**bilazi** *du* ad. ‘bilarazi’: «Iruñan zen aizpazi bilazi gindio eta bertze aizpak ekarri zue»; «Arara juaten ze anitz aldiz nere senarrain lengusua eta bilazten zire aketa gordine pikor tiki bat».

**Bilbao**. Bizkaiko hiriburua. Deklinatua: *Bilbaon* (behin), *Bilbaoen* (behin), *Bilbaoera* (bi aldiz). (Euskal izena **Bilbo**).

**bildu** *da/du* ad. 1- ‘elkartu’: «Denak biltzen zire sukalde aundi artan»; «Maiatzeko bazko biramonean biltzen zire mutilak eta egun guzia besta izaten zute». 2- ‘hurbildu, garraiatu’: «Guk beti izen dugu asto bat egurrak etxera biltzeko»; ‘hurbildu eta multzotu’: «Bildu zitu arri alde bat toki batean, bertze multxo bat bertze toki batean eta neretako oberenak zirenak bertze batean». 3- ‘moldatu, atondu’: «Andreak bildu sukaldea eta aurra in txamarrak garbitu eta juan omen zen beren ganbarara».

**biletu** ik. **bilatu**.

**billetu** ik. **bilatu**.

**Billaba**. Nafarroako herria: «Amazazpi egun egin nitue Billabako errian». (of. Villava <> Atarrabia). Ik. **Atarrabia**.

**billoba** iz. ‘biloba’: «Nik baditut amabi billoba abeslariak, nere alaben umeak».

**bilo** iz. ‘biloa, ilea’: «Il eta kixkorratzen zute, ekenduz bilo edo illea»; «Nere aitari buruko bilo guzia beltz beltza zue eta zortzi egunez xuri xuria gelditu zitzaio».

**bilo kixkur** ‘bilo kizkurra’: «Asi zire umeak etortzen eta ongi ederrak ala ere, zuri gorriak eta begi beltzaranak geienak, baño urraik bezalakoak ere bai, bilo kixkurra denek»; «Niri maite zirete anitz eta nere bilo kixkurretueikin iostatzen zire».

**biltasun** iz. ‘elkartasuna’: «Anaia guzien biltasuna eta maitetasuna».

**biltzera** iz. ‘bilera’: «Orai edozein besta errikoa izaten bada, uste dut Erriko Txokoan egiten dutela biltzera edo besta».

**bior** ik. **beor**.

**biotz** iz. ‘bihotza’: «Gure biotzean azi deien gero eta ontasun geiago». **biotz guzitik** adlag. ‘bihotz-bihotzez’: «Arront euskalduna ze, maite zue euskera biotz guzitik»; «Maite nitue denak anitz eta biotz guzitik egiten nue otoitz denengatik».

**biramon** ik. **biramun**.

**biramun, biramon** adlag. ‘biharamuna’.

**biramun**: «Egun guzien arro xamar egoten gine, biramunean sortu beartzue gure jaunek...». **biramon**: «Etxera jua eta biramon atsaldean etorri zire»; «Maizatzeo bazko biramonean biltzen zire mutilak eta egun guzia besta izaten zute»; «Sortu eta biramonean bateiatzen ze aurra». Bigarren aldaera erabiltzen du maizenik.

**bire** banatz. ‘bira, bina’: «Aitortzen gine denak entzun ginduzue bire meza bedere, eta ateratzen gine baru austera».

**biribil** 1- iz. ‘beribila, autoa, autobusa, kamioia’: «Orduen etze biribilik eta zaldiek errestatzen zute, zalgurdi edo kotxe deitzen zena»; «Orai biribiletan juaten dire eta biribilez betea egoten da»; «Irritatik jua zire biribil aundi batean berrogeita amasei»; «Zubiritik biribil aundi bat juaten da langilen eske». 2- izond. ‘borobila’, esam. «*Aprile biribile, urdetokien txerri ile*».

**Biritxikar** Mt. Mezkirizko barride baten izena.

**biurgune** iz. ‘bihurgunea’: «Maite dut biurgune batean gelditu eta lasai oroituz eta sartuz neure oroimen guzietan eta gogoratuz: zer izan da nere bizia?...».

**bixer** iz. ‘muxarra’: «Udan egun eder batean, juaten gine iru zaarrenak aitaikin eta amaikin bixer arrepatzera».

**bixi** ik. **bizi**.

**bixker** iz. ‘(mendi) bixkarra’: «Bixkerrez bixker guazen emendik Apesuieneko bordaldera».

**bixtu** ik. **piztu**.

**bizi, bixi** 1- iz. ‘bizia’: «An langileak bizia egiten dute emen baño obeki». 2- izond. «Denak bixi bixiak eta langile aundiak».

**bizi, bizitu** *da/du* ad. ‘bizi izan’. **bizi**: «Galde egiten badiozu: zer ai zera Trini? errain dizu: emen ezin bizi eta ezin fini»; «Aite bizi du oraño Jaunari eskerrak»; «Anitz oñazekin bizitu ze». **bizitu**: «Berrogei eta lauetik, berrogei eta amaseiera bizitu nitze andre alargun batekin, bere seme alabaikin».

**bizialdi** iz. ‘etxebizitza, solairua’: «Bizi nitzen etxe berean, ure lemexiko bizialdian eta bigarrenan gu egon gine iru edo lau urtez». Ik. **bizitoki**.

**bizibide** iz. ‘bizibidea, irabazpidea’: «Escola etxetan ongi ikasi zue bere bizibidea irabazi eta ongi bizitzeko».

**bizigisa** iz. ‘bizimodua’: «Osabak ezaguntzen zue ango bizigisak, baño Juanak eta Felixek ez». Behin ageri da aldaera hau; normalean *bizimodu* erabiltzen du. Sin. **bizimodu**.

**biziki** adlag. ‘biziki, oso, arrunt’: «Biziki eder izen ze dena».

**bizimodu** iz. ‘bizimodua’, sin. **bizigisa**.

**bizitasun** iz. ‘bizitasuna’: «Lan anitz eta aundiak egin ditu bere bizitasun aundi ontan».

**bizitoki** iz. 'etxebizitza': «Irritan egon ginen lemxiko etxean izan gindue aixki-detasun aundi bat. Zitue bi bizitoki, gu bizi gine gaiñan eta bertze senide edo familie azpian». Ik. **toki**.

**bizitu** ik. **bizi**.

**bizitza** iz. 'bizia, bizialdia': «Andre indartsua, garbi eta xuxena bere bizitza guzian».

**Bizkaia**. Probintzia. Deklinatua: *Bizkaiaiko* (sei aldiz), *Bizkaiko* (behin). (Euskal izena **Bizkaia**, -a).

**bizker** iz. 'bizkarra'.

**bizkitartio** adlag. 'bizkitartean, bien bitartean': «Bizkitartio nere alabak neskatx egiten ai zire».

**bizpiru** zenbtz. 'bizpahiru': «Urteoro, nere idurikoz bi aldiz, juaten dire egiak ikustera bizpiru gizon»; «Toki berean biltzen dire denak pilota ioku bat delaik errian, berdin errikoak bakarrik direlaik edo biltzen badire bizpiru errietakoak».

**bizpirulau** zenbtz. 'bizpahirilau': «Bizpirulau borda badire».

**biztu** ik. **piztu**.

**bolado** iz. 'goxogarria, azukre eta arrautzaren xuringoarekin egiten dena': «Piper opilak egin bearrak zirela Elizondoko bestetako eta bolado alde bat ere bear zela eta txokolatea ere bai».

**Bonbazilota, Bonbaxilota** Mt. (of. **Bonbaziloeta**).

**bonbili, bonbilli** iz. 'botila'. **bonbili**: «Botella edo bonbili uts batekin eman zio Mercedesek bertzeai buru erdian eta ebaki izen zio». **bonbilli**: «Bertze batzurretan erraten zue *esencia* erdaraz ona bonbilli tikian».

**bonbilli** ik. **bonbili**.

**bonet** iz. 'boneta, txapela': «Etxera zeramatelaik, bere bonetaz galde egin zue eta beldur zue etxean asarratiko zutela». Ik. **txapel**.

**borda** iz. 1- 'baserria': «Etxez etxe edo bordaz borda erabiltzen nitze denbora artan arropa saltzen»; «Juaten zire bere umeak edo anai arrebak bizi ziren errietara edo bordetara eta erematen ziote mandatua»; «Bordan bizik ere, aise ze arendako elizetara iaustia, an bazue bere tokia eta gutitan egoten ze utsa». 2- 'azienda sartzeko etxea mendian': «Juan gine Jaurrietako ardi borda batera, gabas lo egiten gindue an eta goizean goiz juaten gine maurgi eske».

**Bordabixker** Mt. (of. **Bordabizkar**).

**bordalde** iz. 'borda bere lurrekin': «Orai asiko naiz mendietako borda edo bordaldekin»; «Altzinago, Auritzberriko egira urbil xoko eder batean dago Antoneko bordaldea erraten edo deitzen zaio. Alor aundiak badire».

**bordari** iz. 'bordan bizi dena': «Emakume au, nere idurikoz bordarie».

**bordatu** ik. **brodatu**.

**bortz** zenbtz. 'bortz, bost': «Nik lau urte eta bortz ilabete nitue». **bortz duruko** ik. **duru**.

**bortzegun** zenbtz. 'bortzehun, bostehun': «Bere amaren denboran iorri zio urte batean, bi aldietan, bortzegun pezta aldi».

**bortzgarren** ord. 'borzgarren, bosgarren': «Irritakoak ditut senarra eta bortz alaba, lau zarrenak elizez eta dena eta bortzgarrena, ni gaizki nitzelako, Iruñan sortua eta bateiatua».

**bota du** ad. 1- 'bota, jaurti': «Nere amatxik erraten zue leze ortara bota zutela karlistek bertze aldeko manazale baten andrea»; «Aitak botatzen zitue bagoak eta gero ekentzen gindeko abar eta egur me guziak». 2- 'kendu': «Bota zazu gizon ori zeuren begien altzinetik». 3- 'zapuztu': «Bere ustezko arrokeria orrekin bota zitue lurrera nere lan guziak, nere itxaropen guziak».



**botradaka** adlag. ‘zenbaitetan, batzuetan’ (Ibarra 2007: 38): «Ankak beltz beltzak egiten zire botradaka. Sendagilleak errarten zue tronboflebitis zela».

**Bozate.** Arizkungo auzoa.

**brodatu, bordatu** *du* ad. ‘brodatu’. **brodatu:** «Niri erakusten zire iosten eta ebakitzen eta nik arei brodatzen lankaiaikin». **bordatu:** «Neuronek lan in dut bordatzen». Ia beti *brodatu* aldaera erabiltzen du.

**Buenos Aires.** Argentinako hiriburua.

**bular, buler** iz. ‘bularra, titia’. **bular:** «Ez da gizon bat ere lurraingañean buruz artu al duenik ama baten poz aundiak aurra berekin duelaik, sortu ondoan berai beidetzen igaro dituen denborak, bularra artu eta asetzen delaik aurtxo tikia»; «Nere amak aur onei ema zio bularra ogeite lau ilabetez». **buler:** «Obe da aurrai ekentzen badiot bulerra». Bi aldaerak era berean erabiltzen ditu.

**buler** ik. **bular.**

**bulkatu** *du* ad. ‘bulkatu, garaitu, gainditu’: «Iduri zue min oi ere bulkatu zuela, baño asi ze bertze bateki».

**buluxi** ‘biluzi’ 1- izond. «Ama Birjina bere seme ederrarekin besotan, nere idurikos xarmanta da, aurra aski buluxia da». 2- *du* ad. «Berak garbitu eta iatera eman, buluxi, beztitu, dena bere kontura».

**buluxiak egon** *da* ad. ‘biluzik egon’: «Goseak, egarriak, buluxiak daudenen dako?».

**buluxik** ik. **buluzik.**

**buluzik, buluxik** adlag. ‘biluzik’. **buluzik:** «Eta gelditu zire bustik eta buluzik». **buluxik:** «Ekendu soñekoa eta [...] buluxik gelditu omen ze aurra».

**burdin** iz. ‘burdina’. **burdin sarde:** «[Mezkirizko nekazarien lanabesak] ... burdin sardea ...». **burdin ziri** edo **ziri burdin:** [Mezkirizko mendiko lanabe-

sak] ... burdin ziriak eta mallu burdinak [...] eta gero mallu burdin eta ziri burdinekin xeatzen ginduze denak». **mallu burdin** ‘mailu burdina’: «Aitak botatzen zitue bagoak eta gero ekentzen gindeko abar eta egur me guziak, eta zerra aundi batekin zerratzen gindue dena, eta gero mallu burdin eta ziri burdinekin xeatzen ginduze denak».

**burdin egalari, burdin egazki** iz. ‘hegazkina’. **burdin egalari:** «Semea lanean asi ze burdinezko egalarietan eta arront ongi bizi ze». **burdin egazki:** «Burdin egazki ure eta berean zezin lau edo bortz jaun denak su garretan erori zire».

**burdin egazki** ik. **burdin egalari.**

**burdin sarde** ik. **burdin.**

**burdin ziri** ik. **burdin.**

**Burgos.** Gaztelako eta Leongo probintzia eta hiria. Deklinatua: *Burgostik*.

**burrunbe** iz. ‘burrunba’: «Egun orrek izen zue bere bederatziruena, aste guzia zalapartaka eta burrunbe».

**burtziñe** iz. ‘bertzuna, labean edo suan erabiltzen den pala’.

**buru** iz. 1- ‘burua’ (gorputzaren atala): «Buruko min aundiekin zego». 2- ‘presidentea, ugazaba, aitzindaria’: «Frantziako burua afera ebetan». 3- ‘azienda alea’: «Bei eta aratxe bagindue bedratzi buru». **buru uts** ‘buru-hutsa’: «Buru utsa duenai zerekin bete?». **burua berotu** *du* ad. ‘akuilatu, xaxatu’: «Nere idurikoz aitaren arreba batek burua berotzen zio bere andreain kontra». **burua goratu** *du* ad. ‘burua jaso’: «Aurra izetean desin ze ondarra eta etzue geiago bururik goratu eta denbora gutin buruan andre gaixoa il ze». **burua nasi da/du** ad. ‘burua nahasi, burutik nahasi, erotu’: «Burua nasixea du eta lagunaiki egoteko obeki dago bakarrik uzteko baño»; «Eri edo gaixotu ze

ainbertze, burua nasi zitzaiola denetik». **buruan pasatu** *da* ad. 'buruan pasatu, bururatu, imajinatu': «Ez nue uste nere aita arrixku aundietan erabiltzen zela guri azteatik, ezta buruan pasatzen ere»; «Ez nue buruan pasatu gaizki egine izain zela». **buruari eman** *du* ad. 'nahasi, erotu': «Bere buruai eman zio eta bi illabete gabe il ze». **burura eman** *da* ad. 'buruko gaitza izan': «Ezkonduta iru aur zituela il ze usteik gutiengan, burura zerbait eman ziolako». **burura etorri** *da* ad. 'bururatu': «Zenbat gauz etortzen den burura zenbait aldiz». **burutik jua** *du* ad. 'burutik joan, burutik egin, burua galdu': «Lauetan ogei eta seieteraño uste dut jua zela burutik eta zortzietan il zen». **buruz artu** *du* ad. 'buruz hartu, ulertu, konpre-

nitu': «Ez da gizon bat ere lurrain gañean buruz artu al duenik ama baten poz aundiak aurra berekin duelaik». **-en buruan** postpos. 'pasata, geroago': «Denborain buruen il zire»; «Aste baten buruan aurkitu zute».

**buruargi** izond. 'buruargia, azkarra': «Eta erran zute [...] oraño ez Naparroan eta ez Españian etzutela alako emakumeik ain buruargik aurkitu».

**burugabe** izond. 'burugabea, zentzugabea': «Nik uste dut gizon burugabe bat zela».

**burumakur** izond. 'burumakurra': «Aise da maitetzea erbaldua, mainguak, besomtzak, motelak, okerrak, itsuak, burumakurrak».

**Buruzuriña** Mo. «Buruzuriña deitzen da orai, bano lenago deitzen ze Xotoiña». Ik. **Xotoiña**.

## D

**dagonil** iz. 'abuztua': «Dagonilaren iruan mila beratziegun eta bortzean, goizeko seieta sortu nitze, ogei egun lentxago, amak eror aldi bat ederra artu zuelako». *Dagonil* edo *agorril* erabiltzen ditu testuetan, ez ordea *abuztu* edo *aguztu*. Sin. **abuztu, agorril**.

**danbolin** iz. 'danbolina': «Bozaten badire zurginak, igelseroak, errotazaiak, txistulariak, danbolinen iozaleak».

**danda** iz. 'ezkila-hotsa, ezkila-kolpea': «Gero bedratzietan iotzen dire, gure erriko elizan iru danda [...] gero bertze iru berdin eta gero bertze iru ondarrak. Ezkil iotze onei deitzen zaio keda eta errezatzen dira iru aitagure garbitokiko animendako». Ik. **keda**.

**dantzatu** *da* ad. 'dantza egin': «Bazkari aundia eta ona egin ze eta atsaldian erri

guzia dantzatu zen larrain batean»; «Nere senarra dantzatu ze nere aizpa batekin, nik ez nue maite dantze neuretako».

**dardar** iz. 'bibrazioa': «Baduzu beldurra? Ez dardarik ere».

**debeku** iz. 'debekua, arazoa, oztopoa': «Bi aizpa ezkonduak baditut eta batek etzake izan. Sendagilleak errana du bere senarrak baduela debeku zerbait eta ezin duela».

**dena** izord. 'dena, guztia': «Afaria denentzat eta anitz denendako»; «Erri guzia aren mezara eta egun guzian besta denek edo geienek»; «Gizajoa, dena kolpatua, dena odolguriz betea».

**denbora** iz. 1- 'denbora': «Bazue denbora anitz, bearbada berrogei edo berrogeita amar urte, nere altzinekoek bi alorre ber-

tzenak erabili ginduzela, bat Useingo erreka in ondoan»; «Gero denborain buruen il zire gutira gutira»; «Banuen beldurra etzanela anitz denbora egoin gurekin»; «Baño arront denbora guti egoten zire, etzute denboraik deusteko». 2- 'eguraldia': «Ultziak biltzen aiko zire, ortzilaria zen eta denbora ezin ederragokoa»; «Udan edo denbora arront ederre zegolaik, juaten gine ugaldere». 3- 'garaia': «Nere denborako euskarari»; «Nere aurtzaro eta gazte denborari»; «Baño denbora txarrak etorri zire eta gorroto edo gerra zar oiekin, gauza guziak nasi zire»; «Eta alako denborak igaro ditugu! Ori ez da arritzeko, denbora geienetan gertatzen dena da»; «Bere adineko edo denborako gizonak erraten zute Erroibarko andreik ederrena izen zela, bere denborari arront luzea ze, ori badakit nik». 4- 'bizia, bizialdia': «Gizajoa! ongi gogoan iduki dut neure denborari esaera zar au»; «Zenbait irri inezi zue bere denborari bere inguruan zireni guziei!»; «Nere idurikoz, neure denborari juan diren ordurik oberenak oiek izan dire»; «Eta ala egin zue bere denbora guzian eta izen zue lanik aski, beti lanean ezin aski egin».

**denboraka** adlag. 'aldika, tarteka': «Aski erixko egoten ze denboraka».

**denboraz altzinetik** adlag. 'denboraz aitzinetik, lehenagotik': «Erran bezala, etorri zire paperak, baño Madriden iakin zute nola Frantzietik ekartzen zuten denboraz altzinetik».

**dermio** iz. 'dermioa': «[Sebastianen iduria] ereman zute errira, baño erriko dermioan sartu orduko eri zeuden guziak sendaturik gelditu zirala»; «Ezkaldoko dermioak al baluke erran, iakinen gindue zenbat belar bildu ote zuen bere denborari toki ontan».

**desin** *da/du* ad. 'desegin': «Egazkiñain ix-tripua denak desin zitue»; «Gezur ebek eta langabeak desiten zute gizona»; «Beren ama arront desine ze, baño sukaldeko lanak egiten zitue».

**deun** izond. 'san, santua': «Mezquirizko eliza aspaldikoa da. Kristobal Deuna da ugazaba»; «Bertze besta aundi bat egiten da ilbeltzaren ogeian, Sebastian Deunari eskerrak emateko»; «Mikel Deunak ere bertze erri eukaldun anitzetan bezala, badu Mezkitzen bere eliza tikia»; «Juan Deunaren ebangelioa irakurri ondoan»; «Xabierko Frantzisko Deunari»; «Mezak egin gindio Iruñako Antonio Deunaren elizan»; «Paduako Antonio Deunak...»; «Jose Deunaren irudi bat». Sin. **done**, **san**, **sandu**.

**deus** izord. 'ezer (ez)': «Baño nik ez nue deus artzeko gogoik». **deus ere**: «Eginalak egin negarrez eta deus ere ez erdiesten». **deustako**: «Orduen etzen kanpora deustako juaten». **deusteko**: «Erran zirete ez kontatzeko berekin deusteko eta ni gelditu nitze bat egin». **deustan**: «Ala ere, dena gelditu ze deustan». **deusten**: «Nere bizia ezta deusten ere bertze alaba, andre, ama edo amaxina baño ohea edo makurragokoa». **deustaz**: «Baño ez nitze oroitzen deustaz». **deusengatik**: «Ez bazindu erran atzo, gaur enizu sinetsiko deusengatik». **deusengatik ere**: «Orduan fite quartu nitze nere senarrak ez zuela nai deusengatik ere nik irakur nezan». **deusetara**: «Oraño ezta agertu deusetara». **deustarako**: «Petra erran zio ez zuela gogoik oraño deustarako eta utz zezala».

**dilinden** adlag. 'dilindan, zintzilik': «[Txerriari] ateratzen zitzaigo barnean zuen dena eta uzten zen dilinden ateratzeko ur guziak, idortzian gero puskatzeko»; «Aitu izen dut bestetako erosten ziotela».

amak ezpartinak denei eta mutikoez lepotik dilinden; eta galde egiten zutenei zetaz zeramaten gisa ortan, erraten zute-la: ikus dezazien baitugula».

**dirudun** izond. ‘diruduna, aberatsa’: «Iakin nue laister arront diruduna zela gizon ura».

**dizdire** iz. ‘distira’: «Neretako iruzki eder bat nere bizian eta argitu du bere dizdire ederraikin izen duden ilundura anitz».

**doi doia** adlag. ‘doi-doia, ozta-ozta, justu-justu’: «Lotsatu nitze eta doi doia gelditu nitze beraikin».

**doi** iz. ‘dohaina’: «Bere illobek erran dezakete zer ontasan eta doi aundiak zituen berekin»; «Berekin zituen doi guziak».

**dolu** iz. 1- ‘tristura’: «Dolu egingarri ze ain aurak amarik gabe ikustea». 2- ‘dolua, lutoa’: «Baztanen norbait iltzen delaik, dolue paratzen zaio, oial beltz bat etxe arriai, erdaraz *escudo* deitzen dena».

**dolutu da** ad. ‘tristatu, mindu’: «Negar asko egin gindue denek, batzuek maitagarria

zelakoz, anitzek berena zelakoz [...] erri guziak maite baizue famili guzia eta dolutu baize denengatik».

**Dondore Mt.**

**done** izond. ‘san, santua’: «Badakigu Iruñako Andoni Donearen elizan zenbait lan egin zuela eta zenbait sos utzi zuela». Sin. **deun, san, sandu**.

**Donibane.** Nafarroa Behereko hiriburua.

**Donostia, Donosti.** Gipuzkoako hiriburua. Deklinatua: *Donostian* (gehienetan), *Donostin* (bi aldiz), *Donostiko*, *Donostira* eta *Donostire* (behin), *Donostitik*. (Euskal izena **Donostia**).

**duikabe** adlag. ‘segur aski’: «Ango batekin duikabe ezkondu ze»; «Duikabe etzego beartzue tokien».

**Dukenea.** Irañeta herriko oikonimoa.

**duro** iz. ‘duroa, ogerlekoa’: «Maitetasunez betea zego bere inguruko guziei. Zenbat eriei jua ikustera eta uzten ote zio (denbora aietan) bortz duruko bat ageri etzen xoko zenbaitetan».

## E

**ebaki 1 du** ad. ‘ebaki, moztu’: «Gangrena delakoak arront artua. Besoa ebaki omen ziote azpitik gañerano»; «Belarrak ebakitzeko etortzen zire Baztan eta Errekatik»; «Etxeko zaarrenak artzen zitue iokuko kartak, nasten zituen ongi eta gaztenak ebakitzen zitue». Ik. **erabaki**.

**ebaki 2 iz.** ‘ebakia’: «Bertze sendagille batek amasei egunez, bi aldiz egunean, sendatzen zire ebakia».

**ebakidura** iz. ‘ebakidura, ebakuntza’: «Berdin etortzen zire aurra izatera nola ebakidura bat egitera»; «Txintxurrian egin ziote ebakidura bat».

**ebakitasun** iz. ‘ebakuntza’: «Oraño akorduik gabe nindego, emezortzi ordu zue ebakitasuna egin ziretela».

**ebakuntza, ebakuntze** iz. ‘ebakuntza’. **ebakuntza:** «Ebakuntza aundia egine du eta mainguda». **ebakuntze:** «Sendagilleak berak ebakuntze bat eginen zuela eta uste zuela ongi geldituko zela».

**ebakuntze ik. ebakuntza.**

**ebatsi du** ad. ‘ebatsi, lapurtu’: «Orgoek ebatsi ziguzte bide orai duela bi urte, baño itzuli zuzte».

**ebek, eben, ebetaik, ebetako, ebetara, ebetaz, ebetan.** Ik. **au**.

**edatu** *du* ad. 'hedatu': «Paratu eta edatu zuten ikurriña»; «Juan nitze neure arropa garbiekin eta edatu nitue baratzean».

**edeki** *da/du* ad. 'ireki': «Nere etxea beti edekia izain de zuretako»; «Izebak edeki zue ataria».

**eder** izond. 1- 'ederra': «Arront itzaldi ederra egin zigu Mezkiritzko apezak, tenore ederra zen ortarako»; «Ain ederra da dena!... Iruzki ederra goiz goizetik». 2- 'handia': «Eman zioten min ederra bere biotzean»; «Madrident egon ze denbora alde ederra eta etorri ze ia ez itzultzeko». 3- esam. **ederra egin**: «Biletu gindue sei tokietan seurik, baño ederra egin gindue!». **ederrak igaro** 'ederrak pasatu': «Ustez ala zela izenpetu zue eta ederrak igaro ditugu orrengatik».

**edertu** *da/du* ad. 'eder egin, edertu': «Egun artan jua gine Iruritatik Mezkiritza etxea pixka bat edertzera».

**egarri** iz. 'egarria'. **egarriak egon**: «Goseak, egarriak, buluxiak daudenendako?».

**egartsu** iz. 'edateko gogo': «Beti egartsu aundi bat izaten zuela eta ezin garaitu zuela egartsu ura».

**egatu** *da* ad. 'hegatu': «Zazpi urtetan bertze biotzeko min batekin egatu ze zerura».

**egazkin** iz. 'hegazkina': «Egazkiñain ixtripuak denak desin zitue». Ik. **burdin egazki**.

**egi** iz. 'hegia, malda': «Altzinago, Auritz-berriko egira urbil xoko eder batean dago Antoneko bordaldea erraten edo deitzen zaio»; «Mezkiritzko, Lusarretako eta Esnozko egian bada leze estali bat, eta deitzen dute Lezeestali eta bertan bizitzen omen zire lamiak».

**egie** iz. 'egia': «Ez dakit noregano den egie eta noragano gezurre».

**Egiko asketa** Mt.

**egin, in** *du* ad. 'egin'. **egin**: «Nik ez dut sekula deus egiten amets iteko». **in**: «Nik

zer in dut ain ongi egoteko eta oiek alako gurutzeakin?»; «Ezin in zute deus ere beraikin egon gabe»; «Nik inen nue al nukena»; «Eskeintza aundiagokoak inez asi zire». **eginikeko** 'eginikako, egindako': «Segido ateratzen zire makurrak eginikeko gauza onak»; «Guk eginikeko bekatuen barkamendua eskatzen Jaungoikoai». **inikeko** 'eginikako, egindako': «Larru gogorrez inikeko kortse bat».

**eginal, inale, inalak, iñalakin, iñela** iz. 'eginahala'. **eginal**: «Aitain eritasuna minbizi bat aundia zen eta fite etorri ze eriotzea, eta eginalak egiten zute denen altzina ateratzeko, baño etze aski». Behin soilik ageri da *egiñal* forma. **inale**: «Inale batzuk ioz oiue egiten ze: biba Jaungoikoa edo amatxi edo aita...». **inalak**: «Egin gindue inalak sendaztiagatik». **iñalakin**: «Ongi egonez geroz iñalakin lanean». **iñela**: «Ortako egin bear ginduela iñela gure etxean»; «Amairu umen aita, egun guzien iñelakin lanean eta artsean kontrabando eske bortz peztengatik».

**eginazi, inazi, inezi** *du* ad. 'eginarazi'. **eginazi**: «Lana eginazi, etze bertze bideik. Ikusten ze lanean arront tikiak zirelaik»; «Neri eginazten zire lan ori eta goren gorenaz amar urte izein nue»; «Eskutiz guziak negar eginazaleak zire». **inazi**: «Baño debekatu eta geiago egiten zute eta beren ondoko guziei irri inazten zuten»; «Ama geienek bigarren semea apez inazi nai zute eta lemexiko alaba monja edo serora». **inezi**: «Zenbait irri inezi zue bere denboran bere inguruan ziren guziei!»; «Eginalak egin zitue lan ori inezteagatik».

**eginbear** iz. eginbearra': «Nere iduriz [...] beren eginbearrak ongi eginak izeten direla»; «Erran nion [...] berak egin bear

zuela eginbearra gero urrikaldu gabe egiten zuenaz».

**eginbide** iz. 'eginbearra, betebearra': «Itzaldi batean entzun nio niok maite bear bazue Orreagako Ama Birjina, guk Mezkiritzko errikoek egin duela pusken ere eginbide geiago, zerengatik an egontze anitz denboraz erriko umen ama eginenez».

**eginikeko** ik. **egin**.

**eginzale** izond. 'egilea': «Ama arront errezu anitz eginzalea ze».

**ego aize** iz. 'hego aizea', sin. **aize ego**.

**egoazi, eguazi** *du* ad. 'ehoarazi': «Ogi piko-rra gindueno iortzen zirete egoaztera, eta pikorrik gabe gelditzen ginelaik, eskatza eta eguaztera juaten nitzelaik, juaten nitze [Uretako] etxe aundira».

**eguazi** ik. **egoazi**.

**eguberri, eguerri** iz. 'eguberria'. **eguberri**: «Eguberritako egiten zuzte seaskatxo pollitak aur sortu berriandako bere arropa guzietarik». **eguerri**: «Eguerri guzia eta abenduko Ama Birjina egunetik asita nere senarra sukara anitzekin guatzean zego».

**eguerri** ik. **eguberri**.

**egun** 1- iz. 'eguna': «Aski maiz etortzen zire senar emazteak gurekin egun batzuk egotera». 2- zenbtz. 'ehun': «Orai duela egun urte». Ik. **bederatziegun** eta **zortziegun**.

**egundaño, egundeño** adlag. 'egundaino'. **egundaño**: «Bere etxera juaten zena etze egundaño goseak aterako». **egundeño**: «Ez da egundeño Mezkiritzen ainbertze aur izan lemexiko jaunartze batean». Bi formak erabiltzen ditu, baina gehiagotan *egundaño*.

**egundeño** ik. **egundaño**.

**egunero, egunoro** adlag. 'egunero'. **egunero**: «Aski otoitz egilea ze, arrosario egunero»; «Mezara egunero». **egunoro**:

«Eskolara juaten ze egunoro»; «Ongi zelaik, egunoro juaten ze mezara eta otoitz egilea ze». Maizago erabiltzen du *egunoro* aldaera.

**egunoro** ik. **egunero**.

**eguneroko, egunoroko** iz. 'egunkaria'. **eguneroko**: «Eta gañera idatziak egunerokora iortzen nituelaik, zazi zer iduritzen zitzaien». **egunoroko**: «Gauza ebek guziek, baño urte terdi altzinago, idazten nue bi egunorokotan eta bi asteorokotan». Maizago erabiltzen du *egunoroko* aldaera.

**egunoroko** ik. **eguneroko**.

**egur** iz. 'egurra': «Guk beti izen dugu asto bat egurrak etxera biltzeko».

**egurastu** *da* ad. 'egurastu, paseatu': «Berekin egurastera joaten ginenean, bi anai zaarrenek artzen zirete besoetaik eta atsalde guzia kontu kontari».

**eizi** iz. 'ehiza': «Eizira juateko eskopeta delakoa».

**eiztari** iz. 'ehiztaria': «Gizon bat ona eta eiztaria ze».

**ekarriazi** *du* ad. 'ekarrarazi': «Apeza ekarriazi zue sendagilleak berak».

**ekendu** *du* ad. 'kendu': «Baño ni ez naiz iabetu, zeren ez dire nereak ekentzen ai de niri eman zirenak»; «Ez batek eta ez bertziak ez zute gogotik ekentzen al ain barnean zeuketena».

**elbarritu** *da* ad. 'elbarritu, elbarri gelditu': «Orduan ezagutu nituen eta ikusi nue bere ama elbarritua zela». Sin. **erbaldu**.

**eldu** *da* ad. 'heldu, etorri': «Eskeintzen zirete gogora eldu zitzaienten gauzik obere-nak»; «Ekendu nai ziote bere lanetik bertze norbaitei ongi eldu zitzagolako»; «Iduri zue umore onean eldu zela»; «Zer aur ederrak ditugun! Gero eta ederragokoak eldu dire».

**eleketa** iz. 'solasa, hizketa': «Gaiarki erran biarrak izaten zuten, neuronek entzun dut eleketak nere etxeti iausti ziren batez».

**eliza** iz. ‘eliza’: «Eliza tiki ortara urbil»; «Erraten zue Mezkiritzko eta Uretako artean izan zela eliza bat». Gehienetan *eliza* erabiltzen badu ere, batzuetan ageri da *eliz* aldaera; *eliza besta* eta *eliz besta* ere erabiltzen ditu. **elizakoak artu du** ad. ‘Elizakoak hartu, Sakramentuak hartu’: «Elizakoak artu ondoan, ogeite bi urtetan sandu bat bezala il ze». **elizakoak eman du** ad. ‘Sakramentuak eman’: «Abenduain ogeite bederatzian ain gaizki paratu ze Lutxin senarra, elizakoak eman ziotela, eta ilbeltzaren ogeita batean il ze». **elizaz ezkondu da** ad. ‘elizan ezkondu’: «Eskatu zitue eliz paperak eta andik etorri zire erriko apezaingena nola elizaz ezkondua zen».

**Elizataria** Mt. ‘elizaren kanpoko alde estalía’: «Elizatarian iostatzen zire aurrak denbora txarra zelaik eta ona zelaik larraiz zen batetan».

**Elizezarko artea, Elizaxarko artea** Mt. (of. **Elizazarko erte**).

**elizgira** iz. ‘elizbira, elizingurua, prozesioa’: «Aitortze, jaunartze, meza nagusia, eta gero elizgiran, Kristobal Deunarekin lau mutilen soñain gañan, erri guzitik abestuz bere abestiak»; «Pentekostes altzinako ortzilerian, Erroibarko erriak juaten ziran egunean, elizgiran Ama Birgiña Orreagakoarengana»; «Otoitz anitz egiten zen elizgira ortan eta geienak aitortzen zire Orreagan».

**elizgizon** iz. ‘apaiza’: «Apez edo elizgizon zenbaitek eginen zue al guzia gauza oiek konpontzeko»; «Lan aundia eldu zaiote oraiako elizgizonei, eta buru argiak izeten al dire». Ik. **apez**.

**elizkizun** iz. ‘ekizkizuna’: «Elizkizun guziak arront ederrak eta beretan jende asko izan da noski».

**elizmutil** iz. ‘meza-laguntzailea’: «Erran zio eliz mutilai: zuk mallu burdin batekin eman».

**Elizondo**. Baztango hiriburua.

**elkar** izord. ‘elkar’: «Zein eder den ainbertze elkarrekin bat artuak!»; «Eta ikusi ze denetan bazegola maitasun ederra elkarrentzat»; «Arront maite gindue elkar»; «Maitasun ona elkarren artean eta altzina»; «Ondarrean uste dut bildu zirela batre iakin gabe elkarrez».

**ellari** iz. ‘artilezko haria’: «Zenbat ellari egin ote zue denbora pixketan!»; «Lenago pilotak ellari zarrekin egiten ginduzte geuren etxetan».

**ellegatu da** ad. ‘ailegatu, heldu, iritsi’: «Sakarte burura guazen orai laster, Lusarretako egire ellegatu gaitzen».

**elorri** iz. ‘elorría’: «Urr anitz bada mendi berean [Sakarten] eta elorri aundiak ere».

**eltze** iz. ‘eltzea, lapikoa’, esam. «*Urrunera eltzeak urrezkoak tun, ellegatu eta lurrezkoak*»; «Patata bat edo bertze artutzen nue eltzetik eta, egosia baze, ure neretako».

**eltzelarriko** iz. ‘maindireak garbitzeko eltzea’: «Andre libretu berriari, asten zeneko libretzeko minekin, paratzen zute ura berotzen, bezko aundi bat eta eltzelarriko bat». Ik. **larri 1**.

**eltzeondoko** iz. ‘eltzeondokoa, eltzea edo lapikoa lurreko suaren ondoan eusteko erabiltzen den burdinazko tresna’.

**elur** iz. ‘elurra’: «Ibañetako gañan elurra ai du»; «Aizeak fiririken elurre ereman du eta zoko guziaten bildurik utzi du».

**emagin** iz. ‘emagina’: «Orai emagin batez itz egin bear dut, neure sortu errikoaz»; «Mezkiritzko errian baze andre bat emagina»; «Biramón goizean emagine etorri ze».

**eman, man** *du* ad. **eman**: 1- ‘eman’: «Nere amatxi abeslari ona ze, baño Bankako bere anaia ohea. Aitu izen dut San Fermin bestetan lauetan ogei urteak bete ondoan sari bat ona eman ziotela». Ik. **eliza**. 2- ‘jarri, ezarri’: «Elizan bateia-tzeko tenoria etorri zelaik, iakin gabe niorek ze izen eman bear ziren apezak [...] etxera itzultzean zenbait galdera: aurrant ama nola da? zer izen eman dio-zie?»; «Lemexikoa [etxea] ezker aldetik da Moñaiña. Nere amatxik erraten zue etxekoandre bat izan zela ain pollita erraten ziotela Moña eta orrengatik eman ziotela izen ori etxeari eta ala deitzen da orai artio». 3- ‘esan’: «Eta afaldu ginduelaik errezatatu gindue arrosarioa eta aitak erran zue: etxe ontan etze arrosario bat eman nere alaba zarrena ateraz geroz Argentinara». Ik. **arrosario** eta **meza**. 4- ‘pasatu’: «Eman zitue egun batzuk prestatzeko, sendagilleakin egon zire eta etortzean erran zirate ebakuntza aundi bat bertze aizpari bezala egin bear ziztzaola». **man**: «Nik negarrai man nio». Gehienetan *eman* erabiltzen du, behin edo bertze *man* aldaera.

**emanazi** *du* ad. ‘emanarazi’: «Il baño lena-go eskatu zio [...] eta itze emanazi zio, eta aurrekin egin zue al guzia».

**emanzale** izond. ‘eskuzabala’: «Beti uste izen dut arront emanzaleak zirela, ume anitz azi zuztela; eta, ala ere, artu baño obeki utzi zuela etxea bere gauza guziekin».

**enbraza** *du* ad. ‘enbaraza, enbarazatua’: «Alako andre arekin ibili nauk ta enbraza geldituuk ia».

**endai** iz. ‘labean erabiltzen den pala’: «Zerraten gindue egur lodienak [...] eta ikazplazan [...] paratzen zitue txutik ikatz egiteko, gañetik ikatz lur batekin, endaiakin botatzen zue egurrein gañera-ño, ain barna sartzen zue endai...».

**Endaia**. Lapurdiko herria. (of. **Hendaia**).

**endere** iz. ‘endorea, alkatea’: «Pozez bete-rik dago Mezkiritzko erria, zerengatik egin dute endere berria».

**ene** 1- izlag. ‘nire’: «Bai ene maitea, polliki nago». 2- interj. «Oi oi ene!».

**epaill, epaille** iz. ‘martxo’. **epaill**: «Bitartean, etorri ze tenorea irugarren alaba sortzeko eta epaillaren amazpian sortu ze». **epai-llle**: «Oroitzen naiz urte batez, epaillaren zortzian, Mezkiritzko eliza atarian negur-tu zuela apezak egun eta ogeite zortzi zentimetro». Sin. **martxo**.

**eper** iz. ‘eperra’.

**erabaki** *du* ad. 1- ‘erabaki’: «Donostin egin zute epaia batre gu gabe eta nere nagusiak erran zue Iruñen egina Iruñan eraba-ki bear zuela». 2- ‘ebaki’: «Bezperan erabaki zirate eskuñeko bularra, gangre-na deitzen den gaitza nuen»; «Ez du ume batek ere utzi bere aita eta ama zartokira, goren gorenaz gaixotegira erabaki alde zerbait egitera». Ik. **ebaki**.

**erabili** ad. 1- *da* ‘ibili’: «Berreguko mendian kontu aundiakin erabili bear da. An daude leze geienak»; «Ez nue uste nere aita arrixku aundietan erabiltzen zela guri azteatik, ezta buruan pasatzen ere, baño aurrak gine eta etze guk iakiteko gauza»; «Etxez etxe edo bordaz borda erabiltzen nitze denbora artan arropa sal-tzen». 2- *du* ‘erabili’: «Eta ezagutu zue erabiltzen zuen lankaia»; «Mezkiritzko nekazariañak? koldea eta area, ebek biok, bat aldian, erabiltzen dute beiekin, baño gizonek laiak, altzurak, pikua...». Geienetan *ibili* erranahia ematen dio. Ik. **ibili**.

**eraiki** *du* ad. ‘erein’: «Gure Sakarteko alo-rean eraikitzen ze aketa, kafea edaraz, Frantzietik ekartzen zute aketa, pikor tiki bat eta eraintzen zute, eta anitz ona izaten omen zen». Ik. **erain**.



- erain** *du* ad. 'erein': «Zuetaik ikesi nai degu egi garbia erraten, gure biotza xamurra da, erain anitz, erain laster». Ik. **eraiki**.
- erakustun** iz. 'irakaslea': «Nik erakustun guziak [alaben eskolako serorak] maite ditut»; «Beren osaba Pedro da erakustuna eta ona, ganera, berendako».
- erakutsi** *du* ad. 1- 'erakutsi': «Erran zire arri multxu ura ekartzen zuela eta norbaitengana jua bear ginduela erakustera»; «Erran zozu erakusteko eta ikusiko duzu nolakoa den». 2- 'irakatsi': «Ongi ikasi ginduen eskoletan erakusten zigutena»; «Ikasteko on aski zire eta nik etxean erakusten niote erreljioko gauza anitz».
- eraman, ereman** *du* ad. 1- 'eraman': «Gaur dagonilaren laua, gaur badugu gizon izen anitz, baño andre batena bakarrik eta izen ori eman zaio. Perpetua da eta ori da ereman biar duena»; «Mendiz mendi bide geienean ereman nue besotan aurra». 2- 'jasan, pairatu': «Aldi bakotxan naigabe aundia ereman dut»; «Denbora artan etxetan beretan beren zerbitzariendako ate bat eta berendako bertze bat zutenek, nola eraman barrenean afera ebek?». Ia beti *ereman* forma erabiltzen du.
- eraztun** iz. 'eraztuna': «[Gure ezkontzarako] eraztunak erosi ginduz eta bear gauza geienak»; «Ardaizko erriko iturrian agertu omen zen beatza bere eraztunaiki jantzia».
- erbal** iz. 'herbala, elbarria': «Lan gisa guzietan trebeak, zenbait erbalak ere ezagutu ditut»; «Gustura zeuden eta erbalena erori ze eta nik segido txalotu nio al guzia, erranez arront azkartu zela erortze arekin».
- erbaldu** *da* ad. 'herbaldu, elbarri bihurtu': «Neretako bai aise da maitetzea erbaldua». Sin. **elbarritu**.
- erbaltasun** iz. 'herbaltasuna': «[Nire senarra] bere erbaltasun guziakin anitz aldiz bertsoan aitzen, baño mingana moteltzen zaio anitz».
- erbi** iz. 'erbia'.
- erdara** iz. 'gaztelania': «Zein euskalduna zen! [...] Etzekie erdaraik, nik itz bakar bat aitu izen nio neure denboran bertze bati erdi asarrez erraten, *mal generazio!* [...] Dударик gabe, erdara zekienai erran zio»; «Ikasi zitue erakutsi guzia eta egin bere *carrera* erdaraz erraten dena»; «Monja edo serora, erdaraz *Hija de la Caridad*».
- erdietsi** *du* ad. 'lortu': «Orduan jua zire gizonak, deus erdietsi gabe»; «Goiz artan erdietsi nue gauzaik oberena neuren aurrendako».
- ereman** ik. **eraman**.
- eremanazi** *du* ad. 'eramanarazi': «Egun batez eremanazi zire bere aita eta amak ezagutzera».
- eremanzale** iz. 'eramaile': «Biribil aundi batean iorri nitue eta ereman saria eman nion eremanzaliai».
- ergel** izond. 'ximplea, fundamentu gutxikoa': «Ederrak izen dire, irri eginezteko, baño ortako onak direnak... maiz deituak izaten dire ero edo ergelak»; «Anitz aldiz iduri dugu ergelak geuren umekin».
- ergeldu** *da* ad. 'ergeldu, burua galdu, ximpletu': «Erran zio bestak urbil zirela eta etorri zeikela bestetara [...] erran neko-laik baietz, gutiteik etzen ergeldu»; «Arront maite zute elkar eta aurrarekin ergelduak zeude biek»; «Urte bat gabe izen zue seme bat eta ergelduak zeude aita eta ama».
- eri** izond. 'eria, gaixoa': «Au eri zen, uste dut minbizia zuela».
- erixko** adlag. 'nahiko eri': «Ezin utzi dut neure gizona, erixko dama anitz urtez eta nere tokia aren ondoan dago».
- eriotza** iz. 'heriotza': «Alabain eriotzak il zue gizajoa!».

**erispela** iz. ‘erispela’: «Nere senarra anitz aldiz eritzen zen erispela deitzen den eritasunaikin».

**eritasun** iz. ‘eritasuna, gaixotasuna’: «Gerran artukeko eritasunak ereman zio emendik».

**eritu** *da* ad. ‘eritu, gaixotu’: «Ainbertze arat onatekin biotza eritu zitzaio».

**erlauntz** iz. ‘erlauntza, erlatokia’: «Aitetxi il zelai [...] ereman zire erleak zeuden tokira amatxik, eta erlauntza guzietan io zue pixka bat deituz erlei, eta erranez: zuen eta nere nagusia il da». Sin. **erletoki**.

**erletoki** iz. ‘erlatokia, erlauntza’: «Etxe orrek [...] badu baratze ona eta erletokia ere bazue len, orai ez dakit». Ik. **toki**.

**erleume** iz. ‘erlekumea’: «Ni oroitzen naiz beren baratze batean eta uden erleumeak botatzen zutelarik, bi arri artzen zitue bi eskuetara eta bat bertzeakin ioz erraten zue bil, bil, bil eta apal apal erranez biltzen zire [...] eta segido sartzen zire erlauntzara».

**ero** iz. eta izond. ‘eroa, zoroa’: «Ezta eroa eta ez ergala, baizik Jaungoikoak paratua du eta eman dio bere inguruan diren guziaz lasaitzeko eta irrinezteko».

**erogarri** izond. ‘erogarria, zoragarria’: «Sinesmen azkarra, itxaropen negurri gabea eta goi maitasun erogarria».

**erorazi** *du* ad. ‘erorarazi’: «Beti egia agoan, alare bagindue norbait zerbaitetan erorazi nai zuena».

**erostun** iz. ‘eroslea’: «Bakotzak bagindue geuren erostuna».

**erotu** *da* ad. ‘erotu, zoratu, burutik joan’: «Eritasun txarra da, batzurretan erotue eta bertze zenbait aldiz ergeldue, ez aitzin ez ikusten».

**erramienta** iz. ‘erreminta’: «Ez duzu sekula entzun ze lanabes edo erramientekin egiten diran ezpelezko kuxetak?». Sin. **lanabes**.

**Erramu** iz. ‘Erramu-igandea’: «Erramu goizean [...] bedeinkatzen diren abarrak, eman ondoan ingurualdi bat elizari, goratzen dira eta gero egiten tuzte gurutzetatzuk, eta sagoi, landa, alor, baratze, etxeko atarian denak busti ur bedikatu...».

**erran** *du* ad. ‘erran, esan’: «Atsalde batean galde egin nion, baño itzik etzire erran»; «Nik erranion baietz, erranen nuela noiznai eta non nai». Beti *erran* erabiltzen du, *esan* inoiz ere ez.

**erran eta eman** esam. ‘aitaren batean’: «Nik itzuli nio erran eta eman batean bearrezaldeko ederra eta erran bakean uzteko edo oroitiko zela nitaz».

**erranazi** *du* ad. ‘erranarazi’: «Eta ori erranazten zio zuen indartasun ikaragarriak».

**errantzale** iz. ‘erranzalea, esalea’: «Bertze gisekoa ze, eginen zue al guzia Jaungoikoaren naia egitera eta etze ain Jauna, Jauna! errantzale ez».

**errate batean** esam. ‘errate baterako, esate baterako’: «Ezagutu dut Iruñan emakume bat [...] itsu baten alarguna [...] aita ongi izenez ere, lana franko izeten da eta, errate batean, bakarrik zego. Aitak etzue ikusten eta ez ikusteakin egiten al zute makurkerie anitz».

**Erratzuko malda** toponimoa.

**Erratzu, Errazu**. Baztango herria. Deklinatua: *Erratzuko, Erratzura, Erratzure* eta *Errazure*. (Euskal izena eta of. **Erratzu**).

**errautse** iz. ‘hautsa’.

**errax** ik. **erraz**.

**erraz, errax** adlag. ‘erraz’. **erraz**: «Gustoara egoten nitze beraikin euskera garbian itz egiten, biak euskera garbi garbian... etze ain erraz ain euskaldun garbiarekin aurkitzea». **errax**: «Erran zire [...] etzela errax bilatzen al»; «Geienean etze errax

etxean arrepatzea, beti bertzei laguntzen egoten ze». Jeneralean *errax* aldaera erabiltzen du, batzuetan *erraz* eta behin bakarrik *errez*.

**erre** *da/du* ad. 1- ‘erre’: «Bazuzte iru seme eta lau alaba, ebetaik bide erre zire beren etxea erre zenian». 2- ‘pipatu’: «Errezalea, *fumador* erdaraz, zela eta garizuman etzuela deus erretzen».

**Errebelu** Mt.

**Errebelugibel** Mt.

**errege bezpera** iz. ‘urtarrilaren bosta’: «Errege bezperan ere bada oitura bat Mezkiritzen».

**errege bidea** iz. ‘errege bidea, errepidea’: «Nere aitarendako erraten zute bederatzi urtetan, errege bidea egin zutelaik egun guzian saski arri eta lurrek beteak erabiltzen zituala ateratzen tokitik utzi bear-tzuen tokira»; «Errege bidean bada benta bat, deitzen dute Kixkilen Benta, Mezkiritzkoa da».

**errege** iz. ‘erregea’: «Nik uste dut [Jaungoikoa] Euskal Erriko Errege eta Jauna izein dela denbora guzian denboretan».

**erreka** iz. ‘erreka’: «Ur soñuak nasten zire ugalde, erreka nola iturriekin».

**Erreka**. Nafarroako eremu geografikoa, itxura guztiaren arabera ‘Malerreka’: «Belarrak ebakitzeko etortzen zire Baztan eta Errekatik».

**Errekinxarreta** Mt.

**erreljio** iz. ‘erlijioa’: «Etxean erakusten niote erreljioko gauza anitz».

**erreña** iz. ‘erraina’: «Nik, aren erreña izanik ere, maite nue eta gogotik egin daizkot al ziren gauza bearrezkoak bere zarrerian eta eritasun guzietan».

**errepostu** iz. ‘arapostua, erantzuna’: «Trinidad, eskeindu zazu Jaungoikoari oñaze oiek eta eriak errepostu: eskeindu? Eman ere eman nezake gogotik».

**errestatu, erreztatu** *du* ad. ‘herrestatu, arrastatu’. **errestatu**: «Zaldiek errestatzen zute zalgurdi edo kotxe deitzen zena». **erreztatu**: «Koldea, area (ebek biak beiek erreztatzen zuzte)».

**erretore** iz. ‘erretorea, parrokiako ardura-dun nagusia, parrokoa’: «Ereman zire Iruritako erretorea ezagutzer».

**errezale** iz. ‘erretzailea’: «Erraten zute zenbaitek arront gizon ona zela, errezalea, *fumador* erdaraz, zela eta garizuman etzuela deus erretzen».

**erreztatu** ik. **errestatu**.

**errezu** iz. ‘errezoa, otoiña’: «Ama arront errezu anitz eginzalea ze».

**Erribera**. Nafarroako lurraldea.

**Erriko ostatue** Mo. «Etxe eder bat deitzen dena Erriko Xoko, len Erriko Ostatue».

**Erriko Xoko** Mo. [*Herriko Txoko* (Saragüeta 1979: 10)].

**Erroibar, Erroiber**. Nafarroako ibarra. Deklinatua: *Erroibarko* (ia beti), *Erroibarreko* (behin edo bertze). (Euskal ize-na eta of. **Erroibar**).

**Erroma**. Italiako hiriburua.

**errosario** ik. **arrosario**.

**errotazai** iz. ‘errotazaina’: «Bozaten badire zurginak, igelseroak, errotazaiak...».

**erte** iz. ‘tarte, bitarte, bi etxe edo paretan arteko leku meharra edo bidea’: «Puxke bi aldetaik landa bakotxain paretak dire, deitzen da Txorrondoko erte»; «Eskuñeko aldetik bi etxe aundi, oien altzinean (ertean bidea) badire bi baratze onak». Ik. **arte**.

**ertean, ertian** adlag. ‘artean’. **ertean**: «Nai-gabe aundien ertean»; «Saltsa guzian ertean zabillean». **ertian**: «Egundaño itz bat elkarren ertian makurrekoik». Dena dela, *artean* aditzera emateko *arte* aldaera erabiltzen du erregularki.

**ertian** ik. **ertean**.

**ertxi** *da/du* ad. ‘hetsi, itxi’: «Beldurak oz-tiko ginela eta ertxi zigu gañeko ataria»; «Eskola ertxi ze eta aitaiki asi gine mendiko lanetan».

**eskalapuín, eskalapiñ** iz. ‘eskalapoia’. **eskalapuín**: «Neguan nere aitak eskalapuín aski egiten zue eta ateratzen zitue ezkietaik». **eskalapiñ**: «Etze egun artan deus agertu; gero aste baten buruan aurkitu zute eskalapiñak, zapetak eta bertze arropa arront biarrak».

**eskalapiñ** ik. **eskalapuín**.

**eskalera** iz. ‘eskailera’: «Batzuetan zurubi edo eskaleratik erori zela». Ik. **zurubi**.

**eskas** adlag. ‘dagokionera iristen ez dena’: «Nik amar urte eskas nitue ori pasatu zelaik».

**eskas izan** *du* ad. 1- ‘falta izan’: «Ala egon nitze eskas nuen denbora guzia eta etorri zelaik denbora sortzekoa, egun guzian odoluste bat izantze». 2- ‘gutxi izan, gutxi eduki’: «Nere idurikoz, sos eskas zute berek egiteko».

**eskatasun** iz. ‘eskaera’: «*Aitagurea* bere zazpi eskatasun guziekin: *egin daiela zure naia zeruan bezala lurrean ere*».

**eskazale** iz. ‘eskatzailea’: «Eskatu nue al guzie, baño ez dakit zenbat eskazale ginen denak».

**eskazi** *du* ad. ‘eskarazi’: «Eskazi zeko barkazioa ama orrei».

**eske** postpos. ‘-en eske, -en bila’: «Nik erran nio etxeoandrearari nola nere ama etorri zen nere eske nere bearra aundia zuelakoz»; «Irugarren alabain eske gindezi eta zenbat naigabeak izen ginduze batean»; «Goizean goiz juaten gine maurgi eske»; «Lenago ur eske juaten zire iturri-  
re eta nekagarria zen».

**eskeindu, eskindu** *du* ad. ‘eskaini’. **eskeindu**: «Nere aitak eta amak eskeindu ziozte sanduari juain ginela Xabierera eskerrak ematera». **eskindu**: «Nik ardua ez dut

maite izan eta eskintzen zireten tokian ez nue artzen». Era bertsuan erabiltzen ditu bi formak.

**eskeintza** iz. ‘eskaintza’: «Nik banitue ia amabi urte eta eskeintza aundiagokoak inez asi zire, baño ni betikoa, denen gañetik aita, ama eta amatxi...».

**esker mila, esker mile** ‘esker mila, mila esker, eskerrik asko’. **esker mila**: «Nik erran nio: esker mila guzietaz». **esker mile**: «Orai denei esker mile».

**esker mile** ik. **esker mila**.

**eskindu** ik. **eskeindu**.

**esku** iz. 1- ‘eskua’: «Suge aundi bat erorri zen lurrera; nik ikustean, arri aundi bat artu bi eskuekin eta bota nion buru gañera». 2- ‘aldea, alderdia’: «Orren onduan da Kolixena. Au da barrideko aundiena. Gero malda ederra bada eta esku berean dago denen gañetik Juan Martinena».

**esku ona** ‘trebetasuna, abilezia’: «Gure amak arront esku ona zue gauze oiek egiteko».

**esku zorro** iz. ‘eskuko poltsa’: «Oñetako eta esku zorro eta gañerakoa, denak oberenetaik zire denak».

**eskua bota** *du* ad. a) ‘eskua sartu’: «Gizon azkar bat arront lizuiñe [...] aren auserkikerian eta aisa botatzen eskua norainai». b) ‘ukitu’: «Bota omen zio eskua eta ezagutu zue argik gabe zerbait gaitz aundi bazuela».

**eskua goratu** *du* ad. ‘eskua jaso, mehatxatu’: «Egundaño ez dire niok esku bat goratu ukitzeko bate-re». **eskutik eduki** *du* ad. ‘esku-eskura izan’: «Oraiko aldian ogeita ameka eskutik daukagu».

**eskuz** adlag. «Brodutzen bi aldetara, eskuz eta lankaiiakin»; «Arropa anitz garbitu eta eskuz etxe guzia ere». **-en eskuetan utzi** *du* ad. ‘-en kontura utzi’: «Eskatu zio erranez bera bazaiela eta aren bi aurrak zaindu zizkiela, bere eskuetan uzten zituela eta uzteko serora juatea».

**eskualdun** izond. 'euskalduna': «Gauzak aski gaizki zeude, baño eskualdun errietan etzen ageri deus ere».

**eskuara** ik. **euskara**.

**eskubide** iz. 'eskubidea': «Ez duzu deuse-  
ren eskubideik».

**eskuin, eskuñ** iz. 'eskuina'. **eskuin**: «Egon bearra eskuin, ezker dago». **eskuñ**: «Beso azpian paratzen omen esku eskuñ»; «Anitz aldiz egon da anka eskuñe arront azi eta beltz beltza egine».

**eskulan** iz. 'eskulana': «Nik maite izan dut eta maite dut eskulan den guzia eta mota guzietarik».

**eskumutur** iz. 'eskumuturra': «Emen ez dakit zer, baño bada tupiki bano ohea, bearbada ezta eskumuturra baño geago».

**eskuñ** ik. **eskuin**.

**eskutitz** iz. 'eskutitza, gutuna': «Eskutitzak maiz etortzen zire, baño nik ere aite eta amai maiz maiza egiten niote».

**eskuzerra** iz. 'eskuzerra, eskuz mozteko zerra', ik. **marraza**.

**esne zopa** ik. **zopa**.

**Esnoz**. Erroibarko herria: Deklinatua: *Esnozko, Esnoztik*. (Euskal izena eta of. **Esnotz**).

**Espaiña, España, Española**. Deklinatua: *Españan* (behin), *Españian* (behin), *Españako* (gehienetan), *Españako* (batzuetan), *Españara, Españatik*. (Euskal izena **Espainia**).

**espantu** iz. 'espantua': «Zer ilabete espantu aundia aurtengo otsail sorgina».

**espiritu, izpiritu** iz. 'espiritua'. **espiritu**: «Espiritu Sanduaren doia». **izpiritu**: «Denak laneak izpiritu beraikin»; «Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean».

**esposatu da/du** ad. 'ezkondu'. Sin. **ezkondu, uztartu**.

**Estación Olaskoaga**. Argentinako herria. (Estación Olascoaga).

**estalpe** iz. 'estalpea': «Lenago, urik etzelaik etxetan, arropa zikinek garbitzera juaten gine negu minean estalpe batean»; «Etxe erreza zegon tokira urbildu zelaik, juan ze estalpe batera eta an konpondu zire al bezala».

**Estankoa** Mo.

**Estella**. Nafarroako hiria. (Euskal izena **Lizarra**).

**estrabille** iz. 'ukuilua': «Mezkiritzko estrabille anitz berritu dituzte».

**estu** adlag. 'estu, larri': «Arront estu egoten gine aiek eta gu».

**estusko** adlag. 'nahiko estu, nahiko larri': «Gure etxean sobera estusko gindeude eta lan anitz bazego».

**estutasun** iz. 'estutasuna, larritasuna': «Ni enitze egundaño alako estutasunean egon».

**etorriazi du** ad. 'etorrazari': «Etorriazi ziot sendagilleai».

**Etxaburu** Mt.

**etxamin** iz. 'tximinia': «Etxe onek arront etxamin aundi bat zue. Sukalde guzia artzen zue. Sukaldea erdian zego [...] Niri iduritzen zaide pusken ke geiago izaten zela etxamin ebetan».

**etxealde** iz. 'etxaldea, etxea bere lurrekin' (ondasun handikoa erregulariki): «Nere amatxik erraten zue etxe orrek zituela lurrik geiagoenak Mezkiritzko etxealdetan»; «Oraiko emakume au sortzez ibar batekoa eta ezkontzez bertze batekoa. Etxealde aundi batetik atera, bertze aundi batean sartu ze. Uste dut etxealde aundia eta bai ere sosdunak»; «Etxeko seme zarrena da orai etxeko nagusia, ezkondu ze erri bereko neska batekin, au ere etxealdeko ze».

**Etxeberria** Mezkiritzko eta Uretako oikoni-moa.

**etxeoandre** iz. 'etxeoandrea': «Bazekite emakume guziek etxe artan etzela bere umeik sartiko nagusi edo etxeoandre»;

«Erran duden bezala, Mikela bere sortu etxean (etxealde aundia) gelditu ze etxeoandre eta uste dut ameka ume suurik bazituela».

**Etsetxipia** Mo. «Lenago etxe ori deitzen ze Etsetxipia. Gero deitzen ze Modestoña». Ik. **Modestoña**.

**etxola** iz. ‘mendiko etxe txikia’: «Gero bertze bi borda badire arrent urbil elkarrengana [...], nere iduriko, biek baute etxola ondoan. Batek suurik badu non egin sue eta non egin lo».

**Eugi**. Esteribarko herria.

**euri** iz. ‘euria’, esam. «*Il onak eurie urbil*».

**Euskal Erri** iz. ‘Euskal Herria’: «Orai mila berregun urte asi izan bazire zazpi Euskal Erri guzian erraten beren biziko aferak, orai iakinen gindue orai ez dakigun gauza anitz eta oitura eta gertaerekin aberatsago izanen ze gure erria». **Frantzioko Euskal Erri** ‘Ipar Euskal Herria’: «Frantzioko Euskal Errian bizi da seme bat».

**euskara, euskera, eskuara** iz. ‘euskara’. **euskara**: «Baño badire nere adineko batzuk ez dutela aski maite euskara». **euskera**: «Gustoara egoten nitze beraikin euskera garbian itz egiten, biak euskera garbi garbian». **eskuara**: «Arriturik nago erri ontan [Mezkiritzen] eskuara nola ari den aztutzen». Ia beti aldaki *euskera* erabiltzen du, behin edo bertze *euskara*, eta aldiren batean *eskuara*.

**euskera** ik. **euskara**.

**exkorte** iz. ‘eskorta, sarroia, abereak gordetzeko esparru hesitu eta sabairik gabea’: «Ligeztara aise juaten gara, exkorte bat pasatu, segido asketara eta zer ura den beretan!».

**expaleta** iz. ‘ezpaltxo»: «Sue egiteko expaletak».

**ez ongi joan** ik. **juan**.

**ezagundu, ezaguntu, zaundu, zauntu, zautu** *du* ad. ‘ezagutu’. **ezagundu**: «Eta

ezagundu degu [neskazarra], ogeite emeretzi urtetan ezkondu eta bederatzii ume izan duena». **ezaguntu**: «Zori gaitze izen dut serora ebek ezaguntzea»; «Osabak ezaguntzen ze ango bizigisak, baño Juanak eta Felixek ez». **zaundu**: «Etxe ortan zaundu duden zarrena deitzen ze Juana Migel». **zauntu**: «Ez direzuiela zauntzen ... badekit, baño ez du inport». **zautu**: «Ikusi dut otoitz egiten gizonak moxorroz beziak, ez dire zauntzen nor diren»; «Nik ez nue niorekin egiten solasik, ez nue nior zauntzen».

**ezaguntu** ik. **ezagundu**.

**ezaugera** iz. ‘ezaguera’: «Sukar aundi batekin, guatzean nindego, ez nue batre ezaugerik, gau guzia ametsetan».

**ezaugarri** iz. ‘ezaugarria’: «Ebakuntze onek aur gaixoari bere denbora guziko utzi ziote arrent ezaugarri geroako».

**ezdeus** 1- izond. ‘ezdeusa, deuseza, deustako balio ez duena’: «Aur arrent mea eta ezdeusa»; «Gizon ilupe edo ezdeus baten alarguna ze».

**ezik** konparazio partikula ‘ezen ez, baino’: «Uste dut goxoago zela lan oiek egitea ezik ongi afaltzea»; «Naiago nue deus gabe gelditu nik ezik berak»; «Birtartean obe da guti eta onak, ezik anitz eta gaitoak baño»; «Naiago nuela besoi gabeko aita ezik aita gabeko besoa baño».

**Ezkaldo** toponimoa. Irurita eta Gartzain herrien artean dagoen mendiaren izena.

**ezki** iz. ‘ezkia’: «Neguan nere aita eskalapuin aski egiten zue eta ateratzen zitue ezkietaik eta beti galde egiten nio ia zur ura ze zuaitzetaik atera zuen eta erraten zira ezkitik».

**ezkonaizpa** iz. ‘ezkonahizpa, koinata’: «Aren ama eta nerea ezkonaizpak zire».

Ik. **aizpa**. Sin. **goñata**.

**ezkonazi** *du* ad. ‘ezkonarazi’: «Lege gizonak ezkonazi zituzte, elizaz eta legez».

**ezkonberri** iz. ‘ezkonberria’: «Biramongoizean, andreain amak erematen ziote ezkonberriei, baru austeko, ianari zerbait».

**ezkondu** *da/du* ad. ‘ezkondu, esposatu’: «Mezkiritzen erraten da ezkondu eta Baztanen esposatu». **elizaz ezkondu**, ik. **elizi**; **legez ezkondu**, ik. **ezkonazi**. Sin. **esposatu**, **uztartu**.

**ezkongabe** izond. ‘ezkongabea, ezkongaiia’: «Bazire gizon bat eta andre bat ezkongabeak, izan zuzte iru aur, eta laugarrenak sortu beartzuelaik lege gizonek ezkonazi zituzte, elizaz eta legez».

**ezkonsari** iz. ‘ezkonsaria, dotea’: «Senarrak utzi zitue eskatzen zuten sosa, ezkonsaria, bere andrearen anai eta aizparen-dako».

**ezkontz gira** iz. ‘eztei bidaldia’: «Senarrak edo andreak balin badute España barnean anaia apez edo arrea serora, geienek egiten dute beren ezkontz gira aiek diren tokira».

**ezkontza** iz. ‘ezkontza, ezteiak’: «Aita zenai arront gaizki juan zitzaio Juanaren ezkontza».

**ezkontzez** adlag. ‘ezkontzaz, ezkontzeko tokiaz, ezkondu ondotik bizi den tokiaz’:

«Oraiko emakume au sortez ibar batekoa eta ezkontzez bertze batekoa»; «Sortzez ez da zugarramurdiarra, baño arara juan ze ezkontzez». Ik. **sortzez**.

**ezongi** iz. ‘ezongia, ongieza, ondoeza’: «Geuren etxean diren ezongiak etxeko autsaiki estali, niok iakin gabe»; «Beti irri inezi naiez beren ondoan diren ezongiei beren osasunean».

**ezongitasun** iz. ‘ezongia, ongieza, ondoeza’: «Denboraikin asi zitzaio ezongitasuna eta eritasun bat utzazi eta bertze bat artu»; «Ala juan zire lemeziko denbora ilun aiek, ilunak bai, ezongitasunain ilundurak».

**ezpain** iz. ‘ezpaina’.

**ezpartin** iz. ‘espartina’: «Aitu izen dut bes-tetako erosten ziotela amak ezpartinak denei».

**ezpel** iz. ‘ezpela’: «Oianean bazire ezpel onak, anitz eta ederrak»; «Aitak kanpoko ere egiten zue lana, eta neguan ezpelezko kuxetak».

**Ezpeleta**. Lapurdiko herria.

**eztei** iz. ‘ezteiak, ezkontza’: «Ain erri tikia izateko, bi eztei izan zire meza berean». Ik. **axeri eztei**.

**Ezteribar**. Nafarroako ibarra. Deklinatua: *Ezteribarko*. (of. **Esteribar**).

## F

**Falzes**. Nafarroako herria. Deklinatua: *Falzesen, Falzesko*. (Euskal izena **Falzes**).

**famili** iz. ‘familia’, ik. **senide**.

**fardelkeria** iz. ‘fardelkeria, lardaskeria, txukuntasun eza’: «Asi nitze egurrak paratzen zamuketan eta ongi arront, fardelkerik gabe».

**ferreta** iz. ‘ferreta, edarra, suila’: «Zenbat ferreta ur erematen ote zitue egunean etxera!».

**fibraldi** iz. ‘zuntz-haustura (?)’: «Sobera aundia sortu ze eta fibraldi gogorra izan nue».

**fier** 1- iz. ‘fierra, sendoa’: «Bano naigabe franko izen zitue Petra zenak. Fierra ze min gisa guzietako». 2- adlag. ‘sendo’:

«Uste zue erdietsiko zuela, baño ni fier nindego».

**Filipinas.** Asiako estatua eta uharteak. (Euskal izena **Filipinak**).

**finitu** *da/du* ad. ‘finitu, amaitu, hil’: «Ola finitzen zute urtea. Eta berriz asten zire urbilten urtean»; «Galde egiten badiozu: zer ai zera Trini? errain dizu: emen ezin bizi eta ezin fini»; «Eri zen, uste dut minbizia zuela eta iakin zuelaik zer zuen korda bat artu eta fini».

**firirike** adlag. ‘firirika, bueltaka, biraka’: «Aizeak fiririken elurre ereman du eta zoko guzietan bildurik utzi du».

**fite** adlag. ‘fite, laster’: «Aita eta ama il zire aski fite».

**fitsutse** iz. ‘bisutsa’: «Bier argitzen bada aize onekin, zer fitsutse eginen duen Jinkoak daki».

**Florentzioña** Mo. Ik. **Juanexpaiña**.

**fraile** iz. ‘fraidea’: «Bertze iruetaik bide fraileak dire eta bertze semea etxeko nagusi txintxo da». Ik. **juan**.

**franko** zenbatz. «Nere anaiak bazekie [...] gauza franko nik baño geiago afera ebetan»; «Naigabe franko izen zitue Petra zenak»; «Franko otz egon nintze».

**Frantzia, Frantzie, Franzie.** Deklinatua: *Frantzian, Frantziako* (ia beti), *Frantzziako* (behin), *Frantziako* (behin), *Frantziera* (gehienetan), *Frantziara* (behin), *Frantzietik*. (Euskal izena **Frantzia**).

**Frantziako Euskal Erri** ‘Ipar Euskal Herria’. Ik. **Euskal Erri**.

**Franziskoin etxea** Mo. «Gizonak Franzisko zue izena eta Franziskoin etxea erraten zute».

**Fuenterrabia.** Gipuzkoako herria. (Euskal izena eta of. **Hondarribia**).

**fundiketu** *da* ad. ‘desegin, hondatu’: «Negar asko egin gindue denek [...] ala fundiketu baize alako bizi ederra».

**funs** zenbtz. ‘asko, anitz, sobera’: «Baño nik emagin bezala ez nue funsik ezagutu».

## G

**gaba** ik. **gau**.

**gabe** 1- izlag. «Nik erran nue moztu bearra balin baze mozteko, zerengatik naiago nuela besoi gabeko aita ezik aita gabeko besoa baño». 2- postpos. «Berrogeita lau ebetan badire irakasleak, anitz ikesi dutenak, eta bertze batzuk batera ikesi gabekoak». 3- konp. ‘baino lehenago’: «Orduan eskatzen nue al guzia eta urte bat gabe izen zue seme bat eta ergelduak zeude aita eta ama». -gabe atz. Ik. **burugabe**.

**gaindu** *da* ad. ‘gainditu, ugaritu’: «Aur gaixoak aitarekin bakarrik zikinak gainduak zeude»; «Alor ederrak badire

Sakarten, baño sasi aundiak egin dire, gaindu dire basurde aundiak eta ebek ekentzia zail izein da».

**gaiñ, gañ** iz. ‘gaina, solairua’. **gaiñ**: «Zitue bi bizitoki, gu bizi gine gaiñan eta bertze senide edo familie azpian». **gañ**: «Lenago bizi ze jendea, baño orai gaiñan belartegia eta azpian ardiak». **gaiñan** postpos. ‘gainean’: «Eztzitzeigu ongi iduritzen gaiñan zeudenen arrokeriak, eta izitasun edo azpian zeudenen beldurtasunak»; «Asto gaiñan artzen gindue arropa zikina, xagona eta bear ziran gauza guziak eta ederki garbitzen ginduze».



**gaistakeria, gaxtekeria** iz. ‘gaiztakeria’.

**gaistakeria**: «Gaistakerie guti izen bear du gizon batek alako batei burua auste-ko». **gaxtekeria**: «Gaxtekeriak erranez pasatzen du bere bizia, makurkeriak egi-nez».

**gaisto** izond. ‘gaiztoa’: «Min gaistoek eken-tzen zirete nere alaitasuna»; «Emengo gizon gaistoena zuen erriko oberena baño ohea da»; «Mile bederatziegun eta emezortziko urriko amazazpian il ze gripe gaisto arekin». Ik. **txar**.

**gaitsets** izond. ‘gaitzetsa’: «Biribil berean juantze gizon bat gaitsetsa».

**gaitsetsi, gaitsestu** *du* ad. ‘gaitzetsi’. **gaitsetsi**: «Apez jaun arek erran ziote deabruak arront gaitsetsiak zituala aurak». **gaitsestu**: «Gezurra gaitsestue zue aspal-dik».

**gaitsestu** ik. **gaitsetsi**.

**gaitz** 1- iz. a) ‘gaitza, eritasuna’: «Nik ez dakit nola bizi garen gaitz orrek ukitu zigun guziak»; «Aietaik bat ez da sendatu oraño, gaitza arront sartua ze aren barnean». b) ‘kaltea’: «Jesusen Biotzai otoitza egin nio, ez nuela gaitzik egin nai niorei». 2- izond. ‘handia’: «Nere aurrak juan dire eskola berera eta Jaunari esker-rrak eman diot anitz aldiz. Zori gaitze izen dut serora ebek ezaguntzea»; «Ze bero gaitzak ai zen egiten!». **gaitz epela** ‘tuberkulosia, tisia’: «Eritasun berarekin il ze berrogei eta lau urtetan, gaitz epe-laikin»; «Iduri zue etzela makurrik bate-re etxe artan, bazego eta aundia. Gaitz epela arron sartua zego etxe artan».

**gaixo** izond. ‘gaixoa, gizajoa’: «Juan nitze amaren gelara eta gaixoa negar minak artua zego»; «Manatzeko beti gizona eta andre gaixoa beti obeditzen». Batzuetan izenaren aitzinetik ageri da: «Erri guziek negar egin zue alako gizon ederra ain aise il zela. Gaixo andre eta umeak!!!»;

«Gaixo Karmen, ogei eta iru urtetan alargundua eta ainbertze naigabekin».

**gaixotegi, gaxotegi** iz. ‘erietxea, ospitalea, sendategia’. **gaixotegi**: «Ez du ume batek ere utzi bere aita eta ama zartokira, goren gorenaz gaixotegira»; «Mezki-ritzko eta Uretako artean izan zela eliza bat, bere gaixotegi batekin». **gaxotegi**: «Eta ilabete osoa egoten baze gaxotegian». Era bertsoan erabiltzen ditu bi aldaerak. Sin. **sendategi, sendaetxe**.

**gaixotu** *da* ad. ‘eritu’: «Eri edo gaixotu ze ainbertze, burua nasi zitzaiola denetik eta beldurrak bizi zire berarekin zirenak».

**gaizbidatu** *da* ad. ‘gaizbidetu, eskandalizatu’: «Eta ez naiz gaizbidatzen apez batek utzi duelakoz bere bidea eta artu duelakoz bertze bat».

**gaizki egille** iz. ‘gaizkilea’: «Olaxe erakutsi digu nola maitatu bear den gaizki egillea».

**gaizkitasun** iz. ‘gaixotasuna’: «Bi urte ireun zue aurrein gaizkitasunak».

**gaizkitu** *da* ad. ‘gaixotu’: «Aurra gaizkitu eta il».

**galde egin, galdin** *du* ad. ‘galdea egin, galdegin, galdetu’. **galde egin**: «Atsalde batean galde egin nion, baño itzik etzire erran»; «Neure aitari galde eginez aterazi nio geiago edo garbiago». **galdin**: «Etorri ze eta galdin zire ia egin nue bederatziruena». Ik. **galdetu**.

**galdetu** *du* ad. ‘galdetu, galdegin’: «Nik erran nion dena zen bezala eta galdetu zire zer etxetan nindegon»; «Etorri zitzaide galdetzera ia aurra noiz etorri bearra zen». Ik. **galde egin**.

**galdin** ik. **galde egin**.

**Galtzapeta** Mt.

**galtzorratz** iz. ‘galtzorratza, galtzeta orratza’: «Eskulan pollite guzietatik egiten, berdin galtzorratz nola gantxillo delakoaña». Ik. **gantxillo**.

**ganbara** iz. ‘ganbera, logela’: «Lenago lau ganbaretan zortzi edo amarrek lo egiten gindue»; «Juan omen zen beren ganbarara, eta ixil ixila urbildu zelaik guatzera».

**ganera, gañera** adlag. ‘gainera’. **ganera**: «Beren osaba Pedro da erakustuna eta ona, ganera, berendako». **gañera**: «Gañera, gisa eta tenore guzietan izen ze arrot maitegarria eta maitetzalea ere bai». Bi aldaerak erabiltzen baditu ere, gehiagotan ageri da bigarrena.

**ganoso, ganosu** izond. ‘gustuko’. **ganoso**: «Ez dire sobera ganosoak ezta irakurtzeko nere bizia, baño sobera egia delakoz erraten ditut». **ganosu**: «Gabaz ilarekin egoteko ere barrideak. [...] Ez dire gauza ganosuak, baño ori ala da».

**ganosu** ik. **ganoso**.

**gantxillo** iz. ‘kakorratza’, ik. **galtzorratz**.

**gantzutu** *da* ad. ‘gantzutu, koipez igurtzi’: «Eztul puxka bat egiten bazitzeio, orduan ollo urineikin igortzi edo gantzutu iten zitzeio aurrari bizkarra eta bulerra».

**gañ** ik. **gañ**.

**gañalde** iz. ‘gainaldea, gaineko alde’: «Etxe onen gañaldean dago eliza».

**gañeko** adlag. ‘gaineko aldekoa’: «Bere seme batekin zego egun guzia eta egin zute lo bide gañeko etxola batean».

**Gañeko usein** Mt.

**gañera** ik. **ganera**.

**gañerako** izond. ‘gainerako’: «Konpondu berria da eta gañerako egin bearrak denak egiten dire»; «Triputa, lukerike eta bertze gañerakoak egiteko etze andre bat ere etortzen gure etxera; amatxi, ama eta gu iru aizpa bagine aski».

**garagarril** iz. ‘ekaina’: «San Juan goizean, garagarrillain ogeite lauean».

**garaitu** *du* ad. ‘garaitu, gaintu’: «Denak garaituak ditu bere indartasun aundi orrekin».

**Garatibel** Mt. (of. **Garategibel**).

**garbiki** adlag. ‘arrunt garbi, nabarmenki’: «Denbora batez uste zute gizonak izatea aski zela, eta ez da ori bearezkoa, garbiki ikusi da nexkak ain buruargiak edo geiago direla»; «Erraten ze garbiki gizon eta andregaiak zirela eta laister ezkondu bear zutela».

**garbitoki** iz. 1- ‘lixibategia, ikuztegia’: «Neguan lixue garbitzera juaten zirelaik garbitoki edo putzura». 2- ‘purgatorioa’: «Errezatzen dira iru aitagure garbitokiko animendako». Ik. **toki**.

**garbitu** *da/du* ad. 1- ‘garbitu’: «Errege bezperan ere bada oitura bat: Mezkititzen (orain ez dakit) afal ondoan, maia ongi garbitu eta paratzen zire bi plater obere-nexkoetaik mai gañan»; «[Orreagako] Ama Birjiñaren iturrian ura edan gabe, begiak garbitu gabe... etze nior sagoi artaik ateratzen». 2- ‘desegin’: «Nere amaitik erraten zue [...] urte artan uztailearen amarrean arri-erauntsiak garbitu zituela bazter guziak».

**gargoro** adlag. ‘gaurgero’: «Uste dut zituen nexka pollit aiek gargoro aspaldik ezkonduak direla».

**garizuma** iz. ‘garizuma’: «Garizuman etzuela deus erretzen, aren sosa jende bearrari emateko».

**Gartxotena** Mo.

**Gartxoteneko landa** Mt.

**Gartzain**. Baztango herria.

**Garzaron**. Basaburuko herria. (Euskal izena **Gartzaron**).

**gasna** iz. ‘gazta’, ik. **gazta**.

**Gatzarrite** Mt. (of. **Gatzarrieta**).

**Gatzarriteko bixkerra** Mt.

**gau, gaba** iz. ‘gaua’. **gau**: «Egun eta gau ilunak pasatu dituzte»; «Beren gurasoe-kin pasatzen dute gaua». **gaba** ‘gaua’: «Jaungoikoak daki zer gaba eman dion»; «Lemexiko gabeen lotsatu nitze eta doi doia gelditu nitze beraikin»; «Astean bi

gabez, asteartetik asteazkenara eta ortzileretik larontzera». **gabaz** ‘gauaz’: «Berdin prestatzen zen egunez nola gabaz, ez ongi zegonai laguntzeko». **gabas** ‘gauaz’: «Iruet alargunak, beti ongi egitera prest direnak, berdin gabas nola egunez».

**gauz** ik. **gauza**.

**gauza, gauze, gauz** iz. ‘gauza’. **gauza**: «Nere eskulanetako irakaslea gelditu ze arritua zenbat gauza egin nuen ain denbora gutiz». **gauze**: «Gure amak arront esku ona zue gauze oiek egiteko». **gauz**: «Erran zire [...] nik erran bear nuela ikusi eta aitutako gauz guziak». Hiru aldaerak ageri badira ere, gehienetan *gauza* erabiltzen du. **gauza izan da** ad. ‘balio izan’: «Lana egin nai eta ez gauza»; «Etzelakoz gauza geiagotako»; «Ez da gauza deustako». **gauzatzuk** ‘gauza batzuk’: «Etxez etxe edo bordaz borda erabiltzen nitze denbora artan arropa saltzen, bai eta ere bertze gauzatzuk».

**gauze** ik. **gauza**.

**gaxotegi** ik. **gaixotegi**.

**gaxtekeria** ik. **gaistakeria**.

**gazta, gasna** iz. ‘gazta’. **gazta**: «Erematen ziote gazta bat edo bertze». **gasna**: «Opil bero bat erditik egina, artean sar zaiezu gasna guria, ikusiko duzu zein gogotik iaten duten». Gehiagotan ageri da *gazta* aldaera.

**gaztaña** iz. ‘gatzaina’: «Iruritatik urte batez atera gine Erriberara gaztaña saltzera».

**gazte denbora** iz. ‘gazte-denbora, gaztaroa’: «Nere aurtzaro eta gazte denboran, iltzen zelaik nornai, bi auzoak juaten zire bere umeak edo anai arrebak bizi ziren errietara edo bordetara eta erematen ziote mandatua, baño orai uste dut urrutizkiñarekin balietzen direla». Sin. **gatzetasun**.

**gazteri** iz. ‘gazteria, gazte jendea’: «Gazteri guzia an zego»; «Orai dela ogei bat urte

gazteria juaten ze Ameriketara eta guti itzultzen zire, orai bertzeik da»; «Badakit jende anitzek beren gazterian izan dituztela nik bezalako nai berak».

**gatzetasun** iz. ‘gatzetasuna, gaztaroa’: «Ala bizi zirela beren aurtzaroan eta gatzetasunean»; «Baño etzue batre gozotasunik izen bere aurtzaroan, ez eta bere gatzetasunean, aita eta amarik gabe gelditu ze oraño aurra zelaik». Sin. **gatzte denbora**.

**gatziatu du** ad. ‘gatzigatu, abisatu’: «Bateioko aitatxi eta amatxi izan bear zutenen gaztiatu zuenai, bakoitxak bortz peztako bana eman bear zioite»; «Arront sendagille ona zela gatziatu zute».

**geago** ik. **geiago**.

**geagoko** ik. **geiagoko**.

**geiagoko, geagoko** izlag. ‘gehiagoko’. **geiagoko**: «Geiagokoak bazire baño atzendu zaizkit»; «Eta etzue geiagoko gauze zikinik erran nere altzinean». **geagoko**: «Ez zuten nai geagoko umeik».

**geiago, geago, giago** zenbtz. ‘gehiago’. **geiago**: «Baño arront gaizki zego eta etze juan geiago ez Iruritarra eta ez Mezkitzete». **geago**: «Eta bertze gauz geago». **giago**: «Ude pasatzen dugu Mezkitzen, baño iru ilebete giago egon gara ondar urtetan». **geiagokoik** ‘gehiagokorik’: «Ez dut geiagokoik aitu». **geagokoik** ‘gehiagokorik’: «Baño erraten zirete etzekotela ia geagokoik aitu sekula». **geiagoena** ‘gehiagoena’: «Baño bera izan ze irrik geiagoena egin zuena». **geagoena** ‘gehiagoena’: «Itz batean ontasun guziak [bear ditugu], baño geagoena goi maitesuna». **geiagoka** adlag. ‘gehiagoka’: «Zenbat aldiz bertze bertsolariekin aitzen ze zein geiagoka, eta bein batez entzun nitue iruetan ogeita lau [bertso]». **gero eta geiago** ‘gero eta gehiago’: «Nik oraño idazten nue bi egunoroko eta bi asteorokoetara eta gero eta geiago».

**geien** zenbzt. ‘gehien’: «Geienak ateratzen zira bi begiek negarrez beteak». **geie-nean** adlag. ‘gehienetan’: «Geieanean juaten gine aita, ama eta iru edo lau zaarrenak»; «Etxe batean ume batek egin bear bazue *carrera* bat ure beti ze mutikoa, geieanean bigarrena». **geinez** adlag. ‘gehienez, gehienetan’: «Kitarra iotzen omen zuen, eta igande geinez iotzen zuen».

**gela** iz. ‘gela, logela’: «Juan nitze amaren gelara eta gaixoa negar minak artua zego»; «Juan nitze bere etxe eta gelara eta nik ez nue batre ezagutu iltzen ai zelaik».

**geldiazi** *du* ad. ‘geldiarazi’: «Aurkitu ze ango irakasleaikin eta geldiazi zio».

**Gerein**. Erroibarko herria. Deklinatua: *Gereingo*, *Gereiñe* (behin), *Gereiñie* (behin), *Gereine* (behin), *Gereiñinen* (behin), *Gereindik*. (Euskal izena **Gerendiain**).

**gerezi** iz. ‘gerezia’: «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak...».

**gernu** iz. ‘pixa’: «Aurpegia arront makurtua, ezin gernurik egin, ez eta bertze bearrik batere anitz egunez».

**gerostik** adlag. ‘geroztik’: «Zu euskalduna zara? Apezak: bai euskalduna naiz. Gerostik, euskeraz aitortu bear du»; «Niri gogoratu zitzeide gerostik onekin etzuela alakoik izein». Beti *gerostik* aldaera erabiltzen du.

**gerri** iz. ‘gerria’.

**gesal** iz. ‘gesala, erdizka urtua dagoen elur putzua’: «Erreka bazterretan gesalak badire».

**gezurre** ik. **egie**.

**giago** ik. **geiago**.

**gibel** iz. 1- ‘atzea’: «[Etxe] onek ere badu bere baratze tiki bat altzinean, saiets batean badu landa ederra [...] eta gibelean

baratze bat». 2- ‘(gorputzaren) gibela’: «Orduan sendagileak erran zue gibela arront azia zela». **gibeletik** adlag. ‘atzetik, ondotik’: «Ni juan naiz ikustera anitz aldiz, iakiteatik zer ai ziren nere aurrak ia ikesten zuten aise edo gibeletik zaitzen»; «Etxean ematen ze arrosarioa eta gibeletik amar bat *aitegurea* bedere»; «Oietaik andre bat il ze bere senarrain gibeletik». **gibelez gibel** adlag. ‘atzez atze’: «Erri au anitz aziendaduna da, eta ez bada etxe gibelez gibel bide berri bat egiten, ez da sekula garbi egoin».

**gibelalde** iz. ‘gibelaldea, atzeka aldea’: «Eben gibelaldian dago etxe eder bat deitzen dena Erriko Xoko, len Erriko Ostatue»; «Berak kanpoan zirelaik suek artu omen zio etzeko gibelaldia».

**gibelatu** *du* ad. ‘atzeratu, erretiratu’: «Ni esne anitzekin gelditu nitze, eta orduan etze orai adine gauza esnea gibelatzeko, eta sendagileak manatu zire aur bat bilatzeko eta azteko»; «Gatza eta kanela deitzen den makil puske bat botatzen zute eltzera eta, ongi irakin ondoan, gibelatzen zute eltzea».

**gibelazio** iz. ‘atzerapena’: «Jaunari esker-rrak, aurrak etzue deus gibelazioik izan, arront ederra eta azkarra izan da beti».

**giltzape, giltzepe** iz. ‘kartzela, espetxea’. **giltzape**: «Au ze giltzapean zirenen-dako». **giltzepe**: «Osaba sartu zute giltzapean»; «Zure aita io dute anitz eta Iruñara ereman dute giltzapea».

**giltzepe** ik. **giltzape**.

**ginbail** iz. ‘kapela’: «Nexka batendako iru gauza zire, jantzi oso bat, soñeko, berogarri ginbaila».

**Gipuzkoa**. Euskadiko herrialdea.

**gisa, gise** iz. ‘modua, mota’. **gisa**: «Gisa eta tenore guzietan izen ze arront maitegarria»; «Berrogeita amar urte nituelaik asi banitze bertze gisa batean eginen nue».

**gise**: «Neri gertatu zitzaide gise ontan».  
**gisakoa** ‘modukoa’: «Ezagutzen zer gisakoa ote zen»; «Aurrendako bakarretan egiten zire soñeko tikiak, nere aurrek bear zuten gisakoak». **gisan** ‘moduan, modura’: «Erraten zute lemexiko umeak aberats gisan azi zuztela». -**en gisa** (utzi) postpos. ‘dagoen bezala’: «Baño sosik ez den tokian obe da denak uztea beren gisa». -**en gisara** postpos. «Bakotxak beren gisara erakusi digute». Ik. **mota**.

**gise** ik. **gisa**.

**gixen** ik. **gizen**.

**gizajo** izond. ‘gizagaixoa’: «Mutiko gizajo bat ze eta uste dut eskolan bezain prestua zela etxean»; «Gizajoari guti irauin zion osasunak».

**gizaldi** iz. ‘mendea’: «Erraten dute amaseigarreneko gizaldikoak direla»; «Oroitu gaitetzen nola Jesukristoren legea ongi jarraitzen zuztenei iltzen zuztela lemexiko iru edo lau gizaldietan».

**gizaseme** iz. ‘gizasemea’: «Jauten zire aurrek eta gizonak, bueno gizasemeak [...] andreik etze jauten».

**gizen**, **gixen** izond. ‘gizena, lodia’. **gizen**: «Orai lau umen ama da eta ez da gizena, baño azkarra bai». **gixen**: «Aur bat arront gixena sortu ze».

**gizendu du** ad. ‘gizendu, loditu’: «Orai ezin ianazi egoten dire, ez dute gizendu nai ez mutikoek eta ez nexkek».

**gizon** iz. 1- ‘gizona’, esam. «*Gizona gizon, seaskatik ere*». 2- ‘senarra’: «Nere gizonak bazue Amaiurko errian bere amain aizpe bat, arront umore onekoa»; «Alargun gelditu berria. Amairu urtez iduki zue bere gizona erbaldua».

**gizongai** iz. ‘senargaia’: «Bakarrik jua zen erratoreain etxera eta erran zio nere gizona zela, laister ezkondu nai zuela»; «Ezkondu zire bi aizpak beren gizon-gaiekin eta meza berean». Ik. **senargai**.

**gogo** iz. ‘gogoa’: «Erran zire berak ori aspalditik zeukala gogoan»; «Baño nik ez nue deus artzeko gogoik»; esam. «*Non gogoan zango*». **gogoan artu du** ad. ‘gogoan hartu’: «Neure baiten egon nitze gogoan artua zein maite zuen onek!». **gogoki daldu** ad. ‘gogoan eduki’: «Ongi gogoan iduki dut neure denboran esaera zar au»; «Baditu etxe orrek kontu anitz, baño iduki bear dut gogoan, nere bi amatxiek etxe ortako alabak zirela»; «Guk aspaldien gogoan gindue oiek zirela». **gogoan pasatu, gogoan pastu daldu** ad. ‘gogoratu, bururatu’. **gogoan pasatu**: «Aurra nitze, baño ez nuen gogoan pasatu ez nuela sekula geiago ikusiko»; «Ez dut erraten alferra zela, ez gogoan pasatzen ere, baizik nik geiago ikusten nuela lanean andreari». **gogoan pastu**: «Orai ioka nezake edozein gauza ez dela gogoan pasten ere»; «Ez degu guk idatzi ez ere gogoan pastu».

**gogo izan du** ad. ‘nahi izan, desira izan’: «Zenbeit [gauza] erran gogo ditut berantago»; «Egun ebetan aski eroria nago, ez dakit akituko duden lan au, egin gogo nue, baño nere burua kexo da»; «Lentxago erran gogo nue orain erran bear dudena».

**gogoko izan da** ad. ‘gustatu, gustukoa izan’: «Ez nue batre ederetsi, lemexien etze deus ere nere gogokoa»; «Laster asi zire berari inguratzen mutil zenbait, baño etze bere gogokoa».

**gogoratu da/du** ad. ‘burura etorri, burura ekarri’: «Nere anaia jua zenez geroz, zerbitzatera juatea gogoratu zitzaide»; «Orduan amari gogoratu zitzaio *aitaren* egitea ur bedekatuarekin»; «Sekula ez nue gogoratu ere denak artiko zirela»; «Nik ez nue gogoratu ere alakoik».

**gogorazi du** ad. ‘gogorazi’: «Eta ori iduki dut anitz denboraz belarrietan. Eta gogorazi dire gauza anitz».

**gogorrazi** *du* ad. ‘gogorrazazi’: «Gauza oiek pixkat gogorrazteko aurra ongi dago».

**gogotik** adlag. ‘oso gustura’: «Gogotik jauten zire eta gogotik ikasten zute»; «Eskeindu? Eman ere eman nezake gogotik».

**gogoz** adlag. ‘oso gustura’: «Gogoz poztu gara».

**goiti** 1- iz. ‘goia, goitia, goiko solairua’: «Niri iduritzen zaide etxe pollita dela, baño lemexiko Jaun artutik onat ez dakit izen naizen goitien». 2- postpos. «Eskuñara, ezkerrera, goiti edo beiti»; postpos. ablatiboarekin, ‘-tik gora, -tik aitzina’: «Lapitxetik goiti Bonbaxilota deitzen da, emen ere ura sortzen da»; «Oroitzen naiz elur aldi aundi batean, elurra belaunetik goiti». **goitiago**: «Goitiago eta ezkerago dago Ademeneko borda». **goitisko**: «Urak ereman ziote beitisko, atera zira uretik eta igan zire goitisko». **goitixago** ‘goitixeago’: «Andik goitixago, eskuin, bada bertze etxe bat tikia ere eta izena du Migelitoña».

**goitibeiti** adlag. ‘goiti-beheiti’: «Iruñara itzuli, eta egun batzuk goitibeiti, iorri zirete bederatzu mile pezta».

**goitika, goitike** (asi, aritu) *da* ad. ‘goitika hasi, egin; botaka hasi, egin’. **goitika**: «Orduko asi ze goitika». **goitike**: «Ni lanean ai nitze, baño izaten nitue barneko odol juate aundi batzuk, beti goitike».

**goitike** ik. **goitika**.

**goiz** iz. ‘goiza’: «Zerura igo zen goiz eder batean». **goiz meza** iz. ‘(goizeko) lehenbiziko meza’. Igande eta jai egunetan goizez ematen zen lehenbiziko meza, beranduago izaten zen meza nagusia. Ik. **meza**. **goizean goizik** adlag. ‘goizean goizik’: «Subilero egunean (abenduaeren ogeitalauren) goizean goizik bi egur aundi paratzen zire suaren bi bazterretan»;

«Goizean goizik Sorogainera juateko bearra izen zue». **goizik** adlag. ‘goizik’: «Irakurtzeko ere izeten nue denbora goizik uzten nuelakoz guatzea aise aski»; «Mateo nora guaie ain goizik? Lanera».

**goizargi** iz. ‘argi-hastea, egunsentia’: «Nere etxea otoitz anitz egiten zen etxea ze. Goizargiko ezkilak iotzen zirelaik, guk *angelus* iru *agurmariekin*».

**goizoro** adlag. ‘goizero’: «Beti bezala, goizoro entzuten nue meza sandua»; «Goizoro egiten dute lan ori eta atsalde-tan...». Beti *goizoro* erabiltzen du.

**Goizueta**. Nafarroako herria.

**goñata** iz. ‘koinata, ezkonarriba’: «Galdera egin zio bere goñata batek: baduzu beldurra?». **goñata bearra** ‘koinatagaia’: «Emakume bat nai dut eta orixe da nik autatua, eta goñata bearrak egin omen zio aski traba paratu, baño denak alde batera utzik, ezkondu zire». Sin. **ezkoinaizpa**.

**goñatu** iz. ‘koinatua, ezkonanaia’: «Goñatuak nai zue ezkondu beraikin eta anitz aldiz eskatu zio eta berak erraten zio ezetz».

**goratu** *da/du* ad. 1- ‘goratu, altxatu’: «Niri aurride guziek obeditzen zirete [...] egundaño ez dire niok esku bat goratu ukitzeko batere, eta berek ere ez niri». 2- ‘handitu, luzatu’: «Ama ez naie Kubara, arara joateko tikia naiz. Ordutik asi ze goratzen eta bere anaietan aundiena eta gañerako anitz baño luzeago zen». 3- ‘gogoratu, goretzi’: «Nik ez dakit nola erri ontan etzagon in oroigarri aundi bat, seme kutuna... edo alako zerbait, goratzeko aren oroipena»; «Emakume ederra aurpegiz eta gorputzez eta aurpegia balin bada animaren ixpildua, anima ere ederrekoa du. Ez dut itzik aski goratzeko merexi duen bezala». 4- ‘indartu, bizkor-

tu': «Nik ez nua ianaí deus ere eta amar ilabete guatzean eta neretako etze andre bat ere niri gogoá pizkat goratzeko». 5- 'eraiki': «Eliza tiki ortara urbil, baze bertze bat Larzabalko (gero iakin dut Landazabal) Ama Birjiñari goratua».

**goren gorenaz** adlag. 'gehienez ere': «Ez du ume batekin ere utzi bere aita eta ama zartokira, goren gorenaz gaixotegira erabaki alde zerbait egitera»; «Neri eginazten zire lan ori eta goren gorenaz amar urte izein nua».

**gorosti** iz. 'gorostia': «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak, sagarrak, arantzelak, urrek, ezpelak, patxaranak, lisontsiak, basa sagarrak, gaztañak, gorostiak...».

**gorroto** iz. 'gorrotoa, gerra': «Oraño Iruritan zego eta egon zen Españako gorroto edo gerraraño»; «Nik ere gorrotoaraño idatzi nua bi egunoro eta bi asteorokotan. Orduen uzteko lana izan nua».

**gose** iz. 'gosea': «Gosea ekintzen niote gauza batekin edo bertzeaikin». **goseak atera** 'goseak atera, goseak gelditu': «Bere etxera juaten zena etze egundano goseak aterako». **goseak egon** 'goseak egon': «Goseak, egarriak, buluxiak dau denendako?». **goseak il** 'goseak hil': «Oraño emen seurik ez da nior goseak il». **goseak utzi** 'goseak utzi': «Nola utzi bear tuzu nere aurtxo ebek goseak?».

**goxo** izond. 'gozoa, atsegina': «Juana Migel ori beti ezpañetan irri goxo eta pollit bat, sanduen gisara, oraiko nagusi gazteain amatxi ze».

**goxogarri** iz. 'gozoa, gozokia': «Eguerdián edo atsaldean andrendako goxogarri zerbait, afaria denentzat eta anitz denendako»; «Arek [bere osabak] erakutsi zio txokolate, bolado, turrón gisa guzietakoak, piper opilak eta goxogarri anitz,

bai eta ere kandela eta argezeriak [egiten]». Sin. **goxokari**.

**goxokari** iz. 'gozoa, gozokia': «Neskatxek Santiago atsalden izaten zute [besta]. Geienean goxokari zenbait, txokolatea eta boladoakuraikin». Sin. **goxogarri**.

**goxoki** ik. **gozoki**.

**goxotegi** iz. 'gozotegia': «Erran zire nere senarrain aixkide baten goxotegi batean lapurrak egon zirela».

**gozo gozo** adlag. 'gozo-gozo, arrunt gozo': «Denak gozo gozo juaten gine etxera». Ik. **gozoki**.

**gozoki, goxoki** adlag. 'gozoki, modu gozoan, gustura'. **gozoki**: «Arront arin eta gozoki, nekatua banitze ere etortzen nitze etxera». **gozoki gozoki**: «Nere amak gozoki gozoki irri alde bat egin zue». **goxoki**: «Arrituik egoten ze nola izen zeiken an gertatu zena, iru anaiak bere arrebek utziek goxoki iaten zutela eta batre kutsetu gabe».

**gozotasun** iz. 'gozotasuna': «Denek utzi dute nere biotzean beren ontasunain gozotasun bat».

**gripp** iz. 'gripea': «Emezortziko agorrillan asi ze Mezkitritzen, gripp deitzen zaion eritasuna»; «Alako gripp ez dut egundano geiago ezagutu». *Gripp* aldaera ere erabiltzen du.

**Guadalajara**. Espainiako Gaztelako probintzia eta hiriburua eta Mexikoko hiria.

**quartu da** ad. 'ohartu': «Lanean ai ziren tokitik quartu zire etxea erretzen ai zela»; «Anitz quartzen zelakoz ikesten zue anitz».

**guatze** iz. 'ohatzea, ohea': «Zangoa sartu gabe guatzean arrosario errezatu gindue belauriko biek»; «Olezko guatze sartu nitze, lan guziak utzi eta olezko guatzean. Erraten da aise aski, baño beti gora beide eta alako gogorkerian, ez da

batre goxua». Beti *guate* aldaera erabiltzen du.

**gurutze** iz. ‘gurutzea’: «Iten zire iru gurutze». **gustu** iz. ‘gustua’. **gustura**, **gustuara**, **gustoara**, adlag. ‘gustura’. **gustura**: «Irriz gustura zeuden». **gustuara**: «Gu, anai arrebak, juan gine oñez etxeraño eta gustuara». **gustoara**: «Gustoara egoten nitze beraikin euskera garbian itz egi-ten». Maizen erabiltzen duen aldaera *gustoara* da.

**guti** izond. ‘gutxi’: «Lan anitz egiten nue, baño sari guti artzen nue». Ik. **gutxi**, nahiz eta *guti* den gehien erabiltzen duen forma.

**gutira gutira**, **gutire gutire** adlag. ‘gutira-gutira, poliki-poliki’. **gutira gutira**: «Gutira gutira sendatu ze». **gutire gutire**: «Gutire gutire juan ze berotuz». Ik. **mantso mantso**.

**gutire gutire** ik. **gutira gutira**.

**gutitu da** ad. ‘gutxitu’: «Bizkarreko oñaziak ere gutitu zire, baño ogei urte gorabera atera zire berriz».

**gutiz gorabera** adlag. ‘gutiz gorabehera, gutiz gorabehera’: «Denbora ontan gutiz gorabera, Sorogainen il zute gizon bat arront ezagutua alde artako toki guzietan».

**gutxi** izond. ‘gutxi’: «Denbora gutxiz bortz edo sei ezteiak izen dire Mezkiritzkoak». Ik. **guti**.

**guzi** zenbtz. ‘guztia’. Beti aldaki hau erabiltzen du, behin soilik *guzti*.

**guziz** adlag. ‘guztiz, erabat, zeharo’: «Eta oroitzen naiz nola odol guziz estalia nindegola, baño ez dut egundaño gogoratu nork garbitu ziren»; «Eta gelditu ze guziz ederra».

## H

**Huarte** ik. **Uarte**.

## I

**iaitzi du** ad. ‘jetzi’: «Afaldu baño len, iaiz-ten zute bei guziak edo iaitzi bearrak».

**ian** ik. **igan**.

**Ibañeta**. Orreagako toponimoa.

**ibar** iz. ‘ibarra, harana’: «Emakume au sortez ibar batekoa eta ezkontzez bertze batekoa».

**ibilalde** ik. **ibilaldi**.

**ibilaldi**, **ibilalde** iz. ‘ibilaldia, paseoa’. **ibilaldi**: «Bere amak egiten zizkio arront soñeko pollitak aurtxoari eta ongi beztie erematen zio ibilaldi bat ematera». **ibi-**

**lalde**: «Goazen guziok, eskuak arturik, ibilalde bat ematera».

**ibili da** ad. ‘ibili’: «Nere bi osaba ibiltzen zire ilak obitokira erematen»; «Anitz aldiz erraten du: zertara etortzen garen! ezin ikusi!, ezin ibili!, ezin aitu!, ezin itzegin!, ezin mogitu!»; «Jaungoikoak bakarrik daki zenbat arat onat ibili ote ziren sendagilletik sendagilletara». Ik. **erabili**.

**idatzi** iz. ‘idatzia, idazkia’: «Ez dute nere idatziek bertze edozein andre batek egin



dituenak, ez eta ere gauza pollitagarik, ez eta oroipen ederragorik»; «Nik ez dakit zer duten Euskal Erriko emaginek. Iru ekarri ditut neure idatzi ebetara, zein baño zein obeak». Ik. **idazti**.

**idazkola** iz. ‘bulegoa’: «Bertze alaba idazkola batean ezkonturaño, lan aundia egiten zue ixil ixila eta arront maite zute»; «Denak idazkola lanak tuzte, bide delineateñak eta bertzek ere ain onak edo obeak, baño denak langileak».

**idazti** iz. ‘idatzia, idazkia’: «Niri emen neure idaztietan paratu dituden guziek ixil ixilik erakutsi dirate anitz»; «Neure biziko oroimen guziak atera dezatela lore mota guzietatik neure idaztietan». Ik. **idatzi**.

**idi** iz. ‘idia’: «Badire bei anitz, idiak, aratxe, zezena Uretan, zaldi, beor, mando».

**idor** izond. ‘idorra, lehorra’: «Ude bero andiko izen gindue, besta beroak eta idorrrak».

**idorrazi** *du* ad. ‘idorrazazi, lehorrazazi’: «Amak idorrazi eta arropa idorrazazi».

**idortu** *da/du* ad. ‘idortu, lehortu’: «Borda atarian egurra bildu eta puskatzen dute eta uzten dute idortzera»; «Aitu izan dut gelditu zela ezin negarrik egin, arront idortua ainbertze egin zuelako».

**iduki** *du* ad. ‘eduki’: «Amairu urtez iduki zue bere gizona erbaldia»; «Nik erran bear delaik gauza zerbait erraten dut, pozoña barnean iduki gabe»; «Arront ongi idukitzen zute azienda guzie».

**iduri** 1- iz. ‘irudia’: «Jesusen biotzain iduria ekendu dutela zenbait elizetaik, baño nik badakit zertaz». Ik. **irudi**. 2- izond. ‘antzekoa, gisakoa’: «Ori eta bertze anitz gauza iduriak gurekin egiten dituenak»; «Senide edo familia ederra azi zute eta seme alabak ama iduria zirela beren langiletasunean». 3- **iduri, iduritu** *da/du* ad.

‘irudi/iruditu’. **iduri**: «Iruritan iduri zue jende aberatsaokoa zela Mezkitritzen baño»; «Uste dut semea izein dela etxeko nagusie, baño ez du iduri baduela presa aundirik ezkontzeko». **iduritu**: «Onei iduritzen zitzaio aurrak txiki txikitatik eman bear zirela Jaungoikoari»; «Gauza oiek pixkat gogorrazteko aurra ongi dago, orduan ez bazire iduritu ere». **idurikeko** izond. ‘iduriko, antzeko, gisako’: «Ori eta ori idurikeko anitz izan dut». **iduriko, idurikos, idurikoz** adlag. ‘ustez, ematen duenez’. **iduriko**: «Nere iduriko, bearbada orai duela egun eta lauetan ogei urte berritua da». **idurikos**: «Nere idurikos xarmanta da». **idurikoz**: «Nere idurikoz, bazkaldu eta afaldu egiten zute elkarrekin»; «Nere gizonak ezagutu zue Baztanen eta beti, bere idurikoz, langile aundia izen da». Anitzez gehiagotan erabiltzen du *iduriko* forma. **iduriz** adlag. ‘ustez, ematen duenez’: «Nere iduriz, arront gizon onak zire»; «Eta badirela lurrean anitz gauza sosa baño geiago balio dutenak, eta denetan bada bat nere iduriz oberena eta da elkarren arteko maitetasuna».

**iduritu** ik. **iduri**.

**ieltso** ik. **igelso**.

**ieltsotu** *du* ad. ‘igeltsuztatu’: «Iruñako gaxotegian ere egontze eta ieltsotu zute ezkerreko besoa gañeraño». Ik. **igelsero** eta **igelso**.

**ien** ik. **igan**.

**ienazi** *du* ad. ‘iganarazi, igoarazi’: «Gure biotzak bigundu dituelako, ienazten duelako gure maitasuna geuren inguruko guziei».

**ifernu** ik. **infernu**. **ifernuko auspoa** iz. ‘akordeoia, eskusoinua’: «Oroitzen naiz erdaraz *acordeón* deitzen ziotela, euskeraz ifernuko auspoa, baño ez gazteriek, andre eta gizon adin aundikoek eta ap Ezek bakarrik».

**igan, ian, ien, iien** *da* ad. ‘igan, igo’. **igan**: «Atera zira uretik eta igan zire goitisko»; «Ikusi ziote zain bat beltz beltza igaten zela burura eta bertze bat besapera»; «Utzi zitue lurreko min guziak zeruko argira betiko igateko». **ian**: «Arrizko eskalera batetik iaten da». **ien**: «Egun artan ien ze zerura»; «Erran zio andre on onei ien zeila nere etxera». **iien**: «Ien zirelaik ikusi zirete eta gelditu zire arri-tuak zenbat artu ziren minek».

**igande, igende** iz. ‘igandea’. **igande**: «Neretako irakurtzia izan da arront maitegarria, orrengatik igandetan eta besta egunetan ori ze nere iosta iokua». **igende**: «Beti egiten nue igende atsaldetan». *Igande* aldaera erabiltzen du beti, behin izan ezik.

**igaro** *da/du* ad. ‘pasatu’: «Karrikan nere ondolik igarotzen badire»; «Zer ameka ilabete igaro zituen aurrak, eta guk ere bai!!!».

**igelse** iz. ‘igeltseroa’: «Bozaten badire zurginak, igelseoak, errotazaiak...».

**igelso, ieltso** iz. ‘igeltsua’: «Erosi nitue ogeita amar zaku ieltso (igelso), amar kare beltz eta mila *ladrillo* etxe barna konpontzeko».

**igende** ik. **igande**.

**iges egin, iges in** *du* ad. ‘ihes egin’. **iges egin**: «Ixil ixila edeki eta iges egin». **iges in**: «Joxe Mari ezin jua ze Españako aldera iges in baizue beretik soldado edo gudari ez izeteagatik».

**iges in** ik. **iges egin**.

**igesi** *da* ad. ‘ihes egin’: «Zenbat igesi dire ordaindu gabe».

**igitei** iz. ‘igitaia’: «Igiteia belarra ebakitzeko».

**igorri, iorri** *du* ad. ‘igorri, bidali’. **igorri**: «Berak erraten zue etxeko nagusiak igorri zuela». **iorri**: «Gure amain anaia batek iorri zio sosa juateko»; «Amak Mezkeri-

tztik iortzen zizkire ango gertaera guziak eta idatzi eta iortzen nitue Iruñara eta bai ere Arizkunguak»; «Eta galde egin nio: zenbat iorriko ditut, zenbat?». Generalean *iorri* aldaera erabiltzen du, *igorri* noizbehinka bakarrik.

**igortzi** *du* ad. ‘igurtzi’: «Olo urineikin igortzi edo gantzutu iten zitzeio aurrari bizkarra eta bulerra».

**iien** ik. **igan**.

**ikasetxe, ikesetxe** iz. ‘ikastetxea’. **ikasetxe**: «Erri batean, baño bat nesken ikasetxean eta bertzea mutikoenean zeude». **ikesetxe**: «Apezgaien ikesetxean egon ze aski denboraz eta berez arront abile zen». Ik. **ikastegi** eta **ikastola**.

**ikaskuntza** iz. ‘ikaskuntza, ikasketa’: «Ikaskuntza bat ona egin zezaten».

**ikastasu** iz. ‘ikasketa’: «Batre ikastasu gabekoak».

**ikastegi** iz. ‘ikastegia, ikastetxea’: «Nere anaiak juaten zire gizonaren ikastegira». Ik. **ikasetxe** eta **ikastola**.

**ikastola** iz. ‘ikastola, ikastetxea’: «Ebek beren umeak azten ai zirelaik eta ikastolan zeitzen denboran, Iruñan erraten zute Iruñako umeik oberenak berak zirela». Ik. **ikasetxe** eta **ikastegi**.

**ikatz, iketz** iz. ‘ikatz». **ikatz**: «Ikatz egiteko balin baze, erematen gindue ikatz egiteko plazara». **iketz**: «Azkenean iketz eta egur erematen etxetara bi ilabete egin zue».

**ikatzkin** iz. ‘ikazkina’: «Aita Ezteribarkoa, ikatzkina ze».

**ikatztegi** ik. **ikaztegi**.

**ikaztegi, ikatztegi** iz. ‘ikaztegia, ikaztokia’. **ikaztegi**: «Dena ongi gelditzen zelaik, ematen zitzaio su eta berdin izaten zire bortz edo sei ikaztoki, eta bertze aldi bazuzte amar edo amabi ikaztegi». **ikatztegi**: «Ai ziren erretzen zazpi ikatztegi». Sin. **ikaztoki**.

**ikazplaza** iz. 'ikatz egiteko zelaitxo': «Aitak botatzen zitue bagoak [...] ikatz egiteko balin baze, erematen gindue ikatz egiteko plazara, eta an inguruka paratzen gindue»; «Aitari mendian laguntzen gindue al guzia, zerratzen gindue egur lodienak eta matakan anitz egiten ginduz aitzkoraikin, gero ikazplazan ematen gindeizko eskura eta paratzen zitue txutik».

**ikaztoki, iketztoiki** iz. 'ikaztokia, ikaztegia':

**ikaztoki**: «Dena ongi gelditzen zelaik, ematen zitzaio su eta berdin izaten zire bartz edo sei ikaztoki». **iketztoki**: «Ai gine egur xeatzen eta biltzen iketztokie-tara». Sin **ikaztegi**. Ik. **toki**.

**ikerlari** iz. 'inspektorea, ikuskatzailea' adierazteko erabiltzen du: «Urte batez etorri ze errira ikerlaria eta ikusi zuelaik zenbat eta zein ongi ikasi ginduen eskolatan erakusten zigutena, gelditu ze bat ina».

**ikesetxe** ik. **ikasetxe**.

**ikesi 1** ad. a) *du* 'ikasi': «Izan dire aurrak, arront aise ikesten zutenak beren ikasi bearrak»; «Nere gaztetasunean ezagutu nuen neska bat ederra eta zoragarria; etortzen ze lankaiakin brodatzen ikestera». b) *da/du* 'jakin, enteratu': «Negar egiten nue ikesi nuelaik aita eta ama ilak zituela».

**ikesi 2** izond. 'eskoladuna, prestatua': «Donostian zerbitzuan egona ze eta lan gisa guzietarik bazekie [...] ongi ikesia ze tiki tikitik»; «Uste dut bartz seme eta bi alaba zituela, denak ongi ikesiak larbarien lan gisa guzietan». *Ikasi* forma ere anitzetan erabiltzen du.

**ikesiaz** *du* ad. 'ikasarazi': «Irakurri dut nai duden guzia, eta berai ere ikesiaz diot zekien baño gexago».

**iketx** ik. **ikatz**.

**iketztoki** ik. **ikaztoki**.

**ilabete, ilebete** iz. 'hilabetea'. **ilabete**: «Nere aita il eta ilabete baten buruan sortu ze nere seigarren alaba». **ilebete**: «Badute bi seme eta alaba tiki bat bartz ilabetekoa»; «Nere aitak berrogeita bat urte ilebete berain bian beteak». Ia beti *ilabete* forma erabiltzen du.

**ilabeteko** iz. 'hilabetekoa, hilabetekaria': «Orduan erran zire, beren asteoroko edo ilabeteko batian atera zela nere eritasun eta sendatze arrigarria».

**Ilarregi**. Ultzamako herria.

**ilazi du** ad. 'hilarazi': «Ez da jorrailla obea gure txerri gaixoeikin, ilazi ditu beren tokian bere elur eta otz aundiekin».

**ilbeltz** iz. 'ilbeltza, urtarrila': «Bertze besta aundi bat egiten da ilbeltzaren ogeian, Sebastian Deunari eskerrak emateko». Esam. «*Ilbeltza xuri, ez ardi ez axuri*».

**ilebete** ik. **ilabete**.

**iler** iz. 'ilarra, banabarra': «Iler pikorra». Ik. **banabar**<sup>3</sup>.

**ilergi** iz. 'ilargia'.

**ileri** iz. 'hileta': «Bere ilerian zito anitz izen omen zen».

**ilerri** iz. 'hilerria': «Ilerrian nere ondoan egon ze amalau urteko nexka eta arritu nitze zenbat negar egin zue».

**ilerrosi** ik. **ñarrosi**.

**ilkutxa** iz. 'hilkutxa': «Erraten zue berak eta bere aitek sartu zutela ilkutxan».

**Illarraz**. Esteribarko herria. Deklinatua: *Illarrazko*. (of. **Ilarratz**).

**illoba** iz. 'iloba': «Bere mezetan an zire bi billobak eta illoba bat».

**iltzele** ik. **ilzale**.

**ilunabar** iz. 'ilunabarra, arrastiria, arrastia': «Baño asi ze ilunabarrean ifieztura eta ortots aundi ikaragarriak egiten».

3 Uretako Santiago Agorretaren arabera, Erroibarren iler <alubia> da, eta maiatz-iler <guisante>.

**ilundura** iz. 'ilundura, atsekabea, tristura': «Niok ez daki ze ilundurak igaro nituen nik nere alaba zarrena sortu baño len»; «Geienek ilundura aundi bat agertzen dute beren aurpegian»; «Denbora ilun aiek, ilunak bai, ezongitasunain ilundurak».

**ilupe** izond. 'ilupa, ganoragabea': «Gizon ilupe».

**ilzale, iltzele** iz. 'hiltzailea'. **ilzale**: «Nik ez dakit inguroko errietakoak ziren ilzaleak edo erri bereko biotz gabeko zenbait ote zen». **iltzele**: «Artu zitue gizon iltzelearen bortz alabak eta eraman zitue bere etxera eta berak azi zitue [...] ilzalearen umeak».

**in** ik. **egin**.

**inalak** ik. **eginal**.

**inale** ik. **eginal**.

**inazi** ik. **eginazi**.

**indar, inder** iz. 'indarra'. **indar**: «Juan zire nere indarrak eta nere oiñarría jua ze nik ez nue deus indarrik eta deustako ez nue balio». **inder**: «Inder aundikoa izen da, baña osasune juanez geroz, aniz gauza juaten dire». Era bertsuan erabiltzen ditu bi formak, baina lekukotasun gehiago ditu lehendabizikoak. **indarrean** adlag. «Gero nonbait indarrean zire eta asi ere etxe berria egiten eta zain zañetik».

**indartasun** iz. 'indarra': «Izen dezatela bear duten indartasuna beren gauza guzietan»; «Baño galdera ori ez dut gorputzeko indartasunain gañera egiten, ez; nere galdera da animaren indartasunaz». Anitz erabiltzen duen hitza da.

**indartsu, indertsu** izond. 'bizkorra, azkarrá'. **indartsu**: «Etxe ortako denak kristau izen dire eta emakume indartsuak Jaungoikoaren indartasunarekin. Denak goian beude!». **indertsu**: «Iruñan bizi naizen denboretan ezagutu nue aspaldik andre bat, ezin indertsuagokoik izetean».

**inder** ik. **indar**.

**indertsu** ik. **indartsu**.

**inezi** ik. **eginazi**.

**inezтели** iz. 'eginarazlea': «Ala nola irri inezte-liak badiren, negar inezte-liak ere badire».

**infernu, ifernu** iz. 'infernua'. **infernu**: «Infermura jua». **ifernu**: «Ifernuko auspoa».

**inguratu, inguretu** *da/du* ad. 1- 'inguratu': «Xurigorri neskatxa, begi urdin oso pollita. Laster asi zire berari inguratzen mutil zenbait»; «Guazen guziak eskuak arturik ibilalde bat ematera, inguratuaz dermio guziak Mezkiritzko erria ezagutzera»; «Negu gogorra dago eta otz aundiak inguretzen digute iluntzean». 2- 'bildu, lotu': «Aurra erri ontako senar emazte batzuk bilatu zute, trapu zar batean inguratua»; «Ilbeltzean atsalde batez etorri ze nere aita, asto gañan gizon bat ongi inguratua, zer da? nor da? Ze nere amain aita [...] alborengo edo pulmonia zue». Behin izan ezik, *inguratu* aldaera erabiltzen du.

**inguretu** ik. **inguratu**.

**inguru** 1- iz. 'ingurua': «Putzu aundi bat baze, erriain erdian. Ogei andre edo neska inguruan egon zaizke garbitzen». 2- adlag. 'inguruan, gutxi gorabehera': «[Etxe artan] iru urte terdi inguruan egin nitue»; «Eta etorri ze eguerdi inguruan sendagillea».

**ingurualdi** iz. 'ingurualdia': «Erramu goiztean [...] bedeikatzen diren abarrak, eman ondoan ingurualdi bat elizari goratzen dira eta gero egiten tuzte gurutze batzuk».

**inguruka** adlag. 'buelbaka': «Ikatz egiteko balin baze, erematen gindue ikatz egiteko plazara, eta an inguruka paratzen gindue».

**inikeko** ik. **egin**.

**inport izan** *da/du* ad. 'inporta izan, axola izan, ardura izan': «Orai ez zaide inport»; «Bertze batzuei ez dakote batre

inport»; «Errain diozie anitz aldiz *Perfecta*, baño ez du inport, Perpetua da eta ala deitu bear zaiο»; «Argentinan bizi ze eta ez nue sekula ikusi, baño otoitz egiteko etzue deus ere inport».

**iñalakin** ik. **eginal**.

**iñarrosi, ilerrosi** *du* ad. 'inarrosi, astindu'.

**iñarrosi**: «Argia-kandela biztu omen zue eta iñarrosi omen zio, baño etzelaik deustarako mogitu [...] iduritu zitzaio ilik zegola». **ilerrosi**: «Ilerrosi zitue bere soñeko guziak eta suge aundi bat erori zen lurrera».

**iñauteri** iz. 'inauteria, inautea': «Mezkiritzen ez da izen ezta Olentzeroik ez eta santa Ageda ere, an iñauteriak bakarrik».

**iñela** ik. **eginal**.

**iñeztura** iz. 'oinaztura, tximista': «Asi ze ilunabarrean iñeztura eta ortots aundi ikaragarriak egiten».

**iorri** ik. **igorri**.

**ioztale** iz. 'igorlea': «Gizon sukaldera ioztale orrekin asi naiz».

**iostetan** adlag. 'jostetan': «Bai idatzi dut lenago, denak iostetan ibiltzen zirelaik karreteran arat onat igandetan ni euskeraz idazten Donostiko Argiako eta Baionako Euskaldunako».

**iostirudi** iz. 'jostirudia, komedia': «Eskolan igande atsaldetan iostirudi ederrak egiten zuzte».

**iozale** iz. 'jotzailea': «Bozaten badire zurginak, igelseoak, errotazaiak, txistulariak, danbolinen iozaleak».

**iper aize** iz. 'ipar haizea': «Iper aizea agertu da arratsaldean eta izotza eginen du gaur artsean». Ik. **ego aize**.

**Ipete** Mt.

**Ipezelai** Mt.

**ipui** iz. 'ipuina': «Neure amatxin ipui edo kontuekin»; «Denak gozo gozo juaten gine etxera eta bidean oraño amak izeten zue zer erran, ipui pollit bat».

**ipurdi** iz. 'ipurdia'.

**ipurdixilo** iz. 'ipurtzuloa'.

**irail** iz. 'iraila', sin. **agor**.

**irakin, irekin** *du* ad. 'irakin'. **irakin**: «Ongi irakin ondoan, gibelatzen zute eltzea». **irekin**: «Ongi irekinik ura eta esnea eman nio»; «Garbitzen zute olloa barnetik, olloa eta lepoa eta egal bat botatzen zute ura irekiten zegan eltzera».

**Irañeta**. Arakil ibarreko herria.

**irasi** *du* ad. 'fundatu': «Uste dut bizi zen denboran gauza ebek irasi zituenak egiten zituela bere juan etorriak»; «Oraño etzue niorek irasi an serora etxeik batere eta berak zire lemezkoak».

**iraspen** iz. 'fundazioa': «Emakume sandu onek lau iraspen seirik egin zitue».

**Irazabaleta, Irazabalta** Mt. (of. **Irazabaleta**).

**irazi, irezi** *du* ad. 'irabazi'. **irazi**: «Egun guzia arropa garbitzen irazten dut bortz pezeta»; «Eta ola ederki irazten dute beren sari ona». **irezi**: «Ala eremanez jarraitu zire berak irezten asi artio»; «Pixket irezi nue».

**irekin** ik. **irakin**.

**irenoi** iz. 'iranoia, giranoia, hestegorria, esofagoa': «Ebakidurat aundia egin ekentzeko irenoia ez nue iakinen eta, ain segur, ilen nitzen lenago».

**iretsi** *du* ad. 'irentsi': «Ori kopeta tikia zue-nak etzuke iretsi»; «Gaixuak, berak ere zenbait naigabe iretsiak ditu bere denboran!».

**iretxe** iz. 'iratze': «Ardi borda da eta uste dut anitz iretxe eta belar sartzen dutela».

**iretztor** iz. 'iratzorra, iratze saila': «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, [...] gorostiak, orreak, lar alde guzietatik eta iretztor aundiak eta ederrak...».

**ireun** *du* ad. 'iraun': «Bi urte ireun zue aurein gaizkitasunak»; «Ezin ireun gelditzen ze, ezin segi».

**ireundazi** *du* ad. 'iraunarazi': «Al guzia ireundazi bear da».

**irezi** ik. **irazi**.

**Iriberry**. Artzibarko herria. (Euskal izena **Hiriberri**).

**Irikoian, Iriko oian** Mt. (of. **Irikoian**).

**irin** iz. 'irina': «Nere aitak erran zue nere-tako zaku bat agotz, orain irin biurtu da»; «Denak uzteko lana izen gindue, zerengatik etzen ogik saltzeko. Etze egiten, etzelakoz irinik egiteko».

**irri** iz. 'barrea': «Nere amak gozoki gozoki irri alde bat egin zue».

**irri egin** *du* ad. 1- 'irri egin, barre egin, bur-la egin': «Nik ez dut maite niorei irri egitea sortu direlakoz toki batean edo bertzean».

**irrimurrixke** iz. 'irrimurria, irribarrea': «Irimurrixke bat egin zue erraterakoan ez nuela ongi egin juatea»; «Beti irrimurrixke ezpañetan».

**irrinazi, irrinezi, irri inezi** *du* ad. 'irri eginarazi'. **irrinazi**: «Umore oneko gizona bakarrei irrinazik juantzen bertze alde-ra». **irrinezi**: «Erraten zute gauza anitz eta denak irrinezteko». **irri inezi**: «Beti irri inezi naiez».

**irrinezi** ik. **irrinazi**.

**irringarri** izond. 'irringarria, irringarria, barragarria': «Etzuela bear bearrezkoa irabazten zuena, merexi zuena, irringarriko sari bat eta, gañera, artaik saritu bear geurek denek sendagilleak eta gañerako gauza anitz».

**irriz** adlag. 'irriz, barrez': «Denak irriz gelditzen omen zire».

**irudi** iz. 'irudia': «Ganbara berean dago Mariano eta Mercedesen irudi bat». Bizpahiru aldiz soilik ageri da *irudi* forma. Ik. **iduri**.

**iruetan ogei**: zenbzt. 'hiruetan hoge, hirurogei': «Afaltzen ere iruetan ogei seurik bazire»; «Iruetan ogei eta amabietara noaie».

**Irone** iz. 'Hirutasuna, Trinitatea': «Erran zigu indar aundia bear ginduela gaitza ai irabazteko eta ori bakarri izain ginduela betiko Irone edo Irutasunetik».

**Iruñea, Iruña**. Nafarroako hiriburua: *Iruña* (beti). Deklinatua: *Iruñai* (behin), *Iruñan* (gehienetan), *Iruñen* (frankotan), *Iruñako* (gehienetan), *Iruñeko* (frankotan), *Iruñara* (ia beti), *Iruñera* (bi aldiz). (Euskal izena **Iruñea**, of. **Iruña**).

**Irurita**. Baztango herria. Deklinatua: *Iruritan*, *Iruritako*, *Iruriteko* (bi aldiz), *Iruritara*, *Iruritatik*.

**iruritar**. Herritar izena: Iruritakoa.

**Irurzun**. Nafarroako herria. Deklinatua: *Irurzunen*, *Irurzuna*. (Euskal izena eta of. **Irurtzun**).

**Irutasun** ik. **Irune**.

**iruzki** iz. 'eguzkia': «Iruzki ederra goiz goizetik»; «Nere seigarren alaba sortu ze. Neretako izan dire sei iruzki eder nere bizian argitzen zutena nere ilundura guziak»; «Iruzkia ez da agertu goiz guzian»; «Asi zire ume ekartzen eta iruzkie bezain pollitek».

**iruzurtu** *du* ad. 'iruzurtu, iruzur egin': «Zaldian nagusiak iruzurtu zuen giltzepeian egon zen orduetan».

**iserki egin** *du* ad. 'iseka egin': «Eta irrinez erran ziote: tori, zure andregai eta gorde zazu ongi, iserki egiñez».

**istenpat, ixtenpat** iz. 'istant bat, une bat'.

**istenpat**: «Orduan istenpat solasean egon beraikin eta igorri zigu aztertuzera». **ixtenpat**: «Ixtenpat egon nitze gogoratzen zer egin al zuten».

**itexure** iz. 'itaxura': «Itexuriain azpian egoten gine denak».

**Itolegi**. Aurizberriko toponimoa.

**itsaso, itxaso** iz. 'itsasoa'. **itsaso**: «Aur onek sendatzekotan bear du itsaso bazterrera erematea». **itxaso**: «...Itxasoko gizonen».

- dako..., etze nior gelditzen gure otoi-tzetaik kanpo». Bi aldaerak ageri dira.
- itsu** izond. 'itsua': «Izeba etze etortzen al, itsua zelakoz»; «Ezkondua ze eta segido erran zirete bere senarra itsua zela, irugarren aurrak sortu bear zuelaik, usteik gutianean itsutu zela».
- itsusgarri** izond. 'itsusgarria'.
- itsusi** izond. 'itsusia': «Eta geiago oiueginez, erran zio anitz itzik itsusiena andre batendako... puta!!!».
- itsutu da** ad. 'itsutu, ikusmena galde', ik. **itsu**.
- Iturrixar, Iturrixar Mt.** (of. **Iturrixar**).
- itxaropen** iz. 'itxaropena, esperantza': «Zure baitan daukat paratua nere itxaropen guzia».
- itxaso** ik. **itsaso**.
- Itxaso**. Lapurdiko herria: «Bankako, Urepelgo, Aldudeko, Baigorriko, Itxasoko... aidekin aurkitzen gine oñaldira». (Euskal izena **Itsasu**, of. **Itxassou**).
- itxoegin du** ad. 'itxoin, itxaron': «Emakume onek etzue ixtenpaik tikiena artzen pixket itxoegiteko».
- itz egin du** ad. 'hitze egin, mintzatu': «Bai eta ere nai dut berek, nere billobek, ikasi dezaten nere euskera bera itz egiten, irakurtzen eta idazten». Sin. **mintzatu**, **mintzo izan**, **solas egin**, **solastatu** eta **solastu**. Gehien erabiltzen dituenak *itz egin* eta *solas egin* dira.
- itzal, itzel** iz. 1- 'itzala': «Iduritzen zitzaide sobera irri egin nuela aren kostura, artu nue gauza itzal puskatekin». 2- 'itxura ona, prestigioa': «Niri iduritzen zaide, itzel geiago duela gizonen andrendako eta andrek gizonendako»; «[Maria Ana Sanz] ze ederra eta itzel aundiko emakumea». Gehiagotan erabiltzen du *itzel* aldaera.
- itze** iz. 'iltzea'.
- itzel** ik. **itzal**.
- Itzelberoki Mt.**
- itzeli du** ad. 'itzali': «Itzel zazu su au eta ez badezu itzeltzen zu zera lemexiko erreko zarena!»; «Pretrolio argia itzeli zitzaio».
- itzulazi du** ad. 'itzularazi': «Akorduik gabe gelditzen nitze eta ezin itzulazi niok».
- ixil** 1- izond. 'isila': «Zer oñazeak ote zitue!, baño ain ixila zen!». 2- adlag. 'isilik': «Arriturik ain ixil zegola». **ixil ixila**: adlag. 'arrunt isilik': «Asi ze gaztena oiue eta zalapartaka eta an ziran guziak gelditu gine ixil ixila»; «Lan aundia egiten zue ixil ixila eta arront maite zute». **ixil ixile**: «Ixil ixile bere lanetan». **ixil ixilik**: «Ixil ixilik nindego eta, gutik uste nue-nean, etorri zitzaide galdetzeraz»; «Beti ixil ixilik, umil umila». *Ixil ixila* da gehien erabiltzen duen aldaera, batzuetan *ixil ixilik*, behin bakarrik *ixil ixile*.
- ixilazi du** ad. 'isilarazi': «Ezin ixilazi niondik ere».
- ixildu da** ad. 'isildu': «Mezkiritz erri tikia da, baño izan zire egunak iru iltzirenak, eta ez dakit zenbat egunez gertatu zen ori, bakarrik dakit il ezkilak ixildu zirela».
- ixilik** adlag. 'isilik': «Gertaera aundia da ixilik uzteko».
- ixiltasun** iz. 'isiltasuna': «Zein ongi erakusten diguten beren ixiltasunean!».
- ixpildu** iz. 'ispilua': «Ganbara berean dago Mariano eta Mercedesen irudi bat. Mariano berak egina ixpildu batekin»; «Emakume ederra aurpegiz eta gorputzez eta aurpegia balin bada animaren ixpildua, anima ere ederrekoa du».
- ixtenpat** ik. **istenpat**.
- ixter** iz. 'izterra, zangoa'.
- ixtripu** iz. 'istripua': «Egazkiñain ixtripuak denak desin zitue»; «Biribil ixtripu aundi bat izen zute».
- izakera** iz. 'izaera': «Baña emakume onek zue izakera bat ain ona».
- izan, izen, zan da** ad. 'izan'. **izan**: «Pilotari onak beti izan dire Mezkiritzen».

**izen:** «Bi ilabete buruan aurreraren izen bearra»; «Bakotzak bere etxean lan aski izeten du». **zan:** «Etxe batean xoko anitz zuten da». **zena, izan** aditzaren iraganeko hirugarren pertsona mugatua, ildakoa aipatzeko: «Naigabe franko izen zitue Petra zenak»; «Osaba zenain mezetan egon zelaik»; «Aita zenai arront gaizki jua ziztaio Juana- ren ezkontza».

**izen ik. izan.**

**izer** iz. 'izarra'.

**izigarri** izond. 'izugarria': «Gripe deitzen den eritasun izigarri orrekin».

**izitasun** iz. 'izutasuna': «Eztitzeigui ongi iduritzen gañan zeudenen arrokeriak, eta izitasun edo azpian zeudenen beldurtasunak». Ik. **beldurtasun**.

**izitu da** ad. 'izutu': «Izituak bezala gelditzen zire».

**izotz** iz. 'izotza, horma': «Bat etorri ze eta erran zue berotasun aundia paratzeko, baño beroaikin makurrago paratu ze. Bertze batek erran zigu izotza paratzeko»; «Elur aundia daukagu inguru guzian, izotz biurtua».

**Izozta** Mt.

**Izoztako ireztorriek** Mt.

**izpiritu** ik. **espiritu**.

**izurri** iz. 'izurria': «Nere amatxik erraten zue, lenago errian izan zela izurri edo pestea deitzen zela eta jende anitz il zela»; «Emezortziko agorrillan asi ze Mezkitzen, gripp deitzen zaion eritasuna, baño urte artakoari deitu zeike izurrie, zein gaistoa!».

## J

**Jabier** ik. **Xabier**.

**jaketa -en,** kausazko mend. «Bier, jaketa emen naizen, jua bear degu apezain etxera ezagutu dezagun elkar, iakin dezala norekin zazin zu»; «Jaketa emaginez mintzo naizen, sor eta sor ondoko oitura batzuk erran bear ditut».

**japones** iz. eta izond. Mezkitzen izen- goitia: «Emengo seme alabak arront langileak dire. Japonesak deitzen tuzte, beren lanak eta bertzenak egiten dituzte-lakoz».

**jaunartze** iz. 'jaunartzea': «Berrogeita borte- zean egin zue lemexiko jaunartzea nere irugarren alabak».

**Jaungoikoa** iz. 'Jinkoa': «Ori Jaungoikoak daki»; «Manatzeko, beti gizona eta andre gaixoa beti obeditzen, ola Jaungoikoak bakarrik daki zenbat urte jua diren gisa ortan». *Jaungoikoa* da gehien era-

biltzen duen forma. Ik. **Jinkoa** eta **Zeruko Aita**.

**jaurbide** iz. 'errejimen (?)': «Bortz urtez jaurbide aundi batekin iduki zirete eta uste dut sendatua naizela».

**jaurlari** iz. 'gobernadorea': «Bahia Blanca deitzen den tokiko jaurlariak (gobernadoreak) eta eman ziate anitzen altzinean bakotzak urrezko *medalla* (erdaraz) bat ederra».

**Jaurrieta.** Nafarroako herria.

**Jenaroin etxea** Mo. Ik. **Juan Migelenea** eta **Rikardoña**.

**Jerusalen.** Israelgo hiriburua. (Euskal izena **Jerusalem**).

**Jinkoa** iz. 'Jaungoikoa': «Jinkoak daki bakarrik zer kostatzen zaiden etxetik ateratzia»; «Jinkoain izenean zaude etxean». Ik. **Jaungoikoa, Zeruko Aita**.

**joale** iz. 'joarea': «Errege bezperan joaleakin».



**jorraill** iz. ‘apirila’: «Ori gertatu zen mila bederatziegun eta ogeian jorraillaren amabortzean»; «Jorraillaren ogeita zazpian il zitzaide neure amatxi maite maitea». Sin. **april**.

**juan da** ad. ‘joan’: «Ni eskolara juaten nitzanean». Beti *juan* forma erabiltzen du, behin soilik *joan* eta *guan*. **juan berri** ‘joan berria’: «Oraño juan berria zelaik, bertze bat il ze Amerika eta Mejiko artean, tiroz ila izan ze». **fraile juan, monja juan** ‘komentuan sartu’: «Lemexikoari ama il zizaion eta aunditu zelaik serora edo monja juan»; «Badakit egon zela monja juan baño len Erroibarko etxe batean [...] eta etxe artako ume guziak, seme zarrenaz landa, juan zirela dena fraile eta monja». **ez ongi juan** ‘ez gustatu’: «Eztitzego ongi juan apetzai nere ateraldia»; «Irriteko neskatxei etzagote ongi juan zu emengo mutil batekin ezkontzea». **zazi** = zoaz: «Zazi zer iduritzen zitzaion»; «Zazi lasail edo trankil».

**Juan Antonioña** Mo.

**juan-etorri** iz. ‘joan-etorria’: «Ez dut uste egun bat ere gelditzen zela bere juan etorria egin gabe»; «Gauze oietaik artzen nitue juan etorri batean».

**Juan Ferminena** Mo.

**Juan Krutzena** Mo. «Zirkutuña, baño orai duela egun urte deitzen ze Juan Krutzena».

**Juan Martinena** Mo. «Lenago etxe onei deitzen ziote batzuek Juan Martinena, bertze batzuek Paxkualana (senar emaztarian izenak), orai deitzen diote Xeberoiña». Ik. **Xeberoiña**.

**Juan Migelenea** Mo. «Egin berrian deitzen ze Arakiñena, lenagokoa zen bezala, gero erdiek deitzen ziote Juan Migelenea; iltze nere aitetxi, gero gutik ustenean deitzen ziote Rikardoña; iltze nere aita, eta ogete sei urtez utzi nio neure aizpa bateri eta etzioten nere aizpaña ematen, eta nerea gutiago; erraten ziote Jenaroin etxea. Eta nere ustez etxe batek beti ereman biar luke izen bera». Ik. **Rikardoña** eta **Jenaroin etxea**.

**Juanena** Mo. «Baño nagusi bat iltzen bada ematen diote nagusi berriña, eta erraten diote Joxeña edo Juanena edo Martinena».

**Juanexpaiña** Mo. «Lenago deitzen ze Juanexpaiña eta saldu zue eta erosi zuenak berri zue eta aundiago gelditu ze. Orai deitzen da Florentxiña. Sarri deituko dute Alfonsoña. Nereakin bezala egiten badute, Zirkutuñe edo Juan Krutzena». Ik. **Florentxiña**.

**Juanikotena** Mo. «Juanikot erraten ziote bere nagusiar eta orrengatik deitzen ze Juanikotena».

**Juanistoanena** Mo. «Bartoloin etxeain gibelatik lotua zego Juanistoanena, ez dakit billobena den edo Bartolok erosi zuen».

## K

**Kalifornia**. Ameriketako Estatu Batuetako estatua. Deklinatua: *Kalifornie* (non): «Bazue denbora Kalifornie. Alderdi artan bizi ze».

**kalitz** iz. ‘kalitxa, garatxoa’: «Barnean duzun kalitz aundi batek ez du uzten pasatzera deus ere».

**Kana**. Israelgo hiria.

**kandela** iz. ‘kandela-argia’: «Erroibar guztik etortzen zire meza nagusira eta kandela anitz bizten zire sanduaren ingurutik eta altzinean»; «Bateian ere erematen ze kandela ederra eta bateiatzen zen arrak ez bazue anaia bat, bataio sanduaren

denboran kandela biztue idukitzeko idukitzen zue lengusu batek».

**kandelera** iz. ‘kandelario-eguna, Garbi-kunde-jaiaren izena’: «Gero kandelera egunean bedeikatzen zire kandela alde bat eta argizeriak urte geieneko etxe bakotxian»; «Bedeikatu ondoan elizgira bat eliza inguruan emeten ze kandela bistuekin eta gero meza abestua. Ori dena kandelera egunean. Biramonean, San Blas meza tenore berean».

**kangrena** iz. ‘gangrena’: «Pozoña zela eta orgatik sartu zitzeiola kangrena besotik burura eta besotik biotzera artua zela».

**kanpo** iz. 1- ‘(eraikuntza baten) kanpoaldea’: «Orai etxe guziak ongi apainduak dire barnetik eta kanpotik». **-tik kanpo** postpos. «Euskal Erritik kanpo, ez dut ezagutzen ez emakumeik eta ez gizonik»; «Ni juaten nitze ikastera, baño eskolatik kanpo». **kanpoko** izord. ‘bertakoa (herrikoa) ez dena’: «Gureak angoak bezalakoak dire, dena garbi iduki lezakete, baño kanpokoei berdin zaiote zikin dauden bazterrek eta arrazonai-kin angotarrek ez degu ikusi nai alakoik». **kanpora** adlag. «Senide edo familie desin ze, iru kanpora eta bi zarrenak erri berean gelditu zire»; «Ortarako ez naiz kanpora atera»; «Orduen etzen kanpora deustako juaten».

**kanpotar** iz. ‘(herritik) kanpoko’: «Igande anitez erria betetzen da kanpotarrez eta zein eder den ainbertze elkarrekin bat artuak!».

**kanton** iz. ‘kantoia, iskina’: «Erroibarko etxea [...] ederra ze lau kantonekin eta aski aundia».

**kantuz** adlag. ‘kantuz’: «[Nire aita] mendian kantuz egoten ze, kantuz mendian zegolaik, etxean igual».

**karabinero** iz. ‘karabineroa, mugazaina’: «Mutil onek, berak juan bearrean, iorri

zitue karabineroak, arrepa zezaten nere aitari».

**kare** iz. ‘karea, gisua’: «Erosi nitue ogeita amar zaku ieltso (igeltso), amar kare beltz eta mila *ladrillo* etxe barna konpontzeko».

**karesti** izond. ‘garestia’: «Oiek ain segur karestiek izein dire».

**karraxi** iz. ‘garrasia’: «Bat batean, nere amak egin zue karraxi aundi bat».

**karrika, karrike** iz. ‘karrika, kalea’. **karrika**: «Karrikan nere ondotik igarotzen badire». **karrike**: «Erri berean bi karrike biltzen dire batean». Era bertsuan ageri dira bi aldaerak.

**karrike** ik. **karrika**.

**kaska** iz. ‘kolpea’: «Ori ez duenak igaro ez daki zer kaska artzen den buruan, biotzean, gorputz guzian, ez da erraten al».

**kaso in du** ad. ‘kasu egin’: «Kaso in biar dugu».

**Kataluña**. Herrialdea. Deklinatua: *Kataluña*, *Kataluñara*. (Euskal izena **Katalunia**).

**katedera** iz. ‘katadera, aulkia’: «Balin baze nere anaia bat, juaten ze nere senarraikin eta ni sukaldean katedera batean iarrikan».

**katuli** iz. ‘katilua’: «Ematen zioite katuli bat esnez eta ogi zopaz betia».

**Kaudiel**. Valentziako Erkidegoko Castelló probintziako Kaudiel herria. Deklinatua: *Kaudielko*.

**kaxpel** iz. ‘kazpela, kazola’: «Eltzeak negurri guzietakoak bazire, kaxpel edo *sope-ra* erdaraz».

**kazkarabar** iz. ‘kazkabarra’: «Aski txarra izen da aprile eta maiatzaz gara beldur, kazkarabarrez aseko duela eta gauze onez arront xur».

**keda** iz. ‘ilun-ezkila, ilunabarreko azken ezkila-hotsak’: «Gero bedratzietan iotzen dire gure erriko elizan iru danda, mantxo mantxo, gero bertze iru berdin

eta gero bertze iru ondarrak. Ezkil iotze onei deitzen zaio *keda* eta erreztatzen dira iru *aitagure* garbitokiko animendako». Ik. **danda**.

**kerren** iz. 'suaren gainean errekiak egiteko -axuria gehienetan- erabiltzen den burdina'.

**kexo izan** *da* ad. 'kexu izan, atsekabeturik egon': «Etorri zen jaun orren eskutitza, erranez alderdi artan etzela nior ere kexo unaiaz»; «Nere burua kexo da eta ez da ain errax ola egonez... deus egitea».

**kider** iz. 'giderra, kirtena': «Nik uste nue endaia kiderra autsi zela, berak ere kiderrai begiratu zue».

**Kiniotak** Mt. (of. **Kiñoeta**).

**kiskil** izond. 'erdenagarria': «Erran zirete [...] bota zuela bere etxetik gizon kiskil bat».

**kisu arri** iz. 'gisu-harria': «Lurra kisu arrizkoa dute».

**kisu** iz. 'gisua', ik. **kisu arri**.

**kisulabe** iz. 'gisu-labea, karobia': «Zenbait mendien izenak ebek dire: Iriko oian, Kisulabeko oian, Berregu. Ebek biek lurra kisu arrizkoa dute eta leen egiten zire kisulabeak».

**Kisulabeko oian** Mt. (of. **Kisulabeko oihan**).

**kitarra** iz. 'gitarra': «Soñu mota guzietarik obekiena kitarra iotzen omen zuen».

**Kixkilen benta** Mo.

**kixkorratu** *du* ad. 'kizkorratu': «[Txerria] il eta kixkorratzen zute, ekenduz bilo edo illea».

**kixkur** izond. 'kizkurra': «Bilo kixkurra denek».

**kixkurretu** *da/du* ad. 'kizkurtu': «Nere bilo kixkurretueikin iostatzen zire».

**koko** iz. 'garondoa' (<nuca>).

**kokotx** iz. 'kokotsa'.

**kolde** iz. 'goldea': «Beiekin pasten gindue koldea, eta gero ongi ailtzurtu».

**Kolixena, Kolixenea** Mo.

**kolko** iz. 'kolkoa', esam. «*Neskazarrak, aurra kolkoan*»; «*Baztandar tuku tuku, kolkoan mile marakuku*».

**koloka** ik. **loka**.

**komekatu** *da* ad. 'Jauna hartu, komulgatu': «[Erran zuten] Ama Birjiña egunean airtortu eta komekatu zirala *Batallón* guzia».

**Kondearena** Mo.

**konfirmatu** *du* ad. 'sendotza (sakramentua) eman': «Eta atsaldean konfirmatu zue gure erretore jaunak eta bi egunetan il ze emen».

**Konpostelako Santiago**. Galiziako hiria.

**kontensko** adlag. 'aski pozik': «Gizona kontensko».

**kontent** adlag. 'pozik': «Orrekin kontent egoten gine»; «Gutire gutire asi ze lakeztzen eta lasaitzen, eta denak kontent».

**kontra** postpos. 1- '-en kontra, -en ondoan': «Errekain gañeko aldean bada baratze bat eta berain kontra etxe bat». 2- '-en aurka': «Egundaño ez zue itze erdi bat nioren kontra errain»; «Aitaren arreba batek burua berotzen zio bere andreain kontra».

**kontrabandoan** adlag. «Nire aita kuxetan eta kontrabandoan [ibili zen], baña egun guzia lanean pastu eta gero artsean duro batengatik pakete bat kartzera edo ematera».

**kontu** iz. 1- 'gaia, gauza, arazo': «Aspaldiko kontua ze»; «Bere kontuak edo bizimoduak erraten zire, baño bertzen gauzetan etzue itz bat erranai». 2- 'arreta, ardura': «Berreguko mendian kontu aundiaikin erabili bear da. An daude leze geienak»; «Aurrekin kontu, ez daike sobera galderak egin bear»; «Bakarrik dakit Aurizberriko karabineroek erran ziotela nere anaiari kontu iduketzeko». 3- 'ipuiña': «Umek ere bai maite zirate, ebei aise ze maiteaztea ipui edo kontu batzuk kontatu eta segido zuriak dire». 4- 'gastua':

«Denak berak ordaindiko zituela, sendatzeko ere berak egingo zituela kontu guziak». **kontu kontari** adlag. «Artzen zirete besoetaik eta atsalde guzia kontu kontari». **-en kontura** postpos. ‘-en gain, -en kostura’: «Zenbait urtez egon nitze meatza geuren kontura, saritzen nue eskatzen ziretena eta altzine»; «Berak garbitu eta iatera eman, buluxi, beztitu, dena bere kontura». **kontu zar, kontu zikin** iz. ‘txutxu-mutxua, enbusteria’: «Egundafio ez nitze bein ere kontu zarrekin jua ez nausi eta ez etxekoandreaingana»; «Baño bizi guzian jua ze egiareske, kontu zikinik gabe».

**konzilio** iz. ‘kontzilioa’: «Konzilioa aspal-diko bearra ze».

**kopeta** iz. ‘kopeta, bekokia’: «Ori nai gindue bi beatz kopeta ginduen guziek». Sin. **bekoki**.

**korda** iz. ‘soka’: «Uste dut minbizia zuela eta iakin zuelaik zer zuen korda bat artu eta fini».

**Kordoba**. Argentinako hiria.

**koropilo** iz. ‘korapiloa’: «Asi zitzaide oñaze aundi batzuk eskuñako bularrean eta ezagutzen ze bazirela barnean koropilo aundi batzuk».

**kortse** iz. ‘kortsea, gerruntzea’: «Emezortzi urtez ereman dut burdinez eta idi larru gogorrez inikeko kortse batekin».

**Kostarzu**. Arizkungo toponimoa eta base-rria (of. **Kostartzua**).

**kostille** iz. ‘saihets hezurra’.

**kostura** postpos. ‘-en kostura, -en kontura’: «Iduritzen zitzaide sobera irri egin nuela aren kostura».

**kotxineta** iz. ‘kuxineta’, joko mota bat (Ibarra 2007: 88): «Lapurrak ai direlakoz beren lan zikinetan [...] Alako kotxinetan alke guti izanen dute».

**kuadjutore** iz. ‘koadjutorea’: «Berrogei eta amabi urtez kuadjutore egon ze».

**Kuba**. Ameriketako estatua.

**kukurruko** onomat. ‘kukurruku’: «Bai ama, eltzean duzun ollar orrek kukurruko eginen duen bezala, eta bitartean egin zue kukurruko aundi bat, ama gelditu omen ze pixka bat ikaratua».

**kurexa** iz. ‘guraizea, artazia, aitzurra’.

**kurritu** *da/du* ad. ‘korritu’: «Ogei andre edo neska inguruan egon zaizke garbitzen eta ez ze ur zikinik biltzen. Kurritzen ze aniz»; «Astozañak kurritzen zue zalui eta lanak eginak izeten zire segido».

**kutsetu** *da* ad. ‘kutsatu’: «Batre gogoratu gabe kutsetu zeizkiela, jua ze eta gabas eta egunez an egoten ze zaintzen».

**kuxeta** iz. ‘koilara’: «Nere aitain aita eta nere amain aita anaiak zire biek, ezpelezko kuxetak egiten zute».

**kuxetari** iz. ‘koilara egilea’.

## L

**labaki** iz. ‘luberria’: «Lur gutikin gelditu gine eta labaki berri bat egiteko lana izen gindue».

**Labakixar** Mt. (of. **Labakixarra**).

**labe** iz. ‘labea’.

**labrari** iz. ‘laboraria, nekazaria’: «Ezin sinetsi zute anitzek nola ezkondu ote zen irakasle

on ure labrari batekin»; «Uste dut bortz seme eta bi alaba zituela denak ongi ikesiak labrarien lan gisa guzietan». Ik. **nekazari**.

**Ladrantzubi** Mt.

**Ladronerreka** Mt.

**lagun, laun** iz. ‘laguna’. **lagun**: «Ortarako ongi eldu zitzaio lagun bat». **laun**: «Asi

ze lan batean egundano egin etzuenean, argin launtako». Erregulariki *lagun* erabiltzen badu ere, bizpahiru aldiz ageri da *laun* forma. **lagun projimo** ‘lagun hurkoa’: «Sobera langileak [...] eta prest beren lagun projimoari edozein laguntza egitera».

**lagundi** iz. 1- ‘bakartegia, komentua, kongregazioa’, ik. **bakartegi**. 2- ‘enpresa, konpainia’: «Erran zioten lagundi zenbait egiten bazute milloii bat paratuko zitula berak ere [...], baño andik denbora guti gabe, asarratu zire [...]. Nere idurikoz, sos eskas zute berek egiteko eta lagundik etzute nai».

**laia** iz. ‘laia, nekazaritzako tresna’.

**laiatu** *du* ad. ‘laiatu’: «Emakume onek belarra pikatzen ere bazekie bere denboran, bai eta ere laiatzen ere».

**laister** ik. **laster**.

**laisterka** adlag. ‘lasterka’: «Niri gelditu zitzaide gauza ilun bat neure barnean eta laisterka asi eta ez gelditzeko nion...»; «Ez nuen gogoan pasatu ez nuela sekula geiago ikusiko, ez nuela sekula laisterka ikusiko».

**laisterkari** iz. ‘lasterkaria, korrikalaria’: «Nik ezagutu nue gizon ure laisterkari ona».

**laketu** *da/du* ad. ‘laketu, lekukotu’: «Baño egina nitzen denetara eta laketu nitze segido»; «Anitz aldiz jendeak ez du laketzen toki ederraokoan, ezin aztatu bertzen naiak egiten»; «Argentinara juan ome ze, baño ezin laketuz itzuli omen zen».

**lamia** iz. ‘lamia’: «Mezkiritzko Lusarretako eta Esnozko egian bada leze estali bat, eta deitzen dute Lezeestali eta bertan bizitzen omen zire lamiak, eta bazter aietara ateratzen omen zire iruzkire orraxtatzera, urrezko orraxekin»; «Lamiarritako gauza zerbait erraten zute

[Bozaten], Lamirritzen arri zabal aietan garbitzen zutela lamiek beren arropak».

**Lamiarrita**. Arizkungo toponimoa. (of. **Lamiarrieta**). Ik. **lamia**.

**lanabes** iz. ‘erreminta’: «Nekazarien lanabesak edo erramientak». Sin. **erramienta**.

**lanbide** iz. ‘lanbidea’: «Orai bada errietan lanbide geiago eta ez dute zetaz ateratu etxetik kanpora lan geigo egiteatik».

**landa** 1- iz. ‘pentzea, alorra, lantzeko on den lur eremua’: «Errira urbil, sagoi ederrak eta zabalak; bai eta ere landa aundiak; ebetan makal eta lizar asko»; «Erri berean [Mezkiritzen] bi karrike biltzen dire batean. Asten bagara Txorondoko barri-detik, ola da: puxke bi aldetaik landa bakotxain paretak dire, deitzen da Txorondoko ertea». 2- postpos. ‘-z landa’: «Badakit [...] etxe artako ume guziak, seme zarrenaz landa, juan zirela dena fraile eta monja».

**Landazabal** Mt.

**langar** iz. ‘langarra’: «Zanketako maldatik Olbide ganeraño anitz badago langarra».

**langiletasun** iz. ‘langiletasuna’: «Arront goratzen zue bere ontasuna eta langiletasuna».

**lankai** iz. ‘langaia, makina-tresna’: «Gereñe juaten goizoro ikastera goizetik eskuz brodatzen eta atsaldetan lankaiakin»; «Okindegiko lankaiak moztu zion beso bat».

**lantzurde** iz. ‘lantzurda, antzigarra’: «Lantzurde izeten da abenduan Lasturren, orregatik gizon edo andre bati burua xuritzen zaiolarik erraten da: ori ere lantzurdeak artue da».

**laño** iz. ‘lainoa’: «Anitz aldiz badago langarra eta laño».

**Lapitx** Mt.

**Lapitxko iturri** Mt.

**lar** 1- iz. ‘laharra’: «Olbidetik Sakartera denbora guti dago, baño lar anitz badago mendi ganeraño»; «[Nire senargaiak] ereman zire Iruritako erretorea ezagutzera, eta berak erran zire lur bat batre lan egina, lar guziak berekin, ori zela baño lur ona zela». 2- adlag. ‘gehiegi’: «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak [...] gaztañak, gorostiak, orreak lar alde guzietatik».

**laronbat** iz. ‘larunbata’: «Laronbat arts batean, oroitzen naiz, bago zar aundi batei su eman nio etxera urbil aski zelakoz eta egur anitz zuelakoz».

**larrain** iz. ‘larraina’: «Etxe au aundienetaik bat da. Badu larrain bat ederra eta andik sartzen dute agoztegia: belar, agotz eta bertze gauza anitz»; «Atsaldian erri guzia dantzatu zen larrain batean».

**Larrainondo** Mt. (of. **Larrañondo**).

**Larrainzar** Mt.

**larre** iz. ‘larrea, bazkalekua’ (oihanik gabekoa): «Txoriek larretan mintzatu eta abestu egiten dute».

**Larreberoki** Mt. Ik. **Berokisoro**.

**Larreburu** Mt.

**Larregain** Mt. Deklinatua: *Larregañen*, *Larregaingo* (behin), *Larregaineko* (behin), *Larregañera*.

**larri 1** iz. ‘maindrea, izara’: «Su inguruan paratzen zuzte larriek edo maindiriak ongi idorrak eta epelak denbora berean». Sin. **maindire**. Ik. **eltzelarriko**.

**larri 2** izond. ‘handia’: «Arara [lezera] botatzen baduzue arri batzuk larriak denborain buruan aitzen da arroitu aundiak arriek egiten zuztenak, iotzen zutenak saietsetan».

**larru** iz. 1- ‘pertsonek larrua, azala’: «San Juan goizeko intza ona omen da sendatzeko larruko eritasunak, sarna eta ori iduriak. Zenbait larru gorrian iraultzen dire sagoietan edo belaietan ederki»;

«Nik galde egin nio zer eritasun zen ori eta erran zire dena agotena zela, ur bat ateratzen zela dena gorputz guzitik, eta larru guzia aldatzen zela egunoro eta urteoro bat bedere iltzan zela barride ortan, eritasun orrekin». 2- ‘animalien larrua’ (soina estaltzeko): «Ordue al bezala etorri zire etxera ur urean eta amak idorrazi eta arropa idorrak parazi eta artu burutik larru bana».

**lasai, lasail** adlag. ‘lasai’. **lasai**: «Etorri ze bere etxera eta lasai lasai erran zue: ama ez naie Kubara, arara joateko tikia naiz».

**lasail**: «Gelditzen zire arront lasail»; «Ola lasail gindaude afera ortaz, baña Markina jauna ustei gutiengan il ze eta gelditu gine asi len baño makurrago». Ia beti *lasai* ageri bada ere, bizpahiru aldiz erabiltzen du *lasail*.

**lasail** ik. **lasai**.

**laster, laister** adlag. ‘laster’. **laster**: «Nere gorputza arindu ze laster». **laister**: «Etorri zen laister eta galdin zio nere amatxiri». Era bertsuan erabiltzen ditu bi formak.

**Lastur**. Erroibarko toponimoa. Ik. **lantzurde**.

**latz** izond. ‘latza, gogorra’: «Latza izen ze bide ura egitia, baño bere sinismen aundiarekin egina izen ze».

**lauetan ogei** zenbtz. ‘lauretan hoge, laurogei’: «Gaur jorraillean ogeita laua, lauetan ogeita iru urte bete ditu».

**laun** ik. **lagun**.

**lazkagarri** izond. ‘ikaragarria, izugarria’: «Erraten du lazkagarria dela, anitz auriltzen direla, eta denetan oberena litzekela sendagile bat bedere balitz an [Zairen]».

**leer, ler** adlag. ‘leher, anitz’. **leer**: «Leer guzia txatarra bildu eta saldu egin zute Mezkiritzko jendeak». **ler**: «Beldur nue

errain zirela ler gauze aitu ez nituenak»; «Uste zute kanpokoek ler diru bazutela, baño etze egia».

**leertu, lertu** *daldu* ad. 'lehertu'. **leertu**: «Anka beltz eta azitua leertzera». **lertu**: «Kiste aundi bat lertua eta apendizere lertua»; «Nik beti uste izan dut zain zerbait autsi edo lertzen zela barnean».

#### **Legarre** Mt.

**legonar** iz. 'legenarra': «Erraten zute Bozateko jendeak legenarra zutela eta geienak iltzen zirala eritasun orrekin»; «Amar legernar aietatik bat bakarra itzuli zela eskerrak ematera eta bertze bederatzien umeak zirela legonar aiek eta, orgatik, urteoro iltzen zela eritasun orrekin bat».

**legez ezkondu** ik. **ezkonazi**.

**leio** iz. 'leioha': «Etxetik iauzi egin zue leio batetik aitaik».

**leka** iz. 'leka': «Zazpi pikorreko leka».

**lekaretxe** ik. **bakartegi**.

**Lekaroz, Lekarotz**. Baztango herria. Deklinatua: *Lekarotzko* (bi aldiz), *Lekarozko* (behin). (of. **Lekaroz**).

**Lekuona** Mo. Ik. **Pilotaioku**.

**lemexiko** izond. 'lehenbiziko, lehendabiziko': «Neri lemexiko jaunartzea berak eman zire»; «Urtean lemexiko egunean, ostatura juaten ziren guziaz, ematen ziote ogi eta ardo naikoa. Erriko kontura». Ik.

**lendabiziko. lemexiko meza** 'meza berria': «Urte ontan eman zue lemexiko meza nere senarrain illoba batek». Ik. **meza berria**.

**len** adlag. 'lehen': «Len aur guti juaten ze eskolara eta nexka geiago mutiko baño».

**len baño len** adlag. 'lehenbailehen': «Bere semeari egin zio eskutitz bat, len baño len juateko etxera, lan anitz bazuela egiteko». **len leneko** zenbtz. 'lehen-lehenekoa, lehenbizikoa': «Auzkertu egiten gindue eta beti irabazten zute, bein len lenekoa irabazi gindue».

**lenago** adlag. 'lehenago, aspaldi': «Lenagoko gauzak niri erran bezala erraten dut»; «Nere amatxik erraten zue, lenago errian izan zela izurri edo pestea [...] eta jende anitz il zela». **lenagoko** izord. eta izond. 'lehenago, aurreko': «Eskuñeko etxea berria da. Altzinekoa edo lenagokoa erre ze eta deitzen ze Gartxotena»; «Orai Mantxiko ez da lenagokoa, Jaunari eskerrak»; «Lenagoko urte batean lur sagarra eraiten baze alor batean, bertzean, alor berean ogi pikorra eta ongi aski ematen zue».

**lendabiziko** izond. 'lehendabiziko': «Lendabiziko edo lemexiko aurrai aietxi amatxiak erran dut neure bataioan nor izaten diran; baño bigarren aurrenak izaten dire amain aita eta aitain ama». Ik. **lemexiko**.

**lengo** izord. eta izond. 'lehenago': «Bakarretan erraten nue ez nituela utziko lengoak iakin izan banu bertze aiekin egon bear nuela»; «Eta orai berean bizi bada lengo aur aietatik ezagututzen da nork erakutsi zion».

**lengusina, lengusine** iz. 'lehengusina'. **lengusina**: «Sendatu nitzelaik, nere amak seme gaztenaikin juan nai zue Arizkungo errira, amain lengusina batengana, alar-gun gelditu berria». **lengusine**: «Nik banue lengusine bat bertze anitzen artean. Au bizi ze Frantzian».

**lengusine** ik. **lengusina**.

**lengusu** iz. 'lehengusua': «Baigorri bazi-tue lengusu eta illoba alde bat».

**lenik** adlag. 'lehenik': «Andrea il zizeio lenik eta denbora gutin buruan il ze bera»; «Labaki berri bat egiteko lana izen gindue. Gereingo lur puska bat ederra eman zigute eta [...] lenik sasi guziak moztu ginduze».

**lentxago** adlag. 'lehentxeago': «Lentxago erran gogo nue orain erran bear dudena».

**lepo kiribizta** iz. ‘gorbata’: «Gu ezkondu ginelaik, Iruritako batek erran zire nere senarrari ez zekola ongi eldu lepo kiribizta edo erdaraz *corbata*, langintza zuelakoz eta nik erran nion: nere errian ezkondu da eta an langintza duenak erematen du, eta nekazari gaztek ere bai, baño adin puska bat duenak ez».

**ler** ik. **leer**.

**Lerida**. Kataluniako probintzia eta hiria. (Euskal izena **Lleida**).

**lertu** ik. **leertu**.

**letagin** iz. ‘letagina’.

**leze** iz. ‘leizea’: «Nere amatxik erraten zue leze ortara bota zutela karlistek bertze aldeko manazale baten andrea»; «Aurra zelaik oraño, erori zitzaio anaia bat leze-  
ra zazpi urtetan».

**Lezeara** Mt.

**Lezeestali** Mt. «Mezkiritzko, Lusarretako eta Esnozko egian bada leze estali bat, eta deitzen dute Lezeestali». (of. **Lezes-tali**, Lusarretako toponimoa).

**Lezemotz** Mt.

**Lezo**. Gipuzkoako herria.

**libretu** *du* ad. ‘libratu, erditu’: «Aurra bearean zego andrea eta libretzean il ze».

**libretu berri** iz. ‘erdi berria’. **libretzeko min** iz. ‘erditzeko mina’: «Andre libretu berriari, asten zeneko libretzeko minekin paratzen zute ura berotzen, bezko aundi bat eta eltzelarriko bat».

**Ligezta** Mt. (of. **Ligatzeta**).

**Ligeztako askak** Mt.

**Ligeztako xokoa** Mt.

**ligualdi** iz. ‘jipioia, kolpea’: «Denbora gutiz utzi zute bakean nere senarra, bere bertsolaritasuna agertzen zitzaio eta prest ziranak ligualdi bat edo bertze ematera ere bazire... Jaungoikoak barka dezotela denei»; «Gizajoa, dena kolpatua, dena odolguriz bete; urte bat osoa kosta zitzaio pixke bat sendatzea [...] Nere aita

ligualdi arekin aski buru motelaikin gelditu zelakoz».

**ligutu** *du* ad. ‘jipoiu, kolpatu’ «[Nire senarra] emen [Iruñean] ere ligutu zute».

**Lintzoain, Linzoain**. Erroibarko herria. Deklinatua: *Lintzoaingo*. (of. **Lintzoain**).

**lisontsi** iz. ‘intsusa’: «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, [...] patxaranak, lisontsiak...».

**Liukuntxe, Lukuntxe** Mt. (of. **Likuntxe**).

**lixu** iz. ‘lixiba’: «Orduan denak ongi egin bear zire eta denak eskuz; lixu aundiak, xagonadak eta ogia ere etxean egiten ze»; «Bi zarrenek egiten ziotte garbitasun guziak, berdin lixuak nola xagonadak».

**lixue egin** *du* ad. ‘lixiba egin’: «Lixue egiteko erematen zutela erri bereko emakume zenbait». **lixue garbitu** *du* ad. ‘lixiba garbitu’: «Neguan lixue garbitzera juaten zirelaik garbitoki edo putzura denak beren esku izoztuakin lanean». Ik. **xagon** eta **xagonada**.

**lizar** iz. ‘lizarra’: «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak...».

**lizuiñe** izond. ‘lizuna’: «Gizon azkar bat arront lizuiñe iduri zue gorputz guzitik».

**Llabariko, Llabaiko** Mt.

**llagur** izond. ‘laburra’: «Nik ez dakit zenbat denbora egoten ziren, baño niri llagur iduritzen zitzaide».

**Llallarena** Mo.

**lo moker** ik. **moker**.

**loi** iz. ‘lohia, lokatza’.

**Loiola**. Gipuzkoako Azepeitia udalerriko auzoa eta santutegia.

**loka, koloka** izond. ‘(oilo) loka’. **loka**: «Ollo loka». **koloka**: «Oillo koloka paratzen zutelaik arrotzekin, arrotze bakotxari ematen ziotte kandela bedeinkatuarekin». *Loka* eta *koloka*, biak ageri dira.

**lokarazi** *du* ad. ‘lokarrarazi’: «Ni oroitzen naiz abesti ebek niri lokarazteko abestutzen zirelaik».



**loretoki** iz. 'lorategia': «Lemexikoak [badu] baratze pollit bat ona eta loretokia ere bai». Ik. **toki**.

**lote** iz. 'epaitza, egur lotea': «Egur loteak markatu eta ematea bakotxai berea; baño bederatzi ilabete bizi bear du errian»; «Orai ematen dute bertze lote bat ikatzakoa».

**lotsatasun** iz. 'lotsa': «Lotsatasun aundi bat artu zue».

**lugaritz** iz. 'orezta, orina': «Pekak, lugaritzek deitzen dire euskeraz».

**lukerike** iz. 'lukainka, txistorra': «Tripota, lukerike eta bertze gañerakoak egiteko etze andre bat ere etortzen gure etxera».

**lur** iz. 1- 'lurra, dermioa': «Au etxe aundienetaik bat da, badute lur anitz etaazienda ederra». 2- 'zoru': «Ez da gizon bat ere lurrain gañean buruz artu al duenik ama baten poz aundiak aurra berekin duelaik, sortu ondoan, berai beidetzen igaro dituen denborak»; «Neure aitari entzuna dut lurretik azpian ziren pareta kosta zitzagola lurretik gañekoa baño geiago».

**lur lan** iz. 'lur-lana, nekazaritza': «Argentinan, Patagoniako alderdian, jaurla-

riak eskindu zioite lur alde bat eta ola asi zire lur lanean».

**lur azpi** iz. 'lurpea, zorupea': «Ioka nezake edozein gauza zuk aise bile zindezakela lur azpiko urak, bai eta ere meatza nondik daien». Sin. **lurpe**.

**lur sagar** iz. 'lursagarra, patata': «Basurdek ere badakite lur sagarrendako toki ona dela, arara juaten dire seurik lur azpitik ateratzera bere letagan eta muturrekin»; «Lenagoko urte batean lur sagarra eraiten baze alor batean, bertzean, alor berean ogi pikorra eta ongi aski ematen zue». Ik. **patataerri**.

**lurpe** iz. 'lurpea, lur azpia, zorupea' «Anka moztu zioite, baño bertze [atake] bat eman zio eta arek bota zue lurpera». Sin.

**lur azpi**.

**Lusarrea**. Aintzioako oikonimoa.

**Lusarreta**. Artzibarko herria.

**Lusarretako egia** Mt.

**Luzaide**. Nafarroako herria.

**luzetasun** iz. 'luzetasuna, luzera': «Bi metro eta zazpi zentimetro luzetasuna».

**luzetu** *du* ad. 'luzatu': «Luzetu zute bere bizia, baño azkenean il ze».

## M

**Madrid**. Espainiako hiriburua. Deklinatua: *Madriden, Madridera, Madridtik* (behin), *Madridetik* (behin), *Madriddik* (behin). (Euskal izena **Madril**).

**mai** iz. 'mahaia': «Ikusi nue mai baten gañan»; «Etortzen zirelaik ikustera aurrak sartzen zire mai azpire».

**maiatz** iz. 'maiatza, orrila', sin. **orril**. **maiatzeko bazko** iz. 'Bazko maiatzekoa, Mendekoste': «Maiatzeko bazko biramonean biltzen zire mutilak eta egun guzia besta izaten zute».

**mailu burdin** ik. **burdin**.

**maindire** iz. 'izara': «Su inguruan paratzen zuzte larriek edo maindiriak ongi idorrak eta epelak denbora berean». Sin. **larri 1**.

**maingu** izond. eta iz. 'maingua, herrena': «Seme maingua ere etze sendatu deus ere, baño zapatarri egin»; «Izen zitue denbora gutietan iru aur eta gaztena sortu ze maingue».

**maingutu** *da* ad. 'maingutu, herren gelditu': «Gaztena sortu ze maingue eta, gañera, birtartean senarra maingutu zitzeio, gaixoa!».

**maitatu, maitetu** *du ad.* ‘maitatu’. **maitatu**: «Gizon guziak zure anaiak dire, maitatu bear dituzu gisa ortan». **maitetu**: «Maitetuz elkar beti bake sanduan bizi zire denak»; «Bai aise da maitetzea erbaldua, mainguak...». Bi aldaerak ageri badira ere, gehiagotan erabiltzen du lehenbikoa.

**maite izan** *du ad.* ‘gustatu’: «Nik maite izan dut eta maite dut eskulan den guzia eta mota guzietarik»; «Baño ez dute maite deitzea agoteak».

**maitetasun** *iz.* ‘maitasuna’: «Orrengatik niote bie maitetasun aundi bat».

**maitetu** *ik.* **maitatu**.

**maitezi** *du ad.* ‘maitarazi’: «Nik maite izen dut beti maitegarria zelakoz. Baño berzte gauza batek ere maitezten zire».

**maixtro** *iz.* ‘maiusa’: «Dozena erdi bat ongi kontatuik [izan nitue atzetik], bat Billabako maixtro bat».

**maiz** *adlag.* ‘anitzetan’: «Onak direnak... maiz deituak izaten dire». **maixko** ‘nahiko maiz’: «Maixko juaten nitze iakitera nola ziren». **maiz aski, aski maiz** ‘maiz aski, anitzetan’: «Nere amatxik maiz aski erraten zue»; «Aski maiz etortzen zire senar emazteak gurekin egun batzuk egotera». **maiz maiza** ‘maiz aski, anitzetan’: «Orai badaie nere denbora, badaie altzina, baño gauza aundik nekez egin dut nik, baño tiki anitz bai, eta maiz maiza»; «Eskutitzak maiz etortzen zire, baño nik ere aite eta amai maiz maiza egiten niote».

**makal** *iz.* ‘makala’: «Errira urbil, sagoi ederak eta zabalak; bai eta ere landa aundiak; ebetan makal eta lizar asko».

**maketo** *izond.* ‘maketoa’: «Euskalduna ize-nik ere, ez balin Baztangoa, deitzen zute belarrimotza eta urrungoa izetea ia maketoa».

**makil sarde** *ik.* **sarde**.

**makulo** *iz.* ‘makulua’: «Beti ikusi nue bi makuloren gañean».

**makur** 1- *iz.* ‘ezbearra, zorigaitza, kaltea’: «Bada denbora ez dudela nior ikusi, baño makur bat izen bazute iduritzen zait aituko nuela»; «Iduri zue etzela makurrik batere etxe artan»; «Zerengatik berak ez zuen ikusten bere gaitza eta ortan zego bere makurre». 2- *izond.* ‘okerra, txarra’: «Urbilen maiatzaren lenean juan gine, baño aski bide makurrik dire juan eta etortzeko Mezkiritzetik arara eta Xabiartik Mezkiritze»; «Sendagillea gelditu ze arriturik, aurpegi makurra xuxendua». 3- *adlag.* ‘gaizki’: «Biramonean izan nitze eta erran zire ila bezala zegola, arront makur, eta astero juaten nitze». **gero eta makurrago**: «Nik ez dakit zer zen, baño sendagilleak izen txarra eman zion eta gero eta makurrago paratu nitze». **makurren makurrena**: «Mutil onek, berak juan bearrean, iorri zitue karabinerioak, arrepa zezaten nere aitari, eta aisa denendako baño nere aitaindako makurren makurrena».

**makurkeria, makurkerie** *iz.* ‘gaiztakeria, okerkeria’. **makurkeria**: «Gure makurkeriak zigortuak izaten zire»; «Barkamendua eskatu zazu Jesusei egin dezun makurkeriaingatik». **makurkerie**: «Guk, nornaiei egiten bagindio makurkerie zenbait, juan bear gindue barkamendua eskatutzera len baño len».

**makukerie** *ik.* **makurkeria**.

**makurtasun** *iz.* ‘makurtasuna, txarrerako joera’: «Eta erran nio: nik ez dut sekula deus egiten amets iteko. Ori geuren gañetik dago, ori eta bertze anitz gauza iduriak gurekin egiten dituen, ez da deus makurtasunik ametsetan».

**makurtu** *da/du ad.* ‘makurtu, okertu, okerrera jo, hondatu’: «Eman zire gure Jauna galdinez ia makurtzen banitze nai

nuen oliedure artu»; «Sendagillek erran zute zain bat ebaki ziotela eta arront makurturik gelditu zitzaio ezpañak, agoa eta aurpegi guzia... min egiten zue ikustia bakarrik»; «Nere amatxik maiz aski erraten zue Jaungoikoak utzi zekolai munduari bere eskubideak, gizonak artu zituela eta gizonak denak makurtu zituela, berdin lege gizonak nola eliz gizonak».

**Malaga.** Andaluziako probintzia eta hiria.

**mallu burdin ik. burdín.**

**malluzke** iz. 'mailua, mailutxoa'.

**man ik. eman.**

**manai du** ad. 'eman nahi'. «Bi aldetaik manai izen zute»; «Etxe artaiek etzeike goseak atra, beti zerbait manaiez, soñekoak ere aise maten zitue».

**manatu du** ad. 'agindu': «Manatzeko beti gizona eta andre gaixoa beti obeditzen»; «Denetan oberena litzekela sendagile bat bedere balitz an eta aren manuek edo manatzen duena egin».

**manazale** iz. 'manatzailea': «Bertze aldeko manazale baten andrea»; «Ikustean manazaleik aundienak eskatzen zigula lan ori egitea».

**Mandabideko etxea.** Aldudeko oikonimoa.

**mandatu** iz. 'mandatua, mezua': «Oroitzen naiz nola bein nere aita olako mandatu bat ematera juan zen egun batean, lenik Bankara, Bankatik Baigorriara, Baigorritik Arizkuna eta gero Bozatera, dena oñez; eta gero etxera». **mandatuak egin du** ad. 'erosketak egin': «Nik mandatu anitz egiten niote eta ez nekote batre sarrik ekentzen neure lanaz, bakarrik kostatzen zena, erosten zelaik zerbait».

**mando** iz. 'mandoa': «Etxeko okindegian lan anitz egin ondoan, juaten ze ogi saltzera mandoarekin etxez etxe».

**mandozain** iz. 'mandazaina': «Ortan atratzen da mandozain bet».

**mantso mantso** adlag. 'mantso-mantso, poliki-poliki': «Asi nitze mantso mantsoa, gutire gutire». Ik. **gutira gutira**.

**mantsotu da** ad. 'mantsotu, geldiagotu': «Emakume au ia mantsotua zego, ezagutzen ze ia bazuela adin puxka bat eta sobera lodi zegola».

**Mantxike.** *Frantziska* ponte izenaren hipokoristikoa: «Afarie prestatzen ai zelaik erran omen zio senarrak: zer aur ederrak ditugun! Mantxike! Gero eta ederragoak eldu dire!».

**Mantxiko.** *Frantzisko* ponte izenaren hipokoristikoa: «Mantxiko, zetaz erraten dituzu gauza zikin oiek?»; «Orai Mantxiko ez da lenagokoa, Jaunari eskerak».

**manu** iz. 'agindua': «Pio amargarrenain (orduko Aita Sandua) manua»; «Niri aurride guziek obeditzen zirete itz bat erran gabe, iduri zute denak naietan izeten zirela nere manue artzeko».

**Mañuelaña** Mo. «Mañuelañaik ere badu bere larrain eta baratze ederra. Beti Mañuelana deitu da nere denboran». [*Manuelaiña, Manuel Antonioña* (Saragüeta 1979: 10)].

**margazki** iz. 'marraskia': «Margolari ona ze eta ikusi dut margazki bat arront ederra Ama Birjina bere seme ederrarekin besotan».

**margolari** iz. 'margolaria': «Nere billoba zarrenak ameka urtetan margolaria izan nai zue»; «Mariano margolari edo pinto-rea zen».

**Mariiturri** Mt. (of. **Mariturri**).

**Mariturriko erreka, Mariiturriko erreka** Mt.

**marmar** iz. 'marmara': «Eta erlauntza guzietan entzun ze marmar aldi bat eta juan gine geuren etxera».

**marraza** iz. 'ganibet handia': «Ez duzu sekula entzun ze lanabes edo erramiente-

kin egiten diran ezpelezko kuxetak? Nik errain dizut. Eskuzerra, lantzeko aizkora, marraza...». Ik. **eskuzerra**.

**marrest** iz. 'marraskia': «Egin nue meza emateko alba deitzen dena, nik lankaiakin egin nue berak nai zuen bezalakoa, berean paratu gindue lore ederrak, eliz marresti guzietarik eta gelditu ze guziz ederra».

**marruxketa** iz. 'marrusketa' (zurginen erreminta): «[Ezpelezko kuxetak egiteko lanabesak] eskuzerra, lantzeko aizkora, marraza, zellua eta marruxketa».

**Marterena** Mo.

**Martin Antoniona** Mo. «Lenago Bartoloin etxea deitzen ze Martin Antoniona». Ik. **Bartoloña**.

**martxo** iz. 'martxoa', esam. «*Martxo ez ariko eta ez artxo*, ola deitzen zaio epailari, zerengatik ez du bizik utzi ez ariko eta ez artxoari». Sin. **epaill**.

**matakan** iz. 'zuhaitz adarraren zati luzexka, metro batekoa edo': «Aitari mendian laguntzen gindue al guzia, zerratzen gindue egur lodienak eta matakan anitz egiten ginduz aitzkorakin, gero ikazplazan ematen gindeizko eskura eta paratzen zitue txutik ikatz egiteko»; «Erran zirete Kataluñan bein batez artu zuela matakan aundi bat eta beraikin eskutan bota zuela bere etxetik gizon kiskil bat [...] eta artu zuelaik matakana eskura gizonak laister egin zue kanpora»; «[Nere gizonari] matakan bateki jo ziote eta artaik zue marka buruan».

**matel** iz. 'matela'.

**matelezur** iz. 'matelezurra'.

**Mauleon**. Zuberoako hiriburua. (Euskal izena **Maule**).

**maunka** iz. 'mahuka': «Gero paratzen ziztaio atorra arizko bat me meia beso maunkekin eta gañetik iaka edo kamiseta lodixeokoa».

**maurgi** iz. 'marrubia': «Garagarrillan amabortzetik ogeiera asten zire maurgiak»; «Maurgi denboran, amak berekin erematen zitue ume geiena».

**me** izond. 'mehea': «Aitak botatzen zitue bagoak eta gero ezentzen gindeko abar eta egur me guziak»; «Lauak arront me meak».

**meatz** iz. 'mehatza': «Nik meatz orrengatik izen ditut naigabe aundiak».

**Meaurdin** Mt.

**meetasun** iz. 'mehetasuna, ahulezia': «Eta gelditzen bada zerbait erran gabe [...] uste dut aise buruz artuko duziela nere buruain meetasuna»; «Aurra sortzeko eguna etorri ze eta bere [amaren] meetasuna gelditu ze arront meatusa». *Metasun* eta *meatasun* aldaerak behin ageri dira.

**Mejiko**. Ameriketako estatua. Deklinatua: *Mejikon*, *Mejikora*, *Mejikitik*. (Euskal izena **Mexiko**).

**Mendabia**. Nafarroako herrria.

**Mendiaundi**. Aurizberriko toponimoa.

**Mendibixker** Mt.

**Mendiederra**. Erroibarko Larraingoa eta Urniza herrietako toponimoa.

**Mendigain**. Olondrizko toponimoa.

**mendiko katu** iz. 'basakatu': «Badire axeri, erbi, mendiko katuak eta basa auntzak».

**Mendikoain** Mt. (of. **Mendiko oihan**).

**Mendixuri**. Auritz, Aurizberri eta Kintoko toponimoa. «Mendixuri agertzen da ondo edo zolan»; «Bankara juaten gine Mendixuritik barna».

**menturatu** *da* ad. 'ausartu': «Ni atrebitu txar bat nitze nonbait, bertzenaz ez dakit nola menturatzen nitzen ain eskola gutiekin...».

**merexi izan** *du* ad. 'merezi izan': «Langileak dire eta jende langilek merexi dute errekustea al guzia».

**Mérida de Yucatán**. Mexikoko hiria.

**meza** iz. ‘meza’: «Onendako egin nue meza emateko alba deitzen dena, nik lankaiaikin egin nue berak nai zuen bezalako».

**meza berri** iz. ‘apaiztu berriaren lehenbiziko meza’: «Bi lengusu agertu zire, bat meza berria ematera eta bertzea laguntzera». **meza eman du** ad. ‘meza eman, meza esan’: «Eliza tiki ortan, denbora ona balin bada, ematen da meza nausia eta txarra balin bada, ematen da erriko elizan»; «Urte ontan eman zue lemexiko meza nere senarrain illoba batek». **meza nagusi**, **meza nausi** iz. ‘meza nagusia, meza printzipala’: «Erramu goizean bedekatzan dire, orai meza nagusian, lenago goiz mezan»; «Bi meza nausi baño pusken geiagoko denborak egoten gine an lana egiten [lixue egiten]». **meza soñu** iz. ‘meza soñua, mezarako ezkila-deia’: «Nere etxea otoitz anitz egiten zen etxea ze. Goizargiko ezkilak jotzen zirelaik, guk *angelus* iru *agurmariekin*. Meza soñua aitzen zuelaik mezara». Ik. **goiz meza** eta **lemexiko meza**.

**Mezkiritz**. Erroibarko herria: *Mezkiritz* (beti). Deklinatua: *Mezkiritzen*, *Mezkiritzko* (ia beti), *Mezkiritzko* (batzuetan), *Mezkiritze* (lau aldiz), *Mezkiritza* (bi aldiz), *Mezkiritzera* (behin), *Mezkiritztik*, *Mezkiritzendako*, *Mezkiritzokoendako*.

**mezkiritzar**. Herritar izena: Mezkiritzkoa.

**Migelitoña** Mo. «Bada bertze etxe bat tikia ere eta izena du Migelitoña. Migelito ile da eta Argentina aldean sortua ze. Gizon bat ona eta eiztaria ze». [*Migelitoña* edo *Maistro zarraña* (Saragüeta 1979: 10)].

**mila**, **mile** zenbtz. ‘mila’. **mila**: «Mila bederatziegun eta ogeian»; «Orduko iru mila pezta sos anitz ze»; «Ni aurkitzen naiz pozez betea eta biotza mila eskerrez betea». **mile**: «Mile bederatziegun eta lauan»; esam. «*Baztandar tuku tuku*,

*kolkoan mile marakulu*». Era berean erabiltzen ditu bi formak. Ik. **esker mila** eta **esker mile**.

**mila milako** zenbtz. ‘mila aldiz mila, milatan mila’: «Eta meza sandua mila milako aldiz geiago balio duela».

**mile** ik. **mila**.

**minbizi** iz. ‘minbizia’: «Aitain eritasuna minbizi bat aundia zen».

**Mindegi**, el Mt. (of. **Mendegi**).

**minduri** iz. ‘erostaria, hiletaria’: «Frantzietik ekartzen zuten [...] tupiki aria eta paperik gabe aiek, eta niri emengo [...] arriaindako alako minduriak».

**mingain** iz. ‘mingaina’: «Nik neure mingain motelaikin erran nue: oraño ni ez naiz il».

**mintzaira** iz. ‘hizkera’: «Asi ze prestatzen gauza aski jua bear zuen tokira juateko, asi ze ikasten zer mintzaira bear zuen zeien tokian».

**mintzatu**, **mintzatu da** ad. ‘hitz egin’. **mintzatu**: «Orrengatik niote bie maitetasun aundi bat eta denborain buruan ezagutu dut biok egiarekin mintzatu zirela». **mintzatu**: «Senar emazteak eta beren umek euskeraz mintzeten zire beti». Ia beti lehenbiziko aldaera erabiltzen du. Sin. **itz egin**, **mintzo izan**, **solastatu** eta **solastu**.

**mintzatu** ik. **mintzatu**.

**mintzo** iz. ‘hitza, ahotsa’: «Eta bertzean, mintzoa artuz, erran zue dena eta ez batenak bakarrik, denena eta berea ere bai, denen mintzoa eginez». **mintzo izan da** ad. ‘hitz egin’: «Denbora aietaz mintzo naiz»; «Solas egiten zuelaik beti denen alde mintzo ze». Sin. **itz egin**, **mintzatu**, **solastatu** eta **solastu**.

**mirabe** iz. ‘miraria’: «Zer pasatu da emen? Aur au sendatua da, zer egin diozu? [...] mirabe bat izen da emen»; «Nik ez dakit, uste dute egunoro mirabe bat egiten zela gure etxean».

**miratu, miretu** *du ad.* ‘begiratu’. **miratu**: «Eta sendagilleak erran zio ongi miratu ondoan: arrazoña duzu, eritasun aundia dauka berekin». **miretu**: «Berriz ere miretu bear degu».

**miretu ik. miratu.**

**misio** *iz.* ‘misioa, misioak’: «Semea egin ze kaputxinoa eta emen sei edo zazpi urte igaro ondoan juan ze Filipinas deitzen den tokira misiotara».

**Modestoña Mo. Ik. Etxetxipia.**

**mogiezi** *du ad.* ‘mugiarazi’: «Beardura aundi bat banuela biotzain onduan, eta gelditzen zire biotza eta mogiezteko kostatzen ze aski».

**mogitu** *da/du ad.* ‘mugitu’: «Nere alaitasun aundienetaik bat ze aurra mogitzen ziren denborak»; «Denbora bazeie gutire gutire, guartu gabe, ezkontzeko tenorea etortzen ai zela eta asi zirela zarrenak mogitzen»; «Egundeño etzuten geiagoko aldiz bere egunetik mogitu».

**moker** *izond.* ‘mukerra, zaputza, betizua’: «Batek urrin zikin aundia botatzen zuela agotik eta etzuten egon nai aren ondoan eta bertzea mokerra zela». **lo moker** ‘erdi lo’: «Goizeko bi oronetan edo lauetan berdin, niri deitzen zirate beti eta juaten nitze al bezain fite, lo moker banitze ere».

**monja** *iz.* ‘moja, serora’: «Gaixoeak uste zute apez eta monja edo serora guziak zerura juaten zirela ezkonduak baño aisego». **Ik. serora eta juan.**

**Monjelos, Monyolosena Mo.** «Etxe aundi bat Monyolosena, anitz lenago deitzen ze Monjelos». [*Monyolos* (Saragüeta 1979: 10)].

**Moñaiña Mo.** «Lemexikoa ezker aldetik da Moñaiña. Nere amatxik erraten zue etxeokandre bat izan zela ain pollita erraten ziotela *moña* eta orrengatik eman ziotela izen ori etxeari eta ala deitzen da orai arto». [*Moñaiña* (Saragüeta 1979: 10)].

**moratu** *izond.* ‘moretua’: «Kolpatua bezala paratzen ze arron moratue eta negar miñekin».

**morroi** *iz.* ‘morroia, (etxe) mutila’: «Etxe berean baze morroi bat (guk erraten dugu mutila) gizon lan guziek egiten zuena; «Bake sanduan bizi zire aurrak aitarekin, bai eta beren osaba batekin eta morroi edo mutilarekin».

**mota** *iz.* ‘modua, gisa’: «Maite dut eskulan den guzia eta mota guzietarik, berdin maietako nola seaska eta guztetakoak. Gauza gisa guzietakoak». **Ik. gisa.**

**motel** *izond.* 1- ‘trebetasun eskasekoa’: «Izan dire aurrak, arront aise ikesten zutenak [...] arront abilak. Bai eta ere bertze batzurretan motelagokoak»; «Atera dire nere gertaera geienen oroipenak, gero eta ondarrera naielaik, gero eta motelago»; «Gaizki asi eskolatzen eta gaizki segi. Badakizu zer ateratzen den geienean mutiko oietaik: gizon motel bat». 2- ‘ahula, pattala’: «Zeren nere aita [...] aski buru motelai-kin gelditu zelakoz»; «Bere eritasun aundiarekin eta guzie ez balin badego arront moteldua, galde egiten badiozu: zer ai zera Trini? Errain dizu: emen ezin bizi eta ezin fini»; «Osasuna ere aski moteldua izen zue denbora puske batez». 3- ‘totela, hitz-motela’: «Nik neure mingain motelai-kin erran nue: oraño ni ez naiz il»; «Bearrik, zenbait gauzetan Fernando Amezketarra iduria, erantzuten zue zenbait motelek bezala».

**moteldu** *da ad.* 1- ‘toteldu, hitza moteldu’: «Bere erbaltasun guziakin anitz aldiz bertsoan aitzen, baño mingana moteltzen zaio anitz». 2- ‘indargabetu, ahuldu’: «Baditu zazpi ume seurik [...] bere umengatik osasuna ere aski moteldua izen zue denbora puske batez».

**moxorro** iz. ‘mozorroa’: «Ikusi dut otoitz egiten gizonak moxorroz beziak, ez dire zautzen nor diren».

**muaarri** iz. ‘mugarria’: «Gezurra gaitsestue zue aspaldik eta egi garbia, min egiten bazio ere, ze bere muaarria. Beti egia».

**Mugaire**. Baztango Oronoz herriko auzoa. (of. **Mugairi**).

**multsu**, **multxu** iz. ‘multzo bat, sail bat’.

**multsu**: «Eman gindio su multsu guziet».

**multxu**: «An banitue aide multxu bat, nere bi aitetxien arreba bat bizi ze orduko alarguna, eta ume multxu batekin»; «Ez dakit zerengatik badu urte multxu bat ez naizela Donostira agertu». Sin. **alde bat**.

**multsuka** adlag. ‘multzoka’: «Sasi guziak moztu ginduze, eta idorrazi denak [...] eta multsuka paratu».

**multxu** ik. **multsu**.

**muñe** iz. ‘muina’: «Sartu zitzaiola [bala] ezkerreko bekain gañetik eta muñe guziak atera zirala».

**mutiko** iz. ‘mutikoa’: «Pilotari onak beti izan dire Mezkiritzen. Izan dire eta badi-re. Aur aurretik maite dute ioku ori mutikoez eta orai neskakoez ere bai».

**mutil** iz. 1- ‘mutila’: «Erriko mutil batek juan beartzue nere aitaikin zaldi eder batekin Frantziara, baño mutil onek, berak juan bearrean, iorri zitue karabine-roak, arrepa zezaten nere aitari». 2- ‘ogipekoa, morroia’: «Bitartean etxe berean baze morroi bat (guk erratan dugu mutila) gizon lan guziek egiten zuena»; «Bake sanduan bizi zire aurrak aitarekin, bai eta beren osaba batekin eta morroi edo mutilarekin»; «Okindegia zen eta ogia egiten zute mutil batekin, eta bertze gañerakoak aitaik semearekin». **mutil nagusi** ‘bestetako maiordomoa’: «Orduen autetzen zute mutil nagusia eta bere laguna». Ik. **elizmutil**.

**mutilzar** iz. ‘mutilzaharra’: «Semetan il dire iru, zazpi bizi dire. Batzuk ezkonduak eta bertze zenbait mutilzarrak».

**mutur** iz. 1- ‘muturra’: «Basurdek ere badakite lur sagarrendako toki ona dela, arara juaten dire seurik lur azpitik ateratzera bere letagin eta muturrekin». 2- ‘zerbaiten punta edo izkina’: «Erleumeak [...] biltzen zire ezpele mutur batera edo gerezi batera edo, bertzelaz, arri mutur batera».

## N

**nabala** iz. ‘labana’: «Bizkarretik nabala aundi bat sartu zio aixkide aundienak».

**Nafarroa**, **Nafarra**, **Nafarro**, **Naparra**, **Naparro**, **Naparroa**. Deklinatua: *Nafarroan*, *Nafarrako* (behin edo bertze), *Nafarroko* (gehienetan), *Naparroko* (behin), *Naparroan* (behin). (Euskal izena **Nafarroa**).

**nagusi**, **nausi** iz. 1- ‘nagusia, jabea’. **nagusi**: «Nagusi eta etxeoandre gazteak baño lenago izeten dire eben aita eta amak»; «Alor oien nagusia bizi ze

Argentinan»; «Bazekite emakume guziek etxe artan etzela bere umeik sartiko nagusi edo etxeoandre». **nausi**: «Ure ze ango nausia». 2- ‘printzipala’: «Erroibar guzitik etortzen zire meza nagusira»; «Egin zute pareta nagusiak eta eman ziote tellatua». Ik. **meza nagusi** eta **mutil nagusi**.

**nagusigai** iz. ‘nagusigaia’: «Mutila etxealde aundiko nagusigaia ze».

**nai eta ez** adlag. ‘nahitaez’: «Bere aitaik nai eta ez eginazten zigu berak nai zuena»;

«Nai eta ez, egun eta gau ilunak igaro zuzte denek».

**naigabe** iz. ‘nahigabea, atsekabea’: «Nere amak ikustian ezin zuela egin gurekin merexi ginduen, naigabe ederra erematen zue»; «Nere lemexiko semea sortu ze ilik eta neuroi gutitako gelditu nitze, arront gaizki etorri zelakoz. Naigabe ederra artu gindue denek»; «Zenbait negar egin nitue naigabe naigabeain gañan!».

**naigabetu** *da* ad. ‘nahigabetu, atsekabetu, disgustatu’: «Gaixoa!, ongi naigabetua gelditu ze»; «Lan anitz egiten nue, baño sari guti artzen nue; aise uzten zute gerogoko eta aniz gauza gelditu dire ordaindu gabe [...] eta naigabetzen nitze, zerengatik nik neure aita eta amaindako nai nue egin al nuena».

**nardagarri** izond. ‘nardagarria, higuin-garria’: «Aspertu ze nere aita nardagarriko zikinkerri ebekin eta utzi zue Sorogaindo uneitza».

**nardatu** *da/du* ad. ‘nardatu, higuindu’: «Bein ia nardaturik erran nion»; «Egi garbiak nai ditugu, gezurrak digu nardatzen».

**nasi** *da/du* ad. ‘nahasi’: «Gerra zar oiekin, gauza guziak nasi zire»; «Etxeko zaarrenak artzen zitue iokuko kartak, nasten zituon ongi eta gaztenak ebakitzen zitue».

**naski** adlag. ‘segur aski’: «Erran dut naski erran bearrak».

**nausi** ik. **nagusi**.

**negar, nier** iz. ‘negarra’. **negar minak artua egon** ‘negar minak hartua egon; negarrez, negar batean egon’: «Nik goiz artan ez nue entzuten batre asotsik, iaiki eta jua nitze amaren gelara eta gaixoa negar minak artua zego». **nier**: «Nierrai man». Behin bakarrik ageri da *nier* aldaera.

**negu** iz. ‘negua’: «Negua asi baño len asi nitze Gereñe juaten goizoro ikastera goizetik eskuz brodatzen eta atsaldetan

lankaiakin»; **negu minean** ‘negu gorrian’: «Lenago, urik etzelaik etxetan, arropa zikinek garbitzera juaten gine negu minean estalpe batean»; «Guk beti izen dugu asto bat egurrak etxera biltzeko, ongariak alorretara eta negu minean aurrak eskolara eta eskolatik etxera eremateko; ola zangoak busti gabe idukitzen zuzte».

**negurri** iz. ‘neurria’: «Sinesmen azkarra, itxaropen negurri gabea eta goi maitasun erogarria».

**negurtu** *du* ad. ‘neurtu’: «Nere aitak egin beartzuelaik bere zerbitzua [...] arront tikia ze eta [...] negurtu zute [...] eta eman zioten eskura paper bat erraten zuena *licencia absoluta*»; «Oroitzen naiz urte batez, epaillearen zortzian, Mezkititzko eliza atarian [elurra] negurtu zuela apezak egun eta ogeite zortzi zentimetro».

**nekazari** iz. ‘nekazaria’: «[Mezkititz] arront nekazari erria da»; «Lengoak Amerikara juaten zire, baño orai, nere idurikoz, pusken obeki daude nekazariak». Sin.

**labrari**.

**nekez** adlag. ‘nekez, zailtasun handiz, ozta-ozta’: «Orai badaie nere denbora, badaie altzina, baño gauza aundik nekez egin dut nik, baño tiki anitz bai»; «Egia errateagatik bear degu saria artu? Nekez olakorik nere etxean».

**nere** ik. **ni**.

**neri** ik. **ni**.

**neska, nexka** iz. ‘neska, normalean txikia, gaztetxoa’.

**neskako, nexkako** iz. ‘emakumezkoa’. **neskako**: «Aur aurretik maite dute ioku ori [pilota] mutikoek eta orai neskakoek ere bai». **nexkako**: «Orai berean sortu da aurra; zer da, nexkako edo mutikoa?».

**neskato** iz. ‘neskamea, zerbitzaria’: «Bazire bi neskato eta ongi erakutsiak eta ain



maitatuak... etzirela nion obeki egoten al»; «Iru alaba zitue eta arron ongi ikasiak zire, aita il baño len ezkonduak zire iruak eta bazuzte ume tikiak ere eta neskatoak lanak egiteko». Ik. **zerbitzari**.

**neskatxa** iz. ‘neska, haurra ez dena, gaztea’: «Irruriteko neskatxei etzagote ongi juan zu emengo mutil batekin ezkontzea, eta nik erran nio: nere erriko mutilei bezala. An ere gaizki artzen dute neskatxa bat edo mutil bat kanpora juaten badire».

**neskazar** iz. ‘neskazaharra’: «Toki beren bizi zire bere bi aizpa. Zaarrena neskazar eta bertzea ezkondua»; «Eta aski nexkazarra ze ezkondu zelaik, eta esaera zarrak erraten duen bezala: *neskazarrak aurre kolkoan*».

**neure** ik. **ni**.

**neuroi** ik. **ni**.

**neuronek** ik. **ni**.

**nexka** ik. **neska**.

**nexkako** ik. **neskako**.

**ni** iz. Deklinazioan forma hauek erabiltzen ditu arrunki: **nire**: «Nire lau alaba zaarrenak». **nere**: «Nere bizia badaie altzina». **neure**: «Neure aitari entzuna dut». Hiru hauen artean *nere* eta *neure* dira arruntenak. **niri**: «Niri ala egin zirate». **neri**: «Neri beldur bat sartzen zitzaide». Azkeneko bi hauen artean gehiago ageri da *niri* aldaera. **neuroi**: «Nere lemexiko semea sortu ze ilik eta neuroi gutitako gelditu nitze, arront gaizki etorri zelakoz». **neuronek**: «Egun aietarik batean eman zirate neri kartilla edo txartela biribila erabiltzeko neuronek».

**nier** ik. **negar**.

**niok** izord. ‘nehork, norbaitek, inork’: «Ez da errax niok erran dezan gauza bat nio- ren kontra»; «Niok ez daki ze ilundarak igaro nituen nik nere alaba zarrena sortu baño len».

**nion** adlag. ‘nehon, inon’: «Lasai denak iakitean ez ginduela nion makurrik egiten»; «Bazire bi neskato eta ongi erakutsiak eta ain maitatuak... etzirela nion obeki egoten al».

**niondik** adlag. ‘nehondik, inondik, inola (ere)’: «Baño nere etxean etze egin zeiken gauza, niondik ere»; «Negarrez egun guzian egoten zire, ezin ixilazi niondik ere».

**nior** izord. ‘nehor, norbait, inor’: «Ez zue maite itz bat ere erratea nioren kaltetan»; «Nongoa zen?; Ez daki niorek»; «Niok ez zuelakoz minik artu»; «Zerengatik itz ori ez daike niorei erran egia balin bada ere»; «Nik ez nue niorekin egiten solasik, ez nue nior zautzen»; «Gizongaiain gurasoak etzire ongi niorat ateratzeko»; «Baño ala ere ez nue sekula ikusi asarre niorendako».

**nire** ik. **ni**.

**niri** ik. **ni**.

**nok** ik. **nork**.

**nork, nok** izord. ‘nork’. **nork**: «Eta nork daki ori?». **nok**: «Eta bertzea nok azi zue?»; «Nok erran dizu?». Gehien ageri den aldaera *nork* da, baina *nok* ere frankotan erabiltzen du.

**nolapait** adlag. ‘nolabait’: «Nolapait gise sendatu ze».

**nonbait** adlag. 1- ‘nonbait, edonon’: «Nere anaia sortu zelaik, etze etxe batean ere salgai esne erretoik, eta aurra azteketan bear ze bilatu nonbait». 2- ‘segur aski, ematen duenez’: «Gero nonbait indarrean zire eta asi ere etxe berria egiten eta zain zañetik»; «Ni atrebitu txar bat nitze nonbait, bertzenaz ez daki nola menturatzen nitzen ain eskola gutiekin...».

**norapait** adlag. ‘norabait’: «Ez dakit malda beiti bota zuten edo ereman zuten norapait».

**nornai** izord. ‘nornahi, edonor’: «Nik uste dut beti bazela tokia juaten zelaik nornai».

**noski** adlag. ‘jakina’: «Aste Sanduko eta bazko eguneko elizkizun guziak arront ederak eta beretan jende asko izan da noski».

## O

**Oarritz**. Baztango Lekaroz herriko auzoa. Deklinatua: *Oarritzko*. (of. **Oharriz**).

**obediezi** *du* ad. ‘obediarazi’: «Nere oñazeak obediezi zirete sendagilleai eta olezko guatzera sartu nitze».

**obeditu** *du* ad. ‘obeditu’: «Niri aurride guziek obeditzen zirete itz bat erran gabe».

**obeki** adlag. ‘hobeki’: «Zer uste duzu guk eginen ginduela obeki?»; «Obeki dakite berek zer den komeni».

**obekitu** *da* ad. ‘hobekitu, hobetu’: «Aste bat guatzean aski izan zue, gero gutira asi ze obekitzen»; «Azkenean xertatu gindue eta ongi kosta ze obekitzea».

**obekixago, obekixego** adlag. ‘hobekixego, hobekiago’. **obekixago**: «Olako anitz balire lurrean obekixago egoin gine denak». **obekixego**: «Obekixego dire».

**obekixego** ik. **obekixago**.

**oben** iz. ‘hobena, errua’: «Nere idurikoz, oben guzia arena ze, saritu izen bazue merexi zuen bezala, etzue niorek bide ori artiko»; «Niok ere ez dezala gosea ikusi gure obenez».

**obi** iz. ‘hobia’: «Azaroin lenean jua gineaik aurkitu gindue bere obia dena lorez xuri gorritz bete bete».

**obiarri** iz. ‘hobiko harria, hilarria’: «Biramón goizean jua nitze mezara, katedraleko elizara, eta ikusi nue obiarrietaik aspaldikoa zela».

**obitegi** iz. ‘hobitegia, hilerria’: «Gero ila elizara eta obitegira eremateko, ez badute bere semek edo anaiek erematen, erematen diote barridek»; «Guk ustez ber-

tze norbaitena izanen zela, galde egin gindue obitegiko apezari ia an zegon gure ama eta, ikusi ondoan liburu bat, erran zigu baietz, an zegona gure ama zela». Dena dela, maizago erabiltzen du *obitegi*. Sin. **obitoki**.

**obitoki** iz. ‘hobitegia, hilerria’: «Nere bi osaba ibiltzen zire ilak obitokira erematen, eta berei etxekote ukitu eritasunak deustako»; «Goizeko lemexiko mezara etorri ze Amaia ilun egonik ere, baño ilen obitokitik edo aren ondolik pausu batetik iautsi bear zue eta pretrolio argia itzeli zitzaio». Sin. **obitegi**. Ik. **toki**.

**odol juate** iz. ‘odol-joatea, odolustea’: «Nere amai odol juate ori eman zio beiti, sendagilleak uste zue beti odol guzia jua zizeiola, arront gaizki gelditu ze»; «Izaten nitue barneko odol juate aundi batzuk». Ik. **odoluste**.

**odolguri** iz. ‘odoluria, odolbildua, ubeldura’: «Gizajoa, dena kolpatua, dena odolguriz bete; urte bat osoa kosta zitzaio pixke bat sendatzea».

**odoluste** iz. ‘odolustea, odol-joatea’: «Eta etorri zelaik denbora sortzekoa, egun guzian odoluste bat izantze». Ik. **odol juate**.

**ogei** zenbtz. ‘hogei’. **ogei eta, ogeita, ogeite** ‘hogeita’.

**ogi** iz. ‘ogia’ esam. «*Mezkiritz eta Olonditz ogi guti eta aur anitz*»; «Baztango okindegi guzietatik erematen zioete ogia eta denei erosten zioete, baño Iruritako okindegiako ogia geiago eskatzen zioete eta

- orgatik erosten zue geago»; «Otoitz bera egiten ze ogie labeaz sartzen zelaik». **ogi pikorra** iz. 'gari alea': «Mezkiritzko egitik barnera egiten ze ongi ogi pikorra, baño Auritzberri aldera ogi pikor bat ere ez»; «Zaku kostalak ogi pikorrez beateak». **ogi zopak** iz. 'ogi zopak': «Berak bazekie aurrek beren etxetan talo eta esnea iaten zuen eta orduan ematen ziote katuli bat esnez eta ogi zopaz betia». Ik. **zopa**.
- ogibide** iz. 'ogibidea, ofizioa': «Bertze seme alabak zerbait ogibide egina».
- oi** ik. **ori**.
- oian** iz. 'oihana': «Nik badut alorre bat Sakarten, eta oian bazter guztik iausten da ura nere alorretik goitixago sortzen dena»; «Oianean bazire ezpel onak, anitz eta ederrak».
- Oianburu** Mt.
- Oianxilo** Mt.
- oillo, ollo** iz. 'oiloa'. **oillo**: «Oillo koloka paratzen zutelaik arrotzekin, arrotze bakotxari ematen ziote kandela bedeinkatuarekin». **ollo**: «Erematen gindue ianari geienetaik eta olloendako artoa».
- okatu** *da* ad. 'nazkatu': «Iruñatik arat arrott okatuik juan nitze. Gizon azkar bat arrott lizuiñe iduri zue gorputz guztik...».
- okindegia** iz. 'okindegia': «Beltranea aitak erosi zue eta berean egiten ze ogia. Okindegia zen eta ogia egiten zute mutil batekin»; «Iruñitako okindegia ogia geiago eskatzen ziote eta orgatik erosten zue geago».
- okindu** *du* ad. 'ogia egin': «Mutikoez ikasi al zutela okintzen eta bertze langintza aitaren etxean egiten zirenak aspaldien».
- ola** 1- iz. 'ohola': «Olezko guatzera sartu nitze»; «Ola zego nere gorputza ola bezala». 2- iz. 'burdin lantegia': «Egunoro juaten dire Zubiriko errira lanera Magnesitas deitzen den olara». 3- adlag. 'horrela': «Ola jua zire denborak»; «Ola zego nere gorputza».
- olako** izlag. 'horrelako': «Olako denboretan bizi gara».
- Olague**. Anue ibarreko herria.
- Olvide** Mt.
- oliedure** iz. 'oliadura (sakramentua)': «Makurtzen banitze nai nuen oliedure artu, eta erran nion nai zuelaik ematen al zirela».
- olietu** *du* ad. 'oliatu, oliadura eman': «Deitu zue apezka olietzeraz zeila eta apezka iduritu zitzaio ilik zegola, baño, ala ere, olietu zue».
- olo** iz. 'oloa': «Biorrendako oloa eta beien dako garagarra».
- ollo** ik. **oillo**.
- Olonditz**. Erroibarko herria. (Euskal izena **Olondritz**).
- onbide** iz. 'etsenplua, jarraibidea': «Nere iduriko, bearrezkoak dire onbide oiek».
- ondagarri** izond. 'hondagarria, kaltegarria': «Neretako guatzea ondagarria izen da beti, neri guatzeak gaizki artu nau beti».
- ondakiñ** iz. 'hondakina, arrastoa, erlikia': «Denbora puxketen buruan jua zira apezka eta alkatea Erromara [...] Gañera, [Sebastian] sanduaren ondakiña ere ekarri zute».
- ondar** 1- iz. 'hondarra, azkena': «Badu ogeite amar bat urte asi zela afera oiekin eta anitz aldiz erran dute sendagillek ondarra dela». 2- izlag. 'azkenekoa': «Euskeraz asten bagine, euskeraz ze gure ondar itze»; «Ondar aldian etorri zirelaik, nik banitue ia amabi urte»; «Lau aurriz zire aita batenak eta ondar iruak aita eta ama batenak». **ondarrean** adlag. 'hondarrean, azkenean': «Bakotxa bere aldera jua zire eta gero ondarrean uste dut bildu zirela».

**ondatu** *du* ad. ‘hondatu, desegin, galdu’: «Arek ondatu zigu denei, aiei eta guri».

**ondoan** postpos. 1- ‘aldamenean’: «Aren ondoan zegona erori ze»; «Elizain ondo ondoan dago Apeztegia». 2- ‘ondoren, eta gero’: «Sendagilleak erran zio ongi miratu ondoan: arrazoña duzu, eritasun aundia dauka berekin»; «Bedeikatu ondoan elizgira bat eliza inguruan emeten ze kandela bistuekin eta gero meza abestua». 3- ‘-kin konparatuta’: «Ni aurra nitze aren ondoan, gorputz aundia eta ederra zue nere ondoan arek, luzeago eta zabalagoa ze».

**ondoko** izlag. ‘hurrengoa’: «Urte berean juan gine Jabierra bera, bere ondoko aizpa eta neuroi».

**ondoren, ondorean** postpos. ‘ondoren’.  
**ondoren**: «Bi urte ondoren anbateko maugiak bildu nitue». **ondorean**: «Lenik egin zue bakotzak itzaldi ederra goratuz al guzia Iruritako alaba zen emakume ari. Ondorean [...] eman zioten anitzen altzinean bakotzak urrezko medalla bat ederra».

**ondorean ik. ondoren.**

**onera eman** *du* ad. ‘onera egin, hobetu’: «Etzue deus ere eman onera, egunoro gero eta gaizkiago egon ze».

**ongarri** iz. ‘ongarria, gorotza’: «Guk beti izen dugu asto bat egurrak etxera bilzteko, ongarriak alorretara [eremateko]».

**ongi egille** iz. ‘ongi-egilea, ongilea’: «Ongi egillea errax da maitetzea».

**ongitasun** iz. ‘ongitasuna, ongizatea’: «[Etxe artan] iaten ze gauza oberenetaik eta auserki [...] baño badire senide beretan ezin ikusi al dutenak beren aurriden ongitasuna»; «Seme zarrenetaik bat gaizki zego eta ilebete bat zerama arront gaizki, ezin ongitasun pixka bat agerrazi, eta ain gaizki paratu ze, eman ziotela elizakoak gizajoari».

**ontasun** iz. ‘ontasuna’: «Bere illobek erran dezakete zer ontasun eta doi aundiak zituene berekin»; «Egundaño ez da nere gogoan atzendu andre onen ontasuna gisa guzietan».

**ontzena** iz. ‘batzar mota bat, Nafarroan 250 eta 400 biztanle arteko kontzejuei zegokien aginte batzarra’ <oncena> (Iribarren 1984: 380): «Batzarre eta ontzenetan aren bearra izeten ze».

**oñ** iz. ‘oina’: «Aur tiki guziei egiten zaiote bi eskuekin eta laister ikasten dute, eta bi oñ tikiakin: *zangolongo, mangolongo...*». **oñez** adlag. ‘oinez’: «Juan gine oñez etxeraño».

**oñaldi** iz. 1- ‘oinaldia, pausua, oinkada’: «Sobera dakit berandu banu an agertuko zela lau oñaldiz»; «[Orreagan] Bankako, Urepelgo, Aldudeko, Baigorriko, Itxasoko... aidekin aurkitzen gine oñaldi».

**oñaze** iz. ‘oinazea’: «Asi zitzaide oñaze aundi batzuk eskuñako bularrean».

**oñetako** iz. ‘oinetakoa’: «Menditik etorri eta soñekoz aldatu eta oñetakoz ere bai».

**oore** iz. ‘ohorea’: «Nagusi eta etxeokandre gazteak baño lenago izeten dire eben aita eta amak. Nere idurikoz, erran daiteken ooreik aundiena erri batendako. Eta ori erraten dut Mezkitzendako»; «Aspaldiko oitura da. Gero gabas, mutilek abesten zioten berek egin zuten abestiak andregaietan ooretan».

**opil** iz. ‘opila’: «Opil bero bat erditik egin, artean sar zaiezu gasna guria, ikusiko duzu zein gogotik iaten duten».

**orai** adlag. ‘orain’: «Orai ez dut uste ainbertze otoitz egiten dela».

**oraikoz** adlag. ‘oraingoz’: «Oraikoz ez dut geiagorik nai».

**oraiño, oraño** adlag. ‘oraino, oraindik’.  
**oraiño**: «Ni oraiño aurra nitzelaik»; «Goxoago egiteko eta xardin zar bat

eman nio eta oraño erreten direte zerekin egin nuen, ez zutela egundaño ain paella goxoik ian». **oraño**: «Oraño ezta agertu deusetara»; «Nik oraño idazten nue bi egunoroko eta eta bi asteorokotara eta gero eta geiago».

**oraño** ik. **oraño**.

**ordaintza** iz. 'ordaintza': «Eskatzen digu gure ordaintza».

**ordu** iz. 'ordua': «Eta ume geiago duenak ordu geiago izan du alaitasunez beteak egoteko». **ordu artio** adlag. 'ordu arte': «Berak erosi eta berak saltzen zue ordu artio, gañera tenore ortan ez nindego etxean».

**orduan, orduen** adlag. 'orduan'. **orduan**: «Orduan erran zire biramonean juateko bere etxera». **orduen**: «Nik orduen ikesi nue anitz itz berri euskeraz eta aur aurretik ikasiak bezala itz egiten nue berekin». Era berean erabiltzen ditu bi formak.

**orduen** ik. **orduan**.

**orduko** adlag. 'orduko': «Neure aitari ikusi orduko erran nio: aita, ez da nior etorri astoain kargatzera»; «Orduko bi gau banemaitze suarekin ametsetan».

**ordutik** adlag. 'ordutik': «Ordutik asi ze goratzen». **ordutik ona** 'ordutik hona': «Ordutik onat ama gaixoa gero eta erriago dago».

**ore** iz. 'orea'. **ore maia** 'orea egiteko maia'.

**orgatik** adlag. 'horregatik': «Nere aitak erraten zue bere amatxi or bizi zela bere alabaikin eta orgatik eman ziola bere etxea alabari dudarik gabe».

**ori, oi** izond. eta izord. 'hori'. **ori**: «Ori ongi dago»; «Eritasan ori». **oi**: «Iduri zue min oi ere bulkatu zuela»; «Magnesitas deitzen den meatz oi ederki de ondoko erri guziendako».

**oroimen** iz. 'oroimena, oroitzapena': «Neure biziko oroimen guziak atera de-

zatela lore mota guzietatik neure idaztietan»; «Maite dut biurgune batean gelditu eta lasai oroitzu eta sartuz neure oroimen guzietan». Ik. **oroipen**.

**oroipen** iz. 'oroipena, oroitzapena': «Atera dire nere gertaera geienen oroipenak»; «Osabak ere zerbait egin zue alako oroipen ona dauketelaik beraz». Ik. **oroimen**.

**oroitezi** *du* ad. 'oroitarazi': «Egin nai onek oroitezten dire gauza onak eta nere bizia pizten da eta lorez betetzen da nere neguko denbora»; «Zenbat aldiz oroitezten digute dugun bizimodu onek Jaungoikoaren itzaz?»; «Urriain amekan il ze eta egun ortan elizak oroitezten digu Ama Birjiñaren amatasuna».

**oroitu** *da* ad. 'oroitu, gogoratu': «Ekartzen du nere biotzera alaitasun aundi bat, gauza onetaz oroitzen naizelarik»; «Ez naiz ongi oroitzen izenaz».

**oron** iz. 'orena, ordua': «Sukaldea bildu eta juan gine guatzera, nere senarra oron batean, baño gabaskoan»; «Goizeko bi oron terdietan sortu ze nere alaba zarrena».

**Oronoz**. Baztango herria.

**orots** iz. '(abere) arra': «Erematen zelaik zezenera beia, nai zutelaik ume urrixa erematen ze goizetik eta nai bazute orotsa artsean edo ilunabarrean».

**orratz** iz. 'orratza': «Bi orratzekin txistatu zue nere gorputza».

**orrax** iz. 'orrazia', ik. **orraxtatu**.

**orraxtatu** *da/du* ad. 'orraztatu, orraztu': «Bertan bizitzen omen zire lamiak, eta bazter aietara ateratzen omen zire iruzki-re orraxtatzera, urrezko orraxekin».

**orre** iz. 'orrea, ipurua': «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, [...] gaztañak, gorostiak, orreak...».

**Orreaga**. Herria eta kolegio-eliza. Deklinatua: *Orreagan, Orreagako, Orreagara, Orreagatik*.

**orril** iz. ‘maiatza’: «Irriritan bizi ginelaik, juaten ze orrilain iruan edo agorrileain amalauean alaba tiki batekin Lezoko Kristora»; «Orrillan bortzean il ze nere senarrain anaia bat ogeita amasei urte-tan». Sin. **maiatz**.

**Ortakaztikondia** Mt.

**ortaratu** *da* ad. ‘horretaratu’: «Etxealdea utzik, kanpoan bizi dire alaba tiki batekin. Ortaratu da etxealde aundien go-sea».

**ortots** iz. ‘trumoia’: «Asi ze ilunabarrean iñeztura eta ortots aundi ikaragarriak egiten».

**ortz** iz. ‘hortza’: «Areain ortz bat sartu ziztago sabeletik eta atsalde beren il ze».

**ortzi** *du* ad. ‘ehortzi’: «Egon omen zen ortzi gabe gorroto geiago asi zelakoz. Eta guri etziguete utzi ekartzera [...]. Erriko obitegian gelditu zela erran zigute».

**ortzilare** ik. **ortzilari**.

**ortzilari**, **ortzileri**, **ortzilere**, **ortzilare** iz. ‘ortziraleara, ostirala’. **ortzilari**: «Ultziak biltzen aiko zire, ortzilaria zen eta denbora ezinederragokoa». **ortzileri**: «Pentekostes altzinako ortzilerian, Erroibarko erriak juaten ziran egunean, elizgiran Ama Birjiña Orreagakoarengana». **ortzilere**: «Ortzilere Sanduan»; «Astean bi gabez, asteartetik asteazkenera eta ortzileretik laronbatera». **ortzilare**: «Ortzilare artsean asi zue euri eta oraino ez du baratu».

**ortzilere** ik. **ortzilari**.

**ortzileri** ik. **ortzilari**.

**osoki** adlag. ‘osoki, arras, erabat’: «Beti iduritu zaide senarrain naia osoki ongi egiten zuela».

**Otaratz** Mt. (of. **Otaberaz**).

**ote**, galderazko partikula: «Euskal Errian bai ote da inder gabeko emakumeik?»; «Trinik in ote itu?».

**otoi** interj. ‘mesedez’: «Otoi, izan zaite gure ama, amarik gabe ez gara deus ere».

**otoitz egin** *du* ad. ‘otoiztu, errezatu’: «Nik maite nitue denak aintz eta biotz guzitik egiten nue otoitz denengatik».

**otsail** iz. ‘otsaila’: «Otsail guzi guzia gisa ontan duaie»; «Asi nitze berriz ilbeltzean, eta otsaillean otz aundiakin eta guzia egin nitue urte guzikoak».

**otz** iz. ‘hotza’: «Toki ederrean dago, baño zenbait aldiz otza ere eginen du». **otzak egon** *da* ad. ‘hotzak egon’: «Ereman zazie aitetxiri berotasun zerbait, otzak dago». **otzak etorri** *da* ad. ‘hotzak etorri’: «Otzak etorri ze mundura, sortu bezain laster inguratu eta nere onduan guatze berean sartu zire sendagilleak».

**otzikere** iz. ‘hotzikara’: «Baño otzikere batek artu zire eta egun guzia igaro nue zure amaindako eskatzen».

**otzkara** izond. ‘hozkara, nahiko hotz’: «Udan mendira otzkara balin badago eta ugaldera bero balin badago».

**Oviedo**. Asturiasko Printzerriko hiriburua.

**ozkatu** *du* ad. ‘hozkatu’: «Naigabeak ozkatuak aunditasuna eta indartasuna ongi negurtua izeten da».

## P

**padera** iz. ‘gaztainak erretzeko danbolina’.

**Padua**. Italiako hiria.

**Palentzia**. Gaztela eta Leongo probintzia eta hiria.

**Palmitas**. Argentinako herria.

**paratu** *da/du* ad. ‘paratu, jari’: «Azkenean asarre gorrian paratu nitze»; «Nik lankaiakin egin nue berak nai zuen beza».

- lako, berean paratu gindue lore ederrak»; «Maia ongi garbitu eta paratzen zire bi plater oberenexkoetaik mai gañan»; «Batzuek eman dirate beren baimena beren bataioko izena eta abizenak paratzeko».
- parazi** *du* ad. 'pararazi, jarrarazi': «Etorri zire etxera ur urean eta amak idorrazi eta arropa idorrak parazi».
- Paris**. Frantziako hiriburua. Deklinatua: *Parisera*.
- pasatu**, **pastu** *da* ad. 1- 'igaro'. **pasatu**: «Ala, polliki polliki pasatu ze urte ura». **pastu**: «Nere gizona gure alaba zaarrenaikin juan ze Iruritara bere sanduein eguna pastzera». 2- 'gertatu': «Beidetu eta berriz beidetu, eta erran ziren: zer pasatu da emen? Aur au sendatua da, zer egin diozu?». Ik. **buruan pasatu** eta **gogoan pasatu**.
- pastu** ik. **pasatu**.
- Patagonia**. Argentinako lurraldea.
- patataerri** iz. 'patata alorra, patata soroa': «Gu aurrek ginelai oraiño amaikin juaten gine patataerria eta prestatzera» [Eta aitzinago dio]: «Idatziz lur sagarra erraten dut». Ik. **lur sagar**.
- patxaran** iz. 'elorri beltza (zuhaitza)': «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, [...] ezpelak, patxaranak...».
- Patzikomalda** Mt. (of. **Patzikomalda**).
- Patzikorena** Mo. [*Patxikoña* (Saragüeta 1979: 10)].
- Paxkualenea** (2 aldiz), **Paxkualena**, **Paxkualana**, **Paxkualainña** Mo. Ik. **Juan Martinena**.
- Paxkualenekoborda** Mt. (of. **Paskualeneko borda**).
- Paxkualeneko bordaldea** Mt.
- Pedro Ferminena** Mo.
- Peko sagoia** Mt.
- Peko usein** Mt.
- perrexil** iz. 'perrexila': «Botatzen ziote purru denbora balin baze, bat ongi garbitua, perrexil puske bat».
- Peruenea**. Iruritako oikonimoa.
- petatxu** iz. 'petatxua, adabakia'.
- pezta** iz. 'pezeta': «Eman diot bortzegun peztakoa saritzeko eta ez zue itzultzekoik, orduan ez nue bertzerik eta zure senarrak utzi dituen iruetan ogei eta bortz peztak eman dizkiot».
- pikor** iz. 'pikorra': «Ogi pikorra aski garbi gelditzen ze»; «Baño zenbat iler pikor ematen zirete!»; «Frantzetik ekartzen zute aketa pikor tiki bat eta eraintzen zute»; «Baratzuri pikor bat».
- piku** iz. 'pikotxa': «Pikua arriak ateratzeko».
- Pilotaioku** Mo. «Gero dago Pilotaioku deitzen dena. Orai iduritzen zaide Lekuona duela izena». Ik. **Lekuona**.
- pintore** ik. **margolari**.
- pintz** iz. 'pintza, ile-orratza': «Maite nuen ongi iduritzea bertzei, egunoro juaten zire nere ikustera eta dena pintz berriekin egoten nitze».
- piper opil** iz. 'piper opila': «Piper opilak egin bearrak zirela Elizondoko beste-tako».
- piru** iz. 'izpia, zuntza': «Bilo guzie erori zitzaide eta ni alketua ikusiko ziretela bilo piru bat gabe».
- pisetu**, **pizetu** *du* ad. 'pisatu': «Pizetu eta ematen zire merexi zuzten saria. [...] Nik uste baño geiago pisetzen zute eta gei-go saritzen zitue».
- piskat** ik. **pixka bat**.
- piske bat** ik. **pixka bat**.
- pitxer** iz. 'pitxerra'.
- pixka bat**, **pixkat**, **pixke bat**, **pixket**, **piske bat**, **pisket**, **pixka bat** 'pixka bat, zertxobait'. **pixka bat**: «Pixka bat arritu zire». **pixkat**: «Ez dute aste bat artzen norapait juateko beren senarraikin atsedean pixkat artzeko». **pixke bat**: «Urte bat osoa kosta zitzaio pixke bat sendatzea». **pixket**: «Amak irri pixket

egin zue». **piske bat**: «Piske bat itzulik denen idurikoz». **pisket**: «Gutire gutire asi nitze pisket lanean». **pizka bat**: «Aize pizka batek erematen zue urrin goxo bat xoko guzietara». *Pizka* da gehien ageri den aldaera eta *pixke* ere frankotan, *pizka* bizpahiru aldiz soilik.

**pixkat** ik. **pizka bat**.

**pixke bat** ik. **pizka bat**.

**pixket** ik. **pizka bat**.

**pizetu** ik. **pisetu**.

**pizka bat** ik. **pizka bat**.

**piztu, biztu, bixtu** *da/du* ad. ‘piztu, biztu’.

**piztu**: «Nere bizia pizten da eta lorez betetzen da nere neguko denbora». **biztu**: «Kandela biztu omen zue». **bixtu**: «Urte anitzez bixtu ze bere obian bi argizari bedere».

**pizu** iz. ‘pisua, zama’: «Pizu aundi bat beren soñain gañan»; «Pizu aundiko gurutzeta».

**Plazaola** toponimoa.

**poliki poliki** ik. **polliki**.

**polit, pollit** izond. ‘polita’. **polit**: «Erroibarko erri polit batean baze andre tiki pollit bat». **pollit**: «Mezkiritzko erria da tikia eta pollita». «Denak gozo gozo juaten gine etxera eta bidean oraño amak izeten zue zer erran ipui pollit bat»; «Merkiritz euskalduna da. Erroibarko errietan pollitenetaik bat eta euskaldunena». Gehien erabiltzen duen aldakia *pollit* da.

**polliki** adlag. ‘poliki, ongi, ongi samar’: «Aitexi, polliki zaude? Eta beti erraten zire: bai ene maitea, polliki nago»; «Arront polliki igaro zute beren zarre-rie». **polliki polliki** ‘mantso-mantso, emeki-emeki’: «Ala polliki polliki pasatu ze urte ura». **poliki poliki**: «Asi ze poliki poliki eta gero eta geiago, ederrago egin zen». Behin bakarrik ageri da *poliki* forma.

**pollit** ik. **polit**.

**Polloingo bixkerra** Mt.

**ponpox** izond. ‘panpoxa’: «Amak egin zion aurrari soñeko urdin pollit bat eta ponpox ponpoxa omen zego».

**porrokatu** izond. ‘(langile) porrokatua, arrunt (langilea)’: «Joxepa gaixoa aur aurretik langile porrokatue zena».

**Portugal**. Europako estatua. Deklinatua: *Portugala*.

**poton** iz. ‘botoia’: «Erran zue bezperan arrepatu zuela mutikoa bere soñekoan poton bat paratzen eta erran ziola: nere maitia ez duzu zuk ez konpondu eta ez potonik paratu».

**pottoko** iz. ‘pottokoa, zaldikumea’: «Beorrak [...] niri pollitak zaizkide pottokoak».

**pozoñ** iz. ‘pozoia’: «Zuen eritasuna zela uremia, ala deitzen zela eta eritasun orrekin erretzea pozoña zela»; «Nik erran bear delaik gauza zerbait erraten dut, pozoña barnean iduki gabe».

**presa izan du** ad. «Uste dut semea izein dela etxeko nagusie, baño ez du iduri baduela presa aundirik ezkontzeko».

**prest** adlag. ‘prestua (egon)’: «Uste dut prest zirelaik ezkondu zirela»; «Iruiek alargunak, beti ongi egitera prest direnak, berdin gabas nola egunez».

**prestu** izond. ‘prestua’: «Erri ontako mutil prestu bat il da».

**preziski** adlag. ‘presesi’: «Preziski Damaso de Intzakin intzuen [konfesioa] au apez gaztea zelaik».

**Primizia, Primizie** Mt.

**Puerto Madrin**. Argentinako Patagoniako hiria. (Puerto Madryn).

**purru** iz. ‘porrua’: «Botatzen ziot, purru denbora balin baze, bat ongi garbitua».

**puska, puxka, puxke** iz. 1- ‘puska, zatia’.

**puska**: «Denbora puska batez euskeraz egiten ze dena, baño badire nere adineko batzuk ez dutela aski maite euskara



eta erdaraz obeki zaiote». **puxka**: «Nik beldur puxka bat izan dut aspalditik». **puxke**: «Orrengatik umore on puxke bat ongi eldu zitzaio eta nere senarra ortarako autatua bezala ze». 2- ‘puska handi samarra’: «Bat adin puskatekoa eta bertzea gazteagokoa»; «Ume oiek ni sortu orduko aundituak eta zenbait Ameriketara juanak zire. Itz batean, puskaz ere ni baño zarragokoak zire». **puskat**, **puxket** ‘puska bat’: «Gauza oiekin juan zaide denbora, puxket nasi ditut gauzak, baño banuaie berriz lenagokora. **pusken** adlag. ‘askoz’: «Aritzak badire, baño pusken geiago baguak»; «Lengoak Amerikara juaten zire, baño orai, nere idurikoz, pusken obeki daude nekazariak»; «Orai baño pusken ere elurraldi aundiagokoak egi-

ten zitue». **pusketen**, **puxketen** izond. ‘puska baten’: «Ezkonduta eta [...] denbora pusketen buruan izen zute beren ume bakarra»; «Denbora puxketen buruan jua zira apezeta eta alkatea». **pusketez** izond. ‘puska batez’: «Osasuna denbora pusketez ez du batre ona izen; baño orai nonbaiten da».

**puskatu** *du* ad. ‘puskatu, moztu, xehetu’: «Mendirra urbil dago, eta borda atarian egurra bildu eta puskatzen dute eta uzten dute idortzera»; «Gure etxean [txerria] iltzen zue aitak eta odola artzen zue amak [...] Gero ateratzen zitzago barnean zuen dena eta uzten zen dilinden ateratzeko ur guziak, idortzian gero puskatzeko».

**puxka** ik. **puska**.

**puxke** ik. **puska**.

## R

**Rikardoña** Mo. Ik. **Juan Migelenea** eta **Jenaroin etxea**.

## S

**sabel** iz. ‘sabela, tripa’, ik. **tripa**.

**saets** ik. **saiets**.

**sagar** iz. ‘sagar arbola, sagarrondoa’: «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak, sagarrak...».

**sagarrondo** iz. ‘sagarrondoa’: «Badu baratzetxe bat ederra bere sagarrondo onekin».

**sagoi** iz. ‘sarioia’: «Oroitzen naiz iruzkiz betea zela egun guzia, lorez betea zegola eliza eta bai eta ere sagoiak eta baratzetxeak»; «[Orreagako] Ama Birjiñaren

iturrian ura edan gabe, begiak garbitu gabe... etze nior sagoi artaiek ateratzen»; «San Juan goizeko intza ona omen da sendatzeko larruko eritasunak, sarna eta ori iduriak. Zenbait larru gorrian iraultzen dire sagoietan edo belaietan ederki».

**Sagoieta** Mt. (of. **Saroieta**).

**saiets**, **saets** iz. 1- ‘(gorputzaren) saihetsa’.

**saiets**: «Sekula ez dire jua nere gorputzetik egosikeko erretoak. Belaun gañe-

tik gerriraño, altzinetik, gibeletik eta bi saietsetaiek, sabel barnean». 2- 'alboa, aldamera': «Onek ere badu bere baratze tiki bat altzinean, saiets batean badu landa ederra, baño ez da guria; eta gibelean baratze bat». **saets**: «Bi saietsetan bazue bertze ainbertze». Behin bakarrik ageri da *saets* aldaera.

**saietseko min** iz. 'saihetseko mina'.

**Sakarte** Mt.

**Sakarteburu** Mt.

**sakela** iz. 'sakela': «Ez ukitu aien sakelak».

**bere sakeletara** postpos. 'bere kontura, bere kasa': «Uste zute kanpokoek ler diru bazutela, baño etze egia [...] ama iru urtez elbarritua [...] bedratzi ume... ez da arritzeko guti izatea, eta bi andre juaten zire garbitzera beren sakeletara».

**sakristau** iz. 'sakristaua': «Sakristau baten irabaziekin aztekotan amar ume, zerbait egin bearko zuen».

**salatu** *da/du* ad. 1- 'salatu, parte eman': «Neri beldur bat sartzen zitzaide, beldurrrak salatuko ziretela»; «Baño sendagileak ikusi ziolaik, parte eman edo salatu zuen eta karabineroak bota zuzte gorpuztetik». 2- 'ezagutzera eman': «Deitu zire urrutizkiñaz nere anaiak erranez [...] salatu bear nuela meatz berri bat [...] eta paratu nue bere izenean».

**salerosi** *du* ad. 'salerosi, saldu eta erosi': «Nere izebak ola ateratu zue bere bizia, salerosten».

**salerosle** iz. 'saltzailea eta eroslea': «Ezkondu ze bere gogoko mutil on batekin, langile aundia eta salerosle oberenetaik bat».

**saleroste** iz. 'saltzea eta erosteia': «Beti etxean egoteko lana zue eta orrengatik saleroste pixka bat izaten zue bere etxean eta»; «Ongi egiten omen zitue salerosteak eta beti berak egiten zue lan ori».

**San Andres** iz. esam. «*San Andres, maia paratu ta ogirik ez*».

**San Bixente** iz. esam. «*San Bixente otz, nequaren biotz*».

**San Klemente** iz. esam. «*Azaroan San Klemente papa, elurre tipi tapa*».

**San Martin** iz. esam. «*San Martin negua atzetik edo aurretik, geienean bietatik*».

**San Migel** Mt.

**san, santa, santu** izond. 'santua'. **san**: «San Juan bezperan erretzen da altzineko San Juan egunean bedekatzen diren belarrrak, San Juan goizeko intza ona omen da sendatzeko larruko eritasunak, sarna eta ori iduriak»; «San Pedro bezperan egiten dute erriko mutilek berena»; «San Blas», «San Anton», «San Fermin», «San Migel». **santa**: «Santa Ageda». **santu**: «Izpiritu Santuaren izenean». Sin. **deun, done, sandu**.

**San Simon** iz. esam. «*San Simonetan kapa xurie mendietan*».

**sandu** iz. eta izond. 'santua': «Nere aitak eta amak eskeindu ziote sanduari»; «Frantzisko Muru, sandue bezala bizi, eta sandu bezala iltzena»; «Urte sandua», «Eliza Ama Sandua», «Espiritu Sanduaren doia»; «Ebanjelio sanduko andre azkarra bezalakoa»; «Ortzirale Sandua», «Meza sandua», «Aste Sandua», «Aita Sandua», «Jose Sandua». Sin. **deun, done, san**.

**sandutasun** iz. 'santutasuna': «Emakume txintxoia zela eta indartsua ainbertze nairgabe ondoan alako sandutasuna agertu digulaik denei».

**sangirio** iz. 'benda, lotzeko oihala': «Sartu zitzaioa [bala] ezkerreko bekain gañetik eta muñe guziak atera zirala, burua lotu ziotela il onduan, benda edo sangirio oial zuriekin»; «Gañetik sangirio oial batekin, bide edo iru inguro alde ematen ziole beraikin aurrari, gero paratzen zitzaio atorra».

**santa** ik. **san**.

**santu** ik. **san**.

**sañatu** *du* ad. 'aldatu': «Eta gero ilabete bat gabe, egiko [sic] karabinero guziak sañatu edo iorri zuzte bertze toki batzutera».

**sarde** iz. 'sardea'. **burdin sarde**, **makil sarde**, **zurezko sarde**: «[Nekazarien erremintzak] laiak, altzurak, pikua arriak ateratzeko, tallue, igiteia, burdin sardea, bertze zurezko sardeak eta arraxpak»; «Burdin eta makil sardeak».

**sari** iz. 'saria, ordainketa': «Lan anitz egiten nue, baño sari guti artzen nue»; «Egia errateagatik bear degu saria artu? Nekez olakorik nere etxean». Ik. **ezkonsari**.

**saritu** *du* ad. 'saritu, ordaindu': «Gizon baten egun guziko lana uste dut ogeite amar sosetik bi pezetara saritzen zutela».

**sarna** iz. 'sarna, azteria': «San Juan goizeko intza ona omen da sendatzeko larruko eritasunak, sarna eta ori iduriak».

**sarrazi** *du* ad. 'sarrarazi': «Maite dut [...] sarrazi beren gogoan nere denborako euskaran, ni sortu nitzen errikoan»; «Bearbada, bere aita eta amak sarraziak zire... berdin diot monja edo serorengatik».

**saski** iz. 'saskia': «Zer erematen duzu saski ortan?».

**segido** adlag. 'berehala': «Segido etorriazi zute eta erran zue etzekiela oraño zer ote zen eta amatxik erran zio: alborengua?».

**segur** adlag. 'seguru': «Etxe onek badu zenbaki bat 1226 edo 1262, ez nai segur»; «Bertze altzinekoak bertze etxe zenbaitetan sortuak dire, nere idurikoz Peruenean, baño ez naiz arront segur».

**ain segur** adlag. 'hain segur, segur aski': «Oiek ain segur karestiek izein dire»; «Alaba gaztena ezkondu zue etxera eta amarendako ain segur oberena».

**Segura** Mt.

**sekula**, **sekule** adlag. 1- 'betiko'. **sekula**: «Eta atsaldean konfirmatu zue gure erre-

tore jaunak eta bi egunetan il ze emen, sekula bizitzeko zeruan»; «Gure Jaungoikoa goratua izen daiela Euskal Erriko etxe eta borda guzietan orai eta sekula denbora guzieren denboretan». Ik. **sekulako**. 2- 'inoiz (ez)': «Argentinan bizi ze eta ez nue sekula ikusi»; «Eta izen ditut bertze gauza batzuk, baño ordukoa sekula geiago». **sekule**: «Ez nue ikusi sekule»; «Etze sendatu sekule».

**sekulako** adlag. 'betiko': «Gerran artukeko eritasunak ereman zio emendik. Zenbat aide, lagun, aikide jua zire sekulako»; «Eta odol sanduarekin garbi zezan bere anima zuzen xuxena igo zeien zerura, sekulako argitasunean bizi daien». Ik. **sekula**.

**sekule** ik. **sekula**.

**senargai** iz. 'senargaia, gizongaia': «Senargaia Sidi Ifnira jua ze zerbitzua itera». Ik. **gizongai**.

**sendaetxe** iz. 'gaixotegia, ospitalea': «Giltxurrin bat ekendu ziote, ebakuntza batean, eta urte bat osoa egin zue sendaetxean». Sin. **sendatoki**, **gaixotegi**.

**sendagile**, **sendagille** iz. 'sendagilea, medikua': «Aurra izan artio gelditu nitze Iruñan, zerengatik egunoro beartzen nitze sendagileaz eta sendagillean etxera urbil gelditu nitze, fonda edo ostantu batean».

**sendagille** ik. **sendagile**.

**sendagilletasun** iz. 'sendakuntza': «Erituzen eritasun luze batekin, eta bitartean Iruñeko semea zen sendagilea jua ze Erroibarko erri batzuetara, jua ze sendagilletasuna egitera».

**sendakaitz** iz. 'sendakindegia, botika (?)': «Gabaz atera bear baze sendakaitzera, goizeko bi oronetan edo lauetan berdin, niri deitzen zirate beti eta juaten nitze al bezain fite»; «Nere gizonain aitak, il zelaik, utzi zigu sos batzuk. Bertzei bi mila

pezta utzi baziote, guri lau mila, baño utzi zue zor puxka bat, sendakaitzean bazuela eta iakin bezain laster ordaindu gindue».

**sendatoki** iz. ‘ospitalea, gaixotegia’: «Bere anaia Marko berriz bizitu ze Estación Olaskoagan eta il ze sendatoki batean Buenos Aires berean». Sin. **gaixotegi**, **sendaetxe**. Ik. **toki**.

**sendazi** *du* ad. ‘sendarazi’: «Egin gindue inalak sendaztiagatik».

**senide** iz. ‘senidea, familia’: «Bere senide edo famili guzia ere aita eta ama bezala dire»; «Ibar berean, baño aski urrun erri batetik bertzera bazire bi senide edo familie»; «Aurrari erakutsi zio otoitz egiten bere amarendako eta elkar maitatzen, senide batean bear den bezala». Ik. **famili**.

**serora** iz. ‘serora, moja’: «Ama geienek bigarren semea apez inazi nai zute eta le-mexiko alaba monja edo serora»; «Nere alaba bat serora da»; «Esker mila, Jesusen Biotzeko lagundiaren serora edo monjak». Ik. **monja**.

**seurik** lok. ‘segurik, gutxienez’: «Oraño emen seurik ez da nior goseak il»; «Urte berean Iruritako bordetan urketu ziren iru seurik»; «Ogeita bortz urte seurik ni bano zarrago izein ze, ori seurik».

**Sidi Ifni**. Marokoko Erresumako hiria.

**sinesmen, sinismen** iz. ‘sinesmena’. **sinesmen**: «Biarrik andre sinesmen aundikoa zela». **sinismen**: «Ze sinismen aundia zuen ontaik ageri da». Bi aldaerak era bertsuan erabiltzen ditu, gehiagotan beharbada bigarrena.

**sinismen** ik. **sinesmen**.

**sinismendu** iz. ‘sinesmena’: «Denek bazute sinismendu ori».

**sinetsi** *du* ad. ‘sinetsi’: «Ezin sinetsi zute anitzek nola ezkondu ote zen irakasle on ure labrari batekin»; «Niok ez zue sines-ten al».

**sobera** adlag. ‘gehiegi’: «Erran zirete beltzaran tiki bat zela, sobera solas egiten zuela»; «Denak txinurriek bezalakoak, sobera langileak, arront umore onekoak, nekatuak balin bazire ere».

**solas** iz. ‘hitza’: «Baño niorek etzue uste solas aiek aldatu bear zutela Mari Antonin bizia». **solas egin** *du* ad. ‘hitz egin, mintzatu’: «Niri uste dut maite ziretela nagusi eta etxeoandreak, onekin beti euskeraz solas egiten nue»; «Nik ez nue niorekin egiten solasik, ez nue nior zautzen»; «Ain ongi solas egin zue, arront zozotuak zitue denak». Sin. **itz egin, mintzatu, mintzo egin solastu** eta **solastatu. solasean egon** *da* ad. ‘hitz egiten aritu, solas egiten aritu’: «Orduan istenpat solasean egon beraikin eta igorri zigu aztertuzera».

**solastatu** *da* ad. ‘solastatu, hitz egin, mintzatu’: «Zenbait aldiz ikusi dut Iruñan eta solastatu nau eta gustoara egoten nitze beraikin euskera garbian itz egiten»; «Gizonak aurkitu zue andregai eta ezin obea, aurra maite zuena, bai eta ere senarra eta senarrain aita, denak maite zitue eta gañera langile eta ongi solastazen zekiena». Sin. **itz egin, mintzatu, mintzo izan, solas egin** eta **solastu**.

**solastu** *da* ad. ‘hitz egin, mintzatu, mintzo izan’: «Ebek biek bakarrik, ongi itz egin zirete neure senarrak; bere etxe-koek ere etzirete ain ongi solastu neure senarrak ezkondu onduan». Sin. **itz egin, mintzatu, mintzo izan, solas egin** eta **solastatu**.

**soñ** iz. ‘soina, sorbalda’: «Mutilak eta gizon anitz bere gurutze ederraikin soñan»; «Elizgiran, Kristobal Deunarekin lau mutilen soñain gañan, erri guzitik abes-tuz bere abestiak». **soñez** adlag. ‘soi-nez’: «Etorri ze agorrila eta amaseian sortu ze bortzgarren alaba. Etorri ze

arrant makur gisa guzietara, biotza, odol juate, aurra soñez... eta, gañera, ni deus indarrrik gabea...».

**soñeko** iz. 'soinekoa': «Soñeko beraikin egin dute [jaunartzea] sei alabek eta bertze ogeiek seurik».

**soñu** iz. 1- 'soinua, musika': «Soñua Jesus Guridi jaunarena zue»; «Etxetik elizara txistu soñuan juan gine eta soñu berean sartu gine elizan». 2- 'asotsa, zarata': «[Nere bigarren alaba] garagarrillaren zortzian sortu ze, urte artan Bazko bezperan, eguerdi berean, ezkil guziak eginalako soñuekin zeudelaik. Erraten nio: zure sortzea ezkilekin erran ziote denei»; «Ur soñuak nasten zire ugalde, erreka nola iturriekin». Ik. **meza**.

**soñulari** iz. 'soinularia, musikaria, musika jolea': «Nere gizonak bazue Amaiurko errian bere amain aizpe bat, arront umore onekoa. Soñularia, ez dakit zenbat soñu mota bazekien iotzen [...] soñu mota guzietarik obekiena kitarra iotzen omen zuen».

**sorginkeria** iz. 'sorginkeria': «Egiten zitue sorginkeria anitz, baño nere amatxik erraten [zuen] etzuela sekula sorginkeria beltzik egin, denak xuriak egin zituela».

**Sorogain**. Erroibarko toponimoa. Deklinatua: *Sorogainen* (bi aldiz), *Sorogañen* (bi aldiz), *Sorogaiñen* (behin), *Sorogaingo*, *Sorogainera*.

**Sorozabaleta** Mt.

**Sorozarreta** Mt.

**sortu da** ad. 1- 'jαιο': «Goizeko bi oron terdian sortu ze nere alaba zarrena». 2- 'gortu': «Andrea naigabe arengatik sortu ze arront, etzue deus ere aitzen».

**sortu berri** izond. 'jaioberria': «Nexka tiki sortu berri arek poz guti artu zue bere amatxoin besoetan».

**sortu erri** iz. 'sorterria': «Orai emagin batez itz egin bear dut, neure sortu errikoaz».

**sortu etxe** iz. 'sortetxea': «Txerri puxkak erematen zute aurrek bi barridetara, aitein sortu etxera, bai eta ere amatxien bi aitetxien sortu etxetara eta osaba izeben etxetara»; «Iruritako Beltranea ze nere gizonain sortu etxea».

**sortzez** adlag. 'jaiotzez, jaiotzeko tokiaz': «Oraiko emakume au sortzez ibar batekoa eta ezkontzez bertze batekoa»; «Sortzez ez da zugarramurdiarra, baño arara juan ze ezkontzez». Ik. **ezkontzez**.

**sos, xos** iz. 1- 'sosa, dirua'. **sos**: «Sos anitzeko etxea ze»; «Orduko iru mila pezta sos anitz ze»; «Etxe ondoko landak berak sosak balio ditu». 2- 'zentimoa, xentimoa': «Duro bat egunean eta bos sos». **xos**: «Aitetxik bi soseko bana eman ondoan aur guziari, berdin jende multxu zenbaiten artera botatuz xos zerbait etxerako bidean...». Behin izan ezik, *sos* forma erabiltzen du.

**sos kutxa** 'aurrezki kutxa': «*Colonias* deitzen dena [...] gero sos kutxak artu zute beren kontura».

**sosdun** izlag. 'sosduna, diruduna, aberatsa': «Etxealde aundi batetik atera, bertze aundi batean sartu ze. Uste dut etxealde aundia eta bai ere sosdunak»; «Madrident bazute izeba bat sosduna».

**su** iz. 'sua': «Itzel zazu su au eta ez badezu itzeltzen zu zera lemexiko erreko zarena!»; «Batek seurik badu non egin sue eta non egin lo». **su garretan** 'su eta garretan': «Denak su garretan erori zire eta denak ilik gelditu zire». **suak artu du** ad. 'suak hartu, sumindu': «Iduri zue denentzat irri egitera joaten dirala, niri suak artzen zire anitz aldiz».

**subilero, subillero** iz. 'Eguberrietako egur enborra'. **subilero**: «Abenduain ogeita lauait deitzen dakogu subilero eguna. Atsalde erdian suain erdian egur aundi bat paratzen da [...] Al guzia ireundazi bear

da, al baliz urte guzian itzali gabe subileroko sua». **subillero**: «Beartzuenak ere gau ortan, subillero gau ortan, etzuela afaldu gabe gelditu bear». Ik. **auts**.

**subillero** ik. **subilero**.

**sudur** iz. ‘sudurra’: «Nere aitak ere nere giseko odol juatea izen zue. [...] Aizpa batek edo bertzeak ere sudurretik izan zue».

**sudur zilo** iz. ‘sudurtzuloa’: «Ikusi nio sudur ziloetaik purgezio edo zorne anitz ai zela atratzen».

**sukalde** iz. ‘sukaldea’: «Sukaldea bildu eta jua gine guatzera».

**sukalki** iz. ‘janari prestatzea, sukaldaritza’: «Emakume ona eta ederra amairu ume izen ondoan. Sukalki ona, garbia, maitetasunez betea, indartasun aundikoa».

**sukar** iz. ‘sukarra, kalentura’: «Sukar aundi batekin, guatzean nindego». **sukar ustel** iz. ‘sukar ustela’ (<fiebre tifoidea>): «Ni jua nitzen etxean iru ume zeude sukar ustelaikin».

**supefter** iz. ‘supazterra, beheko sua’ (<fo-gón bajo>): «Supefterean egoten zire endaia autsa ekentzeko, bertzuña suain ateratzeko».

## T

**tallu** iz. ‘sega’: «[Nekazarien erremintak] tallue, igitia, burdin sardea...».

**tar** ik. **txar**.

**talo** iz. ‘taloa’: «Talo eta esnea iaten zuen».

**tellatu** iz. ‘teilatua’: «Egin zute paretan nagusiak eta eman ziote tellatua».

**tenore** iz. ‘garaia, unea’: «Eta ni mundura etortzeko tenorea etorri ze»; «Gañera gisa eta tenore guzietan izen ze arront maitegarria eta maitezalea».

**tiki** ik. **txiki**.

**tirizia** iz. ‘hepatitisa’: «Tirizia erraten ze oritzea gise ontan eta sendagileak erran zio obe zela gelditzen baze Iruñan, segido eginen ziola ikusi orduko gernuak eta odolak zer maten zion».

**tisiko** iz. ‘tisikoa, tisia duena’: «Eman egontzen ure il de tisiko galdu bat, ona egin gindue!».

**titere** iz. ‘titarea’.

**toki** iz. ‘lekua’. *Toki* da beti erabiltzen duen aldaera, bai eta konposizioan ere, erraterako: *arditoki*, *belartoki*, *bizitoki*, *erleto-ki*, *garbitoki*, *ikaztoki*, *loretoki*, *obitoki*,

*sendatoki*, *txerritoki*, *urdetoki*, *xixetoki*, *zartoki*. *Leku*, berriz, ez du erabiltzen. Deigarria da, hain zuzen ere, Ibarra (2007) lanean, *leku* sarrera ageri delako, *toki* ordea ez.

**Toledo**. Gaztela-Mantxako probintzia eta hiriburua.

**Tranpaden** Mt.

**traste** izond. 1- ‘ezdeusa, moldakaitza’: «Neure ezur traste ebek [oñaze] bakarra eman direte». 2- ‘bihurria, alproja»: «Nere alabak neskatx egiten ai zire eta arront trasteak zire»; «Nere amak gozoki gozoki irri alde bat egin zue eta erran zire: ze traste zarra dagon. Ez zue erran gaistoa zela, baizik irri inazteko balio zuela».

**tratore** iz. ‘traktorea’: «Bi ondoko etxetan badute biribilak edo tratoreak idukitzeko tokiak».

**Trintete** iz. ‘Trinitatea, Hirutasuna’: «Lau borts urtetan il ze Trintete egun batez».

**tripa** iz. ‘tripa, sabela’, ik. **sabel**.

**tripeko zilo** iz. ‘zilborra’, ik. **xilko**.

**tripot** iz. ‘odolkia’: «Triputa, lukerike eta bertze gañerakoak egiteko etze andre bat ere etortzen gure etxera; amatxi, ama eta gu iru aizpa bagine aski».

**Tudela**. Nafarroako hiria. (Euskal izena **Tutera**).

**tupiki** iz. ‘burdin mota, kobrea’: «Erran zigu bear zirela aztertu eta tupikia bazuela». **tupiki ari** ‘tupiki haria’: «Frantziatik ekartzen zuten [...] tupiki aria eta paperik gabe».

**Turin**. Italiako hiria. Deklinatua: *Turinen, Turine, Turindik*.

**turron**, **turrun** iz. ‘turroia’. **turron**: «Turron gisa guzietakoak». **turrun**: «Turrun gisa gizietakoak». Bi aldaerak ageri dira.

**turrun** ik. **turron**.

**Turtxipera**, **Turtzipera** Mt. (of. **Iturchipera** [sic]).

**txakar** izond. ‘zakarra’: «Ezkondu ginelaik bere paperetan irakurri nitue bertso ain txakarrak neskakendako... erre egin nitue».

**Txakurrein iturri** Mt. (of. **Txakurriturri**).

**txamarra** iz. ‘txamarra, zamarra, jaka’: «Andreak bildu sukaldea eta aurrain txamarrek garbitu eta...».

**txamarreta** iz. ‘txamarreta, jaka’: «Soñeko euskaldun txamarreta oietaik, eskuz egiten diren oietaik, ongi egiten ikesia da».

**Txantrea**. Iruñeko barridea.

**Txantxikoña** Mo.

**txapel** iz. ‘txapela’: «Neure anaia batei eskatu nio neure txapela eta aiek neregana etorri bano len sartu nue neure burua txapelan». Ik. **bonet**.

**txar**, **tar** 1- izond. ‘txarra, ona ez dena’.

**txar**: «Uste dut gauza bat txarra erratekotan, onak ere erran bear direla»; «Gure etxean ezin gindue deus gauze txarrik egin». Ik. **zar** eta **gaisto**. 2- izond. ‘txikia’: «Ni atrebitu txar bat nitze nonbait»; «Batre subsidioik eman gabe, sari txar

batekin utzi zute». **tar**: «Zuk txori tar oiek asetzen duzunak, nola utzi bear tuzu nere aurtxo ebek goseak?»; «Bere indartasuna etze tarra, dudarik gabe, bertzenaz nola ireun ainbertze lan eta naigaben artean?». 3- adlag. ‘gaizki’: «Berriz ere aski txar egon nitze eta sendagille batek erran zue aski gaizki nitzela».

**txartu da** ad. ‘txartu, okerrera egin’: «Eraiten ze txitxirioa eta aixkola, baño lemexien ona zena gero asi ze txarzen eta aspertu ze nekazaria».

**txatar** iz. ‘oihala, trapua’: «Eguberritako egiten zuzte seaskatxo pollitak aur sortu berriandako bere arropa guzietarik eta txatar bear zuten guzietarik»; «[Aur jaio berriari paratzen zitzaion] lenik txatar txiki bat gisa ontan xilo bat egina: xilotik ateratzen zen xilkoa».

**txerri** iz. ‘txerria’: «Goizean goizik iltzen ze txerria. Gure etxean iltzen zue aita eta odola artzen zue amak». **txerri bazka** iz. ‘txerri-bazka’: «Nik lau urte nituelaik arront egosi nitze txerri bazkak egosten zuzten bezkoan»; «Oraño txerri bazka egosteko ontzi onak ba omen dire erri aietan». **txerri puskak** (pl.) iz. ‘txerriki puskak’: «Txerri puskak erematen zute aurrek bi barridetara, aitein sortu etxera, bai eta ere amatxien bi aitetxien sortu etxetara eta osaba izeben etxetara».

**txerriltze** iz. ‘txerri hiltzea’: «Bertze oituru bat ze txerriltzea etxe bakotxan, eta urteoro bat edo bi aldiz etortzen zire aitian aita, anaiak eta osabak ere anitz aldiz».

**txerritoki** iz. ‘txerritokia, txerritegia’: «Gisa guzietako lanetan [aritzen zen], berdin gizon lanetan nola emakumenetan, [...] berdin beiak iaizten nola txerritokien garbitzen». Sin. **urdetoki**. Ik. **toki**.

**txiki**, **tiki** izond. 1- ‘txikia’. **txiki**: «Ume txikiak arendako iruzkian azpian ziren gauzarik oberena eta ederrena»; «Txatar

txiki bat». **tiki**: «Onek ere badu bere baratze tiki bat altzinean»; esam. «*Ezta irrik egin bear ezta aur tiki az eta ez txerri tiki az*, geienenean aundienak izeten direlakoz». 2- 'gazteena': «Izebak erran zio: bai zato, baño zato zeure alaba zaarrenaikin eta seme tikienaikin»; «Anai tikiak arront trasteak zire». *Tiki* da arrunki erabiltzen duen forma, *txiki* bizpahiru aldiz bertzerik ez da ageri.

**txinger** iz. 'txingarra': «Banabar gorria, berek ekarriko txinger puska batekin egiten niote».

**txinta** iz. 'tanta': «Arrotze bakotxari ematen ziozte kandela bedeinkatuarekin; piztu ondoan botatzen zio argizeri txinta bat, eta bakoitzarekin egiten zuten *Aitare* eta *Semear* eta *Izpiritu Santuaren izenean*»; «Agoa garbitzen zuelaik eta txinturritik sartu bazen ur txinta bat, ure bota artio lertiko ze, baño bota artio etze gelditze».

**txintxo** izond. 'zintzoa': «Izan daitzela kristau txintxoak, non nai langile onak»; «Beren amai, Irurritako euskaldun garbia, il baño lenago eman ziozte urrezko bi medalla ama txintxo zelakoz»; «Ala bizitu zire txintxo txintxo beren biziko ordu guzietan». Sin. **zintzo**.

**txintxur** iz. 'zintzurra, eztarria': «Nere agotik ur utsak bakarrik zuen bidea, nere txintxurritik igarotzeko»; «Nere txintxurritik etze deus pastzen al».

**txinurri** iz. 'inurria': «Guretako lana arront ona ze, denak txinurriak bezalakoak gine».

**txista, txiste** iz. 'ziztakoa, injekzioa'. **txista**: «Egunoro sukar puxkatekin eta egunoro txista an txista emen, eta ori bedratzi ilabetez». **txiste**: «Eman bear ziratela

bortz txiste egunean, bat edo bertze zañetaik».

**txistatu** *du* ad. 'injektatu': «Bi orratzekin txistatu zue nere gorputza».

**txiste** ik. **txista**.

**txistulari** iz. 'txistularia': «Bozaten badire zurginak, igelseroak, errotazaiak, txistulariak...».

**txitxirio** iz. 'txitxirioa, barbantzua': «Sagoietako baratzetara urbil eraiten ze txitxirioa eta aixkola».

**txofer** iz. 'txoferra, gidaria': «Gaztena etxe aberats batean dago txofer delakotako».

**Txorrondo** Mt. Perpetua Saraguetaren sortetxea dagoen barridearen izena, idatzi gehienetan izengoitizat erabili zuena.

**Txorrondoko ertea** Mt.

**txorta** iz. 'tanta, likido pixka bat': «Artu nue beti bezala aketa esne txorta batekin»; «Ur txortak ez bada ordaindu gabe gelditzen, nola geldituko dire amabi edo amabortz afari urteorokoak?».

**txotx** iz. 'txotxa': «Eman zire txotx batzuk».

**Txubut**. Argentinako probintzia (Chubut).

**txukun** izond. 'txukuna': «Garbi eta txukun egoten zire»; «Arront langilea, txukune gauze guzietan».

**txutik** adlag. 'zutik'. **txutik egon** 'zutik egon': «Erroibarko etxea. [...] Orai ez dakit txutik dagon». **txutik gelditu** 'zutik gelditu': «Orai lasai gelditzen naiz ikusten baitut bearren bearrena txutik gelditzen dela». **txutik paratu**: 'zutik jarri': «Erematen gindue ikatz egiteko plazara, eta an inguruka paratzen gindue, egurra ongi txutik».

**txutitu** *da* ad. 'zutitu' «Txutitu ze, eta ilerrosi zitue bere soñeko guziak eta suge aundi bat erori zen lurrera».



## U

**Uarte, Huarte.** Nafarroako herria: «Aste batean Uartera juan zire aita alabak»; «An aurkitu nitze Iruña ondoko Huarteko seme batekin». (Euskal izena **Uharte**).

**uda, ude** iz. ‘uda’. **uda**: «Mendietan ere badire arront ur onak: Ligeztan, neguan epela eta udan otza»; «Agotzak bide guzitik... eta udako ultzi urriña bide guzian». **ude**: «Ala pasatu ze ude ure, eta bertzeko nere egosik aundienak sendatu zire eta urbilen udeko aski ongi gelditu nitze»; «Lau edo bortz udez juan zire gure etxera izeba Karmen bere illobeki». Maiztasun bertsuarekin ageri dira bi aldaerak.

**ude** ik. **uda**.

**Uerka** Mt. (of. **Ubarka**).

**ugalde, ugelde** iz. ‘ugaldea, ibaia’. **ugalde**: «Mari iturriko errekan (au ugalderaño), toki geiagotan bada ur geiago»; «Ur soñuak nasten zire ugalde, erreka nola iturriekin». **ugelde**: «Iduritzen zaide azkenian itzuliko direla ugalde edo errekarra»; «Urtu dire elurak bazter guzietan, eta ur anitz badago ugelde eta errekan». Gehiagotan ageri da *ugalde* forma.

**ugazaba** iz. ‘ugazaba, zaindaria, patroia’: «Mezkirizko eliza aspaldikoa da. Kristobal Deuna da ugazaba»; «Uretan beren besta aundia San Juanen lepo moztea da eta eliza artako ugazaba egiteiak, egiten zute bere besta aundie».

**ugazama, ugezama** iz. ‘ugazama, amaordea’: «Arront maite zute elkar eta denek amari, etzelakoz ugezama izen berendako, baizik egizko ama bat ona». *Ugazama* ere aipatzen du pasarte berean.

**ugelde** ik. **ugalde**.

**ugezama** ik. **ugazama**.

**ukerai** iz. ‘ukaraia, eskumuturra’: «Errori ze eta besoa edo ukeraia autsi zue».

**uki** iz. ‘ukia, ukitzea’: «Bertze amerikano bat ere bada [...] ukian, bañan egia zela ondo ez nekian».

**ukitu** *du* ad. ‘ukitu’: «Nik ez dakit nola bizi garen gaitz orrek ukitu zigun guziak».

**ukondu** *iz.* ‘ukondo».

**ultzi** iz. ‘eultzia’: «Ultziak biltzen aiko zire, ortzilaria zen eta denbora ezin ederragokoa. Agotzak bide guzitik... eta udako ultzi urriña bide guzian»; «Uztaillan ondar egunetako ultziak altzine ziren eta dagonilaren amarreko eginak».

**ulzamar.** Herritar izena: Ultzamarakoa. (Euskal izena **ultzamar**).

**ume** iz. ‘umea’, ik. **aur**.

**umealde, umealdi** iz. ‘umealdea’. **umealde**: «Lemexikoak bazue umealde bat, ez dakit zenbat ebetaik ezagutu ote zituzten aitatxi amatxiek»; «Ulzamarra da, eta izen ditu umealde ederra, nik ez dakit zenbat»; «Bere laniakin azi zue umealde ederra». **umealdi** ere erabiltzen du erranahi horrekin berarekin, baina ez ‘sabelaldia’ adierazteko: «Amak idatzi zio nola zuen umealdiaikin etxetik etzela aise ateratzia»; «Izan dire aurrak, arront aise ikesten zutenak beren ikasi bearak. Eta gero bertze umealdian, etxe berean berdin, arront abilak».

**umealdi** ik. **umealde**.

**umerri** iz. ‘umerria, bildots errea’: «[Bataioko bazkarian] umerri denboran balin baze, umerria; bertzela ollaskoak».

**umil** izond. ‘umila, apala’: «Martixu bezain langileik eta umilik ez da errax aurkitzea».

**umiltasun** iz. ‘umiltasuna, apaltasuna’: «Ain xaloa denekin, alako umiltasuna eta indartasuna bere naigabetan...»; «Bere baitan zegon indartasuna, maitetasun aundi bat, umiltasun gaitza, goi maitetasun bizkorra».

**unai, unei** iz. ‘unaia, behizaina’. **unai**: «Nere aite Sorogañen unai zegolaik, berdin ze arendako izan zeien Baigorrikoa nola Mezkitzkoa, denak egunoro ikusi nai zitue». **unei**: «Urte batzuk izan zire Sorogaingo uneiak aita semeak, aite ze uneia, baño semeak laguntze zio».

**unaintza** ik. **unaitza**.

**unaitza, unaintza, uneitza, uneintza** iz. ‘unaitza, behizaintza’. **unaitza, unaintza**: «[Aitak egiten zuen lanaren izena] unaitza, unaintza ze». **uneitza**: «Asperu ze nere aita nardagarrizko zikinkeria ebekin eta utzi zue Sorogaingo uneitza eta Artziberko Iriberrikoa artu zue». **uneintza**: «Nere aita ondotik artu zue Sorogaingo uneintza».

**unei** ik. **unai**.

**uneintza** ik. **unaitza**.

**uneitza** ik. **unaitza**.

**ur (urr)** iz. ‘hurra, hurritzaren fruitua’: «Bertze anitz zuaitz geiago bada: lizarrak, ezkiak, makalak, gereziak, sagarrak, aranbeltzak, urrek...»; «Begi beltzaranak geienak, baño urrak bezalakoak».

**ur** iz. ‘ura’: «Ur auserki zego denendako, eta azienda guziek erematen zute ur edate-ra»; «Ura anitz sartzen ze eskola zarreran»; «Orai ure bada etxetan eta auserki, baño lenago ur eske juaten zire iturrire». **ur urean** ‘uretan blai, txipatua’: «Al bezala etorri zire etxera ur urean eta amak idorrazi eta arropa idorrak parazi eta artu burutik larru bana».

**urbil**, adlag. ‘hurbil’: «Erran zio bestak urbil zirela eta etorri zeikela bestetara». **-gana urbil**: «Orengana urbil, baratze bat ondoan bada bertze etxe tiki bat, Beñardoña»; «Nere iduriko, ebanjelio sanduko andre azkarra bezalakoa ze eta uste dut beregana urbil dagola». **-ra urbil**: «Nere etxera urbilena da Paxkualeneko borda»; «Bertze bat ezkondu ze, bere sortu erriko errira urbil zen erri bateko mutiko batekin».

**urbilen** izond. ‘hurrengo’: «Urbilen ilbeltzaren ogei eta bortzean sortu zitzaigu aizpa bat»; «Urbilen uda berrian, izen nue bertze gertaera bat».

**urbilezi du** ad. ‘hurbilarazi’: «Itzaldi ederak egiten zitue gure biotzak xamurrezteko eta gure Jaungoikoarengana urbi-lezteko».

**urdail** iz. ‘urdaila’: «Ebakuntze aundi bat egin ziote urdaillean».

**Urdazubi, Urdazuri**. Nafarroako herria. Deklinatua: *Urdazubin* (behin), *Urdazurin* (behin). (Euskal izena **Urdazubi**).

**urdetoki** iz. ‘txerrikotia, txerritegia’, esam: «*Aprile biribile, urdetokien txerri ile*». Sin. **txerrikoti**. Ik. **toki**.

**Urepel**. Nafarroa Behereko herria: «Urepel alde artara ezkondu ze». Deklinatua: *Urepelen, Urepelgo, Urepela*. (Euskal izena **Urepele**, of. **Urepel**).

**Ureta**. Erroibarko jaurreria. Deklinatua: *Uretan, Uretako*.

**Uretaarri** Mt. (of. **Uretagerri**).

**urigel** iz. ‘igela’: «Txorien abestiak denak nasik, bai eta urigelak krok, krok, krok eginez».

**urin** iz. ‘gantza, koipea’: «Eztul puxka bat egiten bazitzeio, orduan ollo urineikin igortzi edo gantzutu iten zitzeio aurrari bizkarra eta bulerra».

**urketu da** ad. ‘urkatu’: «Urte berean Iruritako bordetan urketu ziren iru seurik [...], urketzea aiendako ze eritasun bat, aizeak erematen zuena batetik bertzera eta urte artan kokatu ze bordetan».

**Urkooian** Mt. (of. **Urkoian**).

**urkullu** iz. ‘kurrika’: «Urkullu edo tenaza egur aundiak biltzeko suaren gañera».

**urren** adlag. ‘hurran, hurbil, zorian’: «Aurra erri ontako senar emazte batzuk bilatu zute, trapu zar batean inguratua, baño illurrena. Eginal guziak bide edo iru egunez, ongi jantzi, bataiatu, sendagilleai

- erakutsi, baño denbora geiegi egon zen mendian eta gaixoa zerura igo ze goiz eder batean»; «Egon ze gaizki, il urren, il urren, il urren; nolapait gise sendatu ze».
- urri** iz. ‘urria (urtearen hamargarren hilabetea)’.
- urrikaldu** *da* ad. ‘urrikitu, errukitu’: «Urrikaltzen nitze arront gibel zeudena guzietaz»; «Erran nion begiratzeko ongi zer egin eta berak egin bear zuela egin bearra gero urrikaldu gabe egiten zue-naz». Sin. **urrikitu**.
- urrikitu** *da* ad. ‘urrikitu, errukitu’: «Ez da urrikituko segido egiteaz». Sin. **urrikaldu**.
- urrin** iz. ‘urrina, usaina’: «Aize pizka batek erematen zue urrin goxo bat xoko guzietara»; «Loreak, belar ebakiak, maurgiak, intzak; denen artean izaten ze alako urrin goxoa... ez daike aski erran»; «Batek urrin zikina botatzen zuela agotik, eta etzuten egon nai bere ondoan».
- urrixa** izond. ‘(abere) emea’: «Erematen zelaik zezenera beia, nai zutelaik ume urrixa erematen ze goizetik».
- urrun**, **urrunik** adlag. ‘urrun’: «Bazute zetzaz negar egin beren sortu erriko erritik ain urrun»; «Berak juanik urrunik ere».
- urrunik** ik. **urrun**.
- urrunkara** adlag. ‘urrutixko’: «Irugarren anaia ori bizi da oraño. Frailea da eta geienean urrunkara bizi da, baño arron euskalduna da».
- urrutizkin** iz. ‘urrutizkina, telefonoa’: «Atsalde batez deitu zire urrutizkiñaz nere anaiak».
- urtebeteko** iz. ‘urtebetetzea’: «Nik erran nion: dagonilain iruan nere urtebetekoa da, utzi dezakegu orduko, baño ez nue deus erdietsi».
- urteoro** adlag. ‘urtero’: «Senar emazteak, urteoro ume bat ekarriz bizitu zire zenbait urtez eta amazpigarrena izen zute alaba zarrenak ezkondu eta bere le-mexiko eta ondar semea izen zuelaik».
- urtu** *da* ad. ‘urtu’: «Biotza urtzen zaio bere aita amarekin solas egiten ai zela».
- Usein** Mt. (of. **Usain**).
- Useinbixker** Mt. (of. **Usainbizkar**).
- Useingo erreka** Mt. «Udaberrian, denbora ontzen zenean, juaten gine Useingo erre-kara»; «Useingo errekin ondoan». (of. **Usainerreka**).
- Usetxi**. Esteribarko herria.
- uso** iz. ‘usoa’: «Uso xuri bat atera omen zen beregandik».
- uste** iz. ‘ustea, iritzia’: «Ez zue erran sorginek zirala, baño badut uste alako zerbait zela dena». **uste izan** *du* ad. ‘pentsatu’: «Beti uste izen dut denek maite diretela anitz».
- usteik gutianean**, **ustei gutianean** adlag. ‘ezustean, ustekabea’. **usteik guti-anean**: «Il ze usteik gutianean biotzeko min batekin»; «Nik bertze lanik ez nuken bezala, usteik gutianean juaten nitze ikus-tera zer ai ziren». **ustei gutianean**: «Ogeite amairutan il ze ustei gutienian».
- ustegabeko** izlag. ‘ustekabekoa’: «Ain ustegabeko afera atera ze neretako».
- ustez** adlag. ‘sinetsiz, pentsatuz’: «Ustez ala zela izenpetu zue».
- utzazi** *du* ad. ‘utzarazi’: «Eritasun bat utzazi eta bertze bat artu, ala utzi zue eritasun bat eta artu zue senositis deitzen dena».
- uztaill**, **uztaile**, **uztaille** iz. ‘uztaila’. **uztaill**: «Uztaillan ondar egunetako ultziak altzine ziren». **uztaile**: «Mezkirizko eliza aspal-dikoa da. Kristobal Deuna da ugazaba. Bere besta uztailearen amarrean da». **uztai-ll**: «Ezkondu gine mila bederatziegun eta ogeita amekan uztailearen ogei eta bian».
- uztaile** ik. **uztaill**.
- uztaille** ik. **uztaill**.
- uztartu** *da* ad. ‘uztartu, ezkondu, esposatu’: «Juan den asteazkenean uztartu ziran erri ontako elizan». Sin. **esposatu**, **ezkondu**.

## W

**Wiedma.** Argentinako hiria.

## X

**Xabier, Jabier.** Nafarroako herria. Deklinatua: *Xabierko, Xabierera* [sic, behin], *Jabierra* [sic, behin], *Xabiertik* (behin), *Xabieretik* [sic, behin]. (Euskal izena **Xabier**).

**xagon** iz. ‘xaboia’: «Artzen gindue arropa zikina, xagona eta bear ziran gauza guziak eta ederki garbitzen ginduze». Ik. **lixu**.

**xagonada** iz. ‘lixiba’: «Orduan denak ongi egin bear zire eta denak eskuz; lixu aundiak, xagonadak eta ogia ere etxean egiten ze». Ik. **lixu**.

**xakile** iz. ‘zakila’: «[Gizonak medikuari erran omen zion] xakile, xakilean zuela mine».

**xalo** izond. ‘xaloa, maitagarria, atsegina’: «Arront gizon xaloa zen eta langilea»; «Emakume ederra aurpegiz eta gorputzez eta arront xaloa».

**xaltxa** iz. ‘saltsa, nahasmendua, istilua’: «Xaltxa orrek desin zue andre gaixoa».

**xamur** izond. ‘samurra, beratza, biguna’: «Gure biotza xamurra da».

**xamurrezi** *du* ad. ‘samurrarazi’: «Gure biotzak xamurrezteko eta gure Jaungoikoarengana urbilezteko».

**xardin** iz. ‘xardina, sardina’: «Xardin zar bat eman nio eta oraino erreten direte zerekin egin nuen, ez zutela egundano ain paella goxoik ian».

**xarmanki** adlag. ‘ederki’: «Soñeko xuria aski txarra zego, baño lore xuriak paratu nezkio ongi brodatuz eta gelditu ze xarmanki».

**xarmant** izond. ‘ederra’: «Baditu semea eta alaba xarmantak»; «A ze andre xarmanta artu zuen!»; «Bago ederrak Sakarten dire, aritz xarmantak ere».

**xaxari** iz. ‘xaxaria, pilota patidetan tantoak kontatzen dituen», esam. «*Pilotari xaxarra xaxari on*».

**xeatu, xeiatu** *du* ad. ‘xehatu’. **xeatu**: «Ai gine egur xeaten eta biltzen». **xeiatu**: «[Egurrak] xeiatu eta ereman gindue etxera».

**Xeberoiña** Mo. Ik. **Juan Martinena**.

**xeiatu** ik. **xeatu**.

**xerradatu** *du* ad. ‘zotala -zoruko belarra bere zainetan duen lurrarekin- kendu’: «[Labaki berri bat egiteko] lenik sasi guziak moztu ginduz eta idorrazi, denak bitartean xerradatu gindue, dena idorrazi ongi eta multsuka paratu, azpian lar eta ezpelak, urrak eta sasi guzietarik, gañan xerradatu ginduen guzia eta eman gindio su multsu guziei eta asi gine ailtzurtzen labaki guzia».

**xerrenda** iz. ‘oihal zatia’: «Lotu xerrenda batekin».

**xertatu** *du* ad. ‘txertatu’: «Azkenean xertatu gindue eta ongi kostatze obekitzea, baño ortaik sendatu ze».

**xilko** iz. zilborra’: «Txatar txiki bat gisa ontan xilo bat egina: xilotik ateratzen zen xilkoa». Ik. **tripeko zilo**.

**xilo** ik. **zilo**.

**ximurkeria** iz. ‘zimurkeria, zimurdura’: «Ongi ekenduik ximurkeriak, iduri zue berri berria».

**xixetoki** iz. ‘zizatokia’: «Gero, asi geroz udaberria, baze xixetoki anitz, nik seurik banekizkie alde guzietara eta bakarrak biltzen nitue, maiatzeko xixak deitzen zire». Ik. **toki**.

**xoratu du** ad. ‘xoratu, txoratu, zoratu’: «Ama xoratzeko adine baze».

**xorazi du** ad. ‘xorarazi, txorarazi, zorarazi’: «Ederki xorazten dituzte gizonak».

**Xotoiña** Mo. [*Sotoña* (Saragüeta 1979: 10)]. Ik. **Buruzuriña**.

**xos** ik. **sos**.

**Xubindo** Mt. (of. **Zubindo**).

**xur** izond. ‘xuhurra, zuhurra’: «Gauze onez arront xur».

**xuri gorri** izond. ‘zuri-gorria’: «Erri tiki batean bizi ze neskatxa bat arront xuri

gorria, begi urdin pollit batzuekin»; «Aurkitu gindue bere obia dena lorez xuri gorritz bete bete».

**xuritu du** ad. 1- ‘zuritu, kolore zuria eman’: «Bein batez, gañeko jantzia elurrez xuritu ekarri omen zue». 2- ‘arropa garbitu’: «Orai uste dut ez dela etxe bat ere arropa xuritzeko lankaiak gabe»; «Andrea arropa garbitzen edo arropa xuritzen». 3- ‘argitu’: «Iruzkia ez da agertu goiz guzian, xuritzen bazter guziak ai zenean».

**xuxen** 1- izond. ‘zuzena, zintzoa’: «Nik maite nue anitz andrea, ain xuxena ze!». 2- adlag. «Juaten ziren xuxen xuxena iduriein altzainera».

## Z

**zaar** ik. **zar**.

**zabaltasun** iz. ‘zabaltasuna, zabalera’: «Negurto dezala bere altzineko maia, zenbat duen luzetasuna eta zabaltasuna».

**zail, zall** izond. ‘zaila, gogorra, neketsua’. **zail**: «Sasi aundiak egin dire [...] eta ebek ekentzia zail izein da». **zall**: «Zalla ze lan ori»; «Asiera zalla, arront zalla ze». Bi aldaerak ageri dira.

**zain** iz. ‘zaina’: 1- ‘sustraia, erroa’: «Indarean zire eta asi ere etxe berria egiten eta zain zañetik»; «Maitasunaren zañak ongi azkartuak dire». 2- ‘zaina (gorputzarena)’: «Besoa etzue deus ere oñazeik eta ikusi ziote zain bat beltz beltza igaten zela burura eta bertze bat besapera»; «Sendagillek erran zute zain bat ebaki ziotela, eta etzue bertzeik iduri; arront makurturik gelditu zitzaio ezpañak, agoa eta aurpegi guzia».

**zaindari** iz. ‘zaindaria’: «Denboraz irakasle eta gero zaindari ona izan ze».

**zaindu du** ad. ‘zaindu’: «Seme zarrena artzaiña egin ze beren ardiketa zaintzeko»; «Erdaraz *Siervas de Maria* deitzen dire eta gabas erien zaintzera beren etxetan juaten dire».

**Zainpeko iturri** Mt.

**Zaire**. Afrikako estatua.

**zalaparta** iz. ‘asotsa, oihua’: «Atzo artsean [...] oiua eta zalapartak».

**zalapartaka** adlag. ‘asotsa eginez, oihuka’: «Egun orrek izen zue bere bederatziturena, aste guzia zalapartaka»; «Irri zalapartaka».

**zaldi** iz. ‘zaldia’: «Erriko mutil batek juan beartzue nere aitaikin zaldi eder batekin Frantziara»; esam. «*Aldiz jauna zaldiz*».

**zalgurdi** iz. ‘zalgurdia’: «Orduen etze biribilik eta zaldiek errestatzen zute zalgurdi edo kotxe deitzen zena».

**zall** ik. **zail**.

**zalui** adlag. ‘zalu, laster’: «Austen bada zalui konpontzen dute».

**zama** iz. '(zerbaiten) multzoa': «Aitak as-toai ekendu ondoan egur zama, sartu ze etxera».

**zamuka** iz. 'abereen gainean zamak eramateko paratzen diren zurezko kakoak': «Astoa bera paratu ze egur metain ondoan eta [...] asi nitze egurrak paratzen zamuketan eta ongi arront [...] egur anitz paratu nio».

**zan** ik. **izan**.

**zango** iz. 'zangoa', esam. «*Non gogo an zango*»; «Guk geuren etxean egin gindue lo, baño zangoa sartu gabe guatzean arrosario errezzatu gindue belauriko biek»; «Emakume indartsua zangoetaik bururano».

**Zanketa** Mt.

**zanpatu** *du* ad. 'kolpatu, jo, jipoitu': «Jaungoikoak daki zer gaba eman dion, oi u eta zalapartak eta, gañera, zanpatu du».

**zapata, zapeta** iz. 'zapata'. **zapata**: «Erosi zitue zapata zuriak aurrai paratzeko». **zapeta**: «Zapeta berriak paratu ziotela erran zute».

**zapatari** iz. 'zapataria, zapata egilea': «Seme maingua ere etze sendatu deus ere, baño zapatari egin ze eta Mauleon Franzieko aldean bizitu da eta lan anitz izeten zen alderdi artan».

**zapeta** ik. **zapata**.

**zar, zaar** 1- izond. 'txarra, ona ez dena'. **zar**: «Gorroto edo gerra zar oiekin, gauza guziak nasi zire»; «Egundano ez dire gaixotegi batean egon eritasun zar batekin». Ik. **txar**. 2- 'zaharra, aspaldikoa': «Ongi gogoan iduki dut neure denboran esaera zar au»; «Ura anitz sartzen ze eskola zarrean eta guk ez gindue berrik izen»; «Xardin zar bat». 3- '(senide) nagusia(k)': «Nik lau alaba zarrenak izen nitue Iruritan eta bertze iru alaba Iruñan»; «Zazpi umetan zarrenak zitue

amalau urte»; «Seme zarrena ilik sortu zitzaigu». **zaar** aldaera noizbehinka soilik erabiltzen du: «Erran zue iortzeko aur guziak eskola zaarrera»; «Bi anai zaarrenek artzen zirete besoetaik».

**Zaragoza**. Aragoiko probintzia eta hiriburua.

**zarrerie** iz. 'zaharrerria, zahartzaroa': «Arront polliki igaro zute beren zarrerrie».

**zartasun** iz. 'zahartasuna': «Etxetik iauzi egin zue leio batetik aitak bere zartasun guziarekin».

**zartegi** iz. 'zartagina'.

**zartoki** iz. 'zahar-etxea': «Baño, ala ere, ez du ume batek ere utzi bere aita eta ama zartokira». Ik. **toki**.

**zaumentu** iz. 'ezagumendua, ezaguera': «Kalifornie alde arteara juanak zire nik zaumendu pixka bat izen orduko».

**zaundu** ik. **ezagundu**.

**zauntu** ik. **ezagundu**.

**zautu** ik. **ezagundu**.

**zazi** ik. **juan**.

**zellu** iz. 'aitzurraren moduko erreminta bat, zuhaitzen enbor eta adarrei azala eta edota txikiak kentzeko': «Ez duzu sekula entzun ze lanabes edo erramientekin egiten diran ezpelezko kuxetak? Nik errain dizut: eskuzerra, lantzeko aizkora, marraza, zellua eta marruxketa».

**zena** ik. **izan**.

**zentzu** iz. 'zentzua, ganora': «Zentzu aundiko ze eta ala egiten zitue bere lanak zentzueikin»; «Erran duden bezala, buruargiko eta zentzu aundiko andrea».

**zerbitzari** iz. 'zerbitzaria, neskamea': «Eta [baziren] denbora artan etxetan beretan beren zerbitzariendako ate bat eta berendako bertze bat zutenek». Ik. **neskato**.

**zerbitzuan egon** *da* ad. 1- 'zerbitzari lanetan egon, aritu': «Urbilen udaberrian, izen nue bertze gertaera bat zerbitzuen

nindegonengatik». 2- ‘soldadutzen egon’: «Gorrotoa asi zelaik Zaragozan zego nere anaia bat Españaiko zerbitzuan». **zerbitzua egin** ‘soldadutza egin’: «Nere aitak bazitue sei arreba eta bortz anaia, beraikin sei, baño batek ere etzue zerbitzuik egin». **zerbitzatzera joan** ‘zerbitzari edo neskame joan’: «Zerbitzatzera juatea gogoratu zitzaide; «Alaba zarrena amalau edo amabortz urtetan juan ze Baionara zerbitzura».

**zeren** junt. ‘zeren’: «Orgatik orai asiko naiz, Uretakoekin, zeren elizez eta obitegiz Mezkiritzkoak egiten dire».

**zerengatik** junt. ‘zeren’: «Ori erraten dut, zerengatik oraiko ikastoletan erakusten dute euskera guziak batean eta ongi dago, baño nik orai ez dut bertzerik, zerengatik aur aurretik orai artio izen da nerea eta ortan itz egiten dut, ori erakutsi dut eta ortan idatzi dut orai artio»; «Iru aizpa bagina eta bat beti bazego amarekin, zerengatik amaxi ere bizi ze eta bere adinaingatik lan anitz geiago izaten ze». *Zeren* baino gehiagotan ageri da *zerengatik* forma.

**zerra** iz. ‘zerra’: «Eta mendiko [erremintak]; zerra luzea, aizkorak, burdin ziriak eta mallu burdinak».

**zerratu** *du* ad. ‘zerraz moztu’: «Aitak botatzen zitue bagoak eta gero ekentzen gindeko abar eta egur me guziak, eta zerra aundi batekin zerratzen gindue dena».

**Zeruko Aita** iz. ‘Jaungoikoa’: «Geuren etxekoak aise maite ditugu, baño bertze etxekoak ere gure aurrideak dire eta denak gaude gure zeruko Aitak paratu gaituen tokian betetzen»; «Zer indartasuna zeuken gordea bere baitan eta dena zeruko Aitarengandik eldu zitzaiola». Ik. **Jaungoikoa** eta **Jinkoa**.

**Zeruko Ama** iz. ‘Ama Birjina’: «Juan gine Orreagara besarkadak lore ederrekin zeruko Amarentzat, ematera eskerrak eta

eskatzera bear ginduen gauza guziak».

Ik. **Ama Birjina**.

**zetako** gald. ‘zertako, zertarako’: «Gizajoak andrea nai du eta andre bear due, zetako iduki bear diozu bearretan?»; «Egunero mezara, zetako ez duzu eskatzen nerekako seme bat?».

**zetaz** gald. ‘zertaz, zergatik’: «Eta ez dut erran zetaz duten orai izen ebek»; «An galderak egin zigute zetaz juan ginen eta erran gindekote dena zen bezala»; «Mantxiko, zetaz erraten dituzu gauza zikin oiek?».

**zeurorrek** izord. ‘zerorrek’: «Irakurri zionak berak erran zio: aski zindue zeurorrek irakurtzea».

**zezen** iz. ‘zezena’: «Badire bei anitz, idiak, aratxe, zezena Uretan, zaldi, beor, mando, asto».

**Zidren** Mt. (of. **Zidrain**).

**Ziga**. Baztango herria.

**zigorkada** iz. ‘zigorrada’: «Denek ereman gindue geuren zigorkada ederra ura juatean»; «Nik uste dut gizon burugabe bat zela. Ori da andre langileain zigorkada».

**zigortatu** *du* ad. ‘zigortu’: «Badire zenbait senide edo famili beren bizi guzian iduri dutenak zigortatuak».

**zikinkeri, zikintasun** iz. 1- ‘zikinkeria’. **zikinkeri**: «Alako zikinkeriaik ez dezan niorei egin»; «Aspertu ze nere aita nardagarriko zikinkeri ebekin eta utzi zue Sorogaingo uneitza». 2- ‘zaborra’: «Laronbat guzietan biltzen dute zikinkeri guziak, paperezko zakutan egoten dire atarietan eta artzen tuzte». Beti *zikinkeri* erabiltzen du eta behin bakarrik zentzu bera emanez **zikintasun** hitza: «Ebakidurat aundia egin bear ziretela eta [...] zer zikintasuna atera zen».

**zikintasun** ik. **zikinkeri**.

**zil izan** *da/du* ad. ‘zilegi izan’: «Neretako etze zil deus ere artzea»; «Lemexiko ebendako zil dut beren izenak paratzea».

**zilar, ziler** iz. ‘zilarra’. **zilar**: «Aztertu gindue iakiteagatik bazuen zilar zerbait».

**ziler**: «Zilerra baño pixka bat iluntxago, baño dizdira ederraikin». Bi aldaerak ageri dira.

**Zilbeti**. Erroibarko herria. Deklinatua: *Zilbetin*.

**ziler** ik. **zilar**.

**zilo, xilo** iz. ‘zuloa’. **zilo**: «Ikusi nio sudur ziloetaik purgezio edo zorne anitz». **xilo**: «Txatar txiki bat gisa ontan xilo bat egi-na: xilotik ateratzen zen xilkoa». Ik.

**Bonbaxilota**.

**zindo** izond. ‘sendoa, bizkorra’: «Andre orrek sendatu du zure aurra eta ez bakarrrik sendatu, indartu eta bertze gañerako gauza on guziak, orrengatik duzu alaba bat azkarra, zindoa».

**zinp** **zanpa** onomat. «Neri andre alargun batek erran zire Erriberako Mendabiakoa zela eta ogeite zazpi andre alargun gelditu zirela batre berak gerrara juan gabe, zinp zanpa errian berean il zuztela»; «Ai zein ilun zegon gaur goizean elurra zinp zanpa ai zenean».

**zintzarri** iz. ‘joarea’.

**zintzo** izond. ‘zintzoa’: «Sobera zintzoa ze eta indartsua ere, doi anitz bazitue berekin». Ik. gehiagotan erabiltzen duen **txintxo**.

**ziri burdin** ik. **burdin**.

**Zirkutuña, Zirkutuñe** Mo.

**zito** iz. ‘ijitua’: «Iru umetaik bat saldu zute zito batei [...] denek uste zute pusken obeki izain zela aurra zitoaikin bere aitaikin baño»; «Baditu nere senarrak bertso berriak eginak agote eta zitoendako, baño nik ez dut maite niorei irri egitea sortu direlako toki batean edo bertzean».

**Zizilieña** Mo. [*Zizilieña* (Saragüeta 1979: 10)].

**Zizilieneko borda** Mt.

**Zizilieneko bordaldea** (of. **Ziziliareneko bordaldea**).

**zopa** iz. ‘zopa’. **esne zopa**: «Katuli aundi bat esne zopa guri guriak eginak». **ogi zopa**: «Ematen ziote katuli bat esnez eta ogi zopaz betia».

**zorne** iz. ‘zornea, materia’: «Ikusi nio sudur ziloetaik purgezio edo zorne anitz ai zela atratzen eta ni inelaki garbitzen eta gero eta geiago botatzen»; «Etorri ze eguerdi inguruan sendagillea eta erran nio eta berak ikusi zio zer zorne mota zen botatzen zuena».

**zortziegun** zenbtz. ‘zortziehun’: «Saltzen gindue guk zortziegun egunean». Ikus **egun**.

**zozotu** *du* ad. ‘ergeldu’: «An ain ongi solas egin zue, arront zozotuak zitue denak».

**zuaitz, zugaitz** iz. ‘zuhaitza’. **zuaitz**: «Bertze anitz zuaitz geiago bada»; «Neguan nere aitak eskalapuin aski egiten zue eta ateratzen zitue ezkietaik eta beti galde egiten nio ia zur ura ze zuaitzetaik atera zuen eta erraten zira ezkitik». **zugaitz**: «Egur loteak markatu eta [...] an erraten da zenbat zugaitz diren, non diren».

**Zubiri**. Esteribarko herria.

**Zudaire**. Nafarroako herria. (Euskal izena **Zudairi**).

**zugaitz** ik. **zuaitz**.

**Zugarramurdi**. Nafarroako herria. Deklinatua: *Zugarramurdin, Zugarramurdiko, Zugarramurdira* (behin), *Zugarramurdire* (bi aldiz), *Zugarramurditik*.

**zugarramurdiar**. Herritar izena: *Zugarramurdikoa*.

**zugazti** iz. ‘zuhaiztia’: «Lorez beteak ikusi naiak zugazti mota guziak».

**zukre** iz. ‘azukrea’: «Gauza oietarik egiteko ez zute zukreik eta erran ziote ia onartuko zuen bi ilabeteko agurtzea, ia bitartean zukrea ia etortzen zen».



**zur** iz. 1- 'zura': «Seaska bat zurezkoa polli-  
te ekarri zirete bere arropa berri berrie-  
kin»; «Sukaldea erdian zego eta inguru  
guzia zurezko alkiz betea zego». 2- 'zu-  
hurra', esam. «*Zurraren sakelak bi zilo*».

**zurezko sarde** ik. **sarde**.

**zurgin** iz. 'zurgina, zura lantzen duena':  
«Bozaten badire zurginak, igelseroak,

errotazaiak, txistulariak, danbolinen io-  
zaleak».

**Zuria** Mo.

**zurubi** iz. 'eskailera': «Batzuetan zurubi  
edo eskaleratik erori zela». Ik. **eskalera**.

**zutabe** iz. 'zutabea, zutoina': «Ipete gain  
gainean zutabe bat dago, teleikuskiniña  
da».

# ERANSKINAK

---



## Mezkiritz

¡¡¡Eup!!! Agur Maria... Egun on... Zer moduz?

Ez direziela zauntzen... badekit; baña ez du inport. Ez gara denak, zuek eta ni euskaldunak?...

Neuronek errain diziet nor naizen: idazle berri bat zuen “Eskualduna” irakurri eta idazi nai duen bat. Zer idaziko ote duden? Erriotoko eta Erroiber guziko, ala nola Artziberko, iakiten tuden berri guziak. Konforme zate? Abietiko ote naiz? Zer iduritzen zaizie?



2010. Mezkiritz. Ezkerretik lehendabizikoa *Juanmigelenea*, Perpetuaren sortetxea.

Denbora txarre daukegu, lan guziek gibelatuik daude.

Erri ontako festak akabatu zire eta atseñartu in due. Beti popo-po, popo-po, bearriek arras nekatuik gindeuzkie. Orai bertze urte bat artio; ongi dago! Badire zenbait eri baña ez daude gaizki eta guk ala nai.

Gereine Viskarret serorak etorri dire, erran dute berrogei edo berrogeite amar eri kari bear tuztela! Ze saltze! Gaurkoz aski de.

Agur ta bertze bat artio.

Txorrondo  
*Eskualduna*, 1930.08.08, 4. or.

### Mezkiritz

Juan den astean egin ditu arras egun onak. Baña ortzilare artsean asi zue euri eta oraino ez du baratu. Bai, ortaxeko dago. Jendea baratu gabe ari ze lanean baña orai nai duenak kurexa pare bat artu eta... paropo ebakitzen asi... nere ustez izein du asti. Juan den astean zenbait egun ederrek izen dituzte eiztariak. Egungo otoitz guziak, Aita sanduak nai duen bezala, eginak izan dire Misionen alde. Ilabete onen amekan iltze Gereñinen Biskeret elizakoak artu ondoan Linzoain'tar Juan Miguel gizon prestua eta langilea. Bere aidei nere sendimendurik biotzekoena eta zuri irakurle esketzen dizut otoitz bat aren arimain faboretan. G.B.

Aste onton bete ditu amabi urte iltzirela erri onton multxotoat "gripe" deitzen den eritasun izigarri orrekin. Orain Jaingoiko'ai esker ez degu alakorik baña alare etzaigu astean otzilare bat falta. Obekixego dire Errotar Atanexi, Erreatar Augustune eta Lekuntse'tar Eustekia. Ongi dago bere ama ere erixko da. Agur eta egon bixkor denak.

Txorrondo

*Eskualduna*, 1930.10.24, 4. or.

## Arizkun

Oraiko astian Arizkun'en aurkitzen naiz eta emen entzun dituden berriak nua idaztera ARGIA'ko.

Ikustean eta entzutean emen denak beren euskera garbian mintzatzen. Elizan... leen leemexikoik entzun ditugu itzaldi garbia eta mamitsua Irigarai'tar Gabriel jauna'ingatik; errezuak denak euskera garbi garbian. Aur batzuei galde egin daiet, ia euskera mintzo duten beti eta erran dirate: "ikastegian edo eskolan erdaraz baino andik atraz geroz beti euskeraz ai gera". Berriz erran daiet, eta ikastegian beti erderaz mintzo zate? Erran dirate, bai... baño al dugun guzia euskeraz. Ola ola nere maiteak ori egin bear duzie. Egin ala euskeraz.

Arrotz buru gogorak  
Eginala dabiltza  
Ebatseagatik<sup>1</sup> gure  
Biotzaren giltza.

Euskaldunek bear degu  
Euskera maitatu  
Ortako bear degu  
Al guzia mintzatu.

Aste ontan il dire erri ontan Iribarren'tar Zipriano adin aundiko gizona. Goyan bego.

Azpilikuetan il da Iribarren'tar Fermina neskako prestua eta langilea. Goyan bego.

Bere aidei iortzen dioet nere sendimenduik biotzekoena eta zuri irakurle eskatzen dizut otoitz bat eben animain faboretan. G.B.

Agur gaur beranta da eta ez dezaket geiago idatzi. Barkatu.

Txorrondo  
*Argia*, 1930-1, 3. or.

1 [Sic, ebasteagatik?].

## Arizkun

### Urte zar eta urte berri

Arront urte txarra izen da 1930'ko urtea erri abendako, anitz gisetara. Nekazari'entzat beti aro txarra eman duelakoz lanen egiteko erañak sortzeko eta sortuok aunditzeko eta oritzeko. Gañera beidunek ere pranko gaizki ibili dire inguru ontan, eritasun aundi eta tzar ori dela medio. Entzun degu -ez dakit egia edo gezurra- Erratzu'ko errian jua den urtean jaio direla 24, il 3, eta esposatu 14.

Atik egia balin bada bizi nai duen guzia juaten al da Erratzu'ra, gañera erri ortan ez ditu urte txarrak lotsatzen. Ala obe.

### Ezkontzak

Jua den aste azkenean uztartu ziran erri ontako elizan: Sanzberro'tar Sabina, Jaimerena'tar Braulio'kin eta Iribarren'tar Mari Kontxetxi, Irigoyen'tar Jua Pedro'kin. Zorionak.

### Eri batzuk

Eri daude Jaurena'tar Juliana, Gamio'tar Juakin. Zaldua'tar Gregori, Zilbeti'tar Tiburtxi eta Jaurena'tar Soledad. Bizkortu zaitze len baño len.

### Il da

Jua den ilabetian 27'an Jangoiko'ak bereganatu zue Uarte'tar Jua Migel, 73 urteko gizon gizajua. G.B. Beren sendiei nere sendimenduak biotzekoena eta zuri irakurle eskatzen dizut otoitz bat aren animain faboretan.

Jua den ortzilarean bete du urte bat Jangoikoak bereganatu zuela Mezkiritz'en Errea'tar Leonor 20 urteko neskatxa ona eta nere adiskide txintxo. Irakurle maitea, zeure otoitzetan ez antzi aren anima gaixoez.

### Sua

Erroibar'ko Ureta'ko Etxeberrie erre dela entzun degu, baño Jangoikoari eta Mezkiritz'ko jendeai eskerrak itzali zutela sua uste baño len. Ala obe.

### Lapurrak inguru ontan

Arront asarre da  
Jendea auzo ontan  
Lapurrak aidirelako

Beren lan zikinetan.  
 Batei faltatu zayo  
 Artoa errotan,  
 Bertze zenbaitzuei  
 Oloak etxetan,  
 Eta bertze batzuei  
 Ardiak artaldetan,  
 Eta erne ez dagonai  
 Azak baratzetan.  
 (...<sup>2</sup>) deun guziak  
 Alako kotxinetan,  
 Alke guti izanen dute  
 Beren kopetetan.  
 Erortzen balin badira  
 Sekula zepoetan  
 Pagatuko dituzte  
 Arik denak batean.

### Denbora

Aroa arront txartu du berriz ere.

Urte zarra juanik  
 Etorri da berria;  
 Eta ona izanen daien  
 Irakurtzazu ARGIA.  
 Asteoro etortzen da  
 Txukun eta garbia  
 Eta gañera guti da  
 Ordaindu bear dezun saria.  
 Agur irakurle  
 Nere utsak barkatu  
 Eta euskal gaizto guziekin  
 Iduki anitz kontu.

Txorrondo  
*Argia*, 1931-6, 3. or.

<sup>2</sup> Ezin irakurrizko hitza.



### Mezkiritz

Bazko pasatzera neure xokora etorri nitzen, baño ez Bazko pasatzera bakarrik. Neure aizpa bat erixko zan eta... Baño orai obekixago da, eta segido itzuli gogo dut Arizkun'go errira.

Kolixenean ere mutil koxkor bat erixko dute.

Ameriketen gain aldean, erri ontako mutil prestu bat il da. G.B. Billanueba'tar Eustakio.

Ortzegun sanduko egin dute erri ontan aldare berria arront polita da, eta gogoz poztu gara; tenore ze eta. Orai entzun degunez ezkil bat berria edo oraiko bat berri-tu gogo dute, eta Jaungoikoaren etxeari tellatua berritu gogo diote. Ongi dago, guziataz poztu gindezke.

Aste sanduko eta bazko eguneko elizkizun guziak arront ederrak eta beretan jende asko izan da noski.

Eldu den igandean izenen dire Jangoikoak nai baldin badu olerki ederrak, eskerrak erri ontako Maria'ren alaba txintxo eta langilei.

Arriturik nago erri ontan  
Eskuara nola ari dan aztutzen  
Eta eskuara ederraren orde  
Erdara tzirtzilka mintzatzen.  
Eta nola emengo gendea  
Arront ari da gaitesten  
Eta eben xeetasuna  
Egunetik egunera erortzen.  
Asteoro ar balezate  
Edo erosi ARGIA... a!  
Orduan... pozik ikusiko degu  
Geuren erria obia  
Eta biotzez beti betikoz  
Goratuko dute Euskal-erria.  
  
Ori gertatuko baliz... a zer poza!  
  
Agur.

Txorrondo  
*Argia*, 1931-11, 3. or.

**Mezkiritz****Alkate edo endere berria**

Pozez beterik dago  
 Mezkiritz'ko erria  
 Zerengatik egin dute  
 Endere berria.  
 Onen izena da  
 Don Javier Ibarra  
 Aspaldixkoan bazegon  
 Olakoaten bearra.  
 Ateratu dena ere  
 Gizon formala zan  
 Munduan obeagokorik  
 Eliteke izan.  
 Orrek dadukena zan  
 Sobera onegia  
 Orrengatik zenbaitek  
 Zioten "enbidia".  
 Orai sartu den onek  
 Badu erresetua  
 Uste dut jarriko dun  
 Ordena estuak.  
 Ezkerreko oietarik  
 Ez zaitela izan  
 Albaz portatu zaite  
 Euskarakin on gisan.  
 Zu endere izatiaz  
 Erriak du poz aundia  
 Zugana begira dago  
 Erriko jendia.  
 Ezkerratikoik bada  
 Gutaz egin inala  
 Eta uste dut zure eskura  
 Etorriko dirala.  
 Gora Bizkaia eta Alaba  
 Gipuzkoa eta Naparra  
 Gora Jangoikoarekin  
 Gure Lege Zarrak

Gora Mezkiritz eta  
Don Javier Ibarra.

Agur.

Txorrondo  
*Argia*, 1931-15, 3. or.

**Arizkun**

Aspaldiskoan gure belarriek  
 Entzuten dire ari  
 Esposatzen direla  
 Mantxiko eta Mari.  
 Mantxiko'k badauzka  
 Ia irurogei urte  
 Dotea kobratu arte  
 Saiatu da fuerte.  
 Mari'k ere badu  
 Bere dote puska  
 Ondo izanen direla  
 Ez dezaket uka.  
 Jangoikoaren legean  
 Egin zazte bizi  
 Eta Berarenganako  
 Ume onak azi.  
 Bertze amerikano bat ere  
 Badaukate ukian  
 Bañan egia zela  
 Ondo eznekian.  
 Eta zabaldu nai det  
 Grazia orrena  
 Erratzuko Maria da  
 Don Juan Duturena.  
 Onen andregai da  
 Keatagolekoa  
 Amerikano onendako  
 Bear bezelakoa.  
 Mundu ontan pasatzeko  
 Badauzkate diruak  
 Biak biziko dira  
 Nola aingeruak.  
 Emendik esposatzen dire  
 Gure bi aiskide onak  
 Eta ARGIA'tik iortzen dakogu  
 Biotzetikan zorionak.

Txorrondo  
 Argia, 1931-15, 4. or.



# BIBLIOGRAFIA

---



- AZKUE, R. M. (1984 [1905]): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (2010): *Hiztegi Batua*.
- IBARRA, O. (1991): “Mezkirizko toponimiaz”, *Fontes Linguae Vasconum* 58, 301-357.
- (2000): “Erroibarko eta Esteribarko hizkeraz”, *Dialektologia gaiak*, Koldo Zuazo (arg.), 149-172, Euskal Herriko Unibertsitatea – Arabako Foru Aldundia.
- (2003): “Erroibarko eta Esteribarko oikonimoak (I)”, *Fontes Linguae Vasconum* 91, 493-515.
- (2003b): “Erroibarko eta Esteribarko oikonimoak (II)”, *Fontes Linguae Vasconum* 92, 129-163.
- (2007): *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, Mendaur bilduma IV, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia.
- IÑIGO, A. (2005): *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, Mendaur bilduma I, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia.
- IRIBARREN, J. M. (1984): *Vocabulario navarro*, Nafarroako Gobernua.
- IZETA, M. (1996): *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernua.
- JIMENO JURÍO, J. M. (zuz.) (1996): “Auritz – Erroibar – Luzaide – Orreaga – Kintoa”, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra XXXV*, Nafarroako Gobernua.
- KAMINO, P. / SALABERRI, P. (2007): *Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Mendaur bilduma III, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia.
- LHANDÉ, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*. Paris.
- MITXELENA, K. (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, Euskaltzaindia.
- MUJICA, P. (1981): *Diccionario vasco-castellano*. Mensajero. Bilbao.



- SALABERRI, P. (2000): “Luzaideko euskara. Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan”, *Dialektologia gaiak*, Koldo Zuazo (arg.), 221-259, Euskal Herriko Unibertsitatea / Arabako Foru Aldundia.
- SALABURU, P. / LAKAR, M. (lag.) (2005): *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Mendaur bilduma II, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia.
- SARAGUETA, P. (1979) “Mezkiritz (Erroibar)”, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* 31, 5-36, Etniker-Nafarroa (J. M. Satrustegiren gidaritzarekin), Príncipe de Viana, Nafarroako Foru Diputazioa.
- (1979b): “Nire oroimenak”, *Fontes Linguae Vasconum* 31, 171-176, Príncipe de Viana, Nafarroako Foru Diputazioa.
- (1979c): “Trinidad Urtasun. Bertsolaria (1894-1978)”, *Fontes Linguae Vasconum* 32, 333-338, Príncipe de Viana, Nafarroako Foru Diputazioa.
- (1982-83): “Mezkirizko etxe barnea”, *Anuario de Eusko-Folklore* 31, 31-48, Etniker-Nafarroa (J. M. Satrustegiren gidaritzarekin), Eusko Ikaskuntza.
- (1984): “Mezkirizko langintza”, *Anuario de Eusko-Folklore* 32, 115-134, Etniker-Nafarroa (J. M. Satrustegiren gidaritzarekin), Eusko Ikaskuntza.
- SATRUSTEGI, J. M. (1985): “Perpetua Saragueta anderearen euskal ipuiak”, *EGAN* 5-6, 131-139.
- (1986): “In Memoriam Perpetua Saragueta (1905-1986)”, *EGAN* 5-6, 67-79.
- (2001): *Perpetua Saragueta (1905-1986)*, Bidegileak bilduma 25, Eusko Jaurjaritza.
- (1977 eta 1979): Perpetua Saraguetari egindako elkarrizketak (grabazio argitaragabeak):
1. Mezkirizko oroitzapenak... (32’29”).
  2. Bizi ibilbidekoak: Mezkiritz, Bozate, Irurita, Iruñea... (31’52”).
  3. Trinidad Urtasun senarraz... (32’31”).
- (Ikus liburu honi erantsitako MP3 audio CDa).



Mezkiritz. Trinidad eta Perpetuaren hilarria.  
Juanmigeleneko oroitarria.

